

# Lanaren gizarte historiaren esku-liburua

Mikel Aizpuru – Antonio Rivera

Servicio Editorial  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO



Argitarapen Zerbitzua  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



**Lana eginez goaz aurrera  
Lanaren gizarte historiaren  
esku-liburua**

Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren laguntzaz argitaratu da.



**Euskarako  
Institutuak argitaraturiko  
bestelako lanak**

**Euskal Herria  
Antzinate Berantiarrean  
eta Lehen Ertaroan  
Materiale eta Agiriak  
Koldo Larrañaga Elorza**

Jatorrizko izenburua: *Manual de historia social del trabajo*  
© 1979. Fernando Torres - Editor S.A.

Itzultzaileak:  
Juan Mari Arzallus  
Luis Manterola  
Antton Olano

© Euskal Herriko Unibertsitatea  
Lege gordailua: BI - 760 - 95  
ISBN: 84 - 7585 - 649 - 7

Fotokonposizioa: Edernet - Donostia  
Inprimaketa: Itxaropena S.A. - Zarautz

# **Lana eginez goaz aurrera Lanaren gizarte historiaren esku-liburua**

Mikel Aizpuru  
Antonio Rivera

Itzulpena:  
Juan Mari Arzallus  
Luis Manterola  
Antton Olano

SERVICIO EDITORIAL  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO



ARGITARAPEN ZERBITZUA  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



## AURKIBIDEA

ALDEZ AURRETIK, OHAR BAT.....	9
LEHEN ATALA	
Sarrera.....	11
1. Langile mugimenduaren historia edo lan harremanen historia? Lanaren gizarte historia.....	13
BIGARREN ATALA	
Lana historian zehar.....	19
1. Lanari buruzko gogoeta morala eta soziala.....	21
2. Produkzio moduak eta produkzio harremanak.....	33
3. Industria iraultza eta laneko iraultza: kapitalismoa.....	55
HIRUGARREN ATALA	
Lanaren protagonistak (Kapitalismoan bizi).....	77
1. Lanaren jabeak: bizi baldintza berriak.....	79
2. Landako langileak.....	107
3. Kapitalaren jabeak.....	115
LAUGARREN ATALA	
Lan indarraren egituratze prozesua: langileen asoziazionismoa.....	127
1. Langile erresistentzien hasiera.....	129
2. Langileen nazioarteko erakundeak eta gizarte ekintza katolikoa.....	163
3. Sindikalismo berria eta lan harremanak.....	179
BOSGARREN ATALA	
Gizarte erreformismoa.....	221
1. Gizarte erreformismoa, lan legetitik Lan Zuzenbidera.....	223

**SEIGARREN ATALA**

Gizarte auzia gaur egungo Espainian.....	239
1. Gizarte auziaren sorrera.....	241
2. Lan harremanak Espainian, 1910-1939.....	267
3. Langile mugimendu berria estatu frankistan.....	287
3. Lan harremanak gaur egun Euskal Herrian.....	303

**ZAZPIGARREN ATALA**

Lana gaurko gizartean.....	319
1. Lana gaurko gizartean.....	321
BIBLIOGRAFIA.....	355



## **Aldez aurretik, ohar bat**

Gaur egungo krisi ekonomikoak berriz ere gainera aterarazi du XIX. mendeko “gizarte auzia” zelako hura. Orain, gauden mende honetan zehar egituratu den Ongizate Estatuaren eta lan harremanen ereduari buruzko zalantzak piztu direlarik sektore batzuen artean, eredu horretara iristeko prozesuaren nondik-norakoak gogoratzea komeniko litzateke. XVIII. mendean gero Europako gizartearen ezaugarri nagusia izan den eta, zuzenkontra, hazkundera eta aurrerapena baliokidetzat hartu zituen hazkunde ereduak huts egin duela jakinik egin da gainbegiratu hau. Azken urteotan, mendebaleko ekonomiaren aurrerabidea eta haren ondorio sozialak aztertzerakoan, aurriritziak erabili izana salatu du historialari askok. Behar-beharrezko zen, beraz, aurkeztera goazen testu honi edo honen antzeko bati heltzea, garai hartako prozesu ekonomikoei buruz esanak, prozesu horietako protagonistak, eta protagonista horien asmoak eta helburuak berriro hausnartu eta aztertzeko, orokortze zabalegiak eta eskema sinpleegiak alde batera utzita.

Liburu hau, berez, Gizarte Graduatu edo, gaur egungo deituran, Lan harremanetako Diploma ikasketetan Lanaren Gizarte Historia ikasgai duten ikasleentzat egina da. Horiei begira egina delako, eta guk ere geure mugak ditugulago, dago testuliburu honela bideratua. Azken bi mendeetan zehar Mendebalean eratu den industria mundua da liburuaren ardatz nagusia. Alde batera utzi dira, baina ahaztu gabe, aurreko aldiak eta gure ingurune hurbilenaz kanpoko gizarteetako produkzio moduak eta pentsamoldeak. Mundu oso-osoko Lanaren Gizarte Historia egiteak beste era bateko banaketa beharko luke nahitaez, bai lanaren fenomenoaren gaineko balorazio ezberdinei dagokienez bai munduaren luze-zabalean erabiliak izateko edo trukerako sortu diren ondasunen bilakaeraren modu eta epe ezberdinei dagokienez.

Liburuak didaktikoa nahi du izan, eta asmo horren arabera egituratu dira atalak. Horiek gaika ordenatu dira beraz eta barnekoa kronologiaren arabera. Egitu-

raketa horren bidez historia liburu batek dukeen oinarrizko helburuetako bat, gertaera historikoak elkarrekin lotuz irakurleak gertaera horien zergatietan pentsa dezan alegia, erraztu nahi da. Beste ororen gainera kronologian oinarritutako azalpen batek nekez lortuko luke horrelakorik.

Liburua sintesizko esku-liburu gisa prestatu da eta horrexegatik hain zuzen ez da orri azpiko ohar argigarririk ez tokian tokiko bibliografia erreferentziarik. Horien orde, gai bakoitzaren hasieran lau libururen tituluak ematen dira, liburu hau erredaktatzerakoan gehien erabili ditugunenak, edo aztertu diren gaietako batzuei buruzko sintesizko ikuspegi osoago bat ematen dutenenak gure ustez. Halaber, gibelaldean bibliografia erantsi diogu liburuari, oso-osea izateko asmorik gabe, testu honen idazketan erabili diren liburuetako askoren bilduma bat izan nahi duena.

Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo Historiaren Saileko lankide ditugun Luis Castellsek, Félix Luengok, Pedro Novok eta, batez ere, Juan Graziak eta Ludger Meesek obra honetako atal batzuk irakurri dituzte. Bihoakie gure eskerrona egin dizkiguten iruzkin eta kritikengatik. Gainerako hutsuneak egoz bekizkie egileei, ez besteri.

Gasteiz-Gabiria  
1994ko otsaila

**LEHEN ATALA**  
**SARRERA**



# **1. Gaia**

## **Langile mugimenduaren historia edo lan harremanen historia? Lanaren gizarte historia**

Betidanik egin du lan gizadiak. Gizakiaren bizimoduaren oinarritzko elementua izan da lana. Lanean oinarriturik antolatu dira komunitateak, eta hauen ezau-garria izan da lanbideak bereiztea. Lana dela bide izadiarekin “mintzatu” da gizakia, harekin harremanetan jarri da, hura eraldatu eta bere mendera jarri du. Lana dela bide taxutu dira gizonak eta emakumeak, etengabe berritu dute beren buruaz zuten iritzia eta harremanetan jarri dira elkarrekin.

Hori horrela izan da betidanik, baina XVIII. mendea arte gizadiak ez zuen aintzat hartu lana bere gizarte antolabidearen giltzarri zelako ideia. Dударik gabe, horregatik, lana izan da harrezkero giza zientzien –hasi soziologiatik eta, ekonomiatik eta politikatik pasa ondoren, historiario– arretagunea erakarri duen gai kutuna.

Uste horrek, azkenean, historia aztertzeke eran ere izan zuen eragina. XIX. mendeko historiagintza, formari dagokionez narratiboa eta kronologikoa dena,

agintarien eta goren mailako klasekoen azterketa egitera mugatu zen batez ere, eta, bereziki, haien ihardunbideez –politika, gerra eta diplomazia– kezkatu zen “historia zahar” baten urterik oparoenak izan baitziren; XX. mendean, berriz, iraganeko gertaerak beste era batera aztertzeko modua sortu zen. Gizarte Historiak, hala deitu baitzitzaion handik gutxira, azpizkoz gora jarri zituen historiaren objektuak, formak eta subjektuak. Giza ihardueraren alor guztiez arduratu zen, hara gerturatzen tematu zen, ahalik eta ikuspuntu gehienetik (ekonomia, gizartea, kultura, politika, zuzenbidearen... ikuspuntutik). Gizadi osoa hartu zuen subjektu protagonistatzat, nahiz eta, handik gutxira, gizadi langilearekin identifikatu zen hura. Nahiago izan zuen azterketak eta galderak eginez abiatu, ezen ez gertaeren kontakizun gutxi asko aseptikoa egin. Eta, azkenean, lanean, lanetik sortzen diren gizarte klase eta taldeetan, eta lanak dakarren aberastasuna kontrolatzeko izaten diren liskarretan jarri zuen arreta osoa.

Hala bada, hasieran, gizarte historiaren ikuspegitik, lanak moldatu zituen, beste ezerk baino gehiago, gizarteen, gizartean diharduten taldeen eta talde horien arteko harremanak. Izan ere, anglosaxoniarren tradizio historigrafikoan, lanaren historia (Labour History) eta gizarte historia, edo zehatzago esateko, lanaren protagonista diren langileen historia, sinonimoak dira.

Hala ere, testu honi dagokionez, lanaren gizarte historia, tradizio handiko aztergaia izanagatik, gizarte historiaren eta, bereziki, langile klaseen edo langile mugimenduaren historiaren barruan zein aurrean egokitzen denean, halako egoe-ra zehazgabean aurkitzen dela esan behar da. Izan ere, nahiz eta hasieran lanaren historiak, bere adiera teknikoenean, lehentasuna izan zuen historia sozialeko ikasketetan, azken hau adar sendo gisa garatu izanak –batez ere *Annales* Eskolaren arrakastaren ondoren– bigarren mailako toki batera baztertu du gai hura, objektu konkretuari ordez protagonistei lehentasuna eman dien ikerketa mota baten onerako. Gauzak horrela direlarik, argi dago lanaren gizarte historia historia orokorrago baten barruan sartzen dela, historia sozialean alegia, baina hala ere, baduela zer bereizi izateko behar den nortasuna.

Gizarte historiaren barruan lanaren gizarte historiak berari buruzko arazo teknikoak ez ezik (antolabidea; erreminten, makinaren eta tekniken egokitzapena; eskaintza eta eskari prozesuak eratzeko modua; bera gertatzen den marko fisikoaren zehaztapena...) haren protagonistak, langileak eta kapitalistak (“kapitalaren jabeak” esan nahi baita) ere aztergai ditu, eta baita horien arteko iharduerak eta harremanak ere (lan indarraren eta kapitalaren egokitzapen eta finkapen prozesua produkzio modu desberdinen eskarien arabera; elkarrengandik urruntzen diren xedearen bilakaera, ahalik eta etekinik handiena lortzearen aldekoak baitira batzuk eta egitura sozioekonomikoak aldatzearen aldekoak besteak; e.a.).

Azterketaren bigarren parte hau, laneko protagonistei dagokiena alegia, areago ikertzeak aztergai berezi bilakarazi du, eta horren eraginez, lanaren historia zena, langileen eta langile mugimenduen historia bihurtu da. Eta hortxe sartzen dira, esan bezala, bata eta bestea elkarren aurka borrokan.

Metodologiari dagokionez, testu honen orientabidea lan ihardueraren eta honen protagonisten inguruko alderdi teknikoen azterketa egitean datza, azterketa hori bi termino hauek zedarrizten dutelarik: lanak eta historiak. Horrenbestez, lanak hartu dituen moldeak aztertzen edo azaltzen dira hemen, oraindik oraingo aldiaz gero, Industria Iraultzatik aurrera hartu dituen moldeak batez ere. Azterketa ikuspegi historiko baten arabera egina dago; hau da, prozesu historiko orokor jakin batzuen barruan kokatu nahi izan da laneko iharduera. Adibidez, lana arrazoiaren edo era zientifiko baten arabera antolatzeraz eraman zuten zergatiak edo zioak azaltzen dira, baina masako produkzioaren eta baliabideei etekinik handiena ateratzeko irizpidearen mendeko produkzio prozesuaren barruan. Azken batean, liburuan azaltzen dena da nola lana antolatzeko molde batzuk irizpide produktibo bati egokitzen zaizkion, irizpide kapitalistari alegia, zeina historiaren une jakin batean gertatzen baita, eta beste errealitate batzuk baititu inguruan eta batera: burgesia gizartean eta politikan goragoko mailalara igo izana; gremiotan eta estamentutan antolatutako tradiziozko gizartearen kaltetan gizarte liberala finkatu izana; garraiabideen iraultzak merkatu handiak zabaldu izana; e.a. Horrela, lanaren soziologiaren edo enpresa antolakuntzaren esparruetan sartu gabe, zentzu historikoa ematen zaio beste materia horietan azaltzen denari. Beste adibide bat: hemen ez da langile mugimenduen historia azken-azkeneraino lantzen –hori historiaren edo, zehatzago esateko, gizarte historiaren egitekoa litzateke–, langileen erakundeen egoera eta egintzak –lanarekiko erlazioarekin zerikusia dutenak bakarrik– azaltzera mugatu gara hemen; hau da, gizartearen eta, ondorioz, produkzio ihardueraren beraren antolaketarako alternatibak proposatzean langileen erakundeek lan harremanak edo honen irizpide orokorrenak zehazteko izan duten zereginen garrantzia azaltzera mugatu gara. Metodo hau zergatik aukeratu dugun arrazoitzeko ikus dezagun A. Tourainek, “sindikatu ekintza” kontzeptuaren bihurritasuna dela eta, egiten duen hausnarketa:

“Sindikatu ekintzaren alderdi biak, erreibindikazioa eta negoziazioa, ez dira soil-soilik lan harreman kolektiboaren egoeraren ondorioz gauzatzen, ezta enpresaren egoera ekonomikoaren eta ekonomiaren egoeraren, jabearen edo Estatuaren erresistentzia gaitasunaren, salneurrien gorabeheren eta abarren ondorioz bakarrik ere. Erreibindikazioak eta negoziazioak ekin nahi bat adierazten dute, laneko eta gizarteko harreman sozialak ulertzeko modu bat daramate beren baitan. Sindikatu ekintza ez da, soil-soilik, estrategia eta taktika; politika da beste ezer baino lehen; ekintza esparru bat eratzen du, ekonomiaren egituraketak eta egoerak zehazten duten esparruan abantailarik gehienak lortzen saiatzera mugatu ordez.” (*La conscience ouvrière*, Paris 1966).

Ikuspegi horren arabera, lanaren gizarte historia honako ekarpen hauek taxutu litzateke:

- gizarte talde eta gizarte klaseen gizarte historia, eta berorien arteko harremana.
- tekniken eta produkzio baliabideen gizarte historia (ez estatikoa edo, soil-soilik, deskriptiboa)
- lan legediaren, Estatuaren eta produkzio modu jakin bat osatzen duten era guztietako legeen historia (juridikoa).
- lanaren soziologia, edo barneratze mekanismoen eta historian proposatu diren produkzio prozesuei eman zaizkien erantzunen gaineko ezaguera.

Azken finean, lanaren gizarte historia historia zabalago baten (gizarte historiaren) parte dela hartzen da abiapuntutzat, eta giza ekintza beronen produkzio iharduearekin zerikusia duen guztiaren bidez azaltzea da berorren helburua. Zentzu honetan, lanaren historia langileen historiaz haraindikoa dela esan badugu lehen, beste horrenbeste esan dezakegu orain, “lan harremanen historia” delakoaren garrantzia neurtzeari dagokionez.

Langileriaren historian hiru aldi bereizten dira gutxienez. Hiru horietako lehenengoan, 1960. urte ingurua artekoan, langileriaren historia langile mugimendurena bera izan zen, irabazi edo galdutako gatazkei (grebak), santututako militarrei (langile buruzagiak) eta gudarosteei (sindikatuetakoko militanteak) buruzko kontakizun bihurtzen zuten “keinu” positibistez kutsatua. Funtsean, langile klasea langile mugimenduren azpian geratua zen, Pérez Ledesma eta Alvarez Juncos, Espainaz mintzatuz, azaldu zuten prozesu honen arabera:

“Historia “sozialak” klase xeheak ditu ardatzat, hauek baitira gizarte osoaren barneko muina, eta, kapitalismoaz ari garenez, horien artean industriako langilea da ardatz nagusia; azken honetatik “langile mugimendua” aztertzen da, hau baita haren adierazpide naturala; ondoren, langileen alderdiak hartzen du mugimenduren tokia; beste pauso bat eta “Alderdia” daukagu, Milliband-ek garbi ikusi zuen garrantzi handiko aldaera semantikoa hain zuzen; azkenean, alderdiaren tokia aparatuek hartzen du, eta buruzagi gorena aparatuen pertsonifikazioa da. Kontzepzio politiko oso baten adierazgarri den prozesu bitxi honi esker, “historia sozialtzat” har daitekeen biografia onargarri bakarra langile buruzagi batena da”.

1960-1980 bitarteko urteetan bideratu zen bermoldaketak –orduko izen ospetsuen artean aipagarriak dira, besteak beste, Thompson edo Hobsbawm– “berreskuratu” egin zuen historia hau langile klase osoarentzat, honen barne daudelarik gertaera sozial hartan protagonista izan ez ziren sektoreak, gatazka, eta baita langileriaren tradizioan klasikotzat hartzen ziren deskripzioetatik landa zeudenak



ere (Hobsbawm-ek “lehen matxinatuak” deitu zituenak, miserableak edo, beste muturrean, langile aristokrazia).

Langileei buruzko historiografia honen azken unean, 1980. urtetik aurrerakotan, bi errebisionismo agertu ziren azalera. Lehenengoak gizarte historiari dago-kion esparru politikoa berreskuratzera jotzen du, eta batez ere dio, langile mugimenduaren historiaz ari dela, kontuan hartu beharreko oinarritzko faktorea esperimentzia edo kontzientzia baino areago mintzaera bera dela, ekintzen adierazpen sozialaren eta politikoaren eraikitzaile gisa harturik mintzaera hori.

Langileen historia sozial berriaren bigarren gaiak, lan harremanen historiari dagokionak, lanaren historia instituzionalaz ihardutea du helburu. Gauzak horrela direlarik, Estatua (legegintzarako eta zuzenbidezko esparruak sortzeko ahalmena duela) eta langileen eta jabeen elkarteak (ezen ez giza taldeak) dira subjektu protagonistak.

Lanaren historia langileen historiaren edo industria harremanen historiaren balio bera emateraino sinplifikatuta ere –ideologiari dagokionez bata eta bestea elkarren kontrako muturretan izanagatik–, bi historia horien ekarriez gaindi iristea eta berorien lorpenik aipagarrienak beretzea da orrialde hauen helburua. Langileen historiatik, batez ere 1960-1980 bitarteko urteetako bermoldaketatik, historikoki langile klasea osatu duten talde aurkariak eta ezberdinek jaso duten erre-alitatea ezagutarazteko langileek egin duten ekarpenaren handia aprobetxatu nahi da. Hala ere, argi dago ekarpen horretan bigarren mailako tokia utzi zitzaio-la burges taldeen eta Estatuaren protagonismoari. Beraz, esan beharko litzateke ez dagoela gatazkarik, are gutxiago klase borrokarik, ez badira, gutxienez, bi klase. Eta klase bat ez zaiola beste bati gailentzen Estaturik ez bada.

Beste aldeko muturrean, industria produkzioari dagozkion harremanen historiak lehen “ez ziren” bi protagonistak fotografia sozialean sartu baditu ere, historia politiko zaharrera itzultzea baino ez du proposatzen hark, beste bide batzuetatik berriro hara itzultzea, eta ez dio klaseen arteko harremanak legeriazko ikuspegietatik aztertzeo tentazioari ihes egiten. Ikuspegi horiek, garaian garaiko prozesu sozioekonomiko nagusietatik edo talde informalen ihardueretatik landa aplikatu ohi direnak, zalantzan jartzen dute gizartean elkarren aurkako interesak izan badirela (ikuspegi kontserbadorea, zentzu horretan).

Beste arrazoi batzuetatik, baina muga horiek gainditzeko asmoz beti ere, langileen mugimenduaren historiaren edo lan harremanen historiaren arteko hautaketa egin beharra saihestu nahi da liburu honetan, eta gai berezi eta askoz bihurriago bat proposatu: lanaren gizarte historia.



**BIGARREN ATALA  
LANA HISTORIAN ZEHAR**



# 1. Gaia

## Lanari buruzko gogoeta morala eta soziala

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. LANARI BURUZKO IRITZIA ANTZINATEAN
3. LANARI BURUZKO IRITZIA JUDUKRISTAUEN ETA ERDI AROKO PENTSABIDEAREN ARABERA
4. LANARI BURUZKO IRITZIA BERPIZKUNDEAZ ETA ERREFORMA PROTESTANTEAZ GEROKO GARAIAN
5. LANARI BURUZKO IRITZIA GAUR EGUN

### Kontsultarako liburuak

- Díez, F., *Viles y mecánicos*, Valentzia, Edicions Alfons El Magnànim, 1990.
- Le Goff, J., *Tiempo, trabajo y cultura en el Occidente medieval*, Madril, Taurus, 1983.
- Manzanares Martínez, D. A., *Temas de Historia Social del Trabajo*, Barzelona, DM-PPU, 1992.
- Offe, C., *La Sociedad del Trabajo*, Madril, Alianza, 1992.



## 1. Sarrera

Nekez aurkituko dugu lana zer den azal diezagukeen definizio bakarra, eta are nekezago, hura denboran eta espazioan zehar ulertzeko bide bakarra. Oro har, giza ekintza da lana, energia gastu bat dakarrena, helburu material edo ez-materialen bat lortzeko jakinaren gainean eta nahita egiten dena, eta sorburu edota eragiletzat gogo hutsunea, lanaren egilearen baitako gabezia edo beharren bat duena. Lan iharduerak, bere adiera modernoan, iharduera antolatua, berezitua eta ordaindua izatea ditu ezaugarritzat.

Lanaren bidez gizakiak izadia eraldatzen du eta,aldi berean, aberastasuna sortzen eta bere errealitatea jasotzen du. Horrenbestez, Historia, neurri batean, giza beharrak sortzeko, betetzeko eta, berriro behar berriak sortzeko, lana oinarritzat harturik abiatzen den prozesua da. Lanak, garaiak igaro ahala, zenbait molde berezi hartu du, gero eta konplexutasun eta teknifikazio handiagoko moldeetara etengabe eraldatuz. Izan ere, oinarritzko bereizkuntzekin batera (produktzio lana/denbora pasako lana, eskulana/burulana) gero eta nabarmenagoa da lanaren eta naturaren arteko jatorritzko harreman zuzena ez zaiola bete-betean egokitzen gaur egungo lanaren errealitateari; hori horrela izatea produktzio prozesuaren konplexutasun gero eta handiagoaren ondorio da. Nahiz eta lana ez den sekula gizarte baten oinarri antolatzaile bakarra izan, argi dago garrantzi handiko zeregina izan duela ezein gizarte ereduaren mailakatzeari; nolana ere, gaur egun galtzen ari da kontzientzia eta ekintza sozialak zehazteko zuen ahalmen pribilegiatuaren zentzua.

Lanari buruzko azterketak era askotako alorrak hartzen ditu: lanaren alderdi teknikoari dagozkionak batzuk, gizakia lanpostura eta ingurune fisikora nola egokitzen den esate baterako; lanaren alderdi moralari dagozkionak, nola langilearen prestakuntza maila, honen motibazioak, kontzientzia maila, jasotzen dituen ordainak...; eta lanaren alderdi sozialari eta ekonomikoari dagozkionak gainera, aberastasunaren sortzaile eta, oro har, kapitalaren aurkako faktoretzat harturik azken horiek.

Lanaren antolaketa soziala laneko iharduerari darizkion zeregin guztiak lan-gileriaren egitekoarekin lotzean sortzen den gizarte egitura jakin baten zertze historikoa da. Betebehar hauek erakunde, arau, usadio eta ohitura multzo baten bidez betetzen dira, eta berariazko lan moldeak bersortzeko eta lanaren egileak gizarte egitura berezi batean sartzeko joera dute.

## 2. Lanari buruzko iritzia Antzinatean

Gizakia gizaki denetik beti izan da lana. Lan egiteko moduak eta hari buruzko iritzi sozialak eta moralak, ordea, aldatu egin dira. Lanari buruzko jarrerak

funtsezko zeregina du gizartearen funtzionamenduan eta egituraketan. Lana ekonomia mailaz gaindikoa da, zertzen den kulturaren arabera da, eta, aldi berean, eragin nabarmena du hartan bertan. Horregatik, lanari buruzko balorazioa denboraren eta espazioaren arabera aldatuz doan gizarte eraikuntzak berak ematen du. Gehienetan, lanari buruzko iritziak hura gaitzesten dutenen eta goresten dutenen artean dabilta; baina ezin ukatuzkoa da lanaren balioa gaitzesten duen gizarte batek aukera gutxiago izango dituela aurrerakuntzak egiteko eta gaur egungo munduan eragina izateko.

Antzinatean, eskulanari eta burulanari buruzko balorazioak elkarrengandik aldentuz joateak ezaugarritu zuen lana ulertzeko modua. Burulanak lehen zuen ospea gorde zuen; eskulanak, aldiz, pixkana galdu egin zuen berea. Grezian, K.a. IV. mendea arte, laborari libreek eta artisauek gizartearen onespina zuten, eta kargu publikoak ere betetzen zituzten. Antzinatean giza izateak berezkoa zuen zerbait zen lana; aurrerabiderako iturri zen eta, aldi berean, zeregin morala betetzen zuen, justizia ezartzeko modu eraginkor gisa harturik. Hesiodo, Sokrate edo Perikle harro agertzen ziren greziar artisaunen eta laborarien trebetasunaz.

Baina mende horretatik aurrera, eta esklabotasuna zabaldu ahala, eskulanari buruzko balorazioak behera egin zuen, esklaboari zegokion zeregintzat hartu baitzen. Eskulanaren gutxiespen hori sail txikitako laborariak eta beregaineko artisaunak, teknikoak eta are artista batzuk ere, eskultoreak adibidez, hartzeraino zabaldu zen, Aristotelek eskuzko lan guztiak prestutasunik gabeak zirela esanarazteraino.

Nolanahi ere, gaitzesgarritzat hartzen zena ez zen lana bera, mendekotasun egoera baizik, behartasunean bizi arren inoren mendekoa ez zen laborari librea bizi maila handiko esklaboaren gainetik baloratzen zuen askatasunaren psikologia baten ondorioz. Esklabotasunak are gehiago indartu zituen eskulanaren aurkako aurriritziak eskulana askatasunik ezarekin lotzean. Gainera, lanari buruzko iritzi ezkor horrek teknikak ez aurrera ez atzera egitea ekarri zuen ondorioz, esklabotasunaren gaitzespenak eskulan mota guztiak kutsatzen baitzuten, beregaineko eskulana barne. Langile gehiagoren beharra izan zenean, eta prezioek gora egin zutenean, orduantxe aldatu zen egoera, eta zuzpertz zerbait lanaren balioa.

### **3. Lanari buruzko iritzia judukristauen eta Erdi Aroko pentsabidearen arabera.**

Kristautasunean lanari buruzko bi joera agertzen dira. Bibliarentzat jatorrizko bekatuaren ondorio da lana eta ez da sortzailea, Jainkoa baita gorengo sortzaile



ahalguztiduna. Gizakiak berriz, lanaren bidez berritzen du mundua eta horrek bere nortasuna zehazten laguntzen dio. Lana, berez, ez da gauza txarra; bekatuak bihurtzen du astun eta aspergarri. Sufrimenduak berekin dakar salbazioa. Lanari buruzko ikuspegi horren parean beste ikuspegi bat garatu zen, lana iharduera baliagarri eta duintzat hartzen zuena, antzinako filosofoek ez bezala. Kristautasunaren lehen jarraitzaileak artisauek, laborariak eta behe klaseetako jendea ziren. Nolanahi ere, merkataritza iharduera arbuizatzeko joerak aurrera egin zuen. Kristautasunak lanaren aurrean agertzen duen jarrera bikoitz honek antzik ez du Sortaldeko beste erlijio batzuenarekin, budismoarekin, hinduismoarekin edo Zen sinismenekin, hauentzat guztientzat zoriontasunaren adierazpide baita lana.

Eliza esku handiko erakunde bilakatu zenean, goi mailako klaseek itzal handia zutela, erlijioaren sortzezko izaera galdu zen, lanaren duintasunari zegokionez batez ere. Aristoteleren pentsamendua berrreskuratu zen horrela, gizaki librea eskuzko lanak egitetik landa uzten zuena, berez esklaboei eta klase xumeeneko jendeari baitzegokien lan mota hura. Erdi Aroan gizakiaren bitarteko soil izanez jarraitu zuen lanak, ez haren ihardunaren xede. Iritzi horren adibide argigarria da gaztelaniazko “trabajar” hitzaren etimologia, latinezko *tripaliare* (torturatzea) hitzetik baitator; mendebaleko gizarteetan, hitzaren adiera hori gorde egin da neurri handi batean<sup>1</sup>. Bestalde, lanaren bidez aberasteko aukerari uko egiten zion jarrierari etsi zitzaion, aberastasunerako jaidura erlijioak debekatua baitzuen.

Goi Erdi Aroan (V-VIII. m.) lanari buruzko ikuspegi murriztasun hasi zen; ikuspegi horren arabera lana eskulan eta eskulana laborantzako lan bihurtzen zen; prestakuntza bereziko lana ia desagertu zen, eta lurrarekin guztiz lotuak ez ziren iharduerekiko arbuioa nagusitu zen. Hala ere, halako bilakaera bat gertatzen da, lana penitentzia gisa hartua izatetik gizarteak berriro onetsitako zeregin gisa hartzeraino, salbazio bidetzat hartzeraino. Aldaketa hori monasterioetako ordena berrietako (XII. m.) monjeen lanaren, hiriko langileenaren eta unibertsitateen eraginaren emaitza da. XI-XIII. mendeetako berrikuntza ekonomikoarekin batera, ofizio askok erlijioaren erabilera bertan aurkitu zuten gizartearen onespenera. Santu zaindariak aukeratu zituzten, kofradiak antolatu zituzten eta beren ogibideak goretsi, langintzaren aurkako arbuioa ezabatu nahian. Nolanahi ere, eskulanaren eta burulanaren arteko bereizkuntzak berean iraun zuen.

---

<sup>1</sup> Ez da ahaztu behar, orobat, euskaraz ere “trabailu”, “lana”-ren sinonimoa, “neke”-arekin batera azaltzen dela maizenik (“nekeak eta trabailuak”), “neke” hitza bera ere latinezko “necare” (=hil) hitzetik datorrelarik. Zer pentsatua badute, orobat, “nekazari”, “behargin”, eta gisakoen bateratzeak, edo literaturan hainbeste bider aipatzen diren “penak eta nekeak”. Hitz horien arteko kideetasunak, eta egin daitezkeen sail luzeagoetan agertuko liratekeenek, argi erakusten dute oinarrian den lanari buruzko irizpidea.

Bereizketa nagusi horrez gainera barne oztopo batzuk ezarri ziren, langile klaseen baitan *status* desberdinak sorrarazi zituztenak, arte liberalak, arte mekanoak, morrontza lanak eta lanbide makurrak bereizi baitziren; oztopo horiek, Espainian adibidez, zenbait mende iraun zuten (1783. urtea arte).

Ofizio bat laidogarritzat hartzeko arrazoien artetik bi dira nagusi, antza: bate-tik gizarteak lanbide batzuetan aritzen zirenen jokabidearen zuzentasunari buruzko susmoa eta, bestetik, kontzientzia kolektiboak lanbide batzuk historikoki baztertu eta arbuaiatutako erlijio zein etnia txikien eskuetan egon zirela barneratu izanak. Lanbide makurrak gremiotan antolatutik egon zitezkeen. Lanbide horietako langileen artean badira ospe handiko ofizioetako langileak baino gehiago aberastu direnak. Ez da hori harritzeko gauza, lanbide horietakoak baitziren borroa eta beronen laguntzaileak, ostalariak, eltzegileak, zorroztaileak, komedianteak, harakinak, pregonariak, zezenketariak, e.a. Ogibide baten fama txarraren arrazoiak ez zuen ikustekorik hartan ari zirenen behartasunarekin, ekonomiaz landako irizpideekin baizik; izan ere, odolarekin, zikinkeriarekin eta diruarekin zerikusia zuten lanak baitziren arbuioz begiratzen zirenak. XII. mendeaz gero ogibide makurrak urrituz doaz, bi arrazoi nagusirengatik: gizarteari ematen zioten onura urriagatik eta lanari buruzko ikuspegi berriagatik, lana merezimendu iturri bihurtu baita orain.

Hala eta guztiz ere, lanari buruzko iritziak hobera egin zuen arren, hierarkiatan mailakatutako nekazari giroko gizarte baten balioek indar-indarrean segitzen zuten, eta mailaketa horretan noblezia zen ohoregarritasun gorenaren eredu. Lanari buruzko ikuspegi horretan beheko maila zuen oraindik lan mekanikoak, eta betebeharrak zintzo betetzeko kontzientzia duen gizarte batean gizabanakoren zein gizartearen aldetik edozein lan motari zor zaion begirunea arras ukatzen zitzaion hari.

Lana goretzi bazen, langileen errendimendu handiagoa lortzeko goretzi zen, eta baita langileak otzan izan zitezkeen lortzeko ere. Izan ere, Behe Erdi Aroan, Europako toki askotan, lanik egin gabe bizi zirenak gaitzetsiak ziren, ez zirenean, gizarte ordenaren kontra egoteagatik, arlotetzat harturik esetsiak.

Langile taldeen artean eta hirietako artisau elkargoetan, lanari buruzko ikuspegi soziala zen, dudarik gabe, nagusi. Ez maisuei ez langileei ez zitzaien zilegi produkzioa beren nahien edo beharren arabera antolatzea. Elkargoaren disziplina kolektiboaren mende zeuden, honek arautzen zituen arazo guztiak eta hartan esku hartzen zuten guztien iharduera. Elkargoek eginkizun sozio-morala betetzen zuten gainera; izan ere, lana arautzeko eta hura disziplina baten arabera eginarazteko betetzen zuten zereginaz gainera, elkartasun handiko eta elkarrenganako laguntza bideratzeko tokiak baitziren; eginkizun horren isla dira zin egiteak,

erlijio bizimodu amankomuna eta ahulenen aldeko jarrera. Bazen, halaber, lanbidea komunitate gisa hartzen zuen ikuspegia. Elkarren aurka zeuden maisu eta langileak ere lanbide osoaren izenean aritzen zirela zioten. Langintzaren mugaz haraindi zabaltzen ez zen komunitate bateko kide izatean zetzan tirabira hori. Lana soldata irabazteko bidea baino zerbait gehiago zen; lanbidea ia bokazioaren parekotzat hartzen zen. Lanari buruzko ikuspegi hori guztiz errotua egon zen, eta Industria Iraultza arte, eta are geroago arte ere, iraun zuen.

#### **4. Lanari buruzko iritzia Berpizkundeaz eta Erreforma protestanteaz gero-ko garaian**

Ekonomiaren aurrerapenak eragindako aldaketek eta Berpizkudean sortu ziren pentsamendu higikunde berriek galdutako balioa itzuli zioten lanari, eta horrela, aurreko mendeetan oso gutxitan izan zuen duintasun aitortpena lortu zuen orduan lanak. Lanaren aldezpena, batetik, filosofo batzuen obren aldetik etorri zen; filosofoek gizarte ideala, utopia, nolakoa behar zuen adierazten saiatu eta, batzuek besteek baino gehiago, lanaren garrantzia azpimarratu zuten, nahiz eta filosofo horietako gehienek burulanaren eta eskulanaren arteko bereizketa egin oraindik ere eta bi horietan lehenengoari eman lehentasuna. Nolanahi dela ere, aurrera egin zen, gizonak bere gain hartu baitzuen bere patua, eta lanak hura aldatzeko egokiera ematen baitzion.

Lanaren balioa goستن lagundu zuen –bai ongi lagundu ere– bigarren pentsamendu higikunde protestantismoa izan zen. Protestantismoaren lehen gidariak, Luterok (1485-1546), Erdi Aroko ideia batzuk gorde zituen hala ere, mailegu korritudunak ematearen aurkako jarrera esate baterako, eta baita lana Jainkoa zerbitzatzea delakoa ere, ez dela betebeharrak huts bat alegia, pribilejio bat baizik, edota edozein lanek, denik eta umilenak ere, Jainkoagana lotzen gaituela, fedearen inspirazioz egin daitekeen oro Jainkoari eskainitako zerbitzua baita. Kalbinok (1549-1564) ordea, gizona bere eginen arabera ezagutzen delako ideia –norbakoaren nortasuna erakusten baitute– zabaldu zuen. Salbazioak ez zituen ongi eginak nahitaez saritzen, ez baitzuten hauek inolako zentzurik fedeari eragirik izan ezean. Lanak bazuen, beraz, esanahi moral bat; lanaren fruituek, ikusmolde honi dagokionez, Jainkoak hautatuak garela frogatzen dute. Lanaren bidez lortutako ondasunak ez dira fristi-frasta xahutu behar, ez behintzat balio handiko ondasunak erosteko; aitzitik, inbertitu egin behar dira ostera. Horrela, ondasunak ugaltu egingo dira eta argiago ikusiko dugu nola Jainkoa gure alde dagoen. Kalbinistak Jainkoaren aintzarako egiten du lan, eta bide batez sakramentu bihurtzen zaio lana. Beraz, testuinguru horretan, helburu sozial batez ondasunen bila ibiltzea zilegi zen, era horretara gizarte osoaren onerako izango baitzen produkzioa.

Une horretan errotik aldatu zen lanari buruzko ikusmoldea, aberastasun iturri gisa azaldu baitzen aurrerantzean. Salerosleek eta burgesia berriak aurrerakuntzaren eta lanaren mitoaren aldeko jarrera hartu zuten, jabetza eskubidearen onarpen eta ongizaterako iturri gisa hartu ere.

Hala eta guztiz ere, pentsamendu higikunde horiek guztiak gorabehera, Antzinako Errejimeneko gizarteko lanaren balorazioak *status* apala ematen zien oraindik ere eskulanetako sektore guztiei eta bizimodua salerosketatik ateratzen zutenei. Aldi berean, oso bereizketa zorrotza egiten zen berez diskriminatuak zeuden lanbide mekanikoen eta salerosketako zereginen alorrean. Artisautzako lanen balorazio sozialari buruzko bereizketa hau zela eta, ofizio elkargo batzuk *kolegio* eta *arte* gisa izenda zitzaten saiatu ziren, beren indarra eta dirua hartarako erabiliz; mekanikoagotzat eta duintasun urriagokotzat hartzen ziren beste lanbideak ez bezalakoak zirela agerian jartzea zen, besteak beste, horren helburua. Erdi Aroan sortutako bereizketa horiek estamentutan antolatutako gizartearen mailaketa sozialak bultzatuta (aldaketa ekonomikoak gorabehera, oraindik ere irauten baitzuen) lanak pairatzen zuen bazterketatik ihes egiteko ahalegintzat hartu behar dira.

## 5. Lanari buruzko iritzia gaur egun

Lanaren arabera antolatzea da XVIII. mendearen bukaeraz geroko gizartearen ezaugarria, gizartearen egitura guztian izan baitu horrek eragina. Gizarte kapitalistak eta liberalak gizabanakoari buruzko ikuspegi berri bat eman zuen, hura ez baitzen neurtzen gizabanakoak gizartean zuen mailaren arabera, balio berriei buruz –irabaziei, kapitalizazioari eta lanari buruz alegia– zuen erlazioaren arabera baizik. Gizabanakoak aberastasuna sortzeko duen ahalmena gizartean sailkatzeko irizpide nagusietako bat izan zen aurrerantzean, baina lanak eta lanbideak, kategoria ekonomikoak izateaz gainera, pertsonaren nortasunean ere funtsezko garrantzia izan zuten. Gazteentzat lanean hasteak independentzia lortzea eta heldutasunera iristeko bidean sartzeari esan nahi zuen. Gaur egun ere, emakumea lanean aritzea gizartean burujabe izateko gaitasunarekin lotzen da askotan.

Iraultza ekonomiko eta soziopolitiko honen kariatz, lana bere soilean hartuko zen aurrerantzean, familiaren eta gainerako eragileen eragozpenik gabe esate baterako, jabetza eta lanaren egilea bereiztearekin eta lan egiteko “askatasuna” mugatzen zuten arauak desagertzearekin gailurra jo zuen bereizkuntza prozesu baten barruan. Lana gizarte bizitzaren ardatz bihurtu zen.

Lana, gaur egun, probetxuko den neurrian da baliagarri; nork bere erantzukizunari buru egitea eta disziplinazko ohiturak hartzea eskatzen du; bat-bateko joe-

rak ahalik eta gehien murrizten dira, eta makinaren erritmo erregularraren eta behin-eta-berrizkoaren arauen arabera hezten da gizabanakoa. Lan indarraren proletarizazioak eta iharduera ekonomikoa lehengo lotura moraletatik askatu izanak, probetxamendu industrial berriak indarturik, lanaren munduan arrazoizkotasan teknikoak eta ekonomikoak gailentzea ekarri zuten.

Lanaren eginkizun profilaktikoa aldeztu zuenik ere izan zen, gizarteko tirabirak galarazten baitzituen behartsuenak disziplinaren eta kontrolaren pean atxiki-rik. XVIII. edo XIX. mendean egin ziren herrilan asko, duda-mudazko eraginkortasunez egin ere, langabeei jatekoa eta zereginen bat emateko egin ziren, asmo bikoitz batez: behartsuek lan egiteko ohitura gal ez zezaten batetik, eta agintarien aurka izan zitezkeen matxinadak eragozteko bestetik. Britainia Handiko industria berrietan behartsuak, emakumezkoak eta haurrak lanean erabili izana haiei heziketa bat emateko erabili zirela esanez zuritu zen, klase xumeen artean hedatzen ari omen zen alferkeria, nonbait berezkoa zutena, mugatzeko.

Sistema kapitalistaren barruan egokitutako soldatapeko lanak eta hartan oinarri harturik langileak gizartean sarrarazteko sortu ziren erakunde eta egitura jakinik gabeko beste moduek osatu zuten handik aurrerako gizartearen egitura ardatz nagusia, eta ardatz horren inguruan eratu ziren gizarteko gainerako zerak. Aurre-rantzean, industria sistema modernoak bere alde izan zituen zientzia ospea, arrazoizkotasuna eta eraginkortasuna, eta Estatuko agintaritzaren laguntza ere jaso zuen, edozein eratakoa, alde baterakoa zein besterakoa, zelarik ere gobernuko politika. Gizon serio, zuhur eta langilearen irudia hobetsi eta zabal zedin erraztu zuen horrek, eta horren ondorioz, eta gauza guztien gainetik, produkzio indarren aurrerapenari eman zitzaion lehentasuna, sistema kapitalistaren aurka egin zuten indar politiko eta sozialek ere balio haiek zalantzarik gabe onartzeko punturaino.

Halaxe da, langileen elkarrekin ez zituzten teknologiararen eta zientziaren –indar neutrotzat hartuak baitziren– aurka zuzendu beren kritikak, nagusiek eta administratzaileek haiez egiten zuten aplikazio konkretuaren kontra baizik. Lanari aitortzen zitzaion garrantzia, giza ihardueraren ezinbesteko eta oinarritzko aldagai zen aldetik, aro modernoaz azalera irten bezala handituz joan zen. Izan ere, XIX. mendeko lehen erdialdeko industrializazioa kritikatzeko zutenen eraso bortitzak denborak ez zuten.

Hala eta guztiz ere, prozesu honekin batera gertatu ziren aldaketak zirela eta –lanaren banaketa, behartasuna, alienazioa eta arrazionalizazioa–, irabazia zuen onespen maila galdu zuen berriro lanak, langileek ez baitzuten egoera hartan pozik egoteko inolako arrazoirik bilatzen, eta ezta giza balioaren justifikaziorik ere. XIX. mendeko autore sozialista askoren iritziaren aurka –izan ere, autore hauek ikuspegi baikorra eskaini zuten lanari buruz, askapena lortzeko bide eta,

lan iharduerak sorrarazten dituen mutualismoaren eta elkar-laguntzazko eta elkartasunezko harremanen bidez, berdintasun handiagoko gizarte baten oinarri gisa hartzen zuten— soldatapeko langile askok lanaren aurkako jarrera tinkoa hartu zuten berriro. Fabrikak behartzen duen disziplina gogorraren aurkako jarrera agertzen da, produktibitate intentsiboaren eta eguneko lanaldi luze akigarraren aurka.

Proletarioaren aldetik lanaren aurka zegoen jarrera, kolektiboa zein banakakoa (lanetik huts egitea, berandu iristea, gaixo itxurak egitea, lapurreta, sabotaia, lanuztea, disziplinarik eza, lanerako soraiotasuna), ez zen aldatu langile klasearen ordezkari izan nahi zuten alderdiek aginpide politikoaren zein ekonomikoaren maila batzuk erdietsi ondoren ere. Horrenbestez, lanaren aurkako jarrerak aurre egin zien iraultzaren etorrerarekin langileak beren lantokien ardura hartzera eta haietan parte hartzera deitu zuten autokudeaketarako teoriari. Jarrera horrek langileek eguneroko bizitzan pairatzen zuten egoera gogorren aurkako erantzun zuzena edo eskuinaren zein ezkeraren aldetik proposatutako irtenbideekiko sinesgogortasuna adieraz dezake.

Lanaren onespén maila are bizkorrago atzeratu da XX. mendean. Arazo horrek badu zerikusia lansariarekin, makinarekin eta lanean eman beharreko denborarekin baina baita gizaki bakoitza lanari egokitzen zaion moduarekin ere: lanak langilea asebetetzen al duen, produkzioaren erritmoa nolakoa den, langileak lanbidean gora egiteko gogoia duen, eta bere lana pizgarri ala aspergarri zaion. Kateako produkzioaren eta lan banaketaren zabalkundeak, eta ekinbidearen lehentasuna makinari eta teknikoei uzten dien produkzioaren handitze ikusgarriak lanerako interesa urritzea eta lanaldia lehenbailehen bukatu nahi izatea ekarri dute.

Lanarekiko atxikimendurik ezak lanarekin nolabaiteko zerikusia duen guztia-rekiko halako aurkakotasun edo aiherkunde zehazgabea sentitzea eragin du, langintzarekiko harrotasuna galtzea; harrotasun hori, onenean ere, lan taldearen aldeko harrotasuna sentitzera aldatzen da; seme-alabentzat beste ogibide bat, gizartean onespén maila handiagoa izan dezakeena eta ahalik eta lansari eta segurtasun handiena eman dezakeena bilatzeko nahian antzematen da agerian lanarekiko atxikimenduaren galera hori.

Enpresa modernoak, kapitalista indibiduala ezabatu eta konpainiaren gaineko ardura akzionisten eskuetatik dirua erabiltzen duten exekutiboaren eta zuzendarien eskuetara aldatzen duelarik, are gehiago eten du lanaren eta jabetzaren arteko lotura, ez langileari duintasuna, ez bere buruarekiko errespetua eta ezta bere bokazioari edo ondo egindako lanari ere zentzurik ematen ez dion produkzio sistema baten barruan. Kalitate horiek gabe ezin esan daiteke sormenezko lanik

badenik, bestelako zerbait baizik: aberastasuna, status soziala edo, besterik gabe, bizirik irautea. Gainera geroz eta gehiagora doaz lanaren gizaritari eta honen arrazoizko irizpideei (eraginkortasuna, produktibitatea, hazkundera) aurre egiten dieten jarrerak eta balioak, balio eta kalitate irizpide “humanistago” batzuen onerako. Hortaz, horren guztiaren ondorioz, ahuldu egin dira lana gizabanakoaren eta komunitatearen antolabidearen muin bihur zezaketen mekanismoak.

Lana pertsonak bizirik irauteko ezinbesteko baldintza gisa hartzeak zentzurik ez du Ongizate Estatua eratua dagoenean. Lanak, betebeharrak eta bizitza zuzenaren ardatz gisa ikusita, geroz eta sinesgarritasun gutxiago du. Batez ere 1968ko Maiatzaz gero, baina baita lehenago ere, lanaren ezaugarriak salatu ziren, bai iharduera askotan erabiltzen ziren lan baldintza kaxkarrengatik eta baita, zuzen edo oker, hari egotzen zitzaizkion balioengatik. Errazionaltasuna edo produktibitatea ez dira gaur gizabanakoaren edo kolektibitatearen nekea merezi duten baloreak. Lanaren etikari berehalako sariaren etikak kendu dio tokia mendebaleko gizaritean; lanarekin ez plazerrik ez harrotasunik lortzen ez duen eta lanean jarraitzeko kanpoko erakargarriak behar dituen langilea da horren frogarria.

Bi dira horretan huts egin izanaren arrazoi nagusiak: lana harako etika haren arabera ikusteko inoiz oinarri izan ziren tradizio kulturalen higadura batetik, eta kontsumoa eta aisia erdigunetzat dituen hedonismo mota bat zabaldu izana bestetik. Aisia lanaren aurkako manifestu gisa ari da hedatzen, eta honenbestez, galtzen ari da beste garai batzuetako berezko zentzua, indarrak berreskuratzea alegia, lanari uko egiteko edo hura ahazteko benetako asmorik ez zuenekoak.

Gainera, eta gezurra badirudi ere, gaur egungo gizariteak, lanari baino aisiari lehentasun handiagoa ematen dionak, gutxietsi eta baztertu egiten ditu lanik ez duten kideak. Orobat, egiturazko langabezia hazten eta sendotzen ari den garai honetan, eta lan merkatutik iraitzitako taldeen artean, handitzen ari da lanaren onespene maila. Hala, garai hauetan, norberaren eta gizaritaren onespene erdieste-ko faktore gisa hartzen da berriro ere lana. Hori horrela izateak, ordea, ez du horren arrazoia, funtsean, kausalitate instrumentalean datzala ezkututzen, lana baita garrantzizko ekonomia eta gizarite mekanismoetan barrena sartzeko aukera ematen duena.

Gaur egungo gizaritean, soldata lortzea helburu duen produkzio lana arras ari da galtzen gizaritearen antolamenduaren eta norberaren onspenearen ardatz izateko ezaugarria. Industria modernoan, langileria, bere elkargoari dagozkion arazo sozialak direla eta, enpresaren egonkortasunari aurka egiteko eta hura hausteko gauza den neurrian baino ez da aintzat hartzen. Arestian aipatu diren arrazoiez gainera galera horren arrazoia bizitzako lanaldia geroz eta laburragoa izatean (eskolaaldi luzeagoa, erretiroa hartzeko adina aurreratzea, oporraldiak luzatzea,

lanerako adinean dagoen gero eta jende gehiago langabezian egotea), eta klase sozial horren barruan sortu diren bereizketa eta zatiketa direla medio, langile-tasuna langile direnen artean identitate bakarra bermatzeko gaitasunik ez izatean datza.

Itxurazko aniztasunaren atzean kapitalaren logikak agintzen duela esaten den arren, soldatapeko lan sistema ustez baterakoi den honetan desberdintasun handiegia daude kontuan har ez daitezten: legez kanpoko eta kontraturik gabeko unitate ekonomikoen (etxeke eta ezkutuko lanaren) gero eta garrantzi handiagoa, erdi mailako klaseen hazkundera, soldatapeko produkzio lanari eta zerbitzu alorreko lanari buruzko balorazioen artean dagoen gero eta desberdintasun handiagoa...; hortaz, ez dago lana bere osotasunean har dezakeen errazionaltasun bakarrik.

Izan ere, inoren langile izaerak gero eta argibide gutxiago ematen du egiten den ihardueraren edukiaz, gizabanakoaren interesez... Hala, lan indarrarentzat bat eta bera den mendekotasun egoera gorabehera, lan egoeren gero eta aniztasun handiagoak (diru sarrerei, kualifikazioei, languneko segurtasunari, gizartearen onespeneri, lanean gora egiteko aukerei... dagokienez) handitzen ari den homogeneotasunik ezaren seinale dira; hortaz, soziologo batzuen arabera, ez dirudi langilearentzat soldatapeko lanak esanahi bakarra, zehatza eta berezia izan dezakeenik aurrerantzean.

Bestalde, gero eta gehiagotan, politika publikoaren, sozialaren eta laboralaren araberrako aldagai gisa agertzen ari da lana; bere autonomia galdu du eta, horrekin, interesa galdu du langilearentzat. Azkenik, produkzioari gero eta denbora gutxiago eskaintzeak eta nortasunez gabetzen ari den industria modernoaren ezaugarriek besteen pareko arazo bihurtu dute lana, eta arras erlatibizatu gizarte egituraren oinarritzko elementu izateko zuen eginkizuna. Are gehiago, joan den mendearen bukaerako eta gaudenaren hasierako egoeraren aurrean, zeinetan gatazka soziolaboralak baitziren nagusi, gaur egun, mendebaleko gizarte kapitalista industrialetako gatazka sozial eta politiko nagusiek (bakea, ekologia, giza-kiaren rolen edo eskubideen zehaztapena) iskintxo egiten diote lan sozialaren eraketari, lanaren eta kapitalaren arteko aurkakotasunak eta horretatik eratortzen diren banaketa erlazioek alde aurretik finkatutako enfrontamendurako lerrokatzeari. Hala eta guztiz ere gaur egun murgildurik gauden krisi ekonomiko larriak, bere langabe kopuru handiarekin, joera hori aldaraz dezake, denbora baterako behinik-behin.



## 2. Gaia

# Produkzio moduak eta produkzio harremanak

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. ESKLABISMOA
3. FEUDALISMOA
4. FEUDALISMOTIK KAPITALISMORAKO IGAROBIDEA

### Kontsultarako liburuak

- Kriedte, P., Medick, H. eta Schlumbohn, J., *Industrialización antes de la industrialización*, Bartzelona, Crítica, 1986.
- González Muñoz, M. A., *Aproximación a la historia social del trabajo en Europa*, Madril, Júcar, 1981.
- Vilar, P., *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Bartzelona, Crítica, 1980.
- Zenbait egile, *Historia General del Trabajo III*, Bartzelona, Grijalbo, 1965.



## 1. Sarrera

Lanak historian zehar hartu dituen hainbat forma erakustea da kapitulu honen helburua eta, xede horretan, lanaren alorrean Industria Iraultzaz geroztik gertaturiko aldakuntza handietarako sarrera izango den ibilbide azkar hau burutuko dugu. Horretarako, produkzio bideen jarraipen historikoa hartu dugu azalpen eredu gisa. Halako aukera egiteak ez du, horrenbestez, orientazio metodologiko itxi (marxista kasu honetan) baten aldeko apustua esan nahi, baizik eta historiografian nolabait sendoturik dagoen baliabide bati heldzea, puntu honetan planteatzen dugun helburuari begira guttiz balioduna dena.

Ikuspegi horretatik, prozesu historikoa gizarte eta ekonomia errejimenen segidaren ondorioa da, produkzio modu desberdinen emaitza alegia. Produkzio modua *indar produktiboen* eta *produkzio harremanen* arteko erlazioen emaitza da. Indar produktiboak prozesu jakin batean gertatzen den produkzio bideen (makineria, baliabideak, kapitala, e.a.) eta lan indarraren (lan eskua) konbinazioa da. Produkzio harremanak, bestalde, gizonek beren artean gizarte produkzioaren prozesuan ezarritakoak dira (mendekotasun erlazioak, kontratuzkoak, e.a.) eta indar produktibo materialen garapenaren arabera aldatzen dira. Erlazio dinamiko horrek krisiak, aurkakotasunak eta aldaketak dakartza. Indar produktiboen eta produkzio harremanen arteko kontradikzioek maila jakin bat gainditzen dutenean, produkzio modu berrira daraman igaro aldia gertatzen da; halakoetan aurreko produkzio moduen aztarnak geratzen dira eta laster etorkizuneko ereduaren hastapenak agertuko dira.

Produkzio modua kontzeptu abstraktua da eta, horrenbestez, ezin daiteke irizpide bakartzat erabili aldiak ezartzerakoan. Izan ere, Europak ezagutu duen segida hori —esklabismoa, feudalismoa, kapitalismoa— ez da unibertetsala. Orobat, mendebaleko Europan kapitalismoa, prozesu ezagunak direla bide, feudalismoaren ondorengoa gertatu bada ere, horrek ez dakar mundu osoak ezinbestean antzeko aldietatik pasa beharra duenik.

Bestalde, ez da gizarte errealtatea bere osotasunean hartzen duen formula bat, baizik eta nagusi den errealtatea soilki, hots, gizarte bateko prozesu erabakiorrak xedatzen dituena. Gainera, herrialde baten egiturazko ezaugarriak, geoekonomikoak, hartu behar dira kontuan, produkzio moduaren aldia baino iraupen handiagokoak baitira. Azkenik, ez dira nahastu behar ekonomia ereduak eta gizarte ereduak. Gizarte ekonomia baino konplexuagoa da, eta gizartearen alorrean hasi ohi da armoniatsua dirudien ekonomia ereduaren suntsipena.

## 2. Esklabismoa

Lanaren banaketa soziala gizarte aldaketaren motortzat hartzen badugu, antzinako gizartearena da lehenik topatzen dugun ereduak. Horren oinarri ekonomiko-

aren eta lan banaketaren garapena guztiz murrizta zen. Honela, abeltzantza agertzeak lehen aldaketa handia ekarri zuen; ehiztari-biltzaileak eta aziendazaleak bereizi zituen. Nekazaritzak banaketa hori sendotu egin zuen eta etxeko lehen esku lanbideek areagotu besterik ez zuten egin. Antzinako ekonomiaren ezaugarri funtsezkoenatariko bat elkarren arteko lana da, komunitate osoak parte hartzen baitu bertan; ihardunbide hori, historiaren beste zenbait unetan errepikatuko da, hala nola Erdi Aroan edo Antzinako Errejimeneko laborantza ihardueran.

Teknikaren hobekuntzak lanaren bigarren banaketa handia ekarri zuen, lanbideak eta nekazaritzako lanak bereiziz. Merkataritzaren eta trukerako produkzio zuzenaren sorrerak gizartea klasetan zatitzearen hasiera ekarri zuen, eta lehen erakunde politiko egituratuak agertzen lagundu zuen, azken hauetan esklaboek leku nabaria izan zutelarik.

Produkzio modu esklabista, produkzioa handitu ahal izateko lan indarra gehitu behararen ondorioa besterik ez zen izango, hartarako bereizkuntza soziala markatuagoa eta egonkorragoa ezarritik. Hala bada, esklabotasuna agertzeko arrazoia, familiaz kanpoko lan eskuaren beharrean eta tokian tokiko langilerik gabe aurkitzen ziren lur sail handien jabeen eskaria bide da. Esklabotasuna, modu horretara, garaiko gizarte aurreratuenetako indar produktiboen elementu erabakiorra gertatu zen, baina ez bakarria, eta Ekialde Hurbil osoan eta Mediterraneo-ko Arroan hedatu zen.

Nolanahi ere, ohartu beharra dago esklabotasuna kontzeptua ez dela beti bat eta bera izan eta ez duela adiera bera izan historia une edo herrialde desberdinetan. Esklabotasuna hainbat kausak eragina izan zitekeen. Kausa nagusia hausia-bartza militarra zen, presoak esklabo bilakatzen baitziren, baina baziren beste batzuk hala nola jaiotza, zorrak edo zenbait delitu. Esklaboa mendeko beste langile mota askorengandik bereizten zuten garrantzizko ezaugarrien artean, esklaboaren gainean nagusiak zuen jabetza absolutuaren nozioa nabarmentzen da, oro har, haren gainean eskubide guztiak baitzituen. Denbora aurrera joan ahala, esklaboaren egoera hobetuz joan zen eta jabeen eskubide batzuk mugatu egin ziren, hala nola esklaboak hiltzeko ahalmena.

Greziar zibilizazioak, esklabotasunarik gabe pentsaezina izateaz gainera, bigarren mailako baliabide hori produkzio mekanismo sistematiko bihurtu zuen. Haren antolakuntza ekonomikoaren euskarria nekazaritza zen, eta garrantzizkoa, baina txikiagoa, zen eskulangintza eta merkataritza sektorea ere. Lehenengo garaietan esklaboak etxeko lanetan bakarrik erabiltzen ziren, baina K.a. VII. mendetik hara nekazaritza eta industria lanetarako baliatzen hasi ziren gero eta gehiago. Nolanahi ere, esklabo sail handiak ez ziren ohizkoak, gehienbat Estatuarenak ziren zenbait meategitan izan ezik. Batzuetan, kanon baten ordainketa-

ren truke, zenbait esklabo trebek beren kontura lan egiten zuten. Oro har, esklabotasuna sistemaren irabaziak lan eskua pilatzetik zetozen, aurrerapen teknikoetatik edo kapital metaketatik baino areago. Esklabotasuna hedatzeko bidea normalean konkista militarra izan zen, sistema osoari kolonietako erako ekonomia-  
ren izaera ematen ziona.

Esklaboekin batera, greziar munduan era guztietako langile libreak izan ziren: beren kontura lan egiten zutenak, tailer txikietan zihardutenak edota beren etxean ari zirenak. K.a. VI. mendetik aurrera, lanbideen kopurua, haien antolaketata eta lan banaketa areagotu egin zen eta, aldi berean, esklaboen kopurua emendatu zen gerrak zirela medio, besteak beste. Aro helenistikotik aurrera (K.a. 338), artisau txikien egoerak okerrera egin zuen Mediterraneoko arroan jasandako lan krisiaren ondorioz. Industriak neurri apalekoak ziren oraindik ere; gainbehera gero eta larriagoa izan zen, lanbideak gero eta gehiago herendentziazkoak zirelarik. Nekazaritzako lurren jabetza esku gutxiagotan bildu zen.

Erroman antzeko egoera gertatu zen, landa lurretan joera bera egiaztatu ahal izan baitzen. Nekazari txiki independenteen kopurua etengabe murriztuz joan zen, kolonoen mailara jaitsi ziren edo nekazaritza eremuak abandonatu behar izan zituzten. Erromako esklaboak, beren aldetik, kopuru handiagotan edo txikiagotan, iharduera guztietan erabili ziren, obra publikoetatik etxeko lanetara, nekazaritza, meategiak eta prestakuntza bereziko lanak, hala nola maisuak eta artistak, barne zirela.

Produktio teknikoaren zati handi bat artisauak eta esklaboak erabiliz lortu zen, erabateko esklabotasunatik aparte. Izatez, industria lanak era guztietako formak izan zituen, etxean egindako lanetik, etxe bakoitzean egiten zen hartatik, Estatuaren tailerretan antolaturiko fabrikazioraino. Dena den, langile askeen egoera pertsonala ez zen ona, esklaboen lan eskuaren konkurrentziak lansariak jasotzea zailtzen baitzuen.

Hain zuzen ere, langile aske horiek antolatu zituzten, bai Erroman eta bai beste zenbait hiritan, ezagutzen ditugun lehen elkargo profesionalak, *Collegia* izenekoak. Halakoen xede nagusiak erlijiozkoak ziren, hiletaren ingurukoak eta elkarri laguntza ematekoak, nahiz eta denborarekin haien esanahia konplexuagoa egin, lanbideen herendentziazko transmisioaren erregulazioa eta kideen arteko elkartasuna barne hartzen zituztelarik. Errepublikaren azken urteetan (K.a. I. mendea) aldirik distiratsuenak ezagutu ondoren, gure aroko III. mendetik aurrera *collegia* asko, praktikan, estatu-makinaren funtzionamendu egokia ziurtatzen zuten Estatuaren mendeko elementu bihurtu ziren zenbait pribilejioren truke. Pribilejio nagusiak zergak kentzea, zerbitzu militarretik libre izatea eta lanbide-

rako monopolioa ziren. *Collegiako* kideak, ordea, ezin zitezkeen elkartetik atera, baldintza jakin batzuetan izan ezik, zigor gogorrek jasateko arriskurik gabe.

Mendebaleko munduari dagokionez, zenbait arrazoi zirela bide, esklabotasunaren krisia gertatu zen. Alde batetik, lana eta esklabotasuna berdintzen zen, bi ondorioekin: lan ihardunarekiko jarrera ezkorra eta lan librearen balio galera, esklaboen egindako lanaren konkurrentziari ezin eutsiz. Bestaldetik, esklaboen lan behartuak ondo egindako obraren nozioa galarazten zuen, eta horretxek hain zuzen lanbideen eta arteen gainbehera ekarri zuen. Azkenik, hedapen militarra amaitzean esklaboen lan eskua urritu zen kopuruz eta, ondorioz, esklaboen prezioa garestitu zen, eta haiek egoera onean mantendu beharra areagotu. Horrez guztiaz gainera, janariak garestitu ziren eta esklaboen ihes egin ez zezaten zaindu beharra gertatu zen. Laburbilduz, esklaboen lan eskua gero eta produktibitate eta errentagarritasun gutxiagokoa izan zen. Halako egoera, gabezia horiek guztiak konpon zitzaketan lan esku librerik eta aurrerapen teknikorik ez zela gertatu zen.

Prozesu horiek guztiak testuinguru jakin batean gertatu ziren: merkataritzaren beheraldia, zergen igoera, ekonomia nekazaritzan oinarritzea eta aginpide inperialaren galera. Egoera horren aurrean, nekazaritzako esklaboak askatzea eta kolono bihurtzea izan zen kasu askotan hartu zen irtenbidea. Kolonoak –zuela zenbait mende ezaguna baitzen figura hori– lur sail batzuk lantzen zituen maizter gisa, lurjabearen babespean. Hasieran gizon librea bazen ere, hark lurrarekiko zuen atxikimendua arras indartu zen eta hori guztia, denbora joan ahala, zuzenbidez eratu zen. Modu berean, germaniarren inbasioen ondoren, jabetza txiki batzuk –hala gerrari barbaroenak nola, batez ere, erromatar jatorriko nekazarienak– desagertu ziren lurjabe handien mesedetan, patrozinio izeneko sistema zela bide. Patrozinioa zera zen, lurra jaunari ematea haren babesaren truke, norberaren saila errentan berriro hartuz. Aldi berean, ezarian-ezarian, babestuak beren askatasun pertsonala galduz eta lurrari lotuz joan ziren, hala ekonomiaren nola zuzenbidearen aldetik jaunaren mendeko kolono bihurtzen zirelarik. Jaun errejimen hau glebako zerbitzarien aurretiko hurbilena izan zen.

### 3. Feudalismoa

Nekazaritzako ekonomiaren nagusitasuna feudalismo deritzan formazio sozial eta ekonomikoaren ezaugarria da, halako eran non biztanleriaren parte handi bat, maila desberdinetan herrialdeen arabera, lurjabeari edo lantzen zuen lurrari pertsonalki lotua zen. Sistema feudala gizarte osoaren eratze moldea izan zen, maila guztiak, ekonomiatik ideologiaraino, alderdi instituzionala zein politikoa barne hartzen zituena. Hala, haren mendetasun harremanak esparru guztietan azaldu ziren, esparru horiei ekonomiaren eta politikaren alorreko aginpide erla-

zio jakin batzuk mantentzera behartzen zituzten zuzenbidezko neurriak egokitzen zitzaizkielarik.

Germaniarrek eta erromatarrek zituzten antola moldeen sintesia da feudalismoa. Eraketa molde horiek sortu zuten gizarte ordena berri hori. Jaurreri erako antola moldeak, esate batera, erromatarren nekazaritzako esplotazio moduetan izan zuen sorrera. Harreman feudaletan sartzeko egingo zen basailutza zeremoniak, berriz, germaniarren eta erromatarren tradizio ereduetatik hartu zuen berea.

Harreman feudalen artean honako hauek bereiz daitezke:

1. Feudo-basailutzako harremanak, gizon librean artean ezartzen ziren eta elkarrekikotasun eta elkarren arteko laguntzarako lotura esan nahi zuten. Lotura hori, eskuarki betebeharrak militarrek sortzen zituen, basailutza zeremonian ezarri ohi zen.

2. Jaunen eta mendekoen arteko harremanak, feudalismoa amaitu eta gero ere luze iraun zutenak. Funtsean, jaunak eta nekazarien artean ezartzen ziren eta nekazaritza errentaren jabetza modu desberdinak sortzen zituen:

- Produkzio bideen eta luraren jabetzatik zetorren aginpidea, nahiz eta luraren gainean erabateko ahalmena ez izan.
- Gizonen gaineko aginpidea, gizon horiek lurari atxikiak izan edo jaunaren mendekoak izan.
- Eskumenezko jaurgoa, beronen bidez jaunak errege ahalmenak beretzen zituen, bereziki justiziarik zegoen guztian, hartan jaunaren eskumena barrutiko gizon guztiengana iristen baitzen, gizon horiek libreak izan zein jopuak izan.

Sistema horren ondorioz, nekazariak betebeharrak ugari zuten jaunarekiko, egin beharreko lanetan edo errenta moduan, dela diruzkoa dela jenerotan ordaintzekoa. Oraindik esklabo ez zen laborantza langile hark bere askatasunaren eta jabearen murrizgarri ziren traba ekonomikoak eta ekonomiaz kanpokoak pairatzen zituen, halako moldeak ezin zuten bere lan indarrak edota horren ondorioz libreki erabaki. Aldi berean, gizonak gizonarekin zituen mendetasun loturak indartu eta areagotu egin ziren, hierarkizazioa zorrotz izan eta jabetza eskubidearen zatikatze ezin handiagoa gertatu zen.

Europako lurraldeak maila desberdinez ukitu zituen feudalizazioak, era berean, ezaugarri ezberdinak azaldu zituen une historikoen arabera. Erdi Aroko lehen aldiaren ezaugarria glebaren joputza izan zen, goiko atalean adierazi den bezala. XI. mendetik hara, jaunak aginpidea sendotu zen eta nekazaritzako biztanleen sektore handia jopu bilakatu zen. Feudalismoaren gainegitura instituzionalak eta

espiritualak sendotu ziren eta, era berean, nekazaritzaren eta merkataritzaren aurrerakuntza gertatu zen, lehen hirien sortzearekin eta indartzearekin, Europako bizitza luzaro landa lurretan oinarritua izan ondoren. 1150 eta 1300. urte bitarteko aldia errejimien feudalaren une gorena izan zen, eta jaunen eskakizunak gehitu ziren.

Hala eta guztiz ere, une hartatik eta Europako kontinenteak, Izurri Beltzarekin bateratsu, jasan zuen krisi ekonomiko gogorraren ondorioz sistemaren gainbehera hasi zen, eta gizarte borrokak areagotu izanak ere zerikusia izan zuen gainbehera horretan. Bigarren aldi honetan, nekazaritza sail txikiak izan ziren nagusi produkzioaren eremuan, nahiz eta oraindik nekazaritzako produktuaren –jeneroak edo dirua– zati handi baten jabetza jaun feudalen esku izateak produkzio harremanak moldatzen jarraitu zuen. Ekonomia diruaren bidez gero eta gehiago eratzen ari zela eta, orobat jaunen eta mendekoen arteko harremanetara zabaldu zen; errenta asko diruz ordaintzen ziren eta horrek jopuek jaunei egin beharreko zerbitzuak urritzeko eta beren egoera hobetzeko bidea eman zuen. Halaber, komunikabidez ongi hornituriko lurralde batzuetan, nekazaritza gaien espezializazioa eta industriako lan banaketaren hobekuntza gertatu ziren. Mendebaleko Europako sistema feudalaren behin-betiko gainbehera XVI. eta XVII. mendeetan etorri zen, haren lekua produkzio harreman kapitalistek hartu zutelarik, nahiz eta jaunen errejimena, feudalismoa baino lehenagokoa bera, Iraultza Industrialeraino iritsi.

Erdi Aroko gizarte antolamenduaren oinarri juridikoa estamentua zen, bizitza politiko, sozial eta ekonomikoan bere estatutu juridiko eta funtzio berekiak zituen talde sozial gisa definitua. Erdi Aroko gizartearen zatiketa hirukoitzak –Noblezia, Eliza, Hirugarren Estatuak– ez du, hala ere, gizarte errealitatearen konplexutasun osoa islatzen: Elizaren eta Nobleziaren arteko etsaitasuna, nork bere mailaren nagusitasuna lortu beharrez; laborarien masaren barneko zatiketa, jopuen eta laborari libreen artean eta azken hauetan, pobreen eta aberatsen artean; eskeman kokatzen ez diren gizarte talde berriek zuten garrantzi gerroz handiagoa e.a.. Esaterako, hiriko taldeak, bizimoldea diruzko irabazietan oinarritua zutenak, gizarte ordenaz kanpokotzat hartu ziren askotan, Hirugarren Estatuaren edo herriko jende apalaren gaineko talde gisa onartua izan aurretik.

Landa eskualdeetan beretan, nekazariekin batera, batez ere Erdialdeko eta Ekialdeko European, baziren produkzio jakin batean –upelgileak, oihalgileak, metalurgiako langileak, e.a.– espezializaturiko herriskak, jaun baten mende zudenak eta zinaren bidez hari lotuak zirenak. Laborarien lan guztia ez zen ezinbestean nekazaritza lana, ez eta hiritar guztiena artisau lana. Izatez, haietariko askok tailerreko lana eta aldirietan zuten baratzeko lanak aldizkatzen zituzten. Hiriko bertako langileak langileria osoaren zati txiki bat besterik ez ziren eta



nekazaritzako biztanleriaren zati handi batek bere kontsumorako behar zituen eskulanak moldatzen zituen.

Gizarte feudalaren aldaketarako eragile ziren hiriak, XI. mendean hasi ziren garatzen eta lanaren lehentasuna izan zen haien bereizgarri nagusia. Industria edo merkataritza lana hiriko bizitzaren elementurik garrantzitsuenak ziren. Jopua hiritar libre bilaka zitekeen bere jaunarengandik ihes egin eta, hirian gelditzea lortu izanez gero, hiritar agiria lortzeko behar zuen denboran lanean ari izanez.

XIV. mendetik hara, artean lurak oinarrizko aberastasun iturri baziren ere, hiria jadanik landatik bereizirik agertzen zen. Bien arteko mendekotasuna gora-behera, hiri askotako harresiek bi lan mundu, elkarren arras desberdin zirenak, bereizten zituzten, landa alde batetik eta osoki hiritar ziren jardueren gunea bes-tetik. Hala eta guztiz ere, beste zenbait hiritan zatiketa ez zen horren garbia. Mende horretan Europa gehiena ukitu zuen depresioak, landa eremua eta hiria, bata zein bestea, berdin jo bazituen ere, hiri guneen sendotzea eta hedatzea eka-rrri zuen. Krisiak hirietarako emigrazioa eta artisautzaren zein merkataritzaren goraldia erraztu zuen; horrek guztiak, faktore politikoekin batera, hirien hazkundu- dearen zergatia azaltzen du.

Hiriek lortua zuten egoera pribilejiatua, guztien kasua ez bazen ere, ez eta neurri berekoa, haietako biztanle guztien onerako izan zen, baina aginpide politi-koa eta ekonomikoa familia gutxi batzuen –horietako asko artisau jatorrikoak hain zuzen– eskuetan kontzentratzeko joera azaldu zen. Halakoek gerora lan sis-temen erregulazioan zeregin garrantzizkoa izango zuen hiriko patrizioen taldea eratu zuten. Hiriko aristokrazia horrek artisauen elkargoak eta grebak galarazten zituen, alokairuak eta lan baldintzak zein izango ziren ezarriz, halako gogortasu-naz ezarri ere, non maiz langileak esklabotasunaren antzeko egoeran ezarri zituen, bide batez matxinadarako giro egokia sortzen zelarik. Behe Erdi Aroko hiri borroketariko asko sektore horien kontra zuzendu ziren, alokairuengatik edo udal gobernua lortzearen.

Artisautzaren garapena, hala kopurutan nola produkzio gunetan, aurrerabide teknikoarekin batera etorri zen, horretan oihalgintzako eta siderurgiako sektore-ak nabarmendu zirelarik. Dena dela, produkzioaren oinarrizko unitatea tailer autonomo txikia zen oraindik ere, familiak kanpoko lan eskuaren kopuru aski txikiak hornitua zena.

Iharduera horiek guztiak zabaldu nahiak lana arautzera eramane zituen aginta-riak, lanbide elkarteak –geroko gremioak– sortuz eta barne autonomia handiz hornituz. Erakunde horiek aztertzen hasi aurretik, komenigarria da ez ahaztea Erdi Aroko langileek sektore homogeneorik ez zutela osatzen, eta orobat gre-miotan bildurik, hiria zein hiri barrutia hornitzen zuten tokian tokiko artisauez

gainera, bazirela esportazio produktuetan lan egiten zuten langileak, askotan korporaziotan eraturik ez zirenak eta gutxieneko kualifikazio mailarik ere ez zutenak. Langile horiek miserian bizi ziren gehienetan, edozein krisi gorabeheraren mende. Hiri batetik bestera zihoazen langileak ziren, elizako plazan aste baterako kontratatzen zirenak; beste klase bat osatzen zuten, artisauetatik bereizita, eta proletario modernoan antzeko ezaugarriak zituzten. Normalean, horiek ziren hirietako matxinaden protagonistak, artisau txikiekin batera. Bestalde, etxeko zerbitzuen sektoreak garrantzi handia hartu zuen industriaurreko hirietan, hirian lan egiten zuen biztanleriaren herena edo biltzen zuena. Horretan emakumeak ziren nagusi, hiriko jendetza aktiboaren multzoan garrantzi handiko lan taldea eratzen zutela.

Gremioak XI-XII. mendeetan agertu ziren elkargo profesional gisa nahiz eta izen hori XVI. mendean azaldu, agintariek halakotzat ezaguturik, eta lanbide jakin bateko artisau guztiak biltzen zituzten. Hasieran, gremioetara biltzea borondatezkoa zen baina gerora nahitaezko bihurtu zen. Nahitaezko izaera hori fabrikazio pribatiboen monopolizazioan oinarriturik zegoen; horretxek ematen zien izateko arrazoa eta indarra, eta haien garrantzia areagotzen. Gremioak beren sorreratik beretik, jaunen aginpidearen aurrean artisauen amankomuneko saioa eta elkartasunaren adierazle izateaz gainera, beren interes partikularrak defendatzen saiatu ziren: konkurrentzia ezabatzea, egiten zituzten produktuen prezio altuak mantentzea, produkzioaren kalitate ona eta fiskalizazioa eta, lanaren monopolioa gordetzearen, lanbiderako sarrera kontrolatzea, ogibidea hereditziazko lanbide bilakatzen saiatuz.

Lanbideen antolamendu gremiala eta *lanbide egituraren auzia* funtsezko faktoreak dira ondasunen eraldaketa sektoreari dagokion lanaren eta produkzioaren eraketa ulertzeko, lehen industrializazioaren garaiak bitartean. Lanbide egituraren oinarritzko elementuak, hots, produkzioaren eta lanaren antolamendua hirietako artisau fabrikazioen munduan, honako hauek ziren: lan mailen antolaketa hirukoitza –aprendiz aroa, ofiziale aroa eta maisu aroa–; kualifikazioak zuen garrantzia, bai lanbidearen egituraketa egonkorrari, bai langileek haren gain zuten kontrolari dagokionez; eta lanbidearen eta familiaren arteko lotura estua.

Gremioekin batera, familia zen oinarritzko instituzioa lanbide sistema hartako lan ihardueraren, erregulazioaren eta erreproduktzioaren alorrean. Hiriko langile familia, zenbait ñabarduraz bada ere, *produktzio*, *erreproduktzio* eta *errenta* unitatea zen. Produktzio unitatea, lotura estua baitzegoen familiaren, etxearen eta tailerraren artean; *erreproduktzio* unitatea, ugaltze biologikoarekin batera, gizarte estratifikazioa moldatzerakoan eginkizun nabarmena zuelako, lanpostuak eta kualifikazioak erreproduzitzen, haietako bakoitzari zegokion statusarekin batera. Aldi berean, famili arteko langileen bilketa garbiro pribilegiatua gertatzen zen

gremioen sisteman, maisuekiko familia loturarik ez zuten aprendizak eta ofizialeak baldintza eskasagoetan ezartzen baitzituen, bai ohituren eta arau zehatzen kariaz bai arrazoi materialen ondorioz. Azkenik, errenta unitatea zen, zeren eta artisau gehienek famili unitatetik egiten baitzioten aurre biziraupenaren arazoari, familiaren sarrerak *gutzizko sarrera zatiezinezkotzat* hartu behar zirelarik.

Industriaurreko familien artean klase mekanikoetako haur eta gazteek, langintza bati lotzeko gai zirenetik, lan egin behar ohi zuten maiz askotan. Etxeko lanak neskentzat eta lanbideen ikasketa, haur eta gazte jendearen iharduera hastea egituratzen zuten bi lan sektoreak ziren; horrek, famili sarrerak gehitzea bideratzen zuten edo, gutxienez, gastuak murriztea, bi ihardunok nagusiaren etxean gelditzea baitzekarten nahitaez.

Gremio gehienek, beren lan egitura zela eta elkarren oso desberdinak baziren ere, oinarri beretsuak zituzten: gremiokideen berdintasun eta elkartasun ideala; lanbide barneko lan indarraren trataera ezberdina, maila gremialen bereizkuntza sendoaren –aprendizak, ofizialeak, maisuak– inguruan egituratua, eta lan eskua-ren zirkulazio librearen murrizketa, produkzio bideen eta kualifikazioen gaineko kontrola maisuen esku zegoela. Azkenik, modu interesatuan, emakumeen lana bazterturik zegoen, prozesu erregulatzailean ematen zitzaion bazter izaera horrek berak balio galera zekarkiola.

Modu horretara, gremioen egiturak sexu bereizketan oinarrituriko lan banaketa mantentzen zuen. Oro har, gremioen Ordenantzak emakumeek produkzioan esku hartzearen aurka agertzen ziren erabat; praktikan, ordea, emakumearen lana alboko eginkizunetan, bai eta fabrikazio prozesuan ere, ohizko gauza zen, nahiz eta lan horietariko batzuk, gremioen arauketaren kontra zihoazela eta, ezkutuan egin. Debeku horrek emakumeen lanaren mendeko izaera sendotzea zuen helburu, haren bidez lan horren ezaugarriak –merkea, malgua, esanekoa izatea– bermatzen saiatzen zirelarik; Espainiari dagokionez 1784 arte iraun zuen debekuak, urte horretan aldarrikatu baitzen emakumeentzako lan askatasuna. Emakumeen lana zuzenean tailerreko buruaren mende zegoen eta, kasu askotan, gremioaren araudia hausten zuen. Are gehiago, maisuen etxeetan neskame gisa lan egiten zuten emakume asko fabrikazio prozesuaren atal jakin batzuetan erabili ahal izaten ziren.

Industriaurreko hirian, emakumearen lana beti halako bazter lana zen, guttiz premiazkoa izanik ere, hala familiaren biziraupenerako nola pertsonarentzat berarentzat, emakume alargunen edo ezkongabeen kasuan, edo geroko ezkontza baterako dotea osatzearen. Bi ziren emakumeak gehien enplegatzen zituzten lan sektoreak: etxeko zerbitzua lehen buruan eta proportzio handienez, eta laguntza lana gremioen sisteman eta maila apalagoan. Emakumeek, halaber, salmenta eta bigarren salmenta lanetan ziharduten, batik bat kinkaila eta janari postu xumeen buru.

Emakumearen lan ordainduaren ondoan etxeko iharduera azpimarratu beharra dago, garrantzi ekonomiko positiborik ez izanik ere, artisau familiaren iraupenerako guztiz beharrezko baitzen eta are lanaren gizarte antolamenduan ere bazuen eragina. Hogeit eta hogeita hamar urte bitarteko emakume alokatuen taldearen kopurua murrizturik agertzea ohartaraztekoa da; horrek seme-alabak egiteko eta hazteko funtzioarekin zerikusia du, emakume ezkonduaren lanari buruz langile-riaren baitan izan zitezkeen aurriritziekin baino gehiago.

Gremioetako hierarkiak, goian azaldu denez, ondoz-ondoko hiru maila zituen: aprendizak, ofizialeak eta maisuak, ongi bereziak eta teoriarik behaketik goikora igotzeko aukera ematen zutenak, nahiz eta denborarekin ofizialeek maisu izateko gero eta zailtasun handiagoa aurkituko zuten. Ikasketaren iraupena elkarren osagai ziren bi bidek arautua zegoen: lehena ikasketaren nahitaezko denbora zen, lau urtekoa gehienetan, baina zazpi urtera ere iritsi zitekeena; bigarrenak ikasketa amaitutzat hartu ahal izateko gutxieneko adina seinatzen zuen (hogeit urte eskuarki). Horrenbestez, gremio gehienak baldintza eskasetan ari behar izan zuten benetako lan erreserba batez horniturik zeuden. Hamar urte bete berritan aprendiz gisa lan munduan sarturiko langileak beste hamar urtez luzatu behar izaten zuten bizitza aktiboa maila berean lan eginez. Aprendiz ikasketa lanbideari zegozkion ezagutza konplexuak beretzeko ezinbesteko ikas aldia izanik ere, aprendizak lan indar ugariena ziren, koiunturak gehien ukitzen zuena, merkeena, eta maisuentzat konpromezu gutxienekoa. Lan esku gisa ofizialen konkurrentzia ziren, merke izateak produkzio kostuen merketzea esan nahi baitzuen, haren mendetasuna eta onartzen zituen esplotazio margina handiak abantaila nabariak zirela.

Aprendizaren disziplina eta mendekotasuna, funtsean, gurasoen edo tutoreen eta maisuaren arteko itunaren ondorio ziren, haiek familiaren biziraupena erraztu nahi zuten eta haurrak ogibide bat ikas zezan interesaturik zeuden, mutikoa maisuaren etxean bizitzen jarri ohi zelarik. Dena den, eskuarki ohiturak, eta ez Ordenantzak, ziurtatzen zituen aprendizaren janaria, jantzia eta oinetakoak. Aprendizek eta neskameek sistema horretatik alde egiteko zuten molderik ohizkoena, haien adina eta gurasoekiko mendekotasun estua kontuan harturik, maisuaren etxetik ihes egitea zen.

Ofizialeek lanbide barneko integrazio maila askoz erabakiagoa islatzen zuten; aprendizaren arteko benetako hautaketa suposatzen zuen, hautapen hori guztiz era desberdineko hainbat elementuren mende zegoela: aprendizaren trebetasuna, faktore ekonomikoak, lanbidearen barnean loturiko harremanak, ikasketa aski egonkorra eta maisuaren aldetik ukoa ekarriko ez zuen jokabide onargarria. Ofizialtza, sarri asko, lanbidearen barneko egoera egonkorreko sarrera eta are gorengo mailara iristeko bide bakarra zen, azken arazo honi dagokionez maisua-

ren alabaren batekin ezkontzeak ere hartarako aukera eman zezakeelarik. Oro har, ofizialeen eta maisuen kopuruaren arteko proportzioa lau eratakoa izan zitekeen: ofizialeen portzentaia guztiz ahula; parekoa; bi edo hiru ofiziale maisu bakoitzeko; ofiziale asko maisu bakoitzeko. Maisu eta apendizaren ugaltzearen aurrean, askotan, ez zen fenomeno bera gertatzen ofizialeen artean, sektorearen atomizazioagatik eta apendizek ofizialeentzat esan nahi zuten lan konkurrentziagatik.

Ofizialeek gero eta zailtasun handiagoak zituzten maisu mailara iristeko, hauek jartzen zizkieten oztopoengatik. Valentzia hirian, XVIII. mendean, gremioz kanpoko jatorriko (ez ziren maisuen semeak) apendizaren %13 bakarrik eta valentziar ofizialeen %44,6 iritsi zen gremioen goren mailara. Hala eta guztiz ere, ogibidearen ihardueraren gaineko arauketa gremialaren iraupenak, tailerren arazo eta atomizazio gero eta handiagoak gorabehera, eragozpen handiak jarri zituen, gehienbat alokairukoa zen lan indarra orokortu zedin eta ofizialak proletario bilaka zitezen.

Gremioen eskalan, maisuak punturik gorena ziren; produktore txiki independenteak ziren eta abantaila handiak zituzten beraientzat lan egiten zutenen gain; lan itunetan xedaturikoa baino askoz harago iristen ziren abantaila horiek. XIV. mendetik, maila hori lortzeko azterketa bat gainditu beharra zegoen gremioko epaimahiaren aurrean, bai eta lanbideko arauak betetzeko zin egin eta gremioari diru kopuru bat ordaindu ere. Azken neurri hau talde horretarako sarbidea mugatzearen gehien erabili ziren metodoetakoa izan zen. Sektoreak, alabaina, ez zuen guztiz perfil homogeneoa azaltzen. Askotan, mendekotasun harremanak ziren maisuen artean, eta mendekotasun harreman horiek eragiketa ekonomikoan amaitu gabe lan esparruan bertan ere jarraitzen zuten: baziren “alokairuko maisuak” eta askotan gertatzen zen maisu batzuek beste batzuentzat lan egitea beren tailerretan. Orobat, maisu asko lehengaien, lanabesen edo makinaren hartzaille ziren eta produktu horiek merkatuan jartzen zituzten merkatari fabrikanteen mende zeuden. Gremio instituzioetan egindako artisauek ihardueraren bidez aberasteko aukera bazen ere, guztiz posibilitate urruna zen hori. Gremioaren produktzioak erdi mailako klase oparo bat sortu zuen, eta klase horren azpiko muga oso baliabide urriko maisu talde handiak osatzen zuen.

Maisutza lan indar hegemonikoa zen lekuetan, kopuruz ofizialeak eta apendizak baino gehiago izanik (Lyon edo Valentzia kasu horietarikoak izan zitezkeen), maisuen eta ofizialen lan baldintzen arteko desberdintasunak ahulago bihurtzen ziren hein batean eta, gero eta gehiago, bi-bien etsaia gauzatu joan zen, merkatari-fabrikantea alegia. Nolanahi ere, errentari dagokionez, alde garbia zegoen oraino maisuen eta ofizialen artean, eta alde hori ere handiago egin zen XVIII. mendean.

Gremio barneko lan harremani dagokienez, ez gremioak instituzio gisa, maisuen arabera moldatuak baitziren, ez tailerrak, ofizialen kontzentrazio urriagatik, ez zuten ofizialtzak amankomunean izan zitzakeen arazoak elkarrekin tratatzeko erraztasunik ematen. Bestalde, lanbideen atomizazioak, gremio korporazio bereizietan banaturik, zaildu egiten zuen amankomuneko erreibindikazioak artikulatzea.

Goian aipatu den gremioan mailaz aldatzeko oztopoaren arazoarekin batera, maisuen eta ofizialeen artean baziren amankomuneko bi gatazkabide: maisuak atxikitzen zuen ofizialearen lan agiria, eta, gatazka gertatzera, gabe geratzen zen hau; eta ofizialeak zorpetzea, haien mendekotasuna sortzeko oso sistema eragin-korra zena, modu horretara ofizialeek ezin baitzuten maisuarengandik aldegin zorraren ordainketa bermatu ahal izan arte.

Lanbide askotan, ofizialeek bere organizazio autonomoak zituzten, printzipioz ospakizuna eta jaiia beste helbururik ez zutenak, nahiz eta zenbaitetan elkarren laguntza ere xede zuten; organizazio horiek, maisuekiko gatazkak zirela eta, ofizialtza egituratzeko orduan garrantzi handiko zeregina izan zuten. XIV. mendearen erditik hara, maisu izatera iristeko jartzen ziren gero eta zailtasun handiagoen aurrean, Frantziako eta Alemaniako hiri anitzetan bereziki, jarkitzea eta elkarren laguntza helburu zuten ofizialeen eta apendizien elkarteak (*compagnonages*) sortu ziren. Izan ere, gremioa maisuen interes soilen zerbitzuan zegoelako iritzia zabaldu zen ofizialeen artean. Organizazio autonomo horiek, jai eta ospakizun izaera horregatik hain zuzen ere, nolabaiteko eragina izan zuten talde horien barne eta kanpo nortasuna gauzatzekoan.

Lanbideen antolamenduaren oinarrian lanbide autonomo ugariz hornituriko lan banaketa eta haien barneko espezializazio tekniko urria aurkitzen zen. Lanbide autonomoen ugaritasun zabalak eta, hala izanez gero, gremioenak, bereizketa sakona ekarri zuen Erdi Aroko langileriaren zati handi baten barnean, hala kantitateari nola kualitateari dagokienez. Fenomeno hau sortu zen errealitate sozio-ekonomikoan lan egiten zutenak produkzio bideen jabe ziren, maisuen kasuan, edo beren lan kualifikazioa kontrolatzen zuten maisuen eta ofizialen kasuan.

Lanaren gizarte antolamendu berezi honek bereizkuntza garbia egiten zuen gremioaren barneko lanaren eta gremioz kanpoko lanaren artean. Gremio lana hertsiki arauturiko lana zen eta gizartean oso agerikoa zinez, eta horrela izatea berez zen, hartan zihardutenen integrazio sozialari begira, faktore garrantzitsua. Baziren beste lanbide zenbait, gremiorik osatzera iritsi ez zirenak. Gutxi ziren, baina, edonola ere, beren barne antolamenduaren bidez, zegokien *lanbide egituraren bidez*, Ordenantzetan agindurikoen antzeko baldintzak betetzen zituzten, nahiz eta erakunde gisa arautu ez izateak eta legearen onespenerik ezak ahuldurik

agertzen ziren. Sistematik at geratzen ziren bai kualifikaziorik ez zuen alokairuko lana eta bai zerbitzariena eta neskameena.

Aro Modernoko gremioak, berez, ez zuen laguntza funtziorik betetzen. Egiteko horiek hermandadeei eta kofradiei zegozkien, egun gizarte laguntza eta laguntza pribatua dei genitzakeen eginkizunak betetzen baitzituzten horiek. Laguntza modu horiek, azkenik, osasun laguntza soila gainditurik, zerbitzu anitzetarako mutualitateak izatera iritsi ziren, haietako batzuk lanbide jakin bateko-  
ei mugatuak eta beste asko, gehienak, sarbide librekoak. Lehen motako hermandade-kofradiek bere zerbitzuen artean gaisotasuna eta heriotza hartzen zituzten. Bigarren motakoen jitea mugatuagoa zen, hildako kofradeen lurperatzea eta haien aldeko mezak eta hil otoitzak bakarrik hartzen baitzituzten beren gain. Horiek guztiak eliza edo komentu bati loturik zeuden eta elizgizonen bat zuten buru, horren bidez lanbidearen prestutasuna azpimarra zezaketelarik.

Azkenik, gremioek, helburu nagusiez gainera, eginbide publikoa betetzen zuten hiriaren garapenean, lanbidearen esparrua eta artisau ogibidearen iharduera gaindituz. Bitartekotza fiskalaren eginkizuna beteaz aldi berean, mobilizazio militarretan esku hartzen zuten eta ordena publikoa gordetzen laguntzen zuten matxinadek eta altxamenduek ordena hori aldatzen zutenean. Halaber, ospakizun zibiletan eta erlijiosoetan izan ohi ziren, funtsezko erakundeak zirelako testigantza eta, zeremonia konplexu baten bidez, beren prestutasunaren berme emanez.

#### **4. Feudalismotik kapitalismorako igarobidea**

Erdi Aroa amaitu ondoren, batere egonkorra eta tradizionala ez zen Industria Iraultzaren aurreko esparruan, ekonomia, gizarte eta ideologia mailan gertaturiko aldaketek lan egiteko modua eta hari buruzko gogoeta ukitu zituzten. Aberastasun iturrien gehitzeak, kolonia berrien ekarpenek eta merkataritza taldeak aberastu izanak hazkunde ekonomiko handia bultzatu zuten, eta hazkunde hori izaera bikoitza zuen merkataritza kapitalismoari loturik zegoen. Alde batetik, itsasoz haraindiko negozioa ustiatzeko konpainia handiak, kapitalen kontzentrazioan oinarriturik zeudenak, sortzea; bestetik, produkzioak lehengaiak banatu eta produktuak jasotzen zituzten merkatariek salmentarako zuen mendekotasuna –batez ere oihalgintzari zegokionez, hori baitzen produkzioari garrantzitsuena–. Produkzio modu industrialaren sorrerak kapitalaren metaketa hori izan zuen oinarri. Ekonomia ihardueraren ekimena lurjabearengandik diruaren jabearengana pasa zen. Kapitalismorako aldakuntza eragin zuten indarren artean esportaziorako egindako produkzioaren garrantzia nabaria da. Aitzitik, bertako kontsumora zuzendua edo iraupenezkoa, kopuruz askoz handiagoa izanik ere, ez zen garrantzizko faktorea gertatu prozesu hartan. Industria Iraultzaren aurretik gertaturiko

aldaketen artean honako hauek agertzen dira: tamaina handiko tailerren edo profabrikaren garapena, jopuen askapena eta espezializazioaren, teknika berrien eta lurraren inguruko erlazio kapitalisten hedapena. Halako prozesuen ondorio gisa, Industria Iraultzaren aurretik Europan ziren industria antolamenduaren hiru forma garrantzitsuenek –gremioak, manufaktura zentralizatuak eta nekazaritza etxeko industriak– aldaketa sakonak jasan zituzten.

Gremioen ordena, industriaurreko Erdi Aroko bigarren sektoreko antolamendu egonkorraren eredu zena, arras endekatu zen Aro Modernoan, ondoko bi faktoreen eragin bateratuagatik: aldakuntza demografikoa eta merkatuaren egin-kizuna geroz handiagoa zen ekonomia baten garatzearena. Estatu absolutista, bere aldetik, burujabetasuna gorde nahiz, gremioen independentzia mugatzen saiatu zen bere aginpide zuzenaren mende jartzearen, saio horrek hein batean helburu fiskalak zituela. Ezaguna da teoria merkantilisten garrantzia, eta gero ikusiko dugu haiek XVII. mendeko Frantzia izan zuten aplikazioa, baina ez da kasu bakarra. Hala, industria jakin batzuk sustatzearen, Prusiako erregeek arian-arian gremioen eskubideak murriztu zituzten zenbait tokitan.

Nolanahi ere den, gremioen kontrolatik at, merkaturako lan egiten zuen industria garatetik etorri zen mehatxurik larriena. Merkatariek lan merkea –kopuruaren, soldataren edo baldintzen mugetatik aske zegoena– bilatu ahala, gremioetako langileek beren lanpostuak desagertuz zihoazela ikusi zuten, zenbaitetan luxuzko produktuen fabrikazioa hala ere mantentzen zelarik. Ofizialeen lan autonomia, lanbideko lanetan maisuen kontrolatik kanpora ari zen emakume kopurua handitzeak eta maisuen arteko diferentziek –fabrikante gisa zuten autonomia edo mendekotasun mailaren arabeko diferentziek alegia– eragin zuten egoera irregularrak arras ugaltzea. Korporazioaren aldetik ofizialeen gainean kontrola ezartzeko eta disziplina neurriak hartzeko zeuden zailtasunak, arauen mendetik askeago zen lanaren antolamendurako joera iragartzen zuen. Modu tradizionalagoan lan egiten zuten gremio batzuekin batera, korporazio horietako asko gauditurik agertu ziren, hirien bilakabide demografikoan eta ekonomikoan gertaturiko aldaketa garrantzitsuen eraginez; aldaketa horiek oinarrizko ondasunen, elikagaien, etxebizitzaren, jantziaren eta oinetakoen hiriko merkaturak zabal hedatu zuten eta, horren eraginez, produktuak egiten zireneko lurralde, estatu eta kolonia mailako komertzializazio azkarrak zenbait lanbideren hazkundera erraztu zuen. Dena den, Europako artisau hirigune asko, bertakoen trebetasuna eta fabrikazio tradizioa zirela eta, gero industria modernoaren finkaleku bilakatu ziren arren, industrializaziorako bultzadarik funtsezkoena feudalismoaren garapen osoa lortua ez zuten aldeetan gertatu zen, hirietatik at, eta gremioak eta lan arautua desagertu ondoren.



Goian aipaturiko aldaketen eraginez, zirkunstantzia jakin batzuetan, produkzioaren fase batzuk edo guztiak produkzio zentru bakar batean kontzentratu ziren, lantegian (manufakturan) alegia. Halako tokietan prozesu berriak eta konplexuak burutu zitezkeen, eta baita makineria handiagoa eta garestiagoa jarri ere, nahiz eta eskuarki produkzioaren fase batzuk edo guztiak zentralizatzea zuen helburu, ordurarte etxean edo tailer txikietan egiten zena –tailer zentrala eta etxeko produkzioa konbinatuz–. Ildo horretatik, lantegia edo manufaktura artisau industriaren fasea baino goragoko zerbait zen, makina modernoetan oinarrituriko produkzioaren aurreko gertatu zena alegia.

Hainbat lantegi egitura desberdin gertatu ziren aldi berean, ez bakarrik halako edo bestelako industrietan, baita industria berean ere, halako moldez non industria antolamendua, probetxamendua eta lan eskuaren kostuak aukeratzeko irizpide bateraturik ez baitzen. Erabakia hartzerakoan, ohitura, lanaren disziplina eta moldaketa teknologikorako ahalmena eragin desberdineko faktoreak izan ziren.

Lantegiak ez zituen etxeko industria edo hiriko tailerrak erabat alboratu eta elkarren osagarri ziren bata eta bestea; lehen lantegi edo manufaktura horiek produktugileen esku trebetasunean oinarriturik zeuden eta ez zuten produktibitatearen aurreramendu handi-handirik ekarri, aurreramenduak izan ziren arren. Faktore eragile nagusiak, antza denez, produkzioaren antolaketa izandako aldaketak dira eta, batez ere, lan banaketaren aurrerapena, zenbait lantegik, jakintza eta espezialitate ezberdineko langileak bilduz, lan askoz ere gehiago egiten baizuten artisau balioaniztunek baino. Harekin batera, enpresa zentralizatuak garraio kostutan aurrezte zekarren eta halakoetan produkzio prozesuaren kontrola eta zuzendaritza etxeko tailer txikietan baino errazago gertatzen zen. Orobat, ordurako ziren produkzio teknikak eta tresnak gehiago hedatu ziren, bai eta berrikuntzak eta makina askoz aurreratuagoak erabiltzen hasi ere. Berrikuntza tekniko horietako batzuek eragin handia izan zuten produkzio harremanetan, zeren eta oso makina garestiak izanik ez baitzeuden produktugile txikien esku, eta horien mendekotasuna areago mendekotzen zuten.

Lantegiak beste antolaketa eredu bat eskatzen zuen, eta disziplina zorrotza lanpostuan, araudiak oso gogorrak baitziren (alkohol edariak, tailerretik ateratzea, kantua, hitz egitea, e.a. debekatuta). Gainera, lan tresnen eta produktugileen kontzentrazioa ekarri zuen, eta orobat produktugileen eta kontsumitzaileen bereizketa, bien artean merkatua tartekatu baitzen, eta, azken buruan, kapitalaren eta lanaren arteko erabateko bereizketa.

Instalazio mota horrek produkzio kapitalista ageriki azaltzea ekarri zuen, lanaren (soldatakoa) eta produkzio bitartekoen jabetzaren (kapitala) arteko banaketan oinarritua. Merkataritza kapitala, ahalik eta mozkin gehienak biltzea bila-

tzen zuena, produkzio bitartekoen eta lantokiaren jabea izanik, produkzio prozesuan berrikuntzak sartzeak eragin zitzakeen kostu murrizketaz ohartu zen. Hartarako produktibitatea gehitu behar zuen, eta langileei geratzen zitzairen azken independentzia arrastoak kendu, produkzio lana haien etxetik enpresariaren kontrol zuzenaren mendeko toki batera eramanez. Aitzitik, produktugile txikiei gehiago interesatzen zitzairen beren diru sarrerak eta lan eta bizi baldintzak hobetzea errendimendua emendatzea baino.

Eskulangintzako eredu berezi bat aldarrikatu zuen merkantilismoak. Merkantilismo hori, bere merkatua estatuaren babesaren bidez kanpoko konkurrentziaren aurrean zaintzen zuenez, funtzionamendu feudalaren egituretan sartzen ez zen lan molde bat aldeztu zuen teoria ekonomiko multzo bat zen. Eredurik eza-gunena Colbert frantses ministroak (1619-1683) aurkeztu zuen. Colbertismoak ahalegin handia egin zuen Frantzia industria eta merkataritza garatzeko; lantegiak sortu eta bultzatu zituen, aduana tarifa handiekin babestuz eta lana eta produkzioa arautuz. Lantegi horietariko asko deszentralizaturik zeuden, eta haietako produktugileen gune nagusia landetako langileek osatzen zuten. Halako lantegietan, erregearen edo pribatuak zirela, lan eskua disziplina material eta moral latzaren mende ezartzen zuten, lanean luze eta eraginkortasunez jarraituko zuela segurutzeko asmoz, eta fabrikaren barnean zein kanpoan ordena egokiaren eta gizarte hierarkiaren mende mantenduko zela segurutzeko orobat. Langile horiek, bizitza gogor horren nolabaiteko ordaina jasotzeko, ez zuten zergarik ordaindu ez eta soldado joan beharrik, eta urte kopuru jakin bat hartan lanean iragan ondoren, maisu artisauek gisa jar zitezkeen. Eraginkortasun handiko itxura bazuten ere, sistema merkantilista gehienek desagokitasuna garbi geratu zuen eta beren esku zeuden baliabideak ezin modu txarragoan erabili zituzten.

Dena den, kapitalismorako igaroaldiko fenomenorik deigarriena, etxeko industriaren garapena izan zen, funtsean nekazaritza tokietan gertatu zena. Zehaztasunaren aldetik ezin da industrializazio hitza erabili nekazaritza tokietan lanbide bat agertzen den bakoitzean, zeren eta eredu horien artean bai baitira lanbide horiek nekazaritza ekonomiaren eranskin huts direnetik hasi eta banaketaren maila handia eskatzen duten artisauek produkzioetarakoak. Gainera, eredu horiek toki eta aldi berean gertatu ziren, nahiz eta bilakabidean atzerapenak ere gerta zitezkeen. Hala ere, sistema horrek zenbait lekutan izan zuen industria garapena ikusirik, feudalismo garaian inoiz ezagutu ez zena, esan daiteke behe-rantz zihoan Antzinako Errejimenaren azkeneko irtenbidea ez baino industrializazio moderno edo Industria Iraultzaren lehen aldia zela hori.

Erdi Aroan abiarazia zen hiriko produkzio sistemaren gainean gremioek egindako presio ekonomiko-politikoaren mugek hiriaren eta landaren arteko lan banaketa eragin zuten; zatiketa horrek eta laborantzaren alorrean izandako hobe-

kuntzek bultzaturiko nekazari biztanleen bereizketa eta polarizazio prozesuak protoindustrializazio izenez ezagutzen den etxe industriaren garapena moldatu zuten. Biztanle gehienak gehienbat lurraldearteko edo nazioarteko merkatuetarako lantegi produktiotik bizi ziren nekazaritza lurraldeetan gertatu zen prozesuari deitzen diogu protoindustrializazioa. Kasu askotan, etxeko langile horiek lurrik gabeko langileak ziren, denbora osoan iharduera hartara emanak zirenak. Nekazari familiaren barneko lanaren antolamenduan oinarritzen zen fenomeno hori, merkataritzaren eta merkataritza kapitalaren hedapenarekin batera gertatu zena, gero eta “nazioartekoagoa”, eta halako espezializazio bat eta lurraldekako lan banaketa gero eta handiagoa zuen ekonomia batean gertatu zen. Azkenik, sistema feudala kapitalismo industrialera bideratu eta eramango zuen aldakuntza prozesuaren osagai garrantzitsua izan zen, iraupen luzea izango zuelarik. Etxean egiten zen lantegiko produkzioa, hirietakoa zein nekazaritza girokoa, Alemania, Suitza, Austria-Hungria, Espainia, Italia eta Frantziako industria hazkundearen parte handi baten ezaugarria izan zen XIX. mendearen erdira arte, eta are beranduago garaia arte.

Nekazari familiak bere burua esplotatzen zuen eta kopuruz emendatzen zihonan lan esku baten iturri ziren industriarentzat; lan esku honek hirietan izaten zen soldata baino urriagoa jasotzen zuen, bigarren mailakotzat hartua zelako, eta era horretara merkatariei hirietako batez-bestekoak baino mozkin handiagoak ematen zizkien; irabazi horiek, hain zuzen ere, fabrikaren aurreko produktibitatearen gehikuntza garrantzitsuen eragile izan ziren kapitalaren metaketa eta berrikuntza teknikoaren iturburu izan ziren. Ondoren, barrieaketa geografikoak eta lan erritmoen zein kalitatearen erregulaziorik ezak ezarritako kostu marginal handiek, “mandatuen sistema” delakoa edo fabriketako produkziara edo desindustrializaziora eraman zuten.

Zenbait hirialdetan artisau sistema berezia garatu zen, bai gremioen bai merkataritza kapitalak kontrolaturiko sistemen produkzioen, eta merkatuaren joerak soilki segitzen zituzten produkzioen ordezkoak burutzen zituzten. Artisauen ohi-turek eta balioek moldaturiko sistema berezi hori, bertan “lanbidearen aztura” osatzen zuten mutualitate eta lankidetzaren printzipioak garrantzi handikoak zirela, oztopoa izan zen kapitalismoaren aurrerabiderako.

Oraindik ez da oinarritzko adostasunik lortu protoindustrializazioaren fenomenoaren baloratzeko orduan. Hala, autore batzuentzat hitz lausoa da protoindustrializazioaren hori, zeren eta XVIII. mendeko ingeles ehuleengandik hasi eta Pertsiako zilargile eta Guatemalako artzainenganainokoak hartzen baititu barnean (Thompson); beste zenbaitentzat, berriz, Industria Iraultzaren aurreko hurbila da; badira, bestalde, etxeko sistema teknologia estatikoekin, antzinako antolaketa industrialarekin eta industriaurreko gizarte balioekin lotua zegoela esaten dute-

nak. Nolanahi ere den, nahikoa argi dago protoindustrializazioak, historiaren aldi gisa, ez duela balio unibertuala, ez dela premiazkoa eta, gainera, zenbait lurralde-ri dagokionean, ez duela ematen bereziki garrantzitsua denik industrializazio prozesuaren garapenari begira. Ez zuen ez eta ildobakarreko aurrerabidea ere, industria bakoitzaren abiaguneak desberdinak baitziren.

Bestalde, kontuan hartu beharra dago lehen garapen kapitalistaren definizioz-ko ezaugarrietariko bat lan esku gehiago erabiltzeko moduak bilatzea zela, gisa horretara lan esku hori merkeago izan zedin eta haren aprobetxamendua intentsi-boagoa. Honela etxeko industria mozkinak gehitzeko eta kapitala zabaltzeko modua izan zen. Modu horretara, ez da gauza ezaguntzat hartzen fabrika defini-zioz lanaren antolaketa sistema denik, ez eta energiaren erabileran oinarrituriko makina modernoak teknologiaren aplikaziorik onena zirenik. Aldaketa teknolo-gikoak eta fabrika produkzioa industrializaziorako bidearen parte bat besterik ez ziren; Eric J. Hobsbawm historialariaren hitzetan, XVIII. mendeko industria hedakuntzaren alderik agerikoena ez zen fabrikak eraikitzea izan, etxeko lanaren sistema deitua hedatu izana baizik. Azken batez, makinizazioaren, serieko pro-dukzioaren eta proletarizazioaren aldia hasi baino lehen –geroagoko prozesua baita berau–, industriaurreko lanaren gizarte antolaketak eskaintzen zituen ahal-men zabalak sakon ustiatu ziren, funtzionamendu egokirako traba ziren alde zurrunenak malgotu ondoren.

Langileen egoerari dagokionez, hasieran produktugile txikiek nolahalako autonomia formal bat gorde bazuten ere, tokian tokiko merkatuan sal zitzaizketen produktuak, merkatariak bezalaxe, etxeko lanaren sistemaren garapenarekin merkatari baten aginduz eta haren zerbitzura lan egiten zuten, baina lehen izan-dako berdintasuna galtzen zuten horrekin. Horrenbestez, kapitala argi eta garbi merkataritzaren esparruaren mugak gainditzen hasi zen eta produkzio prozesuan sartzen. Dena den, urrats hori ez zen automatikoa, zeren eta ahalik eta mozkin handienak ateratzeko kapitalari loturik doan interesa bada ere, ez baita gauza ziurra kapital horrek beti eta ezinbestean produkzioaren esparruan sartzea joko duenik.

Produktugile txikien independentziaren bukaera eta kapitalista baten produk-zio bideak erabiltzea, erresistentzia saio asko izan zuen prozesu luze baten ondo-rioa izan zen. Sistema batetik bestera iragatea merkatariaren nagusitasun ekono-mikoari esker lortu zen; izan ere, merkatariak modu bat baino gehiagotara joka baitzezakeen: krisialdian maileguak emanez, lehengai merkeagoak hornituz edota langile berrien iharduera “independentea” hasiz eta halakoei produkzio bideak ekarriz. Gainera, izaera monopolista ematen zioten pribilejio instituziona-lek aldaketa hori obratzera behartu zuten.

Prozesu honen kontrako erresistentziari dagokionez, hirietan antolaturiko gremioek arrakasta izateko ahalbide gehiago zuten landetako langile barreiatuek baino. Nolanahi ere, produkzio harreman berrien eragin geroz handiagoa zela eta, langileen borroka lan baldintza hobekia lortzera zuzendu zen, industria antolamenduari zegozkion erlazio berrien esparruan. Produktugile txikien familia ekonomiaren autonomia galtzeak produktugile txiki horiek produkzio prozesua bera antolatzeke gaitasuna galdu izana islatzen zuen; galera hori lanaren banaketa sozial gero eta handiagoak erakusten zuen, eta banaketa horretan produkzioa soilik edo, gehien kasuan, haren parte bat burutzen zen lekua zen etxea.

XVIII. mendeko etxeko eta tailerretako eskulangintzaren zabalkunde handia eta haren nolabaiteko arrakasta, eta orobat hark XIX. mende aski aurreratu arte iraun izana, lanaren ustiapen intentsiboaren emaitza izan ziren, bereziki emakumeen eta haurren lanarena, ustiapen hori gutxienez fabrikako sistemak ezarritakoaren adinakoa baitzen, zeren eskulangintza prezio etekinaren sistema global baten barne baitzegoen. Emakumeak protoindustriari dagozkion zereginetan aritzea ez zen berria, baina bai zen berria industria horien zabalera handia eta gutxi ordainduriko lan eskuarekiko lotura.

Emakumeen lan esku merke horren erabilera mekanizazio prozesuaren ondorioz urritu zen eta nekazaritza inguruko industria berrietara aldatu behar izan zuen, are soldata maila apalagoekin. Denbora luzean emakumeak erabiltzen jarraitu zen, esku teknikan edo artekoetan, mekanizazioaren alternatiba gisa.

Neurri batean, gizonezko langileek lanerako sarrera mugatzeko ahalmena zuten lekuan, emakumeak lan teknika intentsiboenetara eta eraginkortasun txikienekoetara baztertu ziren. Emakumeen lan indarra eskuzko zereginetan erabiltzen zen; gizonezkoek, aldiz, tresneria eraginkorra erabiltzen zuten. Horregatik hain zuzen, gizonezkoen lan eskuaren produktibitatea emendatu zen, emakumezkoena bere hartan aldatu gabe geratzen zelarik. Emakumezkoen trebetasuna eta antzea, etxeko lanetan ihardunez egindako ikasketa luzearen ondorioz lortuak, ez ziren aintzat hartzen eskubide osoko kualifikazio gisa. Iharduera horien konbinazioak oso ikasketa irregularra eta formalizatu gabea esan nahi zuen; lanbide baten kualifikazioa zehazten zutenen aurkako ezaugarriak hain juxtu. Familiako industria unitatean nagusi ziren soldata apalen tradizioak eragin zuzena izan zuen fabrikako sisteman sartzen ziren emakumeei eskainitako alokairu maila haien gizonezko lagunena baino askoz apalagoa izan zedin.



## 3. Gaia

# Industria iraultza eta laneko iraultza: kapitalismoa

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. KAPITALISMOAREN SISTEMA ETA IRAULTZA LIBERALA
3. INDUSTRIA IRAULTZA, 1750-1830
4. BIGAREN INDUSTRIA IRAULTZA, 1870-1915
5. TAYLORISMOA, FORDISMOA ETA ALIENAZIOA

### Kontsultarako liburuak

- Berg, M., *La Era de las Manufacturas*, Crítica, Bartzelona 1987.
- Mori, G., *La Revolución Industrial*, Alianza, Madril 1987.
- Piore, M. J.- Sabel, C. F.: *La segunda ruptura industrial*, Alianza, Madril 1990.
- Pollard, S., *La conquista pacífica*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza 1991.





## 1. Sarrera

Historiagileek maiz erabiltzen duten “oraina ezagutu iragana ulertu ahal izateko” horretan ongi islatzen da Industria Iraultza deritzaion garaiari eta produkzio sistema kapitalistaren zabaltze orokorrak ekarri zituen aldaketei buruz zenbait historiagilek duen ikuspegia. Aldi gutxi izan izango da historian, momentu bera eta momentu horretako fenomenoak argitzeko hainbat argumentu molde desberdin erabili denik. Mendebaleko gizartean XVIII. mendeaz gero izan diren aldaketei buruz ikuspegi baikorra eman izan da ekonomiaren geraldietan. Aldaketa horiek eragin zuten egoeraren alderik ilunenak azpimarratu izan dira, berriz, ekonomiaren beheraldietan.

Eta horrela, industria eta aurrerapen ekonomikoa gauza beratzat hartzen ziren 1970. urtea arte, eta aurrerapen hori lortzeko industrializazio zabal bortitza, hazkuntza bizkorra lagun izango zuena, beste biderik ez zegoela ere ziurtzat ematen zen. Aurrerapen horrek eragin duen krisi orokorrak, ordea, aldarazi egin ditu gauden egoerara ekarri gaituen prozesua aztertzerakoan ontzat ematen ziren abiapuntuak. Aurrerapen horren eredu izan ziren herrialde industrialen (horien aitzindari zen Erresuma Batuarena barne) behaldia iristean, eta horietan industrializazioa nola bideratu zen berriz azertzean, jakinmin berezia sortzen dute eta halako garrantzia ematen ere zaie, lantegi handien eta bere makineriaren edo gehiegizko jeneralizazioen atzean gordeak egonik, orduan behar hainbateko garrantzia ematen ez zitzaizen zenbait aspekturi. Aurrerapen horren alde onak agertzeko erabili ziren sistemak eta aurrerapenaren ideia bera ere krisian sartu izanak aurrerapen luze etengabeko horri zerizkion balioetan jarri zen itzaropenari ere erasan egin dio, eta era bateko aurrerapena bideragarri izatea bera zalan-tzan jartzen da gaur.

Horrek industrializazioari buruz eta, batez ere, Britainia Handiko industrializazioari buruz beste ikusmolde bat izatea eta, aldi berean, orain arte alde batera uzten ziren zenbait aspektutan, bizi dugun krisiak nabarmen utzi dituenetan, arreta berezia jarraraztea eragin du: teknologia eta lana antolatzeako era berriek ekarri dituzten ondorio sozial eta ekonomikoetan, adibidez. Dagoen industria egitura aztertzeako moduan fenomeno horiek eragin dituzten aldaketak eta, batez ere, tradiziozkoaz gainera beste industrializazio eredu batzuk, hobeak eta funtzionatu dutenak, izan direla ikusteak, Industria Iraultzari beste alde batetik hurbil ahal izateko aukera eskaintzen digute. Iraultza hori prozesu konplexu eta alde anitz dituen bat, bere atzeraldiak eta aurreraldiak izan dituen bat bezala ikusten da gaur, eta iraultza horretako zenbait antola erak eta horiei darizkien beste hainbat auzik garrantzia handia hartu dute, industriako lan antolaketak, esate baterako, eta ez, gainera, fabriketan egiten zen lanaren antolaketak bakarrik, baizik

baita etxeetan egiten zen lanarenak, artisautzako eran egiten zenak, emakumeenak, haurrenak eta azpikontratatzegituenak ere. Oso haintzat hartzen dira, bestalde, aldian aldiko lan indarren ezaugarriak, kontratatzeko moduak, langile berriak lanean trebatzeko moduak, garai bakoitzeko langabeziaren arazoiek eta ezaugarriek, izandako industria esperientzia desberdinek, e.a. Azterketa horren ondorioz industrializazioari buruzko beste ikuspegi bat ari da taxutzen. Ikuspegi horren arabera ez zuen industrializazioak zertan era batekoa izanik, zeren izan zen horretan bertan ere, tamaina txikiko lantegiek, mekanizazio maila apalekoak, industriaurreko egiturako elementuek eta lan sistema malguek, etengabeko produkzioarekin zerikusi gutxi zutenak eta, guztiaz ere, konkurrentzia mailan atzera geratu ez zirenak, nahikoa denbora luzean iraun baitzuten bizirik.

## 2. Sistema kapitalista eta iraultza liberala

Lan honen muinean sartu baino lehen ona litzateke, labur bada ere, Industria Iraultzarekin azaldu ziren aldaketa ideologikoak eta politikoak –horri aurrea hartuz batzuetan; ondorio gisa etorritz, maiz– aztertzea. Politikoari dagokionez, liberalismoarekin eta Frantziako Iraultzarekin hasi zen industria aroa. Liberalen pentsatzeko eraren oinarrian gizona gizartearen eta Estatuaren aurrean norbanako aske bat dela zegoen. Askatasun hori, berriz, gizonak gauzen jabetasun pribatua izateko eta hura bere nahiaren arabera erabili ahal izateko duen eskubidean oinarritzen zuten. Gizona kolektibitatearen gainetik jartze horrekin eta estamentuak gaitzestearekin liberalismoak oinarri ideologikoak eskaintzen zizkion kapitalismoari, honek bere sistema aurrera eramane zezan, zeinaren oinarrietako bat gizabanako “libreen” artean kontratuak “libreki” egin ahal izatea izango baitzen, hain zuzen.

Liberalismoari darion ulertzeko era anitzak, gizarteari nahiz dotrinari buruzkoak, klasezko gizarte bat (kapitalismoa bereizten duen ezaugarria) eratzerako orduan molde bakarrerako biderik ematen ez duen arren, kapitalismoak ekonomia jakin bat (*laissez faire*), zuzenbide jakin bat (guztiz norbanakozalea), Estatu molde bat (ekonomian ez parte hartzearen aldekoa), etika jakin bat (lanarena), demokrazia modu bat (ordezkotzan eta ez partaidekotzan oinarritua), kultura jakin bat (sistemaren oinarrien zerbitzurakoa) eta nazioarteko ordena modu bat jaso zituen ideologia horren gainean. Burgesia izan zen produkziobide berri horren esku eragilea, eta feudalismoa alde batera utzirik beste era bateko gizarte harremanak eta moral berria sorrarazi zituen.

Industria aparatua (garraioak ere barne) eta mailegu aparatua izan ziren sistema horretako produkziobide nagusiak; bi aparatuek horiek merkatu aske baten esparruan funtzionatzen zuten, eta horien jabe egitea edo kontrola izatea nahita-

ezko bihurtu zen agintzeko. Produkzioko bi aparatu horietan zuten jabetza mailaren baitan eratu ziren klase sozialak eta gainerako gizataldeak. Aldaketa prozesu luze baten eta langileak pixkana-pixkana proletario izatearen baldintzetara makurtzearen ondorioz, iritsi zen gizartea lan antolaketa berri, kapitalista eta industrial horretara. Lan antolaketa berri hori zela eta, ez bakarrik produkziobideen, kualifikazioen eta produkzioaren beraren kontrola galdu zuten langileek, baizik alor horiek berak ere homogeneousago bihurtzen joan ziren.

Izan diren beste teorienik bezala, liberalen ereduaren aplikazio enpiriko beterenik, kapitalismo huts garbiaren okerbide posibleak sistemaren barneko indarrez zuzenduko zituenik ere, ez da izan, eta Europako iparraldeko errejimen politiko liberalek ere, bestalde, ez zuten erudian agertzen zen ideien arabera funtzionatu; nahiz eta, azken batean, arazo publikoetako eta pribatuetako eremu handiak arautu gabe uztea izan liberalismoaren ezaugarrietako bat. Ez da, aldiz, eragile sozioekonomikorik (burgesia), ardura bakarra sistema horri ahalik probetxu gehiena ateratzea zuenik ere izan, izan ere bai baitira gizartean arrazoibidezko mekanismoak, sistema kapitalistaren gain eragina dutenak eta horretan aldaketa berriak sar ditzaketenak.

Estamentuen, feudalismoaren edo komunitateen kutsuko arauak ezabatze aldeko giro horretan, produktuak egiteko, saltzeko edo erosteko, dirua inbertitzeko, lur sailak beretzeko edo, arau batzuen barruan baina, langileak batetik bestera aldatzeko askatasunik uzten ez zuten muga zahar horiek desegite aldeko giro horretan, hazkuntza ekonomiko ikaragarria izan zen, gizadiaren historian aldi berri gisa ezagutzeko zuina jarriko zuena.

### **3. Industria Iraultza, 1750-1830.**

Industria Iraultzak goikoz behera aldatu zituen bizitzeko moduak eta baldintzak, gizarteko antolaketa, politika egiteko era, herrialde batzuetako eta besteetako aberastasunen eta agintzeko ahalmenen arteko oreka (herri aurreratuen eta atzeratuen arteko aldea handituz), eta horietako kulturen eta zibilizazioen artekoa. Industria Iraultza XVIII. mendearen erdialde inguruan hasi zen, eta gutxi-asko, berehala hedatu zen Europako zenbait herrialdetara.

Hartu zuen hedaturari dagokionez, estatu mailako fenomeno baina eskualde mailako fenomeno gehiago izan zela azpimarratzeak badu bere garrantzia, zeren izan baitziren industria eskualdeak, lurraldez gehiengoa nekazaria zenetan kokatuak, eta alderantzizkoak. Industria Iraultza Britainia Handia guztian zabaldu zela esatea fenomeno horri buruz ikuspegi faltsua eta soila ematea litzateke. Gehiago oraindik, izan baitziren kontinenteko aldean eremu batzuk, Mosa (Bel-

gika) haranekoa eta, britainiarra baino askoz atzerago ez zeudenak. Baina, industrializazioa Britainia Handian hasi zela esan ohi da, eta hangoak sortutako lehiak eraginda bezala Frantziara, gaur Belgika den lurraldera, gero Alemania bihurtuko zenera eta Estatu Batuetara zabaldu zen, eta geroago, Txekoslovakia bihurtuko zen lurraldeko eskualde batzuetara, Europako iparraldeko, hegoaldeko eta ekialdeko muturretako lurraldeetara, eta Japoniara. Iraultza prozesu hori lehenago edo geroago gertatu izana zenbait kasutan onerako eta beste kasu batzuetan okerrerako izan zen, berrikuntzak sartzeari dagokionez.

Industria aurrerapen hori Britainia Handian eta XVIII. mendearen erdialdean gertatu izateak baditu bere arrazoiak. Arrazoi handienetako bat lurralde hori baliabide mailan oso aberatsa izatea da: meak, ikatza merke eta nahikoa, burdina, kobrea, ura energia iturri gisa erabiltzeko edo industriako hainbat prozesuetan erabiltzeko eta, garraiorako, batez ere. Baina beste hainbat baldintza ere bildu ziren prozesu hori gerta zedin: feudalismo kutsuko eragozpenik jartzen ez zuen errejimen politiko bat, artisautzako tradizio handi bat, nekazaritza aurreratu, ezarpen fiskalaren kargarik handiena jasango zuena, salgai zegoen lan eskua, lur sailen jabetza gero eta gutxiagoren eskuetan biltzen joateak eta horiek hesituak egoteak sortzen zuena, merkataritza tradizio bat, helburu nagusitzat irabazia zuena eta, kapitalismoa garatu ahal izaten nahitaezko osagaia zena, izatea, labur esateko, produkzioa kapitalismoaren oinarrien gainean tenkatzera bideratzeko eragozpen sozialik edo kulturazkorik ez zuen hainbat giza talde izatea. Horrela bada, lehengo Britainia Handi “tradizional” hura, nekazariz osatutako gizarte xehetasunik gabeko bat zena eta zenbait lanbide eta garrantzi handiko industriarik ere ez zuena, industria sare konplexu eta aldatuz zihoan baten jabe bilakatu zen 1780. urte inguruan. Gero eta indartzenago zihoazen garraioen, merkataritzaren eta maileguen arabera antolatua zegoen industria sare hori, eta merkatua ere kapitalismoaren moldeko produkziobidetik abiatua zen.

Ez zen britainiar industrializazioak eragin zuen lehiari eta handik zetozen produktu landu merkeei aurre egin behar izan zien Europako kontinente aldeare ere lur eremu geldia homogeenoa bat. Baziren hor ere zenbait ekonomia sail kontraste askokoak, garapen eta aldaketa prozesu sakonetan murgilduak. Kontinente aldean, ordea, industrializazio aurreko garaiak luzeago iraun zuen. Gertatu zen horrela, Frantzia eta Alemanian adibidez, lan eskua ugari eta merke zelako, eta horiek produkzioa langileen trebetasunean eta gizalanean oinarritzea bazutenez, laneko prozesuak azkartzeko bidea aukeratu zutelako, beste zenbait arrazoiren artean. Bi lurralde horiek ez zuten ingelesaren ereduari jarraitzeko ezin gaituztuko oztoporik aurkitu bidean, nahiz eta kontinentean sartu ziren berrikuntzarik gehienek, lurrin makinek, ehungintzakoek, burdinbideetako sistemak, e.a. Britainia Handikoekin batera alderik ez izan. Hasierako atzerapen hori gaituztuta ondo-

ren, 1875-1900. urte bitartean, beren teknologia berekia egiten hasi ziren. Horregatik aztertuko ditugu Britainia Handiko industrializazioa eta hura eragin zuten arrazoiak, batik bat, eskuartean daukagun lanaren parte honetan.

Aldi berean, eta bidean ziren aldaketekiko, bat-bateko mozketak bat, haien ondorio logiko bat eta gertatuko zela igerri zitekeen fenomeno bat izan zen Britainia Handiko Industria Iraultza. Historiografia klasikoaren arabera egoera ekonomikoa bat-batean eta erabat aldatu zen Britainia Handiko industria Iraultza bitartean. Horren kontrara, garai horretako produkzio hazkuntza aditzera eman izan den adinakoa ez zela izan, diote gaurko historialariek. Garrantzi handiagoa ematen diote hauek XVIII. mendeko hazkuntzari, gizabanakoaren irabazia, *per capita*, eta ondoko beste ekonomia eraskinak kontuan izanik behintzat, mende horretako hazkuntza ondorengo beste berrogeita hamar urteetakoa baino handiagoa izan zela eta. Oro har begiratuta, demografia hazkuntza handia, produkzioaren eta prezioen gorakada, enpresak sortzeko erraztasuna, berrikuntza teknikoak sartzea, garraioetako iraultzari esker trukaketak gehitzea eta masan produzitzen zenez masentzako produzitzea ere bideratu zituen aldi luze bat bezala agertzen da XVIII. mendea. Azpimarratzekoa da, bestalde, ez zutela teknika eta industria mailako aldakuntzek eragin bera izan lan banaketa alor guztietan, trebetasuna eta lanpostuak emendatze kontuan, eta eskualde batzuetan eta besteetan ere. Aldakuntza horiek ez zuten ondorio gisa hazkuntza ekarri beti, eta alderantziz, eskualde bateko industria beherakadak eragin handia izaten zuen beste hainbat industriatan eta langileengan ere.

Mundua hainbeste aldarazi zuten berrikuntza gehienek jatorri ekonomikoa eta berrikuntza horiek eragin zituzten ondorioak zein izan ziren zehatz jakitea praktikan oso erraza ez den arren, Industria Iraultzaren hasiera behintzat (1760-1800) industrian eta ekonomiaren oinarriko zenbait sektoretan izan ziren berrikuntzek elkarrekin izandako harremanen, horietan izandako aldaketen eta garai horretako produkzioaren emendatze bizkorraren baitan definitu ohi da. Animalia edo landare jatorriko lehengaien lekuan mea lehengaiak erabiltzea izan zen Industria Iraultzaren abiaburu teknologikoetako bat. Produkzioaren osagarri ziren komertzio eta merkataritza sareak berritzeak eragin handia izan zuten produktibitatea gehitze mailan. Gobernu gehienek, hasieran behintzat (1870a arte), ez zioten askorik lagundu industrializazioari. Enpresa barnean bakezko giroa mantentzeko legedi bat egitea, horietatik kanpora segurtasuna zaintzea (sindikatuak desegitea barne) eta gremioen arau murriztaileak desegitea izan zen gobernu horiek industrializazio prozesu horri eskaini zioten laguntzarik handiena. Gerrak eta komunikabideetako azpiegiturak (burdinbideetakoak, batez ere) hedatuz joan zirela bide hasi ziren Estatuak prozesu horretan eragin handiagoa izaten; eragin hori erabakiorra izan zen industrializazioko hurrengo aldian.

Teknologiaren berrikuntzak funtsezko garrantzia izan zuen bilakaera horretan, baina kapitalismoaren konkurrentzia eta presioa izan ziren lan antolaketa XVIII. mendearen bukaera aldera molde berriak hartzera eramanez zuten faktore nagusiak. Egia esan, teknologia berri batek indarra hartzeak ez zuen, garai horretan, teknika aurreratuak eta energia mota berriak erabiltzea bakarrik esan nahi, laneko indarra ahalik ongien probetxatzeak, lan esku merkea erabiltzeak, eta eskuz lan egiteko teknologiek, fabriketan eta etxean lan egiteko baliagarri zirenak hobetzeak ere indarrean jarraitu baitzuten oraindik. Ez hori bakarrik, lanaren banaketan eta, batez ere, eskuzko lana are sail txikiagotan banatzean dago produktibitatea handitzearen iturria, dio Adam Smith, ekonomia zientzia berriaren sortzaileak. Produkzio prozesuak operazio txiki zehatzetan zatikatzea eta operazio horietan langile bat edo gehiago trebatzea esan nahi zuen lan banatze horrek.

Enpresa tradizional askotan izan zen industria hazkuntza, XVIII. mendea bitartean, ez puntako sektoreetan, kotoia eta burdina lantzen zenetan bakarrik. Horiek eta lurrin energiaren funtzionatzen zutenak baino langile eta aberastasun gehiago erabili izan zuten denbora luzean oihalgintzako eta meagintzako industria tradizionalak. Baziren etxerako ohizko artikuluak artesautza bidez lantzen zituzten industriak ere, ziurrenik industria berrietuek adina langile edo gehiago enplegatzen zituztenak. Dena den, industrializazioak ekonomiako sektore guztietan izan zuen eragina, era batera edo bestera. Muturreneko kasuetan ere, teknologia mailan inolako iraultzarik izan ez zuten sektoreen nahiz industrien kasuan, edo antolaketa aldakuntzarik antzeman ez zitzaizkeen kasuan ere, industrializazioak eraginik izan ez zuela edo alde guztietan gertatu ziren aldaketetatik marjinauak geratu zirela esatea okerra litzateke.

Arrazoi du Maxime Bergek Industria Iraultzaren garaian bi sektore hain desberdin ekonomia bikoiti batean ukoz uko bizi zirela dioenean. Bata tradizionala zen, mailaz maila garatuz zihoana eta astiro bederen gero eta produktibitate handiagoa ateratzen zuena, eta XIX. mendea aurrera samar sartu arte sektore nagusi izan zena. Bestea, kotoiarenak, burdinarenak, makinagintzakoak, garraioetakoak eta kontsumoko zenbait gai (zeramika, papera) egiten zituztenek osatzen zuten. Eta hain zuzen ere, sektore horretan egin ziren berrikuntzarik sakonena, igeritzeko moduko aldaketak zenbait langintza mailatan bakarrik izan baziren ere hasieran. Bergek azpimarratzen du, bestalde, lurrin makinatan eta automoziozko prozesuetan finkatu zen industrializazioaren ondoan izan zela beste Industria Iraultza bat ere, etxeko industrian eta artisautzako lantegietan oinarritua hau, batez ere erremintagintzari, makina txikiak egiteari, laneko trebetasunari loturik zegoena eta, gehienbat, emakumezkoak eta haurrak enplegatzen zituen.

Beraz, ezin dira bi industria antolaketa horiek besterik gabe kontrajarri, eta bata, makinazko eta fabriketako lanari lotua, etengabe berritzen ari balitz bezala,

eta bestea, eskuzko eta etxeko langintzari lotua, aldatzen ez balitz bezala agertu. Industria antolaketa mota asko izan zen. Lan sistemetan, lana antolatzeko eran, bata edo bestea hartu, zenbat produzitu edo zenbat makina berri sartu edo ez sartu, produkzioko aldi bakoitzerako eskaintzen zituzten abantailen arabera egiten zen aukera, eta beste zenbait faktoreren arabera: enpresa barnean agintzen zutenen eta mendekoen arteko harremanak nolakoak ziren, langileen arteko elkartasuna zenbaterainokoa zen, industriako ohiturak zenbateraino sartuak zeuden, langileen militantzia maila, merkatua, monopolioen edo konkurrentziaren eragina, e.a. Horren ondorio izan zen, etxeko sistemak eta fabriketako sistemak, bizitzen jarraitu zutelak biek, eta lantegi berean, gainera, hainbat kasutan. Laneko hainbat prozesuri dagokionez ere beste horrenbeste esan daiteke; kotoizko oihalgintzan, esate baterako, oso makineria gutxi sartu zen, XIX. mendearen erdialdea arte behintzat, hain ere hala non adar horretako langile gehienek beren laneko prozesuan egiazko aldaketarik ez baitzuten somatu industria iraultzako azken urteetara arte. 1851. urtean industrian lan egiten zuten gehienek ez zuten fabriketan, edo teilatupe berean langile sail handiak ari ziren lantegietan iharduten. Gorago esan den bezala, ofizioen egitura aldaketa egin zen, hala ere.

Esan beharra dago orobat mekanizazioa nahikoa hedatu zela garai horretan; hori aztertzerakoan, ordea, fabriketara baino lehenagoko industria garaian teknologia mailan izandako aldaketak ahazteko joera izan da, eta aitortu beharra dago, izan zirela sistema deszentralizatu batzuk, artisau tailerrak, e.a., teknologia aldaketa handi samarra egin eta produkzioari zegokionez errentagarri izan zirenak, nahiz eta energia berririk erabili ez eta fabriketarako ihardun ez. Ikusi denez, etxeko lan sistema ez zen nahitaez atzeratua eta marjinala, eta alderantziz, bazituen bere abantailak: langilea hartze eta botatze kontuan askatasun handia zen sistema horretan eta ez zen bestean adinako kapitalik ere behar. Lan bera mekanizatua zuten sektoreak egoteak eta horietan merkantzia merkeago ateratzeak, ordea, jornal apalagoaren truke lan egitera behartzen zuen lana etxean eta bere kontura egiten jarraitu nahi zuena. Eta alde hori berdintzeko ordu gehiago sartze-  
ra eta lana azkarrago egitera behartua zegoen. Bai fabriketan bai etxeetan, han langileari eta hemen haur eta emakumeei, ahal zen guztia ateraz lortzen zuten etekin hori. Sistema horrek, hala ere, bazituen bere muga fisikoak, naturalak, baina muga ekonomiko bilakatzen zirenak, eta ondorioz produzio sistema berrien bila hastea eskatzen zutenak.

Gaur egun produkzioa bateratzeko eta mekanizatzeke leku nagusitzat dauzkagun fabrika edo lantegi horiek antzinakoak dira, makinak izan ez izan. Produkzioa zaintzeko eta langilea disziplina zehatz batera makurrarazteko lekuri egokienak fabrikak izan arren, ez zuen horiek sortzeak etxeko lan sistema bat-batean eta erabat desagertzea eragin, fabriketako lan asko etxeetako lan sare zabal bati

esker osatzen baitzen. Fabrika izenez ezagutzen zena bera ere, kasu askotan, eraikuntza handi bat ez baina, hainbat tailer koskorrez osatutako multzo bat izaten zen. Eta prestakuntza berezia zuten hainbat artisau ere ari izaten ziren, bestalde, fabrika horietan lanean, destajuan gehienetan. Lurrin energia sartzeak berak ere ez zuen berez fabrika etxe handiak egin beharrik eragin, energia hori teilatupe berean alokairu jakin baten truke lokal berezi batean aritzen ziren artisau banakoei errentatzen baitzitzaien. Ez zituen, beraz, lurrin indarrak sorrarazi industria handiak, zuen energia iturria eskaini besterik ez zien egin.

1830-1840 bitarteko urteetan finkatu zen mendearen bukaera arte nagusi izango zen industria eredia. Guztiaz ere, merezi du XIX. mendearen erdian bertan mekanizazioaren eta industrializazioaren eragina Britainia Handian zein mugatua zen azpimarratzea. Ikatz ustiaketan, esate baterako, makineriaren erabilerarik ez zen 1914a arte erabat zabaldu. 1850a arte, planta berean langile sail handiak, ia makina hutsez eta produkzio handia ateraz lan egiten zuten fabriken kasuak nahiko urriak izan ziren, eta geroago ere hala izan zen Britainia Handitik kanpora. Fabriketako modura eta langile gehienak, ia oihalgintzako adar batzuetan bakarrik iharduten zuen lanean; beste adar batzuetan, gutxiengoak bakarrik egiten zuen horrela, eta beste hainbatetan, ia ikusi ere ez zen egiten. Oraindik ere, 1850az gero familiaren jabetzako ziren tailer koskorretan, artisautza garaiko baldintzetan eta teknologiarekin egiten zuen langileak lana. Etxeko lana ordezkatu ez ezik gehitu ere egin zuten, kasu batzuetan, fabrikek. Hari makinak sartzean eskuzko oihalgintzan sortu ziren lanpostuena da esandakoaren adibiderik adierazgarriena.

Teknologia berritzeari dagokionez, oihalgintzako sektorean, eta batik bat, horren adarrik berrienean, kotoigintzan, egin ziren aldaketarik handienak; ez baitzen alferrik industriako sailik berriena, eta gremioen elkarteek eta arauak indarrak ez zutena. Langile kualifikatuei esker hasi ziren sektore horretako berrikuntzak, baina berrikuntza horiek etxeko industria lanetan aplikatu zituzten lehenbizi. Haria egiteko makina berriek, *jenny* eta *mule* makinak, etekin handiak eman ziezazkiela merkatariak konturatu zirenean, eta horiek beren lantegietan sartzearekin hasi ziren fabriketara ere zabaltzen. Hasieran, ordea, XVIII. mendearen bukaera arte behintzat, horietako fabrika gehienak txikiak ziren, eta enpresa handien jabe zirenek ere zeuzkaten edukiak lantoki txikietan banatuz egin zuten froga, asko arriskatu gabe eta galera handirik izan gabe teknika berriak frogatzeko egokiera ematen baitziren horrek; makineria hori planta handietan kontzentratzen gero hasi ziren. Hirietako langile prestakuntza berezia zutenak makina berri horien kontra egoteak industria hirietatik kanpora aldatzea eragin zuen. Lurrin energiaren erabilera normalduari dagokionez, XVIII. mendearen azkeneko ur-



teak baino lehenagoko agiririk ez da aurkitzen, eta 1830ean oraindik ez zuten behar bezala menderatzen.

Oihalgintza mekanizatzean (1820-1850 bitartean), *factory sistem* produkzio era Britainia Handiko ekonomia sistemaren bihotz bihurtu zen. Mekanizazioa prozesu osora aplikatu gabea zegoen ordura arte. Eta orduan ere, hasieran behintzat, etxeetako oihal makinak kopurua handitu zen aurrena, makinak zirela eta hari gehiago egiten zela bide. Baina oihal makinek horrelako zabalera hartzea, kapitalismoak eta horrek industrializazioari emandako bultzada berriak eraginik heldu zen. XIX. mendearen hasierako eskuzko oihalgileek eta fabriketan langileek, bere gehiengoan, industrializazio kapitalistaren barnean sortutako eta hazitako klase bat osatzen zuten.

Kotoi industriaren ekonomia hazkuntza ikaragarria izan zen, baina ez da ere ahaztu behar, 1820a arte, artile lana izan zela nagusietakoa oihalgintzako sektorean eta sail horretako gainerako industriak ere etengabe garatuz joan zirela bitarte horretan.

Teknologia berriak sartzeak sexuaren araberako lan banaketan ere eragin zituen bere aldaketak. Ordura arte, emakumeak aritu izan ziren harigintzan, baina makina berriak, handiak eta eskuz erabili beharrekoak sartu ziren, eta horietako gehienetan gizonezkoak hasi ziren lanean. Lehen harigintzan aritzen ziren emakumeak kotoizko oihal merkeak egiteko ziren makinetera aldatu zituzten; oihal finak egiteko makinetan, berriz ere gizonezkoak geratu ziren. Lurrin makinak sartzean izan zen horietan emakumeak jartzeko saio bat, baina harigintzan artisau estatusa lortua zuten gizonezkoak horren kontra azaldu ziren. Makina txiki arinetan bai, horietan hurrek eta emakumeek jarraitu zuten.

Teknologia berriei esker izugarritzko aldaketa egin zuen beste sektorea sidero-metalurgiarena izan zen, sektore horretan sortu ziren arazoek, ordea, ez zuten zerikusi handirik izan oihalgintzakoekin. Mea lantzeko faktoria handiek metalurgiako lantegi txiki sail bat sorrarazten zuten inguruan, prestakuntza bereziko langileak esku erremintazko lanean eta artisautzako erara antolatuta jarrikerik era askotako produkzioa ateratzen zuena. Oinarri gisa langileen trebetasuna eta lan banaketa hartu zituztelako egin zuten teknologia berriek aurrera, erdiko tamainako eta tamaina handiko tailerrak, edo fabrikak eta artisauen independentzia elkarri egokiturik eramaten jakin izan zutelako, alegia. Metalurgiako teknologiarik buruz artisautza tradizionalak zituen ezagutzei esker hartu zuten indarra, eta horretarako, makinerian baino gehiago oinarritu ziren lan banaketan eta eskuzko trebetasunaren gainean.

Independentziari dagokionez, XVIII. eta XIX. mendea ez ziren berdinak izan artisautzat. XVIII. mendean metalurgian, eta bereziki forjetan eta makinagin-

tzan lan egiten zuten artisau kualifikatuek bazituzten beren elkarteak, zenbat ordu lan egin, soldatak zenbatean finkatu eta ofiziotan mailaz nor aldatu erabakitzeko; XIX. mendean, berriz, eskubide horiek galtzen joan ziren. Aldi batez ekonomiaren arabera ibili zen independentzia ere, hura gora hau gora, hura behe-ra hau behe-ra, baina bitartekariak indartu zirenean eta laneko kontrola hartu zutenean ez zuen gorakorik gehiago izan. Lehengaiak eta diru kapitala gero eta urrunago zeuden artusauen kontroletik; eta laneko lekuak eta orduak ere bai, lurrin makinak sartu zirenetik.

Industria bere aurrenetan zen eskualde batean industrializazio prozesuak porrot egin izan zuen kasuetan, nekazaritzak soberako langileak hartzeko gaitasun handirik ez zuenez, eta lehen industriaren huts egiteak gizarte mailarako ekarri zituen ondorio txarrei etxeko industria berriak sortuz erremedioa jartzeko saioak ere huts egin zuenez, maila koskorreko produkzioan ari zen askok edo industria gunetara edo itsasoz bestaldera joan behar izan zuen. Lanarengatik, soldata handiagoa izateagatik (ondorioetarako hala ez bazen ere), urteko errenta eta soldata handiagoari lanaren segidari zerraizkion irabazi handiagoengatik aldatzen ziren leku horietara. Haietan izandako lehenbiziko lana galtzen zutenean, ordea, meagintzan eta eskulaneko sailetan sortzen ziren premien arabera erabiltzeko geratzen ziren.

Langile berrien denborari eta disziplinari buruzko jarrerak ere sortu zituen bere arazoak. Nekazaritza girotik aldatutako langileek osatu zuten fabriketako proletarioen lehen belaunaldia. Horiek denborari buruz zeukaten neurri bakarra izadiak ezartzen zuena zen. Nekazari eta aldi berean langile ziren bitartean txanda zezaketen harigintzako edo oihalgintzako lana eta nekazaritzakoa. Orduko lan erritmo irregularrak familiako bizimoduak, herriko eta artisautza giroko gizarteak mugatzen zizkien. Etekinak enpresan bertan inbertituz hori autofinantziazteko modua egitea oinarri zuen sistema berrian, ordea, kapitalaren erabilgarritasunean eta etekinen alde handiagoetan zetzan enpresak bizirik irautea. Eta hori lortzez gero, funtsezkoak ziren produkzioko denbora gutxitzea eta produkzioa areagotzea.

Industriako langileen lehen belaunaldiek, ordea, gauzak horrela neurtu beharra ez zuten ulertzen, denbora horrela probetxatzeak ez baitzien lana seguru izateko eta hartatik bizi ahal izateko segurtasunik eskaintzen. Lan gehiago egitearen truke sari bereziak eskaini izanak eta horrekin ere nahi zutena ezin lortu izanak argi erakusten du era tradizionalan lan egitearen eta ekonomia berriaren artean nolako borroka zegoen. Lehenbiziko eran, langileak txanda zitzakeen laneko erritmo biziak eta aisialdiak, berak kontrolatzen baitzituen laneko prozesuak. “Astelehena egun santutzat” edukitzeak, egun horretan opor egin eta ordainetan astearen azkeneko egunetan lan gehiago egiteak ondo erakusten du denborari

buruzko iritzian zenbaiterainoko egokitu ezina zegoen langile horien eta beti bere hainbateko produkzio bat eskatzen zuen ekonomia modernoaren artean.

Kapitalismoren garaiko industriako funtzionamenduari zegokion disziplina sartu behar izan zuten enpresetako jabeek, langileak hartara ohitu zitezen eta nahikoa irabazi zutela uste zutenean nekazariak enpresa utzi eta beren herrisketara itzul ez zitezen, edota artisauak, ohi zuten bezala, lantegian bertan mozkor ez zitezen. Mekanizaziorik sartu ez zen tailerretan eta etxeko lantegietan ez zen, nahitaez, lehengo erritmoetatik erritmo berri bizkorretarako aldaketarik gertatu, eta langileen esku geratu zen produkzio prozesuen kontrola; fabrika egiturako lantegietan, aldiz, eta, batez ere, kualifikaziorik gabeko langileengan sartuz joan zen disziplina hori, baita denbora ahalik estuen neurtzeko joera ere. Egindako okerrarekin, lanera garaiz ez iristea, ohitura zuten bezala lagunekin hizketan aritzea, lantegian lekuz aldatzea edo gisako beste denbora galtze eta produkzio jais-tearekin proportziorik ez zuten multak ezarriz lortu zen hori. Idatzizko legedi bat eta arau zehatz batzuk ezarri ziren ohituraren orde. Sari berezien lekuan arau hertsatzaileak erabili behar horrek argi erakusten du langileek ez zutela produkzio sistema berrietan abantaila handi-handirik ikusten.

Ofizioko sektoreetatik zetozen prestakuntza handiagoko langileekin, eta tradizioz bere erara antolatzeko ohitura zutenekin, sari berezien sistema erabili zen, oro har, produkzioko zereginetan gehiago saia zitezen. Zeregin handia izan zuten hauek makinazko industrian bertan ere. Langile kualifikatu mota berri bat sortu zen industria horietan. Langile hauek, aukeratu ere, laguntzaileak berek aukeratzten zituzten (haurrak eta emakumeak) horiei laneko erritmoa ezartzen zieten eta egiten zuten lana ikuskatzen zuten. Makina horiek, zerabiltzanaren beraren prestakuntza hobetzeko izan ziren kasu askotan, eta ez prestakuntza horri zegokion lana egiteko. Langile kualifikatuek egin izan zituzten lurrin makinak berak ere. Sindikatuak lehenengo sortu ez ezik, teknologia berriaren erabilera ia erabat kontrolatu ere, harigileek egin zuten kotoi laneko sektorean.

Langile kualifikatu horiek bideratzen zuten fabrikako lanik gehiena, eta makinaren egileek eta historiagile askok uste baino askoz urriagoa zen enpresako zuzendaritzak produkzioko prozesuari buruz zekiena. Produkzioko antolaketa formalak orduak gehitzeko, produkzioko prozesuen denbora nahierara laburtzeko, langilearentzat lotsagarria zen disziplina ezartzeko eta nagusiek eta kapatazek langileekin gogor jokatzeko bidea eman besterik ez zuten egiten; produkzioko beste hainbat alde ukitu ere ez zituen egiten.

Egoera horrek, nolana ere, ez zien hazten uzten industria enpresei. Gisako eragozpenik ez izateko, fabriketan makina gehiago sartu zuten enpresetako nagusiek. Laneko produkzioa emendatu ez ezik, horren erritmoa bizkortu, egiten

ziren gaien kostua gutxitu, prestakuntza berezia eskatzen zuen zenbait lan mekanizatu eta lanean disziplina zehatzagoa ezarrazazi ere egiten zuten makina horiek sartzearekin, eta, aldi berean, langileen ohiturak eta organizatzeko erak desegiten zituzten. Asmo beretsuak erabili zituzten haurrak eta emakumeak hartzerakoan ere: merkeago lan egiteaz gainera, nagusien agindura eta industriako disziplina ohitua egongo zen langile multzo baten segida ziurtatzen baitzuten, batez ere haurrekin. Ofiziokoen antolaketa aurre egiteko beste berrikuntza bat ere sartu zuten nagusiek: destajuko edo azpikontratako lana. Gisa horretara aritzen ziren langile gehienak kualifikatuak izan ohi ziren, jabeak emandako lehengaiekin eta erremintekin, egokiera nola, lantegian bertan edo etxean harentzat lan egiten zutenak. Langile kualifikatu horiek, berriz, mendeko laguntzaile batzuk hartzen zituzten, eguneko edo piezako hainbesteko bat ordaintzearen truke. Gisa horretako lanetan, destajukoak bere gain hartu behar izaten zuen bere eta nagusiaren ezin guztia. Lan horiek enpresan bertan egiten zituzten langileek behin baino gehiagotan egon behar izaten zuten lehengaien edo landu behar zuen gai haren zain, bitarte horretan ezer irabazi gabea. Industria handia eta kateko lana indartu ziren arte oso zabalduak egon ziren estrategia horiek.

#### **4. Bigarren Industria Iraultza, 1870-1945**

XIX. mendeko azken 30 urteak eta XX. mendeko lehen 15-20 urteak bitartean sortu zen herrialde aurreratuetan II Mundu Gerrara arte ez ezik, aldaketa batzuk gorabehera, gaur arte ere nagusi izan den gizarte eta industria egitura. Hain aldaketa handiak izan ziren urte bitarte horretan non Bigarren Industria Iraultzako garaia izenez ere ezagutzen baita. Besteak beste, biztanle kopurua gehitzea, nekazaritzak eta industriak izandako hazkuntza eta garraioetan izan zen iraultza dira Iraultza hori eragin zuten faktore nagusiak. Nekazaritzako produkzioak gora egin zuen arren, industriaren hazkuntza paregabeak hautsi egin zuen ordura arte haren eta honen artean zegoen nolahalako oreka eta, aurrerantzean, industria bihurtu zen giza ihardueraren ardatz eta herrialde aurreratuena lema.

Lanbide eta teknika ikasketetarako eskoletan hezitako pertsonen inizatibatik edo ikerketa formaletik sortutako zientzia jakintzak aplikatzeari darraizkion teknika berrietan dago aldaketa horren funtsa, eta ez, edo gutxiago behintzat, langilearen esperientzia enpirikoan. Besteak beste, telefonoa, bonbila, dinamoa edo leherketazko motorea dira orduan egindako aurkikuntzarik edo berrikuntzarik handienak. Aldaketa horretan zerikusi handia izan zuten, bestalde, lehendik ziren iharduera batzuk berriro zuzpertz zirela medio industria berritzeak edota industriako sail berriak sortzeak, kimika organikoak, auto industriak, elikadurarenak, eta arma berrienak, esate baterako; baita aurkitu ziren energia iturri berriek ere,

argindarrak, petrolioak eta, erabiltzen hasi ziren gai berriek, nikelak, aluminioak. Finantzeta eta merkataritza ere teknika berriek hartu zuten aurrea. Garai horretan hedatu ziren akzio bidezko elkarte anonimoen ereduak eta industria indartzeko fabrika jabeena ez zen kapitala erabiltzea. Azkeneko finantzabide hori burdinbideetan eta gisakoren batean bakarrik erabili izan zen ordura arte. Burdinbideetan erbesteko inbertsioa erabakiorra ere izan zen zenbait herrialdetan. Lehengo kapitalismoan, beregain finantziatzea oinarrizko printzipioa zuen enpresak, oraingoraino ordea, Estatuak, bankuak edo gisako erakundeak ziren enpresa baten finantza iturriak, horien laguntzarik gabe eredu berriko enpresa bat sortzeko adina kapital zuenik ez baitzegoen.

1870a arteko Europako hazkuntza, neurri handi batean behintzat, ekonomia liberalik klasikoaren barrutian bideratu zen, urte horretatik aurrera, ordea, gauzak aski aldatu ziren: alde batetik, Estatuak esku gehiago izan zuen ekonomia gaitan eta, bestetik, ez zen ekonomiari buruzko legeak egitera mugatu. Besteak beste, ondoko arrazoi hauek bultzatu zituzten estatuak joeraz aldatzera: nazionalismoak indar handiagoa hartu izanak eta zenbait herrialdetako gobernuen joera militaristak, joera horrek industriako zenbait sektore bere kontrolpean edukitzea eskatzen baitzien, armamentuen, horniketaren eta komunikabideen gain eskurik izan nahi bazuten; industria berriz ere hirietara aldatzearekin hiri horiek hazteak eta horietako biztanleak gehitzeak ere izan zuten Estatuaren joera aldaketan bere eragina, eta, gizarteko zenbait klase mailaz igo zela bide, horiek gizarte eta ekonomia mailan hari beste politika bat egiten has zedin eskatzeak ere izan zuen berea. Eskakizun horiek bideratuko bazituen, ordura arte sartzen zena baino ekonomia sail gehiagotan sartu beharra zuen Estatuak. Industriako, osasuneko, heziketako eta segurtasuneko sailak kontrolatu beharra zuen; eta zerga bilketak ere bai hori guztia aurrera eramatez gero. Lurralde mailan eta lurraldearen barneko eskualdeen artean industriari buruzko politika egokiagoa egin nahiak ere bultzatu zituen ekonomia arazoetan gehiago sartzera; zenbait kasutan, arantzel politika babesleago bat ezartzea eragin zuen horrek.

Aldaketa horien ondorioak beste leku batean aztertuko dira, baina ekonomiari begira komeni da azkeneko puntu horretaz zehatzago aritzea hemen. 1870-1880 bitarteko urtealdiaren azkenaldian, Alemaniako eta beste lurraldeetako lurjabe handiak eta industriako jabeak aduanak babestetik zer abantaila zetozkien konturatu ziren. Maila apaleko ekonomia zuten herrialdeak eta oso ekonomia indartsua zutenak bakarrik geratu ziren aduanak babesteko joera horretatik kanpo. 1914an honela zegoen industriako produktuei lurralde batzuk eta besteak ezartzen zieten arantzelen batez-bestekoa: 0, Erresuma Batuak; 13, Alemaniak; 20, Frantziak; 38, Errusiak; 41, Espainiak.

Gero eta gogorrago bihurtzen ari zen konkurrentzia horri era tradizionalako laneko prozesua bizkorragotuz aurre egin nahi izan zioten enpresetako nagusiek. XIX. mendea bitartean, lana antolatzeke bi sistema sartu ziren elkarrekin lehian. Produzitzeko modu malguetan oinarritzen zen bata: sistema horren aldekoek uste zutenaren arabera, makinek eta laneko prozesuek hobetu egingo zuten artisauen laneko prestakuntza eta artisau horien esperientzia gero eta produktu gehiagotan nabariko zen. Beste sistemak, berriz, sailean produkzitzea zuen oinarria; langile kualifikatu batek produktu bat ateratzerakoan egiten zuen mugimendu bakoitza makinari eginarazteko erarik aurkitzen bazen produktu hura merkeago eta bizkorrago atera zitekeela zioten sistema horren aldekoek.

Aldaketa horiek eta makineria gehiago sartzeara, bata nahiz bestea aurretik, elkarrekin izaten ziren. Hainbeste makineriarik gabe ere lor zitezkeen antzeratsuko ondorioak, laneko antolaketa hobeto doitu eta, produkzioa eta laneko bizkortasuna ordura arte ezagutu ez zuen mailara jaso, esate baterako. Goian aipatu den bigarren sistema hori, nagusiak langile kualifikatuekiko askeago uzten zituen, alegia, makina berriak zirela bide produkzioa mekanikaz kontrolatzea posible bihurtu zelako sartu zen gehienbat. Makina horiek sartzeara, gainera, langile kualifikatuek galdu egiten zuten ordura arte zuten garrantzia eta horrek bide ematen zien enpresetako nagusiei nekazaritzako girotik zetozen langile berriak, makina horientzat izan ez balitz sartzetik izango ez zutenak, peoi gisa sartzeko.

XIX. mendea oso aurrera sartu arte indartuz joan zen produkzioko era malgua, lan egiteko modua gehienbat artisautzako erara antolatua zuena ere; eta industria handiari sortzen eta indartzen lagundu zion, alde biko industria eredu horrek iraun zuen bitartean. Horretan kasu garbia da frantsesa: 1906ko erroldaren arabera, industriako lantegien %71k soldatuko langilerik ez zuen erabiltzen artean, eta langileen %27 horietan biltzen zen. Soldatuko %32k 10 langile baino gutxiagoko lantegietan lan egiten zuen. Oraindik gehiago dena, ziren enpresa handi gehienak ez zuten mekanizazioak eskatzen zuen erako enpresa biltzaren egiturarik; nahiz eta enpresa handi horiek milaka langileri lana eman, gutxiengo batek baizik ez zuen lan egiten enpresaren lantegietan, gehiengoak bere etxean egiten zuen. Kapital baten jabe izatean, merkataritzako zirkuitoen kontrola bere esku edukitzean, zuten trebetasunean, enpresa gisa zegozkien funtzioak zuzen betetzean eta langileak zuzen antolatuta edukitzean zegoen enpresa horien indarra. Sistema hori ez zen, hala ere, nahitaez arkaikoa, kostuen eta arriskuaren gutxienera funtzionatzen zuen industria molde bat baizik. Langilea makina baino gutxiago kostatzen zenez, ez zuten arrisku gehiagoetan zertan sarturik enpresa mekanizatzeke.

1880tik aurrera hasi zen funtsezko aldaketa, sailean produzitzeak eragin zuena, alegia. Aldaketa hori inbertsioak bereziki emendatzeak, gero eta produktu

gehiago standar bihurtzeak (Ipar Ameriketako Banakuntzako Gerran, XIX. mendeko 1860-1870 bitarteko urtealdian orokor bihurtzen hasi zenak), eta berritzeo aukera galdua zuten enpresa txikiek beren autonomia ere galdu izanak eragin zuten. Molde berri horretako industria enpresak aski txikiak izan ziren, hala ere, lehenengo urteetan; autogintzako industriak berak ere langile kualifikatuen egiteko modura antolatua zegoenez, tailerretako erara egokitu behar izan zuen.

XIX. mendean industrian egindako bilakaera saio horiek lurralde bakoitzak industriako teknologia bere egoerara egokitzeko saio kontrajarri gisa har daitezke. Fabriketako saileko produkzioan Estatu Batuek egin zuten aurrera beste ezeinek baino lehenago, lehendik zeukan produkzio sistemari esker, hain zuzen. XIX. mendean gero langile kualifikatu gutxi izan zelako, alde batetik, produkzioa eraberritzea galaraz zezakeen langileen organizaziorik ez zelako, bestalde, eta ondasun jakin batzuen eskea egoteak sailean produzitzeari bidea ematen ziolako, azkenik. Lurralde industrializatuetan, Frantzia izan zen horren kontrako joeraren eredia, eta Erresuma Batuak erdibideko jarrera hartu zuen.

Lehen Mundu Gerrarako, beranduena jota, argi zegoen zeinek izan zuen ikuspeirik zuzenena. Artisautzako produkzioa enpresa handienetako mendeko geratu zen, makina berriak zirela bide ordura arte ezin pentsa zitezkeen adinako ondasun sail estandarra ateratzen hasi baitziren horiek, eta prezioetan ere leku jakinako produzitzaile batek ezin aurre egin ziezaiokeena, gainera. Ford etxeko T auto mota (1908) har daiteke horren argibide gisa; zehaztasun handiko eta maneju errazeko makinekin ehun urte bitartean saileko produkzioan egindako hainbat saioren goreneko ondoren bat izan zen auto horrena. *Garai Modernoak* (1936) filmean argi ikusten da zer izan ziren enpresa horiek. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, mundu garatuko enpresa gehienek ere, beren aukeraz edo lurralde bakoitzeko gobernuak industria horretara bideraturik, sistema hori hartu zuten eredu.

Estatu Batuetako eredu horren arrakastak frogatuta utzi zuen nonbait espezializazio bidea zela eraginkorra, eta aurrerapena saihesten ezina zela. Industrializazio eredu hori nahiz Britainia Handikoa aztertzerakoan, gauza bat ahaztu ohi da, merkatuko indar sail batek ekonomia teknologia molde jakin batzuetatik bideratu duenean, molde horrek agintzen duela ekonomiaren geroko bilakabidea. Eta beste eredu eta alternatiba batzuen bidez merkatuarekiko eta makinarekiko sor zitezkeen harreman guztiak alde batera geratzen direla.

Saileko produkzio horrek nagusiek etekin handiagoak eta langileek soldata hobek izatea, egiten ziren produktuak erosterakoan merkeagoak izatea eta produktu berrien aniztasuna handiagoa izatea eragin zuen. Neurri horretako eta maila horretako produkzioa aterako zuten lantegiak egiteko behar ziren inber-

tsioak errentagarri izan zitezten, ordea, merkatuko gai estandar baten eskeak eta eskearen iraupenak hartan enplegatuko ziren baliabideei gaina hartzeko bezain zabala eta denboraz luze iraungo zuena izan behar zuen. Eske horren merkatua ez zen berez sortu, baizik eta Estatu Batuetako XIX. mendearen azkenaldeko enpresa handiek berek sorrarazi zuten, neurri handi batean, eta zabaldu ere horiek zabaldu zuten, Europako lurraldeetara lehendabizi, eta gero mundu guztira. Garraioko, banaketako sistema berritzeak, sailean produzitzeak eta horiek komertzializatzeko era integratzeak oinarritzko garrantzia izan zuten enpresa moderno handiak sortzerakoan.

Efikazia areagotzeak enpresen antolatzeko eran zurruntasun handiagoa eragin zuen: zenbat eta lana gehiago banatu eta banaketa bakoitza sekuentzia bat osatzera bideratu, orduan eta zailago egiten zen laneko sare horren bidez produktu bat baino gehiago egitea. Lanaren banaketa horrek, berriz, langile gehiagoren beharra eta zuzenean produkzioari ez zegozkion kostuak handitzea ekarri zituen. Horrela, 1860-1960. urte bitartean, Estatu Batuetan merkataritzako sailean lan egiten zuten langileen kopurua industria guztietakoena baino bi aldiz bizkorrago emendatu zen. Produkzioko kateak ere gero eta luzeagoak ziren, aldi berean, eta horrek are zailago bihurtzen zuen sail bakoitzean produktuen kalitatea kontrolatzea. Horrek guztiak, eta hori bideratzeko ezarri zen disziplinak eta burokraziak, pertsona gehiago hartu beharra eragin zuten.

Guztiz ere, saileko produkzioaren garaipena ez zen izan, hasieran izan zuen arrakasta zela bide aditzera eman zen bezain erabatekoa. Industriako sail guztietako enpresa batzuek eta industria sail batzuetako ia enpresa guztiek molde malguko antolaketaren printzipioen arabera funtzionatzen jarraitu zuten. Duen antolaketa sailean produzitzeko egina daukan enpresa batek ezin du inola ere horrela produzitzeko antolatu izan diren enpresekin bakarrik lan egin, zeren erabili behar dituen makinak ezin baitira sistema horrekin egin. Hori da, enpresa mekanizatu horiekin batera, enpresa txikiek eta serie laburretan lan egiten zutenek ere aurrera jarraitu izanaren arrazoietako bat. Artisautzako zenbait sektoreri lagundu egin behar izan zitzaion, bada, beste horientzat lan egin zezaten.

Japoniak eta Asiako beste zenbait lurralde txikik XX. mendearen bukaeran lortu duten ekonomia aurrerapenak argi erakusten du produkzioko sistema malgua darabilten enpresa txikiek bizirik dirautela, eta besteak baino baliagarriagoak direla ere bai, agian, eta artisautza erako produkzioak tradizionala eta saileko produkzioaren mendekoa izan behar duela zalantzan jartzen du, bestalde. Badi-rudi, gainera, zenbait kasutan saileko produkzioaren ordezkoko beste teknologia aurrerapen baten eredu eta alternatiba ere izan daitekeela hori.



## 5. Taylorismoa, fordismoa eta alienazioa.

Taldeko produkzioaren errendimendu txarra bideratu nahirik nagusiek langileen produkzioa kontrolatzen egindako saioek bereizten dute, hain zuzen, taylorismoaren garaiaren izenez ezagutzen den aldi hau. XX. mendearen hasieran Frederick Taylor estatubatuarrek egin zituen proposamenetan oinarritzen zen Lanaren Antolaketa Zientifikoa izeneko metodoan finkatu zen kontrol mota hori. Printzipioz, langile ofiziodunen fabrikako denbora galtze sistematiakoak moztea zen teoria horren helburua, ustez zuten prestakuntza berezia zela medio lanean erritmo geldiak ezartzen saiatzen baitziren horiek. Produkzioari eta moralari kaltea besterik egiten ez zioten langileen eta enpresaren arteko tirabirak baztertu eta adiskidetasun eta konfiantza giroa ezartzea zen teoria horren beste helburua. Lehenbiziko helburu hori lortzeko ondoko irtebide hauek proposatu zituen taylorismoak, bere arrakastarik handiena saileko produkzioan ari ziren industria larrietan izan zutenak: eginkizunak sailka banatuz produkzioa emendatzea, eginkizun horietako mugimendu bakoitza eta hartan ematen zen denbora aztertu eta errazionalago bihurtzea, lanpostu bakoitzerako langileak banan-banan aukeratzea eta, lanaren plangintza eta egiketa era bereizian bideratzea. Bigarren helburua lortzeko, berriz, soldatak errendimenduaren arabera gehitzea proposatzen zuen, hau da, sari sistema bat ezarri, kostuen prezioa gutxitzea eta bizitza maila hobetzea.

Taylorren teoriak ez zituen, noski, enpresa jakin bateko langilearen eta langile taldearen nekea, nerbio eta gogo egoera, eta horien motibazioak ere kontuan hartzen. Horren iritzian, bere probetxua eta ahalik gutxiena nekatuz lor zezakeen etekinik handiena iristea izan behar zituen helburu pertsona batek. Hori lortzeko, laneko taldeei indarra kendu behar zitzaien, langile bakoitzarengan goranahia sorraraziz eta langileak banakatuz.

Denbora eta mugimenduak neurtzeko teknologia, Coriat-en “kronometroa”, lantegietan sartzeak era askotako aldaketak eragin zituen lana egiteko moduan, besteak beste, saileko produkzioa oinarri zuen sekuentzia ekonomiko berri bat hastea eragin zuen; produkzio era horrek langile sail handiak lantegi berean bildurik eta industriako disziplinararen, ordura arte ezagutzen ez zen denbora neurketa batera ohitzea eskatzen zuen.

Taylorren teoriak ulertzea ez zen neketsua, langileen eta enpresetako zenbait nagusiren kontrako jarrera zela bide, horiek produkziara aplikatzea eta adieraztea zen zaila. Nahiz eta Laneko Antolaketa Zientifikoari buruzko literatura ugaria izan, horrek ez zuen izan uste den adinako eraginik. Aplikatu izan zen lekue-tan ondorio garbiak izan zituen, hala ere: enpresako jakintzaren, planifikazioaren eta antolaketaren aldea zuzendaritzak hartzen zituen eta langileei, jakintzarako eta prestakuntza berezirako biderik gabe, enpresako disziplinararen makurtzea bes-

terik ez zitzaien geratzen. Energia mailan eta lanaren mekanizazio mailan, aldiz, irabazi egin zuten, errendimendua eta efikazia areagotzen zirela bide.

Bestalde, langileen jakintza makinatarako egokitzearekin, langile ofiziodunak, sindikatuetatik nor lanera hartu erabakitzen zutenak fabriketatik botatzea eta espezializaziorik ez zuen langile mordo bat produkzioan sarraraztea lortu zuen Taylorrek bere teoriekin. Langile berri horiei soldata txikiagoak ordaintzen zitzaizkien, alde batetik, eta egiten zuten lanaren balioa nola defendaturik ez zuten, bestetik.

Taylorrek eta bere jarraitzaileek bazekiten sistema hori langileen kontrakoa zela, haien gogoaren kontra ezarri beharko zutela eta kontrolaren eta disziplinen bidez egin beharko zutela. Taylorismoaren etsairik gogorrena langileen kontrako jarrera izan zen hasieran. Horren aurkako greba asko izan zen Estatu Batuetan 1910etik aurrera. Sindikatuek, berenez edo egoerak hartara eraginda, jarreraz aldatu zutenean indartu eta sendotu zen formula hori.

1920tik aurrerako urteetan egoera berezia sortu zen. Garai horretara arte taylorismoa langileen inizatibaren eta idealen aurkakoa zela pentsatu izan zuten langileek eta langileen organizazioek; urte horietan, ordea, taylorismoa ulertzeko modu berri bat sortu zen Sobiet Batasunean, eta langile mugimendu batzuen artean ere zabaldu zen ikusmolde hori. Ikusmolde horren arabera bi alde bereiz zitezkeen taylorismoan, produkzioan teknika erabiltzeari zegokiona, ona, eta kapitalismoak teknika horrekin produkzioa areagotzeko egiten zuena, gaitzesgarria.

Fordismoaren produkzioko arauak badituzte beren ezaugarri berekiak, taylorismoaren arauetatik bereizten ditzuztenak, baina honenak areago eramaten zituzten aldi berean. Makina eroaleek, kateek alegia, tailerretako “denbora alferrak” ere produkzioko denbora bihurtu zituzten, eta eguneko lan denbora efektiboa luzatu zuten. Lana sailetan banatzea azkeneko muturreraino eramatearekin, fabriketako ofiziorik gehienetan kendu zen kualifikazioaren beharra, makinismoa eta estandardizazioa behin ere baino gehiago hedatu zelako, besteak beste. Fordismoak abantaila batzuk, ordura arte langileak sindikatuen eta laneko kontrolaren bidez lortzen saiatu zirenak, ere eskaini zizkien horiei: eguneko lan denbora arrazoizkoa izatea, lan iraunkorra izateko garantia, erialdietarako segurantzak eta, hasieran entzute handiko izan zena, soldata ona.

Forden *Five dollars day* izeneko taktika, 1914an, enpresari horrek langileei nominako soldata bikoiztu eta eguneko jornala bost dolarrera jaso zienean jarri zen indarrean. Soldata igoera hori, ordea, nahiko langile izateko asmoz egin zuen; eta igoera hori, gainera, lantegian sei hilabete baino gehiago zeramaten hogeita bat urtetik gorako gizonezko akats gabeiei bakarrik egiten zien, eta abantaila hori edozein momentutan gal zezaketen, bestalde. Aldi berean, eguneroko

ondasunek (izatez gero eta gehiago zirenak, merkatuan gero eta hedatuago zeudenak eta era kapitalistan egiten zirenak) eroslea seguru izan zezaten egokiera jartzen zuten soldatak igotzearekin.

Lanaren antolaketa zientifikoak edo aplikatzeko erak bereak zituen kontraesanek eta horien agertzeko erak galarazi zioten industriako produkzioari era ikusgarrian haztea; batez ere, lanpostu mailan errotazio handia egoteak eta ezarritako arau berriek eskatzen zuten lan erritmoa isilka eta ohizko ez zen moduan geldia jotzen zuten taldeak lantegietan izateak. Lan mekanikoaren banaketa estu kronometratzea oinarri zuen metodologia bat sartu izanaren ondorio zen hori, laneko era horrek are maila apalagora beherarazten baitzuen langilearen lana eta haren nortasuna bera, nahiz eta industrializazioaren aurreko aldietatik ere, alienazio prozesua zeritzan prozesua zela bide, oso ahuldurik zetozen lanaren eta nortasunaren estimazio horiek.

Karlos Marx izan zen alienazio kontzeptu horren sortzailea; lana, Hegelengandik hartutako ideia, bi joerako fenomeno bat zela zioen Marxek. Hegelentzat lana aurrerapenaren eragile eta berebat, egiteko era gero eta abstraktuago eta mekanikoago bihurtzen ari zela bide, ukamenezko kutsu handi baten eroale ere bazen bezala, *Manifestu Komunistaren* idazlearentzat, aurrerapenaren eragile izateaz gainera gizarte berri baten oinarri nagusi ere bazen, kapitalismoak, haziko bazen, nahitaezko zuen plusbalia sortzeko bidea, alegia. Giza lanaren salerosketak, ordea, alienazioa eragiten zuen berak ere:

“Langilea egiten duen produktuan alienatzeak edo hustutzeak ez du esan nahi bere lana objektu bihurtzen dela edo izatea kanpoan duen zerbait bihurtzen dela bakarrik; orobat esan nahi du, langileari eskuetatik aldegin dion gauza independente eta arrotz bat ere badela lana, langilearen aurrean berezko ahalmena duena, eta esan nahi du objektu horri eskaini dion izatea haren arrotz, kontrako eta etsai bihurtu dela”.

Makinismoa ez zen gaitzesten, hala ere, ingeles ludistek-eta egin zuten bezala, langile masa handiak, batez ere prestakuntza bereziko artisauak, behartsuago izatera kondenatzen zituelako. Makinismoa taxutzeko eta horren jabe egiteko erak, kapitalismoak, eragiten zuen lan banakatua, alienatua. Marxen arabera, lanaren izate bikoitz baikor-ekzor horrek etorkizun hobearen baitan bakarrik aurki zezakeen bere oreka.

Akatsik handiena alienazioak eragindako arazoei buruz daukan ikuspegian du marxismoak, arazo horiek kapitalismoak beretiko dituen gaitz gisa hartzen baititu, eta ez, berez diren bezala, Bigarren Industria Iraultzak eragindako gizarte antolaketaren ondorio gisa. Hortik hara uste izan du langile mugimenduko zenbait sektorek, herrialde sozialistek galaraziko zutelaren alienazio kapitalista.



**HIRUGARREN ATALA  
LANAREN PROTAGONISTAK  
(KAPITALISMOAN BIZI)**



# 1. Gaia

## Lanaren jabeak: bizi baldintza berriak

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. PROLETARIZAZIO PROZESUAK
3. DISZIPLINA SARRARAZTEKO BORROKA
4. BIZI BALDINTZA BERRIAK

### Kontsultarako liburuak

- Baldó Lacomba, M., *La revolución industrial*, Síntesis, Madril, 1993.
- Hobsbawm, E. J., *La era del capitalismo (1848-1875)*, Labor, Bartzelona, 1989.
- Marvaud, A., *La cuestión social en España*, Revista de Trabajo, Madril 1975.
- Rule, J., *Clase obrera e industrialización. Historia social de la revolución industrial brítanica, 1750-1850*, Crítica, Bartzelona, 1990.





## 1. Sarrera

Kapitalismoak gizartean eta ekonomian sarrarazi zuen antolaketa konplexu berriak hedadura handiko aldaketak eragin zituen: E. P. Thompsonen hitzetan, “gizadi langilea “lanerako indar” bilakatu zen. Esan nahi du horrek, makineria eta gainerako beste higi indarrak sartu zirela bide, produkzioaren errazionalizazioa eta lanaren errazionalizazioa elkarren parean joan zirela, langile batzuen eta besteen ahaleginak organizatzen eta elkarrekin lotzen zituztela. Egite horrek ondoko aldaketa hauek ekarri zituen berekin:

- langileak produkzio gune batean (lantegian, askoren kasuan, ez denenean) eta bizitzeko eremu batean (hirietan) finkarazteko prozesu konplexu batean sarraraztea,
- denborari buruzko irizpide eta banaketa berriak, oinarria ordutegi zehatz bat zutenak, ezartzea,
- ohitura berri batzuek sortzea eta ezartzea –laneko disziplina, lanera garaiz joatea, lantegiko araudira makurtzea, ...–, eta
- lanerako langile masa handia behar zela eta produzitu ere masan, ahalik denbora laburrenean eta kosturik txikienean egin behar zela bide, langilearen bizitza baldintzak erabat aldatu beharra.

## 2. Proletarizazio prozesuak

Bere aberastasun bakarra egin zezakeen lanean zetzan langile masa hori hezitzea ahalegin luzeko lana izan zen. Industrializazioa iritsi baino lehen ere baziren soldatapeko langile taldeak, baina langile gehienek beren nagusiekin zituzten loturak ez ziren soldatazkoak: jaunen lurrei lotuak nekazari batzuk; jabetza pribatuko ez ziren sailetan lana egiten zutela besteak (herrisailetan, elizarenetan, e.a.); etxean lan egiten zutela edo artisau gisa, morrontzan, e.a., beste batzuek.

Nagusiarekiko soldatazko loturak zituzten langileetan bi talde bereiz daitezke:

- beren jabelurretatik boteak izan ziren nekazariena, eta
- proletarizazio prozesura makurtu behar izan zuten etxeko langileek eta artisauek osatzen zutena.

“Nekazaritzako iraultzak”, hasiera eta lehen indartzea Britainia Handian eta Herri Beheretan izan zituenak, bultzada handia eman zion luraren eta abere hazkuntzaren produkzioa gehitzeari. Nekazaritzan aurrerapen teknikoak sartu izana

eta lur sailen jabetzari eta esplotazioari buruz gizarte mailan garrantzizko aldaketak egin izana dira iraultza hori bereizten duten ezaugarriak. Aurrerapen teknikoak ondorengo hiru horietan labur daitezke:

- labore sailetakoko uzta aldaketako sisteman aldakuntzak sartzea,
- erreminta tradizionalak hobetzea eta haietan berrikuntzak sartzea eta, makina motoredunak sartzea, geroago, eta
- laborantzarako eta abere hazkuntzarako hazi hobeak aukeratzea.

Lur sailen jabetzari eta produkzioko beste hainbat ondasuni zegokienez, horiek pribatu bihurtzekoa izan zen joera nagusia. Pribatu bihurtzeko prozesua ez zen herrialde guztietan bera izan: maizterrak beren errenta lurretatik botaz eta herri sailak hesituz (*enclosures*), Britainia Handian; herriaren eta elizaren ondasunak desmortizatuz, Espainian; zeuzkaten jabetza kolektiboetatik botaz (Ameriketako indiarrek), Estatu Batuetan. Hala ere, sailak jabetza pribatuko bihurtzeko era beti bera izan zen: jabetzazko loturarik gabe utzi zituztenak, eta zenbait mekanismoren bidez, lotura horien jabetza leku jakin batzuetako jabe jakinei emanaz.

Jabetza pribatuko nagusi berri horiek beretu zituzten sailei ahalik etekinik handiena ateratzea hartu zuten helburu, eta askatasun osoa izan zuten lurra ustiatzeko eran zerizkieten aldaketak egiteko: Langileekiko tratubideak (epe luzeko errentak kendu, esate baterako), lan sisteman (labore lanketari zegokienez, tradiziozko arauak onartu ez), e.a. Tradiziozko eran ziharduten nekazariak lur sail horietatik aldaraztea eragin zuten aldaketa horiek; besteak beste ondorengo lau arrazoi hauengatik aldatu behar izan zuten:

- sartu ziren aldaketek produkzioa gehitzean horiek lehen bezain premiazkoak ez zirelako,
- gizarteko laguntzak desagertzean mantenurako behar zuten gutxienik ere gabe geratu zirelako (lur sailak, uzta jaso ondoren geratzen ziren fruitu hondarrak biltzeko edo galtzuetan abere taldeak bazkarazteko eskubidea, gizarteko zenbait limosna mekanismo...),
- sailak errentan hartzeko epeak oso laburrak izanik jabeek nahi zuten era geratzen zirelako, edo
- hirietako bizimoduak mordoan haietara joanarazi zituelako.

Artisauak soldatako langile eta proletario bihurtzea produkzioko sistema tradizionaletik aldatzeak eta, batez ere, gero eta independentzia ekonomiko gutxiagorekin geratzeak eragin zuten.

*Putting out system* izeneko etxeko lan sistemak nekazaritzako zereginetatik aldatutako langile masa handi bat horretan lanean jartzea eta horiek eskulangintzako produkzioan sartzea lortu zuen. Etxeko lan sistema horretaz baliatuz merkatari-enpresariak auzo edo leku jakin batzuetako biztanleei lehengaiak banatzen zizkieten eta egiten zuten piezako hainbateko bat ordaintzen zieten. Sistema horrek, bestalde, nagusiei soberako langileak lanera hartzeko egokiera ematen zien, eta oraindik lekuz aldatu ez ziren familiei, nekazaritzako eta eskulangintzako lanak txandatu ahal izateko aukera eskaintzen zien.

Etxean lan egite hori soldatako langile edo proletario bihurtzea zen nolabait. Sistema horrek izan zuen, gainera, bere eragina beste zenbait sektore (artisauek, esate baterako) proletario bihurtzean, artisauek, beren aldetik burges independente gisa lanean hasteko gai ez zenez, pixkana-pixkana sistema horretan sartu behar izan baitzuen. Kapitalismoaren eskulangintzako aldi hau (lehenengoa eta lurrin makinak asmatu eta zabaldu aurrekoa), artisautzako gremioen aldeko laneko arau monopolizatzaile haiek liberalago bihurtzearekin batera egokitu zen.

Eskulangintzak nekazaritzan sobera zeuden biztanleak eta artisauek tradizionalki proletarizatu zituen lehenbizi; horiek merkatari-enpresarien mende jarri behar izan zuten; *putting out system* izeneko sisteman bezala, merkatari-enpresariak hornitzen baitzituzten lehengaiak eta ordaintzen ere baitzuten egiten zuten lana. Azkenik, zenbait langintzatan nahitaezko hartzen zen kualifikazioa baliorik gabe geratu zen. Edozein modutara ere, independentzia galdu eta proletario bihurtu behar izan zuten denek, baita eskulangintzan ari zirenek ere.

Eskulangintza garaiko lan egiteko era zabalduen horiei “fabriketakoak” erantsi behar zaie, bestalde, lantegi gune handietan egiten zena, alegia, leku askotan Estatuak lagundu ziela bide, nahikoa zabalduak baitzeuden horiek ere.

Laburtzeko, nekazariak beren errenta lurretatik botatzen zituztelarik, biztanleak lekuz aldatzen zirelarik edo artisauek bere independentzia ekonomikoa galtzen zutelarik, kapitalismoak bere produkzio masiboa ateratzeko behar zuen langile masa sortuz joan zen pixkana-pixkana. Eta horrela, lehen nekazari zen askok besalari bihurtu behar izan zuen, edo besalaritza eta eskulangintzako lana txandakatzen hasi behar izan zuen, edota hirira aldatu behar izan zuen. Hirietako artisauek ere pixkana-pixkana proletario bilakatu ziren.

### 3. Disziplina sarrarazteko borroka

Biztanle andana hori guztia ez zen goizetik iluntzera bihurtu proletario. Nekazariak lehengo jabelurretatik botatzeak nola edo hala bideratu beharko zen giza saldo alderrai handia utzi zuen “libre”. Mantenu biderik ezak langabeko jende bihurtu zuen jende hori, eta pixkana-pixkana gizatxartat eta bidelapurtzat hartu zituzten.

Horiek fabrikako disziplinan sarrarazteko lehen saioak Ingalaterran, *workhouses* izeneko etxeetan eta jatorria XVI. mendean (Enrike VIII.aren garaian) zuen txiroei buruzko legedi (*poor laws*) luze baten bidez egin zen. Legedi horrek lanera behartzen zituen txiro horiek eta ordainetan laguntza edo mesede gisako sari bat ematen zitzaien. Txiroen etxe horiek itxitoki bihurtu ziren gero, horrela izateak egokiera hobea ematen baitzuen barruko biztanleen mugimenduak kontrolatzeko, huskeria baten truke lanen batean edukitzeko eta industrian beharrik sortzen zenean lan esku hori eskaintzeko.

Ingalaterra izan zen, bera zen industria iraultzaren aintzindari ere eta, biztanleak kontrolatzeko erarik sofistikatuenak ezartzeko saioak egin zituen herrialdea. Biztanleak horrela indarrez aldarazteak inkontrolatu saldo alderrai handia agertzea eta iritzi zuhurreko jendearen artean gizatxar eta errukarri (bi taldeak berdinak baitziren horientzat) horienganako ikaragarritzko beldurra sortzea eragin zuen beste zenbait herrialdetan. XIX. mendeko literatura –Victor Hugoren *Errukarriak* lekuko– giza talde handiak alderrai gisa bizi izatera kondentzen zituen gizarte ordenari buruzko aipamenez josia dago. Hirietako estatistiketan ere, bestalde, langabekoen, eskaleen, txiroen, hospizioetan eta miserikordietan bizi zirenen, prostituten, gizatxarren eta gisakoen kopuru handiak agertzen dira. Horiek hartzen zuten hirietako biztanle kopuruaren portzentzia handia. Berlinen, 1845 inguruan, esate baterako, hamar mila prostituta, sei mila soroskiko, lau mila eskale eta hamar mila preso bizi ziren. Berlingo hiriak lauhun mila biztanle “baino” ez zituen garai horretan. Errepresioa, gizatalde marjinatu horien eta politika nahiz erlijio gauzetan zegoen egoerarekin bat ez zetozenen kontra saiatu zen; horietako asko eta asko, bestalde, urrutietako lurraldeetara bidaltzen zituzten: ingelesek Australiara edo Ameriketara; frantsesek Guyanara.

Biztanleak kontrolatzea bezain neketsua edo areago izan zen langile berriei fabrikako disziplina ezartzea, hau da, bakoitzaren eta fabrika osoaren lana koordinatzeko eta hala errentagarriago izateko jarrita zeuden arauetara horiek murraraztea. Andrew Ure, *factory system*-aren lehenengoetako teorizatzaileak hala deskribatzen zuen fabrika: “organismo mekanikoz eta intelektualez osatutako automata handi bat, guztia motore autoerregulatzailerik baten mende jarria eta helburu bera lortzeko era koordinatua duen zera bat da fabrika”.

Ure-ren definizio horrek hiru osagai ditu elkarrekin koordinatu beharrekoak:

- makinak (organismo mekanikoak),
- zuzendaritza (burulanekoak), eta
- esan gabe aditzera ematen den lan eskua.

Produkzioa eta, batez ere, lana era horretara loturik eta koordinaturik errazionalizatzea belaunaldietako ahaleginen ondorioa izan zen; ahalegin horren eredu Richard Arkwright ingelesa, bizargile izatetik enpresari izatera igaro zena, jarri ohi da. Hari ohi dagokio historiako *lehen fabrikaren* nagusi izanaren ohorea; hobeto dagokio, hala ere, langileen laneko ahaleginak artikulatu zituen ingeniari izanarena, eta are gehiago Karlos Marxek bere *Kapital* liburuko orrialdeetako batean halakotzat aipatu zuenez gero.

Mekanizazioak eta fabrikan era koordinatuan produzitzeak batere ohituak ez zeuden eta inola ere onartu nahi ez zituzten kode eta disziplinetara makurtzea eskatzen zien langileei. Epe eta ahalegin luzeetako lana izan zen langileak disziplina horretara ohitzea; batez ere indarrezko neurriak erabili zituzten horretarako (isunak, kastiguak eta zigorrak, lanetik botatzeko mehatxuak), baina ez bakarrik, zeren sari bidezkoak ere hartu baitzituzten (disziplinaren trukeko sariak, lana egiteko era berri batzuk irakastea, e.a.).

Disziplina horretan sarrarazteko prozesuan, langile horiek denborari buruzko ikuspegi berrira moldatzea izan zen apusturik zailena –baina horretaz aritu gara aurreko kapituluan–. Zuela gutxi arte nekazari zen proletario horrek bere laneko erritmo irregularrak edo lana, atsedena eta aisialdia txandatzeko molde malguak utzi eta denborarekiko oso jarrera zorrotza zuen disziplina batera egokitu behar zuten, fabrikak han ari ziren guztien ahaleginak koordinatzea, denborarik alferrik ez galtzea eta ahalik gehien produzitzea exijitzen baitzuen.

Pentsakera indarrez aldatzeak izan zuten produzitzailearen eta produktuaren arteko harremanean ere bere eragina; ekonomia tradizionalan, nekazaritzakoan nahiz eskulangintzakoan, harreman hori estua zen, kapitalismokoan, berriz, lan banaketa azken muturreraino eraman zela bide, ia ez zen bien arteko harremanik. Oso nekez bere egin zezakeen lagile berri horrek ateratzen zen produktua, kasu askotan noiz eta nork erabat bukatzen zuten ikusi ere ez baitzuen ikusten. Egileen eta egindakoaren arteko harreman falta hori izango zen Marxek bere alienazio fenomenoan, egilea eta egindakoa aurka bezala aurkitzen omen zirenean, deskribatuko zuten elementuetako bat. Ludista izeneko britainiar langileen liskarrek, industrializazio prozesuaren aurka langileen artean izan zen lehenbizikoak, zerikusi handia izan zuten produzitzaileek aldaketa horiei zieten gorrotoarekin.

#### **4. Bizi baldintza berriak**

Ez bakarrik bizitzeko era eta erritmoa aldatu, baizik laneko ingurune (fabrika) berri batera moldatu eta gizarteko harreman berri batzuetara (hirikoetara) egokitu ere egin behar izan zuten proletario horiek. Hasiera-hasieratik ekin zioten teorizatzaileek aldaketa horrek sorrarazi zituen bizi baldintzen izateari buruzko eztabaidei.

#### 4.1. Sarri itzuli izan den eztabaida.

1926an sir John Claphan kontserbadoreak Arnold Toynbeeren jarrera arbuia-tzean hasi zen eztabaida hori “optimistak” eta “pesimistak” aurrez aurre jarri zituen eztabaida bezala eduki izan da. Hau da, prozesu horren alde txarrak erlati-bizatu eta Industria Iraultza bitartean langileen bizitza maila hobetu zela esaten zutenen eta XIX. mendearen bigarren erditik aurrera samar egin arte horrelako bizitza hobetzerik ez zela ageriko izan esaten dutenen arteko eztabaida, alegia. Lehenengoan artean, “optimisten” artean, Clapham, Ashton edo Hartwell aipa daitezke; “pesimisten” artean, berriz, *whig* tradizioko eta ezkerreko beste, Hammond eta Webb-etatik hasita oraintsuko Thompson eta Hobsbawm-etarainokoak, ahaztu gabe noski, Marx, Engels, Robert Owen eta lehen aipatu den A. Toynbee.

Kontua da, estatistika datu mordo bat sortu dela eztabaida luze horien arian eta datu horietan oinarri harturik zelako “pesimista” haien hasierako joera “sentimentala” zuzendu nahi izan dela, alde baterako edo besterako; horrekin ere, ordea, *bakoitzak nahi zuena* frogatzea besterik ez da lortu. Alde bietako muturreko jarrerak indarrak gabe uztea, edo “pesimistek” erabiltzen zuten arrazoibidea, hazkuntza demografikoa bizitzako baldintzak hobetzearen ondorio izan zela zioen hura, apurtzea behintzat lortu da. Eta argi geratu da ugalkortasuna izan zela hazkuntza horren arrazoi nagusia. Bestalde, azterketek aurrera egin ahala, langileen soldatak zein herrialdetan eta noiz igo eta jaitsi izan ziren ere argitzen ari da. Ordea, badago auzi bat, “pesimistek” azterketa horretan faktore berri bat –bizitzaren kalitatea– sartu zutelarik, eta kontzeptu horrek duen zehaztasun faltarengatik, erantzunik gabe geratu dena.

Eztabaida bukatutzat emana ez dagoen arren, zentzuzkoagoa eta “militantzia” karga gutxiagokoa da igarotakoari eta alor horri berari buruz ere gaur egun dagoen joera. John Rule-ren hitzetan esateko, gaurko joera, “epe luzerako ongizate handiago” baten izenean aldaketa haiek jasan behar izan zituztenen sentimenduak eta erreakzioak indiferentziarik gabe begiratzekoa, eta ondorengo mendeetan garai hari buruz izan zitezkeen itxaropen eta balore lortu gabeen aurrean haserre gehiegirik ere ez erakustekoa” da.

#### 4.2. Soldata.

Langileen bizimoduari buruz hitz egin nahi bada nahitaezkoa da horiek zituzten diru sarreren eta gastuen arteko orekari edo desorekari buruz ere ihardutea. Baina baieztapen bat guztiz eta guztientzat ziurra dena ematerik ere ez dago, izan ere, hainbat lanbide, enpresa, eskualde, eta sexua nahiz adina ere kontuan izan beharrez, hautuzko langile eredua zein zen esatea ezinezkoa baita; batzuen eta besteen bizi baldintzak oso desberdinak ziren. Dena den, gauza bat da ziurra, familiek jasotzen zuten soldataren eta prezioen arteko orekak iraupen laburra

izaten zuela, eta, ohizko diru sarrerarik gabe geratzen zirenei bizitzeko gutxiengo bat ziurtatzeko sortu ziren elkarte mutualistak hainbesteko zabalera hartu izana da horren adierazlerik argiena.

Familiako diru sarrerak esatean lanera zebiltzan kide guztien artean etxeratzten zuten soldata adierazi nahi da. Diru sarrera batzuen eta besteen artean alde handiak zeuden, zuten lanbidearen arabera. Makinak sartu izan arren lehengo onespen maila galdu ez zuten langintzak hobeto ordaintzea zen araua. Eraikuntzako, ehungintzako, inprimeriako edo altzarigintzako zenbait lanbidek, harri lantzaileek, iruleek, sedagileek eta barniz emaleek, esate baterako, fabriketako kualifikaziorik gabeko langileen eta beste zenbait jornalekoek halako bi edo hiru irabaz zezakeen.

Etxeko buruak ez ezik, emazteak eta haurrek ere etxera zezaketen soldata, baina garrantzirik handiena zuena, eta denek aintzat hartzen zutena, etxeko jaunarena zen. Emakumeen lanak batez ere Industria Iraultzako garaian izan zuen garrantzia, lehen ere berea bazuen arren. Garai batean lan hori ezagutua ez izatean eta bestean ezagutua izatean dago agian diferentzia. XIX. mendearen hasieran, Ingalaterran, emakumeen %40 inguruk egiten zuen lana, estatistiken arabera, baina ez denek fabriketan, horien herena baino gehiagok emakumezkoen tradiziozko langintzan baitziharduen: etxeko zerbitzu lanetan, alegia; eta beste herentsu batek, ehun eskulangintzan eta jantzi industrian. 1841ean, Britainia Handiko kotoi industrian ari ziren langileen %56 emakumezkoa zen. Baina ez oihalgintzan bakarrik beste zenbait langintza eta fabriketan ere sartu ziren emakumeak, besolan indartsurik ez, baina kontrara “emakumezkoen” trebetasun berezia eskatzen zuten lan mekanikoetan (mea zuloetako sarreretan ikatza edo beste mea moten aukeratze eta sailkatze lanetan, esate baterako); izan ere, soldata txikiagoa ordaintzen baitzitzaien horiei. Guztiarekin ere, oraindik emakumezkoen ia %10 hartzen zuen nekazaritzak.

Produktzio kapitalistak bizitzeko era aldatu baino lehen ere aritzen ziren haurrak lanean, nekazaritzan batez ere, beren ahalmenei zegozkien haietan (behi zain, e.a.); baina, baita eskulangintzan ere, hori zabaldu zenez geroztik; oihalgintzako *domestic system*-en, esate baterako, eskertzeko laguntza eskaini zezaketen. Besolanak izandako eskea galdu zuenean eta, batez ere, enpresak ahalik kostu txikienean produzitzera jarri zirenean sartu ziren haurrak lanera. Horrela, XIX. mendearen erdi aldera, hamabost urtez beherakoen heren bat lanean ari zen Ingalaterran, estatistika ofizialen arabera. Hamarraldi batzuk aurreragoko estatistiketik portzentaia handiagoak emango lituzkete, noski. Horietako gehienek nekazaritzan egiten zuten lana, sail horretako laurden batek; portzentaia beretsuak egiten zuen industrian eta meategietan. Azken sektore horretako langileen %12k,

gainera, hamahiru urterik ez zuen. Eta kotoi industriari ari zirenen %60 hogeit urtetik beherakoa zen.

Emakumezkoen soldatak gizonezkoenak baino txikiagoak ohi ziren, familia-ko diru sarreraren “eraskin” gisa hartzen ere baitziren; haurrenak ere txikiagoak ziren oraindik. Emakumeek gizonezkoen erdia inguruko soldata jasotzen zuten; eta haurrek emakumeen parekorik ere ez zuten kobratzen. Halako egoera zuten, izan ere, erdi “pintxe” erdi ikasle gisa hartuak baitzeuden. Lantzat ere ez zen hartzen horiena, ganora gehiagoko zeregin baten, gizonezko batek egiten zuenaren lagungarri gisa baizik. Askotan langile helduari baino lanordu gehiago egina-razten zitzairen, hala ere. Soldatarik ordaindu ere ez zitzairen egiten sektore batzuetan, lehenbiziko urtean behintzat, edo gauza hutsetan ordaintzen zitzairen. Gizarteko Erreformatik Batzordearen txosteneko bi aipamenek nahiko argi adierazten dute XIX. mendearen azken laurdeneko Espainiako egoera. Txosten horren arabera, haurrak 6-7 urterekin hasten ziren lanean Katalunian; hamabi ordu baino gehiago aritu behar izaten zuten, eta kasu askotan ez zuten ezer kobratzen lehenbiziko urtean. Asturiasen, haurrek irekitzen eta ixten zituzten beira fabriketako ateak; helduek baino ordu gehiago sartzen zituzten beraz.

Horien lanbide ikasketek eta antzekoek, berriz, fabriketan edo beste lantegietan aritzeko aitzakia izateko bestetarako ez zuten balio. Fernando Garrido, XIX. mendeko gizarte gaietako idazle eta zabaltzaileak esan bezala, osmosi bidez edo “lantegiko egite” baten bidez ikasten zuten haurrek ofizioa. Eta honako beste hau ere erasten zuen:

“Esplotatua izateko, maisuen, maistren eta ofizialen morroi ibiltzeko eta erreminta otarren garraioan ibiltzeko joaten da haurra lantegira. Inork ez dio ofizioko lanik irakasten, ez dute zerbaite ikasiko duen zereginetan jartzen ere, nagusiari etekin handiagoak eman liezazkiokeenetan baizik”.

### 4.3. Kontsumoa.

Hileko diru sarrerak eguneroko mantenuan joaten zitzaizkion langile familiarri. Familia baten diru sarrerak, berdin gastuak, ez ziren leku batzuetan eta bestee- tan, familia batean eta bestean, berdinak izaten. Ereduzko irabazi baterakor bat jakin ahal izateko eta irabazi hori zerbaitekin aldera ahal izateko, soldata erreal eta familiako aurrekontu kontzeptuetara jo ohi da. Lehenbizikoaren bidez, leku jakin bateko soldata soilak eta bizitzako gastuak erkatzen dira. Horrela, Britainia Handian, nahiz eta XIX. mendearen lehen erdia bitartean soldata soilak aldatu ez, horren erosteko gaitasunak gora egin zuen. 1870-1914. urte bitartean, berriz, soldata soilak %50eko igoera izan arren, horren erosteko gaitasuna %3 jaitsi zen.

Soldataren eta gastuen arteko gorabeherak alderatzeko beste erkabidea –aurreko hori baino deskriptiboagoa dena– familiako aurrekontua deitu izan



dena da. Kontzeptu hori dela bide, leku eta garai jakin bateko familia normal batek dauden jeneroen arabera egin ditzakeen gastuen aurrekontua kalkulatzen da. Gastu hori eta familia horrek leku berean izan ditzakeen diru sarrerak edo “barneko jakinkizunak” aldean xeheago deskribatzen diren ihardueren arabera-koak alderatzen dira gero.

Zer esan nahi da “barneko jakinkizun” kontzeptuaz? Gorago deskribatu diren familiako aurrekontu horiek honetan etorri ohi dira beti bat: gastuak handiagoak izan ohi direla diru sarrerak baino. Langileen bizimoduari buruz dauzkagun informazio gehienak, norbait eri edo lanik gabe geraturik familiara soldata bat gutxiago sartzen zenean, horren gain jausten zen eskasiaz edo ezinez mintzo dira, baina langile familietako ekonomia balantzeak, egindako aurrekontuei darian gisa, aldiro eskas ematea ez da den berean sinistekoa. “Barneko jakinkizunak” izeneko sail horretan agertu ohi dira soldataz gainerako zein beste diru sarrera eta zer mirarizko gastu murrizte egiten zituzten langile familiek. Sail horretako datuen arabera, hirietan ere etxe gutxi ziren familia zenbait elikagaiz hornituko zuen baratza koskorren bat edo estatistiketatik kanpo geratzen diren soldata berezirik ez zutenak. Gastuen aldean ere, konta ezin ahala dira horiek murriztu ahal izateko “trikimailuak”: Oso kalitate gutxiko haragia eta beste produktuak kontsumitzea zen bat, garbiketa eta jazte kontuan ahalik gastu txikiena egitea, bestea, argi gastuak gutxitzeko batzuk, besteen kandelak erabiltzea, e.a.

Badira horren ondorioetan ere kontraesanak. Idazle bakoitzak, gizarteko maila bakoitzak eta leku bakoitzak bere informazioak aurreratzen dituzenez, familiako aurrekontu mota ikaragarri dago, alde batetik. Eta bestalde, nahiz eta aurrekontu horiek konparaketa zuzen samar bat egiteko balio handirik ez duten, zenbait giza talderen bizitzeko era zehatz deskribatzeko lagungarri dira. Hartzen bada, esate baterako, hori adierazteko adibide bihurtu den Angel Marvaud-en *La cuestión social en España* liburuko “jakadun proletarioa” eredutzat, XIX. mende bukaerako infanteriako kapitain bat alegia, haren hilabeteko gastuak ondoren datorren hori emango dute:

1. Koadroa: *Infanteriako kapitain batek XIX. mende bukaeran hilero zituen gastuak.*

<i>Gosaria</i>		<i>Afaria</i>	
Txokolatea.....	0,35	Babarrunak.....	0,35
Ogia.....	0,35	Bakailoa.....	1,00
		Ogia eta ardoa.....	0,70
		Olioia.....	0,55
	<hr/>		<hr/>
	0,60		2,60

<i>Bazkaria</i>		<i>Hilabeteko gastuak</i>	
Kgr. 1/2 garbantzia.....	0,50	Etxeko errenta.....	50,00
Kgr. 1/2 haragia.....	0,65	Neskamearen soldata.....	12,50
Urdaia, patata.....	0,45	Erregaia.....	14,00
Ogia.....	0,50	Garbiketa.....	11,00
Postrea.....	0,25	Oinetakoak.....	12,00
Ardoa.....	0,20	Ikasketak eta liburuak.....	20,00
		Argia.....	8,00
	<hr/>		<hr/>
	2,55		127,50

Argi ikusten da hor zein ziren orduko familia baten oinarrizko premiak, zeri zion eta zeri ez zion uko egiten. Aurrekontu horiek agertu ziren artikulu berean, kapitain horren hileko diru sarrera, zegozkion deskontuak eginda gero, 235,80 pezetakoa zela esaten zen, eta kontuan izanik hileko gastua 292 pezetakoa zuela, 56,20 pezetako zorra irteten zitzaion. Nola berdintzen zuen kapitain horrek geratzen zitzaion zorra? Emazteak argitzen du lerro batzuk aurrerago: lagun zuen notario baten agirien kopiak eginez, gauetan, tabakotarakoari, ikuskizunetarakoari, irakurketarakoari eta gutuziazko beste zenbait gauzatarakoari kenduz eta kredituak eskatuz. Beste era bat, eta oso ohizkoa gainera, behar adina jan gabe egoitea zen. Ingalaterrako XIX. mendearen erdialdeko industriako langile batek ez zuen 2.200 kaloria baino gehiagorena jaten, eta nekazaritzako batek, apenas 2.700ena baino gehiago. Gaur egun, 3.500 kaloriarena jatea gomendatzen zaio oso lan neketsua ez duen bati ere.

Kontsumitzaile ziren aldetik modu askotako zoriri aurre eman behar izaten zioten orduko langileek, eta zori txarrari gehiagotan onari baino. Diruz eskas zebiltzanean edo jeneroa falta zenean, ohizko zutena jateari utzi beharra izaten zen horietako bat. Ogia eskas zenean patatak hartzen zuen horren lekua; eta krisialdi handietan patatari ere uko egin behar izaten zioten, eta arbiak hartzen zuen haren lekua. Haragia eta gisako produktuak jatea bizi mailaren adierazpide bihurtu ziren, eta berdin tea, garagardoa eta ardoa edatea ere. Gainerakoa eskasian zebilenean, batez ere ogia jaten zen –horrek beti bezela jarraitu zuen–. Ikus, horren alde, nola Marvaud-en kapitainaren eguneko otordugaietan ere ogia den proportzioz produkturik garestiena. Ez da, beraz, harritzekoa ogiaren neurrigabeko prezio igoerek –eta beste produktuenean, baina ez horrenean adina– eragin zituzten bezalako matxinadak eta bihurrialdiak, hain zuzen ere, ogiaren matxinada izenez ezagutuak, eragin izana.

Zuzenagoa litzateke batzuetan, kontsumo ohitura aldaketaz mintzatzea baino produktuen kalitate aldaketak izan zirela esatea. Beste era batera esanda: langileek, zituzten irabaziekin janari adulterazioaren eta, askotan, berariaz adulteratuta-

ko janarien auzia nola kudeatu ibili behar izan zuten. Asko ziren janariak adulteratzeko erak eta trikimailuak. Edo kolorea ematen zieten: koinakari egur tindua, ogiari alunbrearena. Edo “puztu” egiten zituzten: azukrea arroz edo xaboi hautsez, kakaoa lur ehoz eta Oportoko ardoa alkoholez eta tinduz. Horrela, Portugalen egiten zena baino Oporto gehiago edaten zen nonbait Ingalaterran. Eta faltsifikazio horiek guztiak herriak nozitzen zituen. Diru sarrera handiagoak zituztenek edo klase ahaldunek bai, aukera zitzaizkien produktuak, adulteratutakoak alde batera utzita.

Kontsumoak Estatuko finantzekin lotu zuen herri xehea. “Jateko, edateko eta erretzeko” guztiak du bere zerga zioen Espainiako arau batek. Zeharkako zerga ezarpena ez da kapitalismoaren garaiko asmazioa. Atzeragoko mendeetan ere bazen zerga mota hori –diren kulturetan zabalduena egon den zerga mota da, gainera, agian– eta gaur egun ere garrantzi nagusia du. Horrek ez du esan nahi gutzitzeko lehentasuna zuten kontsumoko gaiei ezartzen zitzaizkien zergek langileen ekonomian eraginik ez zutenik. Espainian, esateko, (XX. mendeko lehen urteetan %40-70 hartzeraino iritsi ziren kontribuzio horiek), estatuak zerga politika kontserbadore bat eta zerga aparatu ahul bat izateak kontribuzioen puskarik handiena zeharkako zergetatik biltzera eraman izan zuen gobernuak.

Zerga mota hori, ordea, era askotako arazoen iturri izan zen. Batetik, familia batzuen eta besteen diru sarreretan zeuden bezalako aldeak egonik, neurri bereko kontsumo zergak ordaindu beharra ez zen zuzentasunaren eta berdintasunaren araberkoa. Bestalde, bizimodua normala ez zen eran garestitzea eragin zuen Espainian eta gisako lurraldeetan; Marvaud-ek 1910ean argitaratu zuen azterketa bat da lekuko; Madrilgo langile batek, Parisko edo Brusseleko batek baino askoz soldata txikiagoa irabazten zuelarik ere, oinarritzko produktuak garestiago pagatu behar izaten zituen, dio horrek. Horrela, eta idazle berak dioenaren arabera, produktu horien biztanleko eta urteko batez-besteko prezioa, Madrilen, 34,25 pezetatik 194,25 pezetara igo zen 1868-1902. urte bitartean. Gorago aipatu den konparaziora itzuliz, Madrilgo langile bati soldataren %7 geratzen zitzaion mantenuko, jantzitako eta etxebizitzako gastuak ordaindu ondoren, Brusseleko bati eta Parisko bati, berriz, %43 eta %54 hurrenez hurren. Diferentzia horien ondorioa argi ikusten da Madrilgo eta beste hiri horietako hiltze tasan, Madrilgoa haietakoa baino hamar puntu gehiagokoa baitzen.

Eta azkenik, “kontsumoak” –kontsumoko zerga– ezartze kontuan aldekeriazko arazoak ere izan ziren. Hain zuzen ere, udaletako agintariek zuten “kontsumo” horiek finkatzeko eskua, eta herri xehea oso berandu arte aginpide gune horietatik at eduki izan zenez, zer gutxi egin zezakeen zerga horiek, batez ere, lehentasunik handieneko edo langileen kontsumoko produktuen gain eror ez zitezten. Lehentasun handieneko produktuengatik baino luxuzkoengatik zerga

txikiagoak ordaintzen ziren kasu eraman ezinak ere gertatu ohi ziren. Azken batean, zeharkako zerga ezarpenak diru eskasiarik ez zutenen egoera indartu zuen; aberastasunaren gaineko zerga ia kontrolatu ere ez zuen egiten zerga mekanismo horrek. Kontsumoari ezartzen zitzaion zerga horrek eragin zituen, bestalde, XIX. mendearen erdialdetik XX. mendean ondo aurrera sartu arteko hainbat matxinada, Espainian eta antzeko herrialdeetan.

Matxinadaren ezaugarrietako bat, grebak ez duena eta hau harengandik bereizten duena, hori da hain zuzen, matxinadan langilea eta herria izaten direla protagonista, alegia, eta kontsumitzaile diren aldetik, ez produzitzaile diren aldetik. Kapitalismoak aurrera egin ahala prezioen neurria salmentaren arabera ezartzea ere indarra hartuz joan zen. Gaur egun horrela izatea ia ontzat ematen den arren, aldakuntza garaiko lehenbiziko belaunaldiek neurtzeko era hori ez zeukaten arrazoizkotzat. Garai horretako jendearentzat, “zegokion prezioa” zuen gauza bakoitzak, eta prezio horiek salmentako aldarte ezin kontrolatuen baitan baino gehiago zeuden jartzeko garaian hartarako eskua zuen aginpidearen baitan.

Lehen zegoenetik kapitalismora igaro bitarteko mendeak (XVIII-XIX. mendeak, segun zein herrialdeetan) lehenetsunetik handieneko produktuei ezartzen zitzaizkien prezioen aurkako matxinadaz beteak daude. Eginaren eginean matxinada sortzeko eta antolatzeko erak eskema jakin batera bihurtu ziren: erosteko produktuen prezioak zirela eta (ogiarena, batez ere), horien kontsumitzaileak, herriak, produktu berezi batzuk suntsitzen zituen (errotariak, merkatariak eta ale saltzaileak izan ohi ziren –pilatutik ote zeuzkaten sospetxan– matxinatuen haserrearen biktimak), aginpide paternalistaren arreta bere aldera bideratzeko, eta horrek gauzei zuten prezio zuzena ezar diezaien berriro.

E. P. Thompsonen “jendearen moraltasunezko ekonomia” gisa definitu zuen hura eta merkatuaren arabeko ekonomia berri hori elkarren aurkakoak ziren, balioetan, ohituretan eta pentsatzeko eran. Esan bezala, XVIII-XIX. mendeak egokitze arazo horiek eragindako matxinadaz beteak daude. 1750ean jaiotako Kornualles-etako (Ingalaterra) meatzari batek, esate baterako, doxenerdi bat matxinada handi ezagutuko zituen bere bizitzan, eskualde horretan. Herriak aurreko matxinadaz zuen oroitza eta gisako gertaeren sarritasuna lagun, prezioak igo bezain laster erabiltzeko erresistentzia eta presio mekanismo jakin batzuk sartuz joan ziren jende artean.

Muturreraino eraman ziren matxinadak (Frantziako Iraultza da horietako bat), herritarren protesta bereiztat, eta askotan, hasieran zirena (lortu nahiko eskakizun batzuen aldekoa) baino politikoa gogotzat hartu izan dira. Oso bestela uste izan arren, *sans-culottes* izeneko herritarren iraultza egun haiek ere, hasi, lehenetsunetik handiena zuten produktuen prezioak igo izanaren kontrako protesta gisa hasi

ziren, gero kutsu “politikoa” hartu zuten arren; “diru ordezkoak” (garai horretako diru paperak) balioa galdu izanaren edo uztaren urritasunak eragindako inflazio prozesu baten ondorioz hasi ziren, hain zuzen. Tasatutako prezio batzuk jartzea eta *Orori Gehiengo bat* izeneko araua aplikatzea ziren herriaren eskakizun nagusiak, Iraultzaren zuzendaritza politikoa hartu zutenek, berriz –eta osatzen zuten alderdi guztiak bat zetozen honetan–, produkzioan eta merkataritzan guztizko askatasuna izan behar zuela defendatzen zuten beren jarrera.

Langileen gain zegoen kontrola ez zen, beraz, lantegiko edo fabrikako produkzio eremura mugatzen, langilearen erosketan sartzen zen. Garai bateko *kantinak* edo, zabalago ziren *truck system*-ak, nagusiak langilea gehiago kontrolatzeko erak baino ez ziren, lana kontsumoko gaien bidez ordain baitziezaiokeen kantinetako mekanismo horren bitartez. Egindako lana bono edo diru ordezko agiri batzuen bidez ordaintzen zioten eta bono horiek enpresako nagusiaren edo kapatazaren (honenak gehienetan) ondasunetan (produktuak) eta zerbitzuetan (etxebizitza) enplegatzerara behartzen zuten langilea. Meategietako gremioetan, esate baterako, hain zegoen sistema hori zabaldua ezen langabezia zegoen meatzariak lanik bazegoen galdetzeko ordeztu harentzat oherik bazuen galdetu ohi zion kapatazari. Eta horrela galdetzean ez zen perifrasiz mintzo, baizik sinonimoak ziren bata eta bestea.

*Kantinak* ohizkoak ziren etorkin asko zen sektoreetan, familiarik gabe aldatzen zirenez, behin-behineko zeudela uste baitzuten. Produkzio guneak (meategiak) hirietatik urrun egoten zirenez, nagusiek egokiera izaten zuten, bestalde, langileei lo egiteko barrakoiak edo non janariz hornitua eskaintzeko. Horrela, bada, fabrika barnean bertako araudiak (hainbat hamarralditan lege nagusiak erredaktatuak) agintzen zuenez eta handik kanpora, berriz, kapatazak (gauzei prezioa jartze kontuan, adibidez), langileak kontrol erdi feudal baten mendean jarraitzen zuen nahitaez. Pixkana-pixkana, sistema hori sektore guztietara zabaldu zen. Nekazaritzan bertan ere ordaindu izan zen besalariaren lana diru ordeko agiriz; agiri horiek, bestalde, herriko errotariak, askotan besalariaren nagusia ahaideko zuenak, eginak ohi ziren. Konkurrentziarik ezak, gainera, itxuragabe igoarazten zituen produktuen prezioak, eta langileak, nahiz eta benetako dirutan kobratu, kantinan egiten zuen zorra zela eta, hartzeko zuen soldata erabilia izaten zuen astea bukatzerako.

Konpainia handiek langilearen onerako asmoan sortu zituzten kontsumoko kooperatibek beste izaera bat izan zuten. Horiei esker, kontsumoko produktuak merkeago erosteko egokiera izaten zuen langileak, ekonomatoak berak ere handika eta merkeago bereganatzen baitzituen. Bi asmo izan zituzten enpresek kooperatiba horiek jartzeko, eta bi asmoak elkarren kontrakoak ziren arren, langilearen onerako izan ziren. Argi zegoen langilearen ongizatea zaindu nahi hartan

asmo paternalistak izaten zituela enpresak. Baina, bestalde, langilearentzako ekonomatoak sortu eta etxebizitzak (konpainia batzuek ordainduak) eraiki ez ezik, enpresaren laguntza zuten elkarte babesleak sortu ere egin ziren joera hori zela medio; egite on horiek bazeramaten orobat langilea kontrolatzeko asmo bat ere. Horrek, gainera, ekonomia itxi samarretan, gauzak merkeago erosi ahal izateak zelako enpresan soldatari buruzko eskakizun gutxiago izatea eragiten zuen. Horren ondorioz, ekonomatoak irabazi iturri gertatzen zitzaizkien enpresetako nagusiei zeren kooperatibari eusten egiten zuten ahalegina zela bide eskakizun ekonomiko gutxiago izaten baitzuten langileen aldetik.

Baziren horiez gainera beste kontsumoko kooperatiba batzuk ere, akzio erosketazko edo partaidetzako sistematan oinarrituak, langilea bazkide gisa har zezaketanak. Kooperatiba hauek, ordea, beste era batekoak ziren, enpresarekin loturarik ez baitzuten, batetik, eta sortu ere erdiko klaseko sektoreei begira sortzen baitziren, funtzionarioei, militarrei, ofizioekoei eta abarri, alegia.

#### 4.4. Lan baldintzak

Lantegietako eta fabriketako bizitza oso gogorra izan zen industrializazioaren lehenbiziko urteetan. Bizimodu hori islatzeko ohitura sakon sartu zen literaturan, eta eragin handia izan zuen horrek garaiko jendearengan eta baldintza horiek aldatzeko prozesuan bertan ere. Tradizio horren nahiko ordezkari ona da C. Turner-Thakrah sendagilea. 1831n argitaratutako txosten batean honela zioen:

“Jarri nintzen Manchesterko Oxford kalean eta fabrikatik irteten ari zen langile aldeari begira egon nintzen, 12ak puntuan. Haur gehienek itxura txarra zuten, txikiak, gaisoberak ziren; hankautsik eta gaizki jantzita zihoazen. Itxura zuten 7 urte baino gehiago ez zuten askok. Gizonak, berriz, 16 urtetik 24ra bitartekoak, oro har, eta bat ere ez adin handikorik, ia haurrak bezain zurbilak eta argalak ziren. Plantarik onena emakumezkoek zuten, baina haietan ere ez nuen bat mardul edo eder itxurakoa ikusi... Jende aldra galdu bat, behar adina hazi gabeko gizadia ahul gaiztotu bat, zahartzarora iritsiko ez ziren gizon eta emakumeak, behin ere heldu, osasuntsu izango ez ziren haurrak ikusi nituen, edo iruditu zitzaidan ikusten nituela han. Ikuskizun tristea zen hura”.

Turner-Thakrah-en deskribapen dramatiko horrek ez du, noski, zen guztira zabaltzeko balio. 1830-1840 bitarteko urtealdiaren azkenalderako hasia zen, egin berria zuten laneko legedia langileen bizimoduaren hobekuntzan bere fruituak ematen, eta esklaboen baldintzatsuetan lan egiten zuten aprendizaren egoera ere ja ez zen ohizkoa. Hala ere, industrializazio garaiko lehen urteetako baldintzak, ordutegiari, garbitasunari, arriskuan lan egiteari, ingurune baldintzei edo neke fisikoari zegozkienak, oso gogorrak izan ziren orduko langileentzat.

Laneko ordutegiari buruz ere kontu daitezke nahiko gertaera dramatikoak, bukaerarik ez zuten lanegunez edota argi indarra sartzeak (zenbait ofiziotarako

zuen erabilgarritasuna orduan aurkitu zen) are torturatzailleago bihurtu zituen egunez mintzo direnak. Baina muga gaitezen Gasteizko adibidera, Espainiako erdialdeko probintzia hirien gisako horretara. Hiri horretan, XX. mendearen aurrealdean –edozein aldetatik begiratuta ere atzerapen handia zuen horrek Ingalaterrarekin erkatzeko–, langile gehienek hamabi ordu ematen zituzten lanean, nahiz eta gero hamar ordura jaitsi bost urtean. Zenbait gremio eta sektoretako langileak, hala ere (jantzi industriari ari ziren emakumeak, jostunak, e.a., dendetako enpleguak, ordu gehiago egiten zituztenak, edo okinak, gauez lan egiten zutenak, adibidez), ordu araudi berri horren eskuetatik kanpora geratu ziren. 8 ordu lan egitea, 1919 arte ez zen lege bihurtu eta indarrean jarri Espainian. Urte horretatik aurrera ere, ordea, 8 ordu baino gehiago sartzea zen ohizkoa; ordaindu ere, horiez gainera, ordu normalak baino hobeto ordaintzen ziren.

Zortzi ordu lan egitea, Lehen Mundu Gerraren ondorengo urteetan zabaldu zen Europako lurraldeetan. Ikusgarria izan zen horrekin eman zen aurrera pausoa, zeren, nahiz eta XX. mendearen lehen hirurogeita hamabost urtean lanordua %25-35 murriztu izan (40 ordu baino gutxiago), zortzi orduko hori, aurreko ehun urtean gero eta gehiagora ere joan ondoren, lortu baitzen. Aurreko ordu gehitze horiek harigintzako eta kotoi oihalgintzako sektoreetan izan ziren batez ere; izan ere, makina sartzeak eta laneko eskaintza gehiago izateak produktuen prezioak behera egitea ekarri zuten, eta honek ondorioz, langileek egunean hamalau, hemezortzi eta hoge ordutaraino lan egin behar izatea eragin zuen.

Langileen bizi mailarako ikaragarriko zerikusia zuten fabriketako eta beste lantegietako segurtasunak, higieenak edo ingurugiroak. Astean sei-zazpi egun (egunen kopurua gutxitzea XX. mendearen hasieran bihurtu baitzen legeko) eta eguneko orduen erdia baino gehiago, langilea babesteko neurri gutxi edo bat bera ere ez zen lantokietan ematen zituzten horiek. Fabriketako gaitzei eta eritasunei dagokienez, ez dago parlamentuko batzordeen, higieen kontuan jakitun zirenen edo sendagileen txostenak agertu arteko berri handirik. Egin ziren txostenek ere lantokiek lan egiteko eskaintzen zituzten baldintzen, horietan zegoen hezetasunaren, zikintasunaren, leku horietako estutasunaren, argi gutxiaren edo egiten zuen beroaren berri ematen dute.

Segurtasuneko neurririk ezari edo horretarako zeuden arauak ez aplikatzeari buruzko salaketak ere sarri agertzen dira txosten horietan. Hain zuzen, gertatzen ziren istripu asko aldarmioak behar bezala jarriak ez egoteak eta makinaren inguruan sarerik eta bestelako babesik ez egoteak eragiten zituen. Hala eta guztiz ere, istripuei buruzko informazioak anekdota gisa agertzen dira estatistiketan, oso berandu gainera. Lan sektoreei dagokienez, istripurik gehienekoa meatuak, eta metalurgiakoa ziren, Espainian, garraiokoa, kimika industriakoa eta eraikuntzakoa, horien ondoren.

Guztiarekin ere, lanaren inguruan izan ohi ziren gaitzetako bat besterik ez zen istripuen hori. Istripuez gainera eritasunak zeuden. XVIII. mendearen hasierako italiar sendagile batek eri jakin baten osasunari buruzko diagnostikoa egiterakoan oinarritzotzat jotzen zuen *Zer lanetan ari zara?* galdera egitea, eta Adam Smith berak ere langintza bakoitzak bazuela “bere gaixoketa” esaten zuen. Ezagunak dira, esate baterako, meatzarien eta harrilantzaileen silikosia, larru lantzaileen karbunkloa, inprimerian eta berun lanean aritzen diren langileen saturnismoa, besteak beste. Eta horiez gainera, gorputzak eduki behar zuen jarrerak, organo (jostunek eta erloju konpontzaileek begiari, adibidez) eta muskulo jakin bati (ukalondoetako, belaunetako edo sorbaldako sinobia isurkaria handitzea) ematen zitzaion nekeak eragindakoak zeuden.

Langilearen osasuna erabakitzen zuten faktore nagusiak edo eraginik handientxoena zutenak hauek ziren, besteak beste: zenbait produktu egiteko erabili behar zen materiala, laneko ingurua kutsatua egotea, jarrera txarrak, indar gehiegi egiteak edo ordu gehiegi aritzeak eragiten zituzten joera okerrak eta nekeak, eta azkenik, istripua.

#### 4.5. “Aseguru soziala”

Egoera segururik gabe denbora luzean bizi izan ziren langileak. Segurutasunik ez hori are argiago nabari izaten zen langilea ezin lan eginik edo soldatarik ezin irabazian geratzen zenean –nahiko sarri gertatzen zena. Langileak istripu bat izan edo gaixo zeudenerako (lanak eraginik edo bestela), ezindurik edo langabezian (behin-behinekoa edo sektorekoa) luze egon beharra egokitzen zitzaieneko, greba bat zenerako, zahartzen edota hiltzen zenerako, inolako babesik ez zuten, ez beretzat, ez familiarentzat.

Ikuspegi horretatik begiratuta alde handiak dituzte gizarte tradizionalak eta gizarte modernoak. Gizarte tradizionalak bazituen osatzen zuten komunitatea babesteko mekanismoak, oinarria familiar buruzko ikuspegian eta hura aintzat hartzean, gremioen eta auzokoen arteko elkartasunean zutenak, eta karitatea egiteko erakunde erabat finkoetan gauzatzen zirenak. Ez lehengoa idealtzat hartzeko asmoarekin baina, esan beharra dago, gizarte berriak, mugitzeko askatasunarekin batean gero eta norberekeria handiagoa, gizartearen eta familia tradizionalen barruko loturak haustea eta, azken batean, pertsona libre bezain babesik gabeko bihurtzea ekarri zituela.

Ez da harritzekoa, beraz, zituzten ezbeharretan babesia izateko formula berrien bila oso goiz hastea langileak. Babes premia horri erantzuteko sortu zen mutualismo zeritzaion langile elkarte mota, industrializazio garaiko lehenengo hamarraldietan kide gehien biltzen zituena eta zabalduenik egon zena. 1870ean, *trade unions*, britainiar sindikatu indartsuek bostehun mila kide zituen bitartean,



lau miloi kide zituzten elkarren babeseko erakunde mutualista horiek. Elkarte mutualista horietako kideak (soldatako langileak, artisauak edo, nagusi apalak ere) aseguratua zuen geroa, kuota ordaintzeak eskubidea ematen baitzion ezbeharrean laguntza bat edo prima bat izateko.

Elkarte mutualistek definitzen zuten sor zekizkiokeen okerrak autoerregulatzeko eta kideak babesteko erak (gremioak, familia, komunitatea) bere baitan zituen gizarte tradizionaletik hiritar bakoitzak bizi izateko behar duen gutxieneko mantenua Estatuak eskaintzen dion gizarte modernora bitarteko trantsizio garaia. Elkarte mutualista horiek bete zuten, beraz, gremioen babesteko erak galdu eta Estatuak aseguru soziala eta beste zenbait babes erakunde antolatu arteko hutsunea, eta Estatuak babesteko molde berriak sortu zituenean, zeri erantzunik ez zutenez, desagertuz joango ziren, edota hark antolatutakoetan sartu ziren, haien osagarri gisa, ez pareko gisa. Gero agertuko diren kapituluei aurrea hartuz, aipa daiteke, bestalde, Estatuaren babes sistemaren krisiak aseguru pribatuak berriz piztea eragin duela (pentsio ondareak, e.a. sortzea), eta haren pareko eta alternatiba izateko arriskuarekin, gainera, oraingoan.

#### **4.6. Etxea, karrika eta taberna.**

Etxea, karrika eta taberna izaten ziren langilearen denborapasako lekuak. Langileen etxeetan ez zen lantegietan edo fabriketan baino erosotasun handiagorik izaten. Barrunbe estua izaten zuten, gela nagusi batekoa, eta han prestatzen zen janaria eta garbitzen arropa, han egiten ziren otorduak eta biltzen zen familia atsedean aldietan, eta lo ere bertan egiten zuten, batzuetan, haur txikienek behintzat. Hala zioen Francis Place, XIX. mendeko ingeles eraberritzaileak bere garai-ko bizitzeko moduari buruz.

Nonahitik begiratuta ere ez dago gauzarik gizonezko bat eta emakumezko bat, baina batez ere emakumezko bat gehiago beheitzen duenik, guztion eta beren iritzian, nola den senarrak lana eta biak lo egiten duten gela berean jan eta edan, jana-riak prestatu eta garbitu, plantxatu eta gainerako etxeko lanak egin beharra.

Gela hartan (bakarra, batzuetan), komoda edo kutxatzar kajoidunak izaten zuen leku nagusia, eta haren gainean jartzen zituzten argazkiak, estanpak eta familiaren gogoko beste zenbait irudi, erlijioari edo politikari zegozkionak. Gelaren kontrako zoko batean, komuna egoten zen, eta logelak pasiloan zehar. Oso ohizkoa zen gela horiek leihorik ez izatea.

Deskribatu den horren antzeko samarrak ziren langile gehienek etxeak; eta hoberenak ziren horrelakoak. Ezin esan daiteke, hala ere, guztiak eredu horren araberakoak zirenik. Nekazaritzan ziharduen zenbait langilek eta, meatzari batzuek ere, nahiz eta etxe barrua deskribatu denaren antzekoa izan, ez zuten behintzat, hirietatik kanpora bizi zirenez, beste horiek zuten ingurunearen eragina pairatu

beharrik. Bestalde, industrializazioa hasita hamarraldi batzuk geroago, banako etxeetan bizitzen jartzea lortu zuten zenbait lurraldetako langile elkarteek; “etxe merkeak” izenez ezagutu ziren horiek, eta besteak baino maila hobexeagokoak ziren.

Horiek baino beheragoko mailako etxea edukitzea zen, ordea, normalena. Delako gela handi bat eta beste logelaren bat besterik ez zuten etxe horietan, familia bat baino gehiago bizi izaten zen, bata jabe eta besteak maizter zirela, edo, baita ere, bata maizter (ez jabe) eta besteak maizter azpiko zirela. Oso ohizkoa zen, gelak banaka errentatzea, izan ere, familia bat baino gehiago bizi ziren etxe horietako asko lehenago erdi mailako burgesen baten etxebizitza izanak eta hark puskaka errentatzeko prestatuak ziren.

Areago oraindik, baziren sotoetan eta tarteko sotoetan bizi ziren familiak ere. Manchesterren edo Liverpoolen, esate baterako, hogeit mila pertsona baino gehiago bizi ziren horrela XIX. mendearen lehen herena bitartean. Bazeuden atzez elkarri erantsitako etxeak, Ingalaterrako iparraldean hain tipikoak eta bizitzeko erarik txarrenaren deskripzio iturri izan zirenak (Engels, literaturan; Doré, grabatuetan) bizilekutat zeuzkaten familiak ere; ez dirudi, gainera, garai horretako jendearentzat lotsa izateko eta gutxiago ere zirenik. Bakoitzak bere sarrera zuenez, bazuen banako etxearen egitura antzeko bat. Etxeen atzeko aldea zaborraren eta gainerako zikinkeriarren isurleku izateak eta bizilekua bera ere oso estua izateak, ordea, eraman ezineko bihurtzen zuten hango ingurugiroa. Komuna ere, berriz, bat izaten zen denentzat, Espainiako zenbait eraikuntzako patioetan eta etxebizitza arteko esparruetan bezala.

Hau bukatzeko, beste bi adibide aipatuko ditugu. Etxe barrua lantoki gisa ere erabiltzen zutenena bat (gogoan izan lehen aipatutako *domestic system* hura). Bizitzeko sistema horrekin oso leku murrizta eta oso baldintza txarretakoa geratzen zitzaien bertan bizi behar zuten pertsonen. Egunaren parterik handiena lana egiten zen lekuan eman behar zutenez, hori ahalik aireatuen eta argitsuen edukitzen saiatzen zen familia. Beste adibidea lehen ere aipatu den *truck system*-aren aldaera bat zen: kantinetan kontsumoko produktuak saldu bezala, etxebizitzak errentan eskaini ere egiten zuten fabriketako jabeek eta kapatazek. Hori zela medio, langilearen bizitza azken muturreraino kontrolatzeak, gainera, emandako soldata –diruz ordaindua ere ez zena zenbait kasutan– berriz eskuratu ere egiten zuten horiek, eta adierazi ezineko bizimodura kondenuatuak uzten zituzten horrekin: oheak txandaka erabiltzera; lastategiak eta ikuiluak bizileku gisa erabiltzera; oso barrunbe txikiak bizitzeko alokatzera, e.a.

Langileak bizi ziren etxeen multzoa zen langileen auzoa. Etxe barruetako zernahitarako erosotasunak oso eskasak zirenez, auzoa eta kalea ohi ziren haietan bizi zen jendea elkarrekin zertzeko leku nagusiak. Baina, hain ziren auzo horie-

tako baldintzak halakoak non auzo horietaz idatzi izan dutenek baldintza horiei botatzen dieten “industria iraultzaren ondorioz bizitzako beste edozein izaeratan baino osasunarenean kalte gero eta handiagoa izanaren” ardura.

Hain zuzen ere, hartzen bada XIX. mendearen erdialdeko Liverpooleko *gentry* gizarte mailako kide bat (noblezia txikiaren mailako ingeles nekazaria) eredu, ikusten da 35 urteko bizi itxaropena zuela; artisau batena, berriz, 22 urtekoa zen, eta langile batena, 15 urtekoa. Halifaxen, Yorkshireko ehunlagintzako zentruan, batez-beste 22 urterekin hiltzen ziren langileak; dendariak, 24rekin, eta *gentry*-ak eta industria jabeak, 55ekin. Gasteizko langile auzoetan mila biztanleko 32 pertsona hiltzen zen bitartean, auzo berrian, klase ahaldunak bizi zirenean, berriz, 27 pertsona besterik ez zen hiltzen. Izurrite garaietan, auzo horietako guarismoek 47 eta 33ko kopurua ematen zuten, hurrenez hurren. Klase batzuek eta besteek zeuzkaten etxebizitzetan datza hiltzeko adinean hainbesteko aldeak egotearen arrazoia.

Gasteizi buruz dauzkagun erreferentzien arabera, hiri eremutik (eremu gisa hiria harturik, ez etxebizitza) langile bakoitzari zegokiona 27 metro karratukoa zen, edo 17 metrokoa, zenbait kaletan; burgesen auzoetan, berriz, batez-beste hori 84 metro karratukoa zen. Burgesen *etxe multzoen* inguruko kaleak zabal eta lasaiak ziren; etxe arteko patioak, handiak. Etxebizitza bakoitzak zuen bere komuna, eta horietako gela guztiek edo gehienek bere leihoa. Langileen auzoak, aldiz, hiriaren Erdi aroko aldean zeuden kokatuak. Auzo horietako kaleak estuak ziren; estuak, alforja itxurakoak, eta komunik eta urik gabeak (inguruko kale kantoiren batean izaten zuten iturria), etxeak; geletan leihorik ez zutenak. Etxeen atzeko aldeak nazkagarriak ziren, isurkin eta hondakin guztien lekuak, aise su har zezaketen eta hezetasunak erraz erasaten zien materialez eginak,... Garbi dago izenez bakarra zen horretan bi hiri ageri direla.

Giza talde ahaldunak non eta nola bizi ziren zehatzago agertzean hobeto ikusiko da nola hiriak klaseen arabera antolatuak zeuden. Esana geratu da langileak errentako etxeetan bizi zirela. Langile batek soldataren %15 etxearen errentan uzten zuen. Jabeek ikaragarritzko etekinak ateratzen zituzten etxebizitzetatik, baita langileenetatik ere. Adibide bat, Madril izan daiteke. Hiri horretako udaleko datuen arabera, 1910ean, 76 milioi pezeta gastatu zuten Madrilgo maizterrek etxe errentetan, eta kopuru horretan ez dira errentan zeuden dendak sartzen; 1920an, 166 milioi pezeta ordaintzen zuten, %117 gehiago alegia. Eta klaseen araberrako bereizketa hori are argiago ikusten zen oraindik etxe berean pisu bat edo beste hartzerakoan. Aberatsak eta pobreak eraikuntza berean bizi zirenean ere, lehenengoek pisurik onenetan bizi izaten ziren, eta pobreak, sotoetan edo teilatupeetan.

Langileen etxe barruetako baldintza eskasek eta horien gizaratean bizitzeko joerak herriko jendearentzat bizileku nagusia kalea izatea eragin zuten. Klaseen

araberako desberdintasunak ez ziren, bada, etxebizitzara mugatzen. Hiria bera ere klaseen arabera banatua zegoen. Hiriaren funtzionaltasunaren eta espazioa banatzeko hierarkiaren baitan marjinatutzat jo ohi ziren auzoetan bizi izaten ziren langileak. Zela auzo zahar zarpailduetan bizi zirelako, zela aldirietan edo hiritik kanpora zeudenetan bizi zirelako, horren erdigunetik aparte egoten ziren langileen etxeak; burgesia bizi zen aldea izaten zen eginkizun ofizialen gunea, denda eta gainerako negozioak, erakunde ofizialak, prentsa, e.a. zeudena... Argi ikusten da hori Espainiako hirien 1930 inguruko planoak aztertzean. Burgesak edo pobreak bizi ziren kalearen izenari zegokion pertsonaiak edo erakundeak zer mailatako garrantzia izan zuen, batzuen edo besteen kaleek zenbaterainoko zabalera zuten eta zenbaterainoko errazionaltasunez banatuak zeuden hiriaren alde banatako lotura sareak pixka bat aztertzea aski da non zein bizi zen jakiteko.

Langileen auzoak neketsuak ziren bizitzako zeinahi eginkizunetarako: hiri antolaketa ez zen izaten edo eskasa izaten zen, nahasmen handikoak onenean ere; ez zen isurkinentzat estolderiarik, ez beste zerbitzurik; eta lokatza edo hautsa, berriz, handia, euria edo lehortea zenean; argi gutxi; etxeak, lantegiak, fabrikak, geltokiak, burdinbideak eta baratza zer noraino zen ia bereizi ezinak ziren; udalaren aurrekontuak egiterakoan ia aintzakotzat ere ez ziren hartzen horiek; zenbait sailtako zerbitzuak, sendagileak, e.a. ez ziren horietaraino iristen ere (“konturik ez zuelako”); beste zenbait ihardunetan, berriz, marjinaltasuna zela bide, izaten zen nor aritua (prostituzioan, e.a.).

Mundu koskor horren bizitzako eginkizunetan garrantzi handia zuen tabernak. Nahiz eta taberna edo “langileen saloi” horiek fama txarrekoak izan, horietan biltzen ziren langileak denborapasa hizketan egoteko, zituzten arazoak ahazteko, erreferentziatzeko izango zitzaien kultura mota bat sortzeko edo zuzperrarazteko (musika eta abestiak, estereotipoak, ...), e.a.

Taberna zen langilearen biltokirik ohizkoena (emakumezkoentzat debekatua), baina ez bakarra. Bilarreko aretoak ere nahikoa zabalduak zeuden. Tabernaren ordezkotza egiten zuten biltokiak, ordea –herrialdeen arabera izenak eta nahiagokoak–, kasinoak, zentruak, klubak eta herriko etxeak izan ziren. Nahiz eta biltoki horiek, hasieran, organizazio politiko edo sozial baten egoitza izateko edo ekin-tza jakin batzuek edo talde batzuen afizioak bideratzeko sortuak izan, pixkana-pixkana sortzean zuten asmoaren arrastoa galdu eta, hizketan, jokoa, eztabaidan, kantuan eta, noski, edaten ere aritzeko leku bihurtu ziren gehienak.

#### **4.7. Alkoholismoa, tuberkulosia eta langileen gainerako eritasunak**

Zenbait lanbidek bere eritasuna eragiten zuen bezala, langileen bizi baldintza kaxkartzeak eta langile horien ohitura aldaketek heriotza tasa eta zenbait eritasun bereziki gehitzea eragin zuten.

Hirietan zuten ingurugiro txarra eta egiten zuten lan neketsua zela bide, heriotza tasan alde handiak zeuden hirietako langileen eta nekazaritzakoen artean. Hirietako langileek nekazaritzakoek baino osasun zerbitzu hobeak zituztela kontuan izanez gero, are nabariagoa da bizitzeko baldintzei zegokiela heriotza tasa horien errua. Hirira aldatzeak, beraz, bizitza laburragoa izatea esan nahi zuen. Manchesterren, esate baterako, 1840an, langileen semeetako %57 bost urte baino lehen hiltzen zen; nekazarien semeetan, berriz, %32 hiltzen zen urte horiek baino lehen. Ingalaterran eta Galesen, hirietako eta nekazaritzako heriotze tasen arteko aldea 124-100 artekoa zen 1850-1860 bitartean; alde hori 1890aren ondorengo urteetan jaitzi zen 114-100 bitartekoa izatera.

Pilaturik bizi ziren lekuetan, garbitasunik ez zenetan, lan baldintzak txarrak eta behar adina jaten ez zenetan izurriteak sarri jotzen zuen herri xehea. XIX. mendean, esate baterako, hain ziren baztanga eta kolera eritasun sarriak ezen ohizkotzat hartzen baitziren. Hirietako azpiegiturak hobetzeak (komunak eta estolderiak jartzea, etxeetan ura sartzea, auzo zaharrak eraistea,...) txertoak eta higieneko arauak hedatuz joateak zeresan handia izan zuten heriotze tasa gutxitzean. Baina ez da ahaztu behar aurrerapen horiek herrian sartu arte urte asko joan zela.

Osasun hobekuntza horiek sartu bitartean, ordea, kalte handiak egin zituzten eritasun batzuek; horien artean tuberkulosiak, Koch baziloak eragiten, eta birrikak, inoiz hesteak eta gorputzeko beste alde batzuek ere, erasaten zituen eritasun kutsakorrek zuen leku nagusia. XX. mendearen hasieran(!) Bilbon bertan, biztanleen %15 eritasun horren ondorioz hiltzen zen.

Garai horretan sarri zabaltzen ziren eta tamalez entzute handikoak ziren beste eritasun hauek ere: gripea –1918an 20 milioi heriotze eragin zituena, ia 350.000 Espainian– elgorria, difteria eta eskarlatina –haurretan eragin mingarriak izan zituztenak bi azkenekoak–.

Izurritearen pareko gisa har daiteke alkoholismoa, garai hartan gizartean hain zabaldua zegoenez, hainbat heriotza eragin eta jendearen osasunean hainbesteko kalteak egin zituena. Bizimoduz aldatzeak eta etxeko nahiz gizarteko jokaerek zerikusi handia izan zuten gaitz hori zabaltzean. XIX. mendeko hiru “gaitz handien” artean, sifilisarekin eta tuberkulosiarekin alkoholismoa aipatzen da.

Herri hizkerak gaitz horrentzat asmatu zituen esamoldeek zerikusi gehiago dute, hala ere, irudimenarekin orduko errealitatearekin baino. “Ginebra irrika”, “ginebra kalea”, “sorgin berdea” eta gisako esamoldeek herriak ginebra, ajenjoa edo absenta edateko zuen irrikan dute, batez ere, oinarria, zeren edari horiek ez baitzeuden hedatuak, Londresen eta antzeko hiri batzuetan izan ezik. Hirietatik kanpora, berandu arte ardoa, sagardoa eta garagardoa edaten ziren gehienbat. Ardo-garagardoan eta ginebra edo beste edari bizien arteko aldea, lehenengoak

gizarte tradizionalako jende moderatu eta kolektibizazio girokoen artean edanak, eta inguruare berean eginak izatean, eta besteak, ginebrak, e.a., egiteko prozesutik beretik (garauak lantzea, destilatzea) kontsumora bitarteko guztian (banaketa, Estatuaren interesak biltzeko intereseekin lotua egotea) “kapitalisten” girokoa izatean zegoen.

Herria, bestalde, bere edateko neurrian, gizarteko harremanak errazteko (tabernatik festara) omen zen horretatik igaro egiten zen, eta familian edo beste bakartasun girotan kalte handiak egiten zituen. Alkoholtzale bakartia, gehienetan edari bizien zaleago zena, gaizki ikusia zegoen goi mailako klaseen artean ez ezik –matxinadaren eragile baitzen alkohola–, beheko mailako klaseen artean ere –gizagaldutzat zeukaten hauek–. XIX. mendearen bukaeraz gero, edatearen kontrako kanpaina gogorrek egin zituzten sindikatuetao kideek ere; edanaraztearen asmoa alkoholaren bidez langilearen erresistentziarako gaitasuna gutxiagotzekoa zela zioten horiek.

Garai bateko “mozkor, musugorri, onpuska, berritsu, hiltun eta alai” hura “alkoholiko, zurbil, uzkur, inoiz indarkeriazale, borrokazale eta hiltzaile” bilakatu zen jendearen begietarako. Alkoholismoak are negargarriago bihurtu zuen langileen egoera, askori osasuna galarazi zuelako, eta, batez ere, horien gizarteko harremanak okertu zituelako. Harreman kontuan, ordea, zaila da horrek edanera eragin zien edo alderantziz gertatu zen esatea. Dena den, hona Ingalaterrako adibide bat garai bateko osasun egoera agertzeko: Krimeako gerra bitartean (1854-1856), hirietako boluntarioen %40ri eta nekazaritza giroko %17ri ukatu egin zitzaion egindako eskakizuna osasun ahula zutelako, eta izena emateko zentruetan aukeratuak izanda gero. XIX. mendearen azken laurdeneko Europako gobernuak langileen osasunarekiko zuten kezka ez zen menturazkoa; beldur ziren horiek arraza ahultzeak ondorio txarrak izango ez ote zituen, batez ere gudarostean.

#### **4.8. Aisiarako era berriak**

Esan bezala, taberna zen herriak bere denborapasako orduak igartzeko zeukan leku nagusia. Herriak tabernarako zuen ohitura galarazteko kanpotik egin ziren ahalegin guztiak alferrak izan ziren, gainera, zeren hori baitzuen langile-riak bere ordu libreei eta diru ahalmen mugatuei, nahiz beste batzuek ere izan, hobekien zegokien lekua. Ez zen taberna edateko eta jostatzeko lekua bakarrik, ezta tabernaria edari zerbitzaile hutsa ere. Mailegatzailaren, lan bilatzailearen, lagun eta politika arazoetako konplizearen lana ere egiten zuen tabernariak (ez zen hain bitxia fabrikatik botatako aitzindari batek taberna jartzea; hala egin zuen Facundo Perezagua sozialista bizkaitarrak). Eta tabernan ospatzen zituzten langileek beren iniazio errituak, soldata ordainketak, pozaldiak, nahigabeak eta bilera politikoak ere. Elkarteen egoitza zeregina ere betetzen zuen tabernak, eta,

errepresio garaietan eta, han biltzen ziren eskasiarekin beste inorako ez zirela geratzen ziren auzokideak.

Baina aisialdiari buruzko liskarrik handienak hori era “errazionalen” antolatu nahi zutenen eta era tradizionalen igaro nahi zutenen artekoak izan ziren. Lehenengoentzat tradiziozko festen ezaugarriak kirtenkeria, kaosa, buila eta borroka, gizartean onartuak zeuden ordenaren kanonak haustea eta, laneko denbora eta atsedenekoa ez bereiztea ziren. Ihauterietako astearte egunez Derby hirian egiten zen urteroko futbol partidua horren nahiko adibide argia da. Egun horretan, ehun gizaseme helduk eta gaztek hiriaren bi muturretan zeuden porterietan baloia sartzeko lehian ematen zuten sei ordu. Bitartean, edan ahalak edaten, indarkerian eta, festaren aurka zeudenei sinisterra, besteren gauza eta jabezak harrapatzen aritzen ziren, ihauteri giroa aprobetxatuz.

“Aisialdia errazionalak”, berriz, ikusketarako (jai egunetako ibilaldiak), irakurketarako (garai horretako irakur gabinetek) eta eztabaidarako lekuak eta ekintzak antolatzea esan nahi zuen. Alde horretatik begiratuta, gizartearen onespina bereganatzeko nahian, helburu bera zuten burgesiaren moralak eta proletario militantearenak. Aisialdia era tradizionalen igarotzearen aldekoentzat, industriako disziplinara makurraraztea eta araurik gabe festak antolatzeko tradizioa galaraztea langile baketsuago bihurtzeko ziren biak. Langileen aldeko militanteen iritzian, berriz, pertsonarentzat alkohola bezain txarra zen festa tradizionaletako basakeria. Arrazoi horregatik boikoteatu zuten *Trade unions* sindikatuak eta Owen britainiar sozialistaren aldizkariak Derby hiriko futbol partidua. Eta hara joan ez ezik, milaka sindikalista bildu zituen *Union* sindikatuak egun horretan antolatutako mitinean, “indar publikoek nahiz metodista moralzaleek ezin galarazi zuten” ohitura bat galarazteko gai zirela erakusteko. Langileei eskola emateko eta *unions* horietako partaide ziren zenbait artisauk artean ahaztu gabe zeuden balio sistemak berpizteko zentruak irekitzea bultzatzen zuten, bestalde.

Joera horri jarraituz, ikasketa zentruak, langile abesbatzak, literatura ateneoak eta jakintza helburu zuten gisako beste zenbait erakunde sortu zituzten langile elkarteek, lehenean jarraitzen zuen tabernaren, burgesiak aldarrikatzen zuen moralaren eta horrek ontzat ematen zituen balioen alternatiba izan zedin. Festa tradizionalak industria garaiko denborari buruzko neurriak erabiliz kontrolatu nahi izan zituzten. Eta festa asko galdu ziren, baina herriak ez zuen amor eman nahi izan eta geratu ere asko egin ziren, nekazari girokoak, horietako batzuk.

#### **4.9. Eskolatzeta eta kultura**

Herriko jendea eskolatzek edo, zehatzago esateko, alfabetatzek bazituen bere baitan elkarren kontrako ziren aldeak. Bizitzeko era aberasten duen faktore gisa har daiteke, batetik. Baina, alfabetatzen ari dena balio sistema jakin batzue-

tan eta gizarteko jokaera jakin batzuetan sarrarazteko funtzioa ere badu. Ez da ahaztu behar eskola dela, beste zenbait praktikarekin batean, soldaduska egitearekin, adibidez, hiritarrarengan lurraldearekiko sentimenezko eta gogozko atxiki-mena sortzeko biderik eraginkorrena. Ez da, beraz, zertan harritu eskola bakoitzak bere *irakurketa egiteko Biblia erabili izanarekin* –moralara irakastea baitzen igandeetako eskola ingelesen kezka nagusia– edota sozialisten ateneoek askatasun soziala gai nagusizat edukitzearekin. “Politikak” heziketan garrantzi handia zuela esan nahi du horrek.

Makinak eta teknika berriak laneko prozesuetan sartzeak langileari prestakuntza eta eskola handiagoa eskatzen zioten, ikasketa sakonagoak egitea, beraz. Estatua denentzako heziketa sistema bat sortzeko gai izan zen arte, erakunde pribatuen, alegia, langileen ateneoen, erlijiozko taldeen, ekonomia erakundeen eta gisako beste elkarten gain egon zen biztanleak eskolatzeak zekarren gastua. Prestakuntza bereziago baten premia sortu zenean –administrazioarako, kontabilitateko lana egiteko, makinak diseinatzeako, e.a.– orduan hasi ziren erakunde ekonomikoak lanbide eskolak ordaintzen eta gaitasun bereziak zituzten langileei bidaiak ordaintzen, Erakusketa Unibertsalak ikus zitzaizen, e.a.

Herrialde baten aurrerapenaren eta ongizatearen neurria, dituen gaitasun teknikoak aparte, herrialde horrek ikasketa prozesuan lortu duen mailak eta herrialde horretako alfabetatu kopuruak adierazten dute ongien. XIX. mendearen erdian, Herri Behereak, Alemania, Suitza, Eskozia eta Eskandinaviako herrialdeak ziren analfabeto gutxien zutenak, eta Mediterraneo inguruko herrialdeak, Europako kontinentekoetan analfabeto gehien zutenak eta, aldi berean, egoera materialaren aldetik atzeratuena zeudenak: Espainia, Italia, Grezia, Balkanetako Herrialdeak, Hungaria eta Errumania. Europako batez-besteko anafabetoen portzentaia %45ekoa zen garai horretan, Espainiakoa, berriz, %75ekoa. Hain zuzen ere, sexuei buruz gizartean zegoen iritzia eta industriaren beharrak zirela bide, oinarrizko heziketaren eskasia emakumezkoetan eta nekazarietan zegoen zabalduena.

Irakurtzen jakiteak kultura maila bat lortzeko bidea ematen zien zekiten langileei. Herriko teatro, *music hall* eta gisako erakundeek garrantzi handia izan zuten zenbait kultura molde hedarazteko, prentsa irakurtzea ere, ordea, nahikoa zabaldua zegoen langileen artean. Langileentzat egindako aldizkariak, propagandako txostenak eta moral kutsuko kontakizunek zabalera handia zuten. Irakurri ere asko egiten zuten horrek askatasunerako bidea ematen ziela konturatu ziren biztanleek. Atalka argitaratzen ziren elaberriak dira horren adibide. Bartzelonako *El Cuento Semanal*, langileek langileentzat idatzitako ipuinez osatutako kolekzioak, esate baterako, 75.000 ale saltzen zituen astero. Eta *La Novela de Hoy* kolekzioaren zenbait liburuxkak 400.000 aletarainoko salmenta izan zuen bere



bigarren argitaraldian. Atalkako kontakizun horiek idatzi ere, “profesional ez zen” langileak edo nekazariak, herriaren sentitzeko eta pentsatzeko era hain zuzen agertzen zutenek ez ezik, gizarteak idazletzat zeuzkanek ere idazten zuten, Zolak, Tolstoik, Mirabeauk, Azorinek, Dicotak eta Pi i Margallek, esate baterako.

#### **4.10. Zegoen balio sistema galtzea edo haren aldaketa?**

Industrializazio aurreko eta nekazaritza giroko gizarteko balio sistemak, aldi batez langileek bere egin zutenak ere, laster izan zuen krisia. Herriz eta bizitzeko eremuz aldatzeak eta hain oinarri sakonak zituzten zenbait kontzeptu (denborarena, esateko) aldatu beharrak eragindako harreman hausketari eta sakabanaketari “langileriaren apostasia” deitu izan zaiona gehitu behar zaio. Langileriaren apostasia horrekin hirietako langile kopuru handi batek elizarekiko eta erlijioarekiko agertu zuen atxikimendurik eza ematen da adieraztera. Espainian eta beste zenbait herrialdetan etsaiari eta langileen aurkako ordenaren defendatzaileei bezala begiratzen zitzaizen horiei, nahiz eta beste garai batzuetan herri komunitatearen oinarri eta komunitate izenaren beraren sustrai izan. Ingalaterran eta antzeko beste lurralde batzuetan ez zen, agian, horren gogor gertatu haustura, izan ere, hango elizak, eliza ofizialarekin bat ez zetozenak, langileen kultura tradizionalaren eta horien mugimenduaren alde agertu baitziren. Beste zenbait langile talderi, berriz, Irlandako etorkinei, esate baterako, on ere egin zien elizari leial jarraitzeak, horrela taldearen barneko harremanei sendo eutsi baitzieten.

Herrietako ohiturek ere beherakada handia izan zuten, hirietara oldean aldatu ziren etorkinak denak bizimolde berekoak ez izanik, eta hirietako erritmora egokitu beharrez, ahaztu eta utzi egin baitzituzten lehengo tradizioak. Eta hartarainokoa izan zen indibidualtasunak hartu zuen indarra ezen elkarri laguntzeko zenbait erakundek, *Compagnons du Tour de France*, esate baterako, on iritzi zion haiek zituzten ohiturak, festak eta folklorea berriz zuzpertzeari eta indartzeari.

Familia bera ere ez zen aldatzeko joera horretatik kanpora geratu. Zuten gizarte ingurunea galtzean eta bizitza errukarri eta ia abereen pareko batean sartzean, aurreko kulturari eta balioei eusteko eta horiek ondorengoei igarotzeko bideak ere moztu egin zituzten etorkinek.



## 2. Gaia

### Landako langileak

#### Aurkibidea

1. SARRERA
2. URTAROETAKO ARAZOA, LANEGUNAK ETA SOLDATA
3. BIZI BALDINTZAK, KONTSUMOA ETA ETXEBIZITZA
4. IRAKASKUNTZA, BALIOAK ETA SINESTEAK

#### Kontsultarako liburuak

- Rodríguez Labandeira, J., *El trabajo rural en España (1876-1936)*, Bartzelona, Anthropos, 1991.
- Rule, J., *Clase obrera e industrialización. Historia social de la revolución industrial británica, 1750-1850*, Bartzelona, Crítica, 1990.
- Sánchez Jiménez, J., «Condiciones de vida y situación social de las clases bajas (1890-1910)», in *Historia Contemporánea*, 3 (Bilbo), 1990, 75-115. orr.



## 1. Sarrera

XIX. mendearen erdian, biztanleriaren hiru laurdenak landa lekuetan bizi ziren oraindik ere eta nekazaritzan zen langile kopuru handiena. Laborarien kopurua, industrializazio aurreratuko herrialdeetan apalduz joan bazen ere (Britainia Handia, Frantzia hein txikiagoan), 1840-1887 bitartean emendatu egin zen beste zenbait herrialdetan, hala nola, Alemanian, Estatu Batuetan (bi milioi t'erditik bederatzi milioi pertsonetara, bi data horien artean), Holandan eta Belgikan. Europa osoa harturik, berrogeita hamarretik hirurogeita sei milioira pasa zen nekazarien kopurua XIX. mendearen hirugarren laurdenean.

Hala eta guztiz ere, laborantzako langile guztiei legokiekeen egoera komuna zehaztea, hirietako langileez hitz egiten genuenean bezain zaila gertatzen da. Are gehiago, herrien arabera, nekazaritzako langileen egoerak desberdinak ziren zuzenbidearen alorrean bertan ere. Europako sortaldean, laborarien joputzak –feudoaren garaietara itzultzen gaituen egoera hain zuzen–, XIX. mendea ongi aurreratu arte iraun zuen. Errusian, laborarien legezko emantzipazioa 1861ean gertatu zen, eta Prusian 1808-1850 bitartean. Emantzipazioa, ordea, ez da independentziaren sinonimo; aitzitik, nekazaria lurretik bota edo haren jaunekiko mendetasun berrian ezarri zuten. Maizter edo arduradun baten mende zegoen nekazaritzako langileak lurrari lotua jarraitu zuen, bere lana kobratuz, askotan gauzen edo mantenuaren truke, eta gora egitea bideratuko zion gutxieneko ondasun higiezin jabetzarik bere esku ez zuela.

Europako hegoaldeko eskualdeetako nekazarien egoera ez zen oso desberdina, nahiz eta hemen legezko emantzipazioaren arazorik ez izan. Hegoaldeko nekazariak lurrik gabeko soldatako langileak ziren, gaizki ordainduak, produkzio urrikoak eta gutxi edo batere teknifikatu eta modernizatu gabe zegoen nekazari-tza bati zegozkionak. Europako ekialdeko herrialdeetan bezala, lurrik gabeko nekazari masa handien ondoan, lur sail handien jabe zen multzo txiki bat zegoen.

Errealitate horren aurrean, baziren jabetza beren esku zuten nekazariak, laborantza aurreratuko herrialdeetan (Herri Beheretan, Danimarkan...) edo Frantzia, non 1789ko Iraultzaren ondorioz nekazariak lurraldeak beren esku hartu ahal izan zituzten eta, XIX. mendearen amaieran, ustialekuen hiru laurdenak eta lurraren erdia baino gehiago ustiatze zuzenekoak ziren. Dena den, frantses nekazari horien egoera, konparazioz, ona izanik ere, beren lurretako batzuk errentan jarri edo beren lana saldu beharrean aurkitu ziren familiaren aurrekontuak berdinduko bazituzten.

Britainia Handian lehenengo industrializazioak errotik murriztu zuen laborantza langileen kopurua, baina 1851n langile gehien zuen lanbide edo zeregina zen oraino. Gainera, herrialde horretan azaldu zen lehenengoz lur langilea, bere

iharduerak ematen zion soldata soilaren jabe zena. Aitzitik, eremuak hesitzeak (*enclosures*) lurjabeen (*landlords*) jarrera indartu zuen; horiek beren lurrak bitartekariei edo negoziatzaileei utzirik maizter errejimenean ustiatzen zituzten.

Esklabotasuna, azkenik, –ez ahaztu !–, Estatu Batuetako, Kubako edo Brasilgo nekazarien parte handi baten egoera zen oraindik XIX. mendeko bigarren erdiko lehenengo urteak arte.

Bizi aukera anitz horien aurrean, orokorrak litezkeen baldintzak aipatzea ez da egoki-egokia ere. Funtsean, Europako hegoaldeko lurrairen soldatako langile batez mintzatuko gara, bestelako egoerak ere aipatu bederen aipatuko ditugun arren.

## 2. Urtaroetako arazoa, lanegunak eta soldata

### 2.1. Lanegunak: urtaroetako arazoa

Jabea ez zen laborariarentzat, urtaroen arabera lana arazo latza zen, eta segurtasunik gabeko egoera zekarrena. 1909an, Gómez de la Serna idazle espainiarrak lanaren mentura deskribatzen zuen Córdoba Hinojosa del Duque herrian:

Urtarrilean lurra lantzen dihardute, hamarren bat egun hilabetea; otsailean, hamabost egun; martxoan, hogeit hamar egun, gari joraketan eta garbantzu eraitzen; apirilean, hamabost; maiatzean, hogeita bost; ekainean eta uztailan, destajuan ia beti; abuztuan eta irailean, ia lanik ez dute; urrian langile banaka batzuk kontratatzen dira ezkurra botatzeko, gehienek meatzeetara emigratu behar dutela; azaroan eta abenduan, ereintza.

Ordainketa aldakorra da, hilabetea zein den eta lan eskaeraren eta bolumenaren arabera. Urte amaieran, soldatako langileak eta familiak, haurrek emakumeek ere familiaren presupostuan laguntzen baitute, gutxieneko gastuetatik oso urruti diren zenbatekoak lortzen dituzte. Egoera horretan, beste zereginetan aritu behar, horrelakoak izatekotan, edo karitateari heldu egin behar zaio, noizean behin suertatzen den egun beteko lana egitearekin batera. Egoera honek kontratatzailearekiko sortzen duen mendetasuna erabatekoa da, eta lanen bat noiz lortuko lanik gabeko langilez beteriko herriko plazaren argazkiak izango dituen ondorio soziopolitikoak aurrerago aztertuko ditugu.

Halaber, lanaldiak aldakorrak dira guztiz, laborantzaren tradiziozko egutegiaren arabera. Puntu honetan bat datoz lurjabe txikiak eta lurrik gabeko soldatakoak. Lana ugari dagoen garaian “eguzkitik eguzkira” esamoldea errealitatean gauzatzen da. Beste zenbaitetan, ordea, lana arinagoa da, “zigarrotarako atsedendia” ugarirekin. Beste egoera batean, segalariak eginahalean arituko ziren zeregin horrek irauten zuen bitartean.

## 2.2. Soldata

Emakumearen eta haurren lana askoz gutxiago ordaindua izateak bereizten bazuen gizonezkoek egiten zutenetik, antzeko zerbait gertatzen zen nekazaritzako lanarekin: beste edozein baino gutxiago ordaintzen zen beti, agian gizarteak balio gutxikotzat hartzen zituen zeregin kualifikatu gabeko zenbaiten salbuespenarekin. Bestalde, nekazaritza lanetan *truck system* delakoaren mota batzuek irautea lan sektore horren beste ezaugarri bat da eta horrek ere alokairu nominalaren eros ahalmen erreala apalarazi egin zuen. Nekazarien lana mantenuaren truke ordain zitekeen, eta hori zen laborantzako zerbitzari deituen ohizko egoera, baina ez haien artekoa bakarrik. Berebat, beso langileen artean, baita urtarokotan ere, ordainketaren erdia janari aterpeak osatzen zuen. Azkenik, kontratazioa aldi desberdinetarako egin zitekeen. Egunerako edo asterako hitzezko kontratua ohizkoa zen, zeregin zehatz bat egiteko hitzarmena (langile ibiltarien sega lana, esaterako) edo, beste muturrean, eta zerbitzari klasikoarengandik hurbilago, urtebeterako kontratazioa diru kopuru urriaren ordainez, normalean, mantenuaz eta aterpeaz justifikatzen zena. Azken kasu hau ohizkoa zen haurren artean, askotan gurasoek jasotzen zuten ordainketaren eranskin gisa kontratatzen baitziren

## 3. Bizi baldintzak, kontsumoa eta etxebizitza

### 3.1. Kontsumoa

Nekazaritzako langilearen dieta, hiriko langilearen kasuan bezalatsu, ogiaren edo ogi egiteko laborearen mende zegoen hein handi batean, familiaren elikadura gastuetako bi herenak ere hartzen zituela. Soldaten mailak haren kalitatea markatzen zuen (ogi zuria, ogi beltza) edo ogi egiteko beste laboreen kontsumoa (oloa, garagarra) edota ordezeko produktuena (patata).

Gorabehera handiz, herrien eta lurraldeen arabera, barazkiak eta eltzekariak noizean behingo okelarekin aldizkatzen ziren; azken produktu hau, XIX. mendean erdialdean zabaldua izan arren, Ingalaterran familien heren batek besterik ez zuen jaten halako maiztasunez. Espainiako hegoaldeko soldatako langileen bizi baldintzei buruzko txostenetan, okela ez da inoiz aipatzen dietaren osagai gisa, baina bai ogi kopuru handiak, –irin txarrez eginak–, kalitate eskaseko olioak (beren aldetik, beso langile ingelesek gurin aski kontsumitzen zuten), ozipina, gatza eta berakatza (gazpatxo prestatzeko), baita egoskari lehorrak eta fruituak, kalitate txarrekoak hauek ere. Aziendak edo etxabereren batek (oiloak, esaterako) sektore horien iraupena ziurtatzen ahal zuen. Kasu hori arras zabaldua dago Espainiako ipar goi-ordokiko “lurjabe oso pobreen” artean. Bestalde, hegoaldeko soldatakoek beren dieta osatzearen, izkutuko ehiza arriskutsuari ekiten zio-

ten, edota basa produktuak biltzen zituzten, hala nola, basa esparragoa edo astakardua (karduaren antzeko belar landarea).

### 3.2. Bizilekua

Andaluziako laborariari buruzko narrazio dramatikoek azaltzen dute nola, lanean hamabost edo hamasei ordu eman ondoren, *gañanía* izeneko txabolara itzultzen zen. *Gañanía* hau argirik gabeko, horma iluneko eta “gorotz ikatza” (behi gorotz lehorra) erretzearen ondorioz kirats usaina zerion bizitegi kaskarra zen. Oheak zementuzkoak edo lurrezkoak ziren, eta haien gainean lastaira jartzen zen. Neguan laborariak bere burua babestu ahal izateko landara eramaten zuen manta bera erabili ohi zuen bertan. Udak gozatu egiten zuen eskasia hura, klima onak gauez kanpoan gari balen gainean atsedean hartzeko aukera ematen baitzuen.

Ingalaterra batean ere, adibidez, egoera ez zen oso desberdina, garaiko idazkietan laborantzako langileriaren bizitegiei ematen zitzaien izena kontuan hartzera: “zerritegiak”, “txosna lohiak”, “etxekondoak”, “txabolak”. *Cottage* hitzak gehiegi berdintzen ditu laborarien etxebizitza egoerak. *Cottage Improvement Society* delakoa osatzen zuten lurjabe humanitarioen ondo eraikitako *cottage* haien ondoan, gela nagusia eta logela ongi hornituak zituzten haien ondoan, britainiar laborari gehienek lurrezko eta lastozko bizitegi ziren *cottage*-ak zeuden, hezeak, gisa guztietako bizkarroiak eta eritasun mota guztiak biltzeko egoki zirenak.

## 4. Hezkuntza, balioak eta sinesteak

### 4.1. Eskolatzeta

Alfabetizazioa funtsean hirietako eskakizuna zen, eta hartarako gastu soziala hirietan baino ez zen biltzen. Ez da harritzekoa, beraz, laborariek ari garelarik alfabetatze orokorraren zifrak nabarmenkiro apalagoak izatea. Batez-beste, portzentaia onenak frantses nekazariei dagozkie beti ere, 1876an %80k irakurtzen eta idazten baitzekien (%67, emakumeen artean). Holandarrak (%84) eta belgiarrak (%65) ez zebiltzan oso urrun. Aitzitik, Mediterraneo arroko herrialdeetan analfabetismoaren batez-besteak %75 eta %89 ziren, gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat hurrenez hurren. Italiako hegoaldean, laborantza eremuetako biztanleriaren %90 inguru ez zegoen alfabetatua, eta are iparraldeko Lombardia eta Piamonte lurralde aurreratuetan kopurua ia %60ra iristen zen. Dalmazian, soldaduen %99 ziren analfabetoak.

Nekazaritza inguruetan, irakurketaren praktikaren hedapenak ia erabateko baliabide gabezia jasan zuen. Prentsa sozialistak edo anarkistak aparteko *ikasi* baten beharra izaten zuen argi ulertu ahal izateko. Honek paperean agertzen zena



irakurtzen zien entzule arretatsuei. Ahozko literatura, propagandarako txangoak, buruz aise hartzen ziren narrazio moralizatzaileak edota kantak, laborantza giroko zabalkunde iraultzailearen oinarritzko armak izan ziren. Malatestaren *Laborarien artean* elkarrizketa, edo herririk herri Andaluzia guztian barrena zebilen Sánchez Rosa bezalako pertsonaiak, esaten ari garenaren adibideak izan daitezke.

Gehienbat lurrik gabeko soldatako pobreek osaturiko herriek nekez har zezaketan beren gain eskola baten gastua. Gainera, eskolak baziren ere, gurasoek nekazaritza lanetara bidaltzen zituzten haurrak hartarako adinean ziren bezain laster. Ezjakintasunak bere burua erreproduzitzen du, pobreziak bezala, eta, giro horretan, emakumeek Ingalaterra edo Estatu Batuak bezalako herrialdeetan balio eta praktika “errespetagarriak” transmititzen konprometitu ziren. Eta horietako bat zen irakurketa.

#### 4.2. Balioak eta sinesteak

Alfabetatze mugatuak, halaber, nekazaritza eremuan hiri balioek izan zuten sarbide zaila adierazten du. Komunikabideei esker, burdinbidetik egunkariraino, distantziak hurbilduz joan baziren ere, mundua iristerrazago eginez, laborantza herriak “modernitatea” deitu izan denaren alboan geratu ziren. Erlijiozko erri-tuen iraupena hiriko langilearen ohitura laiketuen aurrez aurre jartzen zen. Estatu-tuko hizkuntza –askotan bigarrena nekazariarentzat– zenbait hamarraldiren ondoren baizik ez zen hedatu eta, zenbaitetan, hedapen hura obratu izanak ere ez zuen bertako hizkuntzaren suntsitzea ekarri, baizik eta espazio pribatura “atzeratzea”, etxera eta familiartera.

Laborariek erakundeei buruzko ezagutza eskasa zuten. Haien “nazionalizazioa” ere, herrialde batekin identifikatzearen bidez gauzatua, oso berandukoa da. Hobsbawm-ek Polesiako nekazari batzuk protagonista izan zituen pasadizo baten aipamena egiten du; funtzionari polako batzuek nekazari haiei beren nazionalitateaz galdetu zietenean, 1931n!, ez jakinez, modu honetara erantzun zuten: “Ingurukoak gara” edo “Lurralde honetakoak gara”.

Ildo beretik, nekazariak beren herriko edo eskualdeko egoera zehatzaren analista finak izan ziren, baina, oro har, ez ziren higikunde sozial edo politiko zabalagoetan edo nazionaletan sartu, halakoak haien inguruetik, eskemetatik, bizitza eta lan gorabeheretatik urrun baitziren. Nekazari sutsua justizia lortzearen borroka batera bil zitekeen, baina, erea berean, bertan behera utz zezakeen probeta uzta biltzeko denboran, horren baitan ikusten baitzuen ondoko negua.

Politizazio falta hori, edo ekintza politikoaren konplexutasunekiko urruntze hori, laborarien artean oso ideia sinpleak, alternatibarik eraiki gabe ezinegon soziala bideratzeko gauza ziren ideiak, aurrera irten izanaren arrazoiak dira.

Hobsbawm-ek zioen hartara –”seguruenik nekazaritza politika, ezeren aurretik, lurjabe aberatsena da”– iritsi gabe, onartu egin daiteke askotan nekazariak gaineraoek baino jarrera kontserbazaleagoak hartu zituztela, bai eta, muturrera eramanez, oso higikunde erreakzionarioen gizarte oinarria izan zirela (Frantziako La Vendée delakoa edo Espainiako karlismoa kasurako).

Jaunen esku zegoen kontrola, joputza sistemaren ezaugarriak zituena, arrazoi ekonomiko zuzenik edo zeharkakorik ez izan arren, zenbait hamarraldiz luzatu zen, halako moldez non Ingalaterrako hirietan protesta higikunde garrantzitsuak eta are iraultzak ere gertatzen ziren bitartean, landetako nekazaritza aristokraziak 1832ko hauteskunde erreformaren ondoren udaletako administrazioa kontrolatzen zuen oraindik; orobat Frantziari, Elizarekin batera, beren eskuetan gorde zuten udaletako administrazioa, politika nazionalaren zuzendaritza erabat galdu eta askoz geroago ere. Lurraldeko aristokraziak nekazarien gainean erakutsi zuen nagusigoak ez zuen etenik izan Mediterraneoko ertzetako herrialdeetan XX. mendea aski aurreratu arte.

Desberdin samarra zen muga aldeetako egoera, Estatu Batuetako Mendebalean adibidez, non kolonoak askoz ere berdintasun handiagoko egoeran bizi baitziren. Hala eta guztiz ere, mendekotasun erlazioa, kasu honetan, konpainia handietara pasa zen, bereziki burdinbideetara eta Mendebaleko monopolioetara eta bankuetara, horiek prezioen bat-bateko aldaketen bidez nekazaritzaren ekonomia desorekatzeko gai baitziren. Oso komertzializatua zen laborantzak mendekotasun hori pairatzen zuen, eta haren aurkako protesta mugimenduak izan ziren kolonoen aldetik, hala nola 1870 eta 1877 bitartean izandakoak, *grangers* direlakoan protagonismoa izan zutenak, 1880tik aurrera “kolonoen elkarteak” eraginak, edo 1890etik Herriaren Alderdia izeneko talde populistak burutu zuena.

Herri tradizioek edo folkloreak bizirik iraun zuten landa eskualdeetan, “komunitatearen” kontzeptuak bizirik iraun zuen bitartean, hirietan nagusitasuna zuen “elkarteen” aurrean. Hala eta guztiz ere, hirietako barreiaduraren aldean, nekazaritza ingurunean haustura txikiagoa gertatu bazen ere, egoera ezin idealiza daiteke. Paternalismoa, esaterako, klase bakar batek osaturiko gizartearen irudipenezko proiektioztat hartua eta nagusi errealean eta mendeko gaixoen elkarrekin begirunearen gainean eraikia, ez zen inola ere gehienetan gertatu. Nagusi askok bortxaren bidea erabili behar izan zuten hauteskundeak irabazteko, eta maiz zamabereek ordaindu behar izan zuten nekazarien jaunenganako eta zaindarienganako haserre. Izan ere, independentzia, lur sailak eta, hein handi batean, beren bizimodu tradizionala ere galduak baitzituzten nekazari haiek.

## 3. Gaia

# Kapitalaren jabeak

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. GIZARTE IREKI BATEN BALIO BERRIAK
3. KLASE BURGESAREN MOLDATZEA
4. BURGES MODURA BIZI

### Kontsultarako liburuak

- Ariès, Ph., Duby, G. (zuz.), *Historia de la vida privada*, Madril, Taurus, 1991, 7. eta 8. lib.
- Hobsbawm, E. J., *Las revoluciones burguesas*, Bartzelona, Labor-Guadrarama, 1981 (8. arg.).
- Sombart, W., *El burgúés. Contribución a la historia espiritual del hombre económico moderno*, Madril, Alianza, 1986 (4. arg.).
- Villacorta, F., «Las sociedades de la revolución industrial», *Gran Historia Universal*, Madril, Nájera-Club Internacional del Libro, 1990, IX. lib., 213-25 orr.



## 1. Sarrera

“Burgesia” ez da, inondik ere, hitz berri bat; Erdi Aro urrunean erroturik ageri zaigu *burgo*-etako biztanlea, hau da, hirietakoa adierazteko. Erdi Aroaren amaierarako burgesia bat bereiz daiteke, kapitalaren jabea esanahiarekin, Mediterraneoko (Venezia, Genua, Bartzelona) edo Ipar itsasoko (Brujas, Gante...) merkataritza handien artean. Burgesia hori, alabaina, merkantilismoaren mendeetan, XVI.etik XVII.era, hazi eta garatu zen eta XVIII.lean oraino hasi berria zen produkzio mekanikoaren prozesuen buru izateko gai izan zen. Hain zuzen ere, mende horren bukaeran, Frantziako Iraultzan, burgesiak behin-betiko esanahi politikoa hartuko zuen: langileriaren eta nobleziaren artean dagoen gizarte klasa.

Burgesiaren kontzeptua, alabaina, kapitalismoarenari zuzen-zuzenean loturik dago. Burgesiak, kategoria historiko gisa, kapitalismoaren momentuan du bere aldia. Produkzio bide gehien jabe den eta ondasunen trukea zein merkataritza trafikoa kontrolatzen duen klasea da burgesia. Are gehiago, burgesiak une jakin batean zenbait ezaugarri berezi zituen taldetzat hartu zuen bere burua, aginpide feudalek menderatzen zuten gizarte sistemaren aurrez aurre zegoena. Hor dugu XIX. mendeko iraultza burgesen ernamuina; haiek bideratutako esparru politikoan garatu zen klase burgesaren hegemonia.

## 2. Gizarte ireki baten balio berriak

Werner Sombart-ek (1863-1941), “izpiritu burgesaren” aztertzaile nagusietako horrek, liburu famatu bat idatzi zuen gai honi buruz (*Burgesa, 1913*); autore horrek XIV. mendean Florentzian aurkitu nahi izan zituen halako ezaugarriez hornituriko lehen subjektuak. Hala eta guztiz ere, XVII. edo XVIII. mendeetara arte, florentziar artilegile eta trukegile haien “bizi muina” ez zen “izpiritu” gisa azaldu, hau da, burges modernoaren arketipoa defini dezakeen balio sistema gisa, Sombart-ek delako arketipoa Benjamin Franklin-en baitan mamitua ikusten baitzuen.

“Lorategian ere ezin da etekin materialik atera ez dakioken lorarik landatu (...) Edeneko lorategiaren ederrak eraman zuen Adan galbidera, eta harekin batera gu guztiok”. Horrek baino hobeto esaldi gutxik islatzen dute etekinaren moralaren muina, mendetan zehar pentsamendu burgesaren ezaugarri izan dena. Gizartearen sektore horrek pentsatzeko modu berri oso bat, balio sistema berri oso bat beretu zuen. Ikuspegi ekonomikoa denetara iritsi zen, halako moldez non pentsamendua eta obra oinarrizko bi arauen zerbitzutan jarri ziren: errazionalizazio ekonomikoa eta administrazioaren ekonomizazioa. Sombart-ek moral berri

hori laburbiltzeko erabilitako bi termino horiek zera adierazi nahi dute: alde batetik, sarreraren eta gastuen artean erlazio zuhurra ezartzea, edo hobeto esan, sarreraren ekonomia bat definitu (nobleziaren jokabideak ezaugarri izan zuen gastuen ekonomia haren ordeztu); eta bestalde, irabazten dena baino gehiago ez gastatzea, hau da, borondatezko aurrezkiaren ideia zabaltzea.

Premisa horietatik abiatu, izpiritu burgesak gastua planifikatzeko eta justifikatzeko beharra azaltzen duen, bai eta jokabide ekonomikoetan jadanik egiten ari zenaren euskarri izan behar duen jokabide moralari ekiteko premia ere. *Burges modura gastatzea*, beraz, zera da, halako gastuak egitea non horrela ez obratzeraz familiaren omena eta izen ona galduan irtengo liratekeen (etxebizitza, landetxe eta ustialekuko gastuak); ezinbestekoa ez izanik ere, neurriko atsegina ematen duten gauzetan gastatzea (liburuak, etxeko apaingarriak...); eta alferrikako eta harrokeriazko gauzetan ez gastatzea, horiek azkenean norberaren ekonomia zamatuta egiten dutelako (esaterako, neskame-morroitan gehiegi gastatzea).

Bestalde, *burges modura jokatzeko*, gorputzaz, arimaz eta denboraz ahalik eta gehien eta erarik zentzuzkoenaz baliatzea da. Horrek ez gaitu moral hedonistara eramaten, arras bestelakora baizik. Lehenengo araua nagikeria saihestea da, denbora erabiltzea (dirua baita, Franklin-ek zioenez). Denbora, alabaina, errendimendu eta etekinik handiena bilatzeko erabili behar da, modu planifikatuan, errazionalen. Florentziako beste burges batek zioenez, jaiki aurretik eguneroko iharduera plana egiten duen eta arratsean egunean zehar egindakoa buruz aztertzen duen lo egin aurretik (ahalik eta denbora gutxiena, noski). Arreta eta ardura negoziotan eta eguneko minutu guztietan: horra izpiritu horren arau moralak. Muturrean, Franklin “asmatzaileak” burgesari komeni zitzaizkion bertuteen zerrenda egin duen eta, bata bestearen ondotik, obratzen jarri zen, hartarako koarderno egunkari bat zeramala, bertan jarritako arretaren mailari buruzko oharrak jasotzeko. Errazionalitatea mutur-muturreraino eramana etekinaren zerbitzutan.

Gainera, *portaera* burges hori ez zen helburu ekonomiko soilean amaitzen. Portaeraren beste alderdi bat “zintzotasunari”, “zuzen bizitzeari” dagokio, hala-ko moldez non burgesak begirune eta ospe handiagoa bilduko duen eta horrek eragin positiboa izango duen negozioan bertan (ikus daitekeenez, hemen asmo ekonomikoa zeharkakoa da). Honenbestez, burgesak bizio guztiei ihes egin behar die eta publikoan gisako jendearekin baizik ez da agertu behar; ez da mozkorra, andrezalea edo jokalaria izango; meztara eta sermoietara joango da, e.a. Laburbilduz, eta Franklin-engana itzuliz, burgesak zuzen izateaz baino areago hala azaltzeaz, *halakotzat hartua* izateaz arduratu beharko du.

Geroago ukituko dugu berriro *burges modura bizitzea* gaia. Orain burgesiak bere eragina eta gizarte hegemonia hedatzeko erabili zituen ideietan geratzea

interesatzen zaigu. Ideia eta balio horiek, azken finean, jokabidearen erreferentzia berriak moldatu baitzuten. Zein premisaren gainean eraiki zen ideologia nagusi berria, hau da, burgesiak berehalako etorkizunean aginpide politiko eta soziala eskuratzea eta kapitalismoaren garapenaren osaera bideratu zuen balio sistema berria?

Agian, erradikalismo filosofiko ingelesa da eraikuntza hori hobekien islatzen duena. Erradikalismo filosofikoa funtsean hiru ideologiak moldatua da: Malthusen biztanleriari buruzko teoriak, Bentham-en utilitarismoak eta ekonomia politiko klasikoaren doktrinak (Ricardo). Hiru doktrina horien oinarria erantzukizun indibiduala da; horren arabera, aberats edo pobre izateko arrazoia norberaren egintza soilen baitan dago, gizarteak ez baitzuen miseria desagerrarazteko behar ziren bitartekoak jartzeko inolako obligaziorik. Indibidualismo sozial hori bat zetorren guztiz Bentham-ek aldeztu zuen utilitarismo norberekoiarekin, autore honentzat aberastasuna sortzearen oinarria subjektuak mozkina bilatzeko duen joera partikular eta berekoa baita.

Horrenbestez, halako abiapuntuetatik, gizartearen babesari dagokionez, gobernuaren erantzukizunik eza ateratzen zen ondorioz, hots, Zuzenbide Naturalen oinarrituz nola edo hala pentsamendu tradizionalak esaten zuena. Aitzitik, gobernuak alde batera egon behar zuen eta soilki herritar bakoitzak, ahalik eta modurik libreenean, bere interesak bilatzeko eta garatzeko baldintzak ziurtatu behar zituen. Estatuak ez zuen inolako oreka edo armonia berriro ezarri beharrik, zeren ekonomiak, bere printzipioen arabera, naturaren legeen arabera funtzionatzen baitzuen. Horregatik, ekonomia horren emaitza soziala (aberastasunaren banaketa desberdina, adibidez) bidezkoa zen; Estatuak ez zuen ekonomiaren mekanismoetan sartu behar, eta subjektu bakoitzak etekin indibiduala lortu nahi hori lagungarri zen, hartaz ohartu edo ez, gizarteak bere esku zuen aberastasunaren gehitzean.

Erradikalismo filosofikoaren barne den *laissez faire* hori indartu egin zen sekta ez konformistek ekarritako erlijiozko balioekin. Arrakasta materiala, horien arabera, izaera jainkozalearen froga eta ohitura zintzoen aplikazioa zen. *Self-made man* delakoa, “bere burua moldatu duen gizona”, zerurako bidean zegoen, eta lan materiala, merkataritza eta autodisziplina salbazio horretarako prestatzen zuten bertuteak ziren. Orogen buru, zerua lurrean irabazten zen eta arrakasta pertsonala eta materiala, kristaua bide onetik zebilelako seinalerik onena zen.

Frantses liberalismoak bestelako tonua izan bazuen ere, politikoagoa eta Iraultzaren gorabeherek markatuagoa, ekonomia eta gizarte alderdiei dagokienez ez zen goian esandakoaren aurkako azaltzen. Giza Eskubideen Aitorpenak berak

(1789ko abuztuaren 26a), lehenengo artikuluan herritarren berdintasuna aldarrikatzen zuen, baina berehala onartzen zuen “amankomuneko onura” edo gaitasun individuala, geroago esango zen bezala, zilegizko “gizarte bereizketak” sortzeko bide izatea. Jabetza bigarren artikuluan agertzen da (askatasunarekin batera, baina ez berdintasunarekin), gizakiaren berezko eta ezin galduzko eskubide gisa, eta haren defentsaz elkarte politiko guztiek, eta Estatuak lehenik, arduratu beharra dute.

Gizarte berriaren balio berriak, hots, burgesiari zegozkionak, aurrerapenaren kontzeptio linealaren, mugarik gabekoaren eta optimistaren inguruan kokatu ziren. Gizartea, giza gaitasunen ihardunbide librea oztopatzen zuten hesi tradizional guztiak erorita, gizarte ireki gisa azaltzen zen, abagunez, erabakitasunez, ekimenez, ausardiaz, irudimenez eta senez aritzeko gai zirenen arrakastarako gertu.

### 3. Klase burgesaren moldatzea

Britainia Handian eskema kapitalistaren araberako makinizazio sistemati-koari eta industrializazioari ekin zien lehenengo sektorea kotoi industria izan zen. Industria haren ezaugarriak zirela eta, zenbait gaitasun praktikan jarri eta hedatu egin ziren. Kotoi industriak instalazio/inbertsio gastu gutxi behar zuen eta, hala ere, oso irabazi tasa handiak sortzen zituen. Gainera, denbora batez, ingeles kreditu sistemak kapitalerako sarbidea erraztu zien askoren jabe ez ziren sektoreei. Hobsbawm-ek Robert Owen sozialista eta industria gizonaren adibidea ematen du:

1789an, Robert Owen bezalako ohialgile laguntzaile bat, mailegatutako 100 liberekin Manchester-en has zitekeen eta 1809an New Lanark Mills enpresako bazkideen zatia bere egin zezakeen eskura emandako 84.000 liberen truke. Eta pasadizo hau aski xumea da negozio handien historian. Ohartu beharra dago, 1800 inguruan, britainiar familien ehuneko 15 baino gutxiagok zuela 50 libera baino gehiagoko errenta urtean, eta haietatik laurden batek soilki gainditzen zuen 200 liberako kopurua urteko.

Nekazaritza lurraz uztera behartutako artisauek, dendariak edo laborariak, lehengo merkatari-fabrikante zenbaitekin batera, lehen enpresarien belaunaldia osatu zuten Ingalaterra bezalako herrialde batean, baina baita Frantziako, Suitzako edo Belgikako kotoiaren inguruan ere. Berritasunen aurrean, lehengo nagusien klasea erabat uzkur, eta are aurkako ere, agertu zen. Industrializazioaren bigarren aldiaren ere, burdinari dagokionean (1830 inguruan), enpresarietako batzuk laborarien eta artisaunen artean irtetzen ziren oraino. Hala eta guztiz ere, oihalgintza bezalako kontsumo zuzeneko ondasunetatik produkzio ondasunen enpresara iragatean, egitura konplexuagoak behar izan ziren, eta kapitalen kon-



tzentrazio handiagoa makinerian, lan eskuaren kontratazioan eta instalazioetan. Meatokietako jabeak, burdin merkatariak eta iharduera horrekin tradizioz zerikusia zuten elementuak –eta lotura egin zutenak– prozesu horretan murgildurik aurkitzen ziren jadanik. Azkenik, Alemaniaren kasuan esaterako, agente inbertsiogile eta industrializatzaile gisa Estatuak duen presentzia kontuan hartu beharrekoa da.

Inbertsioaren kostua gehituz joan ahala, mugikortasun soziala murriztu egin zen eta ugazaba bilakatzeko gai ziren artisaunen edo langileen kopurua erabat urritu zen, edo kapital gutxi behar zuten sektoreetara mugatu zen (eraikuntzaren azpisektoreak, esaterako). Hala berean, lehen momentuan industriaren berrikuntzan eta inbertsioan esku hartu ez zuten taldeak finantza egitura konplexu zenbaitetan sartu ziren beren kapitalak ekarriz, delako egitura horiek gero eta gehiago industrian parte hartzen zutelarik. Garai hartan agertu zen, halaber, espekulazioan eta zerbitzuen, enpresen edo zor publikoaren salerosketan trebe zen kapitalista mota.

Azken finean, goi burgesia, negozioetako burgesia, eskala handiko merkataritzan, maila bateko lantegietan eta banka negozioan ari zena, sektore berezi gisa eratu zen, bere ezaugarri berekiak zituela eta gainerako elementu burgesetatik aparte; bigarren hauek, edo lehenengoan azpitik zeuden (merkataritza eta lantegi txikietakoak), edo ahalmen handikoak izanik ere bestelako ezaugarriak zituzten (profesionalak, errentadunak...).

Horregatik, klase burges horren barneko desberdintasuna azpimarratu eta bereizi beharra dago. Gauza bat da balio burgesen sistema talde orokorrera zabaldua izatea, edota “burges moduan bizitzea” deitu duguna, eskala desberdinetan bada ere, arau kolektibo bat izatea, eta beste bat, guztiz bestelakoa, burgesia guztia bat eta bera izatea. Zenbaitetan, lau talde berezi dira eta horrek barne ezberdintasun horiek antzemateko balio dezake. Horrenbestez, honako lau taldeok izango genituzke:

- errentadunak, lurren eta zor publikoaren jabeak,
- negozioetako burgesia, dela finantzariak dela merkataritza edo lantegi handiei dagokiena,
- profesionalek osatutako sektorea, teknikoak eta administrazio edo gudarosteko goi karguak,
- burgesia txikia, dendariak, tailerraren jabe diren artisauek eta “erdi mailako klasea” osatzen duten guztiak, hau da, ez kapitalista eta ez langile direnak.

Horien guztien nortasun ezaugarria, eta bereizgarria, aberastasuna zen. Faktore horrek erabakitzen zuen, esaterako, nor haulta zezakeen edo nor hautatua izan

zitekeen herri borondatearen ordezkari. Aberastasuna, piramide sozial berriaren egituratzaile nagusia zen, autoritate printzipioarekin batera. 1889an, Fernández Villaverde ministroak, boza emateko eskubide unibertsalaz ari zela, honela zioen:

Guztien boto berdina, jendetza ezjakinaren erreinaldia da edo izango da. Kopuru basatiak seme-alabak gurasoen gainetik jartzen ditu, langileak ugazabaren gainetik, gazteak zaharren gainetik, pobreak aberatsen gainetik, ezjakinak jakintsuen gainetik.

Aberastasuna eta pobrezia, pribilejioan oinarritutako gizarte baten erreferentzia edo adierazpena izatera pasa ziren, gizarte tradizionalan gertatzen zen bezala. Ekonomia baliabideen kontzentrazioa eskandalagarria zen. 1880an, Ingalaterran, biztanleriaren %5ek nazio errentaren %48 beretzen zuen. Estatu Batuetako jabeen %1ek lur jabegoaren %30 zeukan. Espainian ere %1ek lurzoruaen %43 kontrolatzen zuen. Beste muturrean, estatubatuarren %57k ez zuen ondasun higiezinik batere, eta pobreek biztanleriaren herena osatzen zuten; hirietan bizi zirenen artean, proportzioa erdia izatera iristen zen. XX. mendearen hasieran hogeita hamar mila biztanle zituen Gasteiz bezalako hiri batean, bederatziehun familia edo, gauza bera dena, hiru eta lau mila gizaki bitartean, pobreen udal zentsuan sarturik zeuden.

Aberastasuna eta pribilejioa batera zihoazen. Aberatsek lehenengo momentuan botoa ez ezik aginpide politikoa ere monopolizatzen zuten. Ikuspegi horretatik, herrialdeen arabera, errealtatea desberdina zen. Lehen eta gehien industrializatu zirenetan, burgesiak baztertu egin zituen nobleen sektoreak politika nazionalaren kontrolatik eta, batez ere, XIX. mendearen hasieran kapitalismoaren garapenerako egokiak ziren mekanismo juridikoak ezarri zituen. Beste zenbait herrialdetan, hala nola Errusian, baina baita Austrian, Prusian eta neurri batean Espainian ere, burgesiak ez zuen aginpidea hain azkar eskuratu eta nobleen klase zaharrak Estatuko karguei eutsi zieten.

Dena den, burgesiari gagozkiola, gobernatzeko ahalmenak edo hartarako prest izateak baino garrantzi handiagoa du eragina izateko gaitasunak. Alde bateatik, burgesiak ideologia bat garatu zuen eta horrek klasearen beraren hegemonia markatzen zuen azkenerako. Burgesiaren balio sistema inposatu egin zen, ikusi dugunez, eta burgesia txikia zein langileak errealtatea ikusteko modu horrek kutsatu egin zituen: esaterako, lanaren estimazio berria, gizartean igotzeko gaitasuna, e.a. Azpiko klaseak gustu burgesak ere errepikatzen saiatu ziren, gastuak beren ahalbideetara egokituz. Baina bestaldetik, probintzietako hiri bakoitzean, eskualde bakoitzean kokatu ziren burgesiaren elkarteak –kasinoak, zirkuluak, lizeoak, e.a.– klase horretara egokitzeko eta beren artean egoteko barrutiak ez ezik, politika diseinatzeko edo negoziokoak proposatzeko eta burutzeko ere tokiak

ziren. Jabea, alkatea, maisua, apaiza, botikaria elkarrekin erakusten dizkigun irudiak, oraintsu arte hain ohizkoa izan den irudi horrek, ez zuen lehenengoaren borondatearekiko mendetasuna islatzen gainerakoan aldetik, baizik eta jabe horrek herriko agintariak eta “indar biziak” bere negozio pribatuetan inplikatzeko eta horien bidez bizitza kolektiboan eragina izateko zuen gaitasuna. Mendeko klaseek ez bezala, burgesiak ez zuen masa mugimendurik antolatzen, baina bai presio taldeak.

Aparteko aipamena merezi dute lanbide liberalek osatutako sektoreek, teknikoez eta funtzionarioek. Kasu honetan, ezagupena eta errealitate geroz eta teknifikatuagoan eta konplexuagoan sartzeko ahalmena zen horien “kapitala”, zerbitzu publiko gero eta zabalagoa zuen eta haziz zihoan Estatuaren baitan. Victoria erreginaren garaian, Ingalaterran, profesional liberal horietako %80ren errentak erdi mailako klase burgesen dirutzen artean aurkitzen zirenez, klase horretako azpisektoretzat hartu izan da. XIX. mendea abokatuena izan zen, XX.a zientzilariena eta ingeniariena izan den bezala. Lanbide liberalek ordezkartza politikoa-ren posturik gehienak zituzten beren esku Espainia bezalako herrialdeetan (diputatuen %73, 1907an).

Funtzionarioen kasua, agian, ez da horren orokorra. Egia da administrazio zibilaren eta militarren goi karguek burgesen errentak edo antzekoak jasotzen zituztela, bai eta gizarteratzeko tokietan (kasinoak, e.a.) haiekin biltzen zirela eta aginpide publikoa erabiltzerakoan antzeko gaitasuna erakusten zutela. Guztiarekin ere, gaurko Estatua eta garai haietakoa oso desberdina da, egungoa zerbitzu estatua ere bai baita. 1830 eta 1850 artean gastu publikoa %25 hazi zen Espainian, gutxienean, baina %40–50 artean Frantzia, Errusian eta Belgikan, eta %70 Austrian, %75 Estatu Batuetan eta %90 Holandan. Horrek Estatuaren enplegatuen gehikuntza nabarmena ekarri zuen; horietako gehienak gizartearen erdiko mailetatik bazetozen ere, guztiek ezin izan zuten hartan iraun eta, gizarte estatus apalago batera jaitsiz, proletarioen antzeko bilakatu ziren.

#### 4. Burges modura bizi

*Burges modura bizitzea* hala egoera bat nola estetika edo estilo bat zen (eta agian orain ere bada), eta modu hori gainerako klaseek eta gizarte taldeek –beren ahalbideen arabera– errepikatzen zuten. Nolanahi den ere, burgesiari dagokionez, bialdi berezi beharko dira gutxienez. Lehenengoan, aurreneko burgesak, hots, aberasteko bidean zen hark puritanismo moralaren aginduak betetzen zituen leialki, zuhurra zen gastuan, eta lurreko atseginetan neurrikoa. Behin aberastuz gero, xahuketa, arrandia eta hedonismoa izango dira bigarren aldiko burgesaren bizimoldearen ezaugarriak. Sombart-ek berak liburuaren azken solasean

aipatzen zuen “iturburura itzultze” hura, lehen etsaia zen aristokrata bilakatze hura: “burgesa aberastu ahala gizenduz eta sorgortuz doa, bere aberastasuna errenta moduan erabiltzen eta, aldi berean, handikien luxuzko bizitza egiten ohi-tzen da”.

Edonola ere, eta edozein garaitan, bizitza burgesa etxearen inguruan antolatu zen. Langileen artean ez bezala, gizarteratzeko molde burgesarren ingurune berezia zen etxea. Etxeak, altzariari eta etxeko tresneriari dagokienez, erabilgarria, eroso, dotorea eta luxuzkoa izan behar zuen. Etxea, gutxienez, hiru gauza zen. Lehenik, “gudariaren aterpea”, enpresari eragilea hartara itzultzen zen familiaren harreraren bila, prestutasunezko ohiturez gozatzeko, aisialdiak bertan ematen zituenek: irakurketa, musika eta neurrizko bizitza soziala (bilerak, ikustaldiak eta bisitariari harrera egitea). Bigarrenik, famili bizitza egituratzeko tokia zen etxea eta burgesarrentzat familia bere enpresaren luzapena zen. Etxeko semeek etorkizunean jabegoa egokiro kudeatu ahal izateko prestakuntza izan ohi zuten. Alabek, egunen batean beste familia batekin ezkontzeko prestatzen eta hezten (ohitura onak) zituzten eta, hartara, negozioaren jarraipena ez ezik ondarea zabaltzea ere ziurtatzeko modua egiten zen (“ondarea”, beste hitz magiko bat). Azkenik, etxea, eta hau lehenengo izpiritu burgesezik zetorren, familiaren erakusleihoa zen, enpresariaren bisita txartela. Zerbitzaria aberastasun eta aginpidearen sinboloa zen. De Marvaud kapitainaren familiak “12 pezeta t’erdiko” neskamea izan behar zuen, jan ezin bazuten ere, eta urteko errenta mila liberakoa zuen ingeles familia batek bost pertsona izan zezakeen eta izan behar zuen etxeko zerbitzuan. Gainera, eroso izateaz aparte, etxeak bertako biztanleen estatusa erakutsi behar zuen kanpo aldetik. Hasteko, auzo atsegin eta “mailako” batean kokatua izan behar zuen eta kanpoko arkitekturek ahalmena eta bikaintasuna azaldu behar zituen. Bestalde, noizean behin edo baita urtean egonaldi bat igarotzeko bigarren egoitza izateak, landetan berau, kanpoko aberastasun ezaugarriak areagotzen zituen.

Etxetik aparte, burgesa gizarte zirkulu hautatu baten barne kokatzen zen, berariaz gizarte multzo arruntetik at zegoena eta klub sozialek, kirol klubek, jolas zirkuluek eta antzekoek osatzen zutena. Elkarte horietako kide izateko gaitasuna, halakoetan ordaindu beharreko kopuruak ematen zuen. Are gehiago, horiek “masifikatu” egiten zirenean, hautaketa zorrotzagoa egin ohi zen edo bazkideak bereizteko mekanismo informalak ezartzen ziren (“bola beltza”, adibidez).

Burges izateak, berebat, zenbait erritu, portaera, moda eta gastu amankomunak izatea esan nahi zuen. Berezko jaun burgesa edo *gentleman* izateak, hiztegiak definitzen duen eran identifikatzea bideratzen duten formak zeramatzen bararekin: gizon adeitsua, dotorea, apaina, galai. Tipifikazio horretan nobleen

maila zaharrerako “atzerakadak” gertatu ziren: *gentleman* delakoa lanik ez egiteaz harro agertzen zen, ahalein gaisetarik gastatzen zuen eta haren “kirola” emakumeak konkistatzea zen .

Izan ere, bigarren belaunaldi burges horren bereizgarria “noble bihurtzeko”, edo hobeto esan, aristokrazia tradizionalaren berezko ohitura sozialak berritzeko joera orokorra izan zen. Bestalde, aristokrazia hori “burgestu” egin zen ekonomiarik dagokionez, bai negozioren eta bai berez burgesa den etekinaren moralaren alorrean. Hartara, formatan ez ezik, alderdi sozioekonomikoan batez ere, burgesiak eta aristokraziak gizarte multzo aski homogenea moldatu zuten azkenik. Negozioetan ziharduen burgesia noblezia tituluekin saritu zuten estatuek (400 pertsona erdietsi zuten estatus hori Isabel II.aren garaiko Espainian), titulu horiek zuzen-zuzen erosi ez zituztenean, aurreko mendeetan gertatu bezala. Bere aldetik, lurjabe noblezia eraikuntza negoziotan inbertitzera pasa zen, eta burgesia ekintzailea ere ondasun higiezinaren erakargarritasunak beretu zuen. Frantziar egindako ikerlanen arabera, XIX. mendearen erdialdean ondasun higiezinak burgesek testamentuz legaturiko aberastasunaren erdia hartzen zuten, eta ondasun higigarriek Parisko nobleek utzitako hereditazien %40. Batzuen eta bestearen arteko ezkontza politika –Lampedusak bere *Il Gatopardon* hain ongi islatu zuena, Tancredi, Don Fabrizio noble pobretuaren ilobaren eta don Calogero Sedara burges berri maltzuraren alabaren ezkontzaren bidez–, mugimendu bat gehiago izan zen familiaren ekonomiaren jokoan, eta klase nagusi berriaren bi taldeak hurbiltzeko eta elkartzeko balio izan zuen.

Operara joatea, zorizko jokoak bai emakumeentzat eta bai gizonezkoentzat, kirol egintzak, turismoa, e.a. sendotu egin ziren burgesaren berezko moda eta gastu moduan. Beste hainbeste gertatu zen taldeari zegokion jatzeko moduarekin edota arte joerekin.

*Burges modura* bizitzeak, berebat, langile klasearentzat deskribatu ditugun bizi baldintza guztiz bestelakoez gozatzea zekarren. Zalantzarik gabe, berriro esan dezagun, burgesiaz ari garelarik estratu zabalegiak dihardugu, haren barne bai plutokrata ezinago aberatsak bai burgesentzat hartzen den bizimodua nekez baizik ezin eraman zezaketen dendari xumeak sartzen baitira. Aurrekoa kontuan harturik, langile klaseaz esan dugunaren alderantzizkoa esanez, deskribaturik gera daiteke bizimodu burgesa. Hilkortasun handien aurrean hurbileko osasunbideak: higiezia edo txertoa, aire garbiagoa haien landetxeetan edo auzoetako kale zabalak. Analfabetismoaren aurrean, etxeko irakasleak, ikastetxe pribatuak, biblioteka partikularrak eta halako kultura bat “kapital” moduan hartzea. Urritasunaren aurrean, objektu eta saio zein baino zein alferragoetan agertzen den aberastasuna. Langileen hauslea zen emigratioaren aurrean, ahaltsuen turismoa edo balnearioa.



**LAUGARREN ATALA  
LAN INDARRAREN EGITURATZE  
PROZESUA: LANGILEEN  
ASOZIAZIONISMOA**





# 1. Gaia

## Langile erresistentzien hasiera

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. SINDIKATU IHARDUERAREN LEHEN FORMAK, MUTUALISMOA ETA LUDISMOA
3. LANGILEEN EKINTZA POLITIKOA: BURGESIAREKIN BATERA HASIERAN
4. EUROPAKO LANGILEEN ASOZIAZIONISMOA

### Kontsultarako liburuak

- Geary, D. (*bilt.*), *Movimientos obreros y socialistas en Europa, antes de 1914*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1992.
- Kocka, J., «Los artesanos, los trabajadores y el estado: hacia una historia social de los comienzos del movimiento obrero alemán», *Historia Social*, 12, 1992, 101-118. orr.
- Stewell, W. H., «Los artesanos, los obreros de las fábricas y la formación de la clase obrera francesa, 1789-1848», *Historia Social*, 12, 1992, 119-140. orr.
- Thompson, E. P., *La formación de la clase obrera en Inglaterra*, Bartzelona, Crítica, 1989, (2. arg.).



## 1. Sarrera

Ekonomia kapitalista arian-arian ezartzerakoan, langileriaren baldintza sozio-ekonomikoak eta aurreko harreman sozialak erabat aldatu ziren. Produkzio modu kapitalistaren sarrerarekin batera, arian-arian gizarte eta lege eremuak eta, ondorioz, politika ere ukitzen zituen iraultza gauzatu zen.

Liberalismo ekonomikoaren eta kapitalismoaren sarrerak herriaren bizitzan eragin zituen aldakuntzen aurreko erantzunen artean, antolakuntza eskaseko matxinatzeak, goseak eragindako matxinadak eta lehenengo lan gatazkak aurkitzen ziren. Herritar masek bereganatua zuten halako “ekonomia moralaren” ideia zen aurkako jarreraren oinarrietako bat, ekonomia iharduerak izan zitzakeen alorrak mugatzen zituena. Teoria hura “prezio zuzenaren” inguruko kristau tradizioan oinarritzen zen. Haren formulaziorik ohizkoenean, lehen premietako produktuen prezioak maila jakin bat ezin gainditu zuelako ideia zegoen. Hura ez betetzeak herritarren matxinatzeak ekarri zituen. Biolentziaren erabilera, espontaneitatea eta jazarle taldeen osaketa heterogeneoa izan ziren gogor egite haien bereizgarriak, bai eta igaro une haren isla ere, harik eta “merkatuaren logika” sendotu zen arte, lehenengo denboretako pentsamoldeak, “prezio zuzenarena” barne, atzera uzten zituela. Nolanahi ere, klasetan banaturiko gizartea arian-arian ezartzearekin batera, ondoriozko gatazkek klaseen arteko oposizioaren forma hartu zuten. Herriak bizi baldintzen hobekuntza eta arian-arian politikan iharduteko eskubide gero eta zabalagoak lortu nahi izanik, produkzio bideen jabeen eta aginpide politikoa zutenen aurka jo zuen, azken hauen artean burgesiak gero eta presentzia handiagoa zuelarik.

XIX. mendean herri eskaeren artikulazio bikoitza gertatu zen: alde batetik, gizarte artikulazioa, sindikatuen sorrerarekin burutu zena; bestetik, artikulazio politikoa, langile alderdi politikoen sorrera ekarri zuena. Bigarren artikulazio hau eskuarki beranduagokoa izan zen, baina ez beti; Espainiako kasuan, PSOE 1879an sortu zen, eta UGT 1888an. Zenbaitetan, bi eskabideok batera egin ziren, gizarte eremuaren erreibindikazioak eta soilki politikoak zirenak bat zetozenez. Nolanahi den ere, pisu handia izan zuten oraindik protesta forma tradizionalak eta ekintza forma berriak konbinatzen zituela agertu zen artikulazio bikoitz hori.

Lan indarra produkzio baldintza berrietara egokitzeko prozesua, masa sozial horren eraketa sozial eta politikoarekin osatu zen. Langileriak, bere burua eratu eta lan zein gizarte egoera berrietara egokituz zihoan bitartean, errealitate horren aurkako erresistentziak eta protestak sorrarazi zituen. Prozesuan zehar, erresistentzia horiek gai desberdinei erantzun zieten: makinaren aurkako eraso ludista, antolakuntza eskasekoa eta aldaketen alderdi negatiboak makinari egozten zizkiona; esperientziak biltzea eta ekintza politikoen garapena, burgesiarekin

eskutik oraino eta estamentuen eta nobleen mundu zaharraren aurkako gatazka-  
ren edo borrokaren barne; eta, azkenik, langileen antolakuntza autonomoa egitu-  
ratzea, sindikalismoa ekarriko zuena eta, orobat, langileen organizazio politikoak  
sorraraziko zituen, esperientzien eta frustrazioen pilaketaren adierazpide gisa.  
Neurri txikiko artisau produkzioetik industria produkziara iragateko une horretan,  
kontzientzia iraultzaileak eta herritarren protestak mailarik gorenera iritsi ziren.

Arazo horiek interes berezia dute guretzat, horien bilakaera historikoak mol-  
datu baitu laneko harremanen eta harreman horietan diren bi protagonista nagu-  
sien arteko gizarte harremanen errealitatea. Halaber, antolakuntza kapitalistaren  
proposamena murgildurik ibili den prozesua eta tentsioak adierazten dituztelako  
ere interesatzen zaizkigu. Lan harremanen arauketa edo Estatuak hartan burutu  
zuen interbentzioa, esate baterako, ez dira esplikatzen jabeek industrializazioa-  
ren lehen garaietan izan zuten erabateko nagusitasun egoera haren aurka antola-  
tutako erresistentziaren faktorea kontuan hartu gabe.

Esperientzia desberdinak pilatzea eta gizartearen eszenategian subjektu izatea  
dira, besteak beste, gizarte klaseen eraketa erabaki zuten faktoreak. Puntu honetan,  
garbi adierazi beharra dago nola pasa zen errealitate berriak gutxiasko barreiatuta-  
ko gizarte talde batzuetatik klase bat moldatzera, hau da, pentsabide eta jarrera  
zehatzagoak eta homogeenagoak zituen multzo batera. Klase gizarte berria erre-  
alitate juridiko-politiko desberdinaren emaitza izateaz gainera, prozesu historiko  
batean moldatu ziren eta, azkenik, beren burua historiaren protagonistatzat hartu  
zuten gizarte agente berrien eraketaren ondorioa ere bada. Zentzu honetan, gero  
Bigarren Mundu Gerraren ostean agian gertatu ez bezala, hemen aztertzen ari den  
gizartea lehen momentutik lanaren errealitatean oin hartuz egituratu zen, lanaren  
munduan klase horiek zuten maila jakinetan oin hartuz alegia.

Klaseak, alabaina, historian zehar eratuz eta garatuz doazen gizarte talde  
dinamikoak dira. Gehiegitan, horien *a priori*-zko definizioetik abiatu izan da, eta  
beren baitan beti aurkitzen ez ziren ezaugarriak eta helburuak ezarri izan zaizkie.  
Ildo horretatik, gure ustetan, gizarte klaseek eduki heterogeneoak dituzte. Hala,  
klaseak beti instrumentala ez den ihardueraz horniturik ageri dira, iraganarekin,  
tradizioekin eta gainerako klaseekin harreman subjektiboak eta objektiboak  
dituzte eta, oro har, ñabardurak, barne arazoak eta kontraesanak dituzten taldeak  
dira. Aitzitik, pisu handiko tradizio historiografiko jakin batek zenbait gizarte  
taldek *per se* duten izaera iraultzailea adierazi du, zehazki, langile klasearena.

Are gehiago, analisi askok eta askok etengabeko aurrerabidearen ideian du  
abiapuntua, aurrerabide hori gizartearen gorengo formetaranzko bilakabidean  
lortzen den gizarte ongizatearen hobekuntza gisa ulerturik, eta aurrerabide hori  
langile klasea protagonista duen ekintza iraultzailearen bidez lortzen da. Iraultza,

gainera, nahitaezkoa da, horren arabera. Halako ideia alde batera uztea, beste bide bat bezala hartuz, ezinbesteko premisa da langileek bizi izan zuten errealitatearen bidezko analisia egin nahi bada. Izan ere, klase horretako sektore batzuek, antolaketa moduren bat izan ohi zutenak, halako iraultza itzaropenari eusten zioten aldien ondoan, beste zenbait alditan klasearen parterik handienak, alde edo moldez, gizartearen joko arau hegemonikoak onartu zituen edo ditu. Hala berean, langileek eta beren organizazioek egoeraren hobekuntza handiak lortu dituzten uneen ondoan, atzerapen handiko aldiak ere nozitu behar izan dituzte behin eta berriro. Hori dela eta, historiaren ikuspegi lineala, langileen klasearen etengabeko borrokaz eta aurrerapenez mintzo dena, alde batera utzi beharrean gaude.

Bestalde, langileen egintzek ez dute ezinbestean eta derrigorrez beren aurkarietako gatazka ekartzen. Mutualismoaren inguruko esperientziak, zenbaitetan, mundu burgesaren aginduen paraleloan edo bazterrean zeuden (baina ez beti) bizi esparruen agerpideak edo defentsa bideak izan ziren. Elkarte horiek guztiz garrantzizkoak izan ziren langileen gizarteratze barrutiak eta geroz jokabide autonomoagoak eratzerakoan. Era berean, oker izendaturiko “sozialista utopiko” haien esperientzia eta pentsabidea funtsezkoak dira hurbileko egoeraren edo gizarte osoaren aurrean planteatzen ziren alternatibak ezagutu nahi badira, hauek bai langileria sektoreek eta bai –errealitate kapitalistaren ondorio dramatikoek zuzenki– burgesiatik sortutako elementu erradikalizatuek aurkeztuak baitziren.

Aurreneko atal honetan, langile klasearen eratze aroa besterik ez da aztertuko, hots, langileek osatzen zuten eta, amankomuneko esperientziaren ondorioz, amankomuneko interesak sentitu eta egituratu zituen gizarte talde baten agerpen aldia, langile klase hori bestelako interesak, aurkakoak eskuarki, zituzten beste gizonen aurrean kokatzen zela. Prozesu horrek XIX. mendearen lehen erdia hartu zuen; langileak prozesu hartan, gizarte klase izateaz kontzientzia hartu baino areago, beren egoera baliogabetuaz ohartu ziren, heziak izan ziren paternalismo giro hura desagertua izanik ere, haien ikuspegi moralak eta politikoa berak baldintzatzen zuela oraino.

## **2. Sindikatu ihardueraren lehen formak, mutualismoa eta ludismoa**

Gehienetan, arreta handiegia jarri ohi da sindikalismoan. Izan ere, elite mailako fenomenoak izan zen, oso garrantzi gutxikoa XIX. mendeko lan indar gehienek esperientzia kontuan hartuz gero. Industrializazioaren lehen aldietan organizazioak iritsi ezinezko luxua zen langile gehienentzat. Modu berean, alabaina, egia da mugimendu hori bazkideei buruzko estatistika ofizialek aditzera ematen dutena baino garrantzitsuagoa izan zela, lanaren kontzientziaren garapenean eginkizun hezitzaile zabala izan baitzuen. Bestalde, komenigarria da hertsiki

organizazio sindikalak zirenak eta elkarteen inguruko mundua bereiztea; lehenengoek garapen aski geldoa izan zuten XIX. mendean zehar, bigarrenak, zentzu zabalean, sindikatuak eta bestelako erakundeak barne hartu zituen bitartean. Bigarren multzo hau langileen inguruan egituratu zen, artisauen inguruan bereziki, eta zerikusi handia izan zuen delako eginkizun hezitzaile horretan. Azkenik, esan beharra dago sindikalismoaren ondorioak eta eragina, hein handi batean, herrialdeetako produkzio prozesuen aniztasun handiak mugatu zituela. Gorabehera horiek direla eta, industria batetik bestera eta are lanbidetik lanbidera aldatzen baitziren, zenbait eskualde eta ihardueratan langileen eratzeko gaitasuna eta lan baldintzen gaineko eragina guztiz sendoak agertzen ziren bitartean, beste zenbait iharduera edo eskualdetan horiek ia hutsaren hurrengo gertatzen ziren.

Langileen elkarteek forma desberdinak izan dituzte beren historian zehar. Lehen hurbilketan, langileen elkarteen helburuak har daitezke kontuan. Haietako batzuk, zenbait gatazka konkreturi irtenbidea emateko sortuak, desagertu egin ziren. Beste batzuk, ordea, iraupen bokazioarekin sortu ziren eta helburu globalak eta orokorrak erdietsi nahi zituzten. Orobat, bitarteko egoerak ere izan ziren. Lehen banaketa, beraz honako hau izango zen:

A) Helburu jakin batekin sortutako elkarteak, behin helburua lorturik, desagertu zirenak. Ofiziale bat ugazaba edo maisu bihurtzeko ahalbideak desagertu zirenean, ordura arte luzaro iraun ohi ez zuten lehen taldeak, langile elkarte iraunkor bilakatzen hasi ziren.

B) Besteren kontura lan egiten zuten langileen elkarte iraunkorrak, bizi eta lan baldintzak mantentzeko edo hobetzeko helburua zutenak, hau da, berez sindikatuak zirenak. Horien helburua hertsiki lanbide mailakoa edo elkarte mailakoa izan zitekeen, eta bigarren kasuan lanbide iharduera hori orokorragoko beste zenbaitekin konbinatzen zen.

C) Helburu orokorreko elkarteak, politikan eragina izan eta gizartea aldatu nahi zutenak; alderdi politikoak eskuarki, baina ez beti.

Helburu hurbilenari begira, ondoko elkarte mota hauek bereiz daitezke:

#### 1. Elkarren laguntzarako elkarteak:

Langileak soilki har zitzaketen edo bitarikoak izan zitezkeen, hau da, langileekin batera enpresariak edo bestelako gizarte taldeak biltzen zituztenak. Elkarte horien helburua bazkideei laguntzea zen (gaixotasunak, istripuak, langabezia, heriotzak).

#### 2. Kontsumo kooperatibak:

XIX. mendearen hasieran funtzionatzen hasi ziren utopikoa deitu den sozialismoaren eraginez. Halakoen funtzioa zenbait produktu, janari eta jazki prezio merkeagoan erostea zen, bazkideen artean salduak izateko.

### 3. Produkzio kooperatibak:

Langileak beren autogestioaren mendean eta kapitalistarik gabeko industria mundu baten xedea errealitate bihurtzen saiatu ziren. Gisa horretako kooperatibak goian aipatuak baino askoz gutxiago izan ziren eta gehienetan porrot egin zuten. Porrot horren arrazioen artean, sorrerako baldintzak zeuden, zeren eta eskuarki enplegu krisia zegoen garaietan sortzen baitziren eta horrek funtzionamendu normala oztopatu egiten zuen. Arrakastatsu gertatu zen produkzio kooperatiba bakarrenetako bat eta, Espainian nabarmendu egin zena, Eibarko Alfa enpresa izan zen, bertako sozialistek sortua.

### 4. Langileen hezkuntzarako eta aisiarako elkarteak

Atal honetan gau-eskolak, lanbide eskolak, ateneoak, abesbatzak eta beste talde asko sartzten ziren (mendizaleak, txirrindulariak, naturistak, esperantistak, e.a.). Goian adierazi bezala, halako elkarteek, beren helburu bereziekin batera, kideen arteko klase elkartasunezko loturak areagotzen laguntzen zuten. Bestalde, teoriarik izatera apolitikoa zutenez, hobeki iraun dezaketen langile mugimenduaren aurkako errepresio uneetan eta mugimendu horren euskarri izan ziren klandestinitate aldietan.

### 5. Erresistentzia elkarteak edo sindikatuak:

Haien helburua ez zen bazkideei laguntzea, baizik eta langileak lantokian defendatzea eta laneko baldintza kolektiboak finkatzea. Bi sindikatu mota bereiz daitezke: lanbide sindikatuak, ofizio bereko langileak biltzen zituztenak eta XVIII. mendean jadanik agertu zirenak, eta industria sindikatuak, XIX. mendearen bukaeran sortzen hasi zirenak eta enpresa edo sektore bateko langile guztiak elkartzen zituztenak, lanbidearen araberrako bereizketarik egin gabe.

Kasu askotan funtzio desberdinak nahasirik agertzen ziren organizazio berean. Izan ere, sindikatu asko erresistentzia elkarte, elkarren laguntzarako elkarte eta langileen aldeko legeak lortzea helburu zuen presio talde ziren batera. Elkarre horiek guztiek, modu demokratikoz funtzionatzen zuten eta garrantzitsuak izan ziren bai beren helburu bereziengatik, eta bai langileen arteko buruzagiak, eratzeko gaitasuna, elkarte tradizioak, e.a. sortzen lagundu zutelako, jarrera horiek ez baitira ezinegon sentimenduetatik edo hobekuntza nahikunde soiletatik modu automatikoz sortzen. Halako eraketa moldeak –premiazkoak edozein egintza mota ongi burutzeko– langileek ikasi eta beretu behar izan zituzten. Goian azaldutako elkarteekin batera, ongintza elkarteak, logia masonikoak, edo dotrina ofizialek at ziren zenbait eliza protestante antolaketa eskolak izan ziren langileentzat. Enpresariak eta gobernuak, kasu askotan, prozesu horren aurka azaldu ziren.

## 2.1. Mutualismoa

Estatuak erresistentzia elkarteak zapaltzen eta galarazten zituen bitartean, elkarren languntzarako elkarteen eraketa sustatzen zuen, langileen lehen elkarte motak halakoak izan zirelarik. Mutualismoa, Antzinako Errejimenaren gremio eta erlijio tradizioen jarraipen moduan, eritasunaren eta halabeharrezko gorabeheren aurrean langileek beren burua babesteko zuten kez karen ondorioa zen. Estatuak mutualismoa laguntzeko zuen arrazoia bikoitza zen. Alde batetik, langileen miseriaren aurkako soluzioa zen, antolatu ohi zuten diru kuxtari esker. Bestalde, matxinada oztopatzen zuen, elkarte mutualistak langileen erantzukizun zentzuaz arduratzen baitziren, haien subertsio ahalmena apalaraziz eta, aldi berean, gutxieneko laguntza ekonomikoaren bidez, nahigabeen aurreko etsipen inkontrolatua mugatuz. Nolanahi ere, elkarren laguntzarako elkarteak ongintza- ren barrutian mantentzen saiatzen ziren, erresistentzia elkarteak bilaka ez zitezen; helburu horretarako, adibidez, debekatu zitzairen elkarte horiei lanera nahita huts egindakoari inolako diru kopururik ordaintzea.

Jarrera horrek, alabaina, ez zuen galarazi erresistentzia elkarte askok elkarren laguntzarako elkarte itxura hartzea. Dena den, gehienetan, mutualismoa sindikalismoa baino askoz azkarrago garatu zen eta denbora asko pasa zitekeen mutualismoak tradizio luzea zuen lekuetan erresistentzia elkarteak agertu arte. Era berean, langileen laguntza eta defentsa eginkizunetik erreibindikazio ekintzara iragatea ez zen automatikoa gertatu. Espainiako kasuak egoera horren adibide garbia ematen du, zeren langileen elkartzeko moduak behin betiko 1887an legeztatu zirenean, erresistentzia elkarteek laguntzarako elkarteen lekua hartu ordez, bi-bien hazkunde paraleloa gertatu zen. Alabaina, elkarte horiek erabilitako hizkeraren oinarriak, elkarri laguntzeko ideiak, kolektibitatea indibidualismoaren gainean dagoela pentsatzeak, kideen arteko lokarriak sendotu zituzten.

Lanbide jakin bateko langileak soilki edo langileak bakarrik biltzen zituzten elkarteen ondoan, elkarte mutualista askok bai langileek eta bai beste klaseetako kideak hartzen zituzten, eta haien artean enpresa ugazabak, bazkide babesle izendatuak, edo burges txikiak sartzen ziren. Laguntzarako elkarteek baztertu egiten zituzten lansari apaleneko langileak eta enpleguan segurtasun gutxiena zutenak, zeren eta estatutuek bazkide egonkorrak exijitzen baitzituzten, hau da, maiztasun jakin batez kuota aski handiak ordaindu eta moralaren araberako bitzta eramateko gai zirenak. Haiek emandako laguntzek, adibidez, ez zituzten eritasun benereok aintzat hartzen, ez eta liskarretan egindako zauriak.

Interklasismoa hemeretzigarren mendeko elkarte askoren ezaugarria izan zen, hori ugazaba txikiak eta haien enplegatuak bazkun berean elkarrekin izatea logikotzat hartzen zuen artisau pentsamoldearen emaitza zen; horren arabera, bi tal-



deen arteko interes gatazka gertaera puntuala zen eta ez egiturari zegokiona eta arte edo lanbide baten jabe izan eta hartan ihardutearen harrotasuna mantentzen zen. Kultura elkarte berekoak izateak edo, XX. mendean jadanik, kirol elkarte berean izateak sentimendu hori sendotzen zuen. Pentsamolde horrek, elkarte mutualistak lagun, artisau munduaren barne koherentzia irauarazten zuen. Denbora pasa ahala, klase sindikalismoa garatu zen eta mutualitateen eragile ziren burgesen helburua gizarte ordena zaintzera ez bestetara mugatu zen, klaseen arteko batasunari eutsiz, mutualismoak langileen askapenaren aldeko ahaleginak baretuko zituelakoan.

Aldi berean, mutualismoaren ikusmolde berria antzematen hasi zen langileen aldetik. Estatuak edo patronalak berak sustatuak ziren eta ikuspegi organizisten eta paternalisten eragina zuten elkarte mutualista haiekiko ezespina areagotu egin zen. Hala, gehienbat heriotzak eta hiletek eragindako gastuak ordaintzeko asmoz eratutako mutualitateak sortzeko ugazabek egindako saiociek jaso zuten ukoa aurkakotasun haren adierazpen argienetako bat izan zen. Bitartean, batez ere sozialistek eragindako klase elkarteek, elkarrekiko laguntza defendatu zuten beren ihardueraren ezaugarri eta premia gisa, klase ertainetako kideak halakoe-tan sartzea debekatzen zutela, bazkideen arteko gizarte desberdintasun handie-giak sahiestearren. Sindikalismo sozialistak mutualismoarekiko goganbearra eta aurkakotasuna azaldu zuen lehen aldiaren ondoren –gizarte iraultza gauzatze-ko egokia ikusten ez zutelako funtsean–, fenomeno beretu zuen eta hura izan zen zenbait herrialdetan lortutako hazkundearen arrazoietako bat.

Joan den mendearen amaierako mutualismoa, estatuaren eta politikaren aurkako giroaren adierazpidea zela, lagungarri gertatu zen langileek beren gizarte barruti berekia moldatzeko burutu zituzten ahaleginetan. Elkarte mutualisten bilkuretan politikaz hitz egitea debekaturik zegoen, hartan zatiketarako bidea ikusten baitzuten. Bai elkartearen fondoak defendatzeko beharrezkoa zen disziplinak eta bai gatazka kasuen ebazpenak, autoorganizazio ahalegin handia eskatzen zuten, gerora beste elkarte batzuek imitatuko zutena. Estatutu askotan, langileen askapenarako lagungarri izango ziren zerbitzuak sortzeko posibilitatea planteatu zen, langabeziarako laguntza, hezkuntza, zilegizko jolasak eta are erresistentzia kutxa; horrek guztiak, azkenean, laguntzazko iharduera eta langileen elkartasun iraultzailea adostuko zituen.

Dena den, ideia sozialisten eta kolektibisten goraldiak eta politikaren bilakae-rak ereduaren geraezinezko ahultzea ekarri zuten. Izan ere, Estatuaren aldeko aseguru eta aurrikuspen eskaintza hazteak, langile klaseak eta gizartearen beste zenbait sektorek bultzatua izan zenak, mutualismoaren erakargarritasuna apaldu zuen, Estatuak funtzio horiek beretzen zituen neurrian honen iharduera eremua gero eta murriztagoa baitzen. Istripu aseguruak mende hasieran sortzeak, esate-

rako, eritasun eta langabezia aseguruak ordaintzen zituzten elkarren laguntzarako elkartean iharduera gutxitu zuen. Fenomeno horri beste zenbait gertaera gaineratu zitzaizkion: irabazi asmotan sortutako aseguru elkarte pribatuen edo ugazaben laguntzarako kutxen eskaintza; langileek, enplegu beteko egoera iragankorrari esker, beren etorkizunaz kezka gutxiago izatea; talde elkartasunaren mende-kotasuna gutxitu eta berehalako itxaropen sozialak gizabanakoengana bideratu zuen bizi mailaren gorakada; eta berehalako arazoei baino areago soluzio orokorrei lehentasuna ematen lagundu zuen politizazioa. Horrek guztiak langileen mutualismoaren krisia ekarri zuen, hark zenbait kasutan bakarrik irauñ ahal izan baitzuen baina sindikatuen esparruaren barne beti ere.

## 2.2. Ofizioakako elkarteak

Sindikalismoa Industria Iraultzaren ondorio gisa eratu zela esan izan den arren, XVIII. mendearen erdialderako sendotua zegoen langile kualifikatuen talde askoren artean. Sindikatuak ez zituzten etxean lan egiten zutenek, meatzariak edo fabriketako lehen langileek sortu, oso gaizki tratatuak eta ordainduak izanagatik ere; elkarteak sortzeko, arestian aipatuenez, taldetan antolatzeko tradizioa eta langilearen nolabaiteko askatasuna behar zen, eta oso langile gutxiren eskuetan zegoen hori, langile kualifikatuenen eskuetan soilik.

Langile hauen etengabeko erresistentzia organizatuaren aurrean, fabrika langileek –denbora luzean lan munduan gutxiengoa osatu zutenak– ez zuten ugazabengandik defendatzeko inolako modurik. Emakumeak, umezurtegiak haurrak eta nekazariak izan ziren fabriketako lehen langileak; elkartzeko tradizio sendorik ez zuten, merkatariak kontrolatzen zuten etxeko lan sisteman zeuden ohituta, eta inongo produkzio mugarik ez zuten ezagutzen.

Langile horiek ez zuten, ez ofizioarekiko eta ez lanarekiko, artisauen atxikimendu sozial korporatiborik, horiek bezala ofizioa eta lana komunitate moral baten ardatz gisa hartzea zeramatzanik; hori baino jarrera bakarzaleagoak zituzten horiek produkzio harremani buruz; ez zuten, beraz, langile kualifikatuek bezalako batasunik ere erakutsi ekintza aurrera eramateko orduan. Beren sus-traiak zirenetatik atera izanak eta, haien bizimodu latzak eta laneko baldintza kaskarrak zirela medio, eritasun sozialen ugaltzeak –edariarena gehienbat– areagotu egin zuten langile horien geldotasuna. Erresistentzia egoerari eusteko gutxieneko ekonomia bitartekorik ez izateak protesta egiteko bide bakarra indarrezko matxinada izatea ekarri zuen; matxinada berez sortzen zen eta, hura zapaldu-takoan, haren antolaketa egituraren arrastorik ez zen gelditzen.

Britainia Handian, 1890. urtetik aurrerako hamarraldia arte, langilariaren antolamenduaren banaketa nagusia ez zen fabrika langileen eta artisauen artekoa izan, ofizio bat zutenen (industriako langileen sektore bat hartzen zuena) eta ez

zutenen (soldatakoak, bidezainak...) artekoa baizik. Azken talde honek, aipatutako data arte gutxienez, ez zuen antolaketa egitura sendorik izan.

Artisauek ere ez zuten talde bakarra osatzen, deitura horren azpian hasi soldatoko langileak hartzen zituzten maisuetatik eta ganbara batean lan egiten zuten peoietarainoak sartzen baitziren. Egoerarik hoberenean zeuden ofizialeak ofiziotako elkartetan biltzen ziren, edo gehienetan, beren kualifikazioaz, esperientziaz eta tradizioaz baliatzen ziren tirabira uneetan enpresarien eskakizunei aurre egiteko, eta egoera beren alde zutenean, abantailak lortzeko, egitura formalik sortu beharrik gabe. Artisau batzuek –tokian tokiko edo garaian garaiko– oso ongi antolatutako taldeak osatzen zituzten, eta batzuetan, oso sofistikatuak, karneta eta guzti, lanik ez zuten langileek beste tokiren batean aurkitzerik izan zezaten...

XVIII. mendearen erdiaz gero, eta debekuak debeku, langile elkarreak gorpuztu ziren sektore batzuetan, lansaria igotzearen eta laneko egoera hobetzearen aldeko, eta makineriaren sarreraren aurkako borroka zela medio. Ofizio bakarreko artisauez osatutako elkarre horien helburuak beren arteko kideei laguntza ematea, produkzio tarifak zehaztea, lansariak igotzea, eguneko lanaldiaren lanorduak gutxitzea eta, langile ikasleen eta ofiziorik gabeko langileen aurrean, beren kualifikazio mailari eustea ziren. Azken hau lanpostua ez galtzeko egiten zuten, artisau ez zenik sektorean sar ez zedin, sartuz gero langile eskaintza handituko eta lansariak behehituko baitziren.

Era honetako elkarrekin ofizioaren beraren izateak erantsitako ezaugarria zeukaten, gremioetatik jasotako kontzientzia alegia, beren lanbideko mugen barruan itxitako organizazio bat izatean adierazten zena. Langile kualifikatuek, lanbide prestakuntzaren jabe zirela eta ugazabek behar-beharrezkoak zituztela jakitun zirenez, ofizioari buruzko halako harrotasuna ageri zuten, ezagutzarako bidea neketsua eta banaka egin beharrekoa zelako kontzientzian zetzana, eta trebatu gabeko langileengandik bereizten zituen ikasketa prozesu luze nahitaezko baten emaitza zena.

XIX. mendean zehar ofizioa elkartzeko joerak garrantzi handia izan zuela ez bairik gabe onartzen dute historialari guztiak. Hala eta guztiz ere, sindikalismoaren sorreran –hitzaren zentzu modernoari gagozkiola– asoziazionismoak zenbaterainoko eragina izan zuen ez dago argi. Izan ere, elkarre horietako ofiziale kualifikatuek langile masaren elitea osatzen zuten, eta artisautzan hobekien ordaindutako ofizioen monopolioa zuten, ia heredentziaz gordetzen zen kasta baten eskuetan iraunarazten saiatzen zirena. Langile horiek mesprezuz hartzen zituzten trebatu gabeko langileak, eta baita beste ofizio batzuetakoak ere; beraien artean etengabe izaten ziren liskarrak edo, adibidez, ofizio batzuetan, gainerako langileekin edan nahi ez izatea, horren erakusgarri dira.

Sektore honek bere maisuekin bat egiteko edo haien alde jartzeko joera zuen komunitatearen eta maisuen arerioen aurkako borroketan, baina inondik ere ez zuen beste industrietako lankideekin bat egingo. Ofizialeen eta enpresarien artean paperak trukatzeko aukera izateak gehiago indartu zuen ofizioko kide guztiek komunitate bat osatzen zutelako sentimena, eta bide eman zion beren arteko lankidetzari. Esplotazioari ihes egiteko modurik azkarrena nor bere enpresa buru bihurtzea edo korporaziozko moldeak hartzea zela uste zuen langile askok. Ordea, produkzio sistema intentsiboetan oinarritzen zen industria enpresaren hedapenarekin batera desagertu zen xede hori.

Askotan ez zegoen inolako klase elkartasunik, industriaren goitik beherako banaketa baizik, ofizioz ofiziotakoa. Ikuspuntu hori, ordea, ez zen haragoko xedeak edo elkartasun maila handiagoak lortzeko eragozpen izan beti. Britainia Handian, XIX. mendearen hasieran, ofizioen arteko elkartasuna gero eta handiagoa izan zen, kapitalismoaren eraginaren eta gobernuaren errepresioaren mende-an baitziren denak. Enpresak ahalik eta lansaririk txikienak ordaintzeko egiten zuen presio gero eta handiagoak, eskulangileak erakunde publikoei babesa eskatzeko elkartzera behartu zituen, hartarako lagungarri gertatu zen.

### 2.3. Ludismoa

Industrializazioaren lehen aldietan, langileen adierazpideetako bat izan zen ludismoa. Makineria modernoaren sarreraren aurkako jarrerak, makinak suntsitzerraino askotan, ezaugarritu zuen ludismoa. Izenaren jatorria ez da guztiz argia, baina autore batzuek diotenez, 1811n, Nottingham-eko (Britainia Handia) barrutiko ehundegiak suntsitzeko kanpaina batean “Ludd kapitainak” izenpetutako gutun sail bati zor diote deitura.

Langileek makina berrien aurkako etsaigoa adieraztea izan zen ludismoaren xedea, batez ere langileria urritzea ekartzen zutenen aurkako. Baina, askotan, makinak, lehengaiak edo jadanik egindako produktuak suntsitzea enpresa gizonei eskatutakoa lortzeko bide gisa erabili zen. Ekintza horiek ekonomiaren krisialdiekin batera gertatzen ziren; horrek erakusten duenez, ludismoaren xedea ez zen, besterik gabe, makinizazioaren aurka egitea; arazo jakin eta gertukoetan zuen jatorria. Nolanahi ere, fabrika sistemaren aurka borrokan ari ziren ehuleek ondo hartu zuten ehundegi mekanikoa. Halaber, lanpostuak arriskuan jartzen zituzten enpresetako makinak bakarrik suntsitu izanak agerian uzten du bortxa horren hautazko izaera.

Bestalde, sabotatzaileak –makinak lanaren gaineko kontrola galarazi eta beren tradiziozko lanbidea eta kultura aldarazi zien prestakuntza bereziko langileen artean sortuak– ez ziren banaka aritzen, taldeka baizik, artisautzaren edo komunitate txiki, ia nekazari baten kulturaren inguruan sortutako harremanen

babesean, eta horretxek ematen zien, hain zuzen ere, koherentzia, indarra eta legezketasun moralak. Izan ere, makinaren aurkako jarrera ez zegokion soilik langileriari, baita enpresa gizon eta goi mailako klaseko kide batzuei ere, hauek, ikuspuntu paternalista batetik, kaltegarri irizten baitzieten makineria berria erabiltzeak zekartzan aldaketei.

Ludismoa da kapitalismoaren ondorio kaltegarriari aurre egiteko langileen artean sortu zen lehen protesta adierazpide ezaguna. Tradiziozko ofizioak eta kualifikazioak begirunez hartuko zituen lan sistemak gordetzeko eskabidea eta delako *laisser-faire* legediaren aurkako protestak, biak nahasten ziren borroka horretan. Horren guztiaren helburua lan molde berrien eta kualifikaziorik gabeko langileen sarrera eragozteak zen, sarbidea emanez gero ofizioko elkartasuna galtzeko eta soldataren prezioak behera egiteko arriskua baitzen. Ekonomia kapitalistak berekin zekartzan berrikuntzen aurkako erreakzio honek matxinada orokorraren kutsua hartu zuen, Britainia Handian behinik-behin, eta are matxinada politikoarena ere, agintariak oso gogor zapaldu zutena. Zapalkuntza horren adibiderik ezagunena “Peterloo-ko eraso” da, 1819. urtean gertatua, eta zenbait langile hil zirena. Hala eta guztiz ere, ez zen hura izan ludismoaren egiatzko izazera. Trantsizio garai bateko gatazka berezia izan zen ludismoa. Alde batetik, atzera begiratzen zuen, industrializazioarekin batera ezin bizi zuten aztura zaharretara eta legedi paternalista batera; bestetik, sistema berrian erabilgarriak izan zitezkeen aurrekariak ezartzeko, eskubide zaharrak berpizten ahalegintzen zen. Ludismoak lanaren eta honen erritmoen modernizazioaren eta intentsifikazioaren aurkako jarrera gorde du, baina lehengo adierazpide oldarkorrik eta bortxazkorrik gabe, lana huts egitearekin esaterako.

#### **2.4. Greba. Lan gatazkako modu berriak**

Industria sistema sendotzearekin ludismoak garrantzia galdu zuen, eta lan arazoetan indar egiteko bitarteko gisa, indarkerian urrituz joan ziren beste adierazpide batzuek hartu zuten haren tokia. Greba, langileen aldi bateko eta borondatezko lanuztea, alegia, izan zen lan arazoetan indar egiteko zabaldu zen modu berria. Besteak –ugazabei igorritako anonimoak, eskirolen aurkako erasoak, aldeko ez ziren langileak lotsagarri uztea edo enpresa gizonak jipoitzea– desagertuz joan ziren. Grebatan bortxa ez da guztiz baztertzen den gauza, baina gehienetan bigarren mailako tokia hartzen du.

Greba, gizartearen nahigabearen adierazpide moderno gisa, beste bide batzuen arabera arautua dago. Greba politikoa edo, zehatzago esateko, haren adierazpiderik adierazkorrena den greba orokorr iraultzailea batetik eta lan arazoengatik deitutako greba bestetik bereiztea komeniko balitz ere, atal honetan bigarren greba mota hau izango dugu ia aztergai bakarra, greba politikoek –kartismo-

an izan ezik agian– ez baitzuten garrantzi handirik izan XIX. mendearen bukaera, eta batez ere, XX. mendearen hasiera arte. Horrek ez du esan nahi lanuzte askotan lan erreibindikazioak eta erreibindikazio politikoak nahasten ez zirenik; izan ere, langile elkarteei egoera politikoa ahultasunak jota zegoela iruditzen zitzaieanean askoz greba gehiago egiten zen lan erreibindikazioengatik. Hala ere, denbora luzean, enpresarietako negozioazioak haustearen ondorioztat hartu izan zen greba, eta ez, sindikalista iraultzaileek plazaratuko zuten bezala, sindikatu ekintzaren metodo berezizat.

Grebari eman nahi zaion zentzuak berak erakusten du aurreko protesta sozialen adierazpenekin alderatuz gero zituen desberdintasunak. Hala, langileriaren nahigabearen adierazpen publikoa, kolektiboa eta antolatua da greba, eta badu ikustekorik bortxazko ekintza indibidualak edo kolektiboak urritzearekin. Desberdintasunak alor askotarikoak ziren. Protagonista beste bat zen; ez zen herria, soldatako langileria zen, baina, aurrerago ikusiko dugun bezala, ez langile guztiak. Haren klase edukia ere, emakumeen (emakume langilearena izan ezik), langabetuen eta gazteen parte hartzea urritzea ekarri zuena, bestelakoa zen. Are gehiago, batzuetan, grebaren etsaiek talde horien parte hartzea aipatzen zuten haren balioa gutxiesteko.

Gatazkak zirauen bitartean erabili ohi zen mintzaera –langilea behartsuaren irudi klasikoarekin eta enpresaria burges tripontzi nagiarekin identifikatuz, eta ezinbestean datorren iraultza aipatuz– oso erradikala izanagatik, protesta modu planifikatua da greba, une jakin batean nahas-mahasezko egoera sortzean datzana, eta arerioaren ekonomian kalte handirik eragiteko asmorik ez duena. Planifikazioak grebak zenbat denbora hartuko duen, nolako ekintzak egingo diren, protestak non egingo diren –lantokietan gero eta gehiagotan– eta grebaren helburuak –zehatzak eta argiak, hasi baino lehen beste aldekoek jakinarazi behar zizkienak– erabakitzea eskatzen du. Langileriaren eskarien helburua ez da sistema kapitalista oso-osorik zalantzan jartzea, nahiz eta batzuetan, haragoko xedez antolatutako mugimenduen aldeko protagonistena baden. Helburu horiek –soldata jasoaraztea gailendu zitzaien gainerakoei– beste aldekoek onartzeko modukoak izan behar dute neurri batean, eta negoziagarriak edo amore emargarriak. Azkeneko ezaugarria gutxieneko antolaketa behar izatea du. Soldatako langileen egoera larriaren bat-bateko emaitza izan badaiteke ere, langile talde batek edo sindikatu batek antolatzen du alde aurretik greba, protesta egin aurretik ere sinesgarritasuna baduten buruzagi batzuen gidaritzapean.

Bada halako lotura bat grebaren erabileraren, langile mugimenduaren eta klase kontzientziaren artean, baina lotura hori ez da, inondik ere, automatikoa. Ahoberokeria franko entzun da zentzu horretan, grebak langileen mugimendurekin eta klase kontzientziarekin nahitaezko lotura zuela esanez adibidez. Nola-

nahi ere, grebaren gorakada bizkorrak argi erakusten du fenomeno orokorra izan dela, eta langileleriaren armarik zorrotzeta bihurtuta, langile maila guztietara hedatu dela ezinbestean.

Hala ere, kontu handiz erabili izan zen arma da greba, gaizki ateraz gero oso ondorio larriak ekar baitziezazkien langileei, eta baita lanuztea egitera deitu zuen sindikatuari berari ere. Horregatik abagune ekonomiko hoberenez baliatzen zen egin beharreko eskariak egiteko, eta ugazabari zabaltzen ari zen merkatuaren itxarokizunak galtzea baino hitzarmena egitea eta produkzioari eustea gehiago komeni zitzaion unea aukeratzen zen horretarako. Hortaz, greba mehatxu hutsa nahikoa izan zitekeen hitzarmena iristeko. Baina defentsarako beste greba haiek –lanpostuei, lan baldintzei eta soldatei eustekoak– ez zituzten ezaugarri horiek betetzen beti.

Abagune onetan indar egiteko grebarako –langileen lan baldintzak edo soldata hobetzea eskatzen zirena– joera izan da, eta egoera txarretan, berriz, edo urriago ziren edo defentsarako grebak izaten ziren. Baina ekintza aurrera eraman ez eraman hartan eragin zuten beste faktoreek –egoera politikoak, langileen adierrea, edo laneko buruzagitza mota– lege orokorraren haustura ekarri zuten behin baino gehiagotan. Sasoiari dagokionez, udaberrirako deitzen ziren grebarik gehienak, langileentzat gogorrena den aroaren ondoren. Geroago, 1930 ondoko urteetan ordaindutako oporrak onartu zirenez gero, udazken aldera aldatu ziren gatazka franko, dirua alferrik ez arriskatzeko arrakasta lortuko zuenik guztiz seguru ez zen ekintza batean.

Industria egiturak edo enpresarien jarrerak ere izan zuten eraginik grebaren bilakaeran. Gaur egun izan ezik, enpresa handiek edo enpresa publikoek lan erregularra eta bestelako abantaila batzuk eskaintzen zituztenez lanuzte gutxi izatekoak ziren berez, baina enpresen konzentrazioa grebak ugaritzeko faktore bilakatu da. Gaur egungo kualifikazio urriko langileek mugimendu horren aldeko jarrera garbiagoa erakutsi dute, eta mobilizazioaren eta presioaren bitartez saiatu dira, bestela, negoziazioaren bidez, lanbidean mailaz igotzeko eta aterabide berriak lortzeko aukera gutxi eskaintzen zuen egoera hobetzen. Ugazaben jarrera itxiak greba galaraztea edo, Espainian edo Italian gertatu zen bezala, indarkeria nagusitzea ekar zezakeen. Jarrera bakezaleago batek ordea, Britainia Handikoak adibidez, gatazka gehiago izanda ere han, grebek arestian aipatutako herrialdeetan bezalako konnotazio politikorik edo gogortasunik izan ez zezan lagundu zuen. Urbanizazio prozesuen sendotzeak eta hedabideen aurrerapenak ere eragina izan zuten grebaren ezaugarrietan. Zenbat eta urbanizazio maila handiagoa orduan eta normalizatuagoak grebak.

Bestalde, langileek gutxieneko bitarteko ekonomikoak eduki behar zituzten gatazkak zirauen bitartean bizirik irauteko; hau da, erresistentziako kutxa bat edo elkartasun kolektiborako mekanismoak behar zituzten, horiek ezean greba egitea berehalako hondamendirako gonbidapena egitea baitzen. Abagune egokiarekin eta alde zurretik kutxa bildurik, arrakasta ez zen ezinezko gauza. Askotan langileek taktika jakin batzuk erabiltzen zituzten gutxieneko diru sarrera ziurtatzeko gatazka aldirako: gazteenak beste norabait lan bila bidaltzea, beste sindikatu sekzio batzuei maileguak eskatzea, txandakako grebak egitea edo tailer autogestionatuak ezartzea; hala, lanean segitzen zutenek gutxieneko dirua eman ziezaketen langabeei. Erresistentziako kutxa ongi hornitua edukitzen tematzen ziren sindikatuek luze iraun zezaketen. Alemanian eta anglosaxoniarren artean, grebak, asko ez baziren ere, oso luzeak ziren. Aitzitik, latin herrialdeetan, askoz gatazka gehiago izan ziren, baina laburragoak.

Lan arazoengatik egin ziren greba guztiak, ordea, ez ziren eskema horren araberaren egin. Denbora luzean, artisautzako ofizioetako grebak, enpresariak lan erregulazio jakinak onartzera edo negoziatzera bultzatzera behartzeko eginak, kontu handiz prestatzen ziren bitartean, fabrika langileen greba gehienak bat-batekoak ziren, gaizki antolatuak eta laburrak. Greba horiek ez ziren ugazabei presio egiteko ahaleginak, langileen haserre bizia edo injustiziaren baten aurrean elkartasuna adierazteko ahaleginak baizik. Baina jarrera aldaketarik ere izan zen. Artisauek ere, makinizazio prozesua edo produkzioaren erritmoa handitzea eraman ezinik, protesta grebak eta indarkeriazko ekintzak egin zituzten. XIX. mendearen bukaeran hasi ziren antolatzen lehen ekintza bateratuak, baina hala ere, sindikalismo iraultzailearen ikuspegitik plazaratu ziren gatazketako askok protesta egiteko modu horri eutsi zioten, alde zurretik jakin zitekeen gatazkaren emaitza gorabehera.

Garai horretantxe beste fenomeno adierazgarria gertatu zen: grebaren hedatzea. XIX. mendean zehar greba asko eta asko lantoki batera mugatzen ziren, baina mendearen azken urteetan, grebak gehitzearekin batera herri edo hiri bateko industria guztietara edo iharduera bereko lurralde bateko lantoki guztietara hedatu ziren. Lanbideek elkar harturik egindako greben hedatzearen arrazoietako bat, klase elkartasunarenaz gainera, langileria kualifikatu gabea eta aldagarria ugaltzea izan zen. Fabrika batetik beste batera aldatu ahal izateko nahitaezkoa zen langile guztiek baldintza berberak izatea.

Nolanahi ere, grebatan ez zen dena guztizko arrazoizkotasunaz eginga. Erabaki askotariko, kolektibo, zatikatu eta isolatuen emaitza ziren neurrian, bat-batekotasuna zen nagusi; nolakotasun horrek grebari bitarteko eraginkorra izateko gaitasuna murrizten baina, aldi berean, adierazkortasunik handiena ziurtatzen zion. Adibidez, greba asko udaberrian egin ziren, lanuztea neguan burutzea zailagoa



izateaz gainera udaberrian grebak festa kutsua hartzen zuelako, langileari berari zegokion espazioa eta denbora bilatzea esan nahi zuelako. Langileen arteko elkartasuna sendotzen edo eguneroko lanaren monotonia hausten zuen unea ere bazen hura. Greba egitea edo ez egitea erabakitzeke irizpide bakarra grebazaleek arriskuari aurre egiteko eta egoera hari eusteko gai izatean edo ez izatean zetzan; gaitasuna ez zen langile guztiengan berdina eta hura frogatzeko ere ez ziren denak prest. Zentzu horretan, eta greben pizgailuei eta bilakaerari gagozkiolarik, ezin dira besterik gabe parekatu tarteka-marteka eta antolaketarik gabe egiteagatik “huts” egiten zuten grebak eta sindikatu ekintza bateratuaz eta arautuaz egiten ziren lanuzteak, greben helburuak berdin-berdinak izanda ere.

### 3. Langileen ekintza politikoa: burgesiarekin batera hasieran

Politika ekintzak, langileena zein jabeena, zuzeneko lotura zuen talde hauek beren buruaz hartzen ari ziren klase kontzientziaren taxutzearekin. Historian zehar ez du jokabide politiko berbera izan artisau talde batek eta lana etxean egiten duen behargin multzo batek, edo artisautzan eta nekazaritzan, bietan batera, diharduen langile talde batek. Langileen politika ekintzak berahala onartzeko eta azken buruko eskakizunak ez ezik zortzi orduko lanaldia eta gizartea eraldatzeko proposamen alternatiboak hartu zituen kontuan. Azken finean, politika ekintza zertan den ezagutzeko datza gakoa, politikotzat harturik ez bakarrik erakundeei edo alderdi baten aldeko borrokari dagokiena, baizik eta errealitate soziala oso-oso-oso edo zatika eraldatzen saiatzeko ekintza (politiko) horretan bat egiten duten faktore ekonomikoen, sozialen, kulturalen eta abarren elkarketa.

Langileen berriazko iharduera politikoaren lehen adierazpenak burgesiarena-rekin batera gertatu ziren. Izan ere, Frantziako Iraultza prozesua nekez ulertuko litzateke herriaren esku hartze zuzenik gabe, burgesiako taldeen eta herri xehearren (langile talde zabalak barne, artisauak gehienbat) arteko hitzarmenik gabe; artisauak neurritz gaineko eragina izan zuten langileen iharduera politikoan, baita Britainia Handian ere. Frantziako Iraultza eta britainiar sistema politikoaren aldaketak ez ziren lan arazoei buruzko gatazken ondorio zuzenekoak, baina lagungarriak izan ziren esperientzia kolektiboa, geroago tradizio sozialistak eta langile mugimenduak bereganatuko zutena, taxutzeko.

Frantziari dagokionez, zergen, jauntxoaren eskubideen eta janariaren salneurrien aurkako herri protestak izan ziren matxinadaren eragileak. Hiru faktore horietako azkena izan zen gainera hirietako herritar xeheen masa, Iraultzako protagonista hau ere, mugiarazi zuena. Iraultza gailentzearekin langile koalizio asko sortu zen eta lanaldia laburtzearen eta prezioak arautzearen aldeko grebak egitea deitu zen.

Burgesiak, girondarrei esker, errejimen berrian nagusitasuna erdietsi zuen arren, ezin izan zituen *sans-culottes*-en etengabeko protestak galarazi; hauek ogiaren prezioari buruzko eskakizunak ez ezik eskabide politiko huts zirenak ere egin zituzten: amnistia, 1793ko konstituzioa berriro indarrean jartzea eta –liberalismo ekonomikoaren oinarriak ukatzea zelarik azken neurri hau– janariaren prezioaren kontrola. Herriaren eskabide horiek 1795eko maiatzeko matxinadan agertu ziren, eta hartan galtzaile irten ondoren amaitu zen “herri iraultza”. Artisau aktiboen aldetik Hirugarren Estatua eta herri militantea –langileria geroago– arian-arian berdintzat hartzean zeutzan matxinadaren arrazoi ideologikoak. Gainera, erradikalitasun urriko igualitarismoan oinarritutako pentsabide bat ere bazen, jabetza txikia eta aberatsei pobreei baino gehiago erasango zien sistema fiskala defendatzean zeutzana.

1795. urtearen bukaeran beste matxinada bat izan zen, “Berdinen aldekoa”, Babeuf-en gidaritzapean, iraultza azken muturreraino eramanez nahi izan zuena, hau da, ekonomia berriro antolatu nahi izan zuena aberastasunaren banaketan zeuden gorabeherak desagerrarazteko, eta azkenean, jabetza eta aberastasuna ere desagerrarazteko. Bigarren saio horrek huts egin bazuen ere, matxinada horretako protagonistaren baten (Buonarroti) eta lehen sozialisten arteko loturak bide eman zion Frantziako Iraultzaren eta mendearen erdialdeko sozialismoaren arteko loturari.

Britainia Handian, aldiz, beste joera bat nagusitu zen, erradikalismoa, britainiar politikaren errealitate bati kontrajarri zitzaiona hark herritar gehienei ordezkari eta aginpide politikoa izateko eskubidea ukatzen zuelako. Erradikalismoaren bilakaeran, 1790tik aurrera, berebiziko eragina izan zuten Frantziako jakobindarren eta Ameriketako burujabetza zaleen esperientziek, eta horrek berorrek mugimendu haren aurkako errepresio kanpaina gogorrek ekarri zituen. Gaitz sozial guztiak –arazo ekonomikoak ere bai– jatorri politiko bat zutelakoan zeuzkan erradikalismoaren diskurtsua: herriaren ordezkariarik eza, alegia.

Langile askok, klase kontzientzia handirik gabeak, mugimendu horren alde egin zuten, herriak aginpidea lortzeak klase xeheen egoera sozioekonomikoa aldatuko zuelako uste osoan. Erradikalismoarentzat lana ematen zutenen eta hartzen zutenen artean baino areago ordezkari bazutenen eta ez zutenen artean egin behar zen bereizkuntza. Langile ez zirenez osatutako sektoreak beren helburuak lortu ahalean –artisaunen laguntzari esker burgesiak botoa emateko eskubidea lortu zuen 1832an– mugimendu horretatik aldenduz joan ziren, eta honek, gero eta gehiago, klase mugimenduaren izaera hartu zuen.

XIX. mendearen erdira arte, eta erradikalismoaren eraginari esker, britainiar langileek berariazko alderdi politiko sendorik izan ez bazuten ere, sindikatu

gehienek izaera politikoa gorde zuten. Langileek eskubide politikoak lortzea errealitate soziala eraldatzeko bidea izango zela uste zen, langileen aldeko legeak eman ahal izago baitziren eta langileen elkarrekin galarazten zituztenak debekatatu. Hala eta guztiz ere, britainiar langileek ez zuten, oso bakanetan izan ezik, sistema politikoa eta soziala errotik aldatzeko asmorik izan.

XIX. mendeko britainiar langileek beren bide politikoa eratzeko egin zuten azken ahalegina kartismoa da. Mugimendu hau 1836an sortu zen, eta klase xehe-etako kideez eta langileez osatua zen. Kartismoaren helburua “Herriaren Gutuna” (1838) delakoan biltzen ziren eskabideak defendatzea zen. Gutun hartan, sei puntutan, britainiar langileen eskakizun politikoak laburbiltzen ziren:

- 1. Gizonezkoentzat sufragio unibertsala onartzea (ordura arte nolabaiteko ondasunak zituzten herritarrei baino ez zegokiena).
- 2. Legebiltzarra urtero berritzea.
- 3. Legebiltzarkideei inmunitatea onartzea.
- 4. Botoa sekretupean emateko eskubidea onartzea.
- 5. Hauteskunde barrutien arteko berdintasuna aitortzea (eta “burgo ustelak”, oso biztanle gutxi izanik Legebiltzarrean ordezkartza zuten barruti haiek, debekatzea).
- 6. Diputatu izateko bete behar ziren baldintza ekonomikoak desagertzea.

Sozialistatzat har daitezkeen eskakizunak egin gabe ere, kartismoak klase diskurtsua zerabilen, eta sistema demokratikoagoa lortzeko xedea zuen. Indarrean zegoen marko juridikoan sar zitezkeen helburu horien gibelaldean ezkutaturik erreforma ekonomiko-sozialen aldeko eskakizunak zeuden.

Gutun horren bultzatzaileentzat eskubide politikoak lortzeko ondasunen bana-keta eta sistema ekonomiko berria ekarriko zituen (lanaren eskubideak kapitalarenen gainetik zeudelako artisau pentsamoldean oinarrituko zen sistema ekonomiko berri hau). Sistema liberala eta merkatu librea legez onartu izanak eta, burgesiarekin batera, 1832an botoa emateko eskubidearen aldeko borroka egin izanak langilieriarengan eragin zituen aldaketetan oinarritzen zen euren sinismena. Bi arrazoi horiek egiantza ematen zioten Legebiltzarretik kanpoko presioa lege bat aldarazteko gauza izan zitekeelako posibilitateari eta baita, Komunaren Garrantziaren, talde berri baten nagusitasunak erreforma sozialak bideratzeko lanetan garrantzi handiko zeregina izango zuelakoari ere.

Mugimenduaren jarraitzaileen artean, alde batetik, ofizio zaharretako artisau kualifikatuak eta etxean lan egiten zuten langileak zeuden, makinizazioaren aurkakakoak, eta bestetik, industrializaziotik sortutako behargin batzuk, beren lan bal-

dintzak elkarketa moduren baten bidez hobetzeaz kezkatuak hauek. Horientzat guztientzat Gutuna ez zen helburu bat, bitarteko bat baizik, eskubide politikoak lortzeko eta, hauekin, beren egoera sozioekonomikoa aldatzeko modua. Are gehiago, egoera ekonomiko txarretan sendoago egin ziren kartismoarekin batera edukin sozialeko grebak, altxamenduak eta matxinadak; 1837an lehena, behartsuak kontrolatzea eta agintarien baimenik gabe lurraldean ibiltzea eragozteko helburu zuen Behartsuen Legearen aurkakoa; 1842an bigarrena, lan arazoengatik. Hirugarren altxamenduak, 1848koak, huts egin zuen, ekonomiaren zuzpertzeko orokorrarekin batera gertatu zelako.

Komunen Ganbarara bidaltzeko sinadurak bilduz hasi zen mugimendua, 1838. urtetik 1839era bitartean. Zifrak segur aski puztuak egongo diren arren, bildutako sinadura kopuruak erakusten duenez kartismoak jende asko eta askoren laguntza izan zuen. Guztira 1.280.000 sinadura baino gehiago bildu ziren. Beste sinadura bilketa bat egin zen 1842an, eta 3.317.702 sinadura bildu ziren hartan; kopuru hori botoa emateko eskubidea zuen hautesle kopurua baino handiagoa zen. 1848an egindakoan 3.000.000 sinadura inguru jaso ziren. Hala eta guztiz ere, 1842rako barne tirabirek jadanik jota zeukaten mugimendua.

Kartismoaren porrota zenbait faktoreren elkarketaren ondorioz etorri zen. Errepresioa lehendabizi, nahiz eta, kontinentean eta Britainia Handian bertan aurreko urteetan izan zenaren aldean, hura ez zen izan horren gogorra. Mugimendu kartistaren beraren zatiketa bigarren; mugimendua oso heterogeneoa zen berez, eta desberdintasunak zeuden metodoen erabilerrari nola Gutunaren beraren azken helburuei zegokienez; hala, beheko erdi mailako klaseko sektore batzuek, mugimenduaren erradikalitasunak izaturik, alde batera utzi zuten. Banakuntzak zerikusia zuen, neurri handi batean, egoera sozial desberdinekin. Industria Iraultzatik kalteturik ateratako langileak, eskulangileak eta etxeko langileak, ziren erradikalenak; industrializazioan sortutakoak edo beren egoera hobetu zutenak, artisau kualifikatuak eta kotoi ehuleak, moderatuenak. Azkenik, aldaketa ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ekarri zituen sistema liberalaren sendotzearekin, Industria Iraultzaren ondorio kaltegarrienak ezagutu ez zituztenen artean gero eta gehiago ziren sistemaren barruan nolabait gustura egon eta errealitate hura nola edo hala onartzen zuten langileak; hauek etorkizuneko tradizio “tradeunionista” batean proiektatu zituzten beren eskakizunak, sindikatu ekintzan alegia.

Kartismoak hondoa jo ondoren britainiar langileek alde batera utzi zituzten politikan parte hartze zuzena izateko asmoak, eta, gehienek, politikatik bereizita zegoen sindikatu ekintzaren aldera egin zuten. Kartismoaren porrotak berretsi egin zuen tradeunionismoaren pragmatismo tipikoa. Ondorio gisa atera zuenez, politika egiteko, alderdi politikoren batean aritu beharra zen nahitaez. “Urratsez urrats” delako estrategiari eutsi behar zitzaion, langileen eguneroko egoera hobe-

tuz eta aurrerapauso txikiak eginez etengabe. Iritzi horiek britainiar langileen mugimenduaren berezitasun ugarietako bat markatu zuten: alderdi liberalarekiko lankidetzeta, Alderdi Laborista XX. mendean sortu arte iraun zuena gutxienez. Bestalde, alderdi kontserbadoreen aldeko sindikalistak ere baziren. Berezitasun horren beste arrazioen artean hauek dira aipagarrienak: Industria Iraultzak, XIX. mendean zehar, eta Europako beste herrialdeetan ez bezala, Britainia Handian izan zuen bilakaera motela; britainiar burgesian sektore demokratiko indartsu bat izatea; langileen eskakizunetako batzuk onartzeko gaitasun handiagoa izatea; eta langileekin negoziatzeko jarrera irekiagoa zuen ugazaben klase bat izatea.

#### 4. Europako langileen asoziazionismoa

Langile elkarteek Britainia Handian, Frantzia eta Alemanian izan zuten bilakaera deskribatzen hasi aurretik, asoziazionismoa sendotzearekin batera gero eta garrantzi handiagoa izan zuen gertaera bat azpimarratu beharra dago: emakumea sindikatu mugimendutik aparte eta bazter utzi izana. Industrializazioa hasi zenean langile elkarteek ondo hartu zuten emakumea baina, prozesuak aurrera egin ahala, baztertu eta elkartetik landa utzi zuten. Horren arrazoia garbia zen gizonezkoentzat: emakume langilearen lansaria txikiagoa zen; beraz, enpresariak nahiago zuten emakumezkoak hartu gizonezkoak hartu baino. Horren ondorioz, gizonezkoen artean langabeziak gora egin zuten, eta lansariak behera, sindikatuentzat onartezina zena. 1860-1870. bitarteko urteak arte –XX. mendea arte askotan– sindikatuek ez zuten emakumezkoak onartu, edo gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide berdintasuna ukatu zuten bestela. Gizonezko sindikalista askok emakumeen lansaria gizonenarekin berdintzea eskatu zuten, emakumezkoak hartzeak onurarik ez zekarkiola komentzitu nahirik ugazaba. Emakumezkoari, lansari txikiagoa zuenez, nekezago zitzaion sindikatuko kuota ordaintzea eta, gainera, etxeko zereginek zirela eta, ez zuten sindikatuko gorabeheretan parte hartzeko aukerarik. Toki askotan emakumeek beren elkarteak sortu zituzten; elkarte horiek XX. mendea arte iraun zuten, alegia, sindikalismoak gizonezkoak eta emakumezkoak elkarte berean onartu zituen arte.

Oraindik orain, emakumezko historialari batzuek, emakumeak eta haurrak laguntza postuetan eta besteren mendeko postuetan kokatzen zituen klase kontzeptuaren sendotzearekin lotu dute kartismoa. Kartistek gizonezko orok botoa emateko eskubidea zuela defendatzeko erabiltzen zituzten argudioak daude historialari horien arrazoibidearen oinarrian. Kartismoa gogaide izango litzateke kontratu soziala gizonezkoek bakarrik sinatzen zutelara eta hartan haiek baino sartzen ez zirela zioen ideiarekin. Pentsaera hori onartzeak eragin handia izango zuen langileen mugimenduan bai eta langile klasearen bitzita sozialean ere.

Gizonezkoak izanik langile klasea babesteko ardura zutenak (langile klasea kontzeptu unibertsala izanagatik) emakumearen ongizatea gizonarenaren mende zegoen, eta kontsumoari nahiz haurren hazkuntzari zegozkion lanei –garai hartan emakumezkoaren zeregin nagusitzat hartzen zirenak– soldatako gizezko langilearen lanari ez bezalako eta haren azpitiko statusa ematen zitzaaien. Emakumezkoek oso lansari txikien truke lan egiteak gizezkoen ofizio batzuetan eragin zuen konkurrentzia krisi larria desagerrarazteko, zilegi izango zen emakumearen lan indarra kontuan ez hartzea. 1830. urtetik aurrerako urteetan, krisi horrek tirabira handiak sortu zituen gizezko eta emakumezko langileen artean, emakumeak sindikatuetatik iraitziak izateko punturaino. Erdi mailako klaseen idealen oso antzeko egiturak sendotzea ekarri zuen horrek guztiak.

Diskurtsu horrek langileriaren famili molde bat sendotzean garrantzi handia izan zuela onartzen bada ere, historialari gehienek aburuz, emakumezkoa lan mundura sartzeko moduetan askoz eragin handiagoa izan zuten bizirik irauteko estrategiak eta aurrerabidean zegoen kapitalismo industrialaren eskakizunak kartismoak eta honen pentsamolde sexistak baino.

#### 4.1. Britainia Handia

Industria Iraultzaren bidea urratzen lehena eta langileak elkartzeko moduetan aitzindari izan zen Britainia Handia. XVII. menderako langileen interesak babesten zituzten ofiziotako eta erresistentzia elkarteak baziren ere, XIX. mendea arte ez zen asoziazio egitura sendorik taxutu. Hala ere, aldi berri honen hasieran, sindikatu ekintzaren aurkako lege debekuak eman ziren, 1799 eta 1800. urteetako *Combinations Acts* delakoak esaterako. Sindikalismoaren gorakadari aurre egiteko sortu ziren lege horiek, eta langileen asoziazio mota guztiak eragozteko helburua zuten; hala ere, elkarren laguntzarako elkarteak iharduera zilegi izaten zen. Legeak benetan bete zitezkeen bultzatzeko sortu ziren legezko elkarteek ez zuten esespenik jasan, baina, aitzitik, lan baldintzak arautzeko sortu zirenak legez kanpokotzat jo ziren, eta halako epaiei aurre egin zietenean matxinada delituen artean sailkatu zituzten.

Xedapen hauek guztiak aurreko ehun urteetan helburu bera izan zuten lege zerranda luzearen osagarri baino ez ziren, lortu gabe hala ere. Lege horiek ez zuten eraginkortasunik izan, sistema judiziala geldoegia zelako lan arazoei konponbiderik emateko, ugazaba askok, tirabirak handitu ez zitezkeen, beren langileen aurkako salaketak jartzeari uko egin zizketelako, langileak mendean hartzea lortu ondoren batez ere, eta erresistentzia elkarte asko, legearen aplikazioa saihesteko, sorospen elkarte gisa ezkutatu zirelako. Baina legeak eraginkorrak izan ziren grebak amaiazatzen, lan baldintzak hobetzeko egin ziren eskakizun guztiak zapuzten, eta batez ere, fabrika langile berrien antolaketa eragozten, ez baitzen

Industria Iraultzan sortutako sektorerik, kotoi ehuleak izan ezik, 1820 ondoko urteak arte erresistentzia elkarterik sortu izan zuenik. Ehuleak salbuespen ziren. 1792an antolatu zuten Ingalaterrako fabrika langileen lehen sindikatua, ofizialki elkarren laguntzarako elkarte izan zena. Ehuleen sindikalismoa ofizioakakoaren parekoa zen, eta lansari hobea zutenez, zeukaten egoera horri eustea eta beren lanbidera iristeko sarbideak zorrozki zaintzea ziren beren interes nagusiak.

Asoziazionismoak, ia osorik artisautzan oinarritzen zenak, beste lege baten ondorioak pairatu zituen; delako lege horrek langile elkartei zuzenean eraso ez bazien ere elkarteon eraginkortasuna murriztu zuen. Izan ere, 1814an *Elizabeth V Act* delakoa indargabetzeak XVI. mendean gero lanbide guztietarako eskatzen zen zazpi urteko ikastaldia nahitaez egin behar hura desagertzea ekarri zuen. Legearen indargabetzea zela eta, enpresariak edozein pertsona har zezakeen lanerako, ikastaldirik egin gabe ere, eta lansari txikiagoa ordaindu gainera. Ikastaldia egitea beharrezkoa ez zenez, esperientziarik gabeko langilea lehia sartzen zen artisau kualifikatuarekin. Horren ondorioz, lansariak beheititu egin ziren, noski, eta artisauak, enpresariari presioa egiteko indarra urriagoa zenez, ofizioaren kontrola galdu zuten. Baina garrantzi handiko legea izanagatik hura, langile kualifikatuen eta kualifikatu gabekoen arteko ezberdintasunak ez ziren desagertu. Kontuan eduki behar da, legedia gorabehera, ikastaldia nahitaezkoa izan zela aurrerantzean ere lanbide askotan. Lanbide errazagoetan edo artisauak ondo antolatuta ez zeudenetan, legearen deuseztapenak kualifikatu gabeko langilea ez kontratatzeke babesaren arrastorik txikiena desagerrarazi zuen.

1800. urtetik aurrera helburu nagusi bat izan zuten langileek, *Combinations Acts* zirelako haiek indargabetzea. 1824an lortu zuten helburua, baina sindikalisten kartzelaldia edo odol isurtzea ere ekarri zuten mobilizazio, borroka eta presioen ondoren. Sindikatuak lege onartuak izatean Britainia Handia osoan hedatu ziren eta lan arazo handiko garaia hasi zen. Ofizioakako elkarte tradizionalak eta beste elkarte berri batzuek parte hartu zuten hartan, eta soldadak jasotzea lortu zuten, grebaren bitartez askotan. Handik urte batera, ugazabak eta agintariak eskakizun oldeen beldur zirenez, lege berri bat egin zen, langileei lansariak eta lanaldiak negoziatzeko eskubidea ematen ziena, baina beste sindikatu ekintza guztiak (grebak, e.a.) debekatzen zituena, asoziazioa lege kanpoko ekintzat hartuko zelako eta Australiara erbesteratuak izan zitezkeelako –egia zen– mehatxupean.

1825. urtean aldi berri bat hasi zen britainiar langileriaren historian. Handik aurrera sindikatuak modu agerian jokatzeko aukera izan zuten, nahiz eta muga asko jarri zitzaizkien. Egituraz ofizioakako elkarteak ziren oraindik ere, eta ekin-tzaren esparrua tokian tokikoa izatera mugatu zen. Ekonomiaren zuzperraldi batez baliatuak plazaratutako eskakizunetako asko betetzea lortu zen hazkunde

bizkorreko aldi labur baten ondoren, 1830. urte inguruko krisi ekonomiko larriak defentsazko jarrera hartzera behartu zituen sindikatuak, lehen lortutako aurrerapenetako asko galdu ondoren. Bestalde, sektore batzuek argi ikusi zuten beren ekintzaren esparrua zabaldu eta hartarako koordinatu beharra zutela, asoziazio berriak sortu behar zirela, bai leku bateko lanbide bereko sindikatu ekintzaren esparrua zabalduz bai toki edo eskualde bereko lanbide desberdineko sindikatuak elkartuz.

Gauza jakina zen tokian tokiko taldeen borrokak, bakoitza bere aldetik arituz gero, huts egingo zuela, ez baitzegoen hartarako behar adina dirurik, eta, aitzitik, arrakasta izateko aukera askoz handiagoa zela beste lanbideen laguntza lortuz gero. Pertzepzio hau langile klasearen prestakuntza eta sendotasuna handitu izanari zor zitzaion; sendotasun hau klase kontzientziaren garapenean, eta politikaren alorrera, eta batez ere lan eta gizarte alorretara zabalduetako erakundeetan agertu zen. Erakunde horiek, prentsa bera barne, jokabide kolektiboko langile kontzepzioak eta jarraibideak islatzen zituzten. Delako kontzientzia honek, pixkana-pixkana hedatuz joango zenak, ez zuen bere bilakabidearen une eta toki ezberdinetan molde bera hartuko.

Britainia Handiko lehen sindikatu nazionala kotoi ehuleena izan zen, langile kualifikatuen maila lortu zaharra ez zen sektore batean sortua 1829an. Batasunaren funtsa soldaten murrizketetatik defendatzea zen, eta nazio osoan, greba garaietarako dirua aurreratzea erabaki zen horretarako; halaber, mobilizazioak egin ahal izateko, gainerako barrutien oniritzia jaso behar zela erabaki zen. Ezarritako baldintza hori sekula betetzen ez zelarik, elkargoak bere fondoak berehala galdu eta, handik gutxira, desagertu zen. 1830. urtetik aurrera beste ahalegin batzuk egin ziren, Robert Owen-ek sustaturik, baina, aurrekoek bezala, huts egin zuten hauek ere, kualifikazio urriko langile masa handiak –landako langileak eta emakumeak barne– biltzea lortu ondoren. Owen-en eraginaren ondorioz hauen helburua Britainia Handiko produkzio bitartekoak langileen esku jarriko zituen greba orokorra egitea zela agerian bazegoen ere, hobekuntza zehatzak lortu nahiak liskarrak eragin zituen elkargo horietako sektoreen artean. Horrek guztiak gobernuaren eta enpresariaren jazarpena erakarri zuen: lanetik bota zituzten sindikatuko kide izateari uko egiten zitzaion dokumentua sinatzen ez zuten langileak; horrekin bukatu ziren ahalegin guztiak. Eutsi zioten bakarrak ofizioakako erakunde lokalak izan ziren.

Sindikatuaren batasuna lortzen huts egindako ahalegin horiek agerian utzi zuten botoa emateko eskubidea erdiestea zela aginpide politikoa iristeko bide eraginkorra. Langile askok, etxeko eskulangileak batez ere –ez ordea sindikatuek, erakunde gisa–, kartismoaren inguruan bildu ziren Industria Iraultzaren ondorio kaltegarrienak galarazi nahian.



Bien bitartean beste sindikatu mota batzuk sortzen ari ziren, beren ofizioari zegozkion interesak defendatzera mugatuz, politika ekintza saihestu zutenak. Besteak baino erosoago bizi ziren langileek osatzen zituzten sindikatu horiek, industrializazioaren ondorio txarrenak pairatzen ez zituztenek eta kapitalismoaren mezu ekonomiko batzuetara ohitzen ari zirenak alegia. Eliza protestante ez-konformista batzuen lanak, eliza metodistarenak bereziki, garrantzi handiko zeregina izan zuen aldaketa horretan, itzal handia baitzuen artisauen artean. Kongregazio horiek, moral asmoz, Biblia irakurtzeari eta norberaren esperientzien kontakizunari ematen zieten lehentasuna, elizarrak irakurtzen eta idazten ikastera behartuz. Horrek langileei antolatzen lagundu, eta aldi berean, ideologia moderatzea eragin zuen.

Mendearen erdialdetik aurrera ekonomiaren hazkunde bizkorra eta gorantzako ziklo bat hastea lagungarri izan zen joera moderatu honen zabalkundearen, 1830-1848 bitarteko urteetako depresio ekonomikoak Owen-en jarraitzaileek eta kartistek sustatuko mugimendu erradikalen zabalkundearen lagungarri gertatu ziren bezala. Erakunde sindikal haiek, ordea, lanerako sarbidea mugatzen jarraitu zuten ikastaldiaren kontrolaren bitartez; kapitalismoan merkatu libreko bazelako usteari uko egitea zen hau, bide batez esanda. Langileek lansari duina jasotzeko eta lan prozesuen gaineko nolabaiteko kontrola izateko eskubidea zutela defendatzen zuten, zehar bidez, sindikatu haietako askok; halaber, destajuan egindako produkzioaren kontra agertu ziren eta orduz kanpoko lanak mugatzen saiatu ziren.

Sindikatu eredu berri honek ekintza bide eraginkorra, kontrolatzeko modukoa eta arrisku handirik gabekoa eskaintzen zien langile kualifikatuei, eta askoz antolamendu handiagoa lortzen lagundu zuen. Mugimenduak baliabide ekonomikoak eskuratu zituen, eta horiei esker, denbora luzean eutsi ahal izan zion gertatu ziren gatazka bakanetan, soldatapeko langileak hartu ahal izan zituen eta bazkide multzo finkoa izan zuen. Horrek guztiak sindikalismoaren norabidea aldarazi zuen. Aurrerantzean, aldian-aldiko militante suharren eskuetan ez baizik eta administrazioan aritzeko gaitasunagatik hautatu ziren soldatapeko funtzionarioen ardurapean egon zen sindikalismoa. Baina, ordura arte langileen buruzagitzaren erdi mailako klaseko sindikatuzaleen esku egon bazen, buruzagi berriak langile klasetik ateratakoak ziren.

Orain, sindikatuaren zeregin nagusia mutualismoa zen, eriei, langabeei eta erretiratuei laguntzea, eta baita bere kideen artean elkarkoitasuna sustatzeko ekintzak bideratzea ere. Sindikatu lanari dagokionez, helburu jakinak, tokian tokikoak eta sektorekakoak hartu zituen honek: lansarien eta lanaldiaren defentsa, kontsumoko kooperatibak sortzea, e.a. Eta haren jokabidea, XIX. mendearen bigarren erdiko britainiar sindikalismoak ere ezaugarri izan zuena, enpresarien

eta langileen arteko negoziazio kolektiboan oinarritu zuen, alde batera utzirik, argi eta garbi, 1830. urtetik aurrerako hamarraldiko asmo orohartzaileak.

Elkarte horiek egoera hobereanean zeuden artisautzako langileek eta industrializazioarekin sortutako ofizio kualifikatu berriek osatu zituzten; azken hauen artean aipagarria da metalurgia modernoarekin sortutako langintza bat, mekani-koena. “Langile aristokrazia” honek langileriaren kultura berri baten sorrera eka-rrri zuen, “sumisiorik gabeko integrazioa”, “begirune” kontzeptuan laburbiltzen zena. Industria produkzioan zeukan pribilejiozko tokiari eustea zuen kezka nagusia. Izan ere, sindikatu berriek beren ohoregarritasuna eta berezitasunak azpimarratu zituzten haiek baino erradikalagoak ziren baina jarraitzaile eta baliabide ekonomiko askoz gutxiago zituzten langile elkarte tradizionalen aurrean. Bizitza publikoan aginte arauak, gizarte disziplina eta oreka nagusitzen ari zirelarik, gizarte nahasmendu jendetsuek gero eta toki gutxiago zeukaten. Grebek, manifestazioek eta legeen araupeko ekintzek lorkizun zehatzak erdiesteko aukera ematen zuten, buruz buru borrokatu beharrik gabe. Egoerara egokitzearen mintzaera tokia kentzen hasia zitzaion klase borrokaren mintzaerari, eta artisau bata-sun askok greben aurkako jarrera agertu zuten, edo erabili beharko litzatekeen azken eta ezinbesteko bitarteko irizten zioten lanuzteari. Baina grebari buruzko gaitzespen ofiziala ez zirudien, haatik, greba guztiak galarazteko gauza izan zenik, eta sindikalismo erreala lantokietan ekonomia kapitalistari buruz agertu zuen jarrera, ez zen langile elkarteen zuzendaritzaren diskurtsu ofizialarena bezain aldekoa. Londresko 1859ko eraikuntza sektorearen grebak sindikalismoa onartzen ez zuten enpresariak oraindik ere bazirela agerian uzteaz gainera, ofizio desberdinetako langileen arteko elkartasuna berpiztu zuen, eta gainera, bide eman zion koordinazioa gauzatzeko sortu ziren batasun elkarteei. Bederatzi orduko lanaldia sindikatuen zuzendaritzak hasieran onartu ez zituen gatazka askoren emaitza zen. Bazen, beraz, “sindikalismo ez-ofizial” bat ere, kapitalis-moaren ekintzari gogorrago egiten ziona.

1868. urtea arte ez zen ofiziotako sindikatu desberdinak hartzen zituen lehen egitura handi eta iraunkorra sortu, TUC zelakoa (Trade Unions Congress). Sindi-katu bateratuen arteko harremanak sendoagoak zirelako eta egoera hobereanean zeuden langileei botoa emateko eskubidea onartu (1867) zitzaielako sortu zen TUC. Haren orduko egiteko nagusia Legebiltzarrak langileen aldeko neurriak onar zitzan eta aurkakoak galaraz zitzan lortzea izan zen. Iharduera horren eta sindikatuen hazkundearen ondorioz –milioi bat bazkide baino gehiago 1871n–, langile elkarteak onartuak izan ziren. Lau urte geroago sindikatuei enpresari-aurkako ekintza oztopatzen zieten xedapen gehienak ezabatu ziren. Enpresariak eta langileak, kontratu zibil bateko eskubide berdineko parte bihurtu ziren biak, eta negoziazio kolektiboari legezkotasuna aitortu zitzaion.

Funtzionatzeko jarraibide hauek zirela medio, defentsa sare bat eratu zen, zuzeneko ekimen politikoa eta kualifikatu gabeko langileak baztertzen zirena; baina langileriaren kultura bat sorrarazi zuten, garai hartako burgesiaren kultura izan zitekeenetik bereizten zena, eta lanbidearen aldeko leialtasunaren eta klase elkartasunaren oinarri izan zena. Eredu horrek ordea ez zituen aintzat hartzen langileriaren sektore handiak, ikastaldi prozesua burutu ez zuten langileak baztertzeaz gainera elkarren laguntzarako elkarteek ere uko egiten baitzioten lansari finkoa eta moduzkoa ez zuten kideak hartzeari. Onartzen ez zituzten langile horiek beste elkarte batzuk sortu zituzten; elkarte horiek ere garrantzi handiko zeregina izan zuten 1880. urtetik aurrerako hamarraldiko krisi ekonomikoaren eta krisi horren ondorioz sindikatuaren mugimenduak izan zuen beherakada nabarmenaren ondoren britainiar sindikalismoan zabaldu zen aro berrian. Langile erakundeen atzerakada zela eta, gogortu egin ziren sindikatuen iharduera moderatuari buruzko kritikak, eta bizkortu haien baitako eraldaketa.

#### **4.2. Frantzia**

Beste herrialde batzuetan ez zen berezko industria langile klaserik eratu XIX. mendearen puska handi batean, eta elkarteen egitura sarea —elkarren laguntzarako elkarreetan, ofizioakako sindikatuetan eta denbora pasako elkarreetan oinarritua— ahula zen oso. Britainia Handiko ereduaren ez bezala, langileen eskakizunetatik asko, beste talde sozialenekin batera, politikara zuzentzen ziren, eta itxuraz iraultzaileak baziren ere, langileei ez zieten zuzeneko onurarik ekarri. Matxinada haietako protagonista ez zen fabrika langilea, ez baitzuen independentzia ekonomikorik ez astirik halako eginkizunetarako; prestakuntza bereziko langileak eta artisauak, kapitalismoaren aurreramenduak mehatxatzen zituen ekoizle erdi beregainekoak ziren protagonistak. Azkenik, aipatu behar da kontinenteko gobernuak errepresio bortitzagoa eragin zutela Britainia Handiko gobernuak baino.

Frantziako industrializazio eredu berezian nekazaritza giroko artisau produktioa eta bizimodu tradizionala ziren oraindik ere nagusi; industrializazio prozesuaren ezaugarri honek Frantziako langileen asoziazionismoaren bilakaera baldintzatu zuen. Hala, langile urriko artisau tailerrei eutsi bazitzaien ere, kapitalismoaren moldeak industriara zabaldu ziren, eta ondorioz, XIX. mendearen lehen erdiko fabriketako langileak bezainbateko gogortasunez esplotatu ziren orduan ere beharginak. Eskuz egindako produktu batzuen salneurriak behera eta lansari batzuek berriz gora egin zuten arren, lehentasun handieneko produktuen, eta batez ere, etxebizitzaren alokairuaren kostua zirela medio, oso baldintza kaskarretan bizi ziren langile gehienak.

Horregatik guztiarengatik Frantziako langileen mugimenduaren protagonistak Industria Iraultzak gogaitarazitako artisauak izan ziren. Industriaren aurrerabide goiztiarra izan zuten herrialde guztietan gauza bera gertatu bazen ere, gertaera horrek askoz garrantzi handiagoa izan zuen Frantzian, XIX. mendearen bukaera arte fabrika langile gutxi izan baitzen eta emakume eta haur asko baitzen soldatako artean (%30 baino gehiago 1847an).

Frantziako Iraultzak, askatasun politikoen errejimena ezarri arren, ez zuen askorik lagundu langileen egoera hobetzen. Aurrerabidean zegoen legezko merkatu ekonomiaren sorrerari artisauen antolabidea eragotzi zuen lege sail bat gehitu zitzaion. Iraultza ondorengo hilabeteetan langile elkarte batzuk sortu ziren, eta lanaldia murrizteko eta ogiaren salneurria merketzeko grebak deitu ziren. 1791. urtea arte iraun zuten gatazken ondoren, Le Chapelier legea onartu zen, 1864 arte indarrean egon zena, eta ekoizpen askatasunaren murrizketa ekar zezaketen langile (eta enpresari) elkarte guztiak debekatu zituen. Nolanahi ere, delako lege horrek, ezkerreko diputatuek ez baitzioten aurka egin, ez zuen galazari asoziazio molde batzuen aurrerabidea, baina eragozpenak jarri zizkion, noski, elkarte horien hedapenari. Napoleonen 1804. urteko Kode Zibilean erabaki zenaren arabera, edozein motatako lan arazoren aurrean nagusiari sinetsiko zitzaion.

Aginpidea indarrez erdietsi nahirik artisauek, errepublikarrek eta hainbat ezkertiarrek osatu zituzten erakunde erdi sekretuak, eta batez ere, *compagnonages* edo ofizio bakarreko ofiziale elkarteak izan ziren gehien zabaldu ziren organizazio ereduak. Azken elkarte hauek, jatorria Erdi Aroan zutenak, beren lanbidetako interesak defendatzeko eratu ziren, eta haietan erresistentzia elkartearen eta elkarren laguntzarako elkartearen ezaugarriak, biak batera biltzen ziren; 1860. urtetik aurrerako hamarraldia arte horiek izan ziren organizazio eredurik ezagunenak. Elkarte horiek, ez zitzaenez sekula legezketasunik aitortu, ez zuten gremioen erakundeak deuseztatzeko eman ziren legeen eraso nozitu. Hala eta guztiz ere, elkarteotako barne hierarkiak eta elkarteak aurrez aurre jarrarazi zituzten tirabirak zirela medio, *compagnonages* horietatik gero eta gehiago sorospen elkarte huts bilakatu ziren. Langileek, bizkitartean, mutualitateak sortu zituzten, lansariak murriztu nahian zebiltzan ugazaben ahaleginetatik babestea helburua eta grebak deitzeko adina ahalmen ere bazuten ofiziokako sindikatuak estaliz batzuetan. Bestalde, kooperatibak eratzeko saioak ere egin ziren, kontsumora bideratuak gehienbat.

Frantses langileen ahaleginik gehienak artisauen komunitatea berriro batzen saiatzeko eta produkzio prozesuaren gainean korporazio bidezko kontrol neurrien bat berritzeko egin ziren. Prestakuntza bereziko langile elkargoen moldeei, mintzaerari eta ikuspegiari eustean, langileek antolamendu oinarri sendoa zuten

beren protestak adierazteko, baina arrazoi berberetatik, aski mugatua zen langileek egin zezaketen protesta mota. 1830. urteko Uztaileko Iraultzatik aurrera baino ez zen egoera hori aldatzen hasi: Frantziako Iraultzako mintzaeran oinarritutako terminologia berria hartu zen, langileek herri burujabea osatzen zutela zioena, eta ofizioaren esparruaz haraindiko antolabideak zabaldu ziren, langile kualifikatuei lehentasuna ematean zeutatenak ordea, oraindik ere.

Lyongo “canuts” edo seda ehuleen 1830eko azaroko matxinada, nazioartean entzute handia izan zuena, erdibideko egoera bati zegokion artean. Ekonomiaren aldaketek eta seda ehungintzaren krisiak lansariak handitzeko eskakizun asko eragin zituen, gero eta handiagoa zen miseriari aurre egin nahiz. Azkenik, tailerreko maisuen zuzendaritzapean, greba orokorra egin zen produktuen gaineko prezioa beheititu zuten salerosleen kontra; gudarostearen bortxazko esku hartzeak gogor zapaldu zuen greba hura. Aitzitik, ofizio desberdinen arteko lankidetasuna ezaugarri izan zuen 1833. urteko greba sailak oso garbi erakutsi eta adierazi zuen klase kontzientzia berri bat, langileen elkartzeko eskubidea –Chapelier legeak debekatu zuena– eskatzen baitzuen bereziki. Beste eskabide bat ere izan zen, “tarifa”-ren eskakizunarena, lan eta soldata baldintzak finkatuko zituen kontratu kolektiboaren beharra aldarrikatzen zuenarena, alegia. Frantses gobernuaren 1834ko udaberriko errepresioak suntsitu zuen lehen mugimendu hura. Baina, 1840tik aurrera berriro sortu zen mugimendu hori, diskurtsu sozialista garbiagoarekin, jarraibide teoriko bakarrekoa ez bazen ere.

1848an, iraultza giroa zegoelarik Europa osoan –giro horren eragileak desberdinak baziren ere–, Frantziako langile elkarteek beste aukera bat izan zuten beren ideiak aditzera emateko eta gauzatzen saiatzeko. Aurre-aurreko urteetan, bizikari krisiak eragin zuen salneurrien gorakada handiaren ondoren lehertu zen matxinada. Herriaren haserreka ekarri zuen egoera hura, Orleans dinastiako erregeen aurkako jarrera gogortzearekin batera gertatu zena, matxinadaren ongari gertatu zen. Gobernu berria burgesiako sektoreen ordezkari bazen ere, langile taldeen ordezkariak ere baziren bertan. Hauek bi egiteko nagusi bete zituzten: batetik, langintzen araberrako elkarteak eratu zituzten, gero Luxenburgoko Bartzordean bateratu zirenak, eta bestetik, langabe ugarien egoera hobetzeko, Tailer Nazionalak sortu zituzten, Louis Blanc-ek horretan garrantzi handiko esku hartzea izan zuelarik. Erakunde horrek, burgesiak era horretako ekimenei egin zien oposizioagatik, oso gutxi iraun zuen. Tailerrak itxi zirenean greba egin zen Parisen, eta noski, mugimendua gogorkeria handiz zapalduz eta milaka pertsona hilez esku hartu zuen gudarosteak hartan. 1848ko mugimendua bi talderen arteko gatazka izan zen: ekoizle txikiak eta langileak alde batean eta lurjabeak, bankariak eta salerosleak bestean.

Berriro garaituak izatean desegin egin ziren langile elkarteetako asko, eta elkarren laguntzarako elkarte gisa baino ezin izan zuten iraun, baina hirietako langintza kualifikatuetan garatutako sozialismo industrial federalista baten langile idealak Komunaren sorrera arte iraun zuen. Nolanahi izanda ere, 1848tik aurrera, argi eta garbi bereizi ahal izan zen langile diskurtsu bat, burgesia txikiaren pentsabide errepublikazale edo demokraziaazalearenetik ordurako urrunda. 1860. urtetik aurrerako hamarraldia, industriaren eta soldatako langile kopuruaren hazkuntza bizkorra ezaugarri izan zuena, greba egiteko eskubidea onartua eta, Napoleon III.aren aldetik, Le Chapelier legea indargabetua izatearen lekuko izan zen. Langileen arteko koalizioak ez ziren gehiago legez zigortutako delitu. Xedapen horiei esker era guztietako langile elkarteak sortu ziren berriro, kooperatiben eta erakunde politikoen, bien hala bien izaera zutenak. Lanpostu kopurua gehitu eta soldata errealak goratu zituen koiuntura ekonomiko on hartaz baliaturik, elkarte berrien eskakizun nagusia lanaldia hamar ordutara murriztea izan zen, lansaria murriztu gabe.

1870an, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerran, frantsesak Sedango guduan galtzaile zirelarik, Frantziako gudarostea bahitu zutenean, beste matxinada bat lehertu zen. Soldatakoek, beregaineko langileek eta burgesia txikiak osatutako koalizioak –herriaren eta proletarioaren erdi bidean kokatuak– Parisko Komunaren aldarrikapena egin zuen. Parisko orduko egoerak, setiaturik eta barrikadekin, langileen aldeko ekimenak hartzen lagundu ez bazuen ere, aho batez onartu zen Komuna langile mugimendua protagonista zuen ekintzatzat. Komunaren bi hilabeteko bizialdian hartu ziren neurrien artean hauek dira aipagarrienak: denentzat soldata berdina ezartzea, Eliza eta Estatua bereiztea, doako irakaskuntza onartzea, eta bertan behera utzitako tailerren eta fabriken kontrola jabeen eskuetan egotetik langile elkarten eskuetara aldatzea. Marxentzat bat-bateko iraultzak bereizgarri izan zituen europar langile mugimenduaren lehen aldiaren amaiera ekarri zuen Komunak. Frantziako gudarosteak –matxinada hari akabera eman ziezaion alemaniarrek askaturik–, zapaldu zuen mugimendua, Paris porrokaturik utzi zuten gatazka odoltsuetan. Hurrengo urteetako bereizgarriak komuneroen aurkako esetsaldiak eta amnistiaren aldeko eskabideak izan ziren; 1880an lortu zen amnistia.

1884an elkartzeko eskubidea berriro onartu ondoren berpiztu zen sindikatu mugimendua, beste oinarri batzuekin (langile alderdiek berriz –asko eta askotariakoak–, legezkoak izaten jarraitu zuten denboraldi horretan zehar). Langile abangoardia berriak 1870eko errepresioa eragin zuen estatu agintaritzari susmo txarra hartuarren, langile askok men egin zion errejimen errepublikarrari, sistema irekiagoa ekarri baitzuen, gizonetakoen sufrajio unibertsalean oinarritua, lan legedi hasi berri batekin, eta antiklerikalismoan eta Frantziaren ustezko eginbide zibili-

zatzailean oinarritzen zen kultura eta ideologia erakarmen handiarekin. Horrek eta bizi maila handitu izanak, langile klasearen izaera desberdinak, eta ugazabekin begirunezko jokabideak izateko ohiturak bizirik irauteak autonomiaz ihardutea galarazi zien langileei. Hala ere, langileriaren sektore batzuek eta besteek jendea mugiarazteko gaitasuna erakutsi zuten, frantses burgesia matxinada suntsitzaile baten arriskuaz beldurtzeraino. Langileen nahikundeak asebetetzeko gauza ez zen lan legedia, artean oso handiak ziren gizarte mailen arteko desberdintasunak eta gero eta bizkortasun handiagoko produkzio erritmoak izan ziren mobilizazio horien eragileak. Horren guztiaren ondorioz, industria arazoak, eta Estatuak zuen zereginari buruzko fidagaiztasuna, Komunaren zapalkuntzaren ondoren handi samarra zena, areagotu egin ziren. Artisauen erretorika berezaleari klase elkartasuna gailendu zitzaion. Hala ere, debekualdi luzea, ugazaben ezin amore emana eta langabe kopuru handia sindikatuen ahulgarrri gertatu ziren, mendearen hondar urtetan. 1894an, hala ere, agertzen hasia zen Frantziako sindikatu mugimenduaren bereizgarri nagusietako bat izango zena, langileen autogestiorako sozialismoaren aldeko jarrera, alegia, marxistek bultzatzen zuten sozialismo estatistaren kaltetan.

### 4.3. Alemania

Ageriko desberdintasunak izan zituen Alemaniako kasuak Frantzia eta Britainia Handikoetatik. Batetik, Alemaniako industrializazioa beste herrialdeetako baino geroago hasi zen, baina, erritmoari dagokionez, askoz bizkorrago joan zen. 1860an batez ere nekazari giroko gizartea zenak, 1914rako Britainia Handiak adina industria edo hark baino gehiago zuen. Maisuen eta ofizialeen arteko desberdintasunak oso handiak baziren ere, gremioen sistemak denbora gehiago irauten zuen, eta 1880-1890 bitarteko urteetaraino, artisau eta etxeko langile gehiago zegoen fabrika langile baino. Gremioen eskubideak ezabatzekeo prozesua XIX. mendearen lehen urteetan hasi zen arren 1869. urtea arte ez zituzten erabat deuseztu. Bestetik, abiapuntuak elkarrengandik desberdinak ziren, langile elkarten aurkako debekuak eta errepresioa frantsesen edo ingelesen kasuan baino gogorragoak izan ziren, eta elkarteak eratzeko joerari dagokionez, batez ere elkarren laguntzarako elkarteak –jendearen biltoki eta ikastegi gisa ere erabili zirenak– eta kredituko eta kontsumoko kooperatibak eratu ziren Alemanian, berariazko sindikatu erakundeak baino gehiago.

1869. urtea arte ezin esan daiteke Alemanian sindikaturik izan zenik; artisau kualifikatuen elkargoak ziren. Ahal izan zuten denbora guztian artisautzaren baloreei eutsi zieten elkargo hauek, baina britainiar ereduak ez zituen bi ezaugarri nagusi zituzten: Alemaniako elkargoek Britainia Handikoek baino gehiago nozitu zuten industrializazioa, eta haietako asko harremanetan zeuden alderdi politiko sozialistekin, liberalekin eta baita katolikoekin ere. 1848az gero sortu

ziren lehen elkargo orokorrak. ADAk (Alemaniako Langileen Anaiarte Orokorra), langile eta artisau elkarteak, sindikatuen eta beste talde batzuen arteko federazio aldaberrak, gogor egin zuen kooperatiba bidez laguntzeko ideiaaren alde, garrantzi handia eman zion heziketari, askapena lortzeko bide gisa, eta batzuetan, grebaren alde egin zuen.

1860. urtetik aurrerako hamarraldian eta 1870. ondoko lehen urteetan sendotu zen langileen mugimendua Alemanian. Nekazari giroko etxeko langileek edo hirietako industria modernoaren sortzaile izan zirenek ez zuten elkartzeko joerarik edo erantzun bat antolatzeko adina indarrik, baina oraindik bizirik zeuden artisau kualifikatuen elkarteak jarraibide izan ziren haientzat. Sektore horrek, askatasunaren galera zekarkion industrializazio prozesutik babesteko, prozesu honi aurre egin izanak sozialisten teoriaren oinarri zen kapitalaren eta lanaren arteko aurkakotasunak bezainbesteko eragina izan zuen beharbada langileen mugimendua eratzekoan.

Britainia Handiko ereduarekiko desberdintza nagusia Alemaniko elkarteetako gizarte osakeran eta ideologia sozialistan zetzan, prestakuntza bereziko alemaniar fabrika langileak XIX. mendearen bukaerako eta XX.aren hasierako langile mugimenduaren bizkarrezur bihurtu baitziren, eta mugimendu berriaren aldetik, banakako langintzaren esparruaz haraindi jo eta langile klase osoaren ordezkari izateko joera nagusitu zen. Mugimenduak jarrera erradikalagoa hartu eta liberalerikiko harremanak hautsi zituen (Britainia Handian, berriz, XX. mendearen bigarren hamarralditik aurrera gertatu zen prozesu hori); hori horrela gertatu izanaren arrazoiak hauek dira: germaniar liberalismoa ahulagoa izan zen; industrializazioaren erritmoa bizkorragoa; ugazabek, elkarrekin oso koordinazio estua zutela, ez zuten sindikatuarekin negoziatu nahi izan, eta irtenbideak alor politikoan bilatzera behartu zituzten haiek; eta azkenik, estatuak jokatu zuen papera.

Alemaniako langile mugimendua beste herrialde batzuetakoa baino askoz atxikimendu handiagoz eta klase elkartasun handiz eratu bazen, langileak mailen arabera bereiztea arbuiatzen zuen marxismoaren eraginagatik, soldatako langilearen eta kapitalaren arteko aurkakotasuna handituz mailaketa horiek arian-arian ezabatzen zituen kapitalismoaren ihardueragatik, eta langile masa handiak ezaguri bereko auzotan biltzen zituen Alemaniako industrializazio eta hirigintza eredu bereziagatik ez ezik Alemaniako estatuaren ekintzagatik ere eratu zen neurri handi batean. Alemaniako XIX. mendeko estatua langile kualifikatuen antolamendu kolektiboa hausten saiatu zen, sindikatu berriak tradiziozko oinarri harrezaten galaraziz. Bigarrenik, gremioen sistemari denbora luzean eutsi zitzaion arren, gobernuak maisuen aldeko jarrera hartu zuenez gero, ofizialeek ez zuten gremioen arauak eusteko gogo berezirik agertu; hortaz, alemaniar sindikatuak laster samar eraldatu ziren langintza bateko baino gehiagoko erakundetan, solda-



takoentzat bakarrik, beregaineko langileak bazter utzirik. Aipatzekoa da, nolainahi ere, sindikalismo sozialdemokratak, klase elkartasuna aldarrikatu arren, langile kualifikatu edo prestakuntza berezikoen ordezkari izan zela gehienbat; kualifikatu gabeko langileak, emakumeak, etxeko zerbitzu langileak eta nekazaritza giroko langileak mugimendu hartatik landa geratu ziren.

Gizarte legediari buruzko egitasmoak desberdintasunik egin gabe aplikatzea edo burgesiak eta Estatuak eskulangile taldeen artean bereizketarik egin gabe jokatzeko lagungarria izan zen langileen arteko elkartasuna –elkartasun hori beste klaseetatik bereizita dagoen talde gisa ulerturik– sendotzeko. Hala ere, aintzat hartua zen burokrazia eraginkor bati esker, alemaniar gizarteak industrializazio aurretik estatuaren alde agertu zuen joera indartsuagoa zela bide, burokrazia eredu haren eragina lagungarria suertatu zen alemaniar langile mugimendu berezi bat sortzeko; mugimendu hura, jendetsua baina ez oso iraultzailea, langilea egoera ekonomikoa hobetzean kezkatu zuen zeukana, estatuak ekonomian esku har zezan ahalegindu zen. Mugimenduaren hazkunde nagusia 1890tik aurrera gertatu zen.

Beraz, lan merkatuaren garapenaren atzerapena eta Europako herrialde industrialetako langileen abiapuntu desberdinak gorabehera, herrialde horiek erabili zituzten antolabideak antzeko samarrak izan ziren azkenean. Datorren gaian ikusiko dugunez, marxisten eta anarkisten teorigintzak Europa kontinentalean izan zuen pisu handia da beharbada Britainia Handiarekiko desberdintasunik handiena.



## 2. Gaia

# Langileen nazioarteko erakundeak eta gizarte ekintza katolikoa

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. LANGILEEN NAZIOARTEKO ELKARTEA
3. II. INTERNAZIONALA
4. GIZARTE EKINTZA KATOLIKOA

### Kontsultarako liburuak

- Cole, G.D.H., *Historia del Pensamiento Socialista.*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1974 (4 liburuki).
- Haupt, G., *El Historiador y el movimiento social*, Siglo XXI, Madril, 1986.
- Pazos, A. (Koord.): *Un siglo de catolicismo social en Europa 1891-1991*, Eunsa, Iruñea, 1993.
- Perez Ledesma, M., «El proletariado revolucionario y las “revoluciones proletarias”», *Zona Abierta*, 36-37, 1985, 107-127. orr.



## 1. Sarrera.

Klaseen eratze astitsuari eta horien eskualdeka eta lurraldeka antolatzeari, ekonomiako alor batzuk ere gero eta mundu mailara hedatzenago zihoazen eran, klase interesen arabera nazioarteko taldeetan eratzea jarraitu zitzaien. Erakunde berri horiek zirela bide, langileek hainbat herrialdetan gizarte eta politika gaietan irizpide bateratuz parte hartzeko aukera izan zuten –dirudienez, jabe-  
dunei aurrea hartu zieten horretan–. Eta horrela, historiak izan duen organizaziorik garrantzizkoenetako bat eta herrialdeetako gorabeheretan ere eragin erabakiorre-  
ko bihurtu zen Internazionala. Nahiz eta langile guztiak eta gehiengorik ere orga-  
nizazio horretan sartu ez, kideetara baino areago zabaldu zen horren eragina, eta  
gizarteko hainbat sektore ere erreakzionatzera behartu zuen.

Hain zuzen, ingurune horretan kokatzen da Elizaren eta kristau sindikatuen  
eginbidea, bere lorpen, hutsegite, akats eta guzti hainbateko garrantzia izan  
zuen ere. XIX. mendea arte mundu guztian zabaldurik zegoen eta, munduari  
buruz ikuspegi orokorra zeukan erakunde bakarra Eliza zenez, horrek sartu behar  
izan zuen sozialismoarekin lehian, eta arreta handia eskaini behar izan zion lan-  
gileria-egoerari, ezen langileek gero eta kasu gutxiago egiten baitzieten  
horren aginduei. Leon XIII.aren *Rerum Novarum* entziklikaz gero nahikoa ain-  
tzat hartua izan zen Eliza langileei eta lanari zegozkion gaietan, aurreratzen  
zuten proposamenak teoriarik kapitalismoa ordezkatzekoak ziren arren.

Aipatu diren fenomeno horiek ondorengo bi faktore hauetan dute iturria:  
kapitalismoaren eraginez (bera ere aldatuz) klaseari buruzko iritzia ere aldatu  
izanean, batetik, eta bestalde, langileek, zegoen gizartearen, ekonomia antolake-  
taren eta politikaren alternatiba beraiek zirelako kontzientzia, gero eta garbiago  
edukitzean. Bigarren fenomeno horretan, beren independentzia apurra galtzeko  
beldurrez kapitalismoari (sistema gisa harturik) aurre egin zioten langileek ez  
ezik –makismoaren aurka zeuden ludistek eta cartistek– sistema horren barne-  
an beren egoera hobetu eta hainbat eskakizun eta negoziazio bideratu zituzten  
langileek eta zenbait ideologiak ere (sozialismo utopikoak, marxismoak eta anar-  
kismoak) izan zuten eragina. Bestalde, ideologia horien garapenean zerikusi han-  
dia izan zuten langileek beren miseria zuten sentitzeko erak eta, batez ere, eko-  
nomia soilaren gainetik zeuden beste psikologia eta moral mailako hainbat eska-  
kizunek: tradiziozko ohiturek, zuzentasunak, independentziak, segurtasunak, e.a.

1800-1850 bitartean, sozialismo utopikoaren barneko joerak izan zuten inda-  
rrik handiena langile organizatuen artean, Frantziakoan eta Britainia Handikoan  
artean, batez ere. XIX. mendearen erdialdetik aurrera, ordea, joera horiei beste  
batzuek hartu zieten aurrea, zeren erreformistak (gehienak behintzat) oso teori-  
koak (Frantziakoan batez ere, langileen munduarekin harreman gutxi zutela-

ko) eta eginbidez moderatuak baitziren (grebaren kontrakoak); horrez gainera, beste ideologiaren erresistentzia hobeto baitzegokion industrializazioa hedatu ahal langileen gain handiagotuz zihoan esplotazioari. Ugazabekin konpondu ahal izateko aukerarik ez zutela ikustean are hizkera politiko erradikalagoa hartzen hasi ziren langileak.

Kapitalismoaren kontrako joera berrietan marxismoa bereizi zen gehientxeon. Marxismoa errealitatea aztertzeko metodo bat eta egitasmo politiko bat zen aldi berean. Marxek (1818-1883) eta Engelsek (1820-1895) errealitatea bere osotasunean azter zezakeen sistema bat aurkitu nahi izan zuten, horren arabera historia interpretatzeko era berri bat eta ekonomiari buruzko teoria berri bat osaturik gizartea aldatu ahal izateko gero. Sistema horrentzat, lana zen gizonaren bizitzako ardatza, eta lan emaileen eta langileen arteko harremanen arabera bereizten ziren gizonaren historiako aldiak eta produkzio moduak. Produkzio modu horien barneko klaseak produkzioan zuten lekuaren arabera zeuden elkarrekin kontrajarriak. Klase borroka zen giza eginbidearen eragilea, eta borroka horren ondorioaren baitan gertatzen zen produkzio modu batetik besterako aldaketa.

Marxisten arabera, produkzio modu kapitalistaren eraginez sortutako industrializazioak klaseak bitara (burgesia proletargoa) biltzea ekarriko zuen azkenean. Artisauak gero eta behartsuago bihurtuko ziren eta orduan eta aldeko langile gehiago izango zuen proletargoak. Aldekorik gehieneko klasea proletargoa izango zen, beraz; eta horrez gainera, iraultzarik egin gabe askatasunik ere lortuko ez zuenez eta hori eginda ezer galduko ere ez zuenez, bera bihurtuko zen klase iraultzaile. Horrek esan nahi zuen gizarteko errazionaltasun guztia beregain hartu beharko zuela, eta horrekin gizarte osoaren askatasun bilakaraziko zuela bere askatasuna.

Gizartearen eta gizabanakoaren interesak elkarrekin egokituko zituen eredu sozial bat (komunismoa) ezartzea zen sistema horren helburua. Hori egiteko, ordea, jabetza pribatuak eta kapitalismoak bidean jarritako oztopoak, eta batez ere langileak eta kapitalistak ere hartuta zeuzkan alienazioa kendu beharko zituen. Marxistentzat, gainbalioaren ondorio bat, produkzioaren jabeak langileari, egiten zuen lanaren parte bat kentzeko prozesua, zen alienazioa. Hori bera, gauza baten edo makina baten pareko gisa hartzen zen, produzitzen zuena bezalaxe. Langileak ez zuen produkzioaren kontrolik, ez produzitzen zuenaren zertara-norakorik, eta bere burua alienatua aurkitzen zuen, gainera, produkzioeko lan horretan, zeren gainetik ezarria izanik, eta bere buruaren kalterako egiten zuela, ez zion ateratzen inolako gozotasunik.

Teoria horiek *Manifestu Komunistan* iragarrita zegoen eginbide edo praxis iraultzailea zekarten ondorio gisa: teoria horien arabera borroka bat bera zuten munduko langile guztiek eta ezin komunismorik ezar zitekeen lurralde kapitalistarik zen bitartean. Premisa horrek internazionalismo proletarioa zekarren nahitaez. Langileen borroka ezin zitekeen hobekuntza sozioekonomikoak lortzera bakarrik mugatu, gizartea erabat berritzea ere beretikoa baitzuen borroka horrek. Eta azkenik, langileen borrokak borroka politikoa izan behar zuen, eta langileen aldeko alderdi politikoek gidatua.

Anarkismoak ez zuen horri aurre egin ziezaiokeen corpus teoriko landurik eta bateraturik; aldiz, joera horretako ideologoak bat zetozen aginpidea, jabetza pribatu eta Estatua gaitzeste kontuan. Gizarte aldaketak era espontaneoan eta zuzenean egina, herriaren ekintza oinarri zuena eta alderdi politikoen bitartekotzarik gabea izan behar zuela zioten, bestalde. Joera horien aldeko sektorerik gogorrenek ez zuten sindikatuak sortzerik ere onartzen. Anarkisten eta marxisten arteko konpenezina eragin zuten jarrera horiek. Proudhonen (1809-1865) eta Bakuninen (1814-1876) aldekoen artean ere izan ziren tirabirak eta zatiketak, lehenengoak gogorkeriarik gabeko anarkismoa, elkarre mutualistetan eta kooperatibetan oinarritua, defendatzen baitzuen, eta besteak, gizarte berri bat eratzez gero aurrena kapitalismoa desegin behar zela aldarrikatzen, berriz; honen iritzian, iraultza bera ere langileak eta beste sektore zapaldu guztiak elkarturik eta zuzeneko ekintzen bidez egin behar zen, greben, boikoten, sabotaien eta abarren bidez, alegia.

## 2. Langileen Nazioarteko Elkartea

Langileen Nazioarteko Elkartea (LNE) –*Asociación Internacional de Trabajadores (AIT)*– izan zen herrialdeetako langileak elkarrenganatzeko lehena. 1864ko irailean, Londresen, sortu zen elkarre hau, Britainiar sindikalistak, frantziar mutualistak –ez denak– bat egitean; horiei poloniar, alemaniar eta italiar etorkinak elkartu zitzaizkien. Langile mugimenduak 1848ko krisialditik burua jasotzea lortu zuenean agertu zen LNE (AIT), urte horren ondorengo gizarte eta politika mailako baretasunak egokiera eman baitzuen langileei errepresioaren ondorioak gainditzeko, militante kopurua handitzeko eta bizi baldintzak hobetzeko.

Gizabanakoz osatutako elkartea izan zen I. Internazionala, harik eta Marxek Estatutuak idatzi eta eskualdekako sekzioetan eta herrialdekako federazioetan antolatu zuen arte. Marx bera izendatu zuten elkarre horretako Kontseilu Orokorreko lehendakari. LNEren urteko Batzarrak eta Kontseilu Orokor horrek osatzen zuten I. Internazionalaren organo gorenak. Elkarrean zuten itzalagatik eta

herrialde mailako langile mugimendu baten ordeztako ez zelako hautatu zuten Marx kargu horretarako. Jarrera moderatua hartu zuen hasieran, frantziarrekin eta britainiarrekin tirabirarik izan ez zedin. Baina argi utzi zuen langileriaren askatasuna lortu nahi bazen aginpide politikoa hartu beharko zela.

LNE oso geldiro hazi zen lehen urteetan. 1867tik aurrera, ordea, zegoen krisia, horrek eragin zituen grebak eta beste langile protestak medio, besteak beste, Italian, Alemanian, Estatu Batuetan eta Suitzan ere hainbat sekzio sortu eta hazte handia izan zuen. Kooperatiba egiturako elkarte asko sortu zen Suitzan, eta I. Internazionalak lagundu egin zien, zeren, arazo soziala konpontzen ez zuten arren, langileen bizimodua hobetu bederen egiten baitzuten.

Elkartearen pentsabidea eta estrategia eztabaidatu ez ezik langileen bizi eta lan baldintzak aztertu ere aldiro egiten zuten I. Internazionalaren kongresuetan. Bide horri jarraitu zitzaizkion 1866ko Genebako kongresuan ere, baina oraindik aurrerago jo zuten horretan, zeren emakumeen eta haurren lana eta prezioen eta soldaten egoera aztertu ondoren, ordura arte nazioarteko kongresuetan egin ez zen gauza bat, eguneko lanaldia 8 ordutan finkatua izan zedin eskatzea eginbidean sartu ere egin baitzuten.

Zelako *factory system* hura erabat sendotu baino lehen sortu zen I. Internazionala; hainbat langintzarako ordeztariz osatua izatea zen elkarte horren ezaugarri nagusietako bat, hain zuzen ere, krisian zeuden ofizioetako kideak, Britainia Handikoak, langintza tradizionalak, Frantziakoak, artisauak eta erlojuleak eta, –salbuespen bat, horiena– Belgikako industria berrietako proletarioak ere kide baitziren. Bazen langintza libreetako hainbat sendagile eta abokatu pentsakeraz jarrera erradikal horiekin bat zetorrenik ere. Ideologian ere bazen aniztasuna: Proudhonen jarraitzaileak (hautakoak ziren gehienak Internazionala sortu zenean), Britainiar sindikalista moderatuak, cartistak, marxistak, Bakuninen jarraitzaileak eta beste hainbat talde txikiago. Anarkistei dagokienez, langileak artisautzako eran eta era tradizionalan antolatuta zeuden gizarteetan izan zuten horiek indarririk handiena, Europako hegoaldekoetan eta baita ere, Suitzan bezala, indibidualismorako joera handia zen eskualdeetan. Aldiz, industria gehien zabaldua zegoen eskualdeetan izan zuen marxismoak indarririk handiena, Britainia Handiak honetan ere uharte gisa jokatu zuen arren.

Elkarte horren sorrerak kezka handia sortu zuen lurralde batzuetako eta beste-etako gobernuetan, eta bertatik hasi ziren horiek hura zapaldu nahian, nahiz eta zuen fama handiagoa izan, langileak antolatzearen gaitasunaz, zituen kide kopuruaz eta zeraman eginbidez zegoen baina. Greba asko egin zen garai horretan LNEk (AIT) haietan eskurik eta kontrolik ez zuela. Grebak ugaltu, ordea, hein batean bederen, grebazaleek horren diru laguntza espero zutelako



ugaldu ziren. Gisako laguntzarik ezin eskaini zenez eta Proudhonen jarraitzaileen jarrera grebaren kontrakoa zenez, behin baino gehiagotan eskatu zien LNEk langileei bakean egoteko. Guztiarekin ere, 1869rako hasia zen Austriako gobernua bere mendeko lurraldeetan elkarte hori esesten, eta Europako beste gobernuek ere jarrera bera izan zuten Parisko Komunaz (1870) gero.

Gobernuen jarrera horri, LNEren barruan marxisten eta anarkisten artean zegoen borroka, garai hartan “autoritate zale eta autoritatearen kontrako” esaten zitzaienena eta, ordura arte internazionalismoaren izenean kanporatu gabe eduki zutena, are gogorrago bihurtzea gehitu zitzaion. Borroka horretan, izan zezakeen eragina txikiago bilakatzea besterik ez zuen lortu LNEk. 1867. urtea erabakiorra izan zen LNEren barnerako, zeren, greba langileentzat tresna baliagarria zela onartzea eta langileen aldeko legeak egin zitezela eskatzea zirela bide, marxistak garaile irten baitziren Proudhonen jarraitzaileen kontrako lehian, baina aldi berean, Marxen eta Bakuninen arteko borroka ere sortu baitzen. Marxisten eta bakuninisten artean hiru eratako konponezinak zeuden: estrategia mailakoak (marxistek erreformazko bidea, sozialismora iristeko, gero eta planteamendu moderatua-goak eta baketsuagoak; bakuninistak, berriz, iraultzako bidea); organizazio mailakoak (marxistak, alderdi politiko legezkoen alde; bakuninistak, federazio egiturako sindikatuen alde); eta gero sortuko zuten gizarte berriari buruzkoak. 1871n, alderdi politiko legezkoak sortzea erabaki zuen I. Internazionalak, hori sozialismorako bidean aurrera pauso bat ematea zela eta, baina handik urtebetera elkarte bi zati egitea besterik ez zuen lortu horrekin, anarkistak irten (bota, diote anarkistek) egin baitziren elkartetik. Ingeles sindikatuak utzi berria zuten, jarrera erradikalegia zuela iritzita. Urte berean, 1872an alegia, I. Internazionalak Londrestik New Yorka aldatu zuen bere egoitza. Izatez, elkarte deseginda zegoen zegoeneko, baina ez zuen Filadelfiako kongresura arte (1876) hala erabaki.

LNErekin iritsi zuten langile mugimenduaren eratze prozesuak eta langileen klase kontzientziak gailurra; klase kontzientzia izate horrek ez zuen, ordea, iraultzaile kontzientzia ere bazutenik esan nahi. Klase kontzientzia zabaltze horretan, zituzten bizi baldintzak gero eta txarragoak zirela jabetzeak baino garrantzi handiagoa izan zuten beste faktore batzuek, zituzten baldintza horiek beste garai batzuetakoekin edo gizarteko beste talde batzuenekin alderatzeak, horiek eta eguneroko borrokako esperientziarekin erlazionatzeak eta klaseko ideologien ekintzek, esate baterako.

Ez zegoen I. Internazionala, batik bat, industriako langileen artean oinarritua, bere buruaz zuen iritziaren eta bere diskurtsu gogor iraultzailearen arabera bestela bazirudien ere; batez ere industrializazioari aurre egin nahi zioten artisauetz osatua zegoen baizik. Marxistek iraultzaren goreneko eragile eta klaseko esperientziaren eta kontzientziaren jabe zen langile talde gisa definitzen zuen prole-

targo horrek ez zuen gizartean estatus zehatzik. Marxek eta Engelsek ere nahiko definizio zabalak eta zehaztu gabeak egin izan zituzten proletargoari buruz, soldatapeko guztiek osatzen zuten batasun gisa, batzuetan, baina industria handiarekin batean sortutako eta industriako makinetan lanean aritzen ziren langileen multzo gisa, sarriagotan. Definizio horren arabera, XX. mendea aurreko Europako langilerik gehienak proletarioen taldetik kanpora geratzen ziren. Ez da, bada, horien eta kapitalista sistema erabat garatuan hazi izan ziren proletarioen kontzientzia desberdina izatea batere harritzekoa.

Biek ere ez dute uste den adinako protagonismo izan egin diren iraultzetan. Zenbait historiagilek protagonismo horri buruz egiten duen analisiak nahikoa idealista dirudi, eta dagoen krisiaren aurrean mundu aurreratu honetako langileek hartu izan dituzten jarrerak ikusita, horiek sistema kapitalistan zer eginkizun duten edo, garaile irten duten iraultzak, marxistek eta anarkistek planteatuak, Europako gizarte industrialei zegozkienak ala gizarte atzeratuei zegozkienak ziren, egiteko galderak dira. Parisko Komunaz gero, beste 50 urte inguruan, ez zen aintzat hartzeko bezalako iraultza saiorik izan. Eskakizun partzialak eta zehatzak lortzea helburu zuten borrokak ugaldu bai egin zituzten langile erakundeek. Galdera beste era batera eginda, zeinek eta zein helbururekin lagundu zien garai horretako Europako iraultza mugimendu gehienei, erantzuna ez litzateke industriako langileek lagundu zietenik izango, inola ere. Izan ere, ez dago industriako proletariorik, garrantzi pixka bat izan, eta aginpidea eskuratzea lortu izan duenik. Kontrara nahiko argi erakutsi izan dute langile kualifikatuek zenbateraino bereari eustearen eta klase arteko kolaborazioaren aldekoak ziren, eta nola abangoardia iraultzaile bilakatzean eta beren artean bat egitean zuten helburu nagusietako bat zeukaten estatusa defendatzea eta emakumeen, ofiziorik gabeko langileen eta etorkinen gain kontrola izatea zen.

Batzuk eta besteak zori bereko ziren sentimendua hedatu izanari esker eta, eritasunari, langabeziari eta guztizko ahalmena zuen kapitalismoari aurre egiteko elkartasuna beste biderik ez zutela jabetu izanari esker gaina hartu zioten pentsatzeko era horri. Internazionalak zeresan handia izan zuen horretan, zeren elkartasunera eraginez langileen arteko harremanak sendotu eta langintza desberdinetakoen arteko konponezinak leundu baitzituen. Eta klase bereko sentitzearen balioak eta jarrerak islatzen hasi ziren langileen organizazioetan. Hurrengo atalean zehatzago ikusiko da nola erakunde horiek langile erdi kualifikatuen eta kualifikaziorik ez zutenen eskakizunak bere egin zituzten, eta nola, prestakuntza bereziko langileek-eta bezala kontratatzeko modu autonomorik ez zutenez, horien egoera ekonomikoa eta soziala politika eta lege eraginkor batzuk indarrean jartzearen baitan zegoen. Eginbide horrek, klaseko ideologiak langileen artean sartzen eta zabaltzen zihoazen eran, pixkana-pixkana sendotu egin zituen lan-

gileen arteko harremanak. Eginbide hori aurrera eraman zuten erakunde gehienak erreformistak ziren, hala ere.

Ideologia horien eraginik ez zen britaniar langileetara iritsi horietako sektore handi bat zein egoeratan zegoen eta zer klase interes zituen jabetu arte. XX. mendearen bukaeran, kritika abstraktuak utzi eta sozialismoa Estatuan oinarritu behar zela azalduz kapitalismoa ordezkatzeko proposamen zehatzak planteatzen, izan zuten ideologia horiek britaniar langile pragmatikoen artean arrakasta. Alemanian eta Frantzian, langile klasea emendatu ahala hedatu ziren sozialismoaren aldeko ideiak, eta sindikatueta eta alderdi politikoetan ere berehala sartu ziren. Beste zenbait lurraldetan, aldiz, proletario masa handirik edo nork harturik izan baino lehen iritsi ziren langileen aldeko ideiak.

Internazionala desegitean aldi berri bat hasi zen. Aldi berri honek bi ezaugarri nagusi izan zituen sindikatuei eta alderdi politikoei dagokienez: sindikatuak ofizialki ez baino langile izatearen arabera eratuak egoteak, eta langileen aldeko alderdi politiko nazionalak sortzeak. Alderdi politiko horien eskakizunak ez ziren langileei zegokienetara mugaturik geratu, sufrajio unibertsalaren alde ere borrokatu ziren, esate baterako, eskubide hori zela bide estatu kapitalistaren aginpideko sarea sartzeko asmoz.

Zenbait talde anarkistak, berriz, “ekintza bidezko propaganda” izenez ezagutu zen kanpainari ekin zion 1880tik aurrerako hamarraldian, aurreko huelgetan eta matxinadetan izandako porrotalditik ateratzeko asmoz. Munduko enpresa jabeen eta estadisten kontrako atentatu kanpaina gogorra izan zen. Kanpaina horretako atentatuen ondorioz, besteak beste, Errusiako tsarra, Mac Kinley, Estatu Batuetako lehendakaria eta Antonio Canovas, Espainiako gobernu burua hil ziren. Iraultzari zuzperraldi berri bat eman behar zitzaiola eta, sindikatu anarkistak ere eratu ziren, aldi berean. Sindikatu horiek Espainian, Hego Ameriketara (Espainiako eta Italiako etorkinek eraginda) eta Estatu Batuetan izan zuten indarrik handiena. Horiek biztu zuten Chigagoko 1886ko greba, bukatzean buruzagi anarkistak hilarazi izanagatik oroitzapen gisa Maiatzaren Lehena langileen Nazioarteko eguntzat hartzeko bidea eman zuena.

Gogorkeria horrek anarkisten berezitasun gehienak ezagutu gabe geratzea ekarri zuen. Anarkismoa gogorkeriaren, nahaskeriaren eta arkaismoaren sinonimo bilakatu zen, nahiz eta anarkista gehienak aurrerapen zientifikoaren eta teknikoaren kontra egon ez. Joera anitzetan banatua egonik ere aginpiderik ez onartzean batua zegoen ideologia horri kalte handia egin zioten atentatu horiek, zabalago ezagutua izatea galarazi baitzioten. Anarkisten iritzian, iraultza ez zen klase batek egitekoa eta haren bakarraren ondare ere, klaseak klase, gizadi osoa askatzea baitzuten helburu; baina izan zen horien artean joera bat langile zalea-

goa, kanpotikako laguntzak laguntza, itzaropena horien ekintzarako gaitasun berezian jarria zuena. Anarkista talde askok garrantzi berezia ematen zioten irakaskuntzari eta autodidaktaren heziketari; gauza oinarritzotzat zeuzkaten horiek bideratu eta jaso nahi zuten gizarteari begira. Gizonaren pentsatze era aldatzeko bide bilaketa horretan, mundu guztiak uler zezakeen estetikari lotzen zitzaion anarkismoa, eta gizon-emakumeak aldatzeko bideen bila zebiltzan beste hainbat mugimendu bere aldera eramanez ere egin zuen, halaber: bejetarianoak, naturistak, esperantoaren aldekoak, maitasun librearen aldekoak, adibidez. Dena den, ez zuten sozialistek adinako eraginik, eta bere eragina txikiagoa izan zen sozialisten joerako erakundeena baino, eta ez zuten izan XX. mendearen hasieran izango zuten organizazio mailarik ere.

### 3. II. Internazionale

LNE desagitea eta zenbait alderdi politiko sortzea garai beretsuan egokitu ziren. Garai horretako emaitzarik garrantzitsuenak 1875koa izan zen. Laneko Alemaniako Batasun Orokorra (Lasallerena, 1863) eta Langileen Alderdi Sozialdemokrata (marxista, 1869) bat egin zuten urte horretan, Göttingen. Sortu eta urte batzuetara, legezko babesa kendu egin zion Bismarckek eta ezkutupeko bidea hartu behar izan zuen. Abesbatzetan, kirol elkarteetan eta tabako erretzaileen klubetan oinarritu zen berriz organizazioa antolatzeko. Funtzionatu ahal izateko laguntza handia eskaini zioten elkarte horiek, baita atzera legezko izatea lortu zuenean ere, zeren gizartean sartzeko bide asko zabaldu baitzizkioten. Erfurterko kongresuan (1891), oraindik ere jarraitzen duen Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata (SPD) bihurtu zen.

Urte horretatik XX. mendearen hasiera bitartean, ia Europako herrialde guztietan sortu zen alderdi sozialistaren bat. Ideologiaz marxistak eta organizazioaren egiturari dagokionez SPDren ereduak ziren. Alderdi horiek ezaugarri hauek zituzten berdinak: zein gehiago zein gutxiago, hitzez iraultzaileak izatea eta, asmo nagusiak organizazioa sendotzea eta legezko bihurtzea zituztenez, praktikan moderatuak izatea. Botoa emateko eskubidea zabalagoa izatean eta sufragio unibertsala eskatzean ere bat etorri ziren. Epe laburrera Estatu arazo sozialetan sarraraztea eta horri alor sozialetako araudi zabal bat eginaraztea lortu nahi zuten. Estrategia horrekin batean, bakezaletasuna, erreformismoa eta estatuko politikan parte hartu ahal izatea defendatzen zuten ia denek. Alderdi Laboristaren sorrerak hiru berezitasun izan zituen besteez: besteak baino beranduago sortu zen (1906), hasieran oso moderatua izan zen (ezin sailka baitzitezkeen sozialisten artean, eta gutxiago marxisten artean) eta, besteen kontrara, sindikatuek sortu zuten alderdia eta ez alderantziz.

Erakunde horien indartze prozesuaren ondorioetako bat, zenbait saio alfer eginda gero, II. Internazionala sortzea izan zen (Paris, 1889). Antolatzeke eraz, aurreko eredu sindikalistak alde batera utzi eta langile alderdi nazional autonomoz osatutako federazio malgu bat izan zedila erabaki zuten. Elkartek horrek 1905-1914. urte bitartean izan zuen indarrik handiena. Egiten ziren batzarretako erabakiak ere ez ziren dogma gisa hartzeak, autonomia osoa zuten alderdiek horiek herrialde bakoitzera egokitzeko. Elkartek hori alderdi politiko marxistek bakarrik osatu zuten, ia esateko. Hala ere, 1900 arte balantza aldi batzuk izan zituen. Bitarte horretan, anarkistak elkartetik kanporatu eta eskakizun eta jarrera nagusietako batzuk finkatu zituzten: lan alorrean erreformak egiteko eskatzea eta alderdi burgesei kolaborazioa ukatzea. Langileengan klase berezi eta interes bereki batzuen ekarke zirelako kontzientzia sendotzea ekarri zuen ukozko jarrera horrek, baina sozialistak politika mailan bakarrago geratzea ere bai, aldi berean, eta horrekin, lehen ere herrialde askotan ordezkari gutxi izanik, are ahulago bilakatzea. Horrek guztiak, erreformei orientabide jakin bat ematea exijitzeko indar gutxiago izatea eragin zuen, bestalde, eta horietako zenbait erreforma beraiek egindako mobilizazioen fruitu izanik.

Sortu eta urtebete ingurura eguneko 8 orduko lanaldiaren aldeko kanpaina handia egitea erabaki zuen II. Internazionalak. Kanpaina horri 1890ko maiatzaren lehenean, herrialde guztietan manifestazioak egiteko deia zabalduz, eman zitzaion hasiera. Langileak eskakizun batzuen inguruan batzeko eta langileriak nazioartean zuen indarra eta elkartasuna erakusteko izan ziren mobilizazio horiek. Ez ziren, hala ere, sozialisten eskakizunetan denak bat etorri, moderatuak zirela eta, kritikatu egin baitzituzten anarkistek. Dena den, langileen elkartasun kontzientzia zuzpertzeko aukera ona izan zen, eskakizun ber-beren inguruan bildurik nazio mailako mugak eta gainera gorabeherak ere gaintitza lortu baitzen horiekin. Europako lurralde industrializatu askotan grebak gehiagotzea eragin baitzuten mobilizazio horiek.

Ez zuen II. Internazionalak zirudien adinako batasunik bere barnean, eta zuen batasuna ere marxismoa arin irakurri edo gutxi hausnartu izanaren ondoriozkoa zen, neurri handi batean. Izan ziren, bada, elkartek horren barnean ere tirabirak eta eztabaidak, eta nahikoa gogorrek batzuk. Sorreran hiru joera nabari izan ziren: hitzetan gogorra eta erradikala zen; praktikan, berriz, alderdi sozialista gehienetako zuzendaritzak bederen, erreformistak ziren, baina, aldi berean, moderazio horrekin oso bat ez zetorren praktika eragiten zuten fabriketan eta kalean.

II. Internazionalaren barnean bi joera nagusi agertu ziren: erreformen aldekoena eta iraultzaren aldekoena. Parlamentua tresna gisa erabiliz aginpide politikoren sarean sarturik langileen bizitzako eta laneko baldintzak hobetu ote zitezke-

en ala ez zen bi joera horien arteko eztabaidarik gogorrena. Alderdi sozialista gehienak ordurako parlamentuetan sartuak ziren. Aginpidea mailaz maila eta gero eta barrenago sartuz bakarrik eskura zitekeela, zioten erreformistek; iraultzaileek eta Leninek, berriz, hausketa bidez bakarrik lor zitekeela hori. Baina baziren demokrazia bera sozialismora iristeko aurrera pauso handia zela zioten beste are moderatuago batzuk ere. Frantziako alderdi sozialistak ere joera berezia zuen. Lurralde horretan indar handia izan zuen erreformismoak 1890az gero. Jean Jaurès-ek, alderdi horretako buruzagiak, bada, demokraziaren balioak, betikoak eta denek onartzekoak zirela, esaten zuen, ez zirela, alegia, proletarioenak bakarrik. Bernstein alemaniar errebisionistaren iritzian, berriz, kapitalismoak bere krisiak gainditzeko gaitasuna erakutsia zuela eta, gizartea iraultzaz aldatzeko aukerak gero eta urriagoak zirela zioen. Halaber, alderdi burges demokratikoekin aliantzak egin ahal izatea sozialisten estrategian sartzeare ere on irizten zion, horrek Europan indarrean zeuden ordezkariak sistemetan sakon sartu ahal izateko egokiera ematen zuela eta.

Joerak finkatuta ez edukitze horrek II. Internazionala, taktikari dagokion aldetik, noraezean ibiltzera eraman zuen, teoriarik ortodoxoa eta praktikan moderatua izatera. Joera horrek, politikari dagokionez, hori gero eta maila profesionalagoan hartua izatea eta, langileen aldeko borrokei dagokienez, industria handia zen guneeetan bederen, gero eta molde organizatuagoetatik bideratzea eragin zuen. II. Internazionalak joera finkaturik ez izatea eta hori bere nazioarteko bileretan eztabaidan ibiltzea ez zen, garai horretan zegoen borroka giroa, huelgen, manifestazioen eta beste hainbat ekintzen bidez agertu zena, hazten joateko oztopo izan. Kolonialismoaren eta arazo nazionalaren aurrean, I. Mundu Gerraren eta Errusiako 1917ko Iraultzaren aurrean zer joera hartu ere eztabaidan zerabilten. Iraultzaileen eta erreformisten arteko tirabirak gero eta gogorrago bihurtu ziren, eta azkenean (1917) II. Internazionala bi puska egitea eragin zuten. Handik bi urtera, Komunisten Nazioarteko Erakundea sortu zen Moskun (III. Internazionala, Lenin buru izan zuena). Sozialista moderatuek, berriz, 1920an Sozialisten Nazioarteko Erakundea eratu zuten, eta parlamentu bidezko demokrazia onartu.

#### **4. Gizarte ekintza katolikoa**

Katolizismoa eta, oro har, erlijoarekin zerikusia zuen guztia industria mundutik gero eta baztertuago geratzeak kezka handia sortu zuen Elizan, eta kezka hori larriagotuz joan zen, gainera, hedatuz zihoazen klase ideologiak, batzuk besteak baino argiago, erlijioen aurkako azaltzen hasi zirenean. Nahiz eta belgiar eta irlandar langile katolikoek edo galestar metodisten gisako langile sektore ba-

tzuek beren sinismena gorde izan, langile talde handiak bizi ziren erlijioak axolarik ez ziela, ahalegin guztian kontra eginez ez bazen, hala ere.

Sortu zen egoera horren aurrean, eta Elizaren eta herriko jendearen artean gero eta harreman gutxiago zegoela ikusirik, aurrerago Elizaren dotrina soziala izenez ezagutuko zen eginbidea mamitzen hasi ziren elizgizonen eta laikoen arteko sektore batzuk. Teoria horren eragilerik beroenak Alemaniako katolikoak izan ziren, antikerismoa ere, 1860-1870. urte bitartean hango estatuek egindako lana zela bide, oso zabaldua baitzegoen lurralde horretan. Egoera horrek *Zentrum* izeneko alderdi polikoan elkartzera eta zuten sinismenean eta sortutako gizarte berriak planteatzen zuen erronkari aurre egiteko asmoan sendoago sentitzeraz eraman zituen alemaniar katolikoak. XIX. mendea bitartean osatuz joandako dotrina hori, “gizarteko gaitzak sendatzeko” legedi sozial bat behar zela adierazten lehenetarikoa izan zena, Leon XIII. aita santuaren *Rerum Novarum* entziklikan, 1891n argitaratu zenean geratu zen laburbildua eta ontzat emana.

Industrializazioa zela bide Europako gizartean izan ziren aldaketak aztertu –txartzat jotzen zituen horiek– eta desagertutako gremioak eta guztiz erlijiozko zen tradizioa ahazturik utzi izana lehen minez gogorarazi ondoren, “zenbait gizon aberats baino aberatsagok ezin konta ahala langileri esklaboenarekin alde gutxi duen uztarria lepora dien”-eko egoera berri honetan, “aberats izan proletario izan, guztiek errespetatu beharko duten eskubide eta obligazio eremu bat” zehazten zuen entziklika horrek.

Aitortzen zien langileei elkarteetan eratzeko eskubidea, beren eskubideak eta interesak defendatzeko sindikatuak sortzekoa, aitortzen zion ere Estatuari gizarteko bidegabekeriak gutxitzeko edo kentzeko politika sozialean zuzeneko esku hartzea, baina ontzat ematen zituen, halaber, jabetza pribaturako eta lanaren bidez lortutako ondasunen jabe izateko eskubideak ere, aldi berean horien egin-kizuna, batez ere, soziala zela gogoraraziz, hala ere.

Guztiarekin ere, ez zen Leon XIII.aren idatzi hori oso eraginkorra izan. Hain baitzen gandutsua, katoliko askok han zer adierazi nahi zen ez ulertzea eta beste hainbatek hura nahi zuen erara ulertzea eragin zuen. Dena den, indar gehiago izan zuten testu horren alde kontserbadoreari zerizkion ideiek, horretan gizarteko armoniaz eta aberatsen eta behartsuen arteko batasunaz esaten zenak, langile katolikoan elkarrekin sozialisten eta anarkisten aldera erortzeko beldurra eragintzen justizia sozialari buruz esaten zenak baino. Lausotasun horrek, hain berandu argitaratu izanak, *Manifestu Komunista* baino berrogeita hiru urte geroago, eta burgesia katolikoak hura gaitzesteak langileriaren gehiengoa eta Eliza Katolikoa-ren parte bat ere Leon XIII.aren mezuaren berri jakin gabe geratzea ekarri zuen.

Guztiaz ere, Aita Santuaren dokumentu horrek zuzperraldi berri bat eman zion XIX. mendeko azken laurdenean hasi eta mende berean zenbait lurraldetan eta hainbat eratako elkarteren bidez zabalduz joan zen katolikoek ekintza horri. Katolikoek ekintza soziala, elkarte eta beste biltoki katolikoetan, aurrezki kutxadun patronatoetan, elkarlaguntzakoetan edota, sindikatuak bizi zuten errealtateari nahiz herrialde industrializatuetakoko egoerari oso zuzen ez zegozkien kultur eta erlijiozko ekintzetan oinarritu zen bere teoria zabaltzeko. Bestalde, Estatuak laneko esparruan parte hartzea beharrezkoa zela defendatzen zuen hainbat lege-gile sozialen argi ere izan zen Leon XIII.aren entziklika hori.

Anarkistek eta marxistek, egiten zituzten gizarte ekintza guztiak klase borroka eta borroka sindikala helburu zuten elkarteetan bermatuz bideratzen zuten bitartean, katolikoek laguntzako eta jendea promozionatzeko ekintza pila bat jarri zuten bidean, halaber, eta gizarteko armoniaz eta gainerako zenbait gaiz zituzten printzipioei jarraiki, langilez eta nagusiz osatutako hainbat elkarte profesional ere sortu zituzten. Frantziako katolikoek, gizarte gaiez arduratzen zirenek Herriko Idazkaritza izenez ezagutu ziren bulegoak sortu zituzten XIX. mendearen bukaeran, Komuna bitarteko gertaerek beldurturik. Klase arteko adiskidetasuna indartzeko garrantzizko bide gisa hartu izan ziren idazkaritza horiek. Sendagile eta legegizon katolikoek doako zerbitzuak eskaini, lanbide eskolak langileen esku jarri eta, bide batez, legezko ez ziren ezkontzak zuzendu ere egiten ziren idazkaritza horietan.

Izan zen Eliza katolikoaren dotrina sozialean oinarritutako sindikaturik ere, Alemania Katolikoaren Herri Elkartea, 1890. urtean sortu, eta Renanian, Westfalian eta beste zenbait eskualde katolikotan eragin handia izango zuena, adibidez. Erlijio batekoa edo bestekoa izan kontuan hartzen ez zuten zenbait sindikatu ere sortu zen. Sindikatu kristauak 340.000 kide inguru zituzten Alemanian, 1914an. Frantziako kristauak nagusiz eta langilez osatutako sindikatuak sortu zituzten hasieran. Baina, nola *Rerum Novarum* entziklikak langileak elkarteetan antolatzerantz animatzearekin batean hori zeren arabera antolatzen –sindikatu “garbiak”, langile hutsez osatuak, alegia, edo “nahasikoak”, nagusiak ere barne– argitzen ez zuen, are neke handiagoak izan zituzten erakunde horiek aurrera ateratzeko. Arrazoi hori zela bide, maiz egon ziren elkarte katolikoak batzuk besteen aurka, eta federazio desberdinetan bilduak ere. Alemania Katolikoaren Herri Elkartea izanagatik, 1903an, Langile Elkarteko Katolikoek Konfederazioa sortu zen, adibidez, lurralde horretan. Azkeneko horren ezaugarriak elizartekotasunaren aurkako etsaitasun agirikoa, klase borrokaren aldekorik eta halako itxura zuenik entzun nahi ez izatea eta Elizako hierarkian zioenari oso entzunbera izatea ziren. Antzeko zerbait gertatu zen Espainian ere, XX. mendean.



Katolikoek ekintza sozialak indarririk handiena Belgikan izan zuten, eta hangoa hartu izan zen nazioarterako erreferentziazko eredu gisa. Belgikako katolikoek ekintzak hainbesteko eragina izatearen arrazoia hango elizaren jarreraren zegoen neurri handi batean, eliza horrek arazo politikoetan eta sozialetan sartzeko ohitura baitzuen, alde batetik, eta jarreraz ere pragmatikoa baitzen eta ez dotrina zalea.

Belgikako katolikoek ekintza sozialak eta inguruko herrialdeetakoak ez zuten 1880. urtera arte alde handirik izan, horiek ere laguntza eta karitate mailan lan egin izan baitzuten hamarraldi horretara arte. Langileen miseria eta sozialismoa hedatzen ikusteak, ordea, aurrera pauso bat ematera behartu zituen, langileei ongizateko aukera ematearren biltokiak, elkarren laguntzarako erakundeak, kooperatibak eta, garrantzirik handiena zuten zera berria, langile sindikatuak sortzera behartu, alegia. Ez bakarrik Elizako hierarkiaren eta *Rerum Novarum* entziklikarekin berotu ziren apaiz gazteen laguntza, laikoena beraiena ere izan zuten ekintza horrek. Belgikan izendatu zituzten egintza sozialetarako lehenengo apaizak ere. Baina, kritikak ere izan zituen gizarte mailan lan egiteko era horrek, politikan ere sartzeagatik, eta Katolikoek Alderdian esku handiagoa izatea eskatzeagatik katolikoek zenbait sektorek egindakoak, gainera.

1912an, Belgikako sindikatu kristau libreen Konfederazio orokorra, Rutten aita domingotarra buru zuena, sortu zen. Kristau sindikalismo benetako bat, lan-tegietan bertan langileen baldintzak hobetzearren borroka egiteko eta, beste erremediorik ezean, greba tresna gisa erabiltzeko ere prest zegoena, sendotua zegoela adierazten zuten horrek. Lehen Mundu Gerraren ondoren bi taldetan (kontserbadoreak eta demokratek) bereizi zen. Katolikoek erakunde sozialik gehienak demokratek eskutik geratu ziren. Langile katolikoak ere, bere garaian sozialistak Belgikako Langile Alderdian bezala, erakunde batean, Langile Kristauen Liga Nazionalean elkartu ziren. Horri utzi zioten langileen bizitzako arazo guztien ardura, politikoena barne. Katoliko kontserbadoreak kontra eduki arren, mugimendu horrek (Elizarekiko autonomia zenak) indar handia izan du Belgikan, eta zenbait alderdi sozialistak baino kide gehiago ere bai.

Nahiz eta elizgizon gehienak laneko arazoez gutxi kezkatu edo langileei sakrifizioa eta aurrezte kontuak predikatzen mugatu, izan ziren langileen sindikatuak, langileak nekez abaildu arte erabiltzen zituzten nagusi bizkarroien kontra, arazoizko ordu kopuruen alde, laneko baldintza egokiak eta bidezko soldatak izatearen alde borrokatzen ziren sindikatuak defendatzen zituztenak ere. Bidezko soldata bat izatea, “zuzenbide naturalez” dagokio langileari –hala zioten elizgizon horiek– eta ez du aita batek, emazteak eta haur txikiak lanik egin gabe, familia ezin mantendurik izan behar; industrializazioa dela bide, gaur egun zalantzan jartzen den aitalehenen erako familia tradizionala defendatzen zuten horiek.

Sindikatu ez aparte kristau jatorriko beste hainbat langile erakunde ere agertu ziren garai horretan, mutualak, langilea profesional mailan bideratzeko bulegoak, kooperatibak, e.a. Horietan garrantzirik handiena Cardijn belgiarrak eratu zuenak izan zuen, Gaztedi Langile Katolikoak (JOC). Langile gazteen kristautzea beste langileengandik etorri behar duelako ideiak eraginik sortu zuen erakunde hori. Gaztedi Langile Katolikoaren hasierako helburua langileak kristautzekoa zen, beraz, ez sindikatu berri bat sortzekoa edo gizartea eraberritzekoa.

Elizaren egitekoa langileengan konformismoa eta mendekotasuna sarraraztea dela uste izan dute historiagile gehienek eta langileriak berak ere; eta, beti laguntza lanetan eta nagusien nahierako sindikatu “horiak” sortzen aritu izan denez, ez diela horrek langileen sufrimenduei erremedio erabakigarririk eskaini izan. Zenbat idazle katolikok, berriz, herrialde askotan kristau jatorriko sindikatuak langileen alde egindako lana bikaina izan dela adierazten dute, eta aurrekoen kritikak arbuiatzen dituzte, aldi berean, esanez, eginbide guztia klaseen arteko armonia lortzera bideratu duen erakunde baten lana, Eliza katolikoarena gauden kasuan, klase borrokaren aldetik bakarrik begiratuta baloratzea zentzurik ez duen gauza dela. Langile mugimendua iraultzarekin identifikatzea da hori –esaten dute idazle horiek– eta horren arabera, gizartearen guztizko aldaketarik onartzen ez duen edota jabetza pribatua bidezko eskubidea dela defendatzen duen edozein sindikatu ez litzatekeela burgesiaren jostailu bat besterik izango.

## 3. Gaia

# Sindikalismo berria eta lan harremanak

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. MUGIMENDU SINDIKAL BERRIAREN EZAUGARRIAK
3. LANGILE SINDIKATU GABEAK
4. MUGIMENDU SINDIKALAREN HEDATZEA, 1945 ARTE
5. SINDIKALISMOA, LAN HARREMANAK ETA LANGILE KONTROLA
6. SINDIKALISMOA ZENBAIT HERRIALDETAN

### Kontsultarako liburuak

- Dunlop, J. eta Galenson, W., *El trabajo en el siglo XX*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril, 1985.
- Hosbawm, E., *El mundo del Trabajo*, Crítica, Bartzelona, 1987.
- Montgomery, D., *El control obrero en Estados Unidos. Estudios sobre la historia del trabajo, la tecnología y las luchas obreras*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril, 1985.
- Pérez Ledesma, M., *El obrero consciente. Dirigentes, partidos y sindicatos en la II Internacional*, Siglo XXI, Madril, 1988.



## 1. Sarrera

XIX. mendearen bukaeratik aurrera beste sindikalismo mota bat –batzuk, hobeto esan– hasi ziren sortzen eta indartzen; eta zenbait langile elkartek ere beste era batean egin zuen politika eta parte hartu horretan. Gizarte arazoei eman zitzaien garrantzirik handiena. Hainbat adierazbidek, nahiz eta erdi gordekoak izan lehendanik ere bazirenak, langileei egokiera eman zien beren iritziak agertzeko. Garai horretatik aurrera, elkarteak sortzeko, bilerak, eztabaidak, mitinak eta eskakizun zerrendak egiteko, propaganda zabaltzeko, batzarretan eta agintarien aurrean parte hartzeko ohiturak hedatuz joan ziren, eta aukera horiek zituela medio ikaragarri indartu zen sindikalismoa.

Sistema politikoan eta kapitalismoaren antolamenduan izan ziren aldaketak eta sindikatuak beraiek ere indar handiagoa hartu zutelako bide, XIX. mendeko gehienek izan ez zuten askatasuna izan zuten hauek lantegietan sindikatu sekzioak eratzeko eta agintari publikoen aurrean indarra egiteko. Aipatu diren aldaketa horien eta industria eredu berriarekin sortu ziren laneko egituren ondorioz jo zuten sindikatuak ere eredu berrietara. Hain zuzen, XIX. mendeko azkeneko hamarraldietan eta XX. mendeko aurrengoetan sortu zen Europan II Mundu Gerra bukatu arte iraun zuen langile klasearen eredu.

Industria sistema berri hori Europako mendebalean zabaltzeak langileen parte handi bat industriako lantegietan ari beharra eta ekonomian garrantzirik handiena bigarren sektoreak hartzea eragin zituen. Hirugarren sektorea haziz zihoan aldi berean. Horrela, Alemanian eta 1907an, lanean ari zitekeen %40 industrian ari zen eta %30 zerbitzuetan. 1910-1960. urte bitarteko aldi bakarrik izan zuen industriak hiru sektoreetan langile portzentaiarik handiena. Hala ere, kontuan izateko aldia da laneko baldintzak eta langile mugimenduaren ekimenak azterterakoan.

Era berean, lana tratu bidez kontrataturik eta soldata baten truke egiten zuten langileak gero eta gehiago izan ziren eta beregain lan egiten zutenak eta artisaauak, gero eta gutxiago. Horretan kasurik argiena Britainia Handikoa da, han hamarretik bederatzik soldata baten truke egiten baitzuen lana. Horri biztanle aktiboen kopurua gehitzea erantsi zitzaion. 1910eko estatistiken arabera, 15 urte-tik 64 urterako gizonezkoetan lanean ari zirenen portzentaia %100 baino handiagoa zen, urte horiez goikoak eta behekoak ere aritzen baitziren, eta portzentaia horrek ez zuen Bigarren Mundu Gerraren ondorenera arte beherakada handi-handirik egin.

Bigarren Industria Iraultzak eta Lanaren Antolaketa Zientifikoak eragindako homogeneizazioak, bestalde, langileak industria gune handiagoetan biltzea eta industriako langileen laneko baldintzak bateratuz joatea ekarri zituen ondorio

gisa. Kontsumorako artikulua egiten zituzten langileek, hala ere, meagintzan eta siderurgian ari ez ziren gehienek, alegia, gerra arte behintzat lantegi txikietan egin zuten lana. Fabrika handiak oso gutxi ziren fabrika tradizionalekin alderatu ahal izateko. Txiki horietan ere, nagusiak hurbil egon arren, tirabirak gehituz joan ziren, izan ere, ez baitzegoen ofizioetako lan egiteko era hori kapitalismoaren gero eta gehiago produzitu beharrarekin eta horrek ezartzen zituen lan erri-timo berriekin bat etortzerik.

Langile soilen eta kapitalisten arteko beste enplegatuen kopurua, bi horien arteko konponezinak leunagotzen saiatzen zirenean ere, handituz joan zen, bestalde. Hain zuzen, XX. mendearen hasieran, gero eta kontugile, tailerretako buru, merkataritzako laguntzaile eta saltzaile, eta bulegoetako idazle eta idazkari gehiago zen lantegietan. Langile soilak baino kualifikazio eta prestakuntza hobea zuten enplegatu horiek, eta soldatak ere handiagoak eta era egokiagoan ordainduak zituzten –hilabetero ordaintzen baitzizkieten hauei eta ez langile soilari bezala eguneko edo orduka, nahiz eta, denborarekin, langile kualifikatuek administrariak baino gehiago irabazi–; aldi berean, laneko baldintza hobek, eta mailaz igotzeko erraztasunak ere handiagoak zituzten; Aseguru Sozialari eta Laneko Araudiari buruzko legeak berak ere ez zituzten berdinak, zenbait lekutan. Ofizio bat zuenaren eta ez zuenaren arteko desberdintasunen artean, beste bereiztasun bat sartu zuten enplegatu horiek: eskuzko langileen eta gogozko langileen artekoa. Gizarteko zein-nor bereizketan, alde batera enplegatuak, alkandora lepo zuriko langileak eta, bestera, alkandora lepo urdinekoak banatu zituen horrek, (alkandora, alkandora lepo gogorra eta korbata jantzita joaten baitziren lehenengoak eta buzoa jantzita, berriz, besteak); eta arian-arian, gizarteko talde berezi bat, erdi mailako klase berri bat sortu zen, lehengo artisauen eta merkatarien ezaugarri berak ez zituena, eta orobat eskuzko langileen mailakoa ere ez zena.

Oso konplexua eta mende bat inguru luzea izan zen erdi mailako klase horren eratze eta sendotze prozesua. Klase berri hori burgesiaren barnean zegoen mailaketa anitzak sorrarazi zuen, neurri handi batean, hain zuzen ere, enpresetako nagusiak eta bestelako jabeak ez ezik, enplegatuak eta funtzionariak, burges profesionalak eta industriako eta merkataritzako txiki-sail guztia ere burgesian sartzen baitzen lehen. Azkeneko hiru talde horiek oso aldaberak ziren, talde gisa oso zatikatua zegoelako bakoitza eta, joeraz ere, laneko merkatuaren eraginen, Estatuaren ekintzaren eta beren estatus berekia lortu nahiaren erdian hartuak zeudelako; hartu ere, denbora aurrera ahala nortasun soziopolitiko desberdina hartu zuten batzuek eta besteek. Gizarteko sektore batek burgestzat hartua izatea nahi bazuen, bizitza segurtasun pixka batekin planteatzeko moduko eta emazteak eta umeak etxetik kanpora lanik egin behar ez izateko adinako soldata behar

zuen, eta lanari berari zegokionez, eskuzkoaren beharrik ez zuena. Eredu horretatik baztertera samar geratzen ziren maiz artisau txikiak eta enplegatuak.

Lanbide liberalen barnean izan zen banaketak ere garbi uzten du talde sozial horren aniztasunerako joera. Printzipioz familia burgesek bakarrik ordain zitzaizketen lanbide liberal batera iristeko ikasketak, baina horietako zenbaitek ere ekonomia-aren prozesuak aurrera egin ahala proletario bihurtu behar izan zuten. Horrela, XX. mendearen hasierako Parisko abokatuen %25ek ez zuten hiltzean hereditziako dirurik uzten. Ez zuten, beraz, sektore horietako zenbait kide erakunde sindikal edo politikoen buru bihurtu izanak zertan harriturik.

## 2. Koadroa *Langileen banaketa*.

	<i>Nekazaritzan</i>	<i>Industrian</i>	<i>Bestelako langintzetan</i>
<b>Frantzia</b>			
1840-45 .....	51,9	26,0	22,2
1866 .....	49,8	27,9	22,3
1896 .....	44,8	28,6	26,6
1906 .....	42,7	28,2	28,1
<b>Alemanian</b>			
1850-54 .....	54,6	25,26	20,2
1880-84 .....	48,2	29,8	22,0
1910-13 .....	35,1	37,9	17,0
<b>Suedian</b>			
1870 .....	72,0	15,0	13,0
1890 .....	62,0	22,0	16,0
1910 .....	49,0	32,0	19,0
<b>Britainia Handian</b>			
1851 .....	21,7	42,9	35,4
1881 .....	12,6	43,5	43,9
1901 .....	8,7	46,3	45,0

Industria garaiko lehen soziologoek iragarri bezalako homogeneizaziorik ez zen gertatu langileen artean, eta *Metropolis* edo *Garai Modernoak* filmeetako lanbide berezirik gabeko proletario sail harena filme hutsean geratu zen. Giza

makinen klitxeak adierazpen bat baino gehiago zituen, noski, baina kopuruz, kualifikaziorik gabeko langileak gutxitu ziren, batez ere, eta nekazaritzako besalariak ere beherakada handia izan zuten. Besalari askok prestakuntza bereziko langileen lekua hartu zuen makinak sartu zirenean.

Herrialde aurreratuenetako langileen artean garrantzi handiko tokia zuten etorkinek ere asko galarazi zuten homogeneousazio hori gertatzea. Etorkinen helburu nagusia lehenbailehen beren herrialdeetara itzultzea izaten zen, eta ez ziren oso sindikatu zaleak; gatazkak eragiten zituztenean oso jokaera gogorra izaten zuten, hala ere. Irlandako langileak Britainia Handiko eta Estatu Batuetako industrietara bezala –ehundaka mila– Txekiako eta Poloniako meatzariak eta Italiako eraikuntzako langileak Europako lurraldekoetara aldatu ziren. Espainiarrek eta belgikarrek, berriz, Frantziara emigratzen zuten; eta bazen, bestalde, Alemaniara urtaroko nekazaritza lanetara besalari joaten zen hainbat holandar eta poloniar ere. 1910ean miloi bat etorkinetik gora bizi zen Alemaniako Inperioan eta Frantzian.

Mekanika eta teknika girokoa beste zibilizaziorik eta hirietakoa beste ingurunerik ezagutu ez zuen industriako langile belaunaldi berria hiriko girora egokitu zenean nekazari saldoak hasi ziren hirira aldatzen. Lehendik zeuden arazo sozialak areagotu baino ez zituen egin horrek, izan ere, kultura berrira egokitu behar izan zuten, eta zenbait kasutan, klase sozialen gainetik zeuden etnien arteko konponezinak, lanbidez aldatu beharrak, beste giro batera ohitu beharrak, lantokietako, etxebizitzetako, lagunarteko, heziketako arazoak eta, fabrikako eta fabrikaz kanpoko kontrolak eta parte hartu beharrak ere gehitzen zitzaizkion horri.

Ordurako gai zen industria kualifikaziorik gabeko langileak eta etorkin peoiak berehala lanera hartzeko, nahiz eta beraien ohiturak industriakezari nahi zituen baldintzen kontrakoak izan, alegia, lanean erritmo biziak eta atsedenaldiak tartekatzekoa. Ez ziren ere, bestalde, lanpostuetako errotazioak, astelehenean lanera ez joateak eta igandetako mozkorrak hain bakanak izaten. Beste edozein gizartek denbora gehiago behar zuen, hala ere, etorkin berriak berera moldarazten, horien gan bere gizarteko arauak sartzen eta horiek gizarte horretan nahasketarik ez sortzeko moduan hezitzen. Arazo handiagoak sortzen zituzten nekazaritza girotik hirietara aldatzen ziren langileek, gizarte homogeneousotik eta elkarren arteko kontrola zuzenagoa zuen batetik etortzen baitziren horiek. Hirian eta fabriketan ez zuten lehen adinako gizarte mailako kontrolik aurkitzen, eta hori zela bide, talde horiek langile asaldarien esanetara erorberagoak ziren, beraz, hirietako langile tradizionalak baino arriskutsuagoak ere bai, nagusien iritzian.

Izan zen beste aldaketa bat ere, ordura arte egin izan ez zituzten langintzetan sartzen hasi ziren emakumeak, prestakuntza berezia eskatzen zutenetan, esate



baterako. Lehen Mundu Gerrak eragin zuen aldaketa hori, gizonezkoak gerrara joatean emakumeek egin behar izan zuten haien lana, eta langintza ere ikasi behar izan zuten, aldi berean. Lehen ari ez zen emakume gutxi hasi zen, hala ere, industrian, lehendik etxean lan egiten zutenek hartu baitzituzten fabriketan ari zirenen lanak eta hauek aldatu baitziren gizonezkoek utzitakoetara. Gerra bukatzean beherakada handia izan zuen joera horrek, eta emakume asko geratu zen lanik gabe. Etxetik kanpora lan egiten zuten emakumezkoen kopuruan alde handiak zeuden herrialde batzuetatik besteetara. Eskuarki, eta Europako hegoaldeko herrialdeetan izan ezik, emakume ezkongabeak langiletzat hartzen ziren; horrela, 1914an eta Europako estatuetan, emakumeek industriako langileen %25 hartzen zuten; Eskandinaviakoetan, %38/40; eta Japonian, %60 izatera iritsi ziren.

Fabrikatiko lana etxean egiten zuten emakumeen kopuruak ere gora egin zuen gerra garaian, hala bakarrik egin baitzitzaketen bi lan motak, etxeakoak eta fabrikatikoak, soldata ematen ziena. Etxean egiten ziren lan mota horien ezaugarriak egiteko prozesua oso zatitua egotea eta soldata txikiak izatea ziren. Lan mota horiek senar eta guraso askok emazte eta alabei fabriketan aritzen uzten ez zirelako eta hauek prestakuntza berezirik ez zutelako egiten ziren etxean. Lanaren araubide guztietatik eta sindikatu eta beste langile erakundeetatik ere kanpora geratu izan ziren beti produkzio mota horretan ari zirenak.

Soldatako emakumeen kopurua handitzeak ere ez zuen horretan gizonezkoen eta emakumezkoen artean zeuden aldeak ezabatu berez, 1/3 eta 2/3ko aldearekin jarraitu zuten. Sindikatuek, bestalde, normaltzat hartzen zituzten desberdintasun horiek, eta hain ere hala ezen gizonezkoen eta emakumezkoen soldata mailaketa hitzarmen kolektiboz arautzera iritsi baitziren. Emakumeak soldata txikiagoa izan behar zuela uste zen, zuen ardura (familiakoa) eta prestakuntza maila ere txikiagoa zelako, lanera joan gabe gehiagotan geratzen zelako eta laneko merkatuan ere oso aintzat hartua ez zegoelako. Goian esan diren arrazoi horiek, laneko orduen gorabeherak eta laneko urteek, ordea, desberdintasun horren hiruren bat baino gehiago ez zezaketen har. Gainerako aldeak emakumearenganako zegoen diskriminazioari zegozkion huts-hutsik. Sexuen arabera alde hori 1950a inguruan eta era jarraituan lan egiten zutenetatik hasi zen desagertzen, Administrazio Publikoan lan egiten zutenetatik, batez ere.

Emakumea soldatako lanera itzulia zen langile etxetan ere aldaketa handirik ez zen izan haren alde lan banaketari zegokionez. Administrazioa, hezkuntza eta zerbitzuetako sektoreetan sortu ziren lanpostuak erdiko klaseetako emakumezkoek hartu zituzten eskuarki. Langile familietako emakumerik gehienak ezkontzeko garaira arte bakarrik aritzen ziren lanean, ezkondu ondoren etxeako lanak eta egun osorik hartuko ez ziren beste lanetan, horrelakorik zutenean, igarotzen zuten eguna. Ikasketak nahitaezko bihurtzeak ere, haur txikiak handiagoen kargu ezin

utziarekin eta laneko iharduna arautzeko egin ziren lege berriek, emakumeari zenbait lan mota egitea debekatzen zietenak, eragin zuten emakume horiek ezkondu arte bakarrik lan egitea. Emakumeak eta bereziki emakume ezkonduak lan egitea II Mundu Gerraren ondoren hasi zen hedatzen, nabaritzeko eran.

Langileriaren barne egituretan hainbat aldaketa gertatu ziren arren langilearen laneko eta bizitzako baldintzak ia lehen bezain txarrak izan ziren 1870-1914 bitarteko aldirian ere. Urte bitarte horietan ere ez ziren hain bakanak diktadore baten modura portatzen ziren nagusien kasuak, soldata oso txikiak edo hura enpresaren ekonomatoan baino erabili ezin zituen bonotan kobratzen zuten langileen kasuak, langileei etxebizitza ikaragarritzko alokairua ordainduz jartzen zizkieten enpresen kasuak, elizak eta eskolak kontrolatzen zituzten enpresako zuzendaritzen kasuak eta langileek sindikaturik sortzea galarazten zuten polizien kasuak. Laneko auziak, itxuraz behintzat, neurri baten barruan mugitzen ziren bitartean, arrazoizko eskakizunak, zuzenak, e.a., enpresetako nagusien eta Estatuaren beraren erantzuna eragabekoa izan zitekeen askotan. 1914an iparramerikar meatzariak Ludlow-en (Colorado) egin zuten greban (Rockefeller familiaren meategia), esate baterako, berrogei hildako izan ziren, bi emakume eta hamaika haur barne.

Biztanleen bizitza tasari dagokionez, langileria zegoen apaleneko mailan, bai haurretan eta bai gainerakoetan, hiltze tasarik garaiena ere langileetan baitzegoen. Biztanleen lehen industrializazio garaiko lekualdatze hark, zela horiek lana bilatu behar zutelako, zela goseak hartara eragiten zituelako, lehenean jarraitzen zuen oraindik. Orain, Estatu Batuetara edo Europako industria gune garrantzikoenetara aldatzen ziren, batez ere. Horrek adierazten du urte horietan izandako garapen ekonomikoak ez zuela gizarteko klase guzien ongizatean maila bereko eragina izan. Langileen diru sarrerak eta kontsumorako ahalmenak burgesiarenak baino astiroago egin zuten gora. Horrela, XX. mendearen hasierako langilearen kontsumo maila premiazko zitzaiona baino apalagoa zen. Soldataren %70 lehentasunik handieneko haietan erabili behar izaten zuen, jatekotan, jantzitan, eta etxeko alkilerrean eta hori berotzeko gaietan, alegia. Soldataren %20 bakarrik hartzen zioten premia-premiazko ez zitzaizkion gaiek. Enplegatuen bizi maila askoz hobea zen, nahiko soldata ona eta, batez ere, ziurra baitzuten; langileak, berriz, zuten egoera txar hura ere are okerragotuko ote zitzaien beldurrez bizi ziren, eritasunen bat izanez gero edo lanik gabe geratu, diru sarrerarik gabe geratzen baitziren.

1930. urtea arte ere ez zegoen langabezia faltarik, baina hamarraldi horretatik aurrera are kezagarriago bihurtu zen hori, langileentzat. Ez zen, garai hori bere osoan hartuta, langabeen kopurua askoz handiagoa izan, biztanleen kopurua hazteak, ordea, eta horrek laneko merkatuan sortu zuen konkurrentziak horren kezka

larriago bihurtzea eragin zuten. Ekonomiaren eta negozioen gorabeherak, teknologia berriekin langile gutxiago behar izateak, giroak, modak eta produkzio sistemaren aldaketak zirela bide –Chicagoko abere hiltegieta, esate baterako, astean hiru egunez bakarrik egiten zuten lana– sortzen ziren langabeko aldiek ere izan zuten eragina egoera horretan. Langile erdi kualifikatuak eta kualifikazio gabeak lehendik zuten lanari eusteak eta hori galtzeak eragin ziezazkiekeen estualdiek kezkatzen zituzten gehiena.

Gizartea pixkana-pixkana kontsumora iraultzeak eragin handia izan zuen langilearen enpresatik kanporako bizitzan. Eguneko lanaldia eta asteko lanegunak gutxitzeak langileek oporraldi luzeagoa izatea ekarri zuen, eta horrek, lana oinarri zuen artisau kulturatik, etxea, familia eta aisialdia erreferentzia puntu zituen kulturara, langileen kulturara, igarotzeari eman zion bidea. Horretan erdi mailako klaseen joerei, horiek jadanik bere eginak zituztenei jarraitu zitzaizkien langileak, distira eta hedadura handiagoa baitzuten horiek. Burgesiaren eredu horiek ez ziren langileengan berez sartu, burgesiaren bizitzeko era, hark ontzat zeuzkan balioak eta lagunartean erabiltzen zuen tratua, eta gero eta hedatzenago zihoan heziketa zabaltzeko erabili ziren mekanismoen eta estratejien bidez baizik; aginpideak ere lagundu zuen horretan, beharra ikusi zuenean. Horien joeraren arabera taxutu ziren langileenak ere, baina, ondorengo garaietako langileetan baino eragin txikiagoa izan zuten, hala ere.

Aurreko ahapaldian deskribatu den prozesu horrek jarrera bitxi samarrak sorrarazi zituen. 1870-1914 bitarteko aldian, klaseko ideologiek eta erreforma sozialen aldeko eskakizunek hainbesteko indarra izan zuten aldi horretan, non kontserbadoreen joerak ere indartu egin ziren bizi mailarik onena zuten langileen artean. Britainia Handian, eta bereziki Londresen, artisautzako kulturak, lehendik ere eustera bakarrik zegoenak, kopuruz ere gutxiagora egin zuen, industria berriaren aldeko apostua egin zuten beste eskualdeetakoan aldean; agian, laneko prozesuen banaketa erdi espezializaziozko lan alorretan banatua zutelako ere gertatu zitzaion hori. Artisauen tailerretako lana urrituz bezala etxean eta industriako lantegieta egiten zena gehituz joan zen. Eta industriako lantegiak hiriguneetatik kanpora ateratzeak indartu egin zuen prozesu hori, eta artisauak kontra egiteko indarrak gabe utzi zituen, aldi berean. Sartu zen kultura eredu berriak, ezaugarri hauek zituen: beste taldeekiko itxia izatea, tabernetan biltzea eta zaletasunez, kirolaren eta *Music hall*-aren aldekoak izatea. Jokaera horiek sendoagotu egin zuten Londresko langileen klase aldeko jarrera. Itxitasun horrek ez zerman berezko borroka joerarik. Burgesiaren idealak, berriz, nahiz familiari buruzko eredia, nahiz inperialismoari eta erregetzari buruzkoak, berez bezala onartu zituen langileriak. Langile talde handien artean Cartismoen bukaera aldera arte bizirik iraun zuten teoria alternatiboak eratzekeo saioak ere desagertuz joan ziren

Londresko langileen artean, eta kontrara, bakerako eta disziplinarako joera sartu zen. Ezin daiteke, hala ere, Britainia Handia guztian horrela gertatu zenik esan: hain zuzen ere, garai berean zuzperraldi berri bat izan baitzuen sindikalismoak Londreskoa baino finkoagoak eta homogeenagoak ziren Iparraldeko industria guneetan.

Produkzioeko prozesuetan izandako aldaketek eta sindikatuen artean gertatutakoek laneko kultura berri bat sorrarazi zuten, kultura hitz hori zentzu zabalean, soldatako bihurtu behar izateak eragindako norbanako kontzientziatik hainbat joera sozial eta jarrera politikotan agertzen zen kontzientzia kolektiboa zutenen artekoan hartzen dela. Nekazaritza giroko joerek eta hirietako bizimoduak, zeinek besteari pixkana-pixkana zuena kutsatuz bat egitearekin sortu zen kultura hori, baina burgesiaren eta langileen arteko borrokak eta langileen beraien artekoak ere izan zuen horretan zeresanik. Horiek izango ziren garai horretako langilearen, alegia, atzean utzitakoari adina aurrean zeukanari begiratzen zion eta zen klaseko erakundeen ideologietatik hartzen zituen ideia abstraktu utopikoen eta eguneroko bizitzan zituen jarrera espontaneoaren artean bere nortasun bereziaren bila zebilen gizatalde horren ezaugarriak.

## **2. Mugimendu sindikal berriaren ezaugarriak**

Langileak hirietan eta industriako lantegietan kontzentratuak egoteak talde bat izatearen kontzientzia sortu zuen horiengan, baina ez zien interes beretako izatearen kontzientziarik eta elkartasunik eragin. Bananduta zeuden lantegietan aritzeak, ordea, ez zuen berez aipatu den kontzientzia hori ez zutenik esan nahi; lana eta beren arteko harremanak nola ulertzen zituzten zen auzia. Sindikatu egituretan izandako aldaketak, bada, langile klasearen egitura ere aldaketa handiak gertatu izanaren eta klase horren aldeko ideologiaren eraginez gizartearen aldatzeko itxaropena zabaldu izanaren ondorio ziren.

Egitura mailako lehenbiziko aldaketa ofiziokako sindikatuetatik sindikatu orokorretara (lanbideen eta lantegien artean bereizketarik egiten ez zuena) eta industriakako sindikatuetera (iharduera bereko langileak biltzen zituen) igarotzea izan zen. Ez ziren aldaketa horiek, zenbait kasutan behintzat, elkarren arteko borrokarik gabe gertatu, eredu zaharrekoek eta berrikoek beretzat eskatzen baitzuten zenbait sektore antolatzeko eskubidea. Egiturari zegokionez, berriz, lantegiak lantegi, ofizioka antolatu behar zirela langileak defendatzen zuten eredu zaharren aldekoek, eta ofizioka baino, egiten zuten lanaren arabera antolatzea hobe zela, eredu berrien aldekoek. Sindikatua soldata hobeak lortzeko eta lanaldia laburtzeko baino gehiagotarako zela pentsatzen zuten sektoreak hedatzearekin, eredu batetik bestera aldatzeko prozesua ere bizkortu egin zen. Sindikatuak

lantegika antolatua egonda bakarrik kontrola zezaketen horietan lan egiten zuten langileek enpresa.

Eredu berriko sindikalismo horrek egin zuen bigarren aldaketa kualifikazio-gabeko langilez osatutako sindikatuak, emakumeak ere onartzen zituztenak, edo emakume hutsez osatutakoak eratzea izan zen. Lehen ere egin zuten (1830. urteaz gero) kualifikaziorik gabeko langileek beren artean antolatzeko zenbait saio, eta emakumeak kide gisa onartu ere bai horietako erakunde batzuek, baina erakundeari eusteko eran XIX. mendearen bukaera arte ez ziren antolatu. Sindikatuen aurrera pauso hori emakumeek eskertu zuten gehiena. 1920an 750.000 emakume inguru zegoen bazkide-tuta Britainia Handian; soldatuko emakumeen %30 baino ez ziren, guztiarekin ere. Emakumerik gehienek lantegi txikietan eta dendetan lan egiten zutelako eta laneko alor horiek sindikalismoaren kontrakoak zirelako zen portzentaia hori horren apala. Sektore horietako langile gehienak, bestalde, behin-behinekoak, ordezkatu errazak eta politikari eta sindikatuei buruz oso iritzi ona ez zutenak ziren.

Azkenik, sindikatu batzuen eta besteen arteko harremanek ere zabalera handiagoa hartu zuten; sindikatuen lurralde mailako koordinazioa edo lurralde mailako zabalera zuen sindikatuaren mende jartzea ohizko bilakatu ziren. Ofizioko egiturarekin ezin iritsi izan ziren zenbait sektoretara sindikatuen eragina iritsaraztea eta horietan (trenbideetara, meategietara, portuetara) hitzarmen kolektiboak sinaraztea ere lortu zen eredu berriko egitura horri esker. Ekonomian eta gizarte mailan izan zen homogeneousazioarekin sindikatuentzat nahitaezko bihurtu zen lurraldeka behintzat batuak egotea, esparru horretako arazoei (eguneko zortzi orduko lanaldia, mekanizazioa, e.a.) erantzun egokirik eman nahi bazien. Zenbait lekutan nahiko astiro zabaldu zen eredu berri hori.

Britainia Handian, esate baterako, langile kualifikatuen sindikatuetan kualifikaziorik gabeak onartu edo hauek beren sindikatuak sortu zituzten arte ez zen zabaldu, 1880tik aurrerako hamarraldira arte, alegia. Sindikatu tradizional moderatuak ez ziren zegoen egoera gogorrari aurre egiteko eta langileen eskakizunak behar bezala defendatzeko gauza izan eta sozialistei eman behar izan zien bidea, ofizioen arteko konponezinak uzteko eskatzeaz eta klaseko elkertasuna aldarrikatzeaz gainera, langileek zeuzkaten arazo izugarriak zuzentzeko bidea ere eskaintzen baitzuten horiek beren eginbide erradikalean. Kualifikaziotan gabeko langileen artean ez ezik beste hainbat elkarte handietako kide askorengan ere harrera ona izan zuen aldarri horrek, sindikatua elkarte mutualista huts geratzearen, soldata txikikoak sindikatutik kanpora uztearen eta Alderdi Liberalerikiko joera kolaboratzaile moderatua uzterik eta langileen benetako interesak behar bezala defendatzen hasteko asmorik agertzen ez zuten sindikatuen kontra zeudenen artean, batez ere. Defentsako sindikatua izatetik erasorako sindikatua izate-

rako iraulketa horretan sektore gutxik bezalako eragina izan zuten, une horretan beren sindikatu egiturak sendotze eta langile mugimenduaren buru bihurtzeetan ziren meatzariek.

Aldaketa mugimendu horri, ordea, 1889ko Londresko portuko langileen grebak eman zion erabateko bultzada, ez, hala ere, sindikatu mugimenduaren barnean hainbat tirabira izan gabe. Langile kualifikaziorik gabeko horien grebak ikaragarriko elkartasun mugimendua sortu zuen mundu guztian, diru laguntza garaile irteteko erabakiorra izango zitzaizaienaren mailan bertan ere. Greba horren arrakastak zela bide, sindikatu sail handia sortu zen kualifikaziorik gabeko langileen artean, eta elkarrekin tradizioarekin ere, halaber, kide berri asko sartu zen. Enpresetako nagusien erasoak zela eta, horietako kide berri askok laster izateari utzi bazion ere, sortutako egiturak berean jarraitu zuen eta sindikatuak hazten hasi ziren berriro, astiroago baina era eutsiagoan orainoan.

Artisauek eta prestakuntza bereziko langileek lehenean jarraitu zuten, erresistentziako eta elkarlaguntzako beren erakundeekin, diruz ere gai baitziren gisa horretako elkarrekin eutsi ahal izateko. Peoiek berriz, diruz urri ibiltzen zirela bide, bazterrerak utzi zituzten horrelako elkarrekin eta borrokarako organizazioak indartzen saiatu ziren, erresistentzia kuxari eusteko eta erakundearen eginkizunetarako behar zen diru doia baizik ez baitzieten eskatzen hauek.

Sindikatuak antolatzeko eraren inguruan (ofiziokako edo enpresakako) eztabaida handiak izan ziren herrialde askotan, eta hartu ere oso erabaki desberdinak hartu ziren batzuetan eta besteetan. Langile gehienak sekzioak eta ofizioak antolatzearen aurka egonagatik, zenbait sektorek, eta berriki sortuek, burdinbideetako batzuek esateko, ofizioak sindikatuei eutsi zieten. Beste lanbide batzuetakoek, berriz, beren langile izateaz harro zeudenek, erresistentzia gutxi egin zioten sindikatuak industriak eratzeari. Dena den, sindikatu mugimendu guztiek bi egiturak mantenduz egin zuten aurrera.

Garai horretako sindikatuen joera nagusia era zentralizatuan funtzionatzekoa eta politikan esku hartzekoa zen, baina ez zioten horregatik bakoitzaren autonomiarik eta lekuan lekukoari edo eguneroko arazoei zuten garrantzia emateari uko egin. Garrantzirik handiena lekuan lekukoari eta ofizioak eratuak egoteari ematen ziona, gero enpresakako antolatuko zena, eta politikan parte hartzeari eta herrialdeko antolatuek egoetari ematen ziona elkarrekin kontrajarriak zeuden. Lehen Mundu Gerraren ondorenean bertan, britainiar sindikalisten %25 lan egiten zuen eskualdeko edo enpresakako sindikatuan zegoen bazkideak, TUC erakundeak ez zirenetan. Estatu Batuetan %50 zegoen horrelako sindikatuetan.

Europako sindikaturik gehienek enpresakako egitura hartu zuten, klase ideologiek indar handia zutelako, alde batetik, baina, enpresa berean lan egiten zuten

artisaunen, prestakuntza berezia zuten langileen eta batere prestakuntzarik ez zutenen artean gero eta alde gutxiago zegoelako, batez ere. Besolanekoak ere, gero eta gehiago zirenez, sindikatuetan onartzea erabaki zen azkenean, artisauek horren kontra agertu arren. Herrialde anglosaxoiarretako sindikatuek ofizioakoko egiturari jarraitzea erabaki zuten, horrela antolatuak baitzeuden gehienak, baina ez zuten hori sindikatuen barnean erreformarik eta egitura aldaketarik egin gabe lortu; enpresa bakoitzean sindikatu bat egin behar izan zuten. Ideologiaren araberrako arrazoiek baino enpresetako baldintza berrietara egokitu beharrak indar handiagoa izan zuten egitura aldatze horretan. Baina ez ziren ere erabat enpresakoko sindikatu bihurtu. Ez eredu batekoek ez bestekoek, batek ere ez zuten industriako langile guztiak eta herrialde guztikorik ere biltzea lortu.

“Eredu berriko sindikalismo” hori eragin handiko indar bilakatu zen Europako kontinenteko herrialdeetan. Hori izan zen molde berri horiek ekarri zuten berrikuntza nagusia, gisako eraginik sektore eta leku oso jakin batzuetan izan ezik ez baitzuen ordura arte izan. Klase kutsuko langile mugimendua eta langileen aldeko alderdi politikoak indartuz zihoazen garaian hazi zen sindikatu mota hori ere. Horietako sindikatu gehienak joeraz sozialisten aldekoak ziren, baina lurralde batzuetakoek harreman estuagoak zituzten anarkistekin eta sindikatu iraultzaileekin. Liberalen, nazionalisten eta zenbait eliza kristauren aldeko langile elkarteek ez zuten eredu berriko horiei traba egiteko adina indar izan, herrialderen batean edo bestean izan ezik.

XIX. mendearen azken laurdenetik Lehen Mundu Gerra bitarteko Europako sindikalismoa, nahiz eta alde guztietan berdin izan ez, sendotuz eta indartuz joan zen, organizazio mailan. Horietako sindikaturik gehienen borrokak gizarte kapitalista aldatzea zuen helburu, epe luzera. Horren berme erabiltzen zuten hizkera iraultzaile erradikalaren eta epe laburrerako hartu zuten estratejiaren artean, ordea, enpresetan borrokatuz eta erakunde publikoetan ere indarra eginez mailaka-mailaka langileen laneko baldintzak hobetzea lortzearen artean, alegia, baziren zenbait kontraesan. Laneko araudi bat ezartzearen eta langileei eskubide sozial batzuk aitortzearen alde indar egiteak nahiz zeudenak hobetzearen alde indar egiteak, eta ahalegin guztiak hitzarmen kolektiboak lortzen eta elkarlaguntzako ekintzetan biltzeak, lehendik zegoen gizarteko egiturak beraiek egin nahi zituzten ekintzetarako esparru gisa onartzea esan nahi zuen. Kontraesan horrek tirabira handiak sortu zituen sindikatu batzuetan, sozialistez hitz egitean aipatu direnez gainera.

Sindikatuaren erakundeari, estratejiari eta helburuei buruz ezkerreko joeratik diseinatu ziren teoretiko kontzeptuak aldatuz joan ziren XIX. mendearen bukaeraz gero. Iturria I. Internazionalerako printzipio orokorretatik lehentasuna erresistentziazko elkartei ematen zietenak onartu ziren, eta ez lehentasuna mutualisten

erako antolaketari eta kooperatibisten erakoari ematen ziotenak, nahiz eta gero, erresistentzia hutsezko helburuak baino aurrerago jo izan zuten kasuetan hazi izan sindikatuak, nabaritzeko moduan. Bestalde, oinarria produkziobideen jabetza soziala eta lana (ez kapitalean) izango zituen geroko gizartearen egiturak aurrirudikatzeko gaitasuna aitortu ere egiten zitzaien langileei. Egin zen jendearen iritzia eta horren laguntza berenganatzeko zenbait saio ere, baina sindikatu gehienek langileen aldeko hizkera estu, ia erabat langileei bakarrik zuzendua erabili zuten. Arazo politikoei zegokienez, berriz, sindikatuak horietan ez sartzea, horiek joera politiko jakinik ez izatea eta parlamentarismoarekiko kritikoak izatea gomendatzen zen.

Sindikatupei buruz egindako hainbat azterketak horien ekintza politikoari eman izan dio indarra eta, sindikatuak langileen alderdi politikoen mende egon diren hipotesian bermaturik, sindikalismoaren bilakaera historikoa ulertzeko alde hori ez ahaztea oinarritzotzat jo izan dute. SPD, Alemaniako alderdi sozialdemokrataren eta bere sindikatuaren harremanetan oinarrituz, horrek bere interesen arabera bideratu izan duela hau esaten dute teoria horiek. Hori horrela gertatu izan da, baina, aldi berean, zeinek bere ekintza eremuak ere izateak, bata bestearekiko autonomo izatera eramanez zituen, funtzionamendu arloan gutxienez. Ziren sindikalistenak zirela ere ezin zuten sindikatuetak buruzagiek alderdi sozialistetakoen paraleloan jokatu. Eta bazen, bestalde, anarkisten joerakoak zirelako edo apolitikokoak zirelako, alderdi politikoeekin harremanik ez zuten erakunderik ere.

Denbora askoan bestela uste izan den arren, ez zuten alderdi politikoei esan den adinako eraginik izan sindikatuen sorreran, gehienez behintzat. Langile kualifikatuen erakundeetatik zuzenean sortu ziren hainbat. Langileek joera ideologiko bat hartzean ere, askoren kasuan behintzat, ondo hausnartu ondoren hartutako erabaki politikoak baino zeresan handiagoa izaten zuten organizazio mailan erabakigarri izan beharrak –zein sindikatu heldu zen halakoa bizi zen lekura lehenengo, e.a.–. Sindikatuen garapena bera lotuago zegoen industrializazioaren aldiekin eta horrek ezartzen zituen erritmoekin ideologia politiko jakin batzuekin baino. Elkarrekin zerikusi handia ohi zuten industriako egiturek garai bereko langileriaaren bizitzako organizazio oinarriekin, langileen politikan parte hartzeko erarekin eta greba mugimenduekin.

II. Internazionala sortzean sindikatuak horren parte izan edo ez eztabaida sortu zen alderdi sozialisten artean. Erabakia baiezkoa izan zen, baina sartzeko gogo gutxi erakutsi zuten sindikatuak –frantziarrek eta britainiarrek, batez ere– elkarte horren estrategian lehentasuna alde politikoari ematen zitzaizkion ikusi zutenean, gehiengoak, beraz, II. Internazional hori alderdi politikoez osatzea erabaki zuten, eta sindikatupei bere elkarte berekia sor zezatela gomendatu zieten. Erabaki horren ondorioz sortu zen 1902an Erakunde Sindikalen Nazioarteko Idazkari-



tza, joeraz marxista zena. Sindikatuetakoa buruzagiek, alemaniarrek bereziki, sindikatuak erabat autonomoak eta “ideologiaz neutralak” izan behar zutela defendatu zuten. Horren truke, arazo politikoetan ez sartzeko konpromisoa hartu zuten, eta arazo politikoak alderdi sozialisten esku geratu ziren.

Mugimendu sozialistaren eta mugimendu sindikalaren arteko harremanak ez ziren ez onak ez era batekoak izan beti, eta gogorrak askotan. Beste talde sozialista bat sortzeak ez zuen berez sindikatu bat sortu behar zuenik esan nahi, bere bideari jarraitzen baitzitzaizkion hauek. Bizkaiko meatzarien eta Alderdi Sozialistaren kasua nahiko garbia izan zen horretan; meatzariak, behin-behinekoak izanik, ez zeuden prest sindikatuak eska ziezazkiekeen konpromisoei aurre emateko, eta Alderdi Sozialistak bete zituen sindikatuaren eginkizunak. Sozialisten eta sindikalisten arteko tirabirarik gogorrenak, hala ere, beste alor batean gertatu ziren. Batzuek eta besteek, indartuz zihoazen eran, azpia jaten zioten elkarri, eta alderdiaz arduratzen zirenek eta sindikatuaz arduratzen zirenek zeinek zeri garrantzi handiagoa ematen ziotenez, batzuen eta besteen arteko konponezinak ere handituz joan baitziren. Alderdi sozialistek, bestalde, gero eta garrantzi handiagoa ematen zioten parlamentuan egin zezaketen lanari, eta horretan sindikalistak ez zetozen haiekin bat. Politika mailako lanek sindikatua bere lan berekietatik okertu egiten zuela zioten sindikalistek, jostailu gisa erabiltzen zituztela haiek beren greba politikoetan, hauteskunde kanpainetan eta gisakoetan, eta horrekin desbideratu egiten zutela sindikatua zuzenean sistemari aurre egitetik.

Alderdi sozialisten iritzian, borroka sindikalak baino garrantzi handiagoa zuen borroka politikoak, eta, hori zela, denbora luzean egon ziren alderdi horiek bere eta sindikatuen arteko harremani buruzko eta sindikatuak iraultzan jokatu behar zuten paperari buruzko teoria sendorik gabe. Alderdi sozialistetakoa kideak, aldi berean, sindikatuetakoa kide ziren, horiek, pentsakeraz alderdiaren aldekoak izanik ere, ideologia politiko finkorik gabeko langilez osatuak eta zeramaten praktikan erreformistak izan arren. Sozialisten iritzian, iriskizun konkretuak lortu nahi horrek oinarritzko xedeaz, gizarte burgesa iraultzeaz, ez arduratzea eragiten zituen sindikatuak. Funtseko borroka ez baitzen, azken batean, jabetun banakoaren aurkakoa, jabetzaren eta horri eusten zion aginpide kapitalistaren kontrakoa baizik.

Sindikatu sozialisten oinarritzko ezaugarriak moderatuak izatea, erreformak mailaka-mailaka lortzearen aldekoak izatea, ekonomia eta gizarte alorretan Estatuak parte hartzearen aldekoak izatea eta langileria haintzat hartzearen eta beroreen moraltasunaren aldekoak izatea ziren. Burgesiak, hala ere, beren helburua zegoen gizartea desegitea zutela bizkarreratzen zien, eta sindikatuetakoa buruzagi asko adierazpen moderatuak egiteari eta xedea langileen moraltasuna erakustea zuten ekintzak, familiako bilerak eta irtenaldiak antolatzeari lotu zitzaizkion hori

gezurtatu nahiz. Langileen eskakizunetan ere jarrera moderatua agertzen zuten, eta nekez lor zitezkeenak alde batera uzten zituzten ahal bazen. Grebak berak ere, zituzten eskakizunak ezartzeko asmoz baino areago aginpide publikoak hartan parte har zezaten egiten zituzten, askotan.

Horiek horrela zirelarik, sindikatu sozialisten beste ardura organizazioa bera zen, eta arian-arian ardura nagusi ere bihurtu zen. Bestela ere sindikatu sozialistak oso grebazaleak ez ziren, nolanhiko huelgen zale bederen, eta horietakoren batek sindikatuko ekonomiari edo organizazioari inolako kalterik bazekarkion, oso kontrako jarrera agertzen zuten. Horregatik jo zuten arauzko deitzen zitzaizen huelgetara, eta ugalduta ziren greba egitea oztopatzen zuten arauak.

Sindikatuak organizazioari hainbesteko garrantzia emate horren atzean kideak gehitzeko asmoa zegoen eta horrek ematen zien indarra zela bide nagusiak beren mailara ekarrarazi eta grebaren lekua negoziazioari ematekoa. Horiek langileriaren ordezkotako aitortzeak nagusiei indarra kentzea ere bazekarren berekin, baina sindikatuak enpresako funtzionamendu arauak, isilka bederen, onartzea ere bai, aldi berean.

Hartzen zituzten konpromisoetan “fidagarri” izatea laguntza handiko izan zitzaizen sozialisten joerako sindikatuei hazten joateko. Nagusi asko konturatu zen zein aukera ona zen sozialisten erakunde sindikalak “instituziozko” bihurtzea nagusi langileen arteko tirabirak baretzeko, kontrolatu ezinako gatazkak bideratu ahal izateko eta langileengan disziplinazko joera sartzeko. Sindikatu horiek ez zuten, gainera, laneko alorra bakarrik kontrolatu nahi. Onartzen zituzten arauak zuzen betetzetik zetorkien fidagarri izatearen fama, baina horrez gainera, langile sozialista saiatu eta bere obligazioak zuzen betetzen ahalegintzen zenaren erredua zaintzen ere asko saiatzen ziren. Nagusientzat, beraz, fidagarriagoak eta errentagarriagoak ziren militante horiek, teoriarik behintzat, disziplina gutxiagoko eta produkzio filosofiarik oso emanak ez ziren beste anarkistak baino.

Aginpidea indarrez eta iraultza bidez hartzeko saioek huts egin zuten, sozialisten iritzian nahitaezko eginbehar bihurtu zen langileria geroz eta areago eta etengabe antolatzea, eta lan hori langile militante zuzen disziplinatuen eguneroko eta alor guztietako borrokan oinarriturik egitea. Disziplinatua izatea nahitaezko bertutea zen, beraz, langile sozialistarentzat. Hala eskatzen ere zion marxisten tradiziozko joera autoritarioak, disziplinaz bete zitzala, alegia, goitik zetozkion aginduak, helburua iraultza sozialistaren alderako borroka bideratzea zutenak nahiz, sarriagoak hauek, buruzagi politiko edo sindikalek nagusiekin edo aginpidearekin hartutako akordioak garrantzizatzea helburu zutenak.

Jarrera horrek hainbat kontraesan sortu ere egin zuen erakunde horien barnean. Askoren iritzian ez zegoen erakunde sozialistek mundu kapitalistatik at sortu

nahi zuten langile kontragizartearen (Herriko Etxeetan eta horien eginbideetan islatzen zenaren) eta gorago aipatu den soldata eskaera moderatuen artean edo Herriko Etxeetako langileekiko zuten jostore jokaeraren artean kontraesanik, baina baziren bestela uste zutenak eta jestio hori “nagusiena baino kapitalistago” zela ziotenak ere, hain zuzen ere, etxe horietako langileek lanaldi luzeak eta soldata txikiak baitzituzten. Gizarte berri bat jasotzen joateko asmoz eragin zituzten “Leinu moderno” eta gisako izenak eman zizkien etxe merkeen kooperatibak, langileak disziplinan eta “moralean” sarrarazteko nagusiek egin zituzten antzeko beste zenbait ahaleginekin bateratsu zetozenak.

Garai horretako beste eredu sindikal handia sindikatu iraultzaileena zen. Sindikatu horiek parlamentu eta instituzio bidezko politikarik ez zuten onarten, langileen askatasuna greba orokorraren, boikotaren eta sabotaien bidez bakarrik lor zitekeela eta etorkizuneko produkzioaren kontrola sindikatuen eskuetan utzi behar zela zioten. Horien helburua hobekuntza konkretu batzuk lortzea baino areago zuten ideologia eta politikan parte hartzeko era kalera ateratzea zen. Joe-raz erradikalak eta ideologiaz anarkisten hurbilekoak ziren, baina horiengandik bereziak, aldi berean, zeren sindikatu horientzat borrokarako armarik erabakigarriena greba orokorra zen; anarkista asko, berriz, garaile irtetez gero berriro gogortasunari eta altxamenduak antolatzeko bideari ekin beharko ez ote zitzaion planteatzen hasiak baitziren.

Sindikalismo eredu hori, sozialistenekin alderatzeko bederen, minoritarioa zen, oro har, baina ez herrialde guztietan. Londresen egin zen Sindikatuen Nazioarteko Kongresura (1913) 200.000 kideren ordezkariak eramane zituzten hauek, Sozialisten Nazioarteko Idazkaritzak, berriz, zazpi miloirenak. Barneko eztabaidak, organizazioari buruzkoak, areagotu egin zuen ahultasun hori, eta eredu horretako sindikatuak ez ziren Lehen Mundu Gerrara arte indartzen hasi. Gerra bitartean eta 1920. urtea arte haziz joan ziren, baina, bideratu zituzten huelgen hutsegitea eta komunismoaren gorakada zirela bide berriz ere ahultzen hasi ziren, eta ia Espainian bakarrik geratu ziren indartsu.

Sindikatu eredu horrek Frantziar Laneko Konfederazio Orokorra (CGT) sortu zenean (1895) izan zuen eraginik handieneko garaia. CGT greba orokorraren alde agertzea erabakiorra izan zen parlamentu eta hauteskunde bidezko borroka politikoaren kontra sindikatuen autonomia sendotzeko. Lau ziren, bana-ka edo batean, greba orokorrenekin lortu nahi zituzten helburuak: lan alorreko iriskizun bereziren bat edo garrantzi handiko erreibindikazio politikoren bat erdietsi, sindikatuaren indarra erakutsi, gobernuei gerran sartzea galarazi eta iraultza soziala piztu. Dena den, eredu horretako oso sindikatu gutxik zeukan greba orokorra proletarien askatasuna eta iraultza bete lortzeko bide bakartzat.

Sindikatu horien iritzian, sailkako grebak eginez jarri behar zen greba orokor hori bidean, baina erakunde moderatuek huelgetan jartzen zituzten mugei kasorik egin gabe. Frantziako garai horretako lanuzte asko horrelakoak izan ziren, langile gutxik parte hartzen zutenak eta, iraupenari zegokionez ere, laburrak. Bestalde, negoziazorik ere ez zen izaten horietan, eta askok huts egiten zuten. Sindikatu horietako kideentzat ez ziren greba horiek soldata hobea lortzeko bidea bakarrik izaten, nagusiei eta areago ziren lurraldeko agintari politikoei sindikatuak zuen indarra erakusteko aitzakia izaten ziren, batez ere. Dena den, ez zuten Frantziako sindikatuek organizazio eredu hori sindikalismo iraultzaileak zuen eraginagatik bakarrik hartu; sindikatu horiek aldeko joera hori hartzeko faktore erabakiorrak izan ziren ere lurralde horretan artisautzak indar handia izatea, industria lantegi txikietan oinarritua egotea, Proudhonen jarraitzaileek eragin handia izatea eta Frantziako egitura soziala, politikoa eta pentsatzeko era zen bezalakoa izatea. Frantziako sindikalismoak eta CGTko militanteek sindikatu eredu hori hartu izanari eman izan zaion baino garratzi txikiagoa ematen zaio gaur egun, eta sindikatu horrek uste izan den adinako eragina izan zuela ere zalantzan jartzen da. 1905-1906. urtea bitartean, erakunde horrek eragindako huelgen mende egon zen Frantziako parte handi bat, baina eredu horrek indar asko galdu zuen 1908tik aurrerako urteetan. Greba horiek ez ziren, halaber, sindikatu mota horren printzipioei zegokien bezala, sistema kapitalistaren oinarrien kontra eginak, soldatak hobetzeko eta laneko orduak murrizteko eginak baizik.

Ez zuten ere greba orokorraren eta kapitalismoa suntsitzearen beharra sindikalista iraultzaileek bakarrik defendatzen. I. Internazionalaren joera sindikalistari jarraitzen zitzaizkion sozialistak ere printzipio horien alde zeuden, eta bi printzipio horiekin ez ezik beste hainbat punturekin ere bat zetorren langile militanteen parte handi bat, langileria oso-osorik hartzen bada behintzat. Beste sindikatuekiko aldeak, batez ere anarkistekin zituztenak, areago zegozkion moderatuago izateari edo ezari, ideologia edo estrategia jakin bat edo bestea izateari baino.

Sindikatu askoren barneko loturak, komunitateetako kutsua zuten, eta lotura mota horiek anarkisten eta sozialisten dotrinazko aldarriak baino elementu sendoagoak ziren langileen arreta berenganatzeko eta horietan sustraia hartzeko. Sindikatu horiek gero eta era organizatuagoan eta, aldi berean, gremioen sistemako zenbait elementu, ofizioen bere interesak defendatzeko era eta zeuden garaiko propaganda egiteko modu berriak konbinatuz bideratzen zituzten beren ekintzak. Ekintza horietan, bestalde, gatazkaren beraren dinamikak pisu handiagoa zuen haren edo honen ideologiak baino. Langileek zirenen benetako kontzientzia hartzeak erabateko garrantzia izan zuen ofizioetako elkarte korporatibetatik behin betiko sindikatuen erako elkarteetara igarotze horretan. Antolatze era berri hori zela bide, lehengo demagogia sotilak eta joera erradikalak alde

batera utzi eta langileen eguneroko bizimoduari hobeto zegozkion kooperatibe-kin eta, denborapasako, heziketarako, elkar laguntzako eta gainerako mugimen-uekin loturak sendotzen hasi ziren sindikatuak. Elkarte eta erakunde horietan egin zituen sustraiak, oinarri anitzeko deitu izan zaion sindikalismoak, erresistentzia bideko gatazkak eta elkar laguntzako nahiz heziketako lanekin konbinatu zituenak.

### 3. Langile sindikatu gabeak

Langile askok, ordea, gehiengoak, nahiago izan zuen gisako elkarteetatik kanpora geratu. Horietako batzuek sindikalisten aurkako jarrera ere agertu zuten inoiz. Elkarteetatik kanpora geratze horrek ez zuen, berez, hala geratzen ziren langileak enpresaren aldekoak zirenik esan nahi. Zigorraren beldurra ere bazuen horretan bere eragina, nagusi asko ahalegindu baitzen langileei sindikatu-etan sar ez zitezen beldurra sartzen. Zerrenda beltzak, sindikatu-etak kideei lanik ez ematea, ez zirenei abantaila handiagoak ematea eta gisako trikimailuak erabiltzen zituzten horiek langileak beldurtzeko. Baziren, bestalde, sindikatuen ahalmenean sineste handirik ez zutenak ere. Horietako asko gatazka aurreko egunetan sartzen ziren sindikatu-etan, eta hura bukatu bezala utzi egiten zioten kuota ordaintzeari. Beste hainbatek, berriz, produkzio sistema kapitalista aldae-zina zela eta, ezinean etsirik, nahi edo ez zegoen hartan utzi beharko zela uste zuten. Bestela ezin izan zitekeela zirudien kapitalismoaren izate horrek klaseen eta aberastasunaren banaketa ere izadiaren ordenako etorki gisa ikusarazten zuen.

Elkarteetan ez sartzearekin, zegoen sistema politikorik eta sozialik ez zuela onartzen adierazi nahi zuen beste hainbat langilek, hain zuzen ere, erabakiak hartzeko eta erabakietan eragina izateko oso eskubide gutxi baitzuten sistema horretan, ahal zuen guztian biztanleen bizitza kontrolatzen saiatu egiten ere bazen-eta. Gizarteko eremu askotan gero eta esku gehiago izatea zen, hain zuzen, estatuaren, eta bereziki Alemaniako estatuaren ezaugarri nagusia. Ordena publikoa ulertzeko era horrek, biztanleen ikasketa maila eta higiena, fisikoa nola gogozkoa, areagotzeko kontrolek, nahitaezko soldadutzak, e.a. eginbehar horien arabera hezitakoa, eta gisa horretako administrazioa eta disziplina ohi-tutakoa borrokari buruz ere, ia nahi gabe, instituzio bidezko joerara jartzea era-gin zuten, gaitzesten zituen haien oso antzekoetara hain zuzen. Langile asko, bada, elkarteetan sartzearen kontra egon zen, hauek ere, estatuak bezala, horren ordezkotza eginez eta osagai gisa jokatzuz, langileen bizitzako alde guztiak kontrolatzeko joera baitzuten. Izan ere, erresistentzia egiteko elkarte ez ezik osasun laguntzako elkarte, etxebizitzagile, denbora pasako eta heziketako biltoki ere

bihurtuak baitzeuden sindikatuak. Bazeuden, bestalde, bere miliziak zeuzkatenak ere. Alemaniako sozialdemokraten manifestazioek, esate baterako, gudarosteak egiten zituen desfileen itxura oso-oso zuten. Alderdiaren barnean zegoen hierarkia mailaketaren irudi ziren nahigabe ere. Estatua gaitzesten zuten era berean gaitzesten zuten elkarteetan sartu ez ziren langile horiek sindikatuak, bere iritzian ez baitzuen langileen interesekin eta antolatzeke erarekin zerikusirik.

Beren mundu berekia sortzen eta jasotzen ere saiatu ziren langile horiek, Estatua suntsitzeko edo aldatzeko asmoz izanik ere, ia soilik horretan zentratzen zen politika egiteko eraren kontra beste modu berezi batzuk asmatuz, e.a. Langile horiek politika egiteko eta gizartea antolatzeke erari buruz zeuzkaten iritziak ez zetozen indarrean zeudenekin bat, ezta langileen alderdiek eta erakundeek hainbat gairi buruz izan zituztenekin ere. Lehen Mundu Gerra zela eta, batzuek eta besteek hartu zuten jarreraren nahiko garbi ikusten da esandakoa: Europako langile askok, suhar edo ez, gerraren alde irten baitzuen, II. Internazionalak, berriz, egite kriminaltatzat hartu baitzuen hori. Kontrakoak ziren, halaber, langile “kontzientziadunari” eta langile gehienen bizimoduari buruz langile erakundeek eta sindikatu gabeek zituzten iritziak ere.

Sozialisten joerako militanteentzat eta bereziki joera bereko sindikalistentzat, zuen denbora libreka bere maila teknikoa eta ideologikoa hobetzen eta bere interesen aldeko propaganda egiten eta borroka organizatzen ematen zuena zen langile ona. Horien iritzian, militante onak ez zuen tabernetan eta kafetegietan ibili behar, ez zuen ere futbola (zezenak, Espainian) ikustera joan behar, klaseko interesei buruzko kezkek ahaztarazi egiten baitzizkion horrek. Halakoak ontzat eman behar zituen, berriz, burgesiaren arau sozialak, bere klasearen eta gizarte osoaren aurrerako pertsona sinesgarri bihurtzen baitzen hori eginez eta, aldi berean, laneko arazoetan parte hartzeke eta sistema arbuiatzeko nortasun handiagoa ematen baitzion horrek. Langile arruntaren ardurarik handiena, aldiz, egiten zuen lanaren prozesua ahalik eta ongien menderatzea eta abantaila konkretu hurbilak lortzea izaten zen. Ingurune horretatik dator langileek eta, batez ere, kualifikaziorik gabeko langile lan segururik gabekoek soldatak hobetzeari epe luzeko beste lorpen abantailatsuagoei baino garrantzi handiagoa ematea. Langile mota horrek eragin handia izan zuen taberna giroan, kiroletan eta masen ikuskizunetan oinarritu zen hirietako kultura berrian, bere klase kontzientzia sendotzen baitzuen leku eta iharduera horietan. Britainia Handiko hiri askok horregatik ditu gaur egun bi futbol talde; gehienen kasuan, horietako bat garai hartan sortutakoaren ondorengoa da.

Alderdiek eta sindikatuek oso ondo ezagutzen zituzten langileen benetako nahiak, baina beren probetxurako ziren neurrian bakarrik hartzen zituzten kon-

tuan: erakunde horientzat, langile masen kulturak zituen elementuetatik klase kontzientzia areagotzen zutenak nola organizazioa sendotzera egokitu zen auzia.

Guztiaz ere, langile horiek Estatuaren jokaerarik edo alderdien politika egiteko erarik ez aintzat hartzeak ez du noizbehinka alderdien bitartekotza eta politikan parte hartzea onartzen ez zutenik esan nahi. Ez zeuden jarrera biak, “politikoena”, kolektibotasunaren aldekoena edo mundua aldatzeko asmoz organizaturik zeudenena eta bakarkoiena, asmoa beharrik premiazkoenak lortzea zutenena, alegia, erabat kontrajarriak. Ez zen, bestela izatera, gizarte guztietan ohi diren tarteko ñabardurentzat eta kontraesanentzat leku handirik. “Politikoengandik” urrun ibili nahi izanak ere ez du zegoen sisteman integratu zirenik edo beren bizitzan eta laneko lekuan erresistentziarik egiten ez zutenik esan nahi, berez.

Enpresako kontrol sistemak eskurik izango ez zuen leku bat eta denbora bat langileentzat izatearen alde egin zuten borroka isila izan zen horietako bat. Leku batzuetan sindikatuen laguntzarekin bideratu zuten borroka hori, horien laguntzarik gabe, ordea, gehienetan. Esperientzia beretsuak izan izanak elkartzen zituen leku horietan biltzen zirenak, ez erakunde edo elkarte bereko izateak, eta enpresak ezarritako balioen eta disziplinaren kontrako ekintzekin erakusten zieten batzuek besteei elkartasuna, sabotaien bidez, lanera berandu iritsiz, lanean ari ziren lekua utziz, makinak zikinduz, siestako orduan lo eginez, erretzen arituz, e.a. Lantegian egon gabe ikusten ez ziren ekintzak ziren horiek, isilak, baina fabriketako araudietan erresistentzia gisa jasoak zeudenak. “Matxino” egite horiek, bestalde, zikindu egiten zuten klaseko erakundeetako langile saiatu, zuhur zintzoaren izen ona.

Ez zituzten ekintza horiek laneko baldintzak hobetzeko edo beste zeinahi eskakizun lortzeko egiten. Horrelako eskakizunak lortzeko egokiagozat zeuzkaten era kolektiboan burutu zitzaizketen beste ekintzak, grebak, e.a. Norberak eta gainerako langileek autonomia guztiarekin lan egin ahal izan zezatela eta langileari zituen eskubideak eta duintasuna aitor zekizkion eskatzeko egiten zituzten ekintza horiek. Langile organizatuek beren erresistentziatzeko ekintzetan eskatzen zituztenen oso antzeko helburuak zituztenez, eta horrekin bien arteko muga ilunago bihurtzen zutenez, bestelako edozein ekintza ere enpresako disziplinaren aurka egindakotzat hartua izateko bidea ematen zuten. Ez besteak bezala era organizatuan, baina hartzen zuten horiek ere politikan parte, politikan parte hartzea era eta bide jakin batzuen arabera egitea baino zentzu zabalagoan hartuz gero behintzat. Langileen itxaropenak eta nahiak adierazteko beste era bat zen sindikatuen eta politikoen bidetik sartu nahi ez zutenen denbora banaketa beren esku hartu nahi hori ere.

#### 4. Mugimendu sindikalaren hedatzea 1945 arte

##### Lehenengo aldia: 1889-1914

1889an eta Britainia Handian, kualifikazio gabeko langileek beren lehenengo sindikatuak eratu zituztenean hasi zen aldi hau. Organizazio mailari dagokionez nahikoa indartsu ziren sindikatuak XX. mendearen hasieran; sindikatuetakoa kideen kopurua, ordea, nahiko apala izan zen Lehen Mundu Gerra arte. Belgikakoan bertan ere ez zegoen langileen %7 besterik (1910), egitura sendoa eduki arren. Horretan alde handia zegoen, hala ere, industriako sektore batzuetatik bestetara. Frantziako meatzarien artean, adibidez, %51 zegoen sindikatuetan sartua, oihaigintzako sektorean, berriz, %5 besterik ez. Kasurik deigarriena Italiako sindikatuena zen, hala ere, lurralde horretan bazkideen %41 nekazaritzako langilea baitzen. Dena den, sindikatuen indarra ez zegoen kideen hainbatekoan bakarrik, garrantzi handia zuen, halaber, kide horiek eskualde edo industriako sektore jakin batzuetan ari izateak nola soldatarik hoberenekoak izateak eta prestakuntzarik handieneko lanbideetan aritzeak, edo baita horiek intelektual edo moral mailan eragin handikoak izateak. Faktore horiei esker bihurtu ziren sindikatuak langile gehienen ordeko.

Erakunde horien egoera ez zen oso argia, legerari zegokionez, sinatzen zituzten hitzarmenek ere ez zuten oinarri sendorik izaten, beraz. Danimarkako enpresarien elkarteak eta sindikatuen ligak 1899an hitzarmen bat sinatu izana eta Britainia Handian huelgen eta beste nahasketa politikoen ardura nori egotzi arautzeko 1906an eta 1913an legeak egin izana garaiko egiteko ohituretatik kanpora geratzen ziren. Eskakizun ekonomiko edo sozial batzuen alde indarra egiteko grebara jotzea nahiko gauza normala zen, hala ere. Horrela, Suediako langileek hilabeteko greba egin zuten 1909an soldatak hobetzea lortzeko. Bozketa orokorraren alde ere mobilizazio asko eragin zituzten langile alderdiek eta beste erakundeek. Sindikatuek eragindako greba orokor baten bidez lortu zuten Belgikan botoa emateko eskubidea biztanle gehiagoetara zabaltzea. Botoa emateko eskubide horrek, bestalde, are indar gehiago ematen zien langileei, zeren zenbait alderdi politikok, alderdi sozialistak gero eta indartsuago ziren hartan, batez ere, beretzat nahi baitzituen boto horiek.

Sindikatuak garai horretan hartu zuten egiteko nagusietako bat langabekoen kutzak sortzea izan zen. Horretarako, Frantziako Laneko Boltsa, XIX. mendearen erdialdean hasi zena, hartu zuten eredu. Langileek lanpostua aurkitzeko sortu zituzten bulego antzeko batzuek ziren boltsa horiek; hasieran administrazioak finantzatzen zituen, baina gero CGTren esku geratu ziren. 1890etik aurrera udalen laguntza ere izan zuten gisa horretako erakundeek. Langileentzat arazo gogor bihurtu zen lanik ez izatea, inolako laguntzarik ezak soldata bat izatearen truke



edozein lan mota onartzera bultzatzen baitzuen hala zegoena. Sindikatuen langa-beziarako aseguru boluntarioak subentzionatzeko sistema Frantzian (1905) zabaldu zen lehenbizi nazio osora, Norvegian, Danimarkan, e.a., gero. Lurralde batzuetako sindikatuek, ordea, Estatuaren esku hartze hori beren independentziaren kontrakotzat jo zuten eta ez zuten horrekin kolaboratu nahi izan.

### **Bigarren aldia: 1914-1929**

Lehen Mundu Gerraren hasieratik 1929ko krisia arteko honetan izan zuten sindikatuek beren hazteko garaia. Ez bakarrik Europako sindikatuak, gainerako kontinenteetakoak ere ikaragarri indartu ziren garai honetan. Ez dago datuak ikusi besterik: 1913an 15 milioi langile zegoen munduan sindikatuetan sartuta, 1921ean, berriz, 46 milioi. Sindikatu guztietako langileak hartzen dituzte kopuru horiek, eta ez klaseko sindikatuetoakoak bakarrik. Urte bitarte horretan, gerra aurrean halako 2-5 langile gehiago sartzen zen sindikatuetan. Britainia Handiko eta Alemaniako sindikatuek, adibidez, ez dute gaur egungo historian orduan adinako indarririk izan, eta Frantziakoek eta Danimarkakoek ere ez 1930etik aurrerako urteak arte.

Beste zenbait arlotan ere gauzak asko aldatu ziren garai horretan. Makinazko lana erabat sartu zen, adibidez, enpresetan eta horrek tradiziozko lanbideekin zerikusirik ez zuen langilea ikaragarri gehitzea eragin zuen. Halaber, sektore bereko lanbide guztietako langileak sindikatu bakarrean bilduz joatea ekarri zuen horrek berekin. Garai honetako sindikatuetoako bazkidea ere ez zen gerra aurrekoaren izaera berekoa; langile kualifikatua edo ofizioduna ohi zen gerra aurrekoa; oraingoa, berriz, eraikuntzako, meagintzako, garraioetoako edo egur laneko langile arrunta. Sektore publikoan, gaur egun sindikatuen zutabe nagusietako bat den horretan, hedatzen hasi baino ez ziren egin langile erakundeak, debekatua ere baitzeukaten sektore horretako langileek sindikatuetan sartzea. Bestalde, enpresa txikietan baino indartsuagoak ziren sindikatuak enpresa handietan eta ez hain handietan.

Ondorengo faktoreok garrantzi handia izan zuten sindikatuak indartze horretan. Alde batetik, langile gehiago behar zen industriako ziklo berri horretan; sindikatuei produkzioko zenbait alde hobeto kontrolatzeko egokiera ere eskaintzen zien horrek; bestetik, langilea lehen baino gehiago esplotatzen zen sistema berri horretan, eta bizitzeko behar zituen gauzen kostuak ere soldatekin konparatzeko-rik gabe igo ziren. Faktore horiek, bestalde, babes handiagoaren beharra sortu zuten langileengan. Behar horrek eta soldaten eta prezioen arteko diferentziak mobilizazio handiak egitera eta alderdi politikoetan, sindikatuetan eta gainerako elkarteetan parte hartzera eramane zituen langileak. Eta azkenik, gerrak berak ere egokiera handia eman zien sindikatuei lehen ez zuten lekua hartzeko.

Sortu zen egoera zela bide, legezko ez ezik lan harremanetako elementu sendo ere bihurtu ziren sindikatuak, izan ere, gerran sartuta zeuden gobernuek lurraldearen barnean bakea izatez gero sindikatuekin negoziazioetan hasi behar baitzuten. Negoziazio horietan langileria osoaren ordezkio izateko eskubidea aitortu behar izan zieten sindikatuei, ordura arte ez bezala. Sindikatuentzat ere, ordea, ez zen dena irabazia izan, zeren uko egin behar izan baitzien gerra aurrean erdietsitako hainbat abantailari eta bestelako egoera batean inola onartuko ez zituzten lan baldintzei ere. Elkarrekin eratzeko benetako eskubidea lortzeko eta zegoen forma hutsezko bestea baztertzeko ere aukera ona izan zen gerra. Europako gobernu askok (Britainia Handikoak ez) ezagutu zien enpresetan sindikatu lana egiteko eta langileen izenean hitzarmen kolektiboak sinatzeko eskubidea.

Gerra zela medio, sistema politikoak ere sendotu egin ziren hartua zuten parlamentuzko eta demokraziatzko bidean, eta aristokraziaren agintzeko era gogorrak alde batera utzi zituzten aldi berean. Bestetik, are bortitzago bihurtu zen Estatu eta horren ekonomia arazoetan sartzeko joera ere. Hori zela eta, edozein greba handi samarrek berehala kutsu politikoa hartzen zuen, Estatu sartzen baitzen tarteko.

Errusiako Iraultzak ere, bestalde, bultzada handia eman zion eskakizunen auziari; horietako asko lortzeko bidea eman zuen, gainera, nahiz eta gerra ondoren sortu zen ekonomia krisia abantaila asko eskuratzeko oso egokia izan ez. Garai horretan (1919) lortu zen sistema politikoak demokratikoago bihurtzea, eguneko lanaldia 8 ordura jaistea, langabeei laguntzea eta oporrak ordaintzea. Ordaindutako oporraldiak izateko eskubidea (bi aste) Norvegiako langileek erdietsi zuten lehenengo, eta beste lurraldeetara ere zabalduz joan zen pixkanapixkana. 1930eko hamarraldiaren bukaera alderako bazituzten Frantzia, Ingalaterran eta Suedian opor horien iraupena arautzeko beren legediak, herrialde mailarako eginak; lege horien arabera, 6 eguneko oporraldia har zezakeen langile soil batek eta 12 eguneko, enplegatuak. Gainerako herrialdeetan ez zuten izan gisako eskubiderik eta legerik II. Mundu Gerraren ondorena arte.

Greba bolada handi bat inguru zutela gertatu ziren aipatu diren aldaketa horiek. Gorago aitatu diren abantailez aparte industria handia, burdinbideak, bankuak eta meatzaritza nazionalizatea eta soldadak eta lan baldintzak hobetzea ere eskatzen zituzten langileek greba horietan, ez zenean sistema sozialista bete-betean ezartzea sistema kapitalistaren ordez. Sindikatuen Nazioartekoak, 1919an ezkerreko sindikatu moderatuak elkartu zituenak ere, langileek enpresetan esku gehiago izan zezatela eta enpresen kontrola ere horien esku gelditu zedila eskatu zuen gerrak eragindako aldaketak aztertu ondoren, hori ere herrialde kapitalistek langileen egoera hobetzeko programan sartzen zela eta. European ez ezik Argentinan ere zabaldu zen gatazka giro hori, bata eta bestea elkarren urrun egon

arren. 1919ko lehen sei hilabetean 238 lanuzte, 21 greba orokor eta iraultza saio bat izan ziren lurralde horretan.

Langileez beste, eta lehenbiziko aldiz hau, bankuetako eta dendetako enplegatuek eta funtzionarioek berek ere hartu zuten parte greba horietan, ez langileen neurrian baina. Sindikatuen eskuetatik kanpora antolatu izan ziren horietako greba asko; hedaturaz eta kutsuz ere, orokorrak eta politikoak izan ziren, ez leku batera mugatzen eta eskaera ekonomiko hutsetan geratzen zirenak. Zegoen gatazka giroa argien, Italian, 1920ko abuztuan izan ziren fabrika hartzeetan, islatu zen agian. Mugimendu hori komunistek piztu zuten, baina sozialistak eta sindikatu iraultzaileak ere lagun izan zituzten aurrera eramateko orduan. Enpresen kontrol osoa beren esku uztea eskatzen zuten langileek. Fabrikak hartuta gero martxan jartzen ere saiatu ziren. Mugimenduak, ordea, huts egin zuen eta estatua sartu zen auzia konpontzera. Besteak beste, soldatak igotzea, txikiago ezineko soldata bat finkatzea, lanordu estrak gainerakoak baino gehiago ordaintzea eta ordaindutako oporrak egiteko eskubidea izatea lortu zuten langileek gertaera horien ondoren egin zen hitzarmenean. Ziren gogorrek ere ez daiteke abuztuko gertaera horiek iraultza kutsukoak izan zirenik esan, zeren klase kontzientziak baino areago etsipenak, zegoen ekonomia krisiak, horrek eragiten zituen lanetik botatzeek, fabrika ixteek eta soldata murrizteek eraman baitzituzten langileak egin zuten hartara. Argentinako lanuzteen eta mobilizazioen hirutik bik ere soldatak hobetzea zuen helburua; lanorduak gutxitzea, laneko baldintzak hobetzea eta langileen elkarrekin eta ordezkariak aintzat hartzea, berriz, gainerakoek. Enpresetako nagusiek azkeneko eskakizun horri egin zioten gogorra.

Errusiako Iraultzak, beste zenbait herrialdetako iraultza saioek eta Komunisten Nazioarteko Elkarrekin sortu izanak eragin zuen beldurrak ere izan zuen 1919ko eta 1920ko gatazka handi horien helburuak ekonomia eskakizunetara eta sindikatu gisa zegozkien beste hainbatetara okertze horretan bere zeresana. Gertaera horiek zirela eta, langileen mugimenduaren kontra hauteskundeetarako eta gobernua osatzeko aliantzak egiten hasi baitziren nekazari eta burges talde bartzuk, eta aldi berean, erreformen edo iraultzaren bidea zein hartu ez zekitelako, inoiz baino banatuago baitzebiltzan alderdi sozialistak. Urteetan kapitalismoaren kontrako kontzientziari eta jarrerari bero eusten saiatu izan ziren alderdiak komunista bihurtu ziren eta Errusiako alderdia hartu zuten eredu; inorekin koalizioak egitez gero amor eman beharra zegoela uste zutenek sozialdemokraten taldea eratu zuten, bestalde. Horrekin, indar handiagoa hartu zuen bi taldeek elkarrengatik zeukaten etsaitasunak. Anarkistek, berriz, sozialdemokraten epeltasuna adina gaitzesten zuten komunisten indar ustea eta autoritarismoa.

1918ko azaroan, Weimar Errepublika proklamatu izanak bidea emanik, langileen eta soldaduen kontseiluak eratzeke deia zabaldu zen Alemanian. Kontseilu

horiek gaitzetsi egin zituen Sozialdemokraziak, baina Legegintzako Batzarra bilarazteko proposamenaren alde irten zen aldi berean, gerra zibilik izan ez zedin. Kontseilu horien ordez, Austrian eta sortu berria zen Txekoslovakian-eta bezala, enpresako batzordeak jarri ziren indarrean, langileen interesak eta lantegiko auziak defendatzeko eta sinatzen ziren hitzarmen kolektiboetan sinatzen zena zuzen bete zedin. Sozialdemokraziak hauteskundeak irabazi zituen kasuren batean edo bestean, Vienako kasuan adibidez, esku osoa izan zuen horrek zuen programako zenbait erreforma aurrera eramateko: etxe merkeak egiteko, janaria banatzeko, medikuntza zerbitzuak eskaintzeko, heziketa eta gizarteko laguntza antolatzeko, e.a. Gezurra dirudien arren, garai horretako garaile irten zuen greba politiko orokor bakarra ere Alemaniako langileek egin zuten, 1920ko martxokoa, sindikatuek eragindako lanuzte batek aurrera egin eta iraultza proletariora bideratzeko ordez zegoen Errepublika “burges” sortu berria eskuindar kolpe militar bat zela bide aginpidetik erortzea galarazi zuena, alegia.

Langile mugimenduaren barneko tirabirak zeudena baino gogorrago bihurtu ziren Komunisten Nazioarteko Erakundearen 1920ko II. Kongresuaz gero, kongresu horrek erreformismoaren aldeko erakunde sindikal eta politikoekin zituzten harremanak berehala eta erabat bazterrera uzteko eskatu baitziren herrialdeetako bere organizazioei, horiek eskiroltzat emanaz; eta, zituzten buruzagien kontra altxatzeko eskatu ere egin baitziren erakunde erreformistetako behe mailako kideei, handik urtebetera. Zerabiltzaten konponezin horiek ahuldu baino ez zuten egin langileen mugimendua. Nazioarteko lau erakunde sindikal zeuden une horretan: sozialistena, komunistena, anarkistena eta kristauena. Holandak, zen txikian ere, bazituen zazpi sindikatu konfederakuntza. Ez zegoen munduan lurralderik langileen sindikatuak elkarte berean bilduta zeudenik. Zatiketa horri erakundeen arteko etsaitasuna gehitu zitzaion herrialde askotan. Bi Mundu Gerren arteko aldian, zer ideologia eta politika oinarri hartu ez zekiela ibili zen langile mugimendua, Europako iparraldeko lurraldeetan izan ezik, eta hauetan, zeuden langile alderdiek, gatazka aldi gogor bat izan ondoren garbiri erreformismoaren aldera jo zutelako ez zen besteetan bezala ibili.

1920tik aurrera, enpresetako nagusiak gero eta sarriago lotu izan zitzaizkion soldatak jaisteari eta langileak botatzeari, denboraldi batean atzera egon ondoren, egokiera ere eskaintzen baitziren horretarako urte horren inguruan hasi zen larrialdi ekonomikoak. Okerraldi gogorak jasanarazi zizkien nagusien jarrera horrek sindikatuak. Horiertako zenbait erakunde erdira jaitsi zen kidez, nahiz eta gerra aurrekoaz goitik geratu hala ere. Sindikatuetan sarturik zeuden indar politikoen arteko borrokek eta zegoen langabeziak, berriz, are hauskorrago bihurtu zuen erakunde horien egoera.

1924an, hamar hilabete eman zuen alderdi laboristak gobernuan. Sindikatuak borrokari lotu zitzaizkion alderdi horrek aginpidea galdu zuenean, eta, hain zuzen ere, garai horretan izan zen Ingalaterrako 1920-1930. urte bitarteko grebarik handiena, 1926ko greba orokorra, meatzariak beren eskakizunak defendatzeko biztu eta beste sektoreetara zabaldu zena. Grebak huts egin zuen zeren meatzariak ez baitzuten eskatzen zutenik lortu. Horrek erremun handia eragin zuen langileengan. Gobernu kontserbadoreak, bestalde, sindikatuen aurkako legedi bat egin zuen. Alemanian, halaber, gero eta ahalmen gutxiago zuten sindikatuek soldatak beren nahierara ezartzeko, Belgikako, Frantziako eta Holandako nagusi gehienek ere ez zuten hitzarmen kolektiborik sinatu nahi izan sindikatuekin. Gainerako lurraldeetan (Espainian, Italian,...), errepresioa erabili zuen estatuak.

### **Hirugarren aldia: 1929-1945**

1930ko ekonomia beheraldiak sistema liberalaren krisia ekarri zuen berekin. Ez zen, bada, estatua indar ekonomikoek egiten zutena ikustera eta ontzat ematera mugatuko, horiei zer bide jarraitu behar zuten erakustera, beharra zutenean laguntzera eta egiten zutena kontrolatzera ere sartuko zen aurrerantzean. Ekonomia krisi horrek eta berekin lurralde guztietara ekarri zuen langabeziak, ordura arte inoiz ezagutu ez zenak, erresistentziarako bideak moztu zizkien sindikatuari, aldi berean, soldatak jaisteak eta laneko baldintzak txartzeak bestalderako aukera eskaintzen zien arren. Bestalde, galdu egin zuten aurreko aldian eskuratutako hainbat abantaila eta are ahulago bilakatu ziren horrekin. Sindikatuak ez ezik gainerako erakundeak ere ez ziren gai izan sortu zen egoerari aurre egiteko. Langabezian zeudenei eginbide bat eskaintzea eta gizartea aintzat hartuko zuen estatu bat sorrarazteko indarra egitea geroago erabaki zuten, eta ezkerreko alderdi politikoen iritziaren kontra gainera askok.

Sindikatuaren egoera ere ez zen lurralde guztietan bera izan. Alemaniakoak, adibidez, sakabanaturik eta azkenean debekaturik geratu ziren nazismoa indartu zenean, eta horien lekuan sasisindikatu korporatibista bat, langileak nahitaez kide izan behar zuena, sortu zen. Iparraldeko lurraldeetako sindikatuek ere konponbide batera iritsi behar izan zuten enpresetako nagusiekin eta batzuen eta besteen eskakizunak zegoen egoerara egokitu behar izan zituzten. Nagusiek eta sindikatuek 1935ko eta 1939ko hitzarmenetan onartu zituzten akordioen arabera moldatu ziren aurrerantzeko negoziazio kolektiboak.

Frantziako Herri Fronteko gobernuak ordainezko oporraldiak, 40 lanorduko astea, bidaiatzeko txartel kolektiboak, e.a. izateko eskubidea aitortu zien langileei, era horretara geroago izan duen adinako merkatari kutsurik gabe baina aisialdiko gizartera bidean aitzin urrats handi bat ematen zuela. Matignongo hitzarmena sinatu zen aldi berean, greba aldi handi batek eta fabrika hartzeek hartara era-

ginik eta Leon Blum, buruzagi sozialista, lehen ministro hautatua izan zela bide. Horretan, Frantziako enpresa nagusiek hitzarmen kolektiboak sinatu ahal izateko eskubidea oinarrizko eskubidetzat ezagutu zuten lehenbiziko aldiz, eta soldatari eta laneko beste gaiei buruzko xedapenak zuzen betetzea zaintzeko langileen ordezkioak ere ezarri ziren enpresetan. Ezkerreko koalizio hori desegin zenenan berriz ere indargeturik geratu ziren sindikatuak, eta huts egin zien Daladier ministro eskuindarraren kontrako grebak. Vichyko gobernuak debekatu egin zituen sindikatuak Bigarren Mundu Gerra hasi zenean.

Estatu askoren ekonomia arazoetan parte hartzeko politikarekin –lanpostuak sortzea zen horren helburua– berriz ere zuzpertz egin ziren sindikatuak. Joera hori Estatu Batuetako gobernuaren “New Deal” izeneko politikan islatu zen argien. Joera horretakoek ziotenez sindikalismoa eta legez araututako negoziazio kolektiboak oinarrizko elementuak ziren zegoen ekonomia sistemarentzat. Politikabide hori ontzat ematean zeresan handia izan zuten ekonomia indartu beharrak eta horretarako nahitaezko zen bake giroa lortu beharrak. Langile mugimendua bera ere zituen eskubideak eta indarrean zeuden erakunde demokratikoak defendatzera eraman zuten Europako erdialdean (Alemanian, Italian) gertatutakotik jasotako esperientziak; hainbat lurraldetan, bada, Herri Fronteak sortu zituzten eskubide eta erakunde horiei eusteko.

## 5. Sindikalismoa, lan harremanak eta langile kontrola

XX. mendearen lehen berrogeita hamar urteetan, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ere sendotuz joango zen bideari ekin zioten langileek, batez ere industriakoek: ordura arte inoiz izan ez zuten bizi maila, estatus soziala, segurtasun ekonomikoa eta eragin politikoa lortu zuten. Aldaketa horretan zeresan handia izan zuten, besteak beste, izandako gerrek, gizarte mailan zegoen ondoezak eta egoera aldatuko ote zen itxaropenak, industrializazio garaian sartu ziren elementu berriek, enpresetako nagusien eta jendearen jarrerak, gobernuetako buruek bideratu zuten politikak, eta ekonomiaren, prezioen eta langabeziaren gorabeherak. Ekonomiak, prezioek eta langabeziak izan zituzten gorabehera horiek, ordea, Europako mendebaleko gerra ondorengo lan harreman bizi eta konplexuen eragile izan arren, erduzko faktoreen sailkapenetik kanpora geratzen dira.

Langileek eta enplegatuek abantaila handiak erdietsi zituzten garai horretan, ordainketa mailan; soldatak igoeran baino ordu gutxiago lan egin behar izatean eta erialdiak eta oporraldiak ere ordainduak izatean gehiago islatu ziren hobekuntza horiek. Ordu murrizketa horiek zirela bide, egokiera izan zuten langileek beren denbora heziketa lanetan edo beste zernahitan igarotzeko. Enpresa askotan, ordea, ordu murrizketa horren truke produktiboko erritmoa bizkortu egin

behar izan zuten, eta horrek laneko istripuak gehitzea eragin zuen. Ordu sartzeak ere indarririk handiena gerra ondorenean hartu zuen. Ordu sartzearekin bestela jasoko zutena baino ia bi aldiz soldata hobea irabazten zuten langileek 1960-1970 bitarteko hamarraldian.

XX. mendeararen hasieran 10 ordu inguru lan egiten zen egunean, eta 60 ordu inguru astean; Lehen Mundu Gerraren ondoren berriz, 8 ordu industrian, eta astean 48 ordu, teoriarik behintzat. Dena den, ez zuten ordu murrizte horiek langilea hobeto bizitzea ekarri berekin, alde guztietan bederen. 1930tik aurrera, ekonomia krisia zela eta, ordurik sartzen ez uzten, laneko orduak gutxitzen eta soldatak jaisten hasi ziren enpresetako nagusiak, zegoen langabezia handiari aurre egiteko asmoz. Italian (1934) eta Frantzian (1936) 40ra jaitsi zituzten aste-lanorduak, baina ez zuten horiek, lurraldea berriro jaso behar zela aitzaki, 1945etik aurrera lehenean jarraitu.

Gorago aipatutako horiez gainera beste abantaila batzuk ere lortu zituzten, bizitzako arazoei aurrea hartze kontuan eta gizarteko laguntza mailan, batez ere: lanik gabe epe laburrerako zeudenei nahitaezko aseguru bat ematea, 1920tik aurrerako hamarraldian orokor bihurtua zena, bizi kostuaren arabera soldatak ere handitzea, leku batzuetan onartua zegoena, eta sindikatuak enpresetan langileen ordezkarietza ezagutzea.

Langileen borroka egiteko era ere aldarazi zuten gertaera horiek. Eragin handiko erakunde bilakatu ziren sindikatuak aginpide gogorrik ez zen lurraldeetan. Klase baten ordezkari hutsak izateari utzi eta enpresetako nagusiekin eta Estatuarekin batean lan alorreko auzi gehieneko negoziatzaile eta erabakitzaile bihurtu ziren. Estatuaren administrazioko gisa ere hartu zituzten sindikatuak zenbait lurraldetan, horiek arduratu izan baitziren elkarren laguntzarako ondareaz-eta. Eginbehar horiek gerra garaian izan zuten jarreragatik eman zitzaizkien sindikatu gehienei. Estatuko aparatuekin elkarlanean aritzeko prestasun handiagoa azaldu zuten gero, gerra bukatu zenean, eta antolatu ere beste egitura batzuen arabera eta hobeto antolatu zuten elkarlana.

Aldaketa horiek zirela eta, alderdi sozialistekin zuzeneko harremanak zituzten sindikatuak ere sortzen ziren arazoak era autonomoan eta Estatuarekin zuzenean konpontzen hasi ziren, horrek har zitzakeen erabakietan eragina izateko asmoz. Lehen ez zituen arazoei aurre eman behar izan zuten sindikalismoak, langabeziari batez ere. Izaten ziren XIX. mendean ere denentzat lanik ez zen aldiak, baina ordukoak laburrak ohi ziren, oraingoak, berriz, sarriak eta luzeak, kezka-garriagoak, beraz. Arazo horri irtenbidea eman nahi zioten sindikatuak Estatuarekin eta enpresetako nagusiekin elkarlanean aritu behar izan zuten, ezkerreko alderdiak zegoen aginpidearen kontra borrokan ari ziren momentuetan ere.

Horrela gertatu zen Primo de Riveraren diktadura garaian, PSOEko zenbait kide ezkutuan bizitzera behartua zelarik ere, UGT laneko politika antolatzen ari izan baitzen gobernuarekin.

1900-1950 bitartean, gero eta indar gehiago izan zuten sindikatuek, baina orduan eta moderatuago bihurtu ziren, eta aginpidearekin harreman estuagoak izan zituzten aldi berean. Shangaiko sindikatuek berek ere, Europatik hain urrun egon arren eta hango langileek zeukaten iraultzaile fama eduki arren, sarri azaldu izan zuten kapitalarekin kolaboratzeko jarrera, eta Kuomitang-en aginpidearen mende zeuden, ez komunistenean.

Gezurra dirudien arren, beren borroka edo Estatuaren politika zela bide erdietsitako abantaila horiekin, apaldu egin zen sindikatuen jarrera iraultzailea, eta oso sindikatu gutxiren kasuan sendotu. Langileen eta nagusien arteko tirabirak kontziliazio, bitartekotza eta artekaritza bidez erabakitze joera indartu egin zen sindikatuetan. Bitarteko gisa ezagutuak izate horrek sindikalista askorik ez zuten sektoreetan ere gehiago saiatzera eraman zituen, bestalde. Langileek nagusien aurrean egindako indar hutsez lortu ez zen zenbait abantaila, berriz, lege sozialen bidez lortu zituzten.

1918-1920 bitarteko urteak, hala ere, beren iraultza saio eta beste, gorago egindako deskribapen horretatik kanpora geratzen dira. Iraultza saio horiez hitz egitean, ordea, ona litzateke argitzea ez langileak baizik soldaduak eta nekazariak izan zirela gertaera horietako protagonistarik beroenak, eta Errusiako kasuan, nekazariak beroagoak soldaduak baino. Gerra bukatu eta nobleziaren sailak banatzeko asmoa zuen hauen iraultza egiteko gogoak oinarri, ez sozialismo ortodoxo bat ezartzeko asmoa. XIX. eta XX. mendeen arteko muga inguruan izan ziren iraultza mugimenduak ere nekazariak eta artisauek eragin zituzten.

Langile erakundeek oso gutxitan hartu izan zuten jarrera iraultzailea, praktikan behintzat; kontrara garrantzi handia ematen zioten laneko prozesua kontrolatzeari eta tradiziozko erara lan egitea defendatzeari. Horrek nagusiek lantokietan zuten aginpidea zalantzan jartzen zuen berez, baina ez zion sindikatuek sistema kapitalista normaltzat emateari kalte berezirik egin.

Lantokietan autonomia gehiago izateko edo hori lortu ahal izateko langileek erabiltzen zuten teknika, ohitura eta jarrera multzoari esaten zitzaion langileen kontrola. Autonomiaren aldeko borroka horretan aldezerik sutsuenak langile kualifikatuak izan ziren, eta produkzioko maila guztiak kontrolatu nahi izan zituzten: makinak eta erremintak nola erabili, soldadak eta errentak nola finkatu, langilea zein araren arabera hartu eta maila batetik bestera igo, zenbateko errendimendua eman, zer zigor, e.a. XIX. mendearen bukaera arte hiru oinarritan finkatu ziren langile kualifikatuak goikoei, behekoiei eta beste lantegietakoei



buruz independentzia izateko. Zuten prestakuntza bereziaz baliatzen ziren, bate-tik, zeren produkzioan premiazko izateak egokiera ematen baitzien nagusiekin negoziatuz edo bestela, lana beren erara antolatzeko eta produkzio tasak finka-tzeko. Laneko maisu batek bere lagunek maisu ontzat edukitzea nahi bazuen nahitaezkoa zuen finkatutako tasa ezarrita zegoen bezala betetzea; horretara jokatzera, gainera, hark langile kualifikatuen artean zuen elkartasun itunari egin-dako erresistentzia ekarpen gisa hartua izaten zen. Idatzizko nahiz hitzezko arauak ere autonomia horren berme gertatzen ziren, bestalde. Langile batek ofi-ziodun izatera iristeko zenbat denbora egin behar zuen ikasle gisa, zenbatsuko soldata irabazi behar zuen, langintza bakoitzari zein lan teknika zegokion eta laneko beste hainbat alde ere zehazten ziren araudi horretan. Ekintza kolektibo espontaneo batzuetatik berariazko batzuetara igaro nahia eta nagusien pretentsio-ei aurre eginez haien gaineratik jartzeko asmoa agertzen zuten horiek zenbait kasu-tan. Langile kualifikatu horiek beren nahia ezartzeko zeukaten hirugarren oina-ria edo arma zigorra zen. Esan diren arau horiek ez betetzeak, langilea izan, nagusia izan, hori egiten zuena bakartasunean uztea, halakoari erremintak gor-detzea, nagusia bazen haren kontra lanuzteak egitea, e.a. ekartzen zituen berekin. Arrazoi horiengatik egin ziren greba askok, ordea, huts egin zuten eta grebak ere urrituz joan ziren. Arau horiek, beraz, indarra hartu zuten lekuetan gehiago hartu zuten artisauek betearazteko eguneroko lanean egin izan zuten ahaleginagatik huelgengatik baino.

Langileen kontrol horrek irabazle irten zuen lekuetan, enpresak ez zuen kapi-tala jartzea, enpresa lehengaiez hornitzea eta produzitzen zena saltzea beste egin-kizunik izan. Prestakuntza berezia zuten langileek edo, sindikaturik zen enprese-tan, sindikatuak zituzten sarrarazten langile berriak lanera, horiek ezartzen zituz-ten lanari eta soldatari buruzko “tarifak”, hots, zenbat irabazi eta beharrezko kalitate minimoko produktu bat zenbat denboran egin. Produktu batek eskatzen zitzaion kalitatea zuenean zigilu bat (*label*) ezartzen zioten sindikatuak. Horrela egiten zuen mende honen hasieran Eibarko pistolagintzako sindikatuak; horrek ontzat ematen zuen pistola guztiak izaten zuen bere zigilua. Ameriketako ziga-rrogileen sindikatuak, Laneko Amerikar Federazioko kide zenak, sindikatuaren zigilurik ez zeraman zigarroa osasunarentzat kaltegarria zela aldarrikatzeraino-koa egin zuen.

Hasieratik sindikatuarekin akordio batzuk egitera iritsi ziren enpresari bakane-k ere soldata gaitan hitzarmen kolektiboak sinatu ahal izateko eskubidea aitortzen zien bakarrik, ez nagusien onarpenik gabe edo horien ordean enpresaren jostiora-ko arauak eta erak egiteko eskubiderik. Aitortu zien eskubide horren truke elkar-tasun kutsua zuen grebarik eta hitzarmena hausten zutenen lanuzterik ez onar-

tzea eskatzen zien, bestalde, sindikatu horiei. Baina koponketa saio horiek huts egin zuten, lehenera, aginpide guztia beregain hartzera itzuli zen nagusi asko.

Produzitzeko eta lan egiteko askatasuna eta konkurrentziarako bideak libre izatea eskatzen zuten, batez ere, nagusiek. Langileek enpresaren gain zuten kontrolari aurre egiteko Laneko Antolaketa Zientifikoa hartu zuten ikurtzat, eta lantegi itxien kontra, sindikatuetan sartuta zeuden langileak baino hartzen ez zituzten enpresen kontra alegia, lantegi irekiak edo sindikaturik ez zen haiek defendatu zituzten. Erdiko mailako klaseak eta jendearen iritzia alde zituenez, XIX. mendearen bukaeratik aurrera gero eta arrakasta handiagoa izan zuen nagusien jarrera horrek, enpresa handietan behintzat, eta produkzioko prozesua goiko behera aldatzea ere lortu zuten jarrera hori zela bide. Taylorismoak aurrera ahala ofizioakoko sindikatuak atzera egin zuten beraz. Beste borroka molde batzuei lotu ez ezik, sindikalista ez ziren langileak lantokian hartzea, produkzioari mugarik ez jartzea eta soldatak erredimenduaren arabera finkatzea onartu ere egin behar izan zuten sindikatu horiek. Langilearen gaitasuna neurtzeko era bat zen errendimendu sistema zeritzaion hori; langilearen etortze maiztasuna, kualifikazioa, laneko doitasuna eta bizkortasuna neurtzen ziren errendimendu sistema horren bidez, urtean hainbat bider. Froga horretan ematen zuen gaitasunaren arabera finkatzen zitzaion soldata. Langile kualifikatuen lekua prestakuntza berezikoek hartzea edo haiek hauen mailako bilakatzea ekarri zuten esan diren aldaketa horiek; nagusiek enpresaren gain kontrol handiagoa izatea eta lana bera zehatzago banatzea ere eragin zuten, aldi berean.

Langileen kontrolaren eta sindikatuen aurkako borroka horretan Estatu Batuetako enpresa handiak izan ziren eredu. Ziren bide guztiak eta indarra bera ere erabili zuten enpresa horiek, 1937ra arte, lantokian sindikaturik sartzen ez uzteko eta enpresaren gaineko kontrolari eusteko. Soldatak (nolabaitekoak) eta laneko baldintzak (txarrak) kontrolatu nahiak ez baino merkatuko konkurrentziari aurre egiteko sartu behar zituzten teknika berrikuntzak askatasun osoarekin sartu nahiak bultzatu zituen neurri horiek hartzera. Enpresa kudeatze kontuan oztoporik ez izatera soldata onak ordaintzeko, laneko baldintzak hobetzeko eta langile kopuruari berean eusteko ere prest zegoen zenbait konpainia.

“Amerikarren plana” zeritzaion hori bere enpresan ezarri ere egin zuen zenbait nagusik. Plan horrek akzioak erosteko eskubidea eta gizarteko laguntza berezi batzuek sortzea eskaintzen zien langileei enpresarekin zintzo jokatzearen truke. Langilea engainatzeko beste modu bat baizik ez zen hori aditu batzuen ustetan. Produktibitatea areagotzeko eta lanpostuan errotazio beharrik ez izateko (1912-1913 bitartean %415ekoa Ford enpresan) langile berei eustea bezalakorik ez zela nagusia konturatu izanaren ondorio zen beste batzuen iritzian. Lanaren asperrak langilea lekuz aldatzeko eskatzera eragiten zuela eta lanpostu bakoitze-

tik urtean 4 langile baino gehiago igarotzen zela, batean ere prestakuntza eta esperientzia berezirik beretu gabe, adierazten dute Ford enpresari buruzko datu horiek. Behar bezala ordainduz gero langileria etekin iturri ona izan zitekeela nagusiak konturatu izanak ere eragin handia izan zuen horretan. 1930eko Beheraldi Handiak (ezin izan baitzen behar adina diru horretan enplegatu) eta sindikatuen kontrako jarrerak eragin zituen tirabirek, ordea, behera bota zuten Amerikarren plan hori.

Produkzioa areagotzeak langileek gutxiago irabaztea ekarri zuen. Metodo berri horiei aurre egiten ere saiatu ziren batzuk, baina agerian eta era antolatuan egin gabe oro har. Metodo horiei garbi kontra egin zieten artean bi langile talde eta bi gatazka molde bereiz daitezke, langile batzuek bi gatazka moduak erabili zituzten arren. Artisauek batez ere jestioa bideratzeko modu berriei egin zieten kontra. Langileak eta peoiak, berriz, bizitzaren kostua igo ahala eta soldat-ak ere igotzea eskatzeari lotu zitzaizkion.

1930eko krisiak berriz ere aldarazi egin zuen joera. Beheraldiaren garrantziak sortzen ziren arazoetan parte hartzera eta langileak ordura arteko bideak utzi eta beste batzuek hartzera behartu zuen Estatuak. Krisia zela eta, eskakizunik premiazkoenei eman zieten horiek garrantzia, lanpostua ziurra izateari, soldatei buruzko eskakizunak defendatzeari, errazionalizazioaren eta horrek berekin zekarren birmoldaketaren kontra saiatzeari.

Lanpostuak defendatzearen auzian ere joera berri batek hartu zuen indarra, saileko produkzioan ari ziren industrietan batik bat, langileak enpresatik bota behar zirenean lanean denborarik gutxiena zeramana botatzen zen aurrena. Langileak enpresarekin lotura haundiagoa izatea eta ofiziosko harremanak desagertuz joatea eragin zuen horrek. 1930 arte, langilea hartzea edo ez hartzea sindikatuek erabakitzen zuten, zituzten bulegoetan, eta lanik zenean, sindikatuan sartuta zegoenari eskaintzen zioten aurrena. Hori zen sindikatuek enpresa kontrolatzeko gehien erabiltzen zuten teknika. 1930eko krisiarekin, ordea, industriako sindikalismo berri horrek bazterrera utzi zituzten lehengo eskakizunak eta abantailak. Sindikalismo horrek nahi zuenean langileei lana kentzeak eta berriro hartzeak alde batera utzi eta lanetik botatzeko auzia enpresan zeramatzen urteen arabera bideratzea erabaki zuten. Hori onartzearen truke, kontratazioei buruzko kontrolari uko egin zioten sindikatuek, eta enpresek produkzioarako erabakitzen zituzten oinarritzko arauak ontzat ematea ere onartu zuten, bestalde.

Langileek beren kontrolarekin lortu izan zuten erdiespenik handienetako bat sindikatuek langileak lanera hartzeko ahalmena beren esku izatea zen; egin zen zenbait lege zela bide eskubide hori galdu izana, beste praktika batzuei (hitzar-men kolektiboari, e.a.) indar gehiago ematearekin berdindu zuten sindikatuek,

neurri batean behintzat. Laneko auziak hitzarmen kolektiboen bidez zuzentzeak eta horiek langileentzat ekarri zituzten soldata hobetzeak sindikatueta kolektibotasun kontzientzia sendotzea eragin zuten; kontzientzia sendotze horretan, hala ere, enpresa langileek aukeratutako ordezkariekin negoziatzera behartu izanak eta horrekin nagusiak begizkokeriak uztera behartu izanak eragin handiagoa izan zuen soldata hobetzeak berak baino.

Langileen kontrol horiei inperioaren ondoreneko Alemaniak eman zien instituziozko indarra (komunistek bultzaturik eratu ziren langile kontseilu iraultzaileei zuten eragina kentzearen-edo sortuak). Langileen kontrol horrek enpresa batzordeen egitura hartu zuen; hogeit hamar langile baino gehiago zituzten enpresek nahitaezkoa zuten enpresa batzorde bat izatea. Batzorde horiek ez zuten sistema hausketaren aldeko jarrerarik hartu izan. Aldiz, enpresetako zuzendaritzarekin kolaboratu bai egiten zuten batzorde kideek; bazuten soldata liburuak kontsultatzeko, enpresari buruzko txostenak eta, enpresa handietan, balantzeak ikusteko eskubidea ere.

Frantzian, Matignongo akordioaren ondoren (1936) lortu zuten langileen ordezkariak aintzat hartuak izatea. Langileen eskakizunak zuzendaritzaraino iritsaraztea izaten zen ordezkari eta berebat sindikaturen bateko kide ohi ziren horien eginkizuna. Langileek enpresaren gain zuten kontrolari eta horrek berekin zermatzan ohiturei ezin eutsi izan zien XIX. mendean, hala eta guztiz ere horiek berriz eskuratzeko itxaropenik ez zuten galdu langileek, baina gizarte modernoaren produkzioarako joeraren azpian murgilduta geratu ziren.

## **6. Sindikalismoa zenbait herrialdetan**

### **6.1. Britainia Handian**

Nahiz eta britainiar sindikatuen indarra eta horietako kide ziren langile kualifikatu gabeen kide kopurua ere handia izan, sindikatuekin inolako harremanik edo oso harreman gutxi zuen lan sektore asko zegoen lurralde horretan gauden mendearen hasieran bertan, batez ere industrian (mekanikakoan eta ehungintzakoan izan ezik), etxeko zerbitzuetan, nekazaritzan eta eskulanean oinarritzen ez ziren zerbitzuetan. Indarririk handiena, berriz, eskualdeei zegokienez, Ingalaterrako iparraldean, Eskozian eta Galesen zuten sindikatuak. Lehen Mundu Gerra arte batez-beste era berean hazi ziren sindikatuak, gerraz gero berriz, 8 milioi izatera iritsi ziren denbora gutxian, eta 1920an, langileen %45 sindikatueta sartua zegoen. 1933an, ekonomia krisia eta sindikatuen hutsegiteak zirela bide %22ra jaitsi zen portzentaia hori. Ekonomiaren gorakadak eta Bigarren Mundu

Gerrak egokiera eman zien berriz ere Lehen Mundu Gerrako portzentaietara (%45) iristeko.

1850-1875. urte bitarteko Britainia Handiko sindikatuek ez zuten mende horren bukaerakoek, sozialismoaren eta *fabian society*-ren eraginez, izan zuten joera politikorik, eta horrek egokiera handia eman zien nagusiekin harremanak izateko, zeren nagusi horiek, Estatuarekiko mesfidantza handia izateaz gainera, lan harremanetarako ideologia –eta honetan bat zetozen sindikatuekin–, boluntarismoa baitzuten ideologia. Batzuen eta besteen arteko negoziazioak distritu mailan egin ziren XIX. mendean eta XX. mendearen parte handi batean, ez lan-tegi mailan. Sindikatuen programak, bestalde, industriako arazoetan Estatuak parte hartu behar zuela zioen; programa horrek eta 1914ko gerrak bizkortu egin zuten akordioak lurralde mailan hartzeko joera, industriako arbitraia sistemari esker. 1970a arte Britainia Handian tradiziozko izan diren lan harremanen sistema finkatua zegoen 1925a ingururako. Harreman sistema tradizional horren ezaugarriak hauek ziren: malgua izatea, Estatuari laneko arazoetan sartzeko askatasuna uzten ziona izatea, sindikatuei izateko askatasuna ematen zien arren, alde bakoitzak besteari agintzen ziona betetzea eta elkarri bakoitzaren mendekotasuna eta aniztasuna ezagutzea. Hori ez zen hala ere oztopo izan sindikatuek XIX. mendeko ezaugarria izan zuten neutraltasun politikoa utzi, eta sistema kapitalista gailendu edota kendu nahi izateko.

XX. mendeko lehen hamar urteak aski baketsuak izan ziren Britainia Handian. Bake aldi horren ondoren, ordea, (1913) lan harremetan lurralde horretan izan den aldirik nahasiena hasi zen. Soldatak prezioen arabera ez igotzeak, zikloka sortzen zen langabeziak, batez ere kualifikaziorik gabeko langileak ukitzen zituenak, egoera horrek langileengan sortu zuen frustrazioak eta langile horietan “zuzeneko ekintzaren” aldekoek eta sindikatu iraultzaileek izandako eraginak sorrarazi zuten Lehen Mundu Gerraren aurreko nahasketa giroa. 1926ko greba orokorraren bukaera arte luzatu zen gatazka aldi hori. Urte horietan egin ziren grebak beste edozein alditakoak baino luzeagoak eta gogorragoak izan ziren. Langileen eskakizun politikoek eta batez ere meak eta trenbideak nazionalizatzearen aldekoek zabalazazi zuten 1926ko greba hori. Horrek porrot egin zuenez eta ondoren beheraldi ekonomikoa etorri zenez, grebaren kariaz Bigarren Mundu Gerrara arte lanegun gutxi galdu zen.

## 6.2. Alemanian

Kristauek, liberalek eta nagusiek beren sindikatuak eduki arren, eta horiek nahikoa indartsuak gainera, Alemaniako langileen erakunderik gehienak alderdi sozialistari lotuak zeuden; 1914an sindikatuetakoko kideen %81 hartzen zuten hauek. I. Internazionalaren parte zen Langileen Heziketako Elkartearen Batasune-

tik (1868) sortua zen alderdi sozialista hori. Bismarck kantzilerrak Alderdi Sozialdemokratari legezko izatea ukatu zionean eta hau ezkutupean egon zenean (1878-1890), horri lotuta zeuden sindikatuak langileen eguneroko arazoak eta interesak zaintzera mugatu ziren, eta eginkizun politikoak alderdiaren ezkutuko aparatua eskuetan utzi zituzten. Debekatua egoteak haztea galarazi zion, dena den, nola organizazio mailan hala kideen kopuru mailan ere.

Debekua kentzearekin berriz ere indartzen hasi ziren Sindikatu Libreak (sozialistak); horretarako egokiera handia eskaini zien hartu zuten jarrerak, beren kideen ez ezik langile guztien ordezkari izateko asmoak, alegia. Zituzten asmoe-tan, gizartean egitura mailako aldaketak eragitea eta sistema demokratikoan sindikatuak oinarritzko erakunde gisa ezagutuak izatea ere bultzatu nahi zuten. Azkenik, eta esandakoaren ondorio bezala, Estatuak laneko eta gizarteko arazoe-tan parte hartzea mesfidantzaz ez baizik begi onez hartua izatea planteatzen zuten. Organizazioari berari zegokionez, sozialistengan tradiziozko zen joerari jarraitu zitzaizkion sindikatu horiek, hots, egitura mailan indartsuak izateari ematen zioten garrantzia, erakunde gisa existitzeko eta gizartean eragina izateko hori nahitaezkoa zela uste baitzuten. Iraultza saioak izateko arriskuak izan zire-nean ere, Lehen Mundu Gerraren ondorenean eta, jarrera berean iraun zuten gizarte mailako tirabiretan moderatzaile gisa jokatu zuten. Jarrera horren adibi-derik argiena langileen eta enplegatuen ordezkari izateko eta lantegietan enpre-sako batzordeak eratzeke eskubidea ezagututa hiru urtera (1919) hartu zuena izan zen, urte horretan Weimarko konstituzioaren ondoren sortu zen gobernuare-kin zuzenean kolaboratzen hasi baitzen. Gobernuarekin elkarlanean aritze horrek zuen jarrera erreformistan sendotzera eta, aldi berean, sindikatuaren barneko kide gehienek behintzat, erabateko aldaketak egiteko asmoak bateratzera eraman zuen. Horren truke, enpresako batzordeen irudia eta hitzarmen kolektiboak aint-zat hartuak izatea lortu zuen. Arau horien arabera, hitzarmen kolektiboa izango zen soldatari buruzko tirabirak eta laneko beste arazoak bideratzeko tresna nagu-sia; gizarte arau sare minimo bat osatzea helburu zuten beste zenbait lege ere egin zen horiekin batean.

### 6.3. Frantzia

Frantziak industria egitura berezia izan zuen XIX. mendean, eta berdin XX. mendean erdira bitartekoan ere. Lurralde horretako langileen parte handi bat erbestetarrek eta emakumeek osatzen zuten, alde batetik, izan ere, tradizioa zen bezela, garai horretan ere jaiotza tasa apala baitzuen. Garrantzirik handieneko industria sektoreak oihalgintzakoa eta janarigintzakoa zituen, bestalde, eta indus-triako langileen heren bat hartzen zuten bi sektore horiek. Heren horren %81, 1921ean, emakumezkoek hartzen zuten. Gainerako gehiena enpresa txikietan, artisautza garaikoen antzekoetan, aritzen zen lanean. Frantziako garai horretako

sindikatu gehienak hemeretzigarren mendekoen egitura beretsukoak izatea ez da, beraz, harritzekoa.

Parisko Komunaren ondorengo urteetan berriz ere indartzen hasi ziren sindikatuak. Indarberritze horrek sindikatuen eginbidea legezkatat hartzera (1884) behartu zuen garaiko gobernu errepublikarra. Horrekin, trabarik gabe hedatzeko egokiera izan zuten; baina ez sindikatuek bakarrik, nagusien zenbait erakunde ere saiatu zen egokiera hori aprobetxatzen. Frantziako entzute handiko lehen sindikatua Sindikatuen Federazio Nazionalea (1886) izan zen. Bere lehen hamar urteetan marxistek kontrolatu zuten, baina gero anarkisten esku egon zen. Erakunde hori desegin zenean, lehen ere aipatu den Laneko Federazio Orokorra, edo CGT, Frantzian gaur arte izan den sindikaturik handiena, aldi batez sindikalismo iraultzailearen eredu izan zena, sortu zen (1895).

1906ko Amiensko bere kongresuan, industriakako antolamendua hartzea erabaki zuen CGTk. Sindikatuaren joera eta helburuak erabakitzerakoan klase borrokari eta kapitalistak espropiatzeari eman zioten garrantzirik handiena, langileen eguneroko eskakizunei zegokien garrantzia kendu gabe, hala ere. Erakunde horren barnean tirabira gogorrek sortu zituzten lehenengo bi asmo horiek, zeren sindikatuaren barnean eratuta zeuden talde askoren eta, batez ere, independenteen asmoa ez baitzen iraultza egitekoa. Calais eskualdeko meatzarien sindikatuen araudian, esate baterako, sindikatu horiek greba orokorrik eta bestelakorik ez zutela eragingo zioen; eta bestela ezin konpondu zituzten auziak nagusi eta langile kopuru berez osatutako epaimahaien aurrera eramango zituztela. Sindikalista hutsez gainera sozialisten aldeko kideak ere baziren erakunde horretan. 1921ean, beraz, komunistek (gutxiengoa) CGT utzi eta CGTU sindikatua sortu zuten. 1936ko ekonomia krisiak eta faxismoaren gorakadak atzera CGTra itzularazi zituzten. Berriz ere CGTtik zenbait denbora botata egon ondoren, 1944an, Frantzia askatu zenean, CGTn sartu ziren berriro, baina sindikatuaren barnean guztizko gehiengoa zutela orduan.

CGTz gainera, beste zenbait sindikatu independente eta, 1919an sortutako sindikatu katoliko, Frantziako Langile Kristauen Konfederazioa izeneko bat, batik bat enplegatuen artean indartsu zena ere baziren. Oro har, gutxitan izan zuten Frantziako sindikatuek langileen %25 baino kide gehiago. 1930ean izan zuten kiderik gutxiena, langileen %9,5. %25 baino gehiago, berriz, 1920 inguruan, %38; 1936 inguruan, %45, eta 1946an, %60.

Frantziako garai horietako greba mugimenduak irregularrak izan ziren, baina politika giro asaldatuekin batera gertatu izan ziren beti. Gainerako sektoreetan indartsuena eta joeraz ere erradikalena zen sindikatuak, CGTk alegia, eragin txikia izan zuen fabrika gune handietan, 1914a arte behintzat, nagusiek

gogor zigortu izan zutelako, batetik, eta Proudhonen jarraitzaileak, sindikatua eratzeko moduagatik, fabrikaka eta langile kualifikatuetan oinarrituz egiten zuten, horietan indartsuak zirelako, bestetik. Lehen Mundu Gerrarekin, denbora luzerako ez bazen ere, aldatu egin zen sindikatuen egoera, gerrako egin-beharretan gobernuari laguntzearen truke honek langileen ordezkari izateko eskubidea ezagutu baitziren horiei. Gobernuak bere babesa ukatu zietenean (1919) berriz ere behera egin zuten sindikatuak, industria mekanizatu eta modernoenetan batik bat.

Enpresetako nagusiek 1919a arte elkarte indartsurik izan ez zuten eta ardu-ara ere lantegian baino protekzionismoari buruzko arazoetan gehiago jartzen zuten, 1914a arte soldadak eta laneko baldintzak hitzarmen kolektiboz bideratzeko tradizioz ez zen izan Frantzia, arazo horiek lege konpontzen ziren. Estatuak, bestalde, hiru modutara esku hartzen zuen lan harremanetako arazoetan: krisi sozialetako arbitro gisa, sortzen ziren gatazkak zapaltzen edo nagusiak negoziatzen eta soldadak jasotzen behartzen zituzten; lege eragile gisa, negoziazio kolektiboak bideratzeko arauak jartzen zituzten; eta enpresako nagusi gisa, administraritzako eta nazionalizatutako sektoreak zuzentzen zituzten.

#### **6.4. Estatu Batuetan**

Estatu Batuetako sindikalismoak bereiztasun handia izan zuen Europakoarekiko, kualifikazio urriko langilez osatua zen Laneko Zaldunen Ordena izeneko (1860-1892) desagertu ondoren sortu zenak bederen. American Federation of Labor (AFL) izeneko sindikatuak gehienbat sindikalista iraultzaileak eta sozialistek osatzen zuten beste International Workers of World (1905) izenekoak baino askoz eragin handiagoa zuen. Bigarren horrek militantzia taktikei garrantzi gehiegi eman zuelako eta langile kualifikatuei behar adinakorik eman ez zuelako egin zuen porrot. AFL (1886an sortua), bestalde, egituraz ofiziala antolatua zegoen, kualifikaziorik gabeko langileak baztertzeko eta ez Europako sindikatuak bezala industriako sailaren arabera antolatua. Erakunde horretako langile asko eraikuntzakoak nahiz moldiztegiakoak ziren.

Lehen Mundu Gerran hasi eta 1920 arte indartzuz joan zen AFL sindikatua (5 milioi kide zituen urte horretan), baina hortik 1933 bitartean beherakada larria izan zuen. Beherakada hori teknologia berriak sartu zituzten produkzio sektoreetako langileen joerara egokitzen jakin ez zuelako jasan zuen, batez ere; izan ere, sindikatuaren sartzaren oso kontrakoak baitziren langile horiek. Roosevelten administrazioaren eginbidetara esker hasi ziren sindikatuak berriro indartzeko. Congress of Industrial Organization (CIO, 1936) sindikatuaren hazkuntza izugarriarekin batera egokitu zen AFLren indarberritzea ere. AFLren zatiketa batetik sortu zen beste sindikatu horrek industria sailen arabera egitura hartu zuen, eta



hark ere ofizioakako egiturari uko egin behar izan zion honek egiten zion konkurrerentziari aurre emateko. 1945 inguruan iritsi zen Estatu Batuetako sindikalismoa goreneko mailara. Nekazaritzaz kanpoko langileen %36 sindikatueta sartua zegoen urte horretan.

Lekuan lekuko sindikatuak beste herrialdeetan baino garrantzi handiagoa izatea zen Estatu Batuetako sindikatuen beste berezitasunetako bat. Enpresa batean sindikatu egiturarik ez zuenak ez zuen ere enpresa horretako negoziaketetan parte hartzeko eskubiderik. Sindikatu mugimendua sortu zenetik zen hori horrela, eta 1935eko legeek ohizko zena arauzko bihurtu baino ez zuten egin. Arau horien arabera negoziazio esparru batean sindikatu batek bakarrik har zezakeen parte, langileek gehiengoz aukeratzen zutenak, alegia. Horrek ez zuen lantegi batean sindikatu bat baino gehiago ezin izan zitekeenik esan nahi, langileen ordezkari botorik gehiena biltzen zituen sindikatua izango zela baino.

Estatu Batuetako sindikatuak, bestalde, (gehiengoaren onarpenez) hitzarmen kolektiboa, eta idatzizkoa, hartu zuten nagusien eta langileen arteko auziak konpontzeko eta laneko baldintzak arautzeko bide bezala. Gainerako lurraldeetan lege bidez erabakitzen ziren beste baldintza asko ere horrela zuzentzen zituzten lurralde horretan (eta ez nahitaezko arbitraiaz, sindikatu sozialistek bezala). Nagusiek, ordea, ez zuten negoziazio mota hori besterik gabe onartu nahi izan, sindikatuak horretarako indarra egin ondoren baizik. Tirabira horiek, beraz, hainbat gatazka eta greba ere eragin zituzten, sindikatuak aintzat hartzea eta horien negoziatzeko gaitasuna ezagutua izan zedin. Nagusien erresistentzia hori 1935eko National Labor Relations Act izeneko araudiarekin hautsi zen eraba. Lege horrek, besteak beste, negoziazio sail bateko langileen gehiengoak hala eskatzen zuenean negoziazio kolektiboa egitera behartzen baitzituen nagusiak. Hitzarmen mota horrek industriako sektorean izan zuen hedadurarik handiena.

Araudi horren bidetik iritsi ziren legeak, langileentzat soldata minimo bat finkatzeak batik bat, hauen erosteko ahalmena areago murrizten joatea galarazi zuten. Soldata ez zen beste zenbait gai ere arautzen zen hitzarmenetan; horietako gai bat segurtasun sindikalari zegokiona zen, heziketa sindikal moduko bat, non ere lana izateko sindikaturik egotea eskatzen zitzaion langileari. Lehen sindikatuen beren eskubideak aitortzeko halako erresistentzia egin zuten nagusiek hori ezagutzearen eta laneko alorrean gatazkarik ez sortzearen truke, lege zegozkien soldatak eta lan baldintzak berenganatzea lortu zuten langileek gerra ondoren.

Bereziki industriako langileen interesak defendatzen zituen alderdi bat Estatu Batuetan ez egoteak ez du sindikatuak apolitikoak zirenik esan nahi. Bai eskualde barrutian bai herrialde osoan, langileen interesak hobekien defendatzen zituen

hautagai hari ematen zioten botoa sindikatuek. Edozeinetara ere, AFLk eta Alderdi Demokratik ez zuten 1936a arte (inoiz ez era ofizialean) elkar hartu.

### 6.5. Japonian

Japoniak gaur duen laneko sistema bi mundu gerren arteko garaian hasi zen eratzen. Sistema hori osatzen duten oinarrizko elementuak ez ziren, hala ere, 1950a arte sendotu. Oinarrizko elementu horiek hirutara bil daitezke: lanerako gai zen arte enpresan lana seguru izatea langileak, enpresan zeramatzan urteen arabera finkatzea soldatak, eta enpresaren esparrura mugatuak izatea sindikaturik gehienak. Ezaugarri horiek bere horretan harturik Erdi Aroko aztarna izatearen kutsua zuten, leialtasun eta kooperazio mailan enpresarekiko zituzten eskakizunengatik, baina industria modernoa sartzearekin galdu egin zuten kutsu hori. Sindikatuek egindako indarrak eta, batez ere, langile kualifikatu nahikorik ez izateko beldurrez nagusiek logika eta kalkulu errazionaletara jo izanak taiutu zituzten Japoniako lan harremanak era horretara. Kontuan izan behar da, hala ere, beste herrialdeetan baino langile gutxiago sartzen zela lan segurua zutenen sistema horretan, Japoniako soldatakoen erdirik ere ez baitzuen hartzen.

Industrializazio garaiko lehenengo aldia langile kualifikatua urri zen Japonian, eta eskasia horrek enpresetan errotazio tasa handia izatea eta soldatak sarri igo beharra eragin zuen. Langile kualifikatuei lantegietan eusteko, beraz, jarrera paternalista hartu zuten enpresek eta, batez ere, konpainia handiek: etxebizitzak, erialdiarako laguntzak, heziketa zerbitzuak eta maileguak eskaintzeaz gainera, profesional maila hobetzeko aukera ere jarri zieten nagusiek langileei. Lanera sartzen zenetik zahartzaro garaia iritsi arte jarraitu behar zitzaion, gainera, langilea heziketa lan horri. Langile gehiegi izan zen garaian ere eutsi egin zitzaion eginbide horri, lana galtzeko beldurrez zegoen langilearen enpresarekiko leialtasuna sendoagotu egiten baitzuen horrek; bestalde, nahiko langile kualifikaturik ere ez baitzen artean.

Heziketa alorrean egindako ahalegin horrek langile kualifikatu masa egonkor bat sortzea eta, oro har, lanetik kanpora egozte gutxi izatea eragin zuen, izan ere, ez baitzitzaion nagusiar bere enpresan trebatutako langileak botatzerik interesatzen. Langileek ere ez zuten zeuden enpresa uzteko gogorik agertzen, zeukaten prestakuntzak egiten zuten lanerako bakarrik balio baitzuen ia. Langileen joera, beraz, enpresarekin konpromezu batera iristekoa izan zen. Sindikatuak sistema horren alde igualitarioak sendoagotzen saiatu ziren, gerra ondorengo garaian, batez ere.

Batez ere hiru mugak murriztu zuten Japoniako sindikatuen ekintza, berandu sortu izanak, garatu zen garaiko ingurune politikoak (1925-1931 bitartean izan ezik, inperialismoaren garaia, alegia, legezko babesik izango ez zutena edo

ekintza oztopatuko zieten garaia) eta bi sindikatu erakunde izateak: sindikatu horietako bat erresistentziazkoa eta ofizioa antolatua zen, mariñelez eta enpresa txikietako eta erdiko mailakoetako langilez osatua; bestea, berriz, enpresaka antolatua, gerra ondorengoaren oso antzekoa.

Erresistentzia joerako sindikatuetan sozialista moderatuen aldeko taldea, sindikalismo mota horren barnean gehiengoa zuena eta Britainia Handiko sindikalismoari jarraitu nahi izan ziona, gailendu zen; joera horretakoek, batez ere, negoziazioari ematen zioten garrantzia. Ezkerrerago, ezkertiarren sindikatuak zeuden, komunistek, troskistek eta anarkistek osatzen zituztenak. Besteen aldean gutxi ziren hauek, baina ideologia mailan eragin handia izan zuten. 1935. urtearen inguruan, indar handi samarra hartu zuen sindikalismo “askeak” ere; Japoniako langileen %7,55 izatera iritsi ziren sindikatu horiek 1933an. Momentu horretan zeuden sindikatu gehienak aintzat hartu zituzten enpresetan, baina ez zuten hitzarmen kolektiboetan parte hartzen. Guztiaz ere, nagusiek horienganako etsaitasun gogorra agertu izan zuten; enpresa handi askok laneko zahartasunaren eta merituen araberrako ordainak ere eskaini izan zituzten sindikatuak haztea galarazteko. Bigarren Mundu Gerra iristean gobernuak debekatu egin zituen sindikatu ekintza guztiak.

Bien bitartean, 1920 inguruan, enpresetako sindikatuak sortu zituzten konpainia handiek, eta harrera ona izan zuten langileen artean. Hasieran eskulaneko langileak bakarrik hartu zituzten sindikatu horiek. Indarrrik handiena gerraren ondoren izan zuten, langile bazkide guztien %80 hartzen baitzuten. Lan finkoa zuten langileak bakarrik onartzen zituzten, eta laneko segurtasuna defendatzen zuten kosta ahala kosta. Soldata edo laneko baldintzak hobetzeari baino garrantzi handiagoa ematen zioten horri. Enpresa hartzen zuten sindikatu ekintzen eremutzat, eta gorago aipatu den erako heziketa sistema izanik, bidezkoa zen horrela izatea. Baina, aldi berean, beste herrialdeetako enpresa sindikatuak ez bezala saiatu ziren Japoniakoak langileen interesen aldeko mugimenduak eragiten.



**BOSGARREN ATALA**  
**GIZARTE ERREFORMISMOA**



# 1. Gaia

## Gizarte erreformismoa, lan legeditik Lan Zuzenbidera

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. ESTATUAREN EGINTZA: INTERBENTZIONISMO SOZIALA; LANAREN LEGEDI SOZIALA
3. GOGOR ALA BIGUIN? NOLA INTEGRATU, MODU POSITIBOZ EDO NEGATIBOZ?
4. ESTATU SOZIALAREN JATORRIA ETA GARAPENA
5. ERA ASKOTARIKO PROPOSAMENAK: GREMIALISTAK, PATERNALISTAK, ARMONIZISTAK, INTERBENTZIONISTAK; ESPAINIAKO ADIBIDEA
6. LAN LEGEDITIK LAN ZUZENBIDERA

### Kontsultarako liburuak

- Castillo, S., «Todos iguales ante la ley... del más fuerte. La legislación laboral y los socialistas españoles en el cambio de siglo (XIX-XX)», *Sociología del Trabajo*, 14, 1991/92, 149-176. orr.
- Martín Valverde, A. eta beste, *La legislación social en la historia de España. De la revolución liberal a 1936*, Madril, Congreso de los Diputados, 1987.
- Palacio Morena, J. I., *La institucionalización de la reforma social en España (1883-1924). La Comisión y el Instituto de Reformas Sociales*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1988.
- Rubio Lara, M<sup>a</sup> J., *La formación del Estado social*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1991.





## 1. Sarrera

Lan munduko protagonistak langileak eta kapitala badira ere, Estatuaren interbentzio geroz eta handiagoak molde zehatza eman zion erlazio horri. Lehen liberalismoak interbentzionismo horri erabateko ukoa eman bazion ere, ekonomia eta produkzioa gobernatzen zituen “esku ikusezinari” egozten zitzaizkion etekinengatik, langileen egoeraren salaketak, haien organizazioen protesta eta eskariak eta, azkenik, nola edo hala langileen multzoa herrialdeetako prozesu nazionalen eraikuntzan integratu beharrak, azken buruan, Estatuaren esku hartzearen egokitasuna erabakiarazi zuten. Hala, Estatuak inkesta eta ikerketa batzordeak moldatzeari ekin zion; halakoek lanaren errealitatearen ezagutza hobea bideratu zuten: 1841ean, Britainia Handian, Inkestarako Errege Batzordeak Meatzaritzari buruzko txostena burutu zen, Villermé doktoreak Frantzian egin zuenaren antzekoa, edo geroago, 1883tik aurrera, Espainian Gizarte Erreforma-rako Batzordeak burutuko zuenaren gisakoa. Horien ondoren, kolektibo jakin batzuk (emakumeak eta haurrak) babesteko legeak etorri ziren, zenbaitetan denboran oso urrunduak, eta handik aurrera, lan harremanak arautzen zituen lege gorputz osoa: gehienezko lanegunak; gutxienezko lansariak; lan baldintzak; istripuei buruzko legeak; grebak; langileen elkartzea, e.a. Lege gorputz hau, azkenik, esparru eta arau berezi jakin batzuk zituen Lan Zuzenbide bilakatu zen.

Legeak, ez da ahaztu behar, egoera historiko jakin baten emaitzak dira. Horren arabera, Estatuak une hartan zergatik hartu zuen joera esku hartzaile hura jakitea funtsezkoa da, bai eta horren arrazoiez jabetzea ere; hau da, zehaztu beharra dago aldaketa hori langileak nazioaren eraikuntzan integratzearen gertatu zen (irekiera politikoaren eta langileen partaidetzaren aldeko jarreraren korolarioarekin) edo, aitzitik, langileen eskarien erreibindikatzeko eta barreiatze ahalmena desegiteko asmotan burutu zen. Modu horretara, integrazio positiboa ala negatiboa izan ote zen galderari erantzun genioke, hurrenez hurren, edo, bestela esanda, Estatuak biguin (beretuz) ala gogor (deseginez eta bere burua babestuz) jokatzeko erabaki ote zuen.

## 2. Estatuaren egintza: interbentzionismo soziala; lanaren legedi soziala

Liberalismoaren teoria klasikoari jarraituz eta Adam Smith, haren adierazle onenetako batek zioenez, Estatuak soilki barne eta kanpoko ordena bermatzera mugatu behar zuen bere ekintza, interes publikoak lirakeen obrak eta zerbitzuak eginez (halakotzat, obra publikoak, gutxieneko gizarte laguntza, maila bateko heziketa, e.a. ulertu behar dira). XIX. mende ia osoan Europako estatu egintzan nagusi izan zen ikuspegi horretatik, Estatuak ez du legitimaziorik eko-

nomia agenteen –kapitalaren eta lanaren– arteko harremanetan esku hartzeko. Haren esku sartzea, gainera, kaltegarritzat jotzen zen zeren eta ekonomiaren iharduera librea aldarazten baitzuen, eta pentsamendu liberalarentzat iharduera libre hori zorion guztien iturria zen. Nolanahi den, horren guztiaren ondorioa lan harremanek berek sortutako injustizia sozialaren aurrean aginpide publikoak sorrar geratzea zen (lanegun luzeegiak; haurren eta gazteen lana; lansari eskasak; etxebizitzaren egoera txarra...). Haien esku hartzerik eza langileen eta jabeen arteko gatazkan jarrera hartzea ere bazen, bai eta injustizia egoeraren aurreko jarrera politikoa ere.

Ez da harritzekoa, bada, bai sistemaren baretik eta bai kanpotik Estatuaren jarrera eta izaera aldatzea eskatu izana, halako moduan non berau araurik ez ematearen aldeko izatetik interbentzionismora aldatu baitzen. Lehenengoen artean, era guztietako erreformistek estatuaren esku hartze eta halako ongizate baten ekarlea zen bitarteko egintza hartan Estatuaren eta gizartearen arteko haustura saihesteko modua ikusi zuten. Hala, Lorenz von Stein bezalako kontserbadore batek, joan den mendearen erdialdean, gizarte erreformaren eta Estatuaren ekin-tzaren beharra seinatzen zuten instituzio tradizionalak zaintzeko bitarteko gisa.

Garrantzitsuagoa da une berean liberalismo klasikoaren barnean gertatu zen bira, halako moldez non utilitarismo erradikalenetik, Bentham edo James Mill-en ildotik, Touchard-ek liberalismo humanitarioa deitu zuenera iragan baitzen. Stuart Mill izan zen horren ordezkaria eta geroago Oxfordeko eskola idealistak eman zion jarraipena, Thomas Hill Green-en eskutik bereziki. Askatasun handi-agoa giza harremanen arauketa arinagoan datzalako ideia eztabaidatzetik abiatu zen autore horien pentsamendua. Izan ere, liberalismo erradikalak harreman horiek partearen akordio askearen baitan uzten zituen, baina lan harremanak molde desberdinez ezartzen dira eta horrek klaseen arteko aldea areagotzen laguntzen zuten, gehienak miserian bizitzera kondenatuak gertatzen zirelarik. Stuart Mill-engandik Green-engana, liberalismoak bere autokritikari ekin zion, kapitalismoak azaldutako gizarte ondorio negatiboak aztertuz. Modu horretara, arauak ezar-tzerakoan Estatuak agertutako abstentzioaren aurrean, eta partearen arteko bitarte-kotza lana egingo zuten eta desberdintasun sozial gaitzak zuzenduko zituen inolako esku hartzerik ezean, liberal erreformatzaile horiek Estatuak hiritarren esku-bide eta gutxieneko bizi baldintzak bermatu beharra adierazi zuten. Proposamen horren arabera, arreta jarri beharreko lehen helburuak hezkuntza eta osasuna izango ziren, baina baita Estatuak egin beharreko lan kontratuen gaineko kontrola eta langileen defentsarako elkartearen sustatze lana (sindikatuak, kooperatibak, elkarte mutualistak...) ere.

Sistemaz kanpotik, utopiko deitu direnetatik marxismoraino, joera sozialista desberdinek, anarkisten salbuespen bakarrarekin, desberdintasun sozialeko egoe-

rak zuzendu eta hiritar guztiei gutxieneko eskubide eta bizi baldintzak emateko Estatuak esku hartu behar zuelako ideia zabaldu zuten. Ideia hori 1789ko frantses iraultzaileengandik zetorren. Hala, Robespierrek, orduan ukaezina zen jabe-tza eskubideari zenbait muga jarri nahirik, Frantses Iraultzaren buru ziren deietako hirugarrena oroitarazi zuen: anaitasuna. Horrenbestez, Robespierrek adierazitakoa, “hiritarrak elikatzeko gauza ez den gizartea aldatu beharra dago”, ondorengo joera berdintzaileen abiapuntua izan da. Ildo horretatik, girondarren Kontentzioak 1793ko apirilean abiatu zuen Gizonaren eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpenaren idazketa berria eztabaidatzerakoan, ondoko artikulua proposatu zuen, arrakastarik gabe baina: “gizartea bere kide guztien biziraupenaz arduratuko da...”. Irizpide hori aldeztu zuten modu praktikoz frantses herriaren indarrek Iraultzan *Gehienezko Orokorren* alde garatu zituzten borroka guztietan, eta beronek herri aginpidetik prezioen eta soldaten balioa mugatzea eta, ondorioz, konkurrentzia askearen printzipioari uko egitea suposatzen zuen.

Robespierrek ‘Anaitasuna’ hitza frantses prozesu iraultzailearen mugak salatzeko erabili zuen; handik aurrera, ‘Berdintasuna’ erabiliko zuten esku hartzeko funtzioa Estatuaren gain uzten zutenek, honako printzipio honen arabera: desberdintasun egoeretan desberdin ihardutea, gerora “diskriminazio positiboa” deitu izan dena eta Estatu sozialaren kontzeptuaren muinean datzana.

Ekonomia barrutietan Estatuak zuen funtzioa eta zegokion interbentzioa, lehenengo garaietatik, eztabaida iturri gertatu zen pentsamendu eta eduki berdintzaileko erakundeen artean. Alde batean, Marxek Estatuari egiten zion salaketa hura –“Klase burgesaren taldeko interesak kudeatzen dituen Administrazio Kontseilua da”– sostengatzen dutenak daude, hauek iraultzaz besterik ez diote inolako irtenbiderik ikusten egoerari. Planteamendu horren aurrean, erreformista sozialek, azken buruan soluzio iraultzailea planteatzen zuten ala ez alde batera utzirik, Estatu presionatu beharra aldarrikatu zuten, ekonomiaren alorrean esku har zezan, bere egintzaren bidez liberalismo erradikalak eragindako bidegabeke-riak zuzentzearen. Jokabide hori Sismondi erreformatzailearekin jadanik azaldu zen, gero Louis Blanc-ek beretu zuen, 1848ko frantses iraultzaren eta 1871ko Pariseko Komunaren esperientziekin eta XIX. mendearen azken laurdeneko praktika sozialdemokrata eta laboristarekin amaitu zen.

Louis Blanc-ek, adibidez, funtzio esku hartzaile garbia aitortzen zion Estatuari; haren ustetan, Estatuak bankari eta mailegu emaile nazionala izan behar zuen, herrialdearen meatzaritza eta burdinbide aberastasunaren jabe, lanpostuen sortzaile Tailer Nazionalen bidez eta, azken batean, ekonomiaren erregulatzaile bilakatuz. Guztiarekin ere, Blanc-ek ez zuen nazionalizazioetan edo estatu jabetzan pentsatzen; Estatuak, soilki, ekonomia sozialaren sustatzailea izan behar zuen. Blanc-en eta beste autore batzuen eragina nabarmendu zen 1848ko Euro-

pako iraultzetan. Haietan, estatuaren esku hartzea eskatu zen berriro, hura baitzen hiritar guztiei, oro har, gutxieneko ongizatea eman ziezaiokeena: Tailer Nazionalak, kreditu estatala, hezkuntza, lanaren babesa, langileen partaidetza, e.a. Hori guztia sufragioaren hedapenari eta Estatuaren izaera demokratikoari lotua. 1871n, Pariseko Komunaren garaian, eskarien edukiak oso antzekoak izan ziren eta errealizazio praktikoei norabide erreformista berera jo zuten: zenbait sektoretako lan baldintzen erregulazioa, ugazaben praktika bidegabeak mugatzea, eskolatzeko publikoa, langileen partaidetza ekonomikoa zuzendaritzan eta gutxieneko gizarte laguntza.

Estatuak araurik ez ematek arau ematean esku hartzera iragateak, ikusi dugunez, alde aurreko ibilbide luzea izatea eskatzen du. Baina, funtsean, hiru faktore dira, eta kasu honetan gizarte sektore, aldaketa horrekin zerikusia dutenak. Hasteko, langileen bizimolde neketsua zela eta, langileek berek salaketa eta erreibindikazio prozesua burutuko zuten. Protesta horretan aldaketa zehatzak eskatzen ziren, baina aldi berean, hain bidegabe zen gizarte ordena hura oso-osorik kritikatzeko amaituko zen kontzientzia moldatzen hasi zen. Zentzu honetan, *tradeunion* direlakoen aldeko pragmatikoenetik sozialista erradikalenetaraino, langile mugimendu osoaren ezaugarria bizitza eta lan baldintza hobekitzeko borroka etengabea izan zen. Pulsu horretan, ikusi dugunez, ez ziren falta greba mugimendu handiak, manifestazioak eta jendetza handien eskaerak eta langileek burututako indarrezko ekintzak.

Eskaera horiek eta, batez ere, hartu zuten jite bortitzak, buruzagi politikoak gizarte auzia beste era batera hartzera behartu zituzten. Horrenbestez, eta ez halaberharrez, Espainiako kasuan esaterako, Gizarte Erreformatarako Batzordea sortu zen urtean, 1883an, Andaluziako nekazaritzaren gorabeherak edota La Mano Negra-ren arazoa gertatu ziren; ildo beretik, 1900-1902 aldia, iharduera legal erreformista handiko urteak, Bartzelona, Coruña, Gijon edo Sevillako greba orokorrek markatuak izan ziren. Langileen protestak zapaltzerakoan estatuak erabilitako bortxaren eraginkortasunik ezak eta langileen egoera eta bizi baldintzak kontuan hartzera bultzatzen zuen pentsabidearen eraginak, buruzagi politiko nabarmen batzuen jokabidea aldatzea lortu zuten. Garaiko historialari baten hitz esanguratsuetan: “humanitarismoa eta beldurra dirateke, lehen buruan, lan legediaren bi iturri handiak”. Beste baten arabera, legedi horren bidez Estatuak zera nahi zuen: “bakarkako langilea babestu eta elkarteetako langilearen-gandik bere burua babestu”.

Testuinguru horretan, gizartearen hirugarren sektore baten garrantzia ez zen txikiagoa gertatu: idazleek, pentsalariak eta pertsona ezagunak osatu zutena. Horiek bitartekotza lana eginez, alde batetik langileen bizi baldintzak salatu eta, bestetik, agintariak politikaz aldatzera bultzatzen zituzten; horretarako goian sei-

nalatua adierazten zuten, hau da, argudio humanitaristak eta gizartetik bazter izatera kondenatutako langileriaren mehatxua. Pinturaren edo lehen argazkigintza-  
ren edo zenbait idazle ezagunen literatura sozialaren eraginaz ohartu beharra dago, hala nola, Charles Dickens (*Oliver Twist*, 1837-38; *Garai zailak*, 1854; *Dorritt txikia*, 1857-58; *Esperantza handiak*, 1860-61); Victor Hugo (*Misera-  
bleak*, 1862) edo Émile Zola (*Taberna*, 1877; *Germinal*, 1855).

Aipatutako faktoreen artean, jokabidearen aldaketa horretan pisu gehiago zutenak azaltzerakoan, bi muturretako interpretazioak aurkitzen ditugu. Lehena, oso juridizista, eta gure ustetan, egoera historikoez arreta gutxi egiten duena, ospe handiko juristek aldeztua da, hala nola Alonso Oleak Espainiari dagokio-  
nez. Harentzat, jokaeraren aldaketa –abstentzionismo normatibotik estatuaren interbentzionismora iragatea–, abstentzionismo normatiboan interesa zuten bur-  
gesien politika ahalmena eta gizarte eragina handienak diren unean gertatzen da. Aldaketa gertatzen bada, tesi horren arabera, zenbait faktore elkartzen direlako da: egoera jasanezinen aurreko erreakzio psikologikoak; joera orokorraren aurka gertatzen diren esku hartze partikularrak (hor sartzen dira era askotariko pentsa-  
bide erreformatzaileak); eta aginpide politikoaren egintza neutralak, klase diszi-  
plina jakin baten mende ez leudekeenak. Beste muturrean, tradizioz gizarte auziaren historialariek eutsi dioten interpretazioaren arabera, Estatuaren propo-  
samen erreformistak politika elite baten kezka sozialaren ondorio baino areago, intelektualen sektore jakin baten iradokizunen eraginez gertatu zen; hala bada, halakoen proposamenek, bortxa soziala baretzearen Estatuaren bortxa ez zela gauza azalduz joan zen neurrian, lortuko zuten oihartzuna. Zentzu horretan, erre-  
formismoaren atzean buruzagi politikoek langile organizazioen indarrezko plan-  
teamendu eta jokabide hausleak ahultzeko bidea ikusi zuten.

### 3. Gogor ala biguin? Nola integratu, modu positiboz ala negatiboz?

Bi interpretazio horiek prozesu bera deskribatzen dute, baina elkarren aurka-  
ko bi ikuspegitik. Gizarte erreforma, definizioz, langile mugimendu sindikala edota politikoa gizarte liberalean integratzea dakarren prozesu multzoa da. Esan nahi baita, gizarte liberalaren egiturak sendotzea helburu duen egintza bat, agin-  
tarietiek ordura arte kanpoan utzitako gizarte sektore zabala integratzen zuena. Esandakoa bete dadin –aukera biguinaz ari gara, modu positiboz integratzeari dagokionaz alegia–, Estatuaren esku hartzeak eta gizarte eta lan legediak gizarte-  
aren benetako demokratizazioarekin batera joan behar dute, esku hartze publiko-  
aren, politikoaren, eskubideak langile eta herri mailara hedatuz. Kasurik gehie-  
netan, eskubideen unibertsalizazio hori ez zen Estatuaren esku hartzearekin bate-  
ra gertatu; gizartea ez zen demokratizatuko eta gizarte legedia agintarien aldeti-

ko defentsa erreakzioa edo integrazio saio bat besterik ez zen izango, aurkariaren armagabetzea, indargabetzea, bilatuko zuena, modu positiboz integratzeko asmorik gabe –gogorra deitu dugun aukera–.

Gizarte protestaren haustura ahalmen hori indargabetzeko asmoaren eredu paradigmatorik bada, hori Otto von Bismarck alemaniar kantzilerrak buruturiko gizarte politika da. Politiko autoritario horren helburua sozialdemokraziaren eta langile mugimendu antolatuaren presentzia ezabatzea besterik ez zen. Hartarako, legedi zapaltzailea –"Komunitatearentzat kaltegarriak diren sozialdemokraziaren joeren aurkako Legea", ezker sozialista legez kanpo ezartzen zuena– eta ezker horren erreibindikazio egintzaren premia deuseztu behar zuen gizarte erreformetarako programa konbinatu zituen. Estatuaren egintza edo esku hartze gogorra: bere burua babestuz eta aurkakoa indargabetuz, integratuz baino arago, zeren eta Bismarck-en errejimenaren ezaugarriak autoritarismoa eta demokraziarik eza izan baitziren.

"Burdinazko Kantziler" alemaniarren gizarte legedia, aitzindari izan ziren hiru erabaki politikoetan laburbiltzen da. Lehena 1883ko ekainekoa da, haren bidez industria langileentzako derrigorrezko gaixotasun aseguruia ezarri zen. Aseguru kutxa horretan langileek eta ugazabek esku hartzen zuten, eta erakunde aseguratzailerak batzuen eta besteen ordezkariak kudeatzen zituzten. Langileak, eritasunak jota izatera, babesturik zeuden eta mediku eta botika kontuetan behar zen laguntza beren esku zuten. Lan istripuei buruzko 1884ko legeak xedatzen zuenez, ugazabek elbarritasunezko aseguru kutxa batean kotizatzeke obligazioa zuten (ugazaben erantzukizun edo istripuekiko printzipioa, enpresaren gaineko karga ekonomiko gisa interpretatua). Istripuaren ondorioz elbarrituriko langileak errenta jasotzen zuen, edo hiltzen bazen, alargunak edo seme-alabek kalte ordaina jasotzen zuten. Azkenik, 1889ko legearen ondorioz, langileek, ugazabek eta Estatuak esku hartzen zuten derrigorrezko fondo hornituriko erretiro sistema bidean jarri zen, hirurogeita hamar urtez gorako langileentzat pentsioa sortzen zuena.

Legedi gorputz hori, gizarte aurrikuspen bidetik garbiro abiatzen zena Alemaniako Estatu sortu berri hartan, gerokoak diren lan legediari buruzko xedapenei aurreratu zitzaion. Hala, 1891n gehienezko lanaldia, emakumeen eta haurren lanaren babesa, gaueko lana, igandeko atsedena... kontuan hartzen zituzten arauak onartu ziren; 1891-1895 aldirian, errentaren gaineko zerga gehikorren sistema ezarri zen, gisa horretako lehena. Agian, bestelako legediaren gaineko gizarte aurrikuspenaren aurreratze horretan, Prusian jadanik istripu eta gaixotasunen inguruko lege gorputz aski zabala izatea lagungarri gertatu zatekeen, ondoren Alemaniako hegoaldeko beste estatuetan errepikatuko zena.

#### 4. Estatu sozialaren jatorria eta garapena

Europako herrialde multzoari dagokionez, estatuaren esku hartzea eta gizarte erreformismoa, oro har, honako denbora prozesuaren arabera garatu zen:

1. Babesik gabeko langile taldeen (haurrak eta emakumeak) lanaren murrizteak, gerora langile guztietara zabalduko zirenak.

2. Laneko segurtasuna (istripuak aurrikusteko arauak).

3. Laneko istripuak (enpresarien erantzukizuna).

4. Gizarte segurantza (gizarte erantzukizuna; Estatuaren esku hartze geroz eta handiagoa; laguntza pribatuko elkarte eta mutualetatik Estatuko aurrikuspen erakundeetara iragatea; derrigorrezko zahartzarorako aseguruia, amatasunari dago-kiona eta, gero, langabeziarena).

5. Estatuak soldatak arautzea (gutxieneko soldata; aparteko lanen ordainketari buruzko araudia...).

6. Lan gatazkak eta gatazka horiek erabakitzeko legezko esparru bat ezartzea.

Puntu horiei langileen elkartzeko eta egintzarako (greba) eskubidea gaineratu beharko litzaieke.

Herrialdeei dagokionez, legedi multzo hau guztia gauzatzen den denbora aldia desberdina da, funtsean dagokien industrializazio garapenaren eta bizi zein lan baldintza hobekitzeko langileek eragindako presio mailaren arabera. Modu horretara, ez da harritzekoa estatuaren esku hartzearen aldeko neurriak hartu zituen lehen herrialdea Britainia Handia izatea. Horrenbestez, 1802rako, Robert Peel ministroak kotoi sektoreko lanorduak hamabira mugatzen zituen eta gaueko lan iharduera galarazten zuen legedia ezarri zuen, baina ez industriaren aldeko oztopo eta kontrako jarrerarik gabe. Legearen muina ez zen bete, herrialde gehienetan lehen legediarekin gertatu zen bezala. Aurrekoaren ondoren, haurren lana mugatzen zuten beste zenbait arau egin ziren 1819an, lord Ashley kontserbadoreak eraginik—1833an osatuko zirenak— eta estatuak egin beharreko industria ikuskapena kontuan hartzen zutenak. Ondoko legeek emakumeen lana arautu zuten, murriztapenak langile guztiengana hedatuz eta soldaten ordainketari buruzko araudiak barne hartuz. 1908an, meatzaritzako gehieneko lanaldia arautu zen eta, urtebete geroago, hainbat sektoretako gutxieneko soldata finkatzeko ahalmena bere gain hartu zuen gobernuak.

Frantzia prozesua geroago gauzatu zen, legedia lehengoa izan arren ez baitzen *de facto* hirurogeita hamargarrenaren ondoko urteak arte bete, eta ordurako III. Errepublikaren garaia zen. Ordutik aurrera, 1874tik, gai horien inguruko legeak egin ziren: emakumeen eta haurren lana, gehienezko lanaldia, lan segurantzaren

baldintzez estatuak egin beharreko ikuskapena, igandeko atsedena eta lana gauzatan ordaintzeko debekua.

Azkenik, Espainian hau guztia atzerapen handiz gauzatu zen, Portugalen baino beranduago. 1900 arte ez da gizarte legediaren aztarnarik (aplikatu ez zen eta haurren lana babesten zuen 1873ko Benot legearen eta inolako garrantzirik izan ez zuen ministro aginduren baten salbuespena salbuespen). Mende honen hasieran, eraginkortasun handiagoko legedia gauzatzen hasi zen emakumeen eta haurren lanaz eta lan istripuez, *Datoren legeak* izenez ezagutzen direnak alegia. Horiei, igandeko atsedinari buruzko legea gehitu zitzairen 1904an. Lehenago, 1902an (eta behin-betiko eta urtebete geroago) “interbentzionismo zientifiko” deituaren garaien hasiera markatu zuen erakunde bat sortu zen: “Instituto de Trabajo” delakoa, azkenik “Instituto de Reformas Sociales” deitu zena, estatistika eta ikuskari funtzioak izan zituen eta, tokian tokiko, are lan gatazken irtenbide negoziatua bideratu zuena. Horien ondoren, gizarte aseguru kolektiboak eragiten zituen “Instituto de Reformas Sociales” delakoa sortzeko legeak aldarrikatu ziren (1908), 1909an derrigorrezko zahartzarorako aseguruarekin burutu zena; industria epaimahaiei buruzko eta lan prozesuen bidea ezartzeko legeak etorri ziren gero (1908 eta 1912), eragin gutxi izan zutenak; greba eta koalizioei buruzko legea (1909), zerbitzu publikoen emakida hartzen zutenen kasuan jurisprudentziak eta ondoko legedi murriztaileak azkar ezereztu zutena; zortzi orduko gehienezko lanaldia (1919), legea idatzi aurretik sektore eta enpresa garrantzitsuetako langileen eta ugazaben arteko itunak jadanik zaharkiturik geratzen ari zenean aldarrikatu zena; aldean legezko ordezkarietarako eta lan gatazken irtenbide negoziatua lortzeko mekanismo bat ezartzea, Primo de Riveraren diktadurako (1926) Bitariko Batzordeetan gauzatua, eta gero II. Errepublikako Jurado Mixto zirelakoan bidez azalez aldatu zena; bete-betean Errepublikaren garaietara iritsi arte, non, lehen bi urteetan bereziki, gizarte lege multzo handia garatu zen: Ley de Contrato de Trabajo (1931), Ley de Colocación Obrera (1931), Ley de Reforma Agraria (1932)..., araudi hauen aplikazioa une historiko zail eta gatazkatsu hark oztopatu zuen.

Gizarte eta lan alorretako estatu erakundeen esku hartzea, XX. mendean jadanik, Estatuak baldintza ekonomikoak eta sozialak arautzeko eskaera geroz handiago batez osatu zen. Hala, gerora Estatu Sozial izenez ezagutuko zena sortu zen, hots, Gerhard A. Ritter-i jarraituz, hiritarren estatus juridikoaren eta bizi baldintzen hobekuntza defendatzen duena, honako helburu hauen gainean esku hartuz:

– *Laguntza bermatzea* pobreziaren eta miseriaren aurrean, hiritar guztientzako gizarte segurantzaren eta beharrik gehien dutenentzako gizarte laguntza sistema baten bidez. Osasun sistema publikoan gauzatu zen.

– *Berdintasun handiagoa sustatzea* hiritarren artean, ongizate mailako desberdintasunak gutxituz eta, batez ere, langileak ugazabarekiko zuen mendekotasuna



ahulduz. Saio hori zenbait politika orientabidetan gauzatu zen: seme-alaba asko zuten familiei laguntzea, hezkuntza estatuak finantzatzea, enplegu betea helburu zuen politika, gutxieneko soldata finkatzea eta sistema fiskal proportzionala.

– *Pertsonen estatus juridikoa hobetzea*, langilearen babesaren bidez eta gizarte alorrari dagozkion oinarritzko eskubideen aldarrikapenaren bidez.

Estatu Sozialaren eraikitze horretan bi aldi bereizten dira argi eta garbi. Gutxi gorabehera XIX. mendearen lehen erditik II. Mundu Gerraren inguruko urteetara luzatzen den lehen aldian, eskakizun politikoak faktorerik garrantzitsuenak izan ziren. Aldi berean, injustizia sozialari buruzko gogapen teorikoak gauzatu ziren eta haiei langile klase antolatu eta errebindikatzaile baten presioa jarraitu zitzaizkien. Azken buruan, sistema kapitalistaren bermearen bidez egonkortasun politikoa lortzeko premiak, gatazken baretzea erraztuz, eta, aldi berean, langileen estatusa hobetzeak lan eta gizarte legedi ugari ekarri zuen.

Hala eta guztiz ere, bigarren aldian lehen gizarte erreformaren izaera esperimentalak gaintu zen eta ekonomia arazoek eragin handiagoa izan zuten Estatu Sozial hori eraikitzeko politikak zehazterakoan. Hala Beveridge Txostenak nola keynestar politiken aplikazioak justizia soziala eta merkatu ekonomia adosten zituzten politiken garapena bideratu zuten.

John Maynard Keynes britainiar ekonomilariaren gogapenek eta proposamenek merkatuaren disfuntzionalitateen salaketa eta krisi ekonomikoei irtenbidea emateko merkatu horrek erakusten zuen ezgaitasuna zuten abiapuntua. Analisi horrek Estatuaren ekonomiarekiko interbentzionismoa areagotzeko premia (makroekonomiaren edo politika ekonomiko orokorraren mailako erabakien bidez) eta biztanleriaren gizarte ongizatearen bermearen beharra azaltzen zuen. Keynes-en iritziz, eskaera, kontsumitzeko ahalmena, sustatu beharra zegoen, sarreren birbanakuntzarako estatu politikak aplikatuz.

## **5. Era askotariko proposamenak: gremialistak, paternalistak, armoniazaleak, interbentzionismo zientifikoa; Espainiako adibidea**

Gizarte legedia garatzeko eta aplikatzeko prozesuak, baita erreformismo sozial bera ere, denbora bitarte desberdinetan azaldu ez ezik, beraien protagonistak ere ideologia mota guztietakoak ziren. Herri bakoitzak bere koadro berezia azaltzen zuen, baina XIX. mendearen azken laurdenean moldatu zen Espainiako adibidearen bitartez, erreforma sozialak planteatu zuen erronkaren aurrean agertu ziren sentiberatasunak eta erantzunak, funtsean, gainerako herrialde industrializatuetan edo industrializatze bidean gertatu zirenetakoak bezalakoak izan zirela ikus dezakegu.

### 5.1. Intelektual armoniazaleak

“Liberalismo armonikoa eta organikoa”, indibidualismoaren eta sozialismoaren artean zegoena, intelektual krausisten eskutik garatu zen Espainian, eta bereziki, haiek sorturiko “Institución Libre de Enseñanza” delakoaren bidez Azcárate, Buylla, Pérez Pujol haietakoak izan ziren eta politiko liberalek haren eragina izan zuten, hala nola Canalejas eta, neurri apalagoan, Moret. Hasieran gizarte errealitatearen ezagupen hobea planteatzen zuten (“interbentzionismo zientifikoa”). Gero, elkarteak interesak ordezkatzeko modu egokitzat harturik, halakoak sustatzeari ekin zioten. Ordezkariek lan arauak moldatu eta eztabaidatuko zituzten eta, modu horretara, aplikatu aurretik haien legitimazioa ziurtaturik zegoen. Proposamen hori, bistan da, armonizista da, gizartea hainbat subjektu eta elkarteren multzo armonikotzat hartzen baitu. Pentsamolde hura gizartearen pluralismoaren defentsarekin bukatzen zen, bitarteko taldeen antolaketa aktiboaren (gizabakoaren eta Estatuaren artekoak) eta aginpideen egintza kontzientearen arteko konbinaketa gisa interpretaturik. Estatuaren interbentzionismoa nahi zuten alderdi doktrinal eta teknikoetan krausisten eragina erabakiorra izan bazen ere, gizarte desberdintasun mugatua kontuan hartzen zutela adierazi beharra dago; zentzu horretan, interbentzionismoaren aldeko jokabide hura humanismoak baino arago beldurra eragina zen. Horregatik, haien interbentzionismoa oso zuhurra izan zen beti, Estuari gehiegizko konfiantza ematen uzten ez zien beren erro liberal ideologizatuengatik, hain zuzen.

### 5.2. Pi i Margall. Liberalismo kolektiboa eta errepublikazaletasunik aurreratuena.

XIX. mendearen azken laurdeneko politikoen artean, Pi i Margall errepublikazaleak oso eragin berezia izan zuen Estatuaren lehen gizarte egintzetan, hasieran interbentzionismoaren aurkakoak izan bazen ere. Haren irizpidea krausisten oso antzekoa da: humanismoa (gizakia helburu gisa, autoerrealizazioaren premia duena); langileen antolakuntzaren premia, enplegatzaileak duen egoera abantailatsuaren zuzenketa eta defentsarako elementu gisa bada ere; gatazkak direnean, estatuaren interbentzionismorik eza (edo guztiz mugatua); bi alderdietako epaimahaikoen bidea onesten du; bai estatuaren interbentzionismoari, kapital-lan erlazioa oinarritua den desoreka zuzentzearen; armoniazaletasuna eta klaseen arteko elkarlana; gizarte erreformaren beharra.

Bai krausistek bai Pi-ren liberalismo kolektiboak eta errepublikazaleak lehen mailako eginkizuna izan zuten Espainiako gizarte erreformismoaren baitan, baina, aldi berean, prozesu hori geldiago egiten lagundu zuten. Izan ere, erreforma juridikoetan gehiegizko interbentzionismoan baino konfidantza handiagoa baitzuten.

### 5.3. Gobernutarrak

Bai kontserbadoreak (Cánovas, Dato, Maura) bai liberalak (Sagasta, Aguilera, Ruiz Capdepón) bat etorri ziren beldurrak eta prebentziozko asmoak kutsaturik zegoen interbentzionismoa bultzatzean. Beste zenbait herrialderen moduan, hala nola Ingalaterran, kontserbadoreek interbentzionismoaren aldeko jarrera nabarmenagoa izan zuten liberalek baino –Dato, esaterako, kontserbadorea zen–, bigarrenago hauek ideologiaz dena beretu nahi zukeen Estatu baten beldur baitziren beti. Dena den, lege araua proposatzen zenean, kontserbadoreak halakoa betetzeari salbuespenak onartzearen eta debeku alorrak murriztearen aldekoago agertzen ziren. Bat zetozen babes izaerako interbentzioaren filosofian.

### 5.4. Katolikoak

1870tik aurrerako hamarraldian, Espainiako katolikoak urrun ziren katolizismo sozialetik, eta gertuago kokatzen ziren pentsamendu tradizionalistatik (geroko korporatibismoaren edo Vázquez de Mellaren *sociedadalismo jerárquico* delakoaren ildotik). Hasieran, liberalismo indibidualistarekiko kritikak baldintzatu zuen haien jarrera, eta liberalismo horrek erdiko gizarteko egitura babesle eta organizistak deusezten zituen unean. Gremio zaharren desagertzea eta liberalismo indibidualistak zekarren gainbehera morala, pobrezia sorturiko endekapena eta antolatze bidean zen obrerismoaren indarrezko adierazpideak ere kritikatzeko zituen horrek. Planteamenduetan korporatibizaziora jo zuten: zentzu horretan, hasieran gremialista garbiak ziren. Hauen interbentzionismoaren aldeko jarrera ere babeslea zen, estatuak moral eta erlijio alorreko arazoez arduratu behar zuelako ideian oinarriturik (igandeko atsedena; haurren eta emakumeen lana, familiaren defentsa, haur eta emakumeak “galtzeko” arriskuaren beldurra, e.a.). Ez ziren interbentzionismoaren aldeko sutsuak (“Estatu sozialismoa” deitzen zutenarekin kritikoak), bereziki egintza pribatua eta elkartzeko ez erreibindikatzailerak (katolikoak eta langileen zirkuluak) zituzten gogoko, eta beren planteamendu armoniazale hartan ordezkari mistoak proposatu zituzten lehenengoetakoak izan ziren. Nolanahi ere, kontserbadoreen antzera, legearen aplikazioari salbuespen ugari erasten zioten. *Rerum Novarum* (1891) entziklikaren ondoren, beren irizpide teorikoak eta praktikoak sendotu zituzten.

### 5.5. Langileen sektoreak

Hiru talde berezi beharko genituzke:

1. Anarkismoaren eragina zutenek (FTRE, Solidaridad Obrera, CNT) ez zuten inolako uste onik ez gizarte erreformismoaz ez eta interbentzionismoaz ere, definizioz antiestatismoa beraien oinarritzko doktrina ardatza baitzen. Pentsamolde hartan, erreforma soziala integratzeko bidea zen, langileak beren azken helburutik –gizartearen aldaketa iraultzailea– desbideratu behar zituena.

2. Espainiako sozialistek, baina ez haiek bakarrik, hasieran hizkera bikoitza erabili zuten: Estatuarekiko eta haren erreformismoarekiko uzkur ageri ziren, ihardunbide hartan gizartearen protesta eta “alderdiaren hazkuntza” isilarazteko saioa ikusten zuten, eta ageri-agerian iraultzaile ziren printzipioak mantentzen zituzten. Hala eta guztiz ere, aldi berean, lan mota horietan esku hartzen zuten (Comisión de Reformas Sociales-era zuzenduriko Vera Txostena (1884); 1903tik aurrera eta Largo Caballeroren eskutik “Instituto de Reformas Sociales” zelakotan buruturiko iharduera) eta estatuaren interbentzionismo zorrotzaren alde azaldu ziren gero eta gehiago. Horren guztiaren ondorioz, XIX. mendearen azken aldia baino lehenago jadanik, iraultza erreforma pilaketaren ondoko azken kolpe gisa interpretatzen zuten irudipena *sortu* zuten. Hori ez zen oso hizkera erradikala justifikatzeko erabiltzen zen oinarri finkorik gabeko argudioa baizik, formetan eta berehalako helburuetan gero eta ekintza epelagoak bideratzen ziren bitartean. Konponbideen aldekoak izanik, II. Errepublikan, Largo Caballeroren ministerioa bere borondate erreformazale geroz eta handiagoaren adierazlea izan zen (komunisten bereizketaren ondoren eta alderdiaren eta sindikatuaren ibilbidean mami-tua). Errepublikako lehen bi urteetan, gizarte eta lan munduaren errealtatea legalitatearen bidez aldatzeko egin zuen saioa “iraultza juridiko” esamoldeaz izendatu zen; honek tesi sozialdemokrata orokorretara behin-betiko atxikimendua adierazi nahi zuen.

3. Langile sozietarioak, ideologia zehatzik gabeak, oso eragileak izan ziren klase sindikatuen aurreko aldian, era guztietako egintzetan eta eskaera soziale-tan; interbentzionismoaren aldekoak ziren garbi-garbi eta garrantzi handia ematen zieten gai batzuei, hala nola ordezkaritza mistoei (haien artekaritza onartuz), gehienezko lanaldiari eta haurren eta emakumeen babesari (Benot Legearen aplikazioa), hori guztia Espainian gizarte erreformaren prozesua benetan abiatu baino hogeitau urte lehenago.

### **5.6. Interbentzioaren aurkako sektore patronalak eta indibidualistak**

Enpresariei dagokienez, haietako gehienak interbentzioaren aurkako jarreretan bat bazetozen ere, ezaugarri hori ezin da kasu guztietara erabat zabaldu. Bat etorri ohi ziren kontratazio askatasunaren printzipioan eta ezein interbentziok edo askatasun horrekiko lege murriztek produkzioari kalte egiten ziola uste zuten, eta kanpoarekiko konkurrentzialtasuna oztopatzen zuela (hori, adibidez, haurren lana mugatzearen aurka egiteko esaten zuten). Zinismo ezin handiagoz, legezko mugak langilearen beraren kalterako zirela zioten, soldata bat lortzea galarazten ziotelako. Interbentzionismoaren aurkako muturreko jarrera irizpide beretik sortzen zen, edo zehatzago, langilearen eta enplegatzailearen berdintasunaren printzipio liberal zaharretik eta biok jabe zirelako kontsideraziotik, batzuk beren lanaren jabe, beste batzuk produkzio bitartekoena eta jarritako kapitalaren jabe. Ezein interbentzionismoren aurkako jarrera gorabehera, langileari laguntza eta heziketa emateko neurri zehatz eta pribatuen alde agertu ziren (prebentzio

asmotan): kontsumorako eta etxebizitzarako kooperatibak, aurrezkiaren sustatzea, elkartze pribatua ez erresistentziakoa (baina bai babestekoa eta zaintzekoa) eta ordezkari mistoak, nahiz eta praktikan gisako erabakiak betetzea nahitaezko bihurtzearen aurkako izan edo horiek nekez onartu.

## 6. Lan legeditik Lan Zuzenbidera

Lanaren banaketaren ondorioz sortu zen egoeran, lanaren emaitza ekoizlearenetik hura erosten zuenarengana aldatzen zenez, ezinbestekoa gertatu zen hura arautzeko modu bat edukitzea. Arautzeko modu horrek bi arazo hauek hartu behar zituen kontuan: zertan oinarritzen zen tratua eta zein baldintzatan burutzen zen lan ahalegina (laneko baldintzak arautzeko modua).

Industria Iraultzaren aurretik eta, batez ere, iraultza liberalaren eta barruti juridikoen aldaketaren aurretik, besteren konturako lana mendekotasun edo nagusitasun pertsonaleko harremanetan oinarriturik zegoen: langilea ez zen aske erabakitzeke nori eta zein baldintzatan ematen zion bere lan indarra. Ez zen lanaren araudi juridikorik.

Lan indarra askatzean, askatasunean eta kontratuzko borondatean oinarrituriko kontratazio araudiak ezarri ziren. Funtsean, produktu bat saltzea edo erostea eta lan indarra saltzea edo erostea ez zen oso desberdina. Lanari buruzko legedirik ez zenez, merkataritza trukeak gobernatzen zituen Zuzenbide Komuna aplikatzen zen.

*Laissez-faire* delakoa, hots, estatuaren eskurik ez hartzeko eta lan harremanetan zihardutenak ukituko zituen araudirik ez finkatzeko printzipioak eztabaidatzen hasi zirenean, arian-arian aipaturiko Lan Legedia agertuz joan zen. Funtsean, progresioa modu honetara gertatu zen: lan harremani aplikaturiko zuzenbide arruntetik (lana produktu baten salerosketa gisa interpretatua), aparteko zuzenbidera pasa zen, lan munduaren gero eta iharduera eta subjektu gehiago (haurren eta emakumeen lanari buruzko legediak, lanaldiei buruzkoak, soldatari buruzkoa, e.a.) ukitzen zituenera iragan zen. Bigarren urrats honetara arte, Lan Legedia zela esango genuke. Azken urratsa zuzenbide bereziak moldatzen du, Lan Zuzenbideak, hau da, lan mundurako legediak eta barrutiak eta araudi juridiko bereziak.

Bien arteko desberdintasuna azaltzearen, esan daiteke Lan Legedira iristen dela Estatuaren aldetik lan harremanak eta baldintzak arautzen dituen ordenamendu juridikoa ugaltzen hasten denean. Lan Zuzenbidea izatera gutxien-gutxieneko maila batetik gorako konplexutasun eta sistematizazioa dituen arau multzo bat badenean iristen da, hartan Estatutik datorren legedia ez ezik, lanbideetatik datorren araudi guztia, hala nola izaera legala ezagutzen zaien parteen arteko hitzarmenak edo hitzarmen kolektiboak ere integratzen direnean, alegia. Espai-

nian, esaterako, Lan Legedia mende honetako lehen urteetan abiatu zen; Lan Zuzenbidea, ordea, ezin esango da Lehen Mundu Gerra bitartean bazenik.

Lan Legedia eta Lan Zuzenbidea osatzen duten legeak bost araudi multzo handitan bil daitezke: goian aipatu ditugu batzuk:

1. *Lan baldintzen arautzea*. Talde jakin batzuen lana arautzen hasi zen, babes-teko asmoz, eta gero langileria osora zabaldu zen, haren gutxieneko maila jasoz edo hasierako legedi hura beste zenbait alderditara aldaraziz: hala, emakumeei buruzko legedia arau orokorrak beretzen du azkenean; legedi horrek izateko arrazoia galtzen du, gehientzat markaturiko baldintzek gainditzen dutelarik. Haurren eta gaztetxoan lanari buruzko legedia beste arau gorputz baten osagai bihurtzen da (adin jakin batez behekoak lanean jartzea debekatzeko duena hain zuzen). Arautze horrek, oro har, hainbat alderdi ukitzen ditu: lanaldiaren eta atsedeenaren iraupena, segurtasuna, higiena eta lan istripuak, soldaten babes-besa eta, geroago, enpleguaren egonkortasun arauak eta enpresariaren zuzendaritza ahalmenari buruzko arauak.

2. *Bizi baldintzak*. Aurrikuspen eta aseguru sozialei dagokie eta harekin lan legedia hedatu egiten da, langilea ez ezik haren familia ingurunea ere ukitzen duelarik. Urratsak honako hauek dira: istripuetan ugazabek duten erantzukizuna ezartzen da; langilearen ezinbesteko aseguratzeko (ondorioz ugazaben edo istripuetarako mutualen asegurua agertu zen); eta gizarte osoa hartzen duen Gizarte Segurantzaren sistema bat sortzea, azkenean Lan Zuzenbidetik irtenda autonomia hartzen duena.

3. *Lan harremanen lege sistema*. Hitz hau –“lege sistema”– ez da “lan harremanen sistema” delakoarekin nahasi behar. Hala, lan harremanen lege sistema izena, langileen eta enpresariaren defentsarako organizazioez eta egintzez diharduten arauen multzoari ematen zaio. Lan harremanen lege sistema hau lanbide elkarrean eta koalizioen lege ezagupenari dagozkion arauak, lan gatazka kolektiboaren soluzioari buruzko arauak eta hitzarmen edo akordio kolektiboari buruzkoak osatzen dute.

4. *Araudia betetzeari buruzko xedapenak*. Zuzenbidea zaindu eta betetzeaz arduratzen diren organismo publikoak ukitzen dituen legedia biltzen du, eta lan araudia eraginkorra gerta dadin saiatzen da. Honako arau hauek biltzen ditu: lan ikuskapenari buruzko arauak, haiek zaintzeko aktore sozialek burutu beharreko lanbidetaz diharduten arauak eta lan prozesuari buruzko arauak.

5. *Lan merkatuaren zuzenbidezko arautzea*. 1929ko krisi ekonomiaren ondoren sortu zen eta enplegu politikari dagozkion arazoei aplikatzen zaie. Espainian Bigarren Errepublikan sortu zen, baina geroago gauzatu zen.

**SEIGARREN ATALA**  
**GIZARTE AUZIA GAUR EGUNGO**  
**ESPAINIAN**





# 1. Gaia

## Gizarte auziaren sorrera

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. LANGILE ELKARTEEN AGERPENA
3. GIZARTE AUZIA 1868TIK 1874RA
4. SINDIKATUEN LEHEN GARAPENA ERRESTAURAZIOAREN GARAIAN
5. LAN GATAZKAK 1910 ARTEKOAN

### Kontsultarako liburuak

- González Enciso, A., «Conflictos laborales en la protoindustria española», *Anales de Historia Contemporánea*, 5, Murcia 1986, 55-75. orr.
- Fontana, J., «Nacimiento del proletariado industrial y primeras etapas del movimiento obrero», in *Cambio económico y actitudes políticas en la España del siglo XIX*, Bartzelona, Ariel, 1983, 55-95. orr.
- Ralle, M., «La sociabilidad obrera en la sociedad de la Restauración (1875-1910)», *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989, 161-169. orr.
- Tuñón de Lara, M., *El movimiento obrero en la historia de España*, Madril, Taurus, 1972.



## 1. Sarrera

Industria sektore produktiboek eta langileriaren garapenak sorrarazitako arazo multzoari gizarte auzia deritza. Gaur egungo Espainiako gizarte auziaren inguruko ezein azterketak, ezinbestean, Espainiako industrializazio prozesuaren ahulezia egiaztatuz hasi beharko du. Bigarren Errepublika arte, biztanleriaren gehiengoak nekazaritzan ziharduen, eta garrantzi apurtxo bat baduen industria sektorerik aipatzeko XX. mendearen hasiera arte itxaron behar da. Aniztasunak eta aukeren nahasiak markatu zuten kapitalismorako bidean (nekazaritza, hiri-gintza, industria) sartzen da industrializazioa. Ekonomia hazkundera, geldia izanik ere, etengabea eta eutsia gertatu izanak produkzio aldaketaren prozesuak ez zuela erabateko porrota jo adierazten du. Gainera, garapen hori forma eta errejimen politikoei aparte gertatu zen.

Zentzu horretako aldaketa prozesua XVIII. mendearen azken herenean hasi zen. Teoriko eta gobernari ilustratuek produkzioaren antolaketa formen erreforma eragin zuten, bai eta lanaz hiritarrek zuten balorazioaren aldaketa ere. Izan ere, estamentutan antolatutako gizarte batean, espainiarrek lanaz zituzten konnotazio negatibo sakonak alde batera utzi beharra zegoen. Hori guztia, jabetza pribatua eta merkatua aldi luze batez pribilegioarekin bat eginik bizi izan zen gizarte baten baitan. Lege xedapen anitz aldarrikatu ziren ekonomia hazkundera sustatzearen. Hala, 1777an kanpoko langileei gremioetan sartzea onartu zitzaizen; 1779an emakumeen lanerako askatasuna onetsi zen, bai eta gremio korporazioen erreforma proposatu ere; 1789an oihalgintza produktuen fabrikazio askatasuna iritsi zen, eta urte berean gremioetako aprendiz eta ofizial mailen prozesu luzearen ordeztasunak bakar bat jarri zen. Neurri horien helburua ez zen gremioen azkena zuzenean ekartzea. Aitzitik, nekazari familien artean “herri industria” delakoaren, hots, etxean egiteko lanaren hedapena erraztera zuzendurik zeuden neurri horiek. Ilustratuen ustetan nekazaritza zen oraindik iharduera ekonomiko nagusia eta beren helburuari, hots, Espainiako ekonomiaren gobernagarritasuna aginpide zentralizatu baten bidez mantentzeari, hobekien zetorkiona zen. Horrek, Espainiako ekonomiaren mendekotasun ezaugarriekin eta Espainiako Estatuaren azpiegitura eskasiekin batera, nagusi ziren ekonomia ereduak haustura gerta zedin eragotzi zuen, eta horiek, funtsean, lurra lantzearen inguruan zentratuak jarraitu zuten.

Modu horretara, denbora luzean eskualde jakin batzuetan baizik ez dugu industria sistema orokorrik aurkituko, hala nola Katalunian. Gainerakoan, Espainian edo produkzio tradizionala edo barreiatua zen industria azpiegitura zen nagusi. Kataluniako kostaldeko probintziak, Asturias eta Bizkaia ziren industria gune nagusiak, eta, beraz, lan esku industrialaren kontzentrazio garrantzitsuenak.

Andaluziako eta Murziako meatzaritza eta industria ihardueraren garrantzia handia izan zen XIX. mendearen parte handi batean, baina ustialekuak agortu ahala nekazaritzatik bizi zen eremuaz inguratutako gune bakar batzuetan baino ez zen industriako eta meatzaritzako langilerik geratu. Gainerako hiriguneetan, industria sektorea tailer txikiek eta artisau indibidualek osatzen zuten ia osorik. Arestian aipaturiko probintzietan ere, modernizatu gabeko edo industrializazio aurreko produkzio sektoreek garrantzi handia izan zuten XIX. mende osoan eta XX.aren parte batean.

Espainiako industrializazioaren unerik esanguratsuen 1830ko hamarraldia izan zen. Gremioak, lanbide baten korporazio monopolizatzaile gisa, 1834an desagertu ziren behin betiko. Abolizio hori, neurri handi batean, gremioen munduaren barneko prozesuen ondorioz gertatu zen; izan ere, aldaketa sakona ari ziren jasaten merkataritza kapitalaren sarrerari eta merkatuaren hazkunderari egokitzeko ezintasunak zirela eta. Gremio asko desagertu ziren bitartean, beste batzuk elkarte mutualista gisa mantendu ziren edo ugazaben organismoak eratzeraz bideratu ziren.

Gremioen desagertzeak ofizial asko beren kontura jar zitezten ahalbideratu zuen, baina, batez ere, lan harremanen sistema premoderno baten amaiera ekarri zuen. Familiako tailer txikietan, kontratu harremanak mantenua eta ostatua hartzen zituen eta, ondorioz, nekez esan daiteke soldatapekoak zirenik, nahiz eta gremioetako tailer aurreratuenetan lotura pertsonal hori hautsia egon jadanik. Bestalde, gremioak lan araudi idatzi eta garbia zuten, ez batzuek ez besteek protestarik gabe ezin hautsi zutena, ugazaben aldetik gero eta gehiegikeria gehiago izaten bazen ere. Aldi berean, gremioak halako estaldura moralak eta zenbait laguntza zerbitzu eskaintzen zizkien langileei. Bilbe hori desagerturik, langileak produkzioa areagotzeko orduan lege mugarik ez zuten enpresarien eskutan gertatu ziren. Ez da, alabaina, artisautza munduaren ikuspegi idilikoa zertan emanik. Industriaurreko gizartean, aprendizek eta ofizialek jasaten zuten gehiegizko esplotazioak iharduera gatazkatsua eragin zuen. Dena den, gatazka horiek gehienetan ez ziren kolektiboak izaten. Halako egoera pairatzen zuten langileek irtenbide indibidualak bilatu ohi zituzten.

1832an Marbellan Espainiako lehenengo labe garaia eraiki zen eta Bartzelonan lurrin energia erabili zuen lehen fabrika zabaldu zen (“El Vapor”). Lurrin energia erabiltzeko arrazoiak hain zuzen, oso lotura estua zuen, alde batetik, bere lehengaia zuen Ameriketako kotoiaren kostua ezin beheratu ahal izatearekin edo lan eskuarena ere, zegoeneko oso soldata eskasak zituena, apaldu ezinarekin; hori zela eta, Kataluniako oihalgintza sektoreak mekanizazio masiboa ezagutu zuen. XIX. mendearen parterik handienean, Espainiako industrializazioaren foko garrantzitsu bakarra izan zen Katalunia. Kotoiaren ehungintza industriaren ingu-

ruan bildu zen industriako langile gehien eta han sortu ziren langile elkarteak. XVIII. mendearen amaieran ihardunbide horri onura handia ekarri zion bai kolonietako eskariak bai lurralde barnekoak. Merkatu koloniala galdurik eta guttiz barne eskaeraren baitan izanik, produktugile katalanak barne errenten –nekazaritzakoak funtsean– mende gertatu ziren. Uzta txar batek eragiten zuen kontsumoaren beheraldiak oihalgintza sektorea ia-ia porrot jotzear utz zezakeen. Faktore horrek Kataluniako industrializazioaren ahultasuna erakusten du.

Produkzioaren espezializatorako aukerarik ezaren ondorioz, oihalgintzako enpresa gehienek familia egitura gorde zuten neurri apaletako lantegietan. Aldeko arantzel politika batek sektorearen hazkuntza bideratu zuen. Faktore horrekin batera, azpimarratu beharra dago Kataluniako industria egitura sendotu bazen, katalan enpresarien berrikuntza ahalmenari esker sendotu zela bakarrik; nekazaritza lurretan inbertitzea abantailaz betea agertzen zelarik ere industrian inbertitzen jarraitu zuelako, hain zuzen. Produkzio ereduari dagokionez, Britainia Handiko kasuaren antzekoa zen: bizitza eta lan baldintzak guttiz txarrak, soldatak guttiz urriak, enplegu ziurtasunik eza pertsonal gehienarentzat eta emakumeen erabilera masiboa, 1856an Bartzelonako oihalgintza sektoreko lan eskuaren %40 baino gehiago baitziren emakumeak. Kataluniako kotoi industrian ari ziren 100.000 langile inguru proletarioak ziren jadanik, fabriketan burutzen zuten lana bizitzeko ia euskarri bakarra zutenak. Industrializazio aurreko pentsamoldea alde batera uzteko prozesua geldia izan zen eta, adibide klasiko bat aipatzeagatik, *San Lunes* delakoa ospatzen jarraitu zuten Kataluniako oihalgintza sektorean.

Industrializazio prozesutik kanpo ziren langileek, batez ere, landetako besalariak bizi baldintza askoz txarragoak zituzten, Espainiako hegoaldean bereziki, 14 orduko lanaldiak eta Katalunian baino soldata askoz murriztagoak zirelarik. Oro har, XIX. mendearen amaiera arte, biziraupen hutsetik hurbil zegoen bizi maila izan zuten Espainiako langileek.

## 2. Langile elkarteen agerpena

Espainiako industriako langileen kopuru apalak eta jasan behar zituzten lan baldintza gogorrek, oso denbora luzez, halakoen elkartzeko ahalmena guttiz murrizta izatea eragin zuten, sektore eta lurralde jakin batzuen salbuespenarekin. Horrenbestez, haien lan edo gizarte egoera hobetzeko ahalbideak mugaturik zeuden. Bestalde, haien eraginak garaian garaiko gobernuak baimenduriko askatasun mailaren mende izan zen. Gobernu autoritarioak edo diktatorialak nagusi izan ziren aldi ugarietan, sindikatuek arazo asko izan zituzten beren interesen alde ihardun ahal izateko.

Ezagutzen diren lehen gatazkak industriaurreko ekonomiaren esparruan gertatu ziren, hain zuzen ere Estatuko lantegi zentralizatuetan, langileek gremiorik osatzen ez zuten enpresa bakarrak zirenetan. Ekintza ezagunenen artean 1730ean Guadalajarako errege oihal lantegian egin zen greba eta 1830ean, soldata txikiak eta produzioa handitzeko eskakizunak zirela eta, Madrilen tabakogintzan ziharduten emakumeena dira matxinadarik aipagarrienak. Mugimendu ludistak ere izan ziren. Alcoyko artilea iruteko makinak erretzea (1821) ta Bartzelonako Bonaplata anaiena “El Vapor” fabrika suntsitzea Bartzelonan (1835) izan ziren horietan aipagarrienak.

XVIII. mendeko ilustratuen saioek arrakasta handirik izan ez bazuten, 1830 ondoko urteetan sistema liberala ezarri eta sendotu egin zen. Antzinako Erreji-meneko Espainiaren ezaugarria izan zen eredu absolutista bazterturik geratu zen. Espainiako gizartea, estatu estamentalara islatzetik klasetako gizartea izatera pasa zen. Fernando VII.aren heriotzaren ondoko urteetan benetako iraultza liberala bizi izan zen, Carta Magna berrian taitutu zena. 1837ko Konstituzioak merkatu librearen harremanak lur jabegora hedatzea eta nekazaritza zein industria produktuen merkaturatzea onetsi zuen. Industria sektorean ordura arte gremioetako ordenantzen mende ziren produkzio harremanak liberalizatu egin ziren. Xedapen horien aplikazioa erresistentziarik eta borrokarik gabe gauzatu ez bazen ere, harez gero jokoaren arauak sistema kapitalistaren funtzionamendu zuzenerako beharrezkoak ziren mekanismoei egokitu zitzaizkien.

Burgesiak ezarri nahi zuen esparrua gainditzeko saioak ere ez ziren falta. Hala, Bartzelonan, 1835. urtean, gobernuak bere orientabide politikoa alda zezan egin zen herri matxinadak benetako iraultza sozial bihurtzeko arriskua ekarri zuen. Artisauak, ofizialak eta apendizak, etxeko langileak, dendari txikiak eta industria teknifikatuagoen konkurrentziagatik desagertzera kondenatuak ziren fabriketako langileak izan ziren matxinada haren protagonistak. Esan nahi baita, garaiko gorabehera gogorrek ukitutako guztiak: kolonietako merkataritzaren paralizazioa, merkatu estatalaren desegituratzea, gerra napoleonikoaren eta gerra karlistaren ondoko krisia. Berebat, koiantura politiko egongaitza aprobetxatuz, enpresarien aurkako borroka zehatzak gertatu ziren, ugazabek oihalak luzatzen saiatu zirelako. Era horretako ekintzetan, aldian aldiko, denboraz mugaturiko eta helburu zehatzak eta profesionalak zituzten behin-behineko langile elkarteak erabili ziren batzuetan, eta lehen elkarte mutualistak sortu ziren. Hartarako, gremioetako elkartzeko esperientziaren aztarna aprobetxatu zen, hala langile klase berriaren hizkeran nola iharduera moldeetan. Izan ere, artisautzaren proletarizazioa 1868ko iraultzaren aurreko urteetako garrantzi sozial handieneko fenomeno izan zen, aldaketa prozesua aurreratuagoa zuten hurbileko herrialdeetan gertatu zen bezala.

Isabel II.aren erreinaldian ugazaben elkarteak baimendu ziren eta, eskabide askoren ondoren, 1839ko otsailaren 28an elkarren laguntzarako elkarteen sorrera baimendu zuten; halakoan babespean zenbait langilek erresistentzia elkarteak edo sindikatuak eratu zituzten. Elkarte mutualistek ez zituzten langileak bakarrik biltzen. Esaterako, Valentzian antolatu zen lehena tailerretako ugazabek eta burgesiako kideek osatua zen eta haien bazkideen artean hiriko apezpikua zegoen. Bestalde, elkarteek defentsarako eredu bat gauzatzen zuten eta proletarizazioaren ondorio gogorrenetariko batzuk –gaixotasuna, heriotza– gozaten edo saihesten saiatzen ziren. Nolanahi ere, langileen elkartze hura legezko bihurtu zen eta mugak aldagarriak zituen iharduera eremu bat zuen, legearen egintzaz ez bazen ere, langile elkartuen gaitasunaz, esperientziaz eta tradizioaz alda zitezkeenak.

Elkarren laguntzarako lehen langile elkarteak Bartzelonan eratu zen 1840an. Asociación de Protección Mutua de Tejedores del Algodón izena hartu zuen eta bi sexuetakoa langileak bildu zituen. Aldi berean elkarren laguntzarako elkarteak (legezkoa) eta erresistentzia elkarteak (ezkutukoa) zen. Nahaste hori Europako beste zenbait herrialdetan ere gertatu zen. Aldi hartan, elkarte iraunkorrak eratzeko saioa egin zen, baina halakoan hastapena besterik ez zen. Zentzu horretan, haien elkartasun kuxak erabiltzerakoan, soldataren beheraldien aurkako protestan lana utzi behar izan zuten langileen laguntzak izan zuten lehentasuna. Produktio kooperatibak sortzeko saio batzuk izan ziren. Mugimendu horren protagonistak langile kualifikatu egonkorak izan ziren. Mugimendua ehungileetatik, inprimatzaile, espartingile, eta abarretara zabaldu zen, baina ez meatzariak eta ez nekazaritzako besalariak, Espainiako soldatapekoen sektore handienek, ez zuten hartan esku hartu.

Katalunia izan zen elkarteek garapenik handiena izan zuten lurraldea. Kotoi langileek abiatutako prozesua Kataluniako industria ihardueraren beste sektore batzuetara zabaldu zen, halako moldez non autore batzuek diotenez, 1840-1843 aldiko sindikalismo katalana Europa kontinentaleko garrantzitsuena izan zen (britainiar kasua aparte utzirik). Hiru arrazoik esplikatzen dute hazkunde hori: a) kontzentrazio geografikoak, oihalgintza sektoreko langile guztiak Bartzelonatik gertu bizi baitziren; b) Kataluniako industriak pairatu zuen krisi prozesuak, laguntza handiagoa lortzearen langileak biltzeko ondorioa izan zuena; c) Antzinarako Errejimeneko gremioetatik eta kofradietatik zetorren elkartze, elkartasun eta elkarren arteko laguntza tradizioak.

1841eko azken hilabeteetako krisi ekonomikoak defentsa jarreran ezarri zituen langile organizatuak. Aldi hartan, elkarte sare zabala eratu ahal izan zuten, harreman erregularrak izateko, berriak trukatzeko eta diru maileguak egiteko gai zena, azken batean, maiz jasaten zituzten debeku ofizialen aurrean bizirik irautea bideratu zuen elkartasun eraginkorra. Dena den, oraindik ez zen klase ideologia

zehatz kontzienterik langileen artean. Baziren, bestalde, Elizaren ekimenez sorturiko elkarteak. Oro har, elkarteen erreibindikazioetan ez da hizkera iraultzailearik aurkitzen, haietan justizia eta langileen eskubide tradizionalak bete zitezen eskatzen baitzen. Kontua ez zen arian-arian produkzio bideen konkista burutzea, baizik eta, haien iritziz, eztabaida gehiegirik gabe onartzen ziren eta haiei zegozkien estatus baten, eskubide eta betebeharrak batzuen hausturaren aurka egitea. Katalunian mutualismo eta sindikalismo nahaste hura gertatzen bazen ere, estatuaren gainerako elkarren laguntzarako elkarteetan ez zen halako erreibindikazio ekintzarik ia garatu.

Elkarteetako langileak, sentimendu lauso bat zela bide, liberalen alderdian kokatzen ziren, baina alderdi politikan jarrera zehatzik hartu gabe. Ez zen langileek beren burua koka zezaketen langile klaseko alderdirik. Are gehiago, katalan langileek ezaugarri garrantzitsu bat zuten: zenbait kasutan enpresariei lagundu zieten gobernuari presioa egiten, aldeko arantzel politika lortzearren.

Une jakin batzuetan enpresariekin batera izateak ez zuen gatazka alde batera uzten; izan ere, urte horietan greba nahiko egin ziren enpresarien ekintzetatik defendatzeko edo, batez ere, horiek sindikatuak langileen ordezkariatzat onar zituzten. Langile elkartearen eta haren ondorioen aurrean, enpresariak hartu zuten jarrera orokorra guztiz negatiboa izan zen. Ugazabek, estatuaren laguntzarekin ia beti, ez zituzten langile elkartuak onartu eta ez zuten onartu harremanetan jartzetik. Langile elkarteak 1868 arte ia beti jasan zuten legezkotasunik eza zela eta, tolerantzia aldietan haien ezagutza lortzea izan zen langile elkartearen helburu nagusia. Oihalgintzako elkartearen eta ugazaben arteko tentsioak elkartearen debekuarekin amaitu ziren 1841eko abenduan.

Harrezkero, langile elkartearen legeztapenak eta debekuak aldizkatu egin ziren. Modu ofizialez, sindikatuak debekaturik zeuden, elkarren laguntzarako elkartearen existentzia onartu zen arren. 1848ko kode penalak zigortu egiten zituen “lanaren prezioa gehiegikeriaz garestitzeko edo merkatzeko edo haren baldintzak arautzeko elkartuko liratekeenak”. Hala ere, elkartzea debekatzen zuten bandoak eta dekretuak behin eta berriro errepikatu beharrak mugimendu horren iraupena islatzen du, nahiz eta langile elkarteak legezkotasunetik at jartzeak haien iharduteko ahalmena ahuldu eta murriztu zuen. Funtzionamendu horrek greba eta gatazka sail bat ekarri zuen; horiek Espainia guztian barrena zabaltzen hasi ziren (baina ez modu masiboan) eta langile elkartearen kopurua gehitu egin zuen, nahiz eta oinarrizko guneak Katalunian jarraitu zuen.

Halako elkarteak hasieran elkarren laguntzarako elkarte gisa sortu ziren, edo baita kultura eta jolaserako elkarte sail baten sorreraren bidez ere. Azken hauek langileen bilgune izan ziren eta haietan iritziak trukatzeko ahal zituzten, harrema-



netan jarri arrisku gutxiagorekin, lanbiderako gaitasuna areagotu edo, besterik gabe, jolasean jardun lagun artean. Haietariko bi kasu argienak dira: Madrilgo “El Fomento de las Artes” elkarte, kultura elkarte zena, gehienbat artisauak biltzen zirena eta hiriburuko langile organizatuen legezko estalkia zena, eta “Coros Clavé” izenekoa, Espainiako beste lurralde askotan antzeko funtzioa betetzen zutena. Mende amaieran abesbatz horiek bizirik zirauten eta 80 elkarte eta 4.000tik gora kantari biltzen zituzten; abesbatza instituzioaren bidez langileen artean jakintza zabaltzea zuten helburu, modu horretara frogatzen baitzuten “langile klaseak lanaren eta bakearen egiazko oste gisa aurkezteko helburu bikain eta moralizatzailearekin bere burua antolatzen badakiela”.

Urte horietan Espainiako zenbait hiritan sozialismo utopikoa hedatu zen; beronek, sektore intelektualetara mugatua bazen ere, elkartzearen ideia zabaltzen lagundu zuen. Giro horretan, kooperatiben garrantzia aldarrikatzen zuen ideia oso hedatua zen, modu “utopikoan” ulertua (kapitalismoa iraultzarik gabe ordezkatzeko). Fourier-en jarraitzaileek falansterio bat eraiki nahi izan zuten Jerezen. Pentsalari horien obra doktrinalak eragin txikia izan bide zuen sortzen ari zen langile klasearen baitan. Utopiko gehienak erdi mailako klaseetako talde politiko erradikalekin loturik zeuden.

Ideologia joera horiez gainera, urte haietan langile klaseen egoera eta bizi baldintzak aztertzen hasi ziren. Orduan higieze soziala deitu zenaren hedapenak Espainiako langileak bizi ziren errealtatea ezagutarazi zuten. Sistema liberala erreformatzeko premiaren kontzientzia zenbait sektoretan azaltzen hasi zen, indar handirik gabe baina. Iraultza sozialaren beldurrak, alabaina, kontzientzia hori ahuldu zuen eta ekintza katolikoaren dotrina berriaren aldiririk kontserbadoreenak indartu zituen, kezka erreformatzaileak lausotuz XX. mendea aski aurreratu artean.

Langileen asoziazionismoa ez zen, goian esandakoa gorabehera, garrantzizko arazoa enpresarientzat. Enpresariak gehiago kezkatzen zituen langile esanekoa, egonkorra eta disziplinatua lortzeak, baina horretarako langile independenteen ohiturak erauzi behar zituen. Lehengo gremio maisu askok ez zuten ugazabaren lantegian lan egin nahi eta horrek tailerren modernizazioa oztokatzen zuen. Horregatik industria berrietariko asko hiri guneeetatik kanpo finkatu ziren, gremioen tradizioak ezagutu ez zituzten haurrak eta emakumeak erabiliz. Joan den mendearan erdialdean, Kataluniako ibaien ertzetan, hiri guneeetatik urrun, lantegiak agertzen hasi ziren, oihalgintzakoak gehienak. Produkzio tokiaren eta eskola, kapera edo langileen egoitza bezalako eraikuntzen arteko batasunak, halako eraikin multzoei industria kolonia deitzea eragin zuen. Koloniak, hasieran industriak zuen energia beharraren ondorio izan baziren ere, ibaien indar hidraulikoa-ekin konpontzen baitziren horiek, mende amaierarako lan eskua disziplinatzeke

borondate paternalistaren ondorio ziren. Hori ez zen lortu hobekuntza teknikoek pertsonala murriztea eta produkzio prozesua sistematizatzea bideratu zuten arte.

1854ko uztaileko matxinadak askatasun parentesi labur bat ireki zuen XIX. mendeko Espainiako historian: Biurteko Progresista (1854-56). Langileak matxinada horren funtsezko elementu izan ziren, Katalunian batez ere. Bartzelonako langileek greba baten bidez mugimendu horretan esku hartu zuten, haren ondoren manifestazio bat eginenez; hartan, erabat langile erreibindikazioak zirenak planteatu zituzten, hala nola langabezia desagertzea, erosteko ahalmenaren defentsa eta lanaldia asteko 69 ordura jaistea. Matxinada nagusi irtenik, gobernu berriak eskaera horietako batzuk negoziatu zituen haiekin, gero beteko ez bazituen ere.

Harrezkero, sindikatuak modu irekian lan egin ahal izango zuten, era horretara, langileen koordinazio organo bat sortuz, “La Junta Central de Directores de la clase obrera” deitua (1855), eta orobat Espainiako langileen lehenengo egunkaria plazaratuz, *El eco de la clase obrera* (1855), Madrilen, baina katalanen ekimenez, edota elkarteak Espainia osoan zehar sorraraziz. Edozein modutan ere, oraindik alde handia zegoen Bartzelonako sozietarismoaren eta Espainiako gainerako elkartearen artean. Lehena erresistentzia elkartearen eruditik hurbil zegoen eta erreibindikazio gai batzuei lehentasuna ematen zien –langileak elkartzeko eskubidea, soldatak, lan baldintzak, segurtasuna enpleguan, haurren eta emakumeen lanaldia mugatzea eta lan gatazketan esku hartuko zuten ordezkariak mistoak sorrera. Bigarrenak, ordea, izpiritu mutualistatik oso hurbil zeuden, gizarte osagarriak heterogeneoak zituzten eta haien antolaketa hastapenetan zegoen.

Bi urte horiek gatazka sozialen gehikuntzaren gertaleku izan ziren. Kasu askotan, berezko leherketa moduan azaldu zen, bizi baliabideen urritasunak edo langabeziaren hazkundeak eraginda. Bartzelonan 1855eko uztailean gertatu zen greba garrantzi handieneko gatazka izan zen. Bi hilabete lehenago langileen lortu batzuk ezabatuak izan baziren (soldatak eta makinaren kopurua finkatzea), uztailean legeztaturik ez ziren langile elkartearen, hots, gehienek, iharduera debekatu zuten. Neurri horren aurrean, langileek lanpostua utzi zuten eta gudarosteari aurre egin zioten. Egoeraren larriari erantzunez, gobernuak langile auzoak hartu zituen eta ordezkariak mistoak onartu eta elkartearen arazoa Gortetan eztabaida zedin agindu zuen –gero ez zuen horrelakorik bete, ordea–, langileak lanera itzultzearen truke.

Mugimendu horren porrotak, alabaina, ez zuen galarazi hiru hilabete geroago “Exposición presentada por la clase obrera a las Cortes Constituyentes” izenburuko idazkia, langileak askatasunez elkartzeko eskubidea eskatzen zuena, aurkeztea. Idazkiak 33.000 sinadura bildu zituen Nafarroan, Madrilen, Andaluzian,

Valentzian, Valladoliden eta, noski, Katalunian, sinaduretariko 22.000 hangoak baitziren. Hura izan zen Espainia osoan langileek burutzen zuten lehen ekintza politikoa. Prozesu horrekin batera, elkartzeko mugimendua, ordura arte erabilitako borroka moldeen mugez oharturik, progresismotik hurbil zen egoera politikoa batetik jarrera demokratiko eta errepublikazaleetara aldatu zen, bere ideologia politikoa berezirik garatu ez bazen ere.

1856an beste estatu kolpe bat jo zuten, kontserbadore izaerakoa oraingoan. Horren ondorioz, langile elkarteek berriro debeku aldi bat jasan behar izan zuten, 1868 arte. Aldi horretan aurrerakuntza handia izan zuen industriak, batez ere meatzaritzan eta siderurgian, bai Asturiasen eta bai Bizkaian produkzio egitura berria eraikitzen hasi baitzen. Halaber, kotoi industriaren makinizazioa sendotu egin zen, eta gizonezko helduen lekua haurrek eta emakumeek hartu zuten. Espainiako egitura sozioekonomikoa, hala ere, garbiri industriaurrekoa zen oraindik ere: soldatapeko langile tradizionalen nagusitasuna, landako besalari eta morroiaren, artisautzaren kopurua fabriketako langileena baino handiagoa, nekazaritza sektorearen garrantzi erabakiorra eta industria sektorearen ahultasuna. Hona Espainiak bizi izan zuen une ekonomikoari buruzko bi eredu, anekdotikoak, baina esanguratsuak biak: burgesiaren kontzeptua, laneko baliabideen edo kapital baten jabe izanik, beren bitartekoez lan egiten duten hiritarren taldea barnean hartzen duena, 1845ean baino ez zen azaldu, itzulpen batean eta jatorrizko hitz frantsesa gordez (*bourgeois*); Madrilen, bestalde, morroi (*criado*) hitza erabili ohi zuten oraino langile mota jakin batzuk izendatzeko.

Elkartzeko mugimenduari dagokionez, Biurtekoaren aurreko aldiaren eskema errepikatu zen. Sindikatuak debekaturik zeuden modu ofizialez, baina ezkutupean funtzionatu zuten. Elkarren laguntzarako elkarteak iharduerak eta klandestinitateaz baliatzeak halako ekintza sindikala ahalbideratu zuten, bai eta Proudhonen tesietan inspiraturiko kooperatiba sare bat eraikitzeko zenbait saio ere. Elkarte horiek nolabaiteko tolerantzia gozatu ahal izan zuten aginpidearen aldetik, aginpide hori eginkorregi ez zela eta oraindik Espainiako langileen zati txiki bat baino biltzen ez zuten elkarteak arduratu gehiegirik ez baitzuen. Alabaina, elkarte horiek gobernuari aurre egin ziotenean, erantzuna bortitza izan zen. Cartagenako Maestranza Naval-eko langileen greba (1857), setio egoera aldarrikatzearekin eta soldaduak kaleetan zirela amaitu zen. Gatazkei dagokienez aipagarriak dira 1860 ondoko urteetan Andaluziako nekazarien matxinadak. Besalariak “Errepublikak eta lurren banaketa” lemapean aritu ziren, erdi mailako errepublikazaleen gidaritzapean, funtsean, eskubide politikoak, baina ez sozialak, espainiar gutzientzat eskatzeaz arduratuak zirenak. Antzinako Errejimenekoak izanak ziren gatazka moldeen aurrean, hau da, borroka antifeudalak eta biziraupenezko matxinadak, urte haietan, produkzio sistema kapitalisten ezarpen geroz handiagoa-

ren ondorioz, gatazka mota berriak hedatu ziren: lurrak hartzea eta uztak erretzea landetan eta langileen grebak industrian edo meatzeetan.

Aldi hartako gertaerarik nabarmenetako bat, batez ere gerokoan izango zuen eraginagatik, 1864an Manresako *Círculo de Obreros Católicos* zelakoaren eraketa izan zen. “*Círculo*” haren sorrera, eliza giro batzuetan industriaren ondorioei buruz zegoen kezkaren erakusgarri izan zen; langileen bizi baldintzek eta egoera moralak sorturiko kezka zen, langile askok alde batera utziak baitzituzten erlijio praktikak. Elizgizonen kezkaren helburua bikoitza zen: langileek Elizaren itzalpean iraunaraztea eta horien bizi baldintzak onargarri izatea. Hala ere, gizartearen alorrean, erlijio gizonen iharduera nagusia irakaskuntza izan zen, helduentzako eskolen eta igandeko zentruen edo Patronatuen bidez. Izena gorabehera, “*Círculo de Obreros Católicos*”, halakoetan enpresari asko aurki zitekeen.

### 3. Gizarte auzia 1868tik 1874ra

Sei urteko Demokrazialetan deitua 1868ko mugimendu iraultzailearekin abiatu zen; horrek borbondarren dinastiaren eraispena ekarri zuen, eta, Amadeo Saboia-koaren erreinaldi laburraren ondoren, I. Errepublika. Aldaketa horiek, hein batean behintzat, bizitzeko oinarritzko baliabideen krisiak ekonomiaren sektore tradizionalenetan izandako eraginagatik gertatu ziren; horrek progresistak antolatzen ari ziren konspirazio militarretara bideratu zuen herriaren laguntza. Langileek eginkizun nabarmena izan zuten berriro mugimenduan, beren ekintzaren bidez berehalako etekinak lortzea espero baitzuten. Hala eta guztiz ere, monarkia eraitsi zuen mobilizazioaren eragile ziren iraultza batzordeen ekinbidea moztu zuten gobernu berriaren buruzagiek, eta bitarte horretan sortu ziren batzordeak desegin zituzten. Iraultza unean bat etorri ziren proiektu politiko desberdinak laster hasi ziren elkarren kontra.

Sei urteko demokrazialetan horretako lehen gobernuen ihardunbideak ez ziren erantzun herri erreibindikazioei, era askotarikoak baitziren horiek: askatasun politikoak, errepublika, guztientzako enplegua, soldata igoera eta zergen zein soldaduzkaren abolizioa. Aitzitik, urte askotako legegintza saiorik sistematikoena garatu zuten, kapitalismo industrialaren garapena, merkataritzaren hedapena eta barne merkatu batu baten sorrera sustatzearen Espainiako sistema ekonomikoak behar zituen instituzioak zein lege ingurunea emanaz. Iharduera horren adibide bat 1868-1874 urteetako meatzaritzaren goraldia izan zen, esportazioaren hazkundera eragin zuena.

Isabel errejinararen garaiko Espainiako funtsezko oinarri ekonomiko eta sozialek, gizarte harremanek edo aginpide sistemek halako aldakuntza sakonik izan ez

bazuten ere, izan ziren aldaketak. Errejimena aldatzerakoan herri klaseek izan zuten esku hartze erabakiorra ordura arte baztertu eta zapaldu egon ziren gizarte talde batzuen presentzia geroz handiagoren sintoma gertatu zen. Bestalde, 1869ko monarkia demokratikoak eta Errepublikak indar politiko eta sozialen garapena eta egituraketarako askatasuna ordura arte Espainian ezagutu ez zen mailan bideratu zituzten.

Paradoxa moduan, herriak bizitza politikoan parte hartzeko zuen gaitasun handiago hari, politikaren emaitzen aurrean erakusten zuen goganbeharra kontrajartzen zitzaion. Nekazari askok errejimen aldaketa lurra hartzearekin eta banatzearekin lotzen zuten. Langileek zenbait emaitza espero zuten: elkarteen legeztatpena (lortu zena), lanorduak gutxitzea eta bizi baldintzen hobekuntza orokorra. Funtsezko erreibindikazio gehienak ezin erdietsirik, herri sektoreetako zati handi batek gero eta etsipen handiagoa eta arbuio garbia azaldu zuen politikarekin zerikusia zuen guztiarekiko. Langileak jarrera liberal errepublikazaleetatik geroz urrunago aurkitzen ziren. Biurtekoan progresistek langile elkartek debekatu egin bazituzten, I. Errepublikako agintariek interesik eza ez ezik kontrako jarrera ere azaldu zuten herri elementuen aldeko eskarien aurrean.

Hain zuzen ere, Sei Urteko Demokrazialdian langileen bide berezi bat agertu zen. 1868an I. Internazionalaren zabaltzailea zen Giuseppe Fanelli anarkista iritsi zen Espainiara. Haren inguruan Internazionalaren hurbileko talde batzuk sortu ziren, halakoak 1870ean atera ziren plazara, Bartzelonan ordurako baziren langile elkarrekin antolatutako I Congreso Obrero Español deitua egin zenean. Kongresu hartan hiru sektorek esku hartu zuten: industriaurreko lanbideen ordezkariak –anarkismotik hurbil ziren hauek–; ideal kooperatibistaren aldeko sektoreak, politikan oso moderatua zenak; eta sindikalistek, Kataluniakoek batez ere. Azken talde hau zen handiena eta haien artean, errepublikazaleekin batera bazen sektore apolitiko indartsu bat, edo politikaren aurkakoa zena. Kongresuan neurri sail bat onartu zen, haietariko batzuek ondoko langileen asoziazionismoan garrantzi handia izan zutenak: 1.– Jarrera politiko baten onarpena, alderdi errepublikazaleen aldeko jarrera bertan behera utziz. 2.– Kooperatibismoa askapen sozialerako bide gisa arbuizatzea. 3.– Ekintza sindikal soilaren lehentasuna, hobekuntza zehatzak lortzera xedatua baina ez helburu gisa, iraultza soziala prestatzeko bide gisa baizik.

Kongresuaren ondorioz, I. Internazionalako espainiar sekzioa eratu zen, “Federación Regional Española (FRE) de la AIT” izena zuena. Haren eraketa eta hedapena, langile talde handi batek bere buruaz zuen kontzientziaren eta bere helburu berekiez egiten zuten diseinuaren azalpen organikoa zen. Haren eraginez, gatazkak zabaldu ziren eta langileen erreibindikazioen bateratze lana bideratu zen. Anarkistek Federazioa kontrolatu zuten, baina haren baitan oso talde

desberdinak zeuden bilduta. Haien artean, sektore sindikalistak bazkideen interes defentsaz zuen batez ere ardura eta egunean-egunean anarkismoarekin gero eta alde handiagoa agertzen zuen.

Federazioak gehienez 40.000 bazkide bildu zituen Espainia osoan, haietariko bi herenak Katalunian. Kopuru osoaren %50 oihalgintza industriako langileak ziren. Gainerakoak artisau kualifikatuak ziren eta, Andaluziako kasuan, produkzio urriko nekazariak eta langile independenteak, baina ez besalariak. Internazionalak batez ere Andaluzian izan zuen eragina, eta sarri izan ziren lurraren auziarekin zerikusia zuten gizarte gatazkak: etxaldeak hartzea, erreketak, e.a., FRE zelakoa amaitu ondoren ere luzatu zirenak. Lurraren auzia larrienetariko bat izan zen Espainian, eta azken Gerra Zibila arte gatazkarik handienak sorrarazi zituen. Auziaren sorburua, hain zuzen ere, hazten ari ziren indar produktiboen eta nekazaritzako soberakinaren, eta lurraren beraren, banaketa sistema bidegabearen arteko desegokitasuna zen. XIX. mendeko Europako zati handi batean bezalatsu, ekonomiaren sektore tradizionalak industria modernoak sortutakoekin nahasi ziren.

Andaluziako gizarte gatazkek, gainerako lurraldeetan ere greba gehiago gertatzeak eta, Komunaren ondoren, Europako estatuak Internazionalaren aurka egin zuten jazarpenak Internazionala erabat desegitea ekarri zuten 1874an. Sindikatu askok, Internazionalaren jarrera erradikaletatik aparte, elkarte mutualista gisa bizirik jarraitu zuten hala ere. Urte horretan bertan, beste kolpe militar bat zela medio, monarkia itzuli zen Espainiara (Alfonso XII.a) eta aldi berri bat abiatu zen, hala politikaren nola gizartearen alorrean, funtsean XX. mendeko 30. urtera arte aldatuko ez zen egoera berria ezarri.

Sei Urteko Demokrazialdian jarrerak argitu ziren eta ondoko aldiaren protagonismoa izango zuten taldeak, hala politika hutsaren alorrean nola gizartearenean, eratu ziren. Aldi hartan, jadanik, ekinean ziharduten liberalismo indibidualistak eta ideologia iraultzaileek. Lehenengoan artean, gobernuko postuak beretzen zituen gutxiengo intelektualak, bai liberalismoaren bai iraultzaren gehiegikerien aurka zegoena, gizarte auzia konpontzeko bidea aurkitu nahi zuen, bai katolizismo sozialetik eta bai erreformismo krausistaren aldetik. Ideologia iraultzaileei dagokienez, elkarren aurka agertzen ziren anarkismoa eta marxismoa, azken hau Madrilen bakarrik ezarria zena, funtsean ekonomia eta lanbide arazoez arduratzen ziren, nahiz eta ez bata ez bestea ez ziren iristen artean urri ziren masa sindikaletara. Guztien aurrean, industriako eta nekazaritzako langilerik gehienak aurkitzen ziren, mugimenduetan sarturik ez zeudenak eta agertu bezain agudo desagertzen ziren matxinadetan esku hartzen zutenak.

Laburra izan arren, Sei Urteko Demokrazialdia Espainiaren azken historiaren une erabakiorra izan zen. Sistema kapitalista sendotzea ahalbideratu zuten aldaketa instituzionaletatik etekin garbiak atera zituen burgesia hura beldurtu egin zen politikaren alorreko aldakuntza demokratikoen ondorio sozialen aurrean eta jarrera kontserbadoreagoa hartu zuen. Herriko sektoreek elkarte politiko eta sozial sail bat nazio osoan egituratzea lortua zuten lehen aldiz, bai eta, gizonezkoen sufragio unibertsalaren bidez, bizitza politikoan esku hartu ere. Geroago etorriko zen askatasunik eza eta herri taldeak integratzeko borondate berantiarra gorabehera, erreferente historikoak ez ziren desagertuko, baldintza politiko berrietara egokitu behar izan bazuten ere. Orobat, ez ziren faltako Demokrazialdi horretan bizi izandako esperientziei buruzko analisiek sorrarazitako aldaketak.

#### **4. Sindikatuen lehen garapena Errestaurazioaren garaian**

Espainian Monarkia berriro ezartzeak 1910eraino iritsiko zen aldi berri bat hasi zuen, urte horretan Confederación Nacional del Trabajo (CNT) delakoa sortu baitzen. Politikaren alorrean, Errestaurazioak 1868an abiatutako norabidearen aldaketa ekarri zuen. Sindikalismoari dagokionez, antolaketa egitura moderno geroz eta ageriago azaltzea izan zen aldi hartako ezaugarria, nahiz eta organiazio mota hori minoritarioa zen oraino.

Ekonomia ihardueraren egiturari dagokionez, aldi hura egonkortasun handiko aldia izan zen, baina orduko aldaketak ere sakonak izan ziren. Aldi hartako ekonomiaren alorrean badira zenbait gertaera azpimarragarri: burdinbide eraikuntza zuzpertzeta, Frantziarako ardo esportazioak haztea, Kataluniako fabrika industriaren aurrerabidea, burdin mearen esportazioak eta Espainiako siderurgia agertzeta, Bizkaian oinarritua. Hazkundearen erritmoa, motela bazen ere, aski egonkorra izan zen aldi guztian zehar. 1890. urtearen inguruko aldi Espainiako ekonomiaren aldaketarik esanguratsuenak gertatu ziren. Nekazaritzaren krisi iraunkorra zela eta, industria eta nekazaritza sektore askoren hazkundera ahalbideratuko zuen eredu protekzionista hartu zen. Fenomeno hori Errestaurazioaren sistema politikoan antzeman ziren agortze sintomekin batera gertatu zen.

XIX. mendearen azken herenean eta XX.eko lehenean, lanbide klasikoetako langileak gehiengoa ziren industriako langileria berriaren aldean. 1887an fabriketako langileak 243.000 inguru ziren bitartean (haietatik 45.000 emakume), industriaurreko tradizio sendoak gordetzen zituzten “arte eta ofizioetakoak” 823.340 ziren. XX. mendean gertatu ziren aldaketa garrantzitsuek ez zieten sektore tradizionalenei lehenengo izatea galarazi.

3. Koadroa. *Produkzio sektoreak, 1860-1930*

<i>Urtea</i>	<i>Lehena %</i>	<i>Bigarrena %</i>	<i>Hirugarrena %</i>
1860.....	62,8	17,5	19,5
1877.....	70,0	12,7	17,2
1887.....	69,3	15,2	15,3
1900.....	71,4	13,5	15,0
1910.....	68,6	14,3	17,0
1920.....	58,8	22,3	18,7
1930.....	47,4	31,1	21,3

Iturria: Castillo, S.: *Las sociedades de socorros mutuos en España. Del Antiguo Régimen al franquismo*. (“Colloque International sur l’Histoire de la Mutualité” solasaldian aurkeztutako txostena).

Enpresa asko eta asko neurritz txikiak ziren oraindik; lantegi bakoitzeko 10-13 langile zuten batez-beste. Enpresa kontzentrazio handiena industria sektorerik modernoenetan gertatu zen: argia, energia, burdinbide eta tranbiak, meategiak eta ehungintza. 1920. urtetik aurrera enpresa handiak ugari ziren bai metalgintza bai eraikuntzako sektoreetan. Hirugarren sektorean ez zen kopuru aldaketa handirik gertatu, laneko adinean zegoen biztanleriaren %20 inguru, baina haren barneko osaera sakonetik aldatu zen, eta garrantzirik handiena zuen sektorea, etxeko zerbitzuetan aritzen zirenean, alegia, murriztu egin zen. Hala eta guztiz ere, industria sektorearen zati handi bat eraikuntzako peoiek osatua zela eta mirabeen kopurua oraindik ere oso handia zela gogoan harturik, Espainiako ekonomiaren modernizazioa erabatekoa zelako ustea erlatibizatu beharra dago. Alde batetik, produkzio gutxikoa zen nekazaritza gizarte baten eskaeraren ahultasunak eta eskasiak eta, bestetik, industria eta nekazaritza produktu merkeak inportatzea galarazi zuen politika protekzionista batek industria hazkuntza geldoa bideratu zuten, Espainian sorturiko produktuen prezio altuek mugaturik gertatzen zena.

Emakumeak lan alorrean esku hartzea guztizko premia egoeraren ondorioa izan zen, emakumeak etxetik kanpoko lanen bat bilatzera behartzen zituena, etxe barnean gera zitezten aldarrikatzen zuten mezu ofizialak eta erlijiosoak gorabehera. Haietako gehienak etxeko zerbitzuan edo, ustez emakumeentzat egokiago ziren produkzio ihardueretan aritu ziren. Haurrak eta emakumeak era masiboan enplegatzen ziren zenbait industriatan, gatazka sozialerako joera txikiagoa zutelako eta, batez ere, arrazoi ekonomikoengatik, haien soldatak gizonezko helduek baino askoz txikiagoak baitziren (erdia baino gutxiagokoa askotan). Gainera, emakumeek oso aukera gutxi zuten gora igozteko enpresaren barrenean. Gizonezko langileak, emakumeak produkzio lanetan sartzearen aurka azaldu ziren



zeharo, haien ustez emakumeen lanak soldatak eraitsi eta gizonezkoen lanpostuen galerak eragin zitzaizkela. 1887an, Kataluniako oihalgintza sektoreko lanpostuen %40 bakarrik ziren gizonezkoena, beste hainbestekoa emakumeena eta haurren lan eskuak %20 hartzen zuen. Linaresko (Jaén) meatzetan 11.347 pertsonak lan egiten zuen; horietatik 1.954 haurrak, eta 328 emakumeak, azken hauek gehienbat kanpoko lanetan zihardutenak. Ez da ahaztu behar, bestalde, estatistika informazioek gutxiesten zutela bi sektore horien partaidetza produktio lanetan, zeren eta txostenetan ez ziren agertzen ez lan irregularra, inolako kontraturik gabekoa, ez etxeko lanetan enplegatutako ziren emakumeen portzentaia handia, %50 inguru XX. mendearen hasieran.

Tradiziozko ihardueren pisuak eta langileak bizi ziren herrietako gizarte egitura konplexuak, enplegatzaileen eta enplegatuen arteko polarizazio automatikoa ekarri zuten. Enplegatutako, hortaz, artisauekin, langile independienteekin eta nekazariekin ere nahasirik zeuden. Katalunian ere, langileen kopuruak gutxitan gainditzen zuen hiri bateko biztanleen %40. Langilearen definizioa bera, hertsiki industria langilearen kontzeptuaren eta soldatak langile adierazten zuen hitz generikoaren bide erdian zegoen. Industria langile modernoaren, langile artisauren eta zerbitzuetako langilearen arteko mugak ez ziren finkoak ez eta aldaezinak. Izan ere, adibide katalanari jarraituz, industria sektorerik garatuenak ez ziren langile biztanleria osoaren, nekazariak kontuan hartu gabe, %53,92 baizik Bartzelonako probintzian eta %22,68 Tarragonan, 1900 eta 1920 artean.

Langileek bazituzten arrazoiak kontent ez izateko. XIX. mendearen garapen ekonomikoak oso eragin gutxi izan zuen proletarioen bizi baldintza materialetan. Sektore batzuetan lanaldia zerbait laburtu bazen ere, lanaldirik ohizkoena 11 ordukoa zen, horiei jateko atsedanak erantsi behar zitzaizkielarik. Murrizketa eskas hori, produktioaren areagotzeak konpentsaturik zegoen, eta horrek nekezagoa eta gogorragoa egiten zuen lanaldia. Soldatak ez ziren goratu eta laneko higie zein segurtasun baldintzak ezin txarragoak ziren. Kasu askotan, familia-ko kide bat baino gehiagoren lana behar zen gutxieneko gastuak ordaindu ahal izateko. Horri, luzaroko langabezia, analfabetismoa eta langileen etxeen egoera txarra erasten zitzaizkion. Hala eta guztiz ere, langileen erantzuna ez zen berehalakoa ez eta automatikoa izan.

Errestaurazioaren lehenengo urteak berriro ere errepresio eta klandestinitate aldia izan ziren langile elkarteentzat, anarkistentzat bereziki. Hala ere, 1880ko hamarraldiaren amaieratik aurrera lan eta politika ekintza formak muintetik aldatu ziren. Monarkiaren irekitasun geroz eta handiagoak legezko bideak zabaldu zitzaizkion gizarte partaidetzari. Elkarrekin sortzeko eskubidearen aitortpenak 1887an eta 1890etik aurrera baliatu ahal izan zen gizonezkoen sufrajio unibertsalak, ordura arteko antolaketa eta ekintza ereduak aldatu zituzten. Erresistentzia for-

mak eta gatazkaren adierazpen moduak, hala nekazarien jazarbide eta erresistentzia eredu lausoak nola lantegietako gatazkatik zetozenak, egoera berrietara egokituz joan ziren. Ezkutuko elkarteen lekua alderdi eta elkarte politikoei hartu zuten; kaleetako altxamendu espontaneoan ordez, batzordeek antolatutako mugimenduak. Iraganeko protesta moduekin erabateko haustura gertatu ez bazen ere, grebak eta organizazio sindikalak langile espainiarren ekintzaren oinarritzko tresna bilakatu ziren. Langileok, arian-arian, amankomuneko organizazio eta ideologia erreferentziak hartu zituzten, nazioko langile klase geroz eta homogeenagoa moldatuz. Errealitate horren ondoan, gogoan hartu beharra dago langile elkarte askok beren lanbide edo hiri esparruaren mugen barnean jarraitu zuela, oso neurritzko helburuak zituenez.

Aldi hartan moldatu zen langile nortasunak, industrializazio prozesuaren eraginak eta ondorioak, artisau langileen munduak oraino zuen pisu handia eta lanbidearen errealitatea bildu zituen. Industria modernoaren langile asko, Asturiasko meatzariak edo Kataluniako oihalgintza langileak, hiriguneetatik urrun bizi ziren; hori zela eta, enpresek beren enplegatuen bizitza, bai produkzioari zegokiona eta bai pribatua, kontrolatzen segitu zuten. Izan ere, ofizioetako jendeak, oraindik gremioetako erreferentziak gordetzen zituena, gutxieneko elkarte azpiegitura sortzeko gaiago azaldu baitzen. Anarkistek edo sozialistek denbora luzez agertu zuten ideologiazko propagandak langileen oso zati txiki bat besterik ez zuen erakarri. Lanbidearen inguruan sortutako elkartasun sareak, ordea, elkarte mundu indartsua eratu zuen, nahiz eta emakumeak, haurrak eta langile ez kualifikatuak, zenbaitetan are industria modernoetako langileak ere, alde batera uzten zituen. XX. mendearen hasieran oraino, lan gatazka askoren abiapuntuan artisauek soldatuko izaera erabat onartzeari egiten zioten ukoa zegoen. Garai hartan, tresnak langilearen jabetzapekoak izatetik, fabrikako gastuak bere kontu hartzen zituen enpresariak jarriak izatera pasa ziren. Ideologiari dagokionez, langile haiek herria antolatzen iharduera nabarmena –kasinoak, gaueko eskolak, txango-etarako klubak, e.a.– burutu zuen errepublikanismoetik hurbilago ziren klase ideologietatik baino, anarkistak zein sozialistak. Ideologia hauek erresistentzia egitea ontzat eta ugazabekiko edozein lankidetzat txartzat zeukatenez, gaitzetsi egiten zuten mutualismoa, ofizioetako langileek gehien erabiltzen zuten elkarte mota alegia, eta artisauek, berriz, kapitalistek ezarritako produkzio gehitzearen kontra, ugazaben eta langileen arteko harreman tradizionala defendatzen zuten. Horrek, dena den, ez zuen galarazten proletariak/burgesak aurkakotasunean parte hartzen zutelako sentimendua.

Produkzioa areagotzeak lanbidearen berezitasuna ahultzea ekarri zuen, eta beste lanbideetako lagunekiko identifikazio handiagoa. Horrek elkartze molde berriak hartzea eta, batez ere, klase nortasun askoz markatuagoa bereganatzeko

aukera eman zien langileei. Nortasun hori klase organizazioen ideal utopikoen eta eguneroko errealitatearen konbinazioa zen. Azken honi dagokionez, jarrera sozialetako alderdi informalak eta iraupenezko agerpenak ziren haren azalpen nagusiak. Kualifikazio gabeko langileek, langile organizazio egonkorretatik kanpo jarraitu zuten, hori bai, protesta sendoen, baina laburren, protagonista izanez.

Mutualismoak, aldi hartan, langileen gizarteratze gune nagusietako bat izaten jarraitu zuen. 1904ko estatistika baten arabera, Espainian elkarren laguntzarako 1.691 elkarte ziren guztira, eta 351.629 bazkide guztira. Haietarik gehienak, alabaina, herri izaerakoak ziren, beren baitan langileak, artisauak eta burgesia txikia biltzen zituztenak. Langile soilez osaturiko elkarteak 309 ziren, 84.426 bazkiderekin. Orduan hasi ziren eratzen emakumezkoen elkarren laguntzarako elkarteak, askotan organizazio sozialista edo katolikoetako gizonezkoen babespean bazeuden ere. Mutualismoak 1920ko hamarraldiraino hazten jarraitu zuen; horrek frogatzen du ez zela hura errepresio aldietan erresistentzia elkarteak ezkutatzeko modua bakarrik. Espainiako estatu oligarkikoaren errealitatea zena bezalakoa zelako eta estatu hori arazo sozialez arduratu ez zelako iraun zuen mutualismo horrek gizarte industrializatuetan baino luzeago Espainian. Helburu xumeak eta ez oso gatazkatsuak gorabehera, haien eguneroko praktika langile askorentzat antolaketarako eskola izan zen. Gainera, langileen bizitza hobetzeko gai ziren zerbitzu sail bat izan zezaketen: langabeziarako laguntza, hezkuntza, zilegizko jolasak eta baita erresistentzia kutxa ere, modu horretara azkeneko laguntza iharduera eta langileen elkartasun erreibindikatzaila bilduko zituena.

Langileen sindikalismo horren barnean ere baziren helburuz eta metodoz bereizten ziren hainbat organizazio. Lehen buruan, anarkismoak eragindako sindikalismoa dugu, gorabehera handiko garapena izan zuena XIX. mendea amaitu artean. 1881etik aurrera, haren birrantolaketari ekin zioten, sindikatuak sendotzearen aldekoek bultzaturik eta funtsezko eragin eremua Andaluzia izan zuen Federación de Trabajadores de la Región Española (FTRE) delakoaren sorrerarekin gauzatu zen. Organizazio berriak, lehenik eta behin, sindikalgintzari ekin zion, eta bigarren maila batean, politika ekintzari. Federazio hori Gobernuak debekatu zuen bi urte geroago, 1883an zenbait atentatu burutu zituen “La Mano Negra” izeneko talde andaluz ezkutukoak eragindako gertaera ilun bat aprobeztatuz, talde hark anarkismoarekin zerikusia zuelakoan. Nolanahi den, gero eta argiago ikusten ari denez, “La Mano Negra” polizia espainiarrak sortua zen edo bertan infiltraturik zegoen, sindikalismo anarkista legez kanpo uzteko aitzakia izatearren. FTRE, poliziak esetsia, 1888an desagertu zen behin betiko.

1890 ondoko urteetan, mendebaleko lurralde gehienetan bezala, Espainian ere atentatu asko egin zituzten anarkistek. Espainian izan ziren ezagunenak:

1893an Bartzelonako Liceoan bonba bat lehertu zenekoa, burgesia katalanaren sinboloa zen hartan 15 hildako eta 50 zauritu eragin zituen; 1896an Korpus eguneko prozesioaren aurkako atentatua, Bartzelonan hau ere. Atentatu horiek zirela eta, gogor eta begirunerik gabe zapaldu zuten mugimendu hori. Horrek, gutxiasko legearen barne ziharduten talde anarkista gehienak desagertarazi zituen. Atentaturik garrantzitsuena 1897an gertatu zen eta aldi honetako amaiera markatu zuen: Antonio Cánovas del Castillo, gobernuko lehendakariaren hilketa. Ekintza horren ondoren, atentatuen kanpaina amaitu zen, bai poliziaren errepre-sioagatik baina baita anarkismo “baketsuaren” aldeko teoria bat agertu zelako ere, hezkuntza lanera eta sindikalgintzara zuzendu zena. Liburutegiek, aldizka-riek, herri zirkulu eta ateneoek, jolas zentruak edo kontsumorako kooperatibek anarkismoaren gune ideologikoaren iraupena bideratu zuten. Mende amaieratik 1910eraino, gutxiasko anarkismotik hurbil zeuden langile taldeen berrantolake-tari ekin zioten, Bartzelonan batez ere, eta Confederación Nacional del Trabajo (CNT) delakoaren sorrerarekin burutu zen prozesu hori.

Unión General de Trabajadores (UGT) delakoa urte horietan sortu zen biga-rreren eredu sindikala izan zen. Formalki Bartzelonan 1888an sortu bazen ere, Madrilan eta Euskal Herriko zein Asturiasko meatzarien artean garatu zen gehienbat. Anarkisten aurrean, UGTren helburuak neurrizkoagoak ziren; izan ere, 1920a arte haren xede orokorra langileen bizi baldintzak hobetzea izan zen: soldatak jasotzea, lanaldiak murriztea eta higienaren eta segurtasunaren aldeko neurriak sustatzea. XX. mendean sarturik, zenbait erreibindikazioen aldeko mugimendua azkartu zuen: 8 orduko lanaldia, gutxieneko soldata finkatzea eta ugazabek langile elkarteak onartzea. Bigarren Errepublikan, enpresen gainean langileek kontrola izatea eta sindikatuak horien zuzendaritzan eta administrazio-an partaide izatea eskatu zituen batez ere.

1920an agerian eman zen aditzera PSOErekiko lotura: alderdi horrekin harre-man estuak zituela, nahiz eta formalki zuzeneko loturarik ez izan. Izatez, PSOE-ko kide guztiek UGTren barne izan behar zuten, eta UGTko zuzendaritza kargu gehienak, aldi berean, PSOEko karguak ziren. Pablo Iglesias alderdiko eta sindi-katuko lehendakaria izan zen hil artean. UGTren izaera moderatua, hein handi batean, langile klaseak aginpidea lortzearen politika bidea erabili behar zuela sinestetik zetorren, bide iraultzailea alde batera utziz eta, behin bideragarri egin-dako “azken borrokara”, proletargoa egoera onean iristea ahalbideratuko zuten baldintzak sustatuz. Dena den, eta goian aipaturiko loturak gorabehera, sindika-tuan baziren kide asko, itzal handiko organizazio baten indarrari eta laguntzari esker, laneko neurriak negoziatzerakoan babes handiagoa izateko sartuak zirenak eta alderdiarekin inolako lotura politikorik ez zutenak. UGTrekin zerikusia zuten talde askotan lanbideetako munduaren pentsabidea eta praktika soziala bizirik

zeuden oraino. Baina industria baldintza berrietara egokitzen ere jakin zuen, esaterako, Bizkaiko meatzetan eta fabriketan.

Organizazioa indartzeari ematen zitzaion garrantzia, alde batetik, eta haren izaera zentralizatua, bestetik, izan ziren lehenaldi hartako UGTren ezaugarriak, nahiz eta, azkenari dagokionez, tokian tokiko lanbide sindikatuen inguruan egituratua zen eta horiek lurraldekako eta sektorekako federazioak osatzen zituzten. Hartarako “oinarrizko kuota bakarra” erabiltzen zuten, hau da, kideen kuotak ia osorik erresistentzia kutxa osatzeko eta sindikatuaren gastuetarako erabiltzen ziren. Alderdi kooperatibistak edo mutualistak garrantzi gutxi izan zuten aldi hartan; zenbait kasutan bakarrik zegoen lan istripuetarako aseguru motaren bat. Sindikatu berriaren lehen urteetan langile gutxi egin zen bazkide: 4.500 inguru sorrerako urtean; 1905ean, 57.000 baino ez ziren Espainia osoan. Kide gehienak artisautza lanbideetakoak edo industria modernoetako langileak ziren, edota Bizkaiko eta Asturiasko meatzariak. Hasieran esku langileek osatzen zuten sindikatu horren zuzendaritza; laster, ordea, profesionalizatu egin zen beste organizazioen boluntarismo izaera hura alde batera utzirik.

UGTk bide bikoitza planteatu zuen bere helburuen defentsarako. Lehenik eta behin, enpresarien gain presioa egitea zegoen, greba alboratzen ez zuena, baina zuhertasun handiz planteatzen zena, lanbideko beste elkarte askotan gertatzen zen bezala. “Arauzko” lanuzteak egin ahal izateko, Batzorde Nazionalak bi baldintza ezarri ohi zituen: bestelako presio neurririk ez izatea eta deitzeko unean langileen garaipena lortzeko ahalbideak izatea. Ahalbide horien barne, normalean zenbait exijentzia izaten ziren: grebarako deia egin behar zuen elkarteak langileei gutxienez bi astez soldata ordaindu ahal izateko baliabideak bere esku izatea, deialdia egiten zuen taldeak gutxienez urtebeteko antzinasuna izatea eta deia lan krisirik ez zen garaian egitea. Hala eta guztiz ere, “arauzko” greba horietatik kanpo, UGTko sekzio askok greba anitz burutu zituzten beren aldetik, Batzorde Federalaren diruzko laguntzarik gabe.

Aginpide publikoen gaineko presioa eta administrazioa edo enpresariengana heltzeko bide ematen zieten postu guztiak beretzeari UGTren estrategiaren bigarren elementuaren oinarria eta organismo publikoetan parte hartzeari uko egiten zioten anarkistengandik erabat bereizten zuena hain zuzen ere. Ildo horretatik, anarkistek agintariekin harremanik ez izateko agertzen zuten jarreraz eta langile elkarteetan zegoen zatiketaz baliatu zen UGT, nahiz eta minoritarioa izan, administrazio publikoko postu gehienak hartzeko, beste sindikatu gehienek ez baitzuten alor horretan esku hartu. UGTk hartu zuen egitura zentralizatua beste zenbait organizaziora baino hobeto egokitu zitzaion Estatuaren logika administratiboari.

Aldi hartan, Kataluniako sindikatuak eta, oro har, ofizioko elkarte indibidualak ziren Espainiako langileen indar sindikalen zati nagusi. Ideologia anarkista mantendu zuen talde minoritario baten ondoan, sindikalista katalan gehienek elkarte sare moderatua moldatu zuten, errepublikanismo edo sozialismo moderatutik bakuninismotik baino hurbilago zegoena. Kapatazek eta kontramaisuek ere izan zuten beren elkarteak. Horren egitekoa tailerretako errepresioa beregain hartzea eta langileei elkartzeetan biltzea eragozteak zen, eta baita grebak haustea ere, beharrean indarkeria erabiliz. Centro Industrial de Cataluña (1877) izeneko elkarteak bi eginkizun edo helburu zituen: laguntzetarako mutualitatea izatea eta irakaskuntza teknikoa sustatzea.

“Las Tres Clases de Vapor” elkarteak, Sei Urteko Demokrazialdian sortu eta 1881ean berreraikiak, Kataluniako oihalgintza inguruko 30.000 langile baino gehiago bildu zituen (prestatzaileak, iruleak, ehuleak), emakumezkoak asko. Espainiako sindikatu nagusia izan zen 1880 ondoko hamarraldian eta 1890koaren hasieran. “Las Tres Clases” sindikatu berezia zen bere indarragatik eta moderatu eta apolitikoa zelako, ezein alderdiri eusten ez zion neurrian, errepublizaleekin loturak bazituen eta alderdi sozialista bat eratzen saiatu bazen ere, proiektu horrek porrot egin zuen. Ardura handiagoa hartzen zuen laneko arazoak konpontzen, politikoak konpontzen baino. Gatazka askoko hasiera baten ondoren, gero eta moderatuago agertu zen, eta Kataluniako industriaren defentsa gaietan enpresariekin batera ihardutera iritsi zen. Mendearen azken hamarraldian krisi sakona izan zuen, greba sail batek porrot egin zuelako eta bere jarrera sindikal eskusiboak, kidekoak bakarrik defendatuz, gero eta jarraitzaile gutxiago zuelako. Sindikatua desagerturik, talde batzuek sindikalismo horiaren aldera jo zuten, enpresariekin ageriki lan eginez eta beste batzuk, langileekin lotura handiagoa zutenak, CNTn sartu ziren azkenean.

Aldi hartakoa da, berebat, langile asoziazionismo katolikoaren sendotzea, *Rerum Novarum* entziklika plazaratzearen ondorioz. 1910 arte sindikalismo mota horrek bitariko izaera izan zuen, organizazio berean langile eta enpresariak nahasten baitziren. Sektore jakin batzuetan baizik ez zuen eraginik izan, Espainiako iparraldeko nekazarien eta Valladolid aldeko burdinbideko langileen artean, adibidez; hegoaldean, aldiz, oso eragin gutxi edo batere ez zuen izan; Jerezko sindikalismo “librea” salbuespena da. Erljioa ezagutzera ematea eta jendearen laguntzarako edo denbora pasarako ekintzak antolatzea izan ziren erakunde horien helburu nagusiak.

Nahiz eta era askotako sindikatuak izan (anarkistak, sozialistak, katolikoak eta independienteak edo neutroak), oso jende gutxi egin zen bazkide urte horietan: %5 inguru, elkarte katoliko, sindikatu, kooperatiba, kontsumo elkarte eta langileen politika edo denbora pasarako biltokietakoak barne. Zifra ofizialen ara-

bera, 1904an sindikatuek 171.791 bazkide zituzten, 1.147 elkartetan banatuak. Gainera, gogoan hartu behar da bazkietze tasa handiko eskualde batzuk baziren ere (Bartzelonako eskualdea), beste zenbait eskualdetan ia ez zela sindikalismo-rik. 1916a arte ez zuten izan sindikatuek mutualistek adina bazkide. Bazkide kopuruak, bestalde, gorabeherak izaten zituen: handitu egiten zen gatazka bezperatan eta eskakizun arrakastatsuen ondoren eta lan krisialdian edo greben porrotekin batera, aldiz, jaitsi egiten ziren.

## 5. Lan gatazkak 1910 artekoan

Monarkia berriro heldu zenez geroztik jaitsiera nabarmena izan zuen gatazka giroak, gobernuak erabilitako errepresioagatik, noski. Sagastaren gobernu liberalak tolerantzia apur bat ekarri zuen, eta orduan hasi ziren berriz ere langileak elkartzen eta erreibindikazioak egiten. Esan beharra dago grebaldi askotan, bertako partaideak, bai langile bai enpresari, beren arteko diferentziak konpontzen saiatzen zirela, agintariek hartan esku hartu beharrik gabe. Honek zera esan nahi zuen, ohizko iharduerak gidatzen zituela hein batean laneko harremanak, kontratu idatziaren bitartekotzarik gabe.

Gatazka gehienak ez zituzten erakunde finkatuek antolatu, langile talde informalek baizik. Sindikatuek eragin urria izan zuten garai horretan. Grebak, gehienetan, ofizio bakarreko langileek antolatu ohi zituzten, eta ez gutxitan enpresa barneko halako edo honelako espezialitateetakoek, beti ere hobekuntza batzuk lortzearren eta ez arrazoi ideologikoengatik. Kualifikaziorik gabeko langileak, inolako erakunderik ez zutenak, zalantzatan ibiltzen ziren integrazioaren eta errebeldiaren artean. Horientzat mobilizaziorik ohizkoena gogorkeria eta matxinada ziren. Adibiderik ezagunena zera izan zen, tabako fabrikan lanean ziharduten emakumeen protestak, laburrak bai baina bortitzak dena den, baina indarrean zegoen ordenaren iraultza egiteko asmorik gabekoak hala ere.

Momentu nagusietako bi, langile gatazkei dagokienez, 1887-1892 urte bitartekoa eta mendearen azkenetakoa izan ziren. Arrazoi desberdinen artean politikoak aipatzen dira: 1887an onartu zen Elkarre Legea, Espainiaren barnera sindikatuen funtzionamendua baimendu zuena, langile erakundeen antolaketa nahiz gatazkak ugaltzeko bidea zerbait baino gehixeago erraztu zuena. Hiru urte geroagokoa da 25 urtez goitiko gizonezkoentzat sufrajio unibertsala, alderdi politiko batzuk langile eta nekazarien botoa berenganatzeko ahaleginetara eraman zituena; urte berean ospatu zen lehenbiziko aldiz Maiatzaren Lehena. Ekonomiaren aldetik, berriz, krisialdi gogor batetik ateratzen ari zen Espainia, eta horrek langileei hainbat urtetan zehar metaturiko nahieza erreibindikazio modura planteatzeko bidea eman zien. Ondorioz, langile gatazka biziro ugaltzea ekarri zuen.

Horietan handiena, urte haietan, Rio Tintoko greba gertatu zen, 1888an hain zuzen, gudarosteak esku harturik amaitu zena, 45 hildako eraginda. Hala ere, errepresioaren bortizkeria salbuespena izan zen Espainiako grebetan. Izatez, kualifikaziorik gabeko langileek agintarien esku hartzea eskatzen zuten, ohartzeko baitziren zelakoa zen beren ahulezia zuzenki eta beste gabe ugazabekin negoziazioak egiteko. Bilboko lehen greba nagusietan, 1890 eta 1892an, agintari militarrek bibaka hartu zituzten langileek, zenbait enpresarik lan baldintza hobetzera behartu zituztelako.

Maiatzaren Lehenak eta horren inguruko mobilizazioek lozorrotik iratzarri zuten lehen aldiz jende asko, langileak pairatzen ari ziren baldintza gogorrei buruz jendeak zuen iritziari dagokionez, baina ez zuten errotiko aldaketarik eka-ri, ez jendearen jarreraren ez eta langileriaren kontzientzian ere. Hala, 1886-1889 urteetan egin ziren 265 grebek argiro erakusten dute grebaren izatea Espainiako langile munduaren barnera sartu zela, nahiz eta Kataluniakoak eta oihalgintzako sektoreari zegozkionak izan lanuzte horien erdiak. Baina Kataluniaz kanpoko artisauak izan ziren gatazka berrien protagonista nagusi. Bestalde, greba hauetariko asko eta asko industria sektoreaz kanpoko edota kualifikaziorik gabeko langileen mobilizazioak izan ziren, emakumezkoen papera batera baztertzekoa ez zen sailetakoak hain zuzen. Erreibindikazio nagusiak soldatarena eta laneko orduena ziren, baina izan ziren langilearen “duintasunarekin” zerikusia zuten grebak ere; horietan lanaren antolaketari eta kualifikazioari buruzko eskakizunak egiten ziren, besteak beste; horrek argi erakusten du langilea ohartzeko hasia zela gatazken alderdi moralaz.

Langileen Egunaren ospakizunak, 1890. urteko maiatzaren lehenean, areagotu egin zuen gatazka, eta ezaugarri bereziak izan zituen gainera, luzarorako izan ez baziren ere. Langile asko kaleratu zen mobilizazio horietan, itxuraz berriak ziren adierazpideak erabili ziren lehen aldiz, proletarioen arteko elkartasunaren aldeko deiak egin eta lehengoak baino jarrera iraultzaileagoak hartu ziren, baina hala ere, ez da ahaztu behar langile kualifikatuen ohizko ezaugarri asko eta asko gorde zirela. Hala, manifestaldi askotan taldeka, ofizioen eta gremioen arabera, beren bandera eta guzti, agertzen ziren langileak. 1892. urtetik aurrera gutxitu egin ziren lan arazoei buruzko gatazkak. Horren arrazoiak Kubako eta Filipineta-ko guduak berriz hastea, anarkisten atentatuengatik, gobernuak errepresioa gogortzea, enpresariak langileen aurkako jarrera gogorragoa hartzea, UGTk berea biguinagotzea, sindikatuak banatuta egotea eta garrantzi handiko greba batzuek huts egitea izan ziren. Erakunde sindikalen ahuleziaren aurrean, ofizioek langileriaren oinarritzko egitura izateari eutsi zioten.

Gatazkaren bigarren fasea 1899-1903 bitartean gauzatu zen, Kuba eta Filipinetako gerraren ondotik. Antza, 1902an izandako gatazka handi haiek langile



jokabidea aro berri batean sartua zelako gertatu ziren, aro berri horretan sindikatuak geroz eta indartsuago izan baitziren. Hauek ongi baliatu ziren ekonomiaren goranzkoaz beren eskakizunak egiteko; horretxek ez zuen gutxi lagundu enpresari askok langileen erreibindikazioak onar zitzaten. Alabaina, leku askotan, elkartasunezko lehen grebak edo lanetik kaleratutako langileak berriro onartzea eskatzekoak ez ziren 1910. urtea baino lehen gertatu.

Gatazka maila jaistearen zergatietako bat, langileria menderatzeak ekarri zituen ondorio larriak izan ziren. Aurrez lortuak ziren lan abantailak ezabatu egin zituzten enpresek, gatazketan nabarmenduak ziren langileak lanetik bota zituzten eta fabriketan zerrenda beltzak banatu ziren. Enpresa zuzendaritzak ongi baliatu ziren momentu hartaz produkzioa gehitzeko eta lan arautegiak gogortzeko.



## 2. Gaia

### Lan harremanak Espainian, 1910-1939

#### Aurkibidea

1. SINDIKATUEN GARAPENA 1931. URTEA ARTE
2. GIZARTE LEGEDIA, 1883-1936
3. BIGARREN ERREPUBLIKA ETA GERRA ZIBILA

#### Kontsultarako liburuak

- Martín Valverde, A. eta beste, *La legislación social en la historia de España. De la revolución liberal a 1936*, Congreso de los Diputados, Madril, 1987.
- Olabarri, I., «El Mundo del trabajo: Organizaciones profesionales y relaciones laborales», in *Historia de España y América. XVI-1. Revolución y Restauración 1868-1931*, Rialp, Madril, 1982, 559-652. orr.
- Juliá, S., «De revolución popular a revolución obrera», *Historia Social, 1*, 1988, 29-43. orr.
- Soto Carmona, A., *El trabajo industrial en la España contemporánea (1874-1936)*, Anthropos, Bartzelona, 1989.



## 1. Sindikatuen garapena 1931. urtea arte

XIX. mendearen bukaera eta XX.aren hasiera arteko aldian langileak beren elkarteak beste era batera antolatzen hasi ziren. Elkartasun berri horren parte handi bat lanaren inguruko kultura tradizionalaren eradalketan finkatzen zen, eraldaketa horrek kontzientzia berri bat ekarri baitzion soldatapeko langileari eta pentsamolde kolektibo desberdina sortu zuen, bai gizartearekiko jarreran eta bai politika desberdinen aurrean. Kultura berri honetan batera nahastu ziren ohizko jite eta ohiturak, hiriko bizimoldearen barnetik sorturiko zenbait praktikarekin, eta horren ondorioz zenbait talde misto azaldu ziren; talde horiek, noski, halako sektore konkretu batzuetan salbu, XX. mendean aurrera samar arte, ez ziren hiriko proletargo bereizi gisa agertu.

Adibiderik argiena urrats honetan langile elkarteetan gertatu zen. Izan ere langile elkarte horietako askotan langileen arteko loturek artisauen elkarteetako lotura pertsonal tipikoen antz gehiago zuten elementu ideologikoengatik loturena baino. Harik eta aldaketa hau egin ez zen arte, sindikatuen jarrera lotuago zegoen gremioetako tradizioari, hots, ofizioen interesen defentsari (“Tres Clases de Vapor” izenez ezaguna kasu, bere bazkideen ardura hartzen baitzuen soilik). Maiz askotan, elkarte hauek sindikatuetan zeuden langileak sindikatu gabekoen-gandik defendatzeko sortu ziren, zeren eta lan esku merkeagoa eskaintzen baitzuten azken horiek.

1910. urtetik hara, etapa berri bat abiatu zen, sindikalismoak harartean zituen gremio aztarnak eta lekuko izaera alde batera utzi zituena. Sindikatua ofizio elkarteen ordain bilakatu zen. Lehen Mundu Gerra, Espainia neutral izan baitzen, abagadune egokia izan zen industriaren hazkundeari bultzada berri bat eman ahal izateko, herriko egitura sozioekonomikoan atzera ezineko urratsak markatzeko eta, beraz, langile erakundeen egituraketa egiteko. Momentu horretan erdietsi zituen langile mugimenduak gerrate zibileraino definituko zuten ezaugarriak.

### 1.1. Unión General de Trabajadores (UGT) Sindikatua

Lehen aldaketa antolaketaren egituran gertatu zen. Esan dezagun 1911. urteaz geroztik hasi zela UGT ofizioen sindikatu eredua uzten, eta haren ordeztan industriako langileen sindikatu izaten. Elkarte ekintza koordinatu eta azkartzearen beharra izan zen eraldaketa horren arrazoia. Aldaketa, lehenik, Asturiasen gertatu zen, bertako “Sindikato Minero Asturiano” delakoa sortu zenean. Eredu hori beste sektore batzuetara aldatu zen, hala nola burdinbideetara eta metalurgiara. Berrikuntza ez zen antolaketa mailan soilik izan, zeren 1912-1916 bitartean, jokabide sindikal moderatu bat erabiliz eta grebara jo gabe, abantaila material

handiak lortu baitzituen Meatzarien Sindikatu horrek. Emaitza hauen eragina sindikatu guztietara zabaldu zen.

Azken urte horretan hartu zuten sekzio bakoitzari finantzaketa sistema bezala “oinarri anitzeko kuota” ezartzeko gomendioaren erabakia. Honek kuota handiagoak suposatzen zituen, baina bilduriko dirua ez zen soilki erresistentzia kutxa segurtatzeko, baita langileei hainbat zerbitzu emateko ere: mediku aseguruua, heriotza aseguruua, e.a. Eztabaidarik aski izan zen erabakia hartzerakoan, izan ere sindikatuaren barne bai baitzen sektore bat hainbesteko kotizazioa eman beharrrak sindikatuari arrakasta galtzea ekarriko ziola uste zuena. Izatez, sindikatuak modu harrigarrian hazteko bidea hartu zuen, horregatik bakarrik ez bazen ere, laguntzak emateko jokaera hartu zuenean:

1914:	150.000	bazkide
1921:	240.000	"
1931:	958.000	"

Era berean, aldaketarik izan zen sindikatuen eragin esparruetan eta UGTn bazkidetu zen langile jende motari zegokionez ere. Oinarrizko gunea oraindik Madril bazen ere, eta Bizkaia eta Asturias gune garrantzitsuak ziren arren, kopurutan Levante eta Extremadura nagusitu zitzaizkien. Katalunian erakundea ez zen ia agertu ere egiten. Bazkideen %24 laborantza lanean ari zen, eta sektore horretan gertatu zen hazkunderik handiena; eraikuntza zen hurrengoa (%18), garraioa (%13), meatzaritza (%10) eta metalurgia (%6) ondoren.

Elkartzeko eskubidea eta 8 orduko laneguna onartzearen ondotik, 1919an azken hau, UGTk helburu handiguratsuagoak planteatu zituen: langileak enpresen gain kontrola izatea eta sindikatuek horietan partaidetza izatea. Helburu horien arabera, erabiltzeko bideei zegokienez erradikalizazioa gertatu zen. Adibidez, grebaren kasuan, UGTk errotiko aldakuntza politikoak planteatzen ari zirenak bultzatu zituen (1917ko abuztuko greba orokorrean esaterako). Eta 1917-1921 bitartean asko ugaldtu zen greba politikoen kopurua, presio modura batez ere. Era berean elkarlan irekia gauzatzeko bidea urratu zen PSOErekin. Eta hala, UGTk 1920. urtetik aurrera klase borrokaren onarpenean oinarrituriko jokaera izan zuen. Paradoxa baldin bada ere, erradikalizazio hau ez zen eragozpen izan UGTk Primo de Riveraren diktadurari bere lankidetzak eskaintzeko eta, organismo publikoetan esku hartzeko zuen tradizioari jarraituz, Zuzendaritza Militarrek sorturiko lan erakundeetan partaide izan zen.

## 1.2. Confederación Nacional del Trabajo (CNT)

Confederación Nacional del Trabajo (CNT) Bartzelonan sortu zen 1910ean. Gerra zibila arte hau izan zen Espainiako erakunde sindikal nagusia bai bazki-

detzagatik bai mobilizaziorako zuen ahalmenagatik. CNTk, batik bat bere sortze garaian, sindikalismo iraultzaile frantsesaren tesia aski hurbiletik defendatu zuen. Beharrezko ikusten zuen, sindikatuen bitartez eta sindikatuentzat, iraultza soziala egitea, eta hori, zuzeneko ekintzaz baliaturik eta greba orokor iraultzailea bitarteko hartuz. Alabaina, CNTren sorrera ez zen ez anarkisten eraginaren ez frantses dotriaren emaitza izan, langileen esperientziaren emaitza baizik, berez mesfidantza sakona baitzuen alderdi bidezko ekintza politikoari buruz, eta sindikatua hartzen baitzen langile klasearen ardaztat eta gizarte aldaketaren eragiletzat.

Teoria hauek, hala ere, anarkismotik aski hurbil aurkitzen ziren, anarkismoak kapitalismoari alternatiba global bat planteatzen zion heinean, nahiz eta anarkismoa sindikalismo iraultzailea baino zerbait gehiago den. CNTko militante multzo handia alderdi politikoen kontra zegoen, baina, aldi berean, aski urrun ortodoxia anarkistatik. Berebat, espainiar anarkista askok mesfidantza handiz begiratzen zion sindikalismoaren bideari. Fede emanik zioten berehalako iraultzari eta munduaren berriztatzeari, eta beren berrerospen lehia, moralismo zorrotza eta Estatuaren ukoa ez ziren ongi uztartzen sindikatuetakoa militante gehienek protagonizatzen zuten erreibindikazio soileko borrokarekin. Anarkistek uste zuten zeregin mutualistak, erdizkako eskakizunak, eta are ekintza sindikalak berak ere funtsezko problema desbideratzeko baizik ez zutela balio: kapitalismoa gainditzea (anarkista batzuek arbuia egin zituzten 1933an gobernuak langabezia arintzeko hartu zituen neurriak, langileen izpiritu iraultzailea ahultzera zetozeleakoan). CNT iraultza egiteko kontrolatu behar zen tresna gisa ikusten zuten. 1919. urteaz gero, ordea, anarkosindikalismoa izan zen CNTren ideologia nagusia; izan zen hala ere, gerra zibila arte behintzat, erreforma konkretuak lortzearen eta jarrera moderatuaren aldeko joera sindikalista bat, eta baita iraultza saioak egitearen aldeko beste bat ere, anarkista azkeneko hau. Anarkisten nagusigoak, hala ere, sindikatuaren ingurura bildutako langile masaren premiei eta interesei CNTko buruzagiek erantzun beharra, ordea, anarkisten nagusigoaren kontrapisu gertatu zen.

CNT 1918. urtea arte erakunde mota desberdinez osaturik egon zen: lanbide elkarteak, federazioak, sindikatu industrialak, herri ateneoak, e.a. Urte horretan hartu zen CNTren oinarria sindikatu bakarra izan behar zuelako erabakia, burokrazia gutxiko erakunde izango zena, herri bereko langile guztiak bilduko zituen, txikia baldin bazen, edota, handia bazen, sektore berekoak ofizio bereizketarik gabe bilduko zituen. Sindikatu mota hauek lekuko eta eskualdeko federazioen bitartez artikulatuko ziren, eta hauek, oro har, Konfederakuntza bat osatzen zuten. Bigarren Errepublika garaian, sindikatu bakarren egitura industria federazioen bitartez gainditzeko ahaleginak egin ziren, baina eredu berriak ez zuen oso hedadura handirik hartu, sektore anarkista ortodoxoenek jarritako oztopoengatik.

Sindikatu hauen osagarri gisa eta horiei laguntzeko enpresetako ordezkari sindikalak zeuden; azken horiek Konfederakuntzako buru ziren. Eskumen handia zuten, enpresan sindikatuaren ordezkari izatetik hasita lanuzte edo protesta bat noiz hasi agintzeraino, bigarren mailako gatazketan langileen eta zuzendaritzaren artean bitarteko ziren, eta langileekiko injustizia edo zapalketa gertatuz gero horrelakoak salatzeke ahalmena zuten. Zituzten helburuak, hala nola monopolio sindikal cenetista zenbait lekutan mantentzeak, Katalunian adibidez, CNTren irizpideak ezartzeak, ugazaben eta *langile horiak* deitzen kontra borroka egiteak –ugetistak ere azken hauen artean sartzen zituzten maiz– eta batzuen eta besteen artean nagusi izaten jarraitu nahiak, neurri arbitrarioak hartzera eta gogorkeria erabiltzera eraman zituen hainbat kasutan. Intransigentzia hori, hein batean, izan zen cenetistek ugazaben jokabideari edota agintari politiko edo militarren ihar-duerari eman zieten erantzuna, hauek atergabeko etsaigoa erakutsi baitzuten CNTren kontra.

CNTk ez zuen legearen eskakizunik errespetatzen eta ohizkoa zuen gobernu egitura bikoitza, hauetarik bat klandestino, etenik gabeko ilegaltasun eta debeku egoera jasan behar izan baitzuen. UGTrekiko beste diferentzia zera zen, CNTk ez zuela erresistentzia kutxarik, eta maiz jotzen zuen greban ez zeuden langileen elkartasuna eskatzera grebalarien gastuak finantzatu ahal izateko. Jokabide horrekin sindikatu eroso izatea sahiestu nahi zen, baina bazuen arriskurik aski. CNTk planteaturiko gatazka askoren porrota azpiegiturarik ez izatearen ondorio izan zen. Zuzendarien erradikalizazioak ez zion porrotaldi gutxi ekarri. Langileak ez zeuden beti jarraitzeko prest, mobilizazioetan parte hartuz gero, hainbat nekeren ondoren lorturiko hobekuntzak galtzeko arriskua zetorkienean behintzat. Hala, 1919an Sevillako langileek egin zuten greban, zituzten lehen eskabideak lortu eta gero, greba hura gehiago luzatu nahi izan zuten, baina porrot egin zuten ahalegin horretan, eta huts egindako saioak hiri horretako mugimendu sindikala krisialdi sakon batera eraman zuten.

CNTk Katalunian, Andaluzian eta Levanten eta, geroago, Aragoien izan zuen indarra gehienbat, baina iparraldeko eskualde gehienetan eta Madrilen ahula izan zen.

1910:	25.000	bazkide.
1919:	700.000	"
1932:	1.200.000	"

CNTren hazkunde harrigarria 1918-1919 inguru horretan sindikatu bakarren formula hartzearekin batera etorri zen. Bere bazkideen artean kualifikazio gutxi-ko langileak nabarmendu ziren, langile katalanak (guztiaren %61), Levante eta hegoaldeko nekazariak eta eraikuntzako langileak. CNTk Espainiako eskualde



askotan izan zuen nagusitasuna ez zuen beti bakez lortu. Batzuetan indarkeria eta gogorkeria erabili zituen ugazaben eta langileen aurka, eta baita CNTn sartu nahi izan ez zuten langile erakundeen aurka ere.

CNTk proposaturiko helburuak langileen baldintzen hobekuntza orokorra eta haien askatasun osoa lortzea ziren, iraultza bidez lortu behar ziren gainera. CNTk ez zuen besteetatik azken helburua bereizten, helburu horiek lortzeko erabili nahi zituen bitartekoek baizik. Zuzeneko ekintza izan zen erabilitako taktika, hau da, klase borrokaren barne eta bitartekotzarik gabe burutu beharreko ekintza oro: greba, boikota, sabotaiia, eta baita bortxa ere. Zuzeneko ekintzak honako hau nahi zuen esan: langileek, eta ez bestek, zuzenean negoziatu behar zuten enpresariekin, CNTk ez baitzuen onartzen erakunde publikoen bitartekotzarik. Gobernuaren eta ugazaben errepresioak sindikatuaren barne jarrerak gogortzera eramanean izan eta ez zuen gutxi lagundu anarkismoaren gorakada eta gogorkeriazko jokabideak indartzen ere. Anarkistek laguntzazko zereginen kontra zuten jarrerak hutsean utzi zuen enpresarien aurkako erreibindikazio iharduera. Faktore honek are gehiago sendotu zuen anarkistek gizarte klaseen arteko antagonismoari ematen zioten lehentasunezko papera.

Greba izan zen CNTk gehienik erabili zuen arma, baina sozialisten eremuan aurkitzen ziren murrizketarik gabe. Besteek baino libreago eta maizago jotzen zuen grebara, langileriaren kontzientzia lantzeko tresnatzat hartzen baitzen, azken helburutzat beti ere iraultza zelarik. Alabaina, sindikalismo anarkistaz, Andaluziakoaz batik bat, eman izan den gogorkeriazko irudiarekin zerikusirik ez zuten jokaera asko izan zituzten anarkistek leku batean edo bestean. Izatez, XX. mendeko Andaluziako anarkismoak hiriko estremismotik aldentzeko joera izan zuen eta bere mobilizazioak, bereziki, erreibindikazio konkretuetatik bideratu ziren, hala nola lanaldi, soldatak jasotze, lan baldintzen hobetzeak, e.a lortzeko erreibindikazioetatik. Bortxa mailarik handienak, ez ziren, idatzi izan denez, mamu milenaristengatik gertatu, antolaketa faltagatik, isolamenduagatik eta anarkisten ahulezia erlatiboagatik baizik.

Era askotako arrazoiak eman izan dira anarkismoak Espainian izan zuen eraginaren zergatiak azaltzeko, hasi psikosozialetatik eta espainiarren izaera mediterraniarrera, Elizak izandako paperaren lekua mesianismoak eta komunitarismoak hartu izana, gobernuen politikaren aurrean langileek, zeinahi ideologiatakoak zirela, zuten etsipena, egitura ekonomikoan onarrituriko guztietarainoko guztiak, zeren eta funtsean nekazaritzako egitura duen herrialde batean, ezin baitzitekeen mugimendu sindikal ortodoxo bat finkatu. Izatez, Bigarren Errepublikari garaira arte anarkistek nekazaritzako langileen eta enpresa txikietakoen artean izan zuten indarrik gehiena, sozialistek, berriz, enpresa handietan (Asturiasen, Bizkaian) edo ofizioko langileen artean (Madrilen). Iritzi hori ordea ez da

oso ziuorra, UGTn Lurreko Langile Federakuntzak zuen pisu garrantzitsua edo CNTn industriako langileen bazkidetzak zuena gogoan hartzen badira.

Berebat esan izan da ekonomia kapitalista eta ia feudal moldeko diren zenbait elementu aldi berean gertatu izanak eragin zezakeela industriaurreko eta kapitalistaurreko ideologia bakuninistak hegoaldeko nekazari giroko komunitateetan oihartzun handiagoa izatea, giro horretan gauza nabaria zen pentsamolde hark irauten zuela eta bertan barneratzeko posibilitateak ere handiagoak izango zituela anarkismoak. Arrazoi horrek ez du balio katalanentzat, nahiz eta bertako industriaren egitura gehienbat lantegi koxkorrez osaturik zegoen eta horietako langileak landalurretik etorritako jendea izan. Katalunian, alabaina, CNTren garapenean zerikusi handia izan zuen 80. urteetako ideia sozialistekiko zapuzketak, zuzendari sindikal moderatuekiko etenak eta errepublikar federaleskin elkarlanean ez iharduteko oposizioak. Izan ere, sozialisten diskurtsu politikoak, atzeritar ereduen kopia zenez, bestelako egitura soziolaboralari erantzuten zion eta XIX. mendeko Espainiako langileen artean oso urria zen langile mota jakin bati zuzentzen zitzaion, horien artean nekazari eta hirietako ofizio langilea baitzen gehiengoa. Hori izan zen, dudarik gabe, zabalkunde anarkistari oihartzunik handiena eman ziona.

Egun, geroz eta autore gehiago dago anarkismoa Espainian hain errotua izatearen funtsezko arrazoiak bi izan zirela dioena, alde batetik, diskurtsu anarkistaren aldakortasuna eta, bestetik, herrialdean zabaldu zen lehen ideologia izatea. Garbi dago anarkismoa dela Espainiaren zati handi batean zabaldu zen lehen joera sindikala, baita ere beraren errotzea antolaketa eta berak egindako planteamendu erreibindikatiboen arrakastari edo porrotari zor zaiela. Era berean, propaganda sozialista Asturias edo Bizkaian, langileriak antolaketa tradizioz ez zuen lekuak biak, bai politikan eta bai sindikatuaren mailan, anarkistaren aurrekoa izan zen, eta lurralde biotan horregatik errotu zen, nahiz eta ez zen berehalakoan edo automatikoki finkatu. Gisa honetako azalpenak ondoko berrespen hau ere badu, alegia marxismoak eta anarkismoak gauza asko dutela amankomunean, batik bat oinarri-oinarriko mailan, hau da, dotrina, mitin eta liburuska bidez azaltzen zen mailan.

### **1.3. Sindikalismo katolikoa**

Aski berandu arte, 1910eko hamarraldian, ez zen sindikalismo katolikoa deritzona sortu. Hainbat erakunde bazen langileriaren bizi baldintzak hobetzera zuzendurik (zentru katolikoak, patronatuak, aurrezki kutxak, mutualitateak, e.a.), baina sindikaturik ez. Gisa horretako erakundeen presentziarik handiena izan zuen lurraldea Levante izan zen: Valentziak 1900ean 40 Langile Zirkulu Katoli-

ko zituen eta 21.677 bazkide horietan, Tortosako elizbarrutiak 11 zirkulu katoliko eta 4.989 bazkide. Madrilek 10.269 bazkide eta 6.255 Bartzelonak.

Sindikalismo katolikoak ez zuen inon presentzia nabarmenik izan, Euskal Herrian salbu. Besteak beste, barne zatiketa izan zen horren arrazoia, eta baita jasan zuen oposizioa ere, ez bakarrik langile erakundeen aldetik, baita apaiz jendearengandik eta enpresari askorengandik ere. Hona zein ziren hiru talde nagusiak:

*a) Confederación Nacional de Sindicatos Libres Católicos:*

Aita Gerard-ek sortu zuen 1916an, Belgikako ereduari jarraituz. Sindikalismo “garbia” zen, soilki bere baitan langileak zituena. “Libre” hitzak horixe adierazten zuen hain zuen, guztiz libre zirela ugazaben eskumenetik. Eredu moderatua izan arren, ez zen hor planteamendu erreibindikatorik falta izan eta greba eskubidea onarturik zuen. Apaizak eta erlijiosoak eragile zituela, haien ustez kristau langileen ekintzarako biderik hoberena sindikalismo garbia zen. Abiapuntua Jerez hiria izan zuen, bere eragina lehenik Madrila eta Euskal Herriaren zati handi batera hedatu zen –Bilboko lantegi batzuk, Gipuzkoa barneko eremua eta Nafarroa–; Gaztelako iparraldean eta Asturiasen ere finkatu zen. Bere garaian 10.000 bazkide izatera iritsi zen eta, 1919tik aurrera, enpresariei eta hierarkiari lotuagoko sindikalismo katolikoaren eraso eta ezkerreko langile mugimenduen erradikalizazio zirela medio, krisian jausi zen.

*b) Confederación Nacional de Sindicatos Católicos*

Erakunde hau enpresari eta eliz hierarkiaren laguntzarekin sortu zen, eta hein handi batean sindikatu horiak deitzen diren horietakoa zen. Bere iharduera ez zen praktikan erreibindikazioen arlora jaisten, eta laguntzazko zereginetara mugaturik zegoen. Fundatzaileen babesari esker zenbait sektoretan izan zuen eraginik, eta 60.000 bazkide izatera heldu zen. Era berean emakumezkoen federakuntza bat ere sortu zen 20.000 bazkiderekin (jostunak eta neskameak funtsean).

*c) Unión de Sindicatos Libres (Sindikatu Libreen Batasuna):*

Beronen iharduera gehienik Bartzelona ingurura mugatu zen. Langile ordezkariak monopolizatzeko anarkistek buruturiko ekinaldiei gogorki erantzuteko jarrerak eta ohiturak ezagutarazi zuten. Ugazabekin eta gobernadore zibilarekin batera jokatu zuten CNTren kontrako areriotasunean. Bete-beteko sindikatu horia zen; soldatapeko pistolariez osatua zelako salaketa leporatu izan zaio, baina arrazoi hau ez da aski izan zuen garrantzia justifikatzeko. Langile kualifikatuek, enkargatuek eta erantzukizun postuko pertsonalak sortu zuten; karlista jatorriko jendea zen eta langilearen nahiz balore tradizionalen defendatzailetzat zuten beren burua: familia, nazioa eta erlijioa. Katolikoak ziren, baina ez konfesionalak. 1919ko urrian sortu zen, eta hurrengo urtetik hasita CNTren kontrako jarrera zela medio ugazaben sinpatia eta agintarien laguntza berenganatu ahal

izan zituen, militarrena batik bat. 1922. urtera arte apenas erakutsi zuen sindikatu honek ekintza erreibindikatorik, baina urte horretatik aurrera, bere bazkideen kopurua hazten zihoan heinean eta erakunde anarkista deuseztua izan ondoren, greba batzuk antolatzen hasi zen, normalean halako eta halako leku jakinetan, laburrak eta enpresa konkretu batzuetan. Gehienik jarrera moderatu eta elkarriketarako erakutsi arren, antolaturiko kanpaina erreibindikatoak katalan enpresariak urundu zituen. Hala, 1923an sindikalismo katoliko librea bereganatuz, Confederación Nacional de Sindicatos Libres izeneko osatu zuen. Bigarren Errepublika ezarri zenez geroztik, gainbehera abiatu zen inoiz gehiago bere burua ez jasotzeko.

Bestalde, kristau demokraziari loturik zegoen katolizismo sozial aurreratuenak ere planteamendu erreformistak egiten zituen orduko arazo sozialari buruz. Lana oinarritzat zuen sistema soziala defendatzen zuten, jabetza pribatuaren titulu justifikagarritzat, eta gainera, “helburu soziala” izan behar zuen. Teoriko hauek gizartearen antolaketa korporatiboa sustatzen zuten, famili soldata, langileen artean etekinak banatzekoa eta kapitala ipintzen zutenentzat portzentaia justu bat jasotzea.

Katolizismo sozialari loturik, baina bestelako ikuspegitik, Euzko Langilleen Alkartasuna (ELA/SOV) izan zen nolabaiteko garrantzia izan zuen sindikatu nazionalista bakarra. Honen indarra, Errepublikara bitartean, Bizkaiko eskualde jakin batzuetara baino ez zen hedatu. Katoliko librean hurbilekoa zen araubideetan. Erreibindikazio maila astiro eta oso maila apaletik hasita geroz gehiagora eramán zuten. Sindikalismo nazionalistak ez zuen ia eraginik izan Katalunian. Erakunderik garrantzitsuena hemen, sindikalismo hertsiaeren markoa gaindituz, CADCI delakoa izan zen, Merkataritza eta Industriako Enplegatuen Zentru Administratiboa.

#### **1.4. Espainiako ugazaben organizazioak**

XIX. mendean zehar enpresari elkarteak sortu ziren, bai lurralde bai sektore mailakoak, hala nola Liga Vizcaína de Productores edo Kataluniako Fomento del Trabajo Nacional zirelakoak. Horien funtsezko helburua gobernu zentralaren aurrean beren interes ekonomikoen aldeko defentsa egin eta presio talde gisa ihardutea zen, eta ez hainbeste ugazaben organizazio gisa. Ugazaben egintzak hainbat eratakoak izan ziren, lurraldeen eta ekonomia sektoreen arabera, izatez hain ezberdinak ziren garapen ekonomikoaren mailak eta haien arteko desorekak kontuan harturik. Ugazabek sorturiko lehen elkarteak tokian tokikoak ziren eta 1914 arte ez ziren elkarren artean koordinatu. Urte hartan Confederación Patronal Española izeneko sortu zen. Erakunde horrek, ordena publikoa eta enpresetan autoritate printzipioa gorde beharrekin tematurik, jabe handiak, Biz-

kaikoak izan ezik, bildu zituen bi helbururekin: bai CNTri eta bai Estatuak gizarte eta lan kontuetan agertzen zuen interbentzio geroz handiagoari aurka egitea.

Ugazaben konfederazio honek guttiz gogor jokatu zuen sindikatuekin. Gogortasun hori izan zen, hain zuzen ere, bizkaitar enpresariak bertan ez sartze-ko arrazoia, zeren eta hauek organizazio sindikalekin, UGTrekin bereziki, negoziatzen hasiak baitziren. Konfederazio horrez gain, federazio txiki sail batek eskualde bereko edo produkzio sektore bereko enpresariak biltzen zituen. Baziren, halaber, errepublikanismo hurbil ziren enpresariak osatuak ere, langileen erreibindikazio batzuen alde agertu zirenak. Enpresari txikiak, oro har, uzkurrenak izan ziren langileekiko negoziazioaren aurrean. Enpresarien ezaugarriak azaltzeko, batetik langileen aurrean iharduterakoan adostu ezina eta gogortasuna eta bestetik, ugazaben fronte bat sortzeko ezintasuna behar dira aipatu. Izan ere, Errepublikara garaian langileen %45 enplegatzen zituzten espainiar enpresarien %20 besterik ez zen enpresari elkarteren bateko kide.

### 1.5. Lan gatazkak

1910etik aurrera, 1920 arte gutxi gorabehera, Espainian gizarte eta lan gatazkak nabarmenkiro ugaldtu ziren. Gatazka kopurua emendatzeaz gainera, horien iraupena, intentsitatea eta ugazabekiko zein gobernuarekiko enfrentamendu maila areagotu egin zen. Are Jerezeko medikuek ere greba egin zuten beren eskubide ekonomikoen defentsan; lehenengo aldia zen profesional talde batek gisa horretako neurria hartzen zuena. Ekonomia alorrari dagokionez, hazkuntza horren zergatia prezioen eta soldaten arteko desoreka izan zen. Espainiaentzat positiboa izan zen koiuntura ekonomikoaren urte haietan, prezioen gorakada, batez ere lehen premiako produktuena, soldatena baino askoz handiagoa izan zen. Egoera hartatik etekin gehien atera zutenak enpresariak izan ziren, langileen bizimoduak okerrera jo zuen bitartean. Janariak garestitzearen arazoa, greba guztien erreibindikazio lema gertatu zen. 1920 ondoko urteetan lanaldien iraupena murriztu eta soldatak zuzpertz baziren ere, langileen egoerak, batez ere zerbitzuen sektorekoak, bada-ezpadakoa izaten jarraitu zuen.

#### 4. Koadroa. *Altos Hornos de Vizcaya-ko soldata errearen bilakabidea* (1910-1913 = 100)

	1910-13	1914	1915	1916	1917	1918	1919	1920	1921	1922	1923
Batez-beste AHV	100	94	83	97	106	108	84	96	138	129	122

Iturria: Fernández de Pinedo, Emiliano: "Beneficios, salarios y nivel de vida obrero en una gran empresa siderúrgica vasca, Altos Honos de Vizcaya (1902-1927). Una primera aproximación." *Revista de Historia Industrial*, 1, 1992, 137. orr.

Politikaren alorrean, Monarkiaren eta Errestaurazioaren sistema politikoaren aurkako taldeak hazi egin ziren. Oposizio hori lanaren alorrean ere agertu zen; greba politikoaren bidez esaterako, zentzurik estuenean lanekoak zirenez aparte alegia. Espainiak Marokon zuen gerraren arbuioak ere gatazkak areagotzea ekarri zuen. Errusiako Iraultzak, berebat, eragina izan zuen ezkerreko sindikatuen eta alderdi politikoaren erradikalizazioan. Azkenik, CNTko eta UGTko lehen industriako sindikatuak agertzearen ondorioz, sindikatuen ekintza sendotu egin zen. Langileak antolatzeke ahalbide gehiago zuten heinean, gatazka probabilitateak ugaldtu egin ziren. Sindikatuak langileen nahitaezko sindikazioa eta kontratazio kolektiboa lortzeko ahaleginek ugazaben ukoa jaso zuten, hartarako sindikatuak Estatuarekin halako elkar aditze batera iritsi izan arren.

Europa guztian bezala, gatazka girorik nabarmenena 1920koa izan zen: greba gehiago, polizia eta enpresarietako enfrentatze handiagoak, e.a. Une hartan sortu zen gizarte barneko aurkakotasun giroak proposamen erreformista guztiak galazitu zituen. Enpresarietako, CNTren erradikalizazioan aitzaki harturik, UGTren proiektu moderatuak, hau da, lan kontratu-erako lege bat moldatzera zuzendutakoak, gaitzetsi zituzten. Aurrerantzean gero eta kasu gutxiago egiten zitzaion enpresari lan harremanak arautzeko esparru gisa, eta sektore zein probintzia mailako konbenio kolektiboak instituzionaldu ziren.

1921etik aurrera gatazta erabat murriztu ziren, Lehen Mundu Gerrak ekarri zuen koiuntura ekonomiko onuragarria amaitu zenean. Gobernuak errepresioa areagotu egin zuen modu nabarian, neurri sozialekin konbinatuz, hala nola lehen premiako janariaren prezioen jaistea eta, gero, bitariko batzordeak ezartzea. Primo de Rivera jeneralaren Diktadura ezartzearekin (1923) gatazka giroa apaldu zen, hartan gobernuaren jarrera hertsatzailea, UGTren elkarlana eta ekonomiaren zuzerpertzea eta garapenaren aldeko koiuntura lagun izan zituen.

Gatazka horien balantzea positiboa da zenbait alderditan: langileen erosteko ahalmena igo zen, Lehen Mundu Gerrako garaian izan ezik; asteko 48 orduko lanaldia lortu zen; Gizarte Segurantzak izango zenaren hasiera; zahartzaro edo amatasun aseguruak, e.a. Baina, oro har, krisi aldietan, langileek familiaren laguntzari edo langileen elkartasunari heldu behar izan zioten.

## **2. Gizarte legedia, 1883-1936**

XIX. mendeko bigarren herenetik aurrera, gizarte auzia Estatuaren kezka nagusietariko bat izan zen. Espainiako administrazioaren ezaugarria, oro har, bizitza publikoan gutxi esku hartzea izan bazen ere, egoera horrek aldatu behar izan zuen; batzuetan, hartan sinisten zuelako, besteetan kalkulatu interesatuegana-

tik, baina beti langileen edo enpresarien presioari loturik. Laualdi bereizten ditugu prozesu horretan:

### **2.1. XX. mendearen hasiera arte**

Sentimendu paternalistak markatu zuen. Ongintza eta karitate eginkizuntzat hartzen zen gizartearen arloko iharduera oraindik, behartsuei laguntzera soilki mugatua, baina aurrikuspen lanik egin gabe. Bestalde, gizarte laguntza ez zen batere eraginkorra, aurrekontuen eskasiak zirela eta, erakunde pribatuen edo Elizaren gain uzten zen. Sektore partikular batzuek bakarrik aurkeztu zituzten herri aurrikuspena garatzeko ekinbideak, aurrezteko eta elkarren laguntzarako erakundeak sortuz. Hala eta guztiz ere, egintza horiek egoera aski onean zeuden langileen aldeko izan ziren bakarrik, aurrezteko ahalmena zuten langile bakanen aldeko, alegia. Are gehiago, Espainiako burgesiaren zati handi batentzat, gizarte auziarekiko erantzun bakarra auzi hori ordena publikoko arazo bihurtzea eta errepresio taktikak erabiltzea izan zen. Ez zuten onartzen, inola ere, lan zuzenbide berezirik zegoenik. Legezko arau bakarrak lan kontratua behar zuen izan, enpresarien borondatean oinarritua. Pentsalari katoliko askoren ustetan, gizarte auziaren eta ideologia sozialisten azken kausa liberalismoa zen, eta ez pobrezia.

Comisión de Reformas Sociales (CRS, *Gizarte Erreformatarako Batzordea*) erakundearen sorrera izan zen aldi horretako gertaerarik garrantzitsuena. Gobernu eiteko erakunde hau 1883. urtean sortu zen, langile klaseen egoeraren hobekuntzari edo berorien ongizateari zegozkion gai guztiak aztertzeke, eta baita kapitalaren eta lanaren arteko erlazioetan eragina izan zezakeen guztia aztertzeke ere. Gizarte Erreformatarako Batzordea sortzeak bazuen zerikusia espainiar burgesia intelektualaren sektore baten kezkekin; izan ere, sektore hori alor sozialean European eginak ziren aurrerapenen jakitun zen, eta kezkatuak zegoen XIX. mendearen azken urteetako lan arloko gatazka gero eta ugariagoekin. Indar gutxiko proiektua izan zen hau; proiektu erreformatzaile honen eta orduan nagusi ziren jarrera ideologikoen artean loturarik ez izateak eta batzordekide gehienak estatuaren esku hartzearen kontrako jarrera hartzeak ekarri zuten ahultasun hori. Azken arrazoi horren kariaz informazioa ematera mugatu zuen batzordeak bere eginkizuna. Hala ere, batzordearen irizpenak, proiektuak eta araudiak sekulako eragina izan zuten Espainiako geroko gizarte legedian. 1900. urtean onartu ziren lehen lege sozialak: emakumeen eta haurren lana babesteko legea, lan istripuei buruzko legea, langileen heziketarako legea eta Juntas de Reformas Sociales direlako behin-behineko eraketa.

### **2.2. 1903-1920**

Lan legedi baten sorrera da aldi honetako bereizgarri nagusia. Gizarteko klase ahulenak kapitalaren eta lanaren arteko erlazioetik modu sistematikoan babestea du helburua lege multzo horrek. Estatuaren lege bidezko esku hartzearen premia gero

eta onartuago izateak ekarri zuen aldaketa hau. Instituto de Reformas Sociales (IRS, *Gizarte Erreformatarako Institutua*) erakundeak garrantzi handiko papera bete zuen zeregin horretan. 1903. urtean sortu zen Institutu hau, CRS bereganaturik, lan legedia zabaltzeko, hura bete zedin zaintzeko eta langile klaseen aldeko gizarte eta gobernu ekimenetan laguntzeko. Gainera gatazkei aurrea hartzeko eta aterabideak bilatzeko ahalmena ere bazuen. Azpimarratu beharko litzateke legedi honek industria eta zerbitzu alorretako langileak baizik ez zituela hartzen, alde batera utzirik besalari masa handiak. 1917-1919. urteetatik aurrera bakarrik hasi zen Estatua nekazari behartsuen eskaerengatik kezkatzen, hau baitzen estatu nekazari eta latifundista honetako sektore nagusia, hegoaldean batik bat.

1908. urtea urte berezia izan zen lanaren arauketarako historian. Instituto Nacional de Previsión (INP, *Aurrikuspenerako Institutu Nazionala*) sortu zen lehendabizi, herri prebisioa ezagutzera emateko eta zabaltzeko (erretiro pentsioak batez ere), sor zitezkeen mutualitateak administratzeko, eta herritarrak haiek erabil zituzten bultzatzeko eta laguntzeko, haiek hobetzen saiatuz; beste herrialde batzuetan ez bezala, prebisioa ez zen nahitaezkoa Espainian. Bigarrenik, Industria Auzitegiak sortu ziren, Lehen Instantziako Epaile batez, langileen aldeko auzilariak hautatutako hiru ugazaba epaimahaikidez eta ugazaben aldeko auzilariak hautatutako hiru langile epaimahaikidez osatuak, aurkariak prestatutako hautagai zerrenda banatik hautatuak hauek. Hauen eskumenak mugatuak ziren: ugazaben eta langileen artean sortutako erreklamazio zibilak, lan kontratuak eta Lan Ezbeharretarako Legearen aplikazioan sortutako auziak betearaztea edo ezereztea.

Nekez jakin daiteke zenbateraino betearazten zen lan legedi hau lan harremanetan, baina, oro har, ez dirudi zabalkunde handirik izan zuenik.

### 2.3. 1920-1931

Espainian Lanaren Zuzenbide bat agertu izana da aldi honetako ezaugarriarik aipagarriena. Lan kontratuan eragin zuen oinarri eta arau multzo koherente bat zen hau, langilearen eskubideak babestuz eta gizarte legediari zegokion arautze hutsa gaindituz.

Langile zuzenbide hau Espainian sortu zen 1920-1931 bitarteko urteetan, eragile hauetan oinarri harturik: lan legediaren beraren garapen bizkorra, estatuaren esku hartze sendoagoa, lehenengo lan kodearen agerpena, Oficina Internacional del Trabajo (OIT, *Lanaren Nazioarteko Bulegoa*) erakundearen sorrera, eta baita, neurri batean, Elizaren irakasbide sozialaren zabalkunde eta kontzientzia hartzea.

Aldi hau 1920. urtean hasi zen, Lan Ministerioa sortu zenean. Lan Ministerioa Gizarte Erreformatarako Institutuaren geldialdia gainditzen saiatzen zen. Izan ere,



langileek Institutua propagandarako erabiltzen zutela eta ugazabak uzkur ageri ziren erakunde horrekiko, eta horregatik zegoen moteldurik Institutua. Horrez gainera, lan arazoak zirela eta, gatazka asko izan zen garai hartan. Lan Ministerioaren bidez Estatuak lan harremanetan esku hartu zuen, ez bitartekari gisa, orain arte bezala, hartan parte zuen aldetik baizik. IRS, INP eta ordura arte barreiatuta zeuden Administrazioako beste bulego batzuk bildu zituen Lan Ministerioak.

Gizarte arazoei buruzko legeak emateaz gainera, urte horietako gertaerarik garrantzitsuenetako bat Bitariko Batzorde sistema ezartzea izan zen. Bartzelonan sortu ziren erakunde horiek, ugazaben eta merkataritza sektoreko langileen artean sortutako gatazkei konponbidea emateko beste eginkizunik gabe. Batzorde bakoitza ugazaba eta langile kopuru berberak osatzen zuten, magistratu baten ardurapean. Han hartutako erabakiak nahitaez bete beharrezko ziren bertan ordezkatuak zirenen aldetik.

1922. urtetik aurrera sistema hori zabalduz joan zen industrian eta ofizioakako taldeen artean, baina 1926an orokor eta nahitaezko bihurtu zen, hierarkiaren araberako mailaketa batean elkaturik, eta Diktadurak amets egiten zuen ordena sozial berriaren oinarri gisa, Lan Nazionalaren oinarri gisa alegia. Sektore jakin batzuetako bitariko batzordeak biltzen zituzten elkargoetan artikulatzen zen hau. Lantaldeek zuzenbide publikoko erakundeen izaera hartu zuten, lanbideari buruzko gorabeherak arautzeko. Haien eskurantza handienetako bat lan baldintzak, soldata, ordutegia, atsedendia, eta oro har, lan kontratuak egiteko oinarritzat har zitekeen guztia zehaztea zen.

Urte hauetako hirugarren ezaugarririk garrantzitsuena 1923. urteko Errege Ordena izan zen. Honen bitartez 1916 eta 1917. urteetako bi dekreturen eragin eremuak zabalera handiagoa hartu zuen, sektore publikorako lan egiten zuten enpresei, enplegatuek eta langileek eratutako legezko elkarte izate bera, aipatu bi dekretuen arabera aitortzen zitzaiena, enpresa pribatuei ere aitortuz. Enpresak behartuak zeuden beren enplegatuek eratutako elkarten nortasuna ezagutzera, eta hauekin batera tratatzen zituzten lan baldintzei buruzko eskakizun edo eskabide kolektiboak, eskabideok negoziazio molde bakezkoetara eramaten saiatuz.

Negoiazio kolektibo honek ez zuen berriazko arautegirik, eta ez zen nahitaezkoa. 1921ean gehiengoak hitzartutako itunaren oinarriak sektore bateko kide guztiek nahitaez betetzekoak zirela esan bazen, 1926an atzera bota zen nahitaez betebeharrezko izate hori, eta Bitariko Batzordeak berretsitako itunei baino ez zitzairen nahitaez betebeharrezko zirenik aitortu. Bigarren Errepublikan eman zitzaion negoziazio kolektiboari berari zegokion lege multzoa.

Xedapen hauek guztiak gorabehera, lan harremanak ez ziren askorik aldatu. Negoiazio kolektiboan tradizioa zuten sektoreen artean legedi berriak tradizioa

sendotu besterik ez zuen egin, xedapen berrietara egokituz. Beste sektore batzuetan langileen eta enpresarien arteko gatazkak, itunez erabaki ezinak, lehen bezain handiak izaten jarraitu zuten gero ere.

#### **2.4. 1931-1936**

Estatuaren esku hartzeari dagokionez, errepublika garaiko Lan Ministerioak iritsi zuen gorengo maila; estatuaren esku hartzeko joera hori askoz handiagoa izan zen Errepublika garaian Diktaduran baino. Tentsio sozialak berriro gora egin izanak eta gobernari berriek “iraultza juridikoa” deitu izan zaionari ekiteko izan zuten intentzio politikoa testuinguru horretan kokatzekoak dira.

UGTko Francisco Largo Caballero Lan ministroaren sail bereko legedia lan administrazio zentralizaturako proiektu berrizalea izan zen; Kataluniak bakarrik zituen zenbait eskumen hartan. Ministeriotik probintzietara, goitik behera zihoan aginpide lerro bat eratu zen, eta behetik gora, aholkurako lerro bakarra, indar sozialek parte har zezaketena. Erakunde parekideei eskumen gehiago eta ahalmen handiagoak eman zitzaizkien; hartara, lan harremanak egituratzen zituzten ardatz bihurtu ziren erakundeok. Politika honek, sindikatuen zereginari lehentasuna ematen ziolarik –UGTrenari batez ere–, ugazaben eta CNTren erresistentzia ekarri zuen, eta urte haietako lehen grebei bide eman zien.

1934. urterako Lan Zuzenbidearen oinarriak aurreratuak zeuden, eta erabat instituzionalizatua Estatuaren esku hartzea. Hala, 1931. urteko Lan Kontratuaren Legeak lan harremanak zehatz ezarri zituen; 1932. urteko Lanbide Elkarteen Legeak harreman kolektiboak arautu zituen; Auzitegi Mistoei, bere Industria Auzitegiekin, Bitariko Batzordeen tokia hartu zuten, eta Gizarte Auzietarako Aretoa sortu zen Auzitegi Gorenean (1931), lan harremanetarako marko legal gisa; 1932. urteko Lan Ezbeharretarako Legea 1900. urteko legeekin hasitako aseguru sozialen errejimenaren osagarri izan zen. Laburbilduz, Estatuak administrazio sare zabala zuen ordurako, lan munduko ia gai guztietan eragina izan zuena. 1933. urtean alderdi eskuindarrak garaile irtetea aurreko bi urteetan egindako lana hutsean geratu zen neurri handi batean, eta 1936an ezkertiarrek gobernura itzultzean baino ez zitzaion ekin berriro berrikuntzari.

### **3. Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila**

1931ko apirilaren 14an, Bigarren Errepublikarekin, Espainiako historiaren aldi berri bat hasi zen. Errepublika garaia ezaugarri nagusia, bai politikan bai gizarte eta lan arazoetan, mobilizazio eta gatazka askoko aroa izatea izan zen. Ordurarteko Espainiako azken aldiko historiako beste edozein garaitan baino askoz borroka, lanuzte eta negoziazio gehiago egin ziren errepublikan, baina

horretaz gainera, aurreko urteetan izan ez ziren edo indarrean jarri ez ziren negoziazio kolektiborako bitartekoak egonagatik orduan, indarkeriazko presio bideak erabiltzeagatik da batez ere ezaguna aldi hura.

Borroka giro hau ez zen errejimen berriarekin batera hasi; izan ere, Errepublikak bake giroan iritsi zen, kontrola ezinezko mugimendu masiboek bakea hautsi gabe. Baina egoera horrek ez zuen luze iraun. Hainbat arrazoi dago garai honetako borroka sozialak zergatik biziagotu ziren azaltzeko. 1930. urtetik aurrerako krisi ekonomikoak geroago jo zuen Espainia, baina gainerako herrialdeetan bezala Espainian ere langabeen kopurua izugarri handitu zen haren eraginez.

Baina arrazoi politikoak eta arrazoi sozialak izan ziren batez ere gatazka giroa handitzera bultzatu zutenak. Lurraren jabetzaren egitura latifundista gorde izanak eragin zituen batez ere hegoaldeko gatazka gogorrak. Gatazkek aldizka baina maiz gertatu ziren, kronologiaz industriguneetako gatazkekin batera etorri ez baziren ere. Grebek, berriz, badirudi zerikusi handiagoa izan zutela Espainiako sistema politikoaren aldaketekin eta alor politikoan eta sozialean nagusitasuna lortzeko ahaleginekin, bai ezker-eskuin arteko dinamika bati dagokionez, bai UGT zaleek eta CNT zaleek Espainiako langileria ordezkaritza nagusia lortzeko izan zuten lehiari dagokionez. Borroka hau eta Errepublikarekin, berez, langileen urtetako ametsak gauzatuko zirelako ustea erdi ustel irtenik, herrietako eta hirietako biztanleen sektore handietan iraultzaren aldeko sentimena eta politikaren aurkakoa erradikalago bihurtu zen, legedi soziolaboral berriak bere sustatzaile nagusiaren (UGT) itxarobideak zapuztu zituenean batez ere.

Errepublika garaiko lehen bi urteetan, erakunde sozialistak jarrera moderatua izan zuen, eta lan legedi zabalaz baliaturik, gatazken konponbide negoziatua bilatzen saiatu zen; jarrera hori hartu izanaren arrazoietako bat erakunde buruzagi nagusi eta Lan ministro zen Largo Caballerori arazorik ez sortzea zen. 1933an eskuindarrak garaile irten zirelarik, sindikatu sozialista CNTra hurbildu zen, errepublikako errejimen burgesak langileen helburuak gauzatzen ez zuela utziko, eta hartara, matxinada beste biderik izango ez zelako uste oso-osoan. Modu batean edo bestean, Lehen Internazionaletik heredatutako jarrera antiestatal bera gorde zuten bi erakunde horiek: Estatu burgesiaren instituzioa zen, honek bere aginpide maila eta esplotazioa ez galtzeko erabiltzen zuena. Nolanahi ere, CNT anarkistak Estatuaren desagertzea aldarrikatzen zuen bitartean, UGTren arabera langileen sindikatu erakundeen mendeko tresna bihurtu behar zuen hark.

Bi sindikatu horiek, beste erakunde politiko, enpresarial eta profesional batzuk bezala, ikusgarri handitu ziren Errepublika garaiko lehen urteetan. UGTk oso hazkunde bizkorra izan zuen, PSOEn hazkundeari eta egoera soziopolitikoari zor zitzaiena. Enpresa epaimahaietarako hauteskundeetan botoa emateko

nahitaez sindikatu batean izena emanda egotea izan zen bazkide kopurua handitu zuen arrazoietakoa bat. Ez, ordea, arrazoi bakarra. Adibidez, Lurraren Langileen Federazioa 1928an 50.000 kide izatetik 1932an 400.000 izatera pasa zen; guztira, 200.000 bazkide izatetik 950.000 izatera handitu zen.

CNTk, Diktaduran debekatua egon ondoren, lehen mailako tokia bete zuen berriro Espainiako sindikalismoan; izan ere, sindikatu eta politika esparruetako erakunderik indartsuena bilakatu baitzen, 1.200.000 kiderekin (1932). Kopuru hori murriztuz joan zen hurrengo urteetan, sindikalismoaren izaera iraultzaileari eta Iraultzan bete behar zuen paperari buruz barnean izan zituen tirabirengatik batetik, eta errepresioaren eraginez bestetik. Errepublika aldarrikatzearekin batera gatazka giroa gogortu izanaren protagonista CNT izan zen. Ugazabek eta sindikalistek, zeinek bere arrazoiengatik, ez zuten onartu UG Tk eta Largo Caballero diseinatu zuten lan harremanetarako sistema. Enpresariak sistema hark langileei negoziazio kolektiboetan abantailak eskaintzen zizkielako, itundutako lan hitzarrenak betearazteari zegokionez gehienbat. Anarkosindikalisten arrazoiak ziren, aldiz, sistema hark estatuari protagonismo handia ematen zion eredu bat ezartzen zuela, eta hori CNTren oinarri ideologikoen aurka eta hauen arerio zen UGTren alde zegoela. Aurkako jarrera horiei Errepublikako lehen uneetan langileen eta nekazarien sektore zabaletan sortu ziren itxaropenen ondoren etorri ziren frustazioak gehitu zitzaizkien, eta baita CNTko sektore erradikalenek bultzatzen zuten iraultza anarkosindikalista laster egingo zelako esperantza ere.

CNTk UGTri Madrilen, azken hauek indartsuen ziren tokian bertan, alegia, egiten zion konkurrentzia gero eta handiagoak ere jarrera erradikalagoetara bultzatu zuen sindikatu sozialista. Madrilgo kualifikazio urriko langileen artean (eraikuntzako peoiak eta zerbitzariak) sartzan hasi zen CNT, sindikatu dinamika berri bati bide emanez. Espainiako hiriburuan zuen itzala ez galtzearren, CNTk deitutako greba batzuei bere atxikimendua agertu zien UG Tk. Estatuko gainerako tokietan gatazka gogortzeko joerak askoz bilakaera motelagoa izan zuen, bizkorragoa probintzi hiriburuetan, anarkisten, eta gutxiago, komunisten gidaritzapean. CNTko sektore batzuen aldetik matxinatzeko saioak ere izan ziren, komunismo libertarioa aldarrikatzeko. Gudarosteak zapaldu zituen saio horiek, jende asko hil eta ehundaka atxilo harturik.

Lan arazoan esparrua gainditzen zuten eskakizunek eragindako greba orokorrrak ugaltzea izan zen Errepublika garaiko lehen urteetako gatazka giroaren ezaugarri nagusia. Monarkia aldiko greben maiztasunaren aldean (greba orokor bat bizpahiru urtez behin), Errepublika garaian hilabeteko aldearekin ere egin ziren. Grebak ugaltzeaz gainera, greba egitera bultzatzen zuten arrazoiak ere aldatu egin ziren. 1931-1933 bitarteko urteetako lanuzte gehienak elkartasun grebak, elkartzeko eskubidearen aldeko grebak eta zigorren aurkakoak izan ziren

(%24,4). Kopuruan beste hainbeste hartzen dute, gutxi gorabehera, beste arrazoi batzuegatik egindakoak, arrazoi politikoengatik egindakoak gehienbat; soldatengatik edo lana antolatzeko moduegatik egindakoak greba guztien %18,8 eta %16,1 ziren, hurrenez hurren. Aurreko aldietan soldatengatik egin izan ziren greba gehienak. Lan baldintzak hobetzeko ahalegina ikusten da, beraz, joera horretan, eta defentsazko jarrera hutsak alde batera uztekoa. Aipatu behar da, halaber, langileak gehiagotan irten zirela garaile galtzaile baino; hau ere sindikatuaren sendotasunaren erakusgarri da. Bestalde, gehitu egin ziren legez kanpoko greba deialdiak, lan harremanetarako sistema modernoagoa eta eraginkorragoa ezarri zen arren.

1933. urtearen bukaeran PSOE gobernutik atera zenean, alderdiko baseek jarrera erradikalagorako joera hartu eta matxinada bat prestatu zuten, 1934aren urrian CEDA eskuindar alderdia gobernu errepublikazalean sartzearekin lehertu zena. Iraultzaren erdigunea Asturias zen; han, eta Meatzarien Sindikatuaren zuzendaritzapean, sozialistez, komunistez eta CNTko kideez osatutako Iraultza Batzorde batek kontrolpean eduki zuen bi astez probintzia haren parte handi bat, harik eta gudarosteak matxinada saio hura zapaldu zuen arte. Estatuko gainerako tokietan iraultza mugimenduak, gaizki antolatua eta koordinaziorik gabe, beste era bateko moldeak hartu zituen: bakezko grebak alde batetik eta matxinada saioak bestetik. Mugimenduak huts egin zuen, ekaineko greba orokorrean galtzaile irten ondoren nekazariak parte hartu ez zutelako, CNTkoek erakunde “politiko” bati lagundu nahi izan ez ziotelako, eta erakunde hori behar bezala prestatu gabe zegoelako, beste arrazoi askoren artean. Matxinadak huts egin izanak, hari jarraitu zitzaion errepresioak eta langile elkartearen desitxuraketak gatazka giroa baretzea eragin zuten.

1935. urtean zehar ugazaben “errebantxak” eraginda gobernu eskuindarrak epaitegi mistoen eskumenak eta lehen bi urteetan lortutako abantailetak asko murriztu zituen. Langile asko bota zituzten lanetik, sindikatuetan parte hartzeagatik. 1936ko otsailean Herri Frontea garaile irten ondoren alderantzizkoa gertatu zen. Lehen bi urteetako lan legedia osorik ezarri zen berriro, eta sindikatuek kaleratuak berriro hartzera eta hauei kalteak ordaintzera behartu zituzten ugazabak. Ezkertiarren artean zegoen poz giroak bihotz eman zien eskakizun gehiago aurkezteko, eta horren ondorioz, beste greba sail bat egin zen udaberrian. Horrek eta okerrera egin zuen gatazka politikoak Francoren estatu kolpea eta, Uztailaren 18an, gerra zibila ekarri zituzten. Errepublika garaiko lan harremanetan parte hartu zutenak gehiegi arduratu ziren politika kontuaz, eta horren ondorio gisa, auziak konpontzeko bideak politikaren mende jarri ziren, hauek bideratu behar zituztenak zeinek zein bortxaz menderatu nahi izateraino. Enpresarien eta langileen arteko harremanak legezko bitartekoen esparrutik landa plazaratzeko joera gero eta handiagoa zela eta, arazoei negoziazio bidezko irtenbidea eman zitzaie-

netan izan ezik, lan arazoei buruzko eztabaidak buruz buruko borroka bilakatu ziren.

Uztailaren 18ko matxinada militarren erantzunez sindikatuek greba orokorrera deitu eta fabrikak hartu zituzten. Aldi berean, gerraren lehen fasean, sindikatuak eta gobernu errepublikazaleari leial izan zitzaizkion erakunde politikoak izan ziren herri miliziak osatu zituzten elementu nagusiak. 1936ko abuztuaren itzuli ziren langileak lanera, baina produkzio erritmoa motela zen. Nolanahi dela ere, bestelako asmoz, asmo guztiz desberdinez ekin zitzaion laneko iharduerari. UGTk eta CNTk kolektibizatu egin zituzten nekazaritza eremuetako asko. Kataluniako industrian, CNTk sustatu eta Generalitateak 1936ko urriaren 24an legeztatu zituen langile batzordeen eskuetan geratu zen enpresetako zuzendaritza. Matxinatutako militarren aurkako borrokari ekiteko eta, aldi berean, errepublikazaleen aldean iraultza soziala bideratzeko saioa zen hura. Saioak ez zuen arrakasta handirik lortu; gerrako gorabeherak, lehengaiez hornitzeko zailtasunak eta produktu askori buruzko eskariak murrizteak industria produkzioaren beherakada eragin zuten.

Koiuntura hartako zirkustantzia horri kolektibizazioaren aldekoek kontuan hartu ez zuten faktore bat gehitu zitzaion: langile askok, sindikatuetakoa kideak gehienak, uko egin zion gerra aurreko produkzio erritmo berari eusteari, enpresaren jabea aldatu izanagatik ere; honek argi eta garbi erakusten du klase kontzientziarik ez zutela. “Burgesiaren eragina” langileen artera zabaldua zela eta, sindikatuek pizgarri ekonomikoak eman behar izan zituzten berriro, pizgarri horiek abolitu ondoren. Langileek lanetik huts egiteko joerak erakusten zuenez, langileek alde egin nahi zuten fabriketatik, hauen arrazionalizazioa eta demokratizazioa gorabehera. Langile zuzendaritza berriak norma zorrotzak eman zituen, eta hark ezarritako araudia enpresa kapitalistaren kontrola bezain gogorra edo are gogorragoa izan zen.

Langilearen kultura politikoaren arabera, Estatu eta politika suntsituko zituen iraultza sozialaren subjektua behar zuen sindikatuak. Gerrako lehen hila-beteetan pentsamolde hori gailendu zen langile erakundearen artean, baina sindikatuek gerra zibilean galtzaile atera ondoren, desagertu edo ahuldu egin zen. Militarren aurrean ez ezik errepublikazaleen esparruan ere galtzaile irten ziren; izan ere, sindikatuek iraultza eta gerra, biak batera egin nahiak sozialisten, anarkisten, komunista eta errepublikazaleen barne tirabirak eragin baitzituen, 1937ko maiatzean Bartzelonan izan ziren borroka armatuetan lehertu zirenak. Gertaera horien ondoren sindikatuak barne egitura galduz joan ziren. Gerran galtzaile irteetan klandestinitatera pasa ziren, eta horrekin, aldi berri bat hasi zen Espainiako langile mugimenduaren historian.

## 3. Gaia

# Langile mugimendu berria estatu frankistan

### Aurkibidea

1. ESTATU FRANKISTAREN HASTAPENAK
2. GIZARTE GATAZKAREN ALDIAK
3. TRANTSIZIO DEMOKRATIKOA

### Kontsultarako liburuak

- Benito del Pozo, C., *La clase obrera asturiana durante el franquismo.*, Madril, Siglo XXI, 1993.
- Fontana, J. (arg.), *España bajo el franquismo*, Bartzelona, Crítica, 1986.
- Juliá, Santos, “Sociedad y política”, Tuñón de Lara, M.-ren zuzendaritzapeko *Transición y democracia (1973-1985)*-tik hartua, Bartzelona, Labor, 1991, 27-186 orr.
- Pérez Ledesma, M., *Estabilidad y conflicto social. España, de los iberos al 14-D*, Madril, Nerea, 1990.





## 1. Estatu frankistaren hastapenak

Espainiaren 1930. ondoko urteetako bilakaera politikoaren eta sozialaren ete-naldia ekarri zuen frankismoak. Errejimen berrian Francisco Franco jeneralaren gidaritzapean bildu ziren talde desberdinen ezaugarriez osatua zegoen ideologia mulkoak ez zuen klase borrokarik onartzen. Marxismoan edo anarkismoan oinarri hartuta sortu ziren langile elkarteen eraginari egozten zitzaizkion klase borroka horretatik etorritako gizarte arazoak. Logikoa zen, beraz, asaldariek errepublika garaiko lan harremanen sistema errotik aldatu nahi izatea.

Altzamen duaren aldekoek 1936an hartu zuten lehen neurrietako bat, kontratatzeke edo lana antolatzeko askatasuna mugatzen edo lana bertan behera uzten zutenak –enpresari edo langile izan– bazter nahasletzat jotzea izan zen. Nahiz eta lehen xedapen hau gatazka armatuaren barruko logikan sartzen zen, gorabeherarik gabeko produkzioa lortzeko beharra zela eta, faxistek produkzio ihardue-ra “gehien onerako” bezala hartzen zen erabaki haren funtsa. 1936ko irailera-ko sistema berriaren arerioak nabarmen geratu, eta legez kanpo utzi ziren Herri Frontean parte hartu zuten erakunde politiko eta sozial ezkertiar eta/edo nazionalista guztiak. Hilaren 25ean debekatu egin ziren iharduera politiko guztiak eta baita izaera politikoak zuten langileen eta ugazaben sindikatu etakoak ere. Gerrako bitarte luze batean zilegi izan zen langileak lanetik botatzea, errepublikazaleekin zerikusirik izanda edo izan gabe ere. Lehen hezkuntzako maisu askoren eta beste funtzionarioen jokabideari buruzko argibideak eskatu ziren, horietako asko beste probintzi batzuetara bidaliak edo irakasle izatetik betirako egotziak izan ziren. Xedapen horiekin batera errepresio sistematikoa bideratu zen, aurreko edozein gobernurena alde guztietatik gainditu zuena, eta gerra zibila amaitu ondoren ere luze iraun zuena. Enpresa eta estatu zuzendaritzatik jalgitako xedapenei langileek baldintzarik gabe men egin ziezaieten lortzea zen horren guztiaren azken xedea.

Diktadura eta errepresio bidezko jokabide hori lan harremanetarako sistema berria eraikitzeke lehen saioen bidez osatu zen; delako sistema hori estatuko agintaritzatik jalgitako gidabideen mendean zegoen osotara. 1958. urtea arte lan munduari zegokion gorabeherarik txikiena ere kontrolatzen saiatu zen estatuaren esku utzi behar izan zuten enpresarietako eta langileek beren autonomia. Lan eta gizarte legedi berritua izan zen sistema horren oinarrietako bat. Herri Frontea garaile irten zen 1936ko otsaila baino lehenagoko legedia hartu zuen frankismoak abiapuntutzat, greba eskubidea indargabetu zuen eta enpresan ordezkari-za izateke edo era autonomoan antolatzeko eskubidea kendu zien langileei.

1938koak dira frankismoak lan hastapenei buruz agertarazi zituen lehen xedapenak: Falangearen dotrinan eta Italiako faxismoan oinarritzen zen Lanaren

Forua delakoa. Hartan diktaduraren oinarriak baiesten ziren, ugazabak enpresako agintaritzaz edukitzearena esate baterako, gizarte legedi orokorrarekin batera, non aipatzekoa zen, besteak beste, lana izateko eta ez galtzeko eskubidearen aldarrikapena, langilea kaleratzeko askatasuna mugatzen eta oztopatzen zuena.

Oinarri falangistak indarrean egon ziren denborak ez zuen luze iraun. 1944ko Laneko Kontratuen Legediak hitzarmenean oinarritu zuen berriro lan harremenen erabidea. Baina estatuak hartan esku hartzeko zituen mekanismoak ez ziren desagertu, eta horietako bat, garrantzitsuena, langileei gehienezko soldata ezartzea izan zen; hala ere, mekanismo horien gaineko kontrola ez zen eraginkorra izan, eta ezin izan ziren lansarien “ezkutuko” hobekuntzak galarazi. Soldata oso txikia zen, eta haren gehigarri gisa, dirulaguntza sistema bat bideratu zen, ongintzaren eta gizarte zerbitzuen artean zegoena: familiagatiko plusak, ekonomatoak, aparteko ordainsariak, laneko antzinatasuna, e.a. Baina, batzuetan, laguntza horiek ematearen aurkako jarrera hartu zuten enpresariak, eta produktuen prezioak goratzen zituzten eta etengabe handituz zihoan inflazioa eragiten zuten haiek berdintzeko. Osagarri horiek soldatetan zuten eragina edo eragiten zuten onura hala-holakoa izanagatik, langileen ihardunbidearen oinarri bihurtu ziren, eskubidea baitzuten hauek enpresari bete zitzaizkizkiz.

Errepublikara garaiko Auzitegi Mistoaren ordean Lan Magistraturak sortu ziren 1938an. Auzitegi hauek frankismoaren kontrol erakunde nagusi bihurtu ziren lan arazoetan. Langileek, lehendabizi, enpresariaren zigorra bete behar zuten, erabaki hura gorago helarazi nahi bazuten. Salatutako enpresariak berriz, magistraturak ebazpena eman arte ez zuen zuzenketa egin beharrik. Epailak, bestalde, askoz hurbilago zeuden, gizarte mailez zein ideologiaz, enpresariengandik. Horrenbestez, are babes urriagoa zuten langileek lan arazoetan, abokatu defendatzailek ere ez baitzuten erakunde horietan.

Agintarien esku hartzea ez zen horretara mugatu. 1942. urtetik 1958. urtera, Lan Arautegiak zirela medio, lan politikaren estatalizazioa gertatu zen. Lan Arautegi hauek Lan Ministerioak ematen zituen, industria sektore bakoitzarentzat, eta alor asko hartzen zituzten: zegozkion iharduerak zehaztetik hasi, lanaren antolamendua –enpresaren ardura izan ohi zena, baina “gizarte zuzenbidearen oinarriak” mugaturik– bideratzeraino; tartean geratzen ziren langileen sailkapena, lantokian sartzeko eta mailaz igotzeko baldintzak, lanaldiaren iraupena, ordainketak, baimenak, sariak, zigorrak, e.a. zehaztea. Xedapen horietako asko, betearaziko zituen kontrolerako mekanismorik ez izateagatik, baliorik gabe gelditzearen errua estatuaren paternalismoari zegozkion. Aipatzekoa da, emakumezko langileak hartzeko ohitura handirik ez zuten lantegietan, ezkontzen ziren emakumeek lana utzi behar izaten zutela, eta senarra ezindurik suertatzen edo hiltzen bazen baino ez zutela itzultzerik izaten. Arautegi horiek, zurrinak zirenez, eta

eskualdeen edo industriaren ezaugarrietara behar bezala egokitzen ez zirenez gero, eraginkortasun urria izan zuten, eta garapen ekonomikoak hura baino legedi malguagoaren beharra izan zuenean alferrikako bihurtu ziren.

Sindikatu egitura bateratu batek, Organización Sindical Española-k (OSE, *Espainiako Sindikatu Erakundea*), osatzen zuen lan harremanetarako sistemaren eraldaketa. Sindikatu berriak matxinada frankistan bat egindako taldeak bildu zituen Falange Española Tradicionalista alderdiarekin (FET) lotura izateaz gainera, estatuko aparatuen barruan ere sartzen zen, eta frankismoaren erakunde oinarritzko atala osatzen zuen. Falangistek eta korporatibista katolikoek eraikitako teoriak gauzatzera jo zuen hasieran OSEk; Espainiako gizartea korporazioka antolatzerantz alegia, sindikatu egituraren inguruan interes berdinetarantz joko zuten produktoreen komunitate bat eratuz, hala klase borroka desagertuko zelakoan.

Falangismoaren eragina ahuldu zenean, 1945. urte aldera, sindikatuak gizartea bideratzeko jokatu zuten papera sistema politiko orokorraren interesen mende jarri zen osotara. Enpresariak agintariaren papera hartu zuen berriz ere, baina enpresako zuzendariarena ez ezik, baita Estatuaren eta FETen aginpidearen bermatzailearena ere enpresan bertan. Haatik, lan merkatua arautzen zuten mekanismoek, sindikatuaren bidez, Estatuaren mende jarraitu zuten aurrerantzean ere. Sindikatuak, gainera, lan arazoengatik gatazkak eragozteko arduratu zuten; langileak sailkatzen zituen horretarako, eta abantailak eskaintzen zizkien mailaz igotzeko eta gizarte laguntza jasotzeko. Errepresio aparatuari eustek, ordea, argi eta garbi adierazten zuen erakunde berria ez zela lan arazoak bide eraginkorretatik bideratzeko gai, eta ahalmen urrikoa zela integrazioa lortzeko ere.

Hori guztia legezko xedapenez beteriko eztabaida prozesu luze baten emaitza izan zen, produkzioko sektore bereko enpresariak eta langileak erakunde bakar batean biltzen zituelako “sindikatu bertikala” izenez ezagunagoa zen OSE delakoa, 1940an gauzatu zena. Behar-beharrezkoa zen OSEn izena emanda egotea, hura baitzen Estatuak ezagutzen zuen erakunde bakarra. Erakunde berri haren antolakuntza, burokraziak guztiz menderatua zuena, hierarkia mailen arabera zegoen banatua, erdiko karguak izendatzen zituen Delegado Nacional (*Nazio Ordezkeri*) baten ardurapean. Bazkide zirenek hartan parte hartzeko aukera bakarra, eta 1943. urtetik aurrera soilik, karguak hautatzeko zen –lehen mailako postuak, enpresako artekariak eta juratuak, eta tokiko karguak–, guztiok tokian tokiko sindikatu ordezkariek prestatutako zerrendatik aukeratzekoak zirelarik. 1944an egin ziren lehen hauteskundeak, sindikatuaren oinarri soziala zabaldu nahian.

Egitura sare hau ezartzeko garaian gerrak suntsitua zegoen Espainia, biztanle gutxi, langileen %51,9k nekazaritzan ziharduela, industria deseginik eta kide berriz hazi zen zerbitzuen sektoreko talde bakarra Herri Ordenarako Inda-

rrren taldea (Fuerzas de orden Público, FOP) zela. Pertsona bakoitzeko errenta XIX. mendeko kopurueta jaitsi zen. Lehengo agintari klaseak ekonomian, gizartean eta politikan zuen aginpidea, errepublika garaiko erreformismoak gal-zorian jarri zuena, are gehiago indartu zen horrela.

Espainiako politikaren eta ekonomiaren bakartasun egoerak herrialdearen ekonomiaren garapena atzeratu zuen. Teknologiaren berrikuntzarako tresnen inportazio ezari aurre egiteko errejimenari ez zitzaion langileen gaineko presioa handitzea baino gauza hoberik bururatu. Energiaren hornidurarako oinarrizkoa zen Asturiasko meatzaritzan, esaterako, langile gehiago hartu ziren, laneko denbora hamar ordu baino gehiagoko lanaldietara luzatu zen, asteko jai egunik edo urteko oporraldirik gabe utzi zituzten, e.a. Hartutako neurri horiez gainera erre-presioa ere latza izan zen, eta lan harremanak soldadutzakoekin parekatu ziren: lanari uztea desertzioa zen, istilutan sartzea mendekotasunari uko egitea eta sesioan aritzea matxinada militarra. Herriaren zuzpertzeko ekonomikoa hasi eta gero, industrian langileak behar zirela, eta nekazaritza giroko lanetan soldatak txikiak zirela eta, nekazariak hirietara joan ziren; hala, 1950-1970 bitarteko urte-tako hiritaratze hura benetako exodotzat har daiteke. Hirietako langile klasea kualifikazio handiagoko langintza mailetarantz lerratu zen. Inmigrazioa eta industrializazio prozesu berria zirela bide, hirietako biztanleriak, oro har, eta industriako langile klaseak, bereziki, hazkunde nabarmena izan zuten. 1939an, Espainian, bi milioi langile ziren industrian, 3.850.000 1964an eta 4 milioi baino gehiago 1970ean. Errepublika garaian, lanbidea egituratua zegoen moduan, langile gehienak kualifikatu gabeak eta peoiak baziren, orain, sektore hura osatzen zuen langileria hiru laurdenak gutxi gorabehera langile kualifikatuak ziren, eta horietako gehienak metalurgian, siderurgian eta eraikuntzan ziharduten. Bestalde, langilearen gizarte ingurunea ere aldatua zen. Bizirik iraun ahal izatea beste eginkizunik ez zegoen gerra osteko aldi haren ondorengo langile eredu berriak ezaugarri hauek zituen: industrian lan egiten zuen, ez zuen langunea galtzen, langile kualifikatua zen eta, auzategi homogeneo batean, etxebizitza baten jabe zen. Langile hau –eskakizunak eta bideratzeko, hurbileko tradizioz gabe– kultura politiko berri bateko eta eskakizunak bideratzeko modu berri bateko protagonista bilakatu zen, ekonomiaren eta politikaren egoerak hartarako aukera eman zion neurrian.

## **2. Gizarte gatazkaren aldiak**

### **1939-1955**

1939. eta 1955. bitarteko urteak, gerra osteko ondorioak zirela, miseria eta errepresioa zirela, gatazka urriko urteak izan ziren. Espetxeetan 300.000 preso baino gehiago zeuden pilotuta, langile sindikalistak horietako gehienak, eta beste

asko edo hilak ziren edo erbestean bizi ziren. Espetxetik atera ondoren askok eta askok arazoak izan zituzten lana lortzeko. Errepublika eta gerra garaian protagonista izan ziren erakundeak desagertuak ziren ia-ia; talde txikitik eta elkarrengandik bereizita baino ez zuten iraun. UGTk, gainera, arazo berezi bati aurre egin behar izan zion; izan ere, sindikatu sozialistari, 1888an sortu zenez geroztik ia beti legezkoa izateak zaildu egin baitzion ezkutuko egoerara egokitzea.

Ez da ahaztu behar, bestalde, gizarteko alderdi askotako babesaren eta bere inguruan ehundutako konplizitate sare baten laguntza zuela errejimenak. Langile berrietatik asko gerra zibila frankisten taldean egin zuten nekazari ohiak ziren. Industria berrien sorrerari esker gizarte mailan gora egin zuen langileetatik asko –enpresari txiki bihurtzeraino– gustura bizi zen errejimen frankistarekin. Nekazari inguruetatik emigranteentzat, egoitza hartu zuten toki berrietan bizi maila apaleko bizimodua eraman eta zailtasun ugari izanagatik, aldatzea hobera egitea zen, eta une hartako egoera politikora egokitu ziren. Oro har, maila apaleko bizimoduak egunean-eguneango arazoak konpontzera, janaria eta etxebizitza lortzera behartu zuen. Familiako senide guztiek –emakumeak eta, sektorearen batean, haurrak barne– oso lanaldi luzeak zituzten eta, askotan, lantoki batean baino gehiagotan lan egiten zuten. Egoera horrek eta beldurrak arras urritu zuten beste iharduera mota batzuetan aritzeko aukera.

Munduko egoerak, “gerra hotza” hasi berria zelarik, “zaleak” erakarri zizkion Francori Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan. Aldi berean, galarazi egin zuen erbesteko erakundeen arteko lankidetzak, elkarrekin guztiz haserre ziren sozialisten eta komunisten artekoa bereziki. 1940. urte ondoko hamarraldiaren bukaera aldean beren egiturak berriro eraikitzen hasi ziren komunistak Espainian. Are gehiago, errepublikaren aldeko gainerako alderdien iritziari guztiz aurka eginez, errejimen frankistak uzten zizkien zirrikituz baliatzea erabaki eta sindikatu bertikalean sartzen hasi ziren. Hala ere, politika berri horren emaitzak ez ziren 1960-1970. urteak arte ikusi. CNTk, bere aldetik, ez zuen egoera hartara egokitzen jakin, eta ezin izan zuen, lan mundura sartzen ziren gazteen artean, militante berririk beretu. Laburbilduz, langile klasearen parterik handiena, ikusirik pairatzea suertatu zitzaion egoera soziopolitikoak, axolagabekeria murgildu zen, ez bazen etsipenak gutxiasko eragindako erosotasunean erori.

Lan arazoengatik gatazka giroa pixkana eta han-hemenka berpiztu zen, herrian zabaldua zen behartasunak eta lan baldintzek eraginda. Autarkia aldiak 1959. urtea arte iraun zuen; ezaugarri hauek izan zituen negargarritzko egoera horrek: gosea, errazionamendu kartilak, munduko aurrerapen teknikoekiko etena, ustelkeria, e.a.; bien bitartean, lan egoera okerrera zihoan. Soldata nominalen bilakaera eta prezioen igoera desberdina izateak argitzen du zergatik izan

zen lansariaren aldeko borroka gatazkaren eragile nagusia aldi hartan eta frankismoak iraun zuen ia bitarte guztian.

##### 5. Koadroa. Soldaten bilakaera eta prezioen gorapena 1936-1947 urteetan

	1936	1946	1947
Soldata nominalak.....	100	119	130
Prezio ofizialak.....	100	480	539
Ezkatuko prezioak.....	100	1117	1033

Iturria: M. González Portilla eta J. M. Garmendia, *La Posguerra en el País Vasco: Política, acumulación, miseria*, Kriselu 1988, 185. orr.

1944. urte inguruan hasi ziren asturiar langileen protesta agerikoak; ematen zitzairen janari kopurua handitzea eskatzen zuten. Norberak bere borondatez lanean errendimendua gutxitzea, laxokeriaz lan egitea eta produkzio langunea uztea maiz hartzen ziren neurriak ez baziren ere, horiek ziren ohizko erresistentzia jarrerak, lan baldintzen aurkako jarrera adierazteko bideak. 1947an Bartzelonako enpresa batzuetan lanuzteak egin ziren eta greba orokorra deitu zen Euskal Herrian maiatzaren lehenean. Lurralde honetan arrazoi ekonomikoak eta politikoak, biak batera gertatu ziren. Bigarren Mundu Gerraren irabazleei errejimen frankistaren ahultasuna erakusteko errepublikazaleek egin zituzten ahaleginen artean sartzen ziren arrazoi politiko horiek. Ia Bizkaia eta Gizpuzkoa osoan zabaldu zen greba hark zenbait egun iraun zuen. Bizkaiko Gobernu Zibilaren aginduz 14.000 langile kaleratzearekin amaitu zen lanuztea.

1951n beste greba bat egin zen Bartzelonan, tranbiako txartelaren prezioaren eta, zeharbidez, beste gauza batzuen prezioak jasotzearen aurka. Sindikatuko artekari ez falangistek eta militante katolikoek deitu zuten lanuztea. Urte horretan bertan beste greba bat egin zen Euskal Herrian, lansari txikiengatik eta zeramaten bizimodu kaskarrarengatik protesta egiteko, aurreko mobilizazioak atzean izan zituen arrazoi politiko berberekin. Euzko Alderdi Jeltzalea izan zen grebaren bultzatzaile nagusia. Baina NBERen aldetik Espainia frankista ezagutzeak hutsean utzi zuen estrategia hau, erakunde errepublikazale gehienek bereganatua zutena; horren ondorioz, erakunde hauek ere hondoa jo zuten. Ziklo honen amaierarekin batera, XX. mendearen lehen herenaldian langileriaren kultura itxuratu zuten erakunde tradizional guztiak desagertu ziren. Horiekin batera *langile izateko* modu bat bukatu zen Espainian.

Garai hau, ordea, hurrengo aldian garrantzi handia izan zuen gertaera baten sorreraren lekuko izan zen. 1946an, Belgikako ereduari jarraituz, langileen gizarte arloan lan egiteko prestatutako mugimendu katolikoak sortu ziren: Hermandad Obrera de Acción Católica (HOAC, *Ekintza Katolikoaren Langile*

*Anaiartea*) eta Juventud Obrera Católica (JOC, *Langile Gazteri Katolikoa*). Berez, langileak Elizatik urruntzen ari zirelako Aita Santuak zuen kezkatatik sortu ziren mugimenduok. 1950. urtetik aurrerako hamarraldiaren bukaera arte beren elkarteak sendotzera eman ziren, kristau militanteen eta langileen heziketaren bidez. Ekintza Katolikoko militanteak eta errejimenak legez kanpo utzi zituen ezkerreko erakundeetako pertsonak sartu ziren elkarte horietara. Denborak aurrera egin ahalean elkarte horien eta Estatuko eta elizako hierarkien arteko tirabirak handituz joan ziren, baina elkarri argi eta garbi aurre egitera iritsi gabe.

### 1956-1970

Urte hauetan, arrazoi ekonomikoak zirela medio, gatazka giroak handitzera jo zuen. Langile klase berri bat, erakunde tradizionalekin loturarik ez eta 1940-1960 bitarteko urte latzetan bizirik irautea lortu zuena, izan zen gatazka horietako protagonista. Errejimen frankistaren egituren zurruntasuna izan zen gatazka haietako askoren eragilea; izan ere, errejimenak ezin zien sartaldeko ekonomia-aren hazkundeak bultzatuta biziki laster aurrera zihoan gizarte baten eskakizunei behar bezala erantzun. Sindikatu bertikalen inguruan eraturiko sarearen eta estatuaren larderiaren –Lan Ministerioak, eta ez bestek, erabakitzen zituen lansariak eta lan baldintzak– zurruntasuna agerian gertatu zen 1956-1959 urteetako ekonomia-aren krisialdian. Iruñean hasi ziren grebak eta, gero, Bartzelonara eta Euskal Herrira zabaldu ziren eta, 1957an, Asturiasera, non, lehen aldiz, langile batzordeak eratu ziren fabriketan langileen beraien antolakuntza bideratzearen.

Arazo honi erantzuteko bi neurri, biak batera, erabili zituen errejimenak: errepresioa batetik eta langileen egoera hobetzea ekarri zuten neurriak bestetik: gutxieneko lansariak eta, Lan Hitzarmen Kolektiboen Legean (1958) oinarriturik, lan harremanetarako sistema berria ezartzea, alegia. Azken finean, lege horrek berekin ekarri zuena Lan Foruan ezarritako oinarriak behin betirako baztertzea izan zen. Aditu batzuek, ordea, ez dute onartzen lege hori negoziazio kolektiboaren arabera izan zenik, enpresaria eta langilea, enpresaren gorabeheren berri izan gabe eta ugazabak presionatzeko legezko bitartekorik gabe azken hau, ez baitziren elkarren berdin negoziazio horretan.

Sistema berria onuragarri zitzaion langileriarri, hitzarmen prozesuetan esku hartzeko eta lansari hobeak lortzeko bidea zabaltzen ziolako. Lansaria gehitzea, ordea, produkzioa gehitzearen arabera izan zen, eta hori horrela izatea enpresaren onerako zen. Soldatak eta lan baldintzak enpresariaren eta langileen ordezkariekin artean hitzartuko ziren zuzenean, estatuaren monopoliorik gabe. Hala ere, estatuak bere gain hartzen zuen lan hitzarmen kolektiboen kontrol osoa, Espainiako Sindikatuen Erakundearen baitan eraman behar baitzen aurrera hitzarmenei buruzko negoziazioa.

Hasi erabili beharreko soldata sistemei eta errendimendu gehigarrii buruzko gaietatik, lanbideak sailkatzeko irizpidei buruzko gaietaraino sar zitezkeen lan hitzarmenean, lan metodoei eta gizarte zerbitzuei (erientzako edo lan ezbeharretan zaurituentzako osagarriak, oporrak...) zegozkienak tartean zirela. Iraupenari dagokionez, aldeak izaten ziren lan hitzarmenen artean; zehazten ez bazen, jakintzat ematen zen bi urteko iraupena izango zuela, eta urtero luza zitekeela. Haren aplikazio eremuari dagokionez, lan hitzarmenak toki bat, probintzia bat edo probintzia batzuk har zitzakeen, edo, besterik gabe, enpresa bat edo enpresa baten sail bateko langileak. Hartan esaten zena ezin zitekeen enpresaren interesen, ez nazioaren disziplinaren edo ekonomiaren kaltetan izan, eta, behin prestatu ondoren, beharrezkoa zuen laneko agintaritzaren oniritzia jasotzea. Akordio-rik ezean, laneko agintaritzak *Norma de Obligado Cumplimiento* (NOC, *Nahitaez Bete Beharreko Araua*) izeneko araudia eman ziezaikeen alde biei. Askotan langile sektore suharrenei eta negoziatzeko indar handiena zutenei aplikatu zitzaizen NOC delakoa. Nolanahi ere, Estatuak beretzat gordetzen zuen soldatak lehenean uztea agintzeko edo gehienezko soldatak ezartzeko eskubidea, eta hala, ekonomiaren hazkundearen mendean uzten zituen. 1973. urtetik aurrera bizi kostuaren indizearen arabera igo ziren soldatak, produktibitatearekiko loturetatik askatuz hauek.

Lege horrek zabalduetako aukerak zirela bide, gero eta erreibindikazio mugimendu eta greba gehiago egin ziren; hala ere, horrek ez du esan nahi lan hitzarmenen eta gatazken artean lotura zuzenik izan zenik beti. Hala, lanuzteetatik asko lan hitzarmena negoziatzean sortu baziren, beste enpresa batzuetan, berriz, huraxe zen gatazka amaitzeko bidea. 1962. urtean negoziazio kolektiboaren erabilera orokor bihurtu zen; urte hartako beste ezaugarrietako bat, greba askotako urtea izatea izan zen. Asturiasko meatzeetan hasi ziren grebak, eta Euskal Herriko, Kataluniako edo Madrilgo metalurgiara eta Kataluniako ehungintzara eta gainerako meatokietara zabaldu ziren. Gobernuak, erantzun gisa, salbuespen egoera ezarri zuen gatazka guneetan eta baimena eman zuen langileen soldatak jasotzeko. 1966tik aurrera gehitu egin ziren protestak, industriagune tradizionaletan batez ere.

Garai horretako grebek hogeita hamar urte lehenagokoek ez bezalako ezaugarriak zituzten. Enpresa handienetan eta metalaren sektorean –frankismoan gehien hazi zen sektorea azken hau– lan egiten zuten langile kualifikatuak izan zituzten protagonista, eta ez, errepublika garaian bezala, eraikuntzako langileak edo nekazaritzako besalariak. Gainera, aurrerantzean, fabrika izan zen, plazaren edo kalearen orde, gatazkalkakua. Lantokian, arazo jakin batzuen inguruan, eta gehienetan oposizioko talde politikoen edo sindikalisten iharduera urriarekin



loturarik izan ez zuen langile mugimendu sortu berria izan zen gatazka gogortu zuena.

JOC eta HOAC erakundeek garrantzi handiko papera jokatu zuten gatazka horietan. Erakunde horiek, elizako hierarkiarekin gero eta muturtuago zebiltzanak, salaketa eta erribidinkazio ekintzak egin zituzten, eta langileriarri buruzko informazioa zabaldu zuten prentsaren bidez. Bestalde, sindikatu bertikalaren alternatiba izan nahi zuten sindikatu elkarte berrien sorrera ere bultzatu zuten; adibidez, 1959an, Unión Sindical Obrera (USO, *Langileen Sindikatu Batasuna*) sortu zuten. Baina, 1966. urtetik aurrera, berehala ahuldu ziren elizarekin zerikusia zuten mugimenduak, hauen aurrerabideari gotzaiek oztupoak jarri zizkietelako, langile mugimendu berri bat erne zelako, eta ideologia iraultzaileekin hitz egiteak “fede galtzeak” eragin zituelako. JOC eta HOAC erakundeen laguntzak garrantzi handia izan zuen espainiar langileen egitura sarea eratzeko. Erakunde hauen ekarrien artean aipagarriak dira, besteak beste, miseriaren aurkako salaketa zehatzak eta lan arazoei buruzko informazioak, estabilizazio planaren eta plan honek langile klaseari zekarzcion ondorio kaltegarrien aurkako kanpainak, langile mugimenduari heziketa sendoko militanteak eman izana, eta greban zeuden langileen aldeko elkartasun ekonomikoa bideratzea, legeak horrelakorik egitea debekatzen zuen garaian.

Sindikalismo berria talde malguen eta irekien bidez antolatu zen, uanean uneko beharrei erantzuteko asmoz sortu ziren langile batzordeen bidez alegia. Denbora iragan ahala erakunde sendoak osatu zituzten, eta deitura hura, Langile Batzordeak (*Comisiones Obreras*, CCOO) alegia, hartu zuten beretzat. Berezko sorrera izan bazuten ere, komunistek gero eta eragin handiagoa izan zuten haien barnean. Lanuzteak eta protestak egiteaz gainera, lan arazoei konponbidea emateko legezko bideak erabiltzea izan zen CCOOen ezaugarrietako bat. Beren kide-etako asko sindikatu artekari edo enpresako juratu izatera iritsi ziren, eta, horrela, kargu horiek langileen zerbitzura jarritako erreibindikazio plataforma bihurtu ziren. Frankismoak ezarritako itunbideetan parte hartu izanaren ondorioetako bat, nahi gabeko ondorioa, langileen ordezkariak enpresarekin negoziatzera ohitzea izan zen. Horren ondorioz, errepublika garaiak ezaugarri izan zuen erreibindikazio eta bortxazko jarrera hari gatazka arautzeko jarrerak kendu zion pixkana lekua. Erakundeetan parte hartzean, langile mugimenduari lehen baino eraginkorragoa izateko eta koordinazio eta batasun handiagoa lortzeko aukera eman arren, era berean, langileen buruzagiak zein ziren jakiteko bidea errazten zitzaien poliziari; hortaz, poliziaren zapalkuntza, helburu zehatzagoetara bideraturik, lehen baino eraginkorrago bihurtu zen. 1968an, Tribunal de Orden Público-k (TOP, *Ordena Publikorako Auzitegia*) legez kanpoko erakunde subertsibotzat jo zuen, erdi legezko izan ondoren, CCOO sindikatua.

Bien bitartean, sindikatu tradizionalak –UGT, CNT eta ELA–, frankismoak sortutako erakundeetan parte ez hartzeko jarrerari eutsi zioten. Jarrera horren ondorioz, sindikatuok langileengandik gero eta baztertuago geratu ziren; izan ere, langile haiek militantziari uzkur egiten zioten –erabat mobilizaziotik at ez zirenean–, errepublikako garaien berririk ez zuten eta ez ziren arduratzen “politiko” iruditzen zitzaizkien gaiez.. Sindikatu hauek eta ezkutuan sortutako besteren batek Asociación Sindical Obrera (ASO, *Langileen Sindikatu Elkartea*) eratu zuten; ASOk nolabaiteko eragina izan zuen UGTren nagusitasunak edo langile elkartasunak tradizioa zuten tokietan: Bizkaian, Gipuzkoan edo Bartzelonan. Azken honetan kristau erakundeek egindako lanagatik batez ere.

1966ko hauteskunde sindikaletan CCOOek bereganatu zuen langileen ordezkari-tza gehiena. Frankismoaren garaiko lan harremanen dinamikaren aldaketa gunea izan ziren hauteskunde horiek. Langileen %80 inguruk parte hartu zuen, eta aldaketa adierazgarriak gertatu ziren kargu sindikalen artean. Orduan hautatuetariko askok frankismoaren aurkako jarrerrekiko lotura zuen.

Izan, baziren ideologia sakonagoko taldeak, batez ere Alderdi Komunistan oinarri hartzen zutenak, baina sindikalismo berriak ez zion iraultza sozialaren ikuskerari heldu berriro, ezta greba orokorrarenari ere. Enpresariekin hitzarmena lotu ahal izateko, aldekoen zitzaizkien baldintzetara iristea izan zen 1960. urte ondoko fabrika langile hauek ekintzara bultzatu zituen arrazoia. Hori bai, beren interes ekonomikoak babesteko aukera izango zutela ziurtatzeko, behar-beharrezkoa zen sindikatuen askatasuna. Horregatik, gero eta gehiagotan, eta gatazkaren hurrengo aldi batez ere, gero eta greba gehiagotako eskabide zerrendatan sartzen zen sindikatu bereziak sortzeko eskubidea; horrek, eredu frankistaren desagertzea baitzekarren, izaera politikoa eman zion langileen mugimenduari. Asmo horrek, lan harremanak bideratuko zituen esparru demokratikoa lortzeko helburu hutsarekin edo errotiko aldaketa bilatzen zuen xede goragoko batekin, bietako zeinekin zuen lotura da eztabaidagai dirauena.

### 1970-1975

1966. urteko hauteskunde sindikalen esperientzia bizi eta gero, eta frankismoak bere politikaren norabidea jarrera zurrunagoetara aldatu zuelarik, gogorrago bihurtu zen gobernuaren zapalkuntza. 1969. urterako deituta zeuden hauteskunde sindikalak 1971. urtera atzeratu ziren. Toki batzuetan CCOOen eta USOren inguruko hautagaiak aurkeztu ziren berriz, baina beste lurralde batzuetan, Euskal Herrian adibidez, mekanismo ofizialetatik independente izango ziren adierazpide eta negoziazio organo autonomoak sortu nahian, abstentziora jo zuen jende gehienak. Erakunde asko eratu ziren urte horietan, sindikatu erakundeak eta era-

kunde politikoak, oso erradikalak horietako asko, oposizioko sindikatu handien jokabidea zalantzan jartzen zutenak.

Hamarraldi horretako lehen urteetan izugarri gogortu zen gizarte gatazka. Gatazka horietako asko greba gune berriak ziren tokietan gertatu ziren, ordura arte langileen borrokaren tradizioz ez zutenetan –Sevilla, Ferrole, Vigo, baina baita Iruñea, Araba edo Valladolid ere–, edo sektore berrietan, Madrilgo Bankako langileen artean adibidez, eta beste hiri askotan. Ekonomia eta lanbide arazo-  
ei zegozkien eskabideekin batera, edo haien orde, eskabide soziopolitikoak ere egin ziren, sindikatuetan askatasunez elkartzeko eskubide demokratikoaren aldarrikapena esaterako, eta, askotan, elkartasuna adierazteko mugimenduak ere antolatu ziren. Bitxia da, baina gobernuak askatasun politikoei zirrikiturik txiki-  
na ere zabaldu gabe eusten ziolarik, langileek beren laneko eskakizunetako gehienak lortu zituzten, lansariak jasotzeari zegozkionak batez ere. Langilariaren borrokak, auzo elkar-  
teek, ikasleek edo nazionalistek beren eskabideen alde abiatutako mugimenduekin batera, lehentasuna eman zioten berriz herriaren aldetik kalea hartzeari.

Errejimen frankistaren erantzuna, funtsean, zapalkuntza gogortzera mugatu zen, TOP delakoaren bidez, eta batez ere, bortizkeria handiagoa erabiliz grebak eta manifestazioak isilarazteko. Gogortasun horren erakusgarri da poliziaren indarrez 12 pertsona hil izana. Lan hitzarmen kolektiboak arautzeko sistemaren erreforma ere egin zen, 1973an; eraginkorragoa eta arinagoa izan zedin lortu nahi zen, gatazka urrituko zirelakoan. Gainera autonomia handiagoa eman zitzaion sindikatu erakundeari gatazka haietan bitartekari izan zedin. Aldaketa horiek, ordea, ez zituzten gatazka urritu. Greba orokor batzuk egin ziren, leku batekoak eta probintzi osokoak; horien artean aipagarriak dira 1973. urtekoak eta, bereziki, Euskal Herrian 1974ko azaroaren 11n egin zena.

Gatazka aldi honetan langile batzordearen bidez egituratu zen langileria; hau izan zen informazioa emateko, erabakiak hartzeko eta antolaketa gauzatzeko organorik eraginkorrena eta langileen artean gehien zabaldu zena. Batzuek legezko bideen eta ezkutuko taldeen arteko borrokaren osagarri gisa hartu zuten, baina beste sektore batzuentzat langileen antolaketaren berezko modua zen; hauentzat langile batzordea zen enpresetan erabakiak har zitzakeen organo bakarra. Hala eta guztiz ere, 1975eko hauteskunde sindikaletan, aparatu frankistarekin zerikusia zuten sindikatu-  
etako hierarkien aurkako hautagaiak atera ziren berriz irabazle. Horrek frogatu zuen berriz OSERen ahultasuna eta eraginkortasunik eza.

Era askotako taldeak izanagatik gatazkan sartuak, frankismoaren aurkako oposizioa ez zen masa mugimendu bilakatu, toki edo une jakin batzuetan izan

ezik. Hori horrela izatearen arrazoia gerra osteko zein geroagoko aldi osoko errepresio bortitzean bilatu behar da, neurri batean behintzat, baina baita Espainiako gizarteak aldi hartan izan zuen bilakaeran ere, aldendu egin baitzen errepublika garaiko mugimendu jendetsuetatik.

### 3. Trantsizio demokratikoa

Franco jeneralaren heriotzak –1975eko azaroaren 20an hil zen– ez zuen, epe laburrean, lan harremanen joera nagusian errotiko aldaketarik eragin. Gatazka giroaren tamainaz ez datoz bat iturri guztiak, baina denek onartzen dute 1976. urtean zehar izugarri areagotu zela. Ordu kopurua zehaztean iritzi desberdinak daude, baina urte hartan, grebak zirela eta, 110-156 milioi lanordu galdu ziren, 1920an baino hogeitaz gehiago.

Hurrengo urtean, 1977an, sindikatuak legeztaturik, zerbait lasaitu zen giro hura: 92-110 milioi ordu galdu ziren lanean. 1978. urtean, helburu politikorik gehienak lortuak izan arren, jende gehiagok jo zuen grebara eta galdutako ordu kopuruak ere gora egin zuen (128 milioi ordu baino gehiago). 1979. urtean gorako joerak jarraitu zuen; izan ere, urte hori izan zen gatazka aldiko lan arazo gehieneko urtea; 1980tik aurrera hasi zen gatazka giroa lasatzen.

Moncloako Itunetan (1977) lansariak aurrikusitako inflazioaren azpitik igo- tzea erabaki izanaren aurkako protestak, eta batez ere, Espainian ere nabaritzen hasia zen munduko krisi ekonomikoaren ondorioak izan ziren aldi honetako gatazkaren eragile nagusiak. Langabe kopurua 1970. urteko %3,12tik 1986ko %21,89ra emendatu zen.

1977ko apirilaren 28an sindikatuak legeztaturik, Askatasun Sindikalerako Lege Organikoak ordezkari-tza sindikala antolatze-ko modu berri bat ezarri zuen. Legebiltzarretako eskemetara jo zen nolabait, Europako beste herrialdeetan bezala, lau urtez behingo hauteskondeekin, eta hautagai zerrenda hertsiekin. 1978. urteko Konstituzioak sindikatuak (7. art.) eta greba egiteko eskubidea (28-2 art.) izendatuki ezagutu zituen. Batzarrean oinarritutako mugimenduak eta sindikatu bakarra osatzeko ahaleginak indar handia izanagatik, askotariko sindikatuak sortu ziren; sindikatuok aurre egin zioten elkarri askotan, baina gero eta gehiago sendotu ziren langileriaren ordezkari-tza bermatzeko modu bakar gisa. 1978. urteko hauteskunde sindikaletan CCOOek, lehen indar gisa, eta berriro eratu zen UGTk lortu zituzten sindikatu ordezkari-rik gehienak. Euskal Herrian, ordea, beste era bateko banaketa egin zen, sindikatu abertzaleek, ELA-STVk eta, honek baino gutxiago, LABek, ordezkari-tza handia lortu baitzuten. Burokratiza- zioak, erakunde nagusien arteko aurkakotasunak, itun orokorren aldeko joerak,

zeinak negoziazioa langunearen ingurutik aldentzea baitzekarren, eta enpresa batzordeen ordezkartzarako eredu orohartzaileak langile masa handiak urrunarazi zituen sindikatuetatik. Langile askok utzi zion sindikatuan izen emanda egote-ari: soldatakoen %20-25ek 1982an. Horren ondorioz, CCOO eta UGT sindikatuak indarrean parekatuz joan ziren; azkenean bigarren sindikatu honek lehenak baino sindikatu ordezkartza handiagoa lortu zuen, ez, ordea, bazkide kopuru handiagoa.

UGT eta Confederación Española de Organizaciones Empresariales (CEOE, *Enpresa Erakundeen Espainiako Konfederazioa*) erakundeen laguntzaz Langile-en Estatutua indarrean jarri zenez gero (1980), are gehiago bideratu zen sindikatu ekintza negoziazioaren aldera. Estatutuak lege eredu zentralizatua ezarri zuen, non lan hitzarmenei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena langileen eta enpresarien erakundeetako erpinean biltzen zen. Jadanik urtebete lehenago, 1979an, UGTk eta CEOEk Konfederazioarteko lehen Hitzarmen Orokorra izenpetu zuten; era horretara, eta lehen aldiz, bideratu zen nolabaiteko bake soziala nagusi izatea ezaugarri izan zuen aldia. Krisi ekonomikoaren handia, eta lana galtzeko eta enpresak ixteko arriskuarengatik beldurra zela eta, langileriak jarrera moderatuagoak hartu zituen.

Demokraziara bitarteko aldian sindikatuak izan ziren frankismoaren krisia eragiteko, erreforma demokratikorako bidea ziurtatzeko eta, besteak beste, alderdi politikoen legezketasuna, amnistia, hauteskunde demokratikoak eta erakunde frankisten desagertzea lortzeko giltzarria. Iharduera hori zela eta, xede politikoko erakundearen izaera sendotu egin zen sindikatu nagusien artean. Demokraziak berekin ekarri zituen aldaketek sindikatuak lan arazoez baino ez zirela kezkatuko pentsatzeko bidea eman zezaketen. Baina krisi ekonomikoak bere horretan segitzeak eta egoera horrek ekarritako aldaketek berriro indartu dute sindikatuen jite politikoa. Gobernuak, inoren esku egonda ere, ugazaba handien elkartearekin eta bankarekin batera aginpide bloke bakarra osatzen zuelako sentimena da aldi oso hartako beste ezaugarrietako bat. Hala, 1985etik aurrera estutu egin dira sindikatu nagusien arteko loturak, UGTren eta CCOOen artekoak alegia. Sindikatuen artean berriro osatu zen batasun hau argi eta garbi agerrarazi zen 1988ko abenduaren 14ko greba orokorrean. Greba hura egitearen arrazoia, teoriarik behintzat, gobernu sozialistak gazteentzat prestatutako enplegu planaren aurka egitea zen, baina, izan, espainiar langileen artean zabalduago zen eta erroak sakonago zituen egonezinen ondorio zuzena zen.



## 4. Gaia

# Lan harremanak orainengo Euskal Herrian

### Aurkibidea

1. SARRERA
2. ERRESTAURAZIO ALDIKO JOKAERA EREDUAK
3. BIGARREN ERREPUBLIKA
4. FRANKISMOA

### Kontsultarako liburuak

Liburu asko idatzi dira lan harremanei buruz Euskal Herrian, 1980-1990 bitarteko urteetan batez ere. Ricardo Miralles-ek liburugintza horren zati baten berri eman du: "Historiografía del movimiento obrero en el País Vasco, 1880-1936" *Historia Contemporánea* 7, 1992, 237-255 orr. José Luis de la Granja-k ere egin du XIX eta XX. mendeetako liburugintza osoaren bilduma: *Bibliografía de Historia Contemporánea del País Vasco*. Eusko Bibliographia. Gasteiz.

Bost liburu hauek ere baliagarri izan dakizkioke ikasleari:

- Benito del Pozo, L.; Diaz Freire, J.; Luengo, F.; Rivera, A., «El comportamiento de los trabajadores en la sociedad industrial vasca (1876-1936)». *Historia Contemporánea* 4 1990, 319-339 orr.
- Fusi Aizpurua, J. P., *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Ediciones Turner. Madril 1975.
- González Portilla, M. eta Garmendia, J. M., *Posguerra en el País Vasco: Política, acumulación, miseria*. Kriseilu. Donostia 1988.
- Ibarra, P., *El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización y conflictividad*. EHUren argitalpenak. Bilbao 1987.
- Olabarri, I., «Las relaciones laborales (1841-1936)» *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*. Lan Kide Aurrezkia. Donostia 1985, 279-297 orr.





## 1. Sarrera

Azkeneko mende t'erdiz honako historia bitartean, Euskal Herriko probintzia bakoitzak eta probintzia horietako zenbait eskualdek, zeinek bere bideari jarraitu dio lan harremanak bideratzeko erari eta industriaren garapenari dagokionez. Bartzuen eta besteen arteko aldeak, halaber, areagotu egin ziren XIX. mendearen erdialdean hasi zen ekonomia eta gizarte mailako modernizazioarekin; izan ere, modernizazio hori zela bide, industriak goreneko garrantzia hartu baitzuen eta gizartea ere horren arabera antolatua geratu baitzen. Biztanle kopuruak ere gora egin zuen aldaketa horiekin, kanpotar gehiago etortzeaz gainera bertako biztanle kopuruak ere handitu egin baitzen. Gizartea pixkana-pixkana klaseetan banatzeak, bestalde, politikan parte hartzeko joera hirietan eta gizartean hedatzen joatea eragin zuen. Langileriak zeregin nagusia izan zuen gizartea klaseetan banatze horretan.

Garapen hori ez zen, noski, gora beherakorik gabea eta beti eta leku guztietan berdina izan. Aldaketak gehien eta bizkorren, Bilbaon eta Nerbioi ibaiaren ezker aldean hedatu ziren. Euskal Herriko industria gunerik handiena eta langilerik gehienekoa (ia denak gizonezkoak) hori izan zen; klase edo giza talde bereko zirela argien erakutsi ere eskualde horretan egin zuten langileek. Aduanak kentzearekin (1840) sortu zen hainbat lantegi txiki berri (1850-1860). Industrializazio prozesua atzera ez egiteko eran hedatu, ordea, 1877-1887 bitarteko urteetan hedatu zen (era tradizionalakoekin konponbide onean zenbait urte eman eta gero); urte horietan baino gehiago hedatu zen oraindik XX. mendeko lehen hamarraldian, sortu ere fabrika eta lantegi txiki eta handi asko sortu baitzen urte horietan eta industriak horiekin elkarlanean ihardun ahal izan baitzuen. Aipatu den eredu hori Bizakaiko Labe Garaian sorreran (1901) ikusten da argien, Bilbako Labe Garaiak, “La Vizcaya” eta “La Iberia” enpresen baturaz sortu baitzen.

Industria gune horretan sortu zen lanak Euskal Herri inguruko herrialdeetako jende asko erakarri zuen; XIX. mendean, ordea, langileen parte handi bat jatorriz inguruetako nekazaritzakoa edo Euskal Herriko beste hiru probintzietakoa izan zen, denbora luzean. Are gehiago dena, jatorriaren arabera bi talde bereiz omen zitezkeen Barakaldo aldeko proletarioen artean: etorkinenek osatzen zutena eta Barakaldo inguruko nekazari girokoek osatzen zutena. Lehenengoak batez ere enpresa berrietan lan egiten zuten eta bigarrenengoak jadanik beheraka zihoazen industria tradizionaletan gehienbat, inguruan zuten gizartearen bizimodura egokitu ziren haietan, alegia. Egoera hori XX. mendea hasi eta etorkinak mordoan sartzean aldatu zen.

Gizpuzkoan astiroago eta era orekatuagoan edo eskualdeei zegokienez berdinago hedatu zen industria. Industriako langile askok baserrian ere egiten zuten lana, batekoa eta bestekoa premien arabera eratuz, edo baita fabrikari hartutakoa

etxean eginez. Enpresak eta, langileak berak ere, ingurune zabalagoan barreiatuak zeuden Gipuzkoan. Oso enpresa eta enpresa gune handi gutxi zen garai horretan; lantegi txikiak eta erdiko tamainakoak zeuden zabalduena. Industrian lan egiten zuten emakumeak, berriz, Bizkaian baino gehiago ziren Gipuzkoan. Horietako gehienak oihalgintzan (sektore indartsua baitzen) eta paper fabriketan aritzen ziren. Langile guztien hainbatekoan, hala ere, gutxituz joan ziren gero. Araban eta Nafarroan, berriz, industrializazio izenez ezagutzeko adinako indarrik ez zuen hartu industriari, 1950-1960 arte behintzat. Araban industria gutxi zen, eta ziren bakanak Gasteizen zeuden. Gehiago izateaz gainera probintzia osoan banatuak zituen Nafarroak. Bietan ere langile gutxi zen, zituzten biztanleekin alderatzeko, eta denbora luzean izan zen, gainera, horrela.

Hiru industrializazio eredu izateak eta ideologia nahiz gizarte mailan zenbait tradizio desberdin errotuak egoteak izan zuten langileengan ere bere eragina. Industrializazio eredu edo gizarte mota bateko eta besteko langileek nahiko bide desberdinetatik jo zuten beren elkarteak eta borrokak antolatzerakoan, lan harreman iraunkorrak izateko sistema ere batzuek bizkorrago aurkitzen zuten besteek baino.

Industrializazioak ekarri zituen aldaketek jarrera desberdinak sortarazi zituen alde batzuetako eta bestetako langileengan. Bizkaiko meatzariak, esate baterako, matxinatu egin ziren produkzioko sistema kapitalista, hau da, mea ustiatzeko lehengo sistema utzarazi eta hori libre ustiatzeko era ezarri nahi izan zirenean; eta ez behin, 1843-1856 bitartean batean baino gehiagotan, eta 1863an berriz matxinatu ziren laneko sistema berria eta mea merketzen zuen teknologia modernoaren sartzearen kontra. Meategi inguruetakoa nekazariek, bi lanak, baserrikoa eta meategikoa, elkarren aldean eramaten saiatzen zirenek piztu zituzten matxinada horiek, eta horiek izan ziren protagonista. Teknika berriak sartzeak produkzio mailan sortu zuen konkurrentziak eta horri aurre egingo bazitzaian lan gehiago egin beharrik piztu zituen matxinada horiek. Ludistek erabiltzen zituztenen gisako borroka modu bat ere izan zen: Santa Ana de Bolueta, Bizkaiko lehenengo siderurgia modernoari su ematea.

Industrializazio prozesu horri buruz ditugun erreferentzia historikoen arabera, eta Espainiako beste eskualdeetan gertatzen zenaren kontrara, Euskal Herrian ez zen lan arazoek sortutako benetako borrokarik ia batere izan garai horretan. Pertsona langile eta disziplinatua gisa hartua zegoen euskal behargina. Hala ere, gauza jakina da, Kataluniako langileek zabalduetako “Exposición de la Clase Obrera Española a las Cortes” izeneko idatziari Nafarroako 1.412 langilek beren onspena eman ziotena; eta adierazten du horrek bazela gutxienez sinadurak biltzen ibiltzeko adinako elkarte edo talde antolatu bat; baztertu berria zen gremio sistema seguru asko. Iruñean, artisauen arteko Elkarren Laguntzarako Erakunde

(Sociedad de Socorros Mutuos de Artesanos), gutxienez XX. mendearen hasiera arte iraun zuena, sortu zen handik hiru urtera. Elkarren laguntzarako beste zenbait erakunde ere sortu zen garai horretan: esate baterako, Artisauena (1849) eta Artisau eta Besalariak (1858), Gasteizen, eta Elkarren Laguntzarako Erakundea (1857) Donostian.

Industrializazioarekin langileen artean zabaldu zen giroaren araberrako lehenengo, ordea, Bilbaon (1855), iraultza liberalarekin, eratu zen: Bizente de Paul santuaren Konferentzia (Conferencia de San Vicente de Paul). Erlijioa helburu zuena, Eliza katolikoaren esanekoa eta asmoz langileen bizitza zintzotzeko sortua zen erakunde hori. Langileei kristau dotrinaren hastapenak eta beste zenbait gai irakasteko igandeko eskola bat sortzea egin zuen lehenengo gauza. Espirituari hain lotuak ez ziren beste kezka batzuek ere izan zituen; langileak beren langintzarako hobeto prestatzea izan zen horietako bat. Lanbide eskolak ere sortu zituzten beraz; erakunde horri zor zaizkio Euskal Herrian gero hainbateko garrantzia izan duten Lanbide Eskolak (Escuelas de Artes y Oficios).

Horiez gainera, geroago zabalduko ziren Aurrezki Kutxen antzeko “Caja de Alquileres” edo Alokairu Kutxa (1859) bat ere sortu zuen Bizente de Paul santuaren Konferentzia zeritzaion horrek, erakunde horretako kide zirenei alokairu dirua ordaintzen laguntzeko. Langileak alokairutarako dirua ezin osaturik ibiltzen zirela agertzeaz gainera, langileak dirua aurreztera ohitzen saitu ere egin zirela adierazten digu horrek; horretan lehenengoak *pauldarrak* izan ziren. Erlijio heziketako iharduerak laneko eta horren inguruko giroan sartzen ere horiek izan ziren lehenengoak; iharduera horiek Zirkulu Katoliko zeritzaien elkarteetan gauzatu ziren gero. Denborapasa, elkarlaguntza eta heziketa antolatzea zen hauen helburua; langileen bizi baldintza hobetzen saiatzeko geroago, 1887an, hartu zuten; bederatzi urte geroago sortu zuten Bilbaoko Bizente de Paul santua kontsumo kooperatiba.

Euskal Herriko klase kutsuko lehen erakundea ere (Langileen Nazioarteko Erakundearen sekzioa) Bilbaon eratu zen (1870). Erakunde horren sekzioak Donostian, Gasteizen, Iruñean eta beste zenbait herritan ere sortu ziren gero. Gehienbat hirietako eta ideologiaz anarkista ziren artisau kualifikatuen arteko gauza izan zen hori. Donostiako eta Bilbaoko sekzioak zeinek bere aldizkaria izatera iritxi ziren. Bigarren Karlistaldian desegina geratu zen, esaterako, karlistei aurre egiteko liberalen bandoan sartu baitzen. Gerra ondoren elkarte berriz eratzen saitu ziren, batez ere 1882an, eta Bilbaon 525 kide taraino biltzea ere lortu zuten, baina berehala desegin zen atzera. Eta anarkistek Euskal Herrian zuten indarra ere nahiko apaldua geratu zen horrekin, 1915 ingurua arte behintzat. Elkarte horrek horrela desegin behar izateko arrazoi garbi zehatzik ez da aurkitu oraindik. Zenbait historialariren iritzian, industria indartu eta horrekin

gizartea ere aldatzean, artisauek (horietan finkatzen baitzen elkarte hori) gizarte horretara moldatzen jakin ez zutelako gertatu zen hori.

## 2. Errestaurazio aldiko jokaera nagusiak

Elkartek eratzeari buruzko Legedia indarrean jartzeak (1887) pixkana-pixkana haziz joateko bidea eman zion horietako zenbaiti, elkarte mutualistei eta ofizioakoei batez ere, baina ez horiei bakarrik, baita UGTekin harremanak zituzten batzuri ere. Denbora luzean izan ziren elkarren laguntzarako erakunde horiek langile erakundeen artean nagusi. “Giza laguntzarako eta denborapasako elkarteetan hainbat langile den herri honetan, nola ez da sozialistarik” galdetzeraino La Voz de Guipúzcoa aldizkariak, 1897an. Eta hain zuzen hori izan zen, gero UGTren eta PSOEn Euskal Herriko sekzioak sortuko zituen Facundo Perezagua sozialista hark hona etortzean egin zuen lehenengoetako gauza, elkarte mutualista batean sartu. Elkarren laguntzarako erakundeek Primo de Riveraren diktadura garaia arte eragin handia izan zuten Euskal Herrian. Diktadura urteetan beheraka hasi ziren eta Bigarren Errepublika garaian ezerezerako gai bihurtuak geratu ziren.

### 2.1. 1890-1914

Bilbaon eta Nerbioi ibaiaren ezker aldean industrializazioak indar handia hartu zuen arren, itxura denez, sozial mailako borroka askorik ez zen izan Euskal Herrian, 1890 arte behintzat. Borroka askorik ez izate horren arrazoiak hauek dira besteak beste: industria gune berriak sortu ziren eskualdeetako langileen artean elkarreentzako tradizioak ez izatea; hain zuzen ere, nekazaritza giroko lekuetan edo herrietatik aparte zeudenetan sortu ziren-eta, garaiz berandu, gainera; horregatik ez zen leku horietan ofizioakako erakunde sindikalik ere izan. Eskualde horietako jendea oso erlijioari emana izatea da, bestea. Eta industria gune horietako langileen egoera, gutxi asko, besteena baino hobea izatea, hirugarrena; izan ere, lan seguru samarra baitzuten horiek, ondoan beste euskaldun asko, nekazaritza krisian egonik, eta lanik ezak bultzaturik, Ameriketara joatera behartua zegoenean.

Nagusi askoren aitatasunezko jarrera ere nabaria izan zen. Bizkaiko Labe Garaietakoak, batez ere, asko saiatu ziren beren langileekin begirune berezia izaten, horiengan klase kontzientziak indarra har zezanik ez baitzuten nahi; mediku laguntzarekin batean higienezaren aldeko aholkuak, etxe merkeak, ikastetxeak etab. eskaini zizkien horretarako. Kontrara, lanean disziplina gogorra eskatzen zieten, enpresak agintzen zien etxeetan bizi behar edo janaria hark jarritako kantina edo hornitegietan erosi behar izateraino, zenbaiten kasuan. Euskal enpresa-

rio gehienak lengile elkarteak eta horien ordezkariak onartzearen kontrakoak ziren, bestalde.

Lehenengo langile elkarteak lantegi txikietan eta Bilbaoko fabriketan sortu ziren, langile gehienak ofizioakoak ziren haietan, alegia. Eskualde horretako lehenengo zinegotzi sozialista ere Bilbaon hautatu zuten (1891), eta harako marxistek definitu zuten proletario harekin zerikusi handirik ez zuten, baina berebat, besteetatik bereizten zituen sozial eta politika mailako kulturari eutsi izan zien artisauen artean, hain zuzen. Kontrara, Bilbaoko ibaiaren ertzetan eraiki ziren siderurgia lantegi handietako langileek, nahiz eta zenbait elkarte sortu izan eta greba koskor batzuk ere egin, ez zuten 1911n ia Bizkaiko Labe Garaiak enpresa osoa gerarazi zuena beste greba eta borroka handirik egin, Lehen Mundu Gerrara arte behintzat. Bizkaiko meatzarien mobilizazioarengatik da alderdi horretako langile mugimendua ezaguna.

Meategietan, industrializazioaren lehenengo garaiko langintzarik garrantzikoena zen horretan, alegia, erabiltzen ziren teknikengatik eta horietan lan egiten zuten beharginen ezaugarriengatik ez zen izan elkarteak sortzeko joera handiagorik. Meategi horiek lur agirikoak eta prestakuntza bereziko langile gutxi behar zutenak ziren. Langilerik gehienak, bada, baserritarrak eta inolako kualifikaziorik ez zutenak ziren, denboraldi bat meategian lanean eman ondoren beren jaioterrietara bihurtzen zirenak. Horrengatik ez zen, oso gerora arte, langile mugimendu iraunkorrik izan meategietan. Meatzarien eta, oro har, Bizkaiko beste langileen artean elkarteetarako tradizioz ez izate horrek langile mugimendua, orduan bere lehen urratsetan zenean, sozialisten aldekoa izatea ekarri zuen, horiek, ideologia horretako militanteak, izan baitziren ofiziotako lehen elkarten buru eta eragile. Ez ziren elkarte horiek, 1876tik aurrera areagotu zen industrializazioaren jarraian berehala azaldu; beste 15 urte igaro ziren horiek hazten hasterako.

Meatzari asko behin-behineko langile izatea eragozpen handia zen horien artean erresistentziarako elkarteak sortu ahal izateko, langile kualifikatu egonkorrak, kuota handi samarra ordain zezaketeenak behar baitzituzten horiek. Horrengatik izan zen PSOE, ez UGT, Bizkaiko meatzarien mobilizazioetan buru. 1891ko Maiatzaren 1eko Bizkaiko ospakizunen ondoren sortu zen mobilizazio hori. Handik egun batzuetara, meatzarien zenbait buru, PSOEko militante zirenak, lanetik bota zituzten; gero, horiek lanean hartzeko eskaerarekin batera laneko beste zenbait ere esjitu zituzten langileek. Hotsik handiena kantinek ixtekoak egin zuten; nagusiek langileentzat jarrita zeuzkaten eroslekuak ziren kantina horiek, non ere, langileek nahitaez erosi behar baitzituzten beren gauzak. Aipatu diren bi eskakizun horiek eragin zuten Euskal Herriko lehenengo greba handia. Horren zabalerak eta, ordena mantendu nahiz, militarrek parte hartu izanak grebazaleak garaile irtetea eragin zuen.

Borroka hori zela bide Bizkaiko meatzarien ordezkari bihurtu ziren UGT eta PSOE, azkeneko hau, batez ere; fabriketan ere pixkana-pixkana indarra hartzen hasi ziren, bestalde. Hala ere, oso kide gutxi izan zuten 1914 arte, meatzari gehienak behin-behineko langileak zirelako, batetik, eta erakunde horien borrokarako, taktika nagusiei eginahala guztian aurre egitea eta greba orokorra erabiltzea zelako, bestetik. Hain meatzari organizatu gutxi egoteak eta negoziaketetan indarrak ezin eginak bortxakeriara eragiten zituen, zerbait lortu nahi zutenean; kasu batzuetan, grebak huts egitea besterik ez zuten lortu horrekin. Borrokarako bide horrek Bizkaian (Bilbaon eta Ezkerraldean) hainbat greba gogor, gizartean eragin handia izan zutenak antolatzen eraman zituen, eta ondorioz agintariek eta inoiz gudarosteak ere ordena mantentzeko parte hartzea. Batzuetan meatzariak berriaz eragiten zuten gudarosteak parte hartzeko modua, batez ere nagusiek negoziaketara makurtu nahi ez zutenean. Lanuzteak ez ziren luzeak izaten, baina horien inguruan sortzen zen indarkeria giroarekin izan ez zuten kutsua eta larritasuna hartzen zuten.

Langile erakundeen iharduteko modu horrek lan baldintzak hobetzea, batez ere eguneko lanaldia laburrago izatea, langileentzat seguruak sortzea (inoiz nagusiek berek aurkezturik) eta langilereriaren bizi baldintza oro har hobetuz joatea ekarri zuen. 1918tik aurrera, are eta bizi baldintza hobetze eta soldata igotera handiagoak izan ziren, Bizkaian batik-bat; sindikatuen iharduteko moduari esker lortu zen kontzertazioa erabakigarria izan zela erakusten du horrek.

Beste hiru probintzietako egoerak ez zuten Bizkaikoaren antzik bat ere, laneko giroa oso bare baitzegoen horietan, izan ere, oso langile elkarte gutxi baitzen, batetik, eta ziren batzuk oso ekonomia egoera larrian baitzeuden, bestetik. Gipuzkoan, Donostian eta Tolosan zuten UGTk indar pixka bat; handiagoa Eibarran; langile elkarterik indartsuena ere bai baitzen hor. Oinarriak ere ez zituen Bizkaiko mea guneetako ber-berak, armagintzan, adibidez, artisauek erabakitzen baitzuten langile batek zein prestakuntza maila zuen, eta ez nagusiak, eta horrek egokiera ematen zien ofizioa elkarterik gremioetako tradizioekin jarraitu zuten artisauek enpresarioekin akordio batzuetara iristeko. Arabako eta Nafarroako egoera Gipuzkoakoaren nahiko antzekoa zen, lasaia lan arazoei zegokienez, sindikatu gutxi, eta UGT indarrak handienekoa. Horrek berak ere gauza gutxi egin zezakeen probintzia horietan, zeren borrokarako girorik ez baitzen eta langileak klase borrokaren aldeko dirkurtsuen oso zaleak ere ez baitziren, bestalde. Sindikalistek, beraz, langileen arteko batasunari eta beren interesak defendatzeari eman zioten garrantzia, muturreko jarrerak alde batera utzi eta lengileen elkarterek ideologiak neutralak izan behar zutela aldarrikatzen zuten, bestalde. Gertatu ere hala egin zen, zeren UGTri lotuak zeuden sindikatu etako kideek, adibidez, Bizkaikoek barne, ez baitzieten botoa sozialistei eman izan.



Orduan hasi zen mugimendu sindikala indartzen Gipuzkoan. Lehen greba orokorra 1916an egin zen, eta gizarte auzia delakoa puri-purian egon zen probintzia horretako gizarte harremanetan. Sindikaturik garrantzitsuena UGT zen, baina sindikatu katolikoek ere, bai sindikatu “hutsek” bai “libreek”, gora egin zuten, eta probintzia horretako bigarren sindikatu izatera iritsi ziren. Arrakasta handia izan zuten, gainera, emakumezko langileen artean, eta Arrasaten eta Azkoitian lan arazoengatik egindako borroken buru izan ziren. Bien bitartean, ELA sindikatua zabaltzen hasia zen, Deba aldean zituen taldeen bidez. 1919an CNT agertu zen. Sindikatu honek Donostia inguruan eta Pasaiako galiziar arrantzaleen artean erroak egin zituen. Bestalde, sindikatueta indartsuena UGT izan arren, PSOEk ez zuen hark adinako garrantzirik. Jarraitzaile gutxiko alderdia zen, eta Eibarren baino ez zituen erroak egin.

Arabaren antzeko gauza gertatu zen: sindikatuak eta lan arazoei buruzko borrokek gora egin zuten, baina UGTk garrantzia galdu zuen sindikatu katolikoek eta CNTren aldean. Halatsu gertatu zen Iruñean ere, baina CNTk ez zuen Gasteizen adinako arrakastarik lortu. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar, artean bazkidezte kopurua apala zela lau probintzietan.

Bizkaia zen aurreratuen orduan ere laneko arloan. Langileek elkartetan antolatzea hartu zuten jarraibidetzat –enpresakako sindikatuak sortu ziren ofizialakoen ordez–, eta horrekin batera, UGTren ihardunbidea lehengoa baino neurritsuago bilakatu zen, enpresa-gizonekin etengabeko harremanak bilatzearen aldekoa. Elkarri erasoka ibili beharrean, jarrera gogor hura alde batera utzi eta negoziazioari lehentasuna eman zioten ekimenak bideratu ziren. Borrokaren aukera ez zen erabat baztertu, baina aurreko aldiko borroketan baino askoz bortxakeria gutxiago izan zen ordukoetan. Enpresario handiek UGTren iharduna onartu zutelako gertatu zen hori horrela. Izan ere, borroka latzeko aurreko aldirian, enpresagizonek uko egin baitzioten sindikatua aintzat hartzeari, langilea enpresaren mendean eduki ahal izateko.

Aldaketa horren beste arrazoietakoa bat PSOEk bere politika beste era batera bideratzea izan zen. Izan ere, burgesiari aurre egiteari utzi eta alderdi errepublikazaleekin batera lan egiten hasi zen alderdi sozialista, bakarrik ez geratzearen. PSOEn aldaketa hori zela bide, sindikatuak ere ordu artekoa baino neurritasun handiagoko politika egin behar izan zuen. Jokabide aldaketa horretara iritsi bitartean barne tirabira gogorrak izan zituen UGTk, baina horiei aurre egin ondoren, sindikatu ekintza berri bati heldu zion, helburu zehatzak bilatzea eta presioa eta negoziazioa, biak batera, erabiltzea ezaugarri zituena. Jarrera berri honek berebiziko garrantzia eman zion langilea taldeetan antolatzeari eta bazkidezteari, 1890-1914 aldiko sindikatuen ahultasunak eragindako kaltea osatu ahal izateko eta



langileak kontrolpean eduki ahal izateko, ez zezaten hauek gehiegizko eskakizunik egin edo sindikatuek eta enpresariak hitz hartutakorik zapuztu.

Bestalde, aldi honetan, helburua langileen errebindikazioa lortzea zuen sindikatuaren ezaugarriak eta langileei laguntza eskaintzea zuenarenak bereganatu zituen sindikatu sozialistak. Horri esker, ordu arte baino bizkorrago gehitu zen sindikatuko bazkide kopurua, Euskal Herriko papergintzako sindikatuan batez ere. Sindikatuaren estrategia moderatu honek aurrera segitu zuen ekonomiaren egoera onak iraun bitartean, baina geroago, krisi ekonomikoa hastearekin, huts egin zuen.

Gerra ondoko krisi ekonomikoaren hasierarekin eta sindikatuen ahultzearekin batera CNT agertu eta alderdi komunista sortu zirenean, UGTk jokabide gogorragoa hartu behar izan zuen, aurreko urteetan irabazitako abantailak galtzen zituztela ikusten ari ziren langileen ordezkariak erakunde erradikal horiei ez uztearren. Kontrako ikuspegitik begiratuta, ELA sindikatu abertzalearen gorakadak -10.000 bazkide 1920an- arriskuan jarri zuen UGTren nagusitasuna. Nolanahi ere, sindikatu bakoitzak bere eraginpeko esparrua zuen: ELA zen nagusi Euskalduna Ontzioletan eta metalgintzako lantegi askotan, eta UGT Bizkaiko Labe Garaietan eta Bilbaoko ibai ondoko enpresa handietan. Sindikatu arteko tirabirak ere izan ziren. Are gehiago, UGTk eta CNTk hitz hartu zuten abertzaletasunaren aurkako ugazaba batzuekin ELA horien lantegietatik kanporatzeko. Beraz, 1919-1921 bitarteko urteetan tirabira handiak izan ziren lan arloan.

### 2.3. 1923-1931

Primo de Riveraren diktadurak eten egin zuen euskal sindikalismoaren aurrebidea, eta euskal langileen iharduna espainiar langileenarekin berdintzen lagundu zuen. Aldi honetako lehen urteetan borroka gutxiago izan zen, bizi baldintzak hobera eta soldata errealak ere gora egin zutelako. Baina izan zen beste arrazoirik borroka urritzeko, estatuak errepresioa gogortzea, adibidez. Errepresioak klandestinitatean bizitzera behartu zituen CNT eta komunistak, eta bazkideak beherarazi zuen, ELA sindikatuarena batez ere. Horren guztiaren ondorioz, aurreko aldi baino askoz greba gutxiago egin zen.

Batzorde Parekideetan oinarrituriko artekaritza sistema berrien sorrerak ordu arteko joeraren aldaketa eragin zuen 1927tik aurrera: sindikatu batzuk beste era batera antolatzen hasi ziren, erakunde horietako langileen ordezkariak lortzeko. Erakunderik moderatuenean, ELA sindikatuak, sindikatu katolikoek eta libreak *Bloque de Unión Sindical* sortu zuten, UGTri aurre egitearren (CNTk ez zuen sistema horretan parte hartu); zenbait tokitan, lortu ere lortu zuten UGT gainditzea. Hala ere, sistema hori ezartzen parte hartu zuen UGT zen, artean, sindikatu nagusia. Batzorde horietan langileen ordezkariak osoa botorik gehien lortzen zituen hautagai zerrrendarentzat izateak, gainerako erakundeak bat ere ordezkari-

tzarik gabe utzirik, zalantzan jarri zuen sistemaren zuzentasuna, eta baita alian-tza bitxiak eragin ere. Bizkaian, esate baterako, UGTren mende zeuden batzorde horiek, eta ELA eta CNT sindikatuak bat egin zuten haren erabakiei aurre egitea-rrerren. Gasteizen, aldiz, UGTk eta CNTk bat egin zuten hauteskundeetan garaile irten zuten katolikoek aurka.

### 3. Bigarren Errepublika

Errepublikako lehen urteetan asko hazi ziren erakunde sindikalak eta politi-koak, era guztietakoak. Urte haietan bazirudien edozein erreibindikazio sozial lor zitekeela. Bizkaian eta Gipuzkoan langileen %33 sindikaturen bateko kide zen. Araban eta Nafarroan, aldiz, bazkide-tutako langileen hainbatekoa %11-14 bitartekoa zen 1933an. Baina krisi ekonomikoa zela eta langileen egoerak oke-rrera eginagatik, Euskal Herriko sindikatu nagusiek (UGT eta ELA) aldaketak behar bezain azkar gertatzen ez zirela uste zuten langileen borroka ahaleginak geldiarazi zituzten. Jarrera horrek eragile desberdinak izan zituen, noski. ELA-rentzat gizartearen elkar hartze egokia bilatzea zen helburua. UGTrentzat, berriz, sozialistekin batera osatzen zuen errerepublikako gobernuaren legezkotasuna eta iharduna defendatzea. Bestalde, berez greba zuhurtasunez erabiltzearen aldekoa izateaz gainera, UGTrentzat krisi ekonomikoa ez zen enpresarioen errua; krisiak arrazoi zabalagoak zituen uste osokoa baitzen sindikatu hori.

Hala, UGTk indar gutxien zuen tokietan gertatu ziren borrokarik latzenak: Gipuzkoan eta Gasteizen, alegia. Arabako hiriburuan CNTk gogorrazazi zuen borroka giroa. Nolanahi ere, sindikatu horrek eta komunistek bultzaturiko borro-ka askok huts egin zuten, eta gizarte auzietarako legedia indarrean jarri zenez, UGT eta ELA sindikatuak sendoago bilakatu ziren. Azken hauek Gipuzkoako eta Arabako sindikatu nagusi bilakatu ziren, eta UGTren pare jarri ziren Biz-kaian. Nafarroan, bestetik, nekazaritza inguruko auziei eta lurraren jabetzari buruzkoak ziren borrokarik gehienak. Erresuma horretan 1935ean hasi ziren industria giroko borroka ugaltzen.

Zuen jarrera moderatuak tirabira handiak sortu zizkizkion UGT sindikatuari. Halaber, jarrera hori zela eta, borrokarako jarrera hartu behar zuela uste zutenek berea aldatzera premiatu zuten sindikatuak. 1933an, errepublikazaleen eta sozia-listen gobernuaren erori zenean, UGTk askoz jarrera gogorragoa hartu eta iraultza-ren alde egin zuen gizarte eraldatzeko. Aldaketa hori zela bide, iraultza saio bat prestatu zen 1934ko urrian. Asturiasen ondoren, iraultza saioak Euskal Herrian izan zuen indarririk gehien, batez ere sozialistak nagusi ziren tokietan: Bilbaon eta Ezkerraldean, Eibarren eta Arrasaten. Azken herri honetan “Unión Cerrajera” enpresako gerentea hil zuten. Bizkaiko industrialdeko lantegi batzuetan ELA-

SOV –ordurako *Solidaridad de Trabajadores Vascos* (ELA-STV) bihurturik– sindikatuko militanteek greban zeudenei lagundu zieten, sindikatu abertzalearen zuzendaritza mobilizazio horren aurkako izan arren.

Iraultza saioak huts egin zuenetik 1936ko otsaila arte sindikatuek ozta-ozta egin zuten lanik. Frente Popular gobernuan hasi eta 1936ko uztaila arte, aldiz, sendotu egin ziren horiek eta gogortu langileen borroka. Gauza bitxiak ere gertatu ziren. Iruñean eta Gasteizen, esate baterako, greba orokorrak egin ziren sindikatu guztiek –katolikoak, anarkistak, sozialistak eta abertzaleak– bat egin zutelako. Gerra zibilean sindikatuen zeregina askoz apalagoa izan Euskal Herrian Espainian baino. Gerran errepublikaren legezkotasunari eta gizarte ordenari eusteagatik bereizi zen Euskal Herria. EAJren eta alderdi errepublikazaleen itzal handiagatik izan zen hori horrela, aginpidea lortzeko sindikatuek egin zituzten ahalegin guztiak zapuztu baitzituzten horiek. Donostian, ordea, langileen mendeko erabakigune autonomoa eratu zen, gerrako lehen egunetako aginpiderik eza aprobetxatuz.

#### 4. Frankismoa

1939an, Francoren aldeko gudarosteek gerra irabazirik, hasiera eman zitzaion beste aldi historiko bati. Aldi berri honek ezaugarri nagusi hauek izan zituen hasieran: langileen erabateko porrota, irabazitako lorpen sozialen galera, biltzeko, elkartzeko edo greba egiteko eskubideen ukapena eta langile elkarteen beraien desagerpena. Faktore hauen eragina langile elkarteetara ez ezik lanarekin zerikusia zuten alor guztietara ere hedatu zen. Denbora asko igaro zen langile elkarteak berriro antolatzen hasi ziren arte, eta gainera, beste oinarri batzuen gainean antolatu ziren.

##### 4.1. 1939-1960

Lehendabiziko aldi honetan borroka gutxi egin zen, eta gainera, egin ziren horietan garrantzi handia izan zuten politikako faktoreek. Aldez aurretik prestalan gutxi edo bat ere izan ez zuten protesten ondoren –1945ean Bizkaiko Labe Garaietako istripua zela eta egin zena, edo soldata igoeraren alde egin ziren guztiak–, aliatuek Bigarren Mundu Gerra irabazteak errepublika garaiko egoerara itzultzeko saioak piztarazi zituen. Euskal Herria izan zen urte horietan errejimeneraren aurkako mobilizazio jendetsuak egin ziren toki bakarra; hala ere, mobilizazio horietako batzuk protesta sinboliko hutsak izan ziren. 1947ko apirilaren 14an, adibidez, Errepublikaren hasieraren urteurrena zela eta, milaka langile bildu ziren Bilbaon, kalean paseatzera, zigarro handiak errez.

Mobilizaziorik aipagarriena 1947ko Maiatzaren 1eko greba izan zen. Eusko Jaurlaritzak deitu zuen, erbestetik, greba horretara, mendebaleko estatuei erakutsi nahirik bazela Francoren aurkako mugimendurik. Grebak arrazoi politiko garbiak zituen, baina langileen bizi baldintzak txartu izanaz ere –gosea, errazionamendua eta inflazioaren gorakada– baliatu zen. Bestalde, Euskal Herrian oposizioko sarea batua egoteak ere erraztu zuen deialdi hura.

Bizkaian hasi zen greba, Bizkaiko lantegi handietan, eta batez ere, prestakuntza bereziko langileen artean. Gobernadore Zibilak lanetik bota zituen greba egindako guztiak, laneko antzintasun eskubidea kendu zien, eta poliziak ikerketa egin ondoren, langileek banaka egin behar izan zuten lantegira itzultzeko eskabidea. Gobernu Zibileko datuen arabera, 20.540 langilek egin zuten greba, 396 enpresatan. Jarrera horren ondorioz, greba luzatu eta beste toki batzuetara zabaldu zen, Deba haranera esate baterako; poliziak segada handiak hedatu eta 6.000 pertsona baino gehiago atxilotu zituen. Atxilotuak hainbeste izanik, “Vista Alegre” Zezen Plaza erabili izan zen presondegitzat.

Errepresioak, helburu zehatzeko erreibindikaziorik ezak, langileen arazo ekonomikoek eta ugazabek auzia lehenbailehen konpondu nahi izateak, arrazoi horiek guztiek batera, grebaren amaiera ekarri zuten, hilak 8an. Politika mailan mobilizazioak arrakasta handia lortu bazuen ere, UGTren ezkutuko azpiegitura eta, hein handi batean, baita ELArena ere, desaginda geratu ziren. Horrenbestez, sindikatu horien iharduteko ahalmena ia desagertzearino urritu zen.

1951eko apirilaren 23an beste greba bat hasi zen, EAJ ia gidari bakarra zuela, baina oposizioko gainerako indarren laguntzarekin. Estatu Batuei Francok Espainiako egoera politikoa menderatzen ez zuela erakustea zen greba horren helburua. Hala ere, bizitzaren garestia eta soldaten igoerarik eza erabili ziren argudioztat. Lanuzteak arrakasta handia izan zuen berriz, eta Euskal Herri osora zabaldu zen; nolana ere, Araban eta Nafarroan erakunde katolikoak izan ziren grebarako deia egin zutenak. Mobilizazio horietan lortutako garaipenek, hala ere, ez zuten aldi berri baten hasiera ekarri, gerra zibiliarekin hasitakoaren amaiera baizik. Belaunaldi oso baten nekeak, errepresioak eta diktadura noiz amaituko ez ikusteak Francoren aurkako erresistentzia itzali zuten. Nolanahi ere, borrokak aurrera jarraitu zuen, baina lan arazoei bideratuta soilik.

#### **4.2. 1960-1977**

Urte horietan beste langile talde bat agertu zen, errepublika garaiko langile elkarteen erreferentzia zuzenik gabea eta frankismoaren errepresiorik gogorrena ezagutu ez zuena. Hitzarmen kolektiboek buruzko lan legedia sortu zen orduan, eta horri esker, langileek enpresarioekin eztabaidatzen hasteko aukera izan zuten, langileek beraiek hautatuko ordezkarien bitartez; enpresako juratu zeritzaien

ordezkari horiei. Azkenik, egoera ekonomikoak hobera egin zuenez, enpresarioek laneko erreibindikazioetako asko, bai soldatei bai lanaldiari buruzkoak, bete ahal izan zituzten. Erreibindikazio horiek egiten zituen langilea oso baldintza kaskarretan bizi zen artean, autarkia bukatuta lortutako egoera ekonomikoaren mailari ez zegokion baldintzatan alegia.

Hiru faktore hauek –langile berriek, hitzarmenek eta egoera ekonomikoak– beste langile mugimendu baten sorrera eragin zuten, biltzarren eta langile batzordeen bidez antolatu zena. Beren kabuz ziharduten langileen, HOAC eta JOC bezalako erakunde katolikoetako militanteen eta Alderdi Komunistaren babesaren izan zuen antolabide horrek. Azken alderdi honek laster antzeman zien mugimendu berriak eskaintzen zizkion aukerei. Aitzitik, erakunde historikoek –UGTk, ELAk– gero eta indar gutxiago zuten, horien aurkako errepresioagatik, zuzendaritza erbestean zutelako, beste sindikatuekin batzen ez zirelako, eta frankismoak laneko arazoak bideratzeko sortutako erakundeetan parte hartzeari uko egin ziotelako.

1960.aren ondoko lehenengo urteetan soldata igoera handien aldeko erreibindikazioak egin ziren, eta eskakizun horri uko egin zitzaionean, grebara deitu zen. Greba horiek ez zuten izaera politikorik, eta irekitasunaren aldeko jarrera zegoenez, nolabaiteko onarpena izan zuten agintarien aldetik. 1967an jarrera liberalago hori bukatzeak eta langileen politizazio gero eta handiagoak ordu arteko joera aldarazi zuten.

Errepresioa gogorra izanagatik, indar handiz hazi ziren langile elkarteak, bai sindikatu historikoak (UGT eta ELA) bai sindikatu berriak (CCOO, USO eta, 1974tik aurrera, LAB), azken hauek batez ere. Pedro Ibarrek egindako kalkulua-  
ren arabera sindikatuak 300-500 militante zituzten 1967an, eta 15.000 1976an. Sindikatuen hazkundearekin batera asko ugaldutakoak ziren laneko borroka, bi mota-  
takoak: laneko arazoen eragindako grebak, batetik, eta politikako arazoen eragindakoak, bestetik. Lehendabizikoak ikusgarri ugaldutakoak ziren 1969tik aurrera. Soldata igotzea zen greba horietako eskabide nagusia, baina lanaldia murrizteko-  
ak edo erretiro planak lortzekoak ere egin izan ziren. Lehen greba politikoa, berriz, Burgosko Prozesua zela eta egin zen: 1970eko Abenduko Greba Orokorra. Grebarik gehienak Franco hil ondorengo hilabeteetan egin ziren, 12 greba orokor 1976ko abendua eta 1977ko maiatza bitartean. Greba horiek abertzaleen eskakizunak gidaturik zeuden hein handi batean. Horixe zen hain zuzen ere, eus-  
kal langileriaren mugimendua espainiar langileriaren mugimendutik bereizten zuen ezaugarri nagusietako bat, hori eta lehendabizikoak mobizilizazioak eragi-  
teko zuten gaitasun handiagoa. Beraz, abertzaletasunak garrantzi handia izan zuen langileen diskurtsoan, eta hau, neurri handi batean, ETAk frankismoaren aurka gidatzen zuen borrokari lotua zegoen.

Langileen borroka eta frankismoaren aurkakoa banandu ezinak zirela eta erreibindikazioetako asko lortzeko diktadura desegin behar zela gero eta garbia-go edukitzeak, eta horrekin batera, gobernuaren errepresioak, borroken ugaltzea eragin zuten. Horrenbestez, laneko arazoek eragindako grebarik gehienak borroka politiko bilkatu ziren, nahiz eta, aurrerantzean ere, erreibindikazio nagusiak lan arlokoak izan.

1976-1977 bitarteko borroka giroak gorena iritsi ondoren, urte horren amaieraz gero pixkana baretuz joan zen giro gogor hori. Aurreko aldietan egindako erreibindikazioetako asko lortzea, ELAk, CCOOek eta UGTk aurreko aldiarekin ez eteteko jarrera hartzea eta 1970.aren ondoko urteeetako krisi ekonomikoa zabaltzea izan ziren borroka giroa baretzearen arrazoi nagusiak. Borroka guxtiago egin zen, eta borroka horien helburua ere beste bat zen; langileen nekeagatik –greba politikoak galera ekonomiko handiak baitzekarzkien– eta langabezia gero eta handiagoa zelako gertatu zen hori horrela. Kontra egiteko eta erreibindikazioak lortzeko grebetako asko lanpostua defendatzearen aldeko lanuzte bihurtu ziren.

**ZAZPIGARREN ATALA**  
**LANA GAURKO GIZARTEAN**





# 1. Gaia

## Lana gaurko gizartean

### Aurkibidea

1. LANGILEAREN MENDEA. LANAREN ERREALITATEA X X. MENDEAN
2. LANGILEAREN ESKU HARTZE POLITIKOA ETA SOZIALA. LANGILEEN SINDIKALIS-  
MOA
3. ONGIZATE ESTATUAREN SENDOTZEA. ESTATUAREN ZEREGIN BERRIA
4. GIZARTE ALDAKETAK, TEKNOLOGIA BERRIAK ETA LANAREN ANTOLAMENDU  
BERRIA. TOYOTISMOA
5. EKONOMIAREN KRISIA ETA MUNDIALIZAZIOA. ERRONKA BERRIEI ERANTZUTEN

### Kontsultarako liburuak

- Ambrosius, G. eta Hubbard, W. H., *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Madril, Alianza, 1992.
- Dunlop, J. eta Galenson, W., *El trabajo en el siglo XX*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1985.
- Offe, C., *Contradiciones en el Estado del Bienestar*, Madril, Alianza, 1990.
- Z., *Nuevas tecnologías y sociedad (Memoria de las II Jornadas Internacionales de Debate Libertario)*, Fundación Salvador Seguí, d.g. (baina Madril, 1990).



## 1. Langilearen mendea. Lanaren errealitatea xx. mendean

John T. Dunlop-ek, lanaren alderdi soziala aztertzen diharduen iparramerikar ikerlariak, *langilearen mendea* deitu dio XX. mendeari, mende horretako fabrika langilearen bizi mailan, statusean, gizartearen aldetik hark duen onespen mailan, haren segurtasun sozial eta ekonomikoan, ahalmen politikoan eta eraginkortasunean gertatu diren aldaketa handi bezain garrantzizkoak laburbildu nahian.

### 1.1. Langile klase berria

XX. mendean zehar lanaren munduan izan den aldaketa nagusietako bat langileriaren osakerarena da: langilearen adina, sexua, prestakuntza eta lanean diharduen produkzio sektorea. XX. mendean zehar lan egiteko adinean zegoen biztanleriaren hazkundearen batez-bestekoa biztanleria osoarena baino pixka bat handiagoa izan zen. Europar lan egiteko adinean zegoen biztanleriaren tasa %43tik %45era igo zen, eta, Estatu Batuetan, Lehen Mundu Gerrako erreferentzia (%55,7) hamarreko batean baino ez zen hazi 1980. ondoko urteetan. Hala ere, aipagarria da azken herrialde horretako gizonezkoen aktibitate tasa hamasei puntu jaitxi zen bitartean emakumezkoena ia bi aldiz handiagoa izateraino gehitu zela, %22,8 izatetik %40 izateraino (lan merkatuan sartutako 14 urtetik gorako emakumezko langileen batez-bestekoa). Britainia Handiko emakumeen artean %9 hazi zen tasa hori, %39 izateraino. Alemanian %30 inguruan mantendu da tasa hori, 1970. urtetik aurrera izan zen beherakada txikiaren ondoren batik bat (beherakada hori, neurri handi batean, lan egiteko adinean dagoen emakumea “erreserbako langiletzat” hartzeko joera duen ikuspegi soziologikoak eragin zuen). Frantzia, mendearen hasierako kopuru handiak (%36) behera egin zuen, harik eta, 1962. urtetik aurrera, Europako herrialde industrializatuen kopurueta-raino jaso zuen gorakada hasi zen arte. Nekazaritzatik bizi zen langileariaren beherakada handia izan zen joera horren eragile, emakumezkoak baitziren nekazari haietako asko. Arrazoi hori berori baliagarria da Japoniarako, non, 1960-1970. urteetatik aurrera, lan merkatuan sartuta zegoen emakumezkoen kopuruak behera egin baitzuen; hala ere, Japonian, lanean ari den emakume kopurua oso handia da batez-beste oraindik ere (15-65 urte bitarteko emakumezkoen %45 baino gehiago).

Lan merkatuan sarrera izan duen emakume kopuruaren gorakada orokorrak beste aldaketa bat du atzean. XX. mendearen lehen erdialdean, ezkondu gabeko emakumea zen etxetik kanpora lan egiten zuen bakarra, baina mendearen azken hiru hamarraldietan emakume ezkondu asko hasi da etxez kanpoko ihardueretan lanean, seme-alabak jaiotzen diren bizialdia laburtu egin delako, senide kopurua gutxitu egin delako, garai batzuetan lan eskaintza handiagoa izan delako, administrazio eta zerbitzu alorretan lanpostu gehiago sortu direlako eta, askatasuna

eta gogobetetasuna bilatzera, etxetik kanpora bultzatu dituen gizarte eta kultura arauetan sakoneko aldaketak izan direlako. Emakumeen lanbide prestakuntza eta ikasketa maila handiagoak zerikusi handia du gorakada horretan.

Europako eskualde batetik bestera, ordea, alde handiak daude emakumezkoen lanari dagokionez: aktibitate tasa handiagoa da Iparraldean (eskandinaviar herrialdeetan batik bat) hegoaldean baino (Irlanda, Holanda eta Belgika ere sartu behar dira talde honetan); halaber, etxetik kanpo lan egiten duten emakume ezkonduki dagokienez, gehiago dira lehen taldeko herrialdeetan bigarrenen baino.

Adinari dagokiona da langileriaren osaera ezaugarrien beste aldaketa garrantzitsuetako bat. Bigarren Mundu Gerra baino lehen –liburu honetako beste atal batean aipatu da hau– laneko adinean zeuden gizonezkoen batez-bestekoa 100etik gorakoa zen. 1945. urtearen ondoren, 1960tik aurrera batez ere, laurogei ingurura jaitsi da tasa hori. Bi dira hori horrela izatea eragin zuten arrazoi nagusiak: batetik, herrialde aurreratuenetako hezkuntza sistemaren unibertsalizazioa dela eta, lanean hasteko adina atzeratu egin da zertxobait; bestetik, gizarte politikak direla eta, erretiroaren adina jaitsiz joan da. Hortaz, Europako herrialdeetan, mende hasierako lehen bi hamarraldietan ohizkoa zen langile gaztearen (15-19 urte) laneko iharduera tasa (%80-90 inguru) %50 baino pixka bat goragoko kopuruetara jaitsi da.

Bizitzan zehar lanean ematen den denborak ez ezik eguneko eta asteko lanaldiak ere behera egin dute mende honetan. Hirurogeita hamabost urtetan batez-besteko lanaldia %25 edo %35 murriztu da, herrien arabera, eta asteko lanaldia 40 ordu ingurukoa edo zertxobait gutxiago da. 1960. urtetik aurrerako hamarraldian bost eguneko astea –ingelesen astea– hedatu zen herri industrializatuen artean. Ordaindutako oporraldiak Norvegiar hasi ziren 1919an, eta mendearen hirugarren hamarraldian antzeko neurria (6-12 opor egun urtean) hartu zen Frantzia, Britainia Handian eta Suedian. 1970-1980 bitarteko urteetan arrunt zabaldu zen lauzpabost asteko oporraldia.

Lanari eskaintako denboraren aldaketa hauek goitik behera eraldatu dute betebeharrak bizitzan zehar banatzen diren modua. Hala, Estatu Batuetako gizonezkoen bizi itxaropena, mende hasieran 48,2 urtekoa zena, 67,1 urtekoa izateraino handitu zen 1970ean. Baina harrigarriena hau da, 1900ean Estatu Batuetako biztanle baten bizialdiaren %66,6 laneko denborari zegokiola, %10 baino ez aurrekolari, %16,6 eskola aldiari eta %6,5 erretiro aldiari, eta hirurogeita hamar urteren buruan, batez-besteko horiek %59,7, %7,4, %18, %14,8 izatera pasa zirela hurrenez hurren. Bizitzan zehar lanean ematen den denbora laburtzeak iharduera horren nagusitasuna zalantzan jartzea ekarri du gizarte aurreratuetan.

Beregaineko langilearentzako lanak behera egin du nabarmen, besteren gaineko lanaren alde. Aldaketa horretan zerikusi handia izan dute langileen sektorekako banaketan izan diren gorabeherak. Lehen sektoreko (nekazaritzaren eta abere hazkuntzaren ustiapena) iharduera etengabe gutxitu da; industriari dagokiona, berriz, handituz joan da mendearen hasieran eta moteldu egin da aurrerago; eta zerbitzu sektorea gelditu gabe hazi da, etxeko zerbitzua gutxitu egin den bitartean lanbide teknikoak, administrazioak eta bulegoak goraka egin dute.

Sektorekako ihardueraren banaketan dauden desberdintasunak aurrerapen mailak markatzen dituzte edo, zehatzago esateko, aurrerapen mailaren ezaugarriak. Har ditzagun herrialde batzuk.

#### 6. Koadroa. *Laneko adinean dagoen biztanleria sektoreka (1991. urtea)*

	1. Sektorea	2. Sektorea	3. Sektorea
Australia.....	5,5	24,2	70,4
Kanada.....	4,5	23,2	72,3
Espainia.....	10,7	33,1	56,3
Frantzia.....	6,0	29,9	64,1
Txekoslovakia.....	10,4	46,1	43,6
Errusia.....	18,8	38,9	42,3
Japonia.....	6,7	34,4	58,9
Hego Korea.....	17,6	34,3	47,9
Txina.....	59,5	22,6	17,9
Nigeria.....	48,2	6,7	45,1
Maroko.....	38,0	28,0	34,0
Mexiko.....	23,7	21,0	55,4
Kuba.....	19,9	31,7	48,4
Israel.....	3,9	27,0	69,1

Nahiz eta egiturazko baldintza geografiko eta historikoak ere lehen mailako faktore diren, aurrerapenak nekazaritza giroko gizarte batetik zerbitzuen gizartera edo industrializazio ondoko gizarterako iragaitea markatzen du. Hipotesi teoriko batek (Fourastié, Clark eta Fisher-ena) azaltzen du iragaite hau. Honela dio hipotesiak:

– elikagai eskariak muga fisikoa du; beraz, behin ongizate estatura iritsita, etxebizitza pribatuaren eskaria industriako (manufakturak) eta zerbitzuetako ondasunei buruzko eskarietara lerratzen da.

– mekanizazioak eta industrializazioak beharrezkoa dute zerbitzu sektorearen aurrerapen osagarria.

– aurrerapen teknikoak produkzioaren hazkundera eta lehen eta bigarren sektoreetako behargin batzuk desagertzea dakartza, baina ez du modu berean eragiten hirugarren sektorean. Gainera, zerbitzuen eskaria gero eta handiagoa eta anitzagoa denez, gero eta gehiago dira sektore horretan langile.

– hirugarren sektorea barne merkatuaz arduratzen da batez ere; horregatik, nazioarteko merkatuen mugimenduek eragin gutxiago dute hartan beste bi sektoreetan baino.

Laneko adinean dagoen biztanleriaren sektorekako banaketan gertatzen diren aldaketak biztanleria horren lanbide kualifikazioan izan direnekin batera gertatzen dira. Has gaitzen esanez –lehenago ere aipatu dugu– beregain lan egiten duen enplegataile eta langile kopurua erdiraino urritu dela mende honetan zehar. Nekazaritza eta abere zaintza sektoreko langile kopuruaren beharakada da, neurri handi batean, aldaketa horren erakusgarri, soldatarik jaso gabe lan egiten zuten senide kopuruaren (emakumezkoak gehienbat) batez-bestekoa urritzearekin ere zerikusia duena. Landatik hirirako aldatze masibo hori XIX. mendeko gertaera ere izan arren, ezin gehiagoraino handitzen da gauden honetan, kolektibo sozial baten, hainbeste eta hainbeste kidez osatua dagoen beregaineko nekazarien, bizitzeko eta lan egiteko moduen, ohituren eta pentsamoldeen desagertzea dakarrela gainera.

Aldaketa hauen zuzeneko ondorioa soldatapeko langileen emendatzea da, kontratu bidezko erregulazioan oinarri hartzen duen lanaren saleroste sistema indar handiz zabaltzea dakarrena. Baina soldatako langile kopuruaren hazkunderak ez du berekin ekarri industriako ohizko langileak leku handiagoa izatea. Aitzitik, herrialde aurreratuetan, eskuzko lana egiten ez duen langile multzoa da gehien hazi dena, eta honezkero, langile horiek osatzen dute langile talderik jendetsuena. Zerikusi handia izan du horretan hirugarren sektoreak gero eta garrantzi handiagoa eta estatuak, gero eta enplegatu gehiagorekin, gero eta eragin handiagoa duten ekonomietan gertatu diren aldaketak; baina industriak ere lagundu dio joera horri, batez ere aurrerapen teknologiko handieneko enpresen bidez (ikerkuntza eta garapena, industria kimikoa, makina eta tresnagintza...).

Aldaketa horiek langileriaren baitako gizarte eta lan alorretan izan zuten eragina ez da nolana hikoia. Eskulangileak eta gainerako enplegatuak elkarrengandik aldentuz joan dira lan baldintzei eta beren izateari buruzko oharren subjektiboari dagokienez. Desberdintasunak kualifikazio eta prestakuntza mailari dagozkio, soldatako eta ordutegiko ordainei, laneko baldintza eta egoerari, enpresan mailaz igotzeko ahalmen eta aukerei, enpresa barneko hierarkian hartzen duten tokiari, eta baita, zuzendaritzaren eta honen erabakien aurrean hartzen dituzten jarrera pertsonal eta kolektibo (sindikatuarena) ere. Desberdintasunak hainbestearaino

iritsi dira, non aditu batzuentzat eskuzko lanik egiten ez duen enplegatuen taldea gizarte talde berezia den, dituen ezaugarri objektibo eta subjektiboengatik erdi mailako klase zehazkabe bezain zabalaren barruan sartzen den taldea.

Hala ere, ikuspegi hau, gerra arteko aldirako edo, baita, Espainian bezala industrializazioaren hedapena beranduago hasi zen herrialdeetarako ere baliagarria izan zena, zalantzan jartzen hasi zen mendearen seigarren hamarraldiko azken urteetan. Eskuzko lanik egiten ez dutenen langile taldea hainbeste handitu da, ezen galdu egin baitu, neurri batean, bere izaera berezia, eta bitartean, talde horretako lan baldintzak eskulangilearenekin parekatu dira. Bestalde, masifikazioarekin batera talde barneko dibertsifikazioa etorri da, koherentzian eta homogeneitatean galduz, eta taldea osatzen duten azpitaldeak bereizten lagunduz: emakumezko langileak, enpresa pribatueta kudeatzaileak eta administrazioko goi karguak, teknikariak, administratzaileak, funtzionari publikoak...

Lanbide kualifikazioa ez da soilik langileen faktore bereizgarria; aitzitik, oso hedatua dagoen ezaugarria da. Lan iharduera modernoaren eskakizunak, enpleguen dibertsifikazioa, eskolatzaren eta heziketaren erabateko zabalkundea edo baserriko ihardueren garrantzia gutxitzea dira kualifikazioaren emendatze orokorra eragin duten arrazoieta batzuk. Gaur egun, lan merkatuaren krisia dela eta, faktore honek geroz eta garrantzi handiagoa du; azken finean, faktore hori da langileak bereizteko erabiltzen ari den ardatz berria: heziketarik baduten edo ezagupenak eta teknikak etengabe berritzen diharduten langileak alde batetik, eta lan merkatu horretan egoerarik okerrenean dauden eta heziketa urriago edo bate-ze ez dutenak bestetik, emakumeak eta etorkinak, alegia.

## **1.2. Bizi maila**

Herrialde industrializatuenetan soldata errealak sei bider handiagoak izateraino iritsi dira mende honetan. Langileriaren bizi mailak hobera egin duela begibistakoa da. Soldatek ere gero eta eragin handiagoa dute nazioaren ekonomian. Orobat aldatu da diru sarrerren banaketaren ezberdintasun indizea: Baliabiderik gehieneko biztanleen arteko %10 baten baliabideak %35-40 bitartetik %25-30 bitartera murriztu ziren 1930-1950. urteetan, eta baita %21-23 bitarteraino murriztu ere 1960-1970. hamarraldian. Hala ere, oso aberatsak zirenen ekonomia-aren garrantzia gutxitu arren, behartsuenek, estatistikei bagagozkie, ez zuten hobera egin, eta herrialde gehienetan, beren errenta maila baino ez zen handitu, baina oso-oso gutxi handitu hala ere. Aberatsenen eta behartsuenen arteko eremu zabal horretako jende multzoa da batez ere bere egoera hobetu eta desberdintasunak murriztu dituenak. Kontu honek, berriz ere, bere gaineko langileriaren baitako aldaketekin du zerikusia, non lanbide mailen arteko soldata gorabeherak gero eta txikiagoak diren, nahiz eta sexuen arteko aldeak, beste garai batzuetan bezala,

handiak diren orain ere: emakumezkoaren soldata gizonezkoarenaren heren bat da eta, Ingalaterran adibidez, erdia ere izan daiteke. Kualifikazioa, lanbide maila, lanean emandako urteak edo etxetik kanpoko lanari emandako denbora bezalako arrazoiek justifikatzen dute, hein batean, zatika, errealitate hori. Haatik, gizonezkoaren soldata oraindik ere sendiko soldata nagusizat hartzea da hori horrela izatea eragiten duen arrazoi nagusia, izan diren aldaketak gorabehera edo, adibidez, kide bakarreko –emakumezkoa gehienetan– familia unitateak asko ugalduegatik.

Bizi mailaren aldaketak eta hobekuntzak berehalako ondorioa izan dute bizi-moduan. XX. mendearen bosgarren hamarraldian, langile gehienek soldata errentaren hiru laurdenak etxeko oinarrizko gastuak ordaintzeko erabiltzen zituzten oraindik: janaria, jantziak, etxebizitza, erregaia; eta diruaren bosten bat bakarrik premiazko ez ziren gastuetarako: aisia, aurrezpena, e.a. Eskuzko lanik egiten ez zutenak ziren diru sarreraren laurden bat premi-premiazkoak ez ziren gastuetan erabil zitzaizketen bakarrak.

Hogeita hamar urtez ekonomia zabaltzeak eta Ongizate Estatu aurrerabidean izateak gastuaren dibertsifikazio ahalmena handitzea ekarri zuten European. Harrezkero, delako masako kontsumo gizartea aipatzen hasten da. Hortaz, 1960tik aurrera, oinarrizko gastuetara bideratutako diru sarreraren batez-bestekoa erdira jaitsi zen; horrek bide eman zien kontsumo ondasunen (gai elektrikoaren eta etxetresnen “boom”-a edo, baita, geroago, automobilarena ere, adibidez) eta zerbitzuen (turismoa, esate baterako) erosketa masiboari eta herriaren aurrezteko gaitasuna handitzeari. Horretaz gainera, une latzetako segurtasunik eza eta diru sarrera/gastuen arteko desoreka gutxitzea lortu zuen Estatu sozialak.

Gisa horretako egoera bikain horretan, ordea, ez da ageri gizarte irekiaren kontzeptuak esparru sozioprofesionalean eduki beharko lukeen zentzua ez eta gizarte talde eta klase bateko kide izatearena ere. Gizarte ireki eta higikor batek, goi mailako ongizatearen gainean ezarria dagoelarik, kapilaritate edo gizarte klase batetik beste batera igarotzeko aukera handia eskaini beharko luke. Higi-kortasun soziala XX. mendearen ezaugarrietako bat izan da. Horren lagungarri izan dira, besteak beste, nekazaritzaren eta abere hazkuntzaren iharduera gutxitzea, garraioen aurrerapena, etxetik lanerako joan-etorri luzeak edo demografiari buruzko jokabideak aldatzea. Baina higikortasunak ez du berekin batera ekarri kapilaritate maila bera. Hala, Europako fabrika langileen hiru seme-alabetatik bik fabrika langile izaten jarraitzen du. Langilearen gizarte maila zenbat eta muturragokoa izan –hau da, kualifikatu gabeko langilea izan edo, beste muturrean, unibertsitaria, eskuzko lanik egiten ez duen enplegatua edo goi mailako funtzonaria izan– orduan eta handiagoa da egoera hori bera seme-alabengan errepi-katzeko aukera.



Horrekin batera, gizarte maila ondorengoetan berritzeko joera ere handia da; joera horrek estatistikek diotenaren kontra interpretatzen den zerbait sendotzea dakar: gizarte klaseen homogeneotasuna alegia (eta, bide batez, “klaseko” kulturak eta jokabide arauak daudela, baina baita, taldez aldatzeko eragozpenak daudela ere). Europako mendebaleko langileen %60 langile klase bereko langileen artetik berritzen zen.

Azken batean, bizi garen gizartea gizarte erdi irekia dela esan daiteke, beste gizarte maila batera igotzeko aukera berdintasunari dagokionez behintzat. Garrantzi handiko aurrerapenak egin diren arren, erdi mailako klaseko seme batek bere mailari eusteko duen aukera, langile klaseko seme batek erdi mailakora igotzeko duena halako bi da oraindik ere.

## **2. Langilearen esku hartze politikoa eta soziala. Langileen sindikalismoa**

### **2.1. Sindikatu ereduak**

Lanaren protagonisten, bai langileen bai jabeen, praktika politikoak batzuen eta besteen adierazpen politikoak bereizten zituen muga desitxuratu zuen Bigarren Mundu Gerratik aurrera. Klase joera nagusiak, langile alderdiak eta alderdi “burgesak”, beren politikaren bidez elkarrengana “hurbiltzen” hasi ziren; baina batez ere, eta bietako lehenari dagokio hau gehienbat, oinarri sozialak zehazten hasi ziren, modu lausoago, “herrikoiago” batez. Alderdi politiko nagusiek adierazi zuten, biztanleria osoaren ordezkari izan nahi zuten, ez talde edo klase jakin batena bakarrik. Hala, gerra arteko eta gerra aurreko garaietako tirabirak eta gatazka giroa asko baretu ziren. Gainera, hemezortzi urteko gazteei botoa emateko eskubidea onarturik, erabakietan esku hartzeko aukera eman zitzaion artean kultura politiko sendorik ez zuen giza talde handi bati.

Guztiarekin ere, mendearen seigarren hamarraldiko azken urteak arte Europako herrialdeen mapa politikoa, Lehen Mundu Gerra osteko ondorengo zuzena zena, ez zen “izotz gabetu”. Horrekin batera, masako kontsumo gizarteak hutsune eta eskabide berriak sortzen lagundu zuen; ohizko eskabide horiek esijentzia ekonomiko edo politikoetara baino gehiago ongizatearen gizarte burokratizatua-ren materialismoa salatzen eta erakunde sozialen eta politikoen aurka egitera jo zuten. 1968ko Maiatzarenak eta gisako prozesuek argi eta garbi ikustarazten dituzte, Europan eta Estatu Batuetan, gizarte aldaketaren ondorioak, hots, balio aldaketarenak, lanaren balioaren nagusitasunarenak eta, gizarte zein politika mailetan, lanaren inguruan artikulatzen den guztiaren atzerapenarenak.

Bigarren Mundu Gerra aurreko urteak gatazka askokoak izan ziren; gerra iristean, ordea, giro politikoa lasaitu egin zen, eta sindikatuetan eta lan harremane-

ran ere konpromezuzko estrategiak hartu zuen lehentasuna. 1945. urteaz geroko Europaren egonkortasunak zerikusi handia du langileen erakundeek eskainitako laguntzarekin, kontrajarrita zeuden interesen artean hartutako konpromezuekin eta gizarte arazoetan parte hartzen ari zen Estatuarekin.

Aldaketak, beraz, politikazko kausalitate argia du, baina ez politikazkoa bakarrik. Esate baterako, enpresetako konplexutasunak langileen zuzeneko lan harremana galarazi zuen, sindikatuko aparatu gero eta profesionalagoen mesedetan. Enpresa horiek, beren planifikazioak aurrera atera ahal izateko, epe ertainean “bake soziala” lortzeko premia zuten, gatazken konponbidea araupetzeko joera (lan hitzarmenak) sendotuz joan zen. Horrek guztiak, lan legedia sendotu eta zabaltzearekin batera, errazionalizatu egin zituen lan harremanak. Enpresariak soldata handiagoen eskabideak onartzeko prest agertu ziren, eta sindikatuak indartu egin ziren enplegu osoke aldi batean. Azkenik, eskuzko lanik egiten ez zutenen gero eta pisu handiagoak, eta beren tradizio sindikal urriak edo hutsak sindikatuetan ohizkoak ziren tirabirak izateko arriskua murriztu zuten; era berean, beren diskurtsua leundu behar izan zuten langile talde berri hauek bereganatu nahi bazituzten.

Europako mendebalean, azken gerra ondoren, zenbait herrialde bereiz daiteke euren laneko gatazkak, ordezkari eta kodeterminazio mekanismoen aurrerapen maila eta sindikatuen antolabidearen nondik-norakoak kontuan harturik.

Eskandinaviako herrialdeetan, geroago Benelux osatu zutenetan eta kontinentearen erdialdekoetan (Austria, Suitza eta mendebaleko Alemania), gatazkaren beherakadak zerikusia zuen hartan parte hartzen zutenen arteko ordezkari eta hitzarmen bidezko sistema konplexu bat abiatu izanarekin. Horrek murriztu egin zuen laneko presioek eskakizunak lortzeko orduan zuten garrantzia, eta aldi berean, sindikatuen egitekoa eta garrantzia indartu. Bazkide kopuruek goreneko maila iritsi zuten hemen: langileen %90 Suedian edo hiru laurdenak Belgikan. Sindikatu ereduak batze aldera egin du. Sindikatuen aniztasuna zalantzan jartzen ez bada ere, herrialde hauetan erakunde handi bat izan ohi da, DGB Alemanian, OGB Austrian edo LO Suedian, Danimarkan eta Norvegian, herrialdeko bazkideen ehuneko larogei edo larogeita hamar hartzen dituena. Sindikatu hauek goitik beherako gremio egiturak biltzen dituzte, bitartekoetan indartsuak dira eta mobilizazioak eragiteko ahalmen handia dute. Sektorekako erabakiek, beste hainbat sektoretako ugazaba elkarteekin izenpetuek, erakunde horiek sendotzen lagundu dute. Sindikatu handi horiez gainera beste txikiago batzuk ere badira, ideologiagatik (kristautasuna Alemaniako CGDren kasuan edo anarkosindikalis-moa Suediako SACarenean) edo lanbideagatik (funtzionariak gehienbat, Alemaniako DAG edo Suediako TCO eta SR adibidez) bereizten direnak.

Belgika, Holanda edo Suitzako sindikatuek ez dute batasun maila hori bera, nahiz eta, gainerako jokabideei dagokienez, aurrekoen talde berean sartu behar diren. Ikusi ditugun adibideetako aniztasun formalaz eta batasun erreaz baina gehiago, Mediterraneo aldeko herrialdeetan gertatzen denaren antzeko aniztasunaz hitz egin behar da, erakundeak alderdi edo aukera politiko jakinetara loturik egon ohi direlarik. Hala, Holandan, NVV erakunde nagusi eta sozialistak NKV eta CNV kristauekin lehiatu beharra du. NKVren egitasmoan hain zuzen, bada testu bat, europar sindikalismoaren asmoak argi eta garbi azaltzen dituen, Bigarren Mundu Gerra ondorengo alderdien politika berriaz arestian esan dugunaren ildo beretik: “Sindikatuekin langileen interesa ez ezik holandar herriarena ere zaintzen da”. Ideia hau beste errealitate baten adierazgarri ere bada: europar sindikalismoa bere bazkideen iharduerari dagokion esparruaz haraindiko hitzarmen orokorrak egiteko gauza den ordezkaritza korporatibo gisa eratu da. Baina lehen da, bi sindikatu nagusi baitaude, sozialista bata eta kristaua bestea, bi nazio komunitate daudenez gero gurutzatu egiten direnak. Suitzako egoera berriz erdi bidekoa da; bi aukera egonagatik, lanbidea oinarri duena bata eta kristaua bestea, biotako lehen aukerak bigarrenak baino askoz baliabide gehiago izateak desitxuratzeko duelako nolabait dagoen aniztasun hori.

Britainia Handiak Europar dagoen bigarren ereduari jarraitzen dio; ikusi dugunaren antzekoa da nolana ere eredu hori. TUCak dira, *Trade Unions* direlakoak alegia, herrialdeko sindikatu bakarra, nahiz eta, une jakin batzuetan, disziplina hautsirik sektore osoak erakundetik kanpo geratzea ere gerta daitekeen. Nolanahi dela, ez da TUCari buruzko eztabaida ideologikorik, eta haien urte luzetako historia bera dute defentsarik sendoenetako bat. Federatutako gremioen indarrean datza hain zuzen aurreko ereduarekiko desberdintasuna. Nazio osorako lanbide arteko hitzarmenak egin daitezeko eragozten du indar horrek, eta horrela, produkzio sektore desberdinen negoziazio/presio prozesuak bata bestearen gain jartzean, gatazka areagotu egiten da. Gainera, gainbehera doazen industria sektoreek (ontziolak, industria astuna edo meatzaritza) herrialdean duten pisuak birmoldaketa bideratzeko politiken aurkako gatazka ekarri du erantzun gisa.

Hirugarren eredu bat dute Mediterraneo aldeko herrialdeek. Herrialde hauetako sindikatuen ezaugarri nagusiak mugimendua zatitua eta egitasmo politiko jakinetara lotua egotea dira; bigarren ezaugarri honi dagokionez, ordea, aldaketa handiak izan dira azken hamarraldian, eta zehaztu egin beharko litzateke baieztapen hori, gaur egun barne aniztasun handiagoak daudela esanez. Frantzia, Italia eta Espainia, bada hiruetan oinarritzeko zatiketa bat, herrialde batzuetan bestetan baino nabarmenagoa dena: komunismoaren eragina edo harekiko lotura duten sindikatuak batetik (CGT, CGIL eta CCOO, herrialdeen hurrenkera berean) eta joera sozialistako sindikatuak bestetik (UGT Espainian, CFDT Frantzia

eta CISL eta UIL Italian; azken herrialde honetan, ordea, bat eginez katolikoekin lehenbizikoan eta errepublikazaleekin bigarrenenan). Erakunde nagusi horiez gainera badira beste batzuk, jatorrian edo idoelogian desberdinak: kristau jatorrikoak dira Frantziako CFTC eta Espainiako USO adibidez, Frantziako CGTtik bereizi zen FO, anarkosindikalistak, berriz, Espainiako CGT, e.a.; azken estatu honetako sindikatu nazionalistak ahaztu gabe (ELA Euskal Herrian eta CIGA Galizian).

Sindikatu ereduaren gaineko desberdintasunak gorabehera, Frantzia eta Italia grebaren aldeko joeragatik berezi ziren, kontinenteko gainerako herrialdeetan ez baitzen halakorik. Sindikatu ekintzaren ondorio politikoak, sindikatu barruko eta sindikatuen arteko esparruak bereganatzeko borroka eta, ia 1970. urtea arte, negoziazio kolektiborako mekanismo instituzionalizaturik ez izana, horiek izan ziren laneko gatazka giro gogorraren eragileak.

Azkenik, “sozialismo erreala” delakoaren herrialdeetako sindikalismoa laugarren eredu baten protagonista izan da European. Marxismo ortodoxoenaren estrategian oinarri harturik, langile alderdiak aginpidea lortzen duenean, sindikatuek beren gain hartzen dute langileak disziplina bidean hezteko eta produkzioaren norabideetara eta ekimenetara makurrarazteko betekizuna. Greba egitea legez kanpokoa da, sindikatuan sartzea nahitaezkoa, bakarra da sindikatua eta hutsa langileen interesen ordezkari izateko hark duen ahalmena. “Solidarnosc” poloniar sindikatuaren eginbide independente eta alternatiboak Polonian indarrean zegoen sistema politikoa behin betiko krisi bidean jartzeaz gainera agerian utzi zituen sindikatu libre eta bizi baten eta sindikatu ofizial eta fosildu baten arteko desberdintasunak.

Europaz kanpora bi kasu berezi aipatu behar dira: Estatu Batuak eta Japonia. Ameriketako herrialdeko ereduak badu antzekotasunik britainiar TUCekin. Bietan sindikatu bakarra da funtsean; sindikatu honek unean uneko gorabeherengatik (hamarka urte iraun dezaketenak) hartatik bereizten diren sektoreak baztertzeko dituzte bakarrik. Lanbide erakundeak –sindikatu nazionalak– indar handikoak eta autonomoak dira (izan ere, AFL-CIO kutxa zentralik gabeko erakunde koordinatzailea da). Bestalde, TUC *Labour Party*-ri lotua baldin badago –oso estu lotua esan beharke genuke– AFL-CIOk Alderdi Demokratarekin dituzte harremanak; hala ere, bi egoera horiek ez dira inondik ere alderagarriak, Estatu Batuetako sindikalismoan batez ere ez-ideologizazioari ematen baitzaio lehentasuna, eta sindikatu laborista sortzeko aukera argi eta garbi ukatu baitzen mendearen hasieran: “Gure lagunak menderatzea eta gure etsaiak aukeratzea, hara zer ekarriko ligukeen horrek”. Aitzitik, AFL-CIO sindikatuari buruz, TUCak aurreko mendean erabili zuen politika bera darabilela esan daiteke: presio talde gisa aritzea alegia, eta bere bazkideei botoa nori eman gomendatuz aukera jakin bat garaile edo

galtzaile irten dadin laguntzea, egin berri duen edo etorkizunerako agintzen duen lan politikaren arabera. Edo hitz arruntagoak erabiliz: “lagunari saria eta etsaiari zigorra”.

1935. urteko *National Labour Relations Act* –langile gehienek hala eskatzen dutenean negoziazio kolektiboa egitera behartzen duen legea– delakoaz gerotik hitzarmen kolektiboetan sarturik daude eskulangileen bi herenak baino gehiago, baina enplegatuen %15 baino ez. Muturreko egoerak garraiatzaileena eta finantzetako, aseguru etxetako eta etxegintzako enplegatuen dira; izan ere, garraiatzaileen %90 baino gehiago dago hitzarmenean sartuta, eta besteetatik berriz gehien-gehienak hitzarmenetatik landa daude.

1950. urtetik aurrera, negoziazio kolektiborako sistema hobeto zehaztu izanaren ondorioz, greba gutxiago egin zen; gaur egun ere, Europako herrialdeetan bezala, erreibindikazio munduaren parte dira oraindik ere.

Japoniako sindikalismoan, azkenik, bi ezaugarri nagusi azpimarra daitezke: haren bizialdi laburra eta “demokrazia industrial” terminoak hain gizarte tradizionalan sartzeko aurkitzen dituen oztopoak. Japoniako sindikatu tipikoa bakar-bakarrik enpresa baten inguruan aritzen dela da aipatzea merezi duen beste ezaugarrietako bat; sindikatuetakoz bazkideen ia %80 eredu horren barruan sartzen da, baina, hala ere, hori ez da eragozpena sektorekako federazioak eta koordinazio erakunde nazionalak ere izateko edo enpresako sindikatu bakarraren barruan “bereizketak” sortzeko (*daini kumiai* izenez ezagutzen dira bereizketa horiek).

Japoniako sindikatuetakoz bazkide kopurua nahiko handia da: soldatapeko guztien %35 baino gehiago. Japoniako Sindikatuen Kontseilu Nagusia (Sohyo) eta Japoniako Langileen Konfederazioa (Domei) dira bi sindikatu nagusiak. Horietakoz lehena 1950ean sortu zen. Herrialdeko sindikaturik handiena da, eta Alderdi Sozialistari laguntzen dio, giza eta ekonomia baliabidez. *Domei*-ak, berriz, Alderdi Sozialista Demokratikoari laguntzen dio, eta gerra ostean sortu zen, sindikatuen batasuna lortzeko ahaleginak huts egin ondoren. Bi egitura handi hauez gainera beste sindikatu txiki batzuk daude. 1948tik 1993ra etengabe aginpidea izan duen gobernu kontserbadorearen aurkako oinarri sendoak osatzen dituzte bi sindikatu handi horiek, baina zatiketarako joerak eta barne istiluek ahuldu egin dute horien eragina.

## **2.2. Nazioarteko erakundeak Bigarren Mundu Gerra ondorengo sindikalismoan**

Bigarren Mundu Gerra ondoren nazioarteko hiru erakunde handiren arabera antolatu zen sindikatuen iharduera: MSF, ESANK eta LMK.

Munduko Sindikatuen Federazioa (MSF) 1945. urtean sortu zen, Parisen, hura prestatzeko egin zen bigarren konferentzian, britainiar (TUC) eta frantses (CGT) sindikatuen ekimenez, sobietar sindikatuekin batera. Estatu Batuetako CIOko sindikatuak ere (ezen ez AFLkoak) konferentzian parte hartu zuten. Beste Internazional sindikal bat eratzeko proposamenak, britainiar TUCaren kongresu batean sortuak (1941), berehala bildu zituen herrialde horretako sindikatuak, Estatu Batuetakoak, sobietarrak, eskandinaviarrak, frantsesak, alemanak eta italiarrak, eta baita aliatuen gudarosteak hartutako europar herrialdeetakoak ere.

Internazional sindikal hori gerragatik eta gerra giroan sortu zen –zenbait lurraldek bat egin baitzuen gerrarako bitartekoak sortzeko ahaleginean–, baina horrexek berak eta aliatuen arteko tirabirek eta konponezinek desegin ere egin zuten. Hala, Marshall Plana edo Estatu Batuek Europari laguntzeko egin zuten ekonomia planari buruzko jarrera desberdinek ekarri zuten bereizketa (1949). Sindikatuak Parisko bileran Plana gaitzetsi ondoren, Britainia Handiko, Estatu Batuetako eta Holandako ordezkariak, eta geroago, Eskandinaviako, Commonwealth, Belgika, Austria eta Suitzakoek, bertan behera utzi zuten MSF. Harrezkero, herrialde komunistetako, Hirugarren Munduko eta Europako alderdi komunistak batzuekin (Frantziako CGT eta Italiako CGIL dira aipagarrienak) lotura zuten sindikatuen nazioarteko erakunde gisa hartu zen hori.

Berlingo harresia eraitsirik, krisi latza sortu zen erakunde horren baitan. Erakundeak inoiz izandako 120 milioi bazkideetatik, komunistak izandako herrialdeetako sindikatuetaoak ziren hiru laurdenak. Nazioarteko egoera goitik behera irauli duten aldaketek erabat ahuldu dute MSF, eta gaur egun, pisuzko europar sindikatuetan Frantziako CGT da erakunde barruan jarraitzen duen bakarra. 1993. urtea arte Pragan izan zuen egoitza, baina Damaskon egin zen Aparteko Biltzarrean egoitza Genebara aldatzeko asmoa azaldu zen.

Erakunde Sindikal Askeen Nazioarteko Konfederazioak (ESANK) 164 sindikatu eta 117 herrialdeetako ehun milioi bazkide baino gehiago hartzen ditu. Horien artean Europako sindikatu garrantzitsusenak daude, Alemaniako DGB, Britainia Handiko TUC eta Frantziako CFDT, Espainiako sindikatu handiak (UGT, ELA-STV eta, sartzeko bidean, CCOO) eta Italiako nagusiak (CGIL, UIL eta CISL). Erakunde disidente bat (metalurgiako UAW) ezagutzeko arazoak izan zirela eta, Estatu Batuetako sindikatu handiek (AFL-CIO) alde egin zuten konfederaziotik, baina azken urteetan, komunistak izandako herrialdeetako sindikatuak sarbidea emateko politika bideratu baitu (Poloniako *Solidarnosc*, txekiar, hungariar, bulgariar, errumaniar... sindikatuak), lehen tokia lortu du berriro sindikatuen nazioarteko erakundearen artean. Sindikatuak sarbidea emateko politika hau astiro eta ongi aztertuz egina denez, Sobietar Batasuna ohizko sindikatuen sarre-  
ra eskabideak ez dira, 1993an, oraindik onartu, nazioarteko sindikalismoa lehen-

dik dagoen baino are kolokago ez jartzearren. ESANKek aholkulari edo ordezkari iraunkorraren estatusa du nazioarteko erakunde garrantzitsuenen aurrean (NBE, FAO, Diru Fondoak, Munduko Bankua edo GATT).

1949. urteko azaroan Londresen egin zen konferentzian sortu zen ESANK, MSFtik bereizi ziren sindikatuekin. Handik gutxira, aurreko Internazional komunisten jarraitzaile gisa hartu zuen MSFtik aldentuz zihoan politika egin zuen. ESANKek bere gain hartu zituen enpresa librearen gobernupeko herrialdeetan ihardutearen ondorioak, eta “sozialismo erreala” zeritzaion errejimenetatik urruntzeko eta, aldi berean, kapitalismoaren ondorio txarrak zuzentzeko politika zehaztu zuen. Horregatik, agian, buruzagietako batek botatako “Ez Stalinik ez Standard Oilik” kontsignak zehaztu zuen hirugarren Internazionalaren jarraibidea.

Lanaren Munduko Konfederazioa (LMK) da gaur egungo nazioarteko sindikatu erakunderik zaharrena, 1920. urtean Hagan sortutako Kristau Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioan (KSNK) baitu jatorria. Gaur egun duen izena Luxenburgoko 1968ko Kongresuan jarri zitzaion. Izenarena ez ezik garrantzi handiko beste aldaketa bat ere egin zen, KSNK ohiaren erreferentzia konfesionala baztertzea alegia; erreferentzia hori fundazio karta berriko esaldi batera mugatu zen, non, gizonen asmoak asetzeko eta herrien garapena gauzatzeko, balio espirtualetara deitzen baitzen. Hala ere demokratakristauen aldeko joera duen nazioarteko erakundetzat hartua da oraindik LMK. Erakunde berriro eratzeke egindako biltzarrean bertan “kapitalismoaren eta estatismo marxistaren molde guztiak” salatzen zituen aitormena egin zen.

LMKk Brusselan du egoitza, eta hamahiru bat milioi bazkide ditu hirurogeita zortzi herrialdetan. Horien artean aipagarriak dira Belgikako sindikatu kristauak (CSC, Belgikan tradizio handikoa dena), holandarrak, Kanadako erakundeak, Latin Amerika eta Afrikakoak, edo Espainiako bi ordezkariak: USO eta, euskal sindikatu abertzalea den ELA-STV. Alemaniako sindikatu kristauak LMKtik ateratzean, Frantziako CFDT izan zen, Belgikako sindikatuekin batera, nazioarteko erakunde horretako erreferentzia nagusia.

Kontinente osoko sindikatuen ordezkari direnen artean ere badira pisu handiko erakundeak, Europako Sindikatuen Konfederazioa esate baterako. Hala ere, nazioarteko sindikalismoaren antolabidean, azken urte hauetan ESANK ari da indartzen, MSFren kaltetan, Europako ekialdeko aldatetok eragin handia baitute azken honetan. Bere aldetik, LMKk bizirik dirau, ESANKek duela paper nagusia onartuz eta harekin batera lan eginez aldi berean. Nazioarteko erakunde hauez gainera badira garrantzi handiko beste sindikatu batzuk, Estatu Batuetako AFL-CIO eta Japoniako sindikatu nagusia, *Sohyo* delakoa, esate baterako.

### 3. Ongizate egoeraren sendotzea. Estatuaren zeregin berria

#### 3.1. Ongizate Estatuaren sendotzea

Aurreko orrietan azaldu dugun bezala, egia da estatuaren partehartzeak eta, zehatzago esateko, politika sozial modernoak XIX. mendearen azken hogeitau urteetan dutela jatorria, baina, haatik, Bigarren Mundu Gerra ondoren bakarrik nabaritu dira benetan horien ondorioak. Komunitateak edo Estatuak herritarrei gutxieneko babesa, segurtasuna eta gizarte ongizatea eman beharraren ideia azken urteetan gero eta defendatzaile gutxiago zituen indibidualismo liberalaren ohizko beste tesiei gailendu egin zitzaizkien behin betiko. Estatuaren politikan eragin handia izandako dokumentuek berretsi egin zuten jarrera hori. Gerra bete-betean zegoela, aliatuen helburu politikoak laburbiltzen zituen Atlantikoko Kartak (1941) aintzat hartu zuen gizarte laguntzaren printzipio hau. Ez alferrik, aliatuen buruzagiek bazekiten herritarren garaipenerako borondateak hirugarren hamarraldiko urte latzetakoa baino bizimodu hobea izango zutelako uste sendoa zuela, neurri handi batean, oinarria. Hilabete batzuk lehenago, Kongresuaren aldetik aliatuentzako laguntza lortu nahirik, Roosevelt lehendakariak berak adierazi zuenez, “lau askatasunak” deitzen zituenak lortzea zen gerraren helburua: adierazpen askatasuna, erlijio askatasuna eta “beharretatik zein izutik aske” izatea (1941). Beste hainbeste gertatzen da, geroago, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala (1948) onartzen eta, besteak beste, hainbat eskubide aintzat hartzen duenean: gizarte segurantzaren eskubidea (22. atala), lan egiteko, langabeziaren kontra babestua izateko eta beste edozein motatako gizarte babesa edukitzeko eskubidea (23. atala), eta mediku laguntza eta beharrezko diren zerbitzu sozialak izateko eskubidea (25. atala). Estatuak, berandu baino lehen, konstituzioan sarrarazi zituzten zuzenbidezko berrikuntza hauek, eta herrialde batzuetako konstituzioek “Estatu sozial” batena bezala definitu zuten beren izaera –Espainiakoak adibidez, idatzi berrienetako bat delako agian, baina baita urte batzuk lehenago idatzi zen Alemaniako Errepublikaren Federalekoak ere–. Esan daiteke, 1945. urteaz geroko Europako mendebalean bakea iraunarazi duen itun soziala, zehazki adierazia edo adierazi gabea, gizarte segurantzari buruzko politikari eusteko borondatean oinarritu dela.

Horregatik, Bigarren Mundu Gerra ondorengo aldaketa handiaren funtsa erre-akziozko babes politika egitetik aurrezaintzazko politika egitera pasatzean zetzan. Koadro honek erakusten duenez, Europako herrialde gehienek gizarte segurantzaren oinarritzko esparruetara zuzendutako legeak zituzten 1940. urtea baino lehen.



## 7. Koadroa. *Gizarte segurantzari eta estatu laguntzari buruzko lehen estatutu legeak*

Ezbeharra	Eritasuna		Erretiroa		Langabezia		Familia	
	Diru-lag.		Diru-lag.		Diru-lag.		Diru-lag.	
	Borond.	Nahitaez	Borond.	Nahitaez	Borond.	Nahitaez		
<b>Ipar Europa</b>								
Suedia.....	1901	1891	1953		1913	1934	1947	
Danimarka.....	1898	1892	1933		1891	1907	1952	
Finlandia.....	1917		1963		1937	1917	1943	
Norvegia.....	1894		1909		1936	1906	1938	1946
<b>Mendebaleko Europa</b>								
RAF.....	1884		1883		1889		1927	1954
Britainia Handia.....	1897		1911		1908		1911	1945
Frantzia.....	1898	1898	1930	1900	1910	1905	1867	1932
Holanda.....	1901		1913		1913	1916	1949	1939
Belgika.....	1903	1894	1944	1900	1924	1920	1944	1930
Austria.....	1887		1888		1927		1920	1948
Suitza.....	1911	1911			1946	1924	1976	1952
Irlanda.....	1897		1911		1908		1911	1944
<b>Ekialdeko Europa</b>								
Polonia.....	1921		1920		1927		1924	1947
Jugoslavia.....	1922	1922		1922			1927	1949
Errumania.....	1912		1912		1912			1944
DDR.....	1884		1883		1889			1975
Txekoslovakia.....	1919		1924		1924	1921		1945
Hungaria.....	1907		1907		1925		1957	1938
Bulgaria.....	1924		1924		1924		1925	1942
<b>Hego Europa</b>								
Italia.....	1898	1886	1928	1898	1919		1919	1936
Espainia.....	1922	1929			1919	1931	1954	1938
Portugal.....	1913		1919		1919			1942
Grezia.....	1914		1926		1922		1945	1958

Iturria: Gerold Ambrosius eta William H. Hubbard, *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Alianza, Madril 1992, 141 orr.

Bigarren Mundu Gerra ondoren, 1946-1948 bitarteko urteetan, Ingalaterrako gobernu laboristak indarrean jarri zituen Beveridge Txostenak (1942) egindako gomendioak; era horretara hasi zen Estatu soziala ulertzeko moduaren aldi berri hau.

Hala, lehengo langabezia, ezbehar edo zahartasun aseguruaren sarea sendotzea ez ezik beste zeregin bat ere eman zitzaion Estatuari, gizarte segurtasunari eta

ongizateari buruzko politika orokorra bidera zezan. Horrek bere ohizko zereginetan sendotu zuen Estatua, hau da, nazioko osasun eta hezkuntza sistemari, gizarte laguntzari edo zerga bidezko errentaren banaketari dagokien esparruetan. Horrez gainera, familiarako diru laguntza onartu zen, seme-alaben kopuruaren araberakoa, etxebizitza sozialen aldeko politika bultzatu zen, eta batez ere, areagotu egin zen estatuaren esku hartzea ekonomian, enplegu osoko egoerara iristeko eginbidean merkatuaren osagarri izan zedin. Mendearen hurrengo hamarraldietan herrialde guztietan jarraitu eta zabaldu zen politika hau, onuren unibertsalizazioaren aldeko joerarekin batera. Gizarte segurantzaren diru gutxi gastatu ohi duten herrialdeetan, Estatu Batuetan adibidez, behartasunaren arazoak arduratu ziren, ez baitzen egoera hura errentak igoz edo enplegu osoko egoerari eutsiz besterik gabe konpontzen zen horietakoa. Kennedy eta Johnson lehendakariaren kanpainetan “beste Amerika hura” puri-puriko arazo bihurtu zen, eta ekonomilarik talde bereziak egoera hura ikertzen hasi ziren.

1959 eta 1960. urteetan Europako mendebaleko herrialde industrializatuenak barne produktu gordinaren ehuneko hamarra inguru gastatu zuten –kuota soziala delakoa– gizarte segurantzaren. Europako ekialdeko herrialde batzuek, Txekoslovakia (%15,2) eta Alemaniako Errepublika Demokratikoak (%14,1) esate baterako, maila hura baino gorago joan ziren, baina, hala ere, esparru geopolitiko hartako herrialdeen batez-bestekoa Europak erreferentziazat zuen ehuneko hamar hura baino zerbait gutxiago zen. Askoz atzerago geratu ziren gizarte segurantzari buruzko politiketan bestelako tradizioa duten herriak, Estatu Batuak (%4,8), Suitza (%6,1) edo Japonia (%2,9) adibidez.

1970-1980. urteetan gizarte laguntzarako gastua handituz joan zen; Europan batez-besteko gastua %13,4koa izan zen 1965. urtean eta %22,4koa 1977an. Suedia gastu sozialetan aitzindari izan zen 1979-1980 bitarteko urteetan (%28,6), baina gastu txikiko herrialdeak ere (Kanada, Suitza eta Estatu Batuak adibidez) ehuneko hamarretik gorako kopuruetera iritsi ziren urte horietan, eta kopuru horretara iristen ez zirenek ere (Japonia esaterako) hogeitau urte lehenagoko gastu kopuruaren halako bi gastatu zuten.

Laguntza hartzaileen kopurua handitzeko eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko egin ziren estatu politiken ondorio zen prestazio gastuen borondatezko gorakadari kostuen gorapen arriskutsua gehitu zitzaion hainbat arrazoiren ondorioz. Hasteko, adinen banaketaren aldaketak zirela medio, handitu egin zen erretiroa hartzeko adinean zegoen biztanle kopurua, eta erretiro eta osasun laguntzarako gastuek ere gora egin zuten bitartean, gorakada hori bere gain hartu behar zuen langile kopuruak behera egin zuen. Baina are larriagoak izan ziren 1975. urte inguruan eta, zuzperraldi baten ondoren, 1990. urte inguruan Ongizate Estatuaren sare osoak izan zituen krisiak. Ekonomiaren egoerak, ez aurrera ez atzera egiten

ez zuela, eta inflazioak gogotik murriztu zuten gastu sozialaren makina mantentzeko ahalmena. Bestalde, batzuen iritziz mugarik izango ez zuen ekonomiaren aurrerapena geldotu izanari beste arazo larri bat gehitu zitzaion, langabeziarena, edo lanik gabeko langilearena, gastu sozialari dagokionez lanik egiten ez duen beste edozein biztanlek bezalako eragina duena: laguntza hartzen du baina ez du laguntza hori mantentzeko kuotarik ordaintzen. Batez-beste, 1974. urtean, eta Europako mendebalean, gizarte segurantza guztiaren finantzaketa honela zegoen banatuta: %29 langile asegurdunentzat, %40 enpresariarentzat eta %27 estatua-  
rentzat.

Are gehiago, eta gizarte segurantzaren gastuari dagokionez, herrialde industrializatuen eta munduko merkatuan gero eta gorago dauden herrialdeen (Txina, Asiako hego-ekialdeko herrialdeak, Latin Amerika bere liberalizazio ekonomikoa eta gero) arteko desoreka, ekonomiaren mudializazioarekin batera gertatu da.

Ez da harritzekoa, beraz, gauden Ongizate Estatuak bere horretan eutsiko ote dion izatea 1980. urtetik aurrerako hamarraldiko gogoeta eta eztabaida gai nagusia. Askotariko kritikak egin dira, gai hauei buruzkoak besteak beste: prestazioaren unibertsalizazioaren zentzuaz (zer dela eta irabazpidea eman, duen errentagatik laguntzaren beharrik ez duenari?); zerbitzuen burokratizazioak dakartzan kostuaz eta atzerapenez, eta banakako aseguru eta aseguru pribatuen ustezko abantailaz; gizartea horren babestua egotean berrikuntzak egiteko ahalmenari eta banakoaren errendimenduari jartzen zaizkion mugaz; muturreko indibidualismoaren eta balio materialen aldeko jarrerak bultzatzeaz; eta munduko beste leku batzuekiko lehian galtzaile irtearen erantzule diren gizarte segurantzaren gastuak bere gain hartzeagatik ekonomia zurrundurik egoteaz.

Historialariek hain gogoko duten kontingentziaren kontzeptuan, alegia, gauzak gerta daitezkeela edo gerta ez daitezkeelako ideia berriro sortzean datza eztabaida honen funtsa. Ongizate Estatuak (letra larriz idatzia) gorabehera handiko historia batean bukatzeaz dagoen egitekotzat hartu behar da, askotariko ukituak eginez eta orientabide berriak emanez taxutu dena, eta Estatu nazionalarena edo zuzenbidezko Estatuarena berarena bezain etorkizun irekia izan dezakeena. Etengabe berritzen ari den definizio horretan, historiaren indarrek, hots, gizate-  
riak du egoera hori gauzatzeko protagonismoa.

### **3.2. Estatuaren zeregin berria**

Baina Estuari esleitutako funtzioak, esku hartzearen aldeko tesi indartsuen amoregatik, ez ziren gizarte esparru hutsetara mugatu, ekonomiarena ere hartu baitzuten. 1930. urtetik aurrerako hamarraldiko krisia bi gauzatarako izan zen baliagarria. Lehenik eta behin, kapitalismo lehiatzailea estatuaren kontrol zuze-

naren mendean egonagatik bere nortasun ezaugarriak galaraziko zizkion eraldaketarik batere izan gabe egon zitekeela frogatzeko. Bigarrenik, demokrazia parlamentarioari eta sistema kapitalistari berari buruzko mesfidantzak –urte horietako krisi ekonomiko larriaren ezaugarria– gauzak errotik aldatzea eskatzen zuela. Keynesen proposamenek Estatuari merkatuaren funtzioaren osagarri izateko zegokion erantzukizunaz ohartarazi zuten, era horretara enplegua sortu, ongizaterira iritsi, ekonomia berriro zuzpertz eta barne zein kanpo orekak lor zitezen.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren sendotu egin zen estatuen esku hartzeko joera hori. Hala ere, joera hori ez da aginpidean eragina zutenen indarren arteko erlazio aldaketen isla gisa bakarrik ikusi behar. Langile elkarteek European gizarte ongizatea zabaltzeko eskatuz egiten zuten presioa zela eta, erreformak egin behar izan ziren gizarte (prestazioak aurrerabidean jartzea) eta ekonomia alorretan (baliabide ekonomiko jakin batzuen gainean estatuak kontrola izatea; nazionalizazioak, enplegu osoko egoeraren aldeko politika; e.a.). Baina horrekin batera, aipagarria da nola kapitalismoak, herrialde aurreratuenetan iritsi zuen konplexutasuna zela eta, Estuati eman behar izan zion berak bere kabuz gauzatu ezin zuen antolakuntza eta erregulazioa bermatzeko lana. XIX. mendean Estatuaren esku hartzea merkataritza eta arantzel politikak zehaztera mugatu bazen, orain, berriz, politika nazionalek eman nahi ziotena bezain funtzio zabala izan zezakeen. Ildo beretik, tokian tokiko eta garaian garaiko gorabeherak izan badira ere, XX. mendearen bigarren erdiko Europako mendebalak kanpo ekonomian politika liberala eginez jarraitu duela esan daiteke, eta barne ekonomian berriz areagotu egin duela estatuaren kontrola. Gainera, espazio gorabehera horiek alde batera utzita, teknologia berriek eragin eta toki handiagoa dutenez produkzio eta elkartrukerako mekanismoetan, Estatuak erabakietan duen protagonismoa esparru gehiagotara zabaldu da.

Hori zelarik joera nagusia, 1970. urtetik aurrerako hamarraldiko krisi ekonomikoak eragin zuen aldaketarik aipagarriena. Keynesianismoan oinarritu zen Europako mendebalaren ordura arteko politika: estatuak zerga eta diru politikan, errenta politikan eta gidabide moduko planifikazioan esku hartzen zuten. Inflazioak gero eta gehiagora jotzen zuela, langabeziak ere gora, produktu sozialak ez aurrera ez atzera, ordainketa balantza desorekaturik, aurrekontuen defizita gehituz, eta diru aldaketaren nazioarteko merkatuen egonkortasunik eza eta munduko salerosketako salneurrien gorabeherak zirela eta, politika neoliberalen aldeko neurriak hartu ziren, monetarismoan oinarrituak neurri handi batean.

Errealitate berri honek eta politika berri horiek aldatu egin zituzten, ezen ez murriztu, estatuen esku hartzearen helburuak eta alorrak. Enplegu osoko egoera eta ekonomiaren aurreramendua ziurtatu ordez, estatuak austeritate politiketan tematu ziren, lehentasuna zuten helburu berriak lortzeko: salneurrien egonkorta-

suneta eta ordainketa balantzaren oreka. Horrek bultzaturik, eta administrazio ihardunbidez, goreneko mugak ezarri zitzaizkien soldata igoerari eta salneurriei, banku nagusien erabakiei lehentasuna eman zieten diru politikak bideratu ziren, gastu publikoa gutxitzea helburu zuten aurrekontu politikak egin ziren, eta ahalik eta diru sarrerarik handienak lortzeko, zerga politikak egin ziren; baita enpresen aldeko politikak ere, pizgarriak emanez inbertsioari, ekonomiaren hazkundera orain eskaintzaren bidez bultzatzeko; e.a.

Neoliberalismoa estatuari ekonomiatik “atzera egiteko” egin zaion gonbidapentzat har daiteke: estatuaren burokratizazioa desegiteko batetik, eta gastu soziala enpresa pribatuaren gainetik kentzeko bestetik. Baina ziklo luzean ikusirik prozesua, politika neoliberal horiek egiteko bat eta esku hartzeko ahalmena ematen diete oraindik ere estatuari, orain dela mende erdi bat inola ere esku hartzerik izango ez zuen alorretan.

#### 8. Koadroa *Koiunturazko politika egiteko bitartekoak*

<i>Esparru politikoa</i>	<i>Bitartekoak</i>
Finantza politika Aktorea: gobernu Helburua: eskari ekonomiko globalari finko eustea	Hauen aldaerak: – Gastu publikoa – Estatuaren diru sarrerak (zergak) – Unean unerako neurri bereziak – Inbertsioak sustatzea eta emendatzea – Amortizatzeko moduak – Diru laguntzak
Diru politika Aktorea: Banku zentrala Helburua: diru kopuruen eta korritu tasen kontrola	– Gutxieneko erreserba politika – Doitze politika – deskontu tasen gaineko politika – deskontu handiagotarako bideak – Lonbardiari motako tasak erabili – Merkatu irekiaren aldeko politika
Dibisen gaineko politika Aktorea: banku zentrala eta gobernu Helburua: diruaren kanpo balioa sendotzea	– Dibisa merkatuan esku hartzea – Balioen gorapenak eta beherapenak – Swap tasen bidezko politika
Soldataren gaineko politika Helburua: egonkortasunaren kalterako tarifak onar daitezkeen eragozte	– Gobernuari buruzko datuak (hitzar-menezko ekintza) – Soldata gizabideak – Soldatei eta salneurriei goreneko mugak jartzea.

**Iturria:** Gerold Ambrosius eta William H. Hubbard, *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Alianza, Madril 1992, 361. or.

## 4. Gizarte aldaketak, teknologia berriak eta lanaren antolabide berria. Toyotismoa

### 4.1. Teknologia berriak

1970. urtetik aurrerako hamarraldian elementu berri batzuk sortu ziren; elementu horiek, azken buruan, erabateko garrantzia izan dute informazio teknologien zabalkundearen: mikroprozesadorea 1971n, DNAren konbinaketaren teknika 1973an, ordenagailu pertsonala eta etxeko bideoa 1975ean. Hala, bada, ondorengo hamarraldia, 1980tik aurrerakoa, Teknologia Berriek sarbidea izan zuten bezala defini daitezke. Gertaera hori erabakiorra izan da produkzio prozesuetan, eta garrantzi handiko ondorioak eragin ditu ekonomian, geopolitikan eta gizartean.

Teknologia Berriak (TBak) deritzagu informazioaren tratamendu gero eta handiagoa erabiltzen duten edo hura gauzatzeko baliagarri diren produkzio eta aldaketa prozesuei. Mikroelektronika, informatika, telekomunikazioak, automatizazioa eta bioteknologia errealitate berri honen adierazpide garbiak dira.

Dudarik gabe, hobeto ulertuko da TB hauen aplikazioaren garrantzia adibide praktiko ezagun batzuk emanez. Ordenagailua industrian eta zerbitzuetan, edo baita lehen sektorean ere, erabiltzea baliagarria da ekipoen funtzionamendua kontrolatzeko, fabrikazio kostuak kalkulatzeko, prozesuen simulazioak egiteko prozesuok praktikan jarri baino lehen, datuak kontrolatzeko operazioak eta datu trukaketak errazteko (gogoan har banketxeetako zerbitzuak), e.a. Robotikaren aplikazioa: produkzio prozesu barruko beste elementu batzuk egiteko-eta gauzak, piezak, multzoak edo makinak darabiltzan robota. Automata programagarrien bidez makina batek edo instalazio batek egiten dituen mugimendu katearen edo sekuentzien logikazko kontrola bermatzen da; hala, automata hauek, lehen erabiltzen ziren eta oraindik ere instalazio txiki askotan erabiltzen diren hari bidezko sistema logikoen lotura multzoen ordezko bihurtu dira eta alde handia kentzen diete haiei. Zenbaki bidezko kontrola gauza arrunta da honezkero makina erremintaren alorrean, makina atalak egiteko. Kontrol mota horren bidez ordenagailuaren antzeko programekin gobernatzen da makina, abiadura desberdineko mugimenduak eta higidura tarte zehatz-zehatzak egin ditzan, era guztietako piezak fabrikatzeko.

TB hauek guztiak erabiltzeak industria produkzioaren automatizazio orokorra ekarri du, makinak elkarren artean “hitz egiteko” eta beste makina baten bidez, ordenagailu baten bidez gehienetan, “beren buruari” laguntzeko gauza direla. Honen ondorio zuzena tradiziozko zereginetako behargin gutxiagoren eta kualifikazio handiagoko eta desberdineko langile gehiagoren beharra da. Gauzak

horrela direlarik, ohizko behargina, honezkero zaharkituta dauden ekipoak erabiltzeko kualifikaziorik edo prestakuntzarik ez duena, sektore marginaletara baztertzen da eta TBak erabiltzeko prestakuntza berezia duen langile berriak hartzen du haren tokia. Argiketariei adibidez, automata programagarriak erabiltzen erakusten zaienez, lan egiteko aukera gehiago eskaintzen zaie, elektronikako langileei eta informatika analistei bezala besteak beste. Lanbideko kontzeptu berria “mekatronikoa” da, makinak doitzen edo konpontzen diharduen langileari dago-kiona; izan ere, mekanika sinplifikatzen ari den bitartean makinetako osagai elektriko eta elektronikoen gero eta garrantzi handiago dute.

Beraz, TBen aplikazioak iraultza ekarri du langileen merkatura; baina lehen industria iraultzan izan ziren aldaketei buruzko azalpenetan esan dugun bezala, aldaketa hauek horren lasterra ez den prozesu orokor baten barruan aztertu behar dira, gauden egoeratik egitea azkarregi egitea izan baitaiteke. Honek hasierako prozesu guztietan tipikoa den “dualizazio” kontzeptura garamatza berriro. Horrela, produkzioko mekanismo aurrerakoiak dituen industria eta, beste ikuspegi horretatik begiratuta, zeharkitutzat hartu ohi dena bizi daitezke elkarren parean denbora luzean. Estatu Batuetan, adibidez, erdiezkutuko oihalgintzaren sektoreak zortzi milioi langile enplegatzen ditu oraindik; hala ere, esan beharra dago, langile horietatik gehienak prestakuntzarik gabeko biztanle marginatuen artetik hartuak direla, Mexikotik edo Ameriketako Erdialdeko herrialdeetatik joandakoen artetik.

Halaber, TBek iraultza eragin dute produkzio prozesuetan, eta bereziki, laneo denbora banatzeko moduetan eta ihardueraren antolamenduan. Malgutasun eta elastikotasun kontzeptuak dira nagusi aldaketa hauetan. Hasteko, produkzio elastikoaz hitz egin behar da. Horrekin erantzun bat eman nahi zaio produkzio krisiaren ostean ezkututzen den faktoreetako bati, merkatuak eskarian dituen gorabeherenari alegia. Eskariaren bi segmentu identifikatzen dira produkzio elastikoarekin: enpresa moderno handiak heltzen dion eskari finkoa, aurrikus daitekeena eta iraunkorra batetik, eta eskari aldakorra bestetik, enpresa txikira bideratzen dena. Enpresa handiak –teknologia baliabide handiekin, makinaren emaitza handitzeko ustiatze sistema intentsiboak aplikatzen dituen, eta lanean txanda gehiago sartuz eta urteko egun guztietan lan eginez produkzioa eteten ez duena– merkatuaren gorabeheren arriskuak gutxitzea lortzen du, eta aldi berean, laguntzako enpresa txikien gain uzten du kezka hori; enpresa txiki hauek askoz egokiagoak dira ustekabeko eskariei aurre egiteko, teknologia inbertsio txikiagoa dute, lan prozesu intentsiboak erabiltzen dituzte eta langileei enplegu baldintza kaskarragoak eskaintzen dizkiete. Industria nagusiaren abantailak argiak dira: lansari finkoen kostuaren murrizketa, baliabideen ustiapen intentsiboa (eskaria-

ren segmentu bakoitzera egokiturik) eta merkatuen gorabehera erantzuteko gaitasun handiagoa.

Malgutasunak eragina du orobat hornitze eta biltegiratze sisteman. Zentralizatua dagoen sistema informatiko konplexu baten bidez, salmenta puntuetatik produkzioa kontrolatzeko guneetaraino bidaltzen da eskariari buruzko informazioa. Era horretara, “eskariaren araberako” produkzioan (*just-in-time*) denbora da faktorerik garrantzitsuena, eskari jakinaren mendeko bihurtzen baita osoki zeregina. Sistema hau aplikatzerakoan bi arazo nagusi sortzen dira: garraio zerbitzuen kalitatearekiko mendekotasuna eta montaketa kateako gatazka; azken hau langileak produkzio erritmoak handitzera hertsatuak izatearen eta, errotazioak gorabehera, lanaren monotoniak haiengan duen eraginaren ondorio da.

Hirugarrenik, malgutasunak eragina du produkzio edo lan esparruetan. TBak aplikatzerakoan beste era batera bana daitezke zereginak; hau da, produkzio edo iharduera talde txikiak osa daitezke, lan talde independienteak baina elkarren artean eta zentruarekin koordinatuak daudenak. Izan ere, toyotizazioa –geroago hitz egingo dugu toyotizazioaz–, talde lanaren edo “kalitate zirkulu”-en bidezkoa, produkzio prozesuak banakatzeko aukera ematen du. Banketxeetako ihardueretan edo zerbitzu enpresetan aspaldi sortuak dira informatikari esker eremu murrizteko lan talde txikiak, mugitzen diren espazioaren ezaugarrietara egokitzen direnak eta beren kabuz ia arazo guztiak konpontzen dituztenak. Hau horrela izatea eta konpainia handiak ere izatea ez da kontraesana; aitzitik, bi errealitate horiek elkarren osagarri bihurtzen ari dira, gero eta gehiago. Erabateko deszentralizazioa eta produkzio ihardueraren deszentralizazio espaziala industrian ere gertatzen da.

Azkenik, malgutasunak eragina du merkatuan eta beharginen ezaugarrietan. Hasteko, arestian ikusi dugun bezala, langile mota berri bat behar da, ez lanbide prestakuntza tradizionala duena (fresalaria, tornularia, argiketaria, mekanikoa...), baizik eta “makina nola dabilen” jakiteko prestatua dagoena. Hortaz, lehen industria iraultzan gertatu zen bezala, makinak kualifikazio ezaugarriak kentzen dizkio berriro lanari, edo, agian, beste ikuspegi baikorrago batetik begiratuta, aldatu egiten ditu lanaren kualifikazio ezaugarriak: langilea aldatzea, askotariko gaitasuna duena eta egokiago bihurtzen da, ez langintza jakin baterako bakarrik, baizik eta makina jakin batzuekiko harreman zehatzetarako, etengabeko lanbide preskakuntzara behartua. Funtsean ez dago alde handirik ehundegi mekanikoan ziharduen XVIII. mendeko langile haren eta zenbaki bidezko kontrolako tornuan lan egiten duen enplegatu “mekatroniko” berriaren artean.

Lanaren zenbatekoaren eta kalitatearen ardura bere gain hartzen duten talde lanen bidezko zereginen autonomizazioak arras murrizten du bitarteko agintarien



zeregina, bai produkzioaren kontrolaren gaineko egitekoari dagokionez bai ekoizleen gaineko kontrolari dagokionez. Bestalde, teknikariak proletario bihurtzen diren prozesuarekin batera produkzio langileek kualifikazio maila handiagoa lortu dute.

TBak aplikatzean gertatu diren aldaketa handi hauek eragina izan dute orobat langileen gizarte baldintzetan, eta baita langileen eta sindikatuen antolamendu klasikoaren arteko harremanetan ere.

Berez, TBek dakarten *dualizazioa* dela eta, bi langile mota bereizten dira, oso desberdinak biak enplegu baldintzei dagokionez, enpresa moderno handiko langilea izan edo laguntzazko produkzio taldekoa izan. Enpresa handian, eskatzen den malgutasunaren ordainez soldatak handiagoak dira, hobeak lan baldintzak eta sindikatuen presioa ere handiagoa, hobekuntzak etengabeak izatea dakarrena. Aitzitik, laguntzazko enpresan behin-behineko kontratuak egin ohi dira, lansa-riak txikiagoak dira, eta baita sindikatuen presentzia ere, lan baldintzen gaineko kontrola guztiz murrizta izatea dakarrena. Hirugarren langile mota batekin, aldiro-aldirola laguntzazko enpresako langilearekin nahasten den langabearekin alegia –langabeziatik behin-behineko lanera eta lanetik langabeziara du bidea–, osatzen den dualizazioak ezaugarrietan konplexua (gero eta handiagoa da langile talde batzuen eta besteen ezaugarrien arteko aldea) eta desegituratua dagoen langile klase baten eratzailerik da; izan ere, ez dago gainerako langileak batera biltzeko edo haietako gehienek ordezkari izateko ardura bere gain hartzen duen langile talderik. Hala, sindikatuetan, langileen iharduera lan finkoa duten langileen inguruan antolatzen da oraindik ere, enpresa handietako langileen inguruan alegia, baina hauek gero eta gutxiagotan eta okerrago ordezkatzeko dituzte behin-behineko langileak eta langabeak. Langileen klase diskurtsua gero eta gutxiago da langileria osoarena, eta klase horren ahalmen politikoa ere murriztuz doa. Industria Iraultzaren garaietako egoera, baina beste neurri batean, berritzen da horrela: “gizateria langilea” “lan indar” bihurtu zenekoa alegia.

Aipatu den egoera honek eragin zuzena du sindikatuen errealitatean. Zereginen banakatzek, talde txikitik lan egiteak, produkzio zentru handien garrantzi txikiagoak eta, oro har, langile mota desberdinek lanari buruz duten harreman desberdinak elkarrekin oinarria kordokatzea eta taldekako zein sindikatuko iharduera antolatzeko gaitasuna murriztea dakarte. Sindikatuak lan finkoko langilea hobeto ordezkatzeko duten neurrian –izan ere, hauek dituzte bezero finkoak– behin-behineko langileak eta langabeak ez dira sindikatueta lotzen, ez dute beren burua hartan ordezkaturik ikusten, eta sindikatuak gero eta bakanagoetan adierazten ditu haien interesak. Hala, aldi berean, bi aldeko borroka gertatzen da: lan txanda gehiago ezartzearen aurka dauden lan finkoko langileena batetik, beren bizi kalitatearen kalterako baita hori, eta neurri horiek hartzearen alde egi-

## 9. Koadroa. *Berrikuntza eta malgutasun estrategiak*

Estrategiak	Moduak	Eraginak	Laneko eta sindikatu arloko ondorioak
I. Produkzio-modu elastikoa erabiltzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Eskari finkoa kontrolatzea eta aurrikustea.</li> <li>* Produkzioaren gorabeherak murriztea: eskari gehiegiaren parte bat besteratztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Inbertsioak goi mailako teknologian.</li> <li>– Enpresa txikiak sortzea. Produkzioaren deszentralizazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Kapitalaren erabilera intentsiboa (kostu teknologiko handia).</li> <li>– Ustiapen-erritmoak emendatzea.</li> <li>– Txanda gehiago sartzea (3., 4., 5.... txandak).</li> <li>– Ondorio kaltegarriak familiako bizimoduan (ordutegi desberdinak).</li> <li>– Teknologia zaharkitua eta berria batera erabiltzea.</li> <li>– Lan baldintzen okerreratzea, lantoki desegokiak.</li> </ul>
II. Malgutasunez jokatzeko hornitze eta biltegi lanetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Gaiak sail txikitzen ekoiztea.</li> <li>* Eskariaren arabera lan egitea (eskariaren informatika bidezko kontrola).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Eskariari malgutasunez erantzutea.</li> <li>– Stock-ak eta kapital higaitza urritzea, arriskuak gutxitzea.</li> <li>– Eskariari malgutasunez erantzutea.</li> <li>– Produkzio-erritmoak emendatzea.</li> <li>– Lana antolatzeke molde berriak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Produktibitate gehitzeko presioa.</li> <li>– Denboraren kontrol estuagoa.</li> </ul>

### III. Malgutasunez jokatzea pro- dukzio-prozesuan

- \* Errotazio bidezko lana.
- \* Lan talde txiki independente eta koordinatuak.
- \* Lan talde erdi-autonomoak.
- \* Lan denboraren luzapena.
- \* Laneko modua aberastea.
- \* Kalitate-zirkuluak.
- \* Produkzioaren deszentralizazioa/informazioaren eta erabakiguneen zentralizazioa.
- Taylorismoaren krisia.
- Aldaketak lanbide-prestakuntzan.
- Enpresaren langileekiko gestioaren malgutasuna.
- Informatika gehiago sartzea.
- Teknologia Berrien erabilera sustatzea.
- Produkzio-kate automatizatuak.
- Produktuaren kalitatea hobetzea.
- Kontrol estuagoa enpresaren aldetik/Autodisziplina demokratikoa.
- Ekintza kolektiboetarako mekanismoen krisia.
- Industria langileak prestakuntzan galtzea.
- Teknologiari buruzko jakintza biltzea.
- Teknologiak: lan baldintzen hobekuntza (hauts, zarata... gutxiago), baina baita bestelako ondorio txarrak: tentsioa, stressa. Kontraesana.
- Aplikatutako teknologiak lan-gabeziaren sortzaile.

### IV. Malgutasunez jokatzea behar- gina kontratatzerakoan

- \* Enpresa “barrurako” zerbitzuak kontratatzea (Garbiketa, garraioa, komertzializazioa, jangelak, administrazioa).
- \* Langilearen askotariko gaitasuna eta aldakortasuna bideratzeko moduak.
- \* Kontratatzeko malgutasuna.
- Kostu finkoak gutxitzea.
- Ezkutuko ekonomiaz baliatzea.
- Industriaren bermoldaketa.
- Kualifikazio-mailan galtzea: “orotarako langilea”.
- Behargina eskariaren gorabeheratara egokitzea.
- Segidarik gabeko lana izateko joera.
- Enpresako langileen banaketa: finkoak/behin-behinekoak/azpikontratatuak.
- Soldaten arteko desberdintasuna.
- “Gizarte laguntza” urritzea.
- Lan harremanetako arauak desegitea.
- Lan finkoa desagertzea.
- Segurtasunik eza lanean.

Iturria: A. Martínez Artiles, “Renovación, flexibilidad y acción sindical”, zenbait egileren *Nuevas tecnologías y sociedad (Memoria de las II Jornadas Internacionales de Debate libertario)*-tik hartua, Fundación Salvador Seguí, d. g. (baina Madril, 1990), 26. or.

ten duen behin-behineko langilearena bestetik, honentzat lan sistemaren aldaketa horiek behin-behineko enplegura iristeko aukerari leihoa zabaltzea bezala baitira. Edo alderantziz, lansariak igotzearen aldeko eskabideak egiten dira langabe multzo handiak diren esparru berean. Halaber, sindikatuen eraginpeko eremuetatik aldentzen dira behin-behineko langileak, beren lan kontratuaren balizko berritzea arriskuan ez jartzeagatik. Bestalde, lan finkoko langileen zahartzearen eta behin-behineko langile edo langabe gehienen gaztetasunaren arteko aurkakotasunak mugatu egiten da berriro langile taldeen arteko komunikazioa; delako komunikazioa, bidenabar esanda, “belaunaldien arteko tirandura” dela eta, zailagoa da orain.

TBak eta hauen aplikazioa direla eta, sindikatu estrategiek agerian uzten dute berrikuntzari aurre egiteko duten ezintasuna. Hasteko, gaizki ikusia dago dibertsitatea sortzen duen, eta ondorioz, langile klasearen barruko batasuna hausteko arriskua ekar dezakeen oro. Izan ere, kapitalismoak langile klasearen barne homogeneizazioa dakarrelako tesian (okerreko tesia, egia esanda) sinetsita lasaitu da langileria ezkertiarra historian zehar.

TBak eta hauen aplikazioa direla eta, sindikatuen erreakzioak “erresistentzialismoan” eta lankidetzan laburbil daitezke; askotan, erakunde batek bi estrategia bide horietara, behin batera behin bestera, jo izan du. TBak enpresan aplikatzeak dakarren gatazkari dagokio “erresistentzialismoa”, eta joera hori lan finkoko langileen interesen ordezkari da batez ere; izan ere, langile hauen lan baldintzak, oso barneratuta dituzten borroken bidez irabaziak, arriskuan daude. Gatazka horretan, behin-behineko langileek arriskuan jartzen dituzte beraien interesak.

Aitzitik, TBen aplikazioa negoziazio bidez onartzen denean, lanaren antolamendu berri honek dakarren konplexutasun zientifiko-teknikoan nahasteko tentazioan erortzen dira sindikatuak. Horrela, handitu egiten da “sindikatuaren aginpidea”, sindikatuko buruzagiek enpresaren erabakiguneetan esku hartzeko (industriako disziplina berria sindikatuko baseetara aplikatzeari dagokiona gehienbat) duten gaitasuna bezala ulertuta aginpide hori, baina murriztu egiten da, aldiz, “langileen aginpidea”, buruzagi horien diskurtsua eta aldaketak jasaten dituzten langileena elkarrengandik aldentzen direlako. Beste era batera esanda, enpresan ezagutza handiagoa izatearen ordainez, sindikatuak beren baseak eta langileak disziplina bidean hezteko ardura hartzen du, eta horrenbestez erakundearen barruan tirabirak sortzen.

Azkenik, ez da ahaztu behar, laneko denbora malgutasunez erabiltzeko eskabidea kontraesanean sartzten dela lanarteetako eta komunitate bizitzarako denbora erabiltzeko ohitura sozialekin. Enpresa handian laneko txanda kopurua gehitzean, langileek, txandaka, lan egitera joan behar dute asteburuetan, orain arte

laneguntzat hartzen ziren egunetan opor dute, eta oporraldia denbora tarte luzeagotan antolatzen da (bi edo hiru hilabete udan). Lan ordutegian egin diren aldatketak, eta aldaketa hauek lanegunen eta jaiegunen banaketan eragin dituztenak direla eta, langileen lanarteak ez dira tradizio handiagoko beste lanarteetara egokitzen (eskolako ikasle eta langileak, “lan egutegi tradizionalari” jarraitzen dioten beste langile taldeak...). Gauzak horrela direlarik, zaila da langile horien atsedean orduak bat etortzea beren gizarte eta famili inguruneekin, eta tirabirak eta gorabeherak sortzen dira berriro egoera horretan dagoen langilearen bizitzaren sozializazio prozesuan.

Egoera hori ez dagokio industria jakin bateko langileari bakarrik, zerbitzu arloan ere gauza bera ari da gertatzen (adibidez, saltokietako ordutegi librerako joerak ere arlo horretako langileen lan ordutegi klasikoa desegiten dute). Lan ordutegi hori hedatzeak, langilearengan ez ezik, eragina du kolektibitatearen jokabide sozialetan, ordutegi malguk indartu egiten baitute denboraren erabilerearen indibidualizazioa azken bururaino, eta arriskuan jartzen, errotik beretik, komunitatearen erritmoak. XVIII. mendeko Ingalaterrako lehen Industria Iraultzari buruz Karl Polanyi-k esan zuen bezala, frogatua geratzen da, berriz ere, nola liberalismo ekonomikoak lehentasuna ematen dion *aurrerapenari*, eta ordaintan, kolokan jartzen gizartearen antolamendua.

#### 4.2. Toyotismoa

Teknologia Berriak aplikatzeari dagokionez, toyotismoa da, industrian oinarritzen diren ekonomia aurreratuenen artetik, azken urteetan lana antolatzeko biderik berrienetan berriena. Izan, aurreko beste sistemak (fordismoa edo taylorismoa) sakonagotik aztertzetik sortzen den sistema berria baino ez da, aurreko bi eredu horien mugak gainditzen saiatzen baita. Lanaren banaketak eta kateako lanak beren ahultasunak erakutsi dituzte: kalitate urriko lana, langilearen lanarekiko identifikazio urria, langileen hutsek edo sabotaeiek lana geraraztea, e.a. Puntu beltz horiek zuzentzeko sortu zen toyotismoa.

Toyotismoaren helburua lehengo bera da: produkzioa handitzea eta aprobeztatzea, ahalik eta gehien, bai soldaten kostuak bai etengabe berritzen ari diren makinen eta teknologiaren produkzioa. Alegia, makinari ahalik eta etekinik handiena ahalik eta denbora tarterik laburrenean ateratzea da kontua, makinarengatik egindako inbertsioa berreskuratu eta teknologiako produktu berrietan berriro inbertitzeko.

Aurreko formulekin alderatuz, toyotismoaren eta beste sistemen arteko diferentzia nagusia hau da: toyotismoarentzat langilea da, eta ez makina, oinarritzko elementua. Talde lana formula gisa erabiliz, langileak bere gain hartzen du produktua behar bezalako kalitatez bukatzeko ardura, produkzio prozesuan bere

berrikuntzak sarrarazten ditu, langile balioaniztun bihurtzen da, talde barruko ihardunbidea antolatzen du, bere lan ordutegia malgutasunez erabiliz produkzio beharretara egokitzen du eta, azken buruan, konponbidea ematen die bere taldeko hierarkiazko harreman eta tirabirei (taldearen barruan taldeko burua izendatzen da, eta barneko disziplina erabakitzen da). Toyotismoaren azken helburua da produktuaren kalitateagatik, eta zeharbidez, baita enpresaren etorkizunagatik ere arduratzen eta kezkatzen den lankide bihurtzea langilea. Formula honi bere jatorriaren ezaugarriak nabari zaizkio alde guztietatik: japoniarren ideia bat da.

Prozedura hau oso teknologia aurreratua duten produkzio egituretan baino ezin da erabili; multinazionalak izan ohi dira gehienak. Prozedura honen aplikazioak gizartean eta ekonomian dituen ondorioak oso konplexuak dira. Batetik are gehiago handitzen du lehenago ere aipatu dugun dualitate ekonomikoa: teknologia handiko enpresa lehiatzaileak batetik, kapital inbertsio eta produkzio handikoak, langileak moduzko lansariez sustatzen dituztenak, eta, bestetik, enprea txikiak eta erdi mailakoak, behargin asko, lan baldintza gogorrak, behin-behineko lana eta soldata txikiak dituztenak.

Formula hau erabiltzeak ageriko kontraesana sorrarazten du gizartean: langilea produktuarekin indentifikatzea eta ondo egindako lanaren kultura sustatzen ditu, baina zuzendari jendearen eskuetan uzten du enpresaren zuzendaritza eta kudeaketa. Lortu nahi litzatekeen kogestioa (erabakiak elkarren artean hartzea; sindikatuarekin batera batez ere) ez da produkzioari ez dagokionaz arduratzen. Bestalde, lanaren antolamenduaren aldaketa handi oro bezala, aldaketa honek laneko denboraren eta aisialdiaren banaketa eraldatzen du orobat, eta areagotu egiten du desegituraketa soziala; izan ere, bat-batean aldatzen ditu laneko aldiak eta lanarteak, oporraldiak, asteko atsedendia... antolatzeko moduak, eta eragozten langilearen tarte eta aldi horiek honen gizarte eta famili ingurunearekin batera gertatzea.

Lanari berari dagokionez, hasierako soldata bidezko kitzikagarriak eta lan baldintzen hobekuntzak goia jotzen dute azkenean, eta uneren batean, berriro sortzen da erakargarritasunik ezaren arazoa, ez baita alor sozioprofesionalean mailaz igotzeko aukerarik batere. Bestalde, sindikatuak, neurri handi batean, negoziazioan zuten eginkizuna galtzen dute, guztiz banakatzen edo bereizten delako, diruzko zuzpergarrien eta aparteko ordainsarien bidez, langile edo lan talde bakoitzaren soldata egoera; orobat banakatzen da langile enpresa arteko gatazka dualizatuari konponbidea emateko ahalmena; orain, neurri handi batean, taldearen barruan, tirabiren sorlekuan bertan alegia, konpontzen baita. Aitzitik, sindikatuak konpentsaziotzat har dezake zuzendaritzako eginkizunetan esku hartzeko sarbidea izatea, baina eginkizun horiek mugatuak dira beti eta, langileei disziplina bidea ezartzeko, sindikatuaren lankidetzeta lortzea dute helburu.

Ondorio politikoak ere begien bistakoak dira: langile klasearen desegituraketa bi aldeko mekanismo baten bidez azkartzen da. Alde batetik, gero eta handiagoa da enpresa toyotizatuetako langilearen eta laguntzazko enpresetako langilearen egoeren arteko aldea. Bestetik, klase diskurtsu politikoa aienatuz doa lankidetzazko, enpresaren etorkizun amankomunerako, elkarrekiko konfidantzarako eta abarrerako joerak indartzen diren bitartean.

## 5. Ekonomiaren krisia eta mundializazioa. Erronka berriei erantzuten

XX. mendearen azken hamarraldiko errealitateak krisi ekonomikoaren sakontasuna du ezaugarri bereziena; ez da, kapitalismoak ezagutu eta pairatu dituen krisien artean, beste krisi bat gehiago, agerian baitu garrantzizko ezaugarri berezi bat. Krisia baino areago eraldaketa handia dela esan liteke, industria iraultza berri bat –hirugarrena–, aditu batzuen hitzetan esateko.

Oraina, beraz, faktore askoren bildumak markatua ageri da. Hona hemen faktoreon laburbilduma:

- teknologiari eta antolakuntzari dagozkien berrikuntzak. Teknologia berrien esparruan egin diren aurrerapen handiak direla eta, gehikuntza handiak ari dira gertatzen produktibitatean. Horren berehalako ondorioetako bat behargin asko bigarren sektoretik kanpo iraitziak izatea da; behargin horiek ez dute mendebaleko ekonomian gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari den zerbitzu arloan sartzeko aukerarik, orain dela gutxi arte ez bezala. Errealitate horren adierazgarri garbia dira Europako Batasunean dauden hemezortzi milioi langabeak; herrialde batzuetan, Espainian adibidez, laneko adinean daudenetatik ehuneko hogeita bost inguru dira lanik gabe daudenak. Duela gutxi Lanaren Nazioarteko Erakundeak adierazi duenez, munduan lan adinean dauden biztanleen artean, hirutik bat lanik gabe dago gaur egun.

Egoera honek gastu sozialetako sailean izan duen eraginaren ondorioz, emendatu egin da langabeen laguntzarako gastua baina, aitzitik, soldatapekoen kopurua murriztean (eta, ondorioz, baita zergen iturri diren lansari errentak ere) eta enpresaren iharduerak ere behera egitean, urritu egin da zergazko ahalmena. Diru sarreren eta gastuen arteko gorabeherak –horren adierazgarri da langabezia aseguruari dagokiona– Ongizate egoeraren geroa gaitzat duen eztabaida sozial gartsua pizten lagundu dute.

Bestalde, aurrerapen teknologikoek garrantzi handiko aldaketak eragin dituzte lanaren antolamenduan, arestian azaldu dugun bezala, eta aldaketa horiei kon-tuan hartzeko aldaketa sozialak jarraitzen zaizkie.

– komunismoaren erortzea eta munduko merkataritzaren globalizatzea. Komunismoaren gainbeherak egiazko “munduko ekonomia” bat gauzatzeko aukerak nolabait eragozten zituen nazioarteko eragin eremuen banaketaren azkena ekarri du. Gainera, gure eredu sozialen etorkizuneko erabideari buruzko eztabaida piztu du, hasi bihotz emanez, gehiegizko indarrez eman ere, ultraliberalen igurikapen edo itxarokizunei, eta tradiziozko ezkertiarren gogoeta eguneratzera behartuz.

Are garrantzitsuagoa da erreferentzia horren bigarren partea: ekonomiaren mundializazioa. Teknologia berrien hedapenean eta nazioarteko politika eragozten zuten mugen desagertzean (lehengo bloke bidezko politika) oinarri hartzen duen errealitate berri honen ondorioz, buruz buru jartzen eta lehian sartzen dira, alde batetik, egunean 1,25-10 dolar irabazten duten 1.200 milioi langile –gero eta produktibitate handiagorekin– eta, bestetik, egunean 85 dolar inguru irabazten duten Europako eta Estatu Batuetako 250 milioi langile; azken hauek gehienak dira orrialdeotan kontatzen den errealitatearen protagonista nagusiak.

Gai honek etorkizunari buruzko galdera guztiz garrantzitsuak egin beharra planteatzen du. Hasteko, produktibitateari buruzko lehiak kinka larrian jartzen ditu herrialde aurreratuenetako alderdi hauek: langile kostua, enpresen tamainaren egokitzapena, lan merkatuaren malgutasuna, lehen sektoreko produktuen eta teknologia urriko manufakturen salneurria, e.a. Honezkero “langile zuria” nozitzen ari da, mundializazioak neurri batean justifikatuko balu ere, egoera horren ondorioa: hogeita hamasei milioi langabe herrialde industrializatuetan 1994. urtearen amaierarako. Nola erantzungo dion langileak eta langile mugimenduak erronka honi, oraindik goiz da jakiteko. Nolanahi ere, langilea gogor egiten ari zaion ageriko *dumping* soziala dela eta, haren bizi baldintzak okerrera egiteko duten arriskuaren aurrean, politika protekzionisten aldeko neurriak hartzea eskatzen dituzten ahotsak entzuten dira. Begien bistakoa da azken hau kontraesan nabarmena dela Hirugarren Munduko egoera negargarriari konponbidea emateko elkertasunezko politikak bideratu behar direla eta herrialde horietako ekonomiari zuzpertzeko aukera eman behar zaiola diotenarekin, nahiz eta, kontraesan hori, aldi berean gertatzen ari den nazioarteko kapitalaren indartze berria ezkutatzeko gauza izan ez.

Herrialde aurreratuenen artean, enplegu osoko egoera lortzea honezkero amets hutsa delako ideia sendotzen ari da. Ekonomiaren etengabeko hazkundera (%3z goitik gutxienez; 1994an, Europako zifrak negatiboak dira) beharko litzateke hainbat urtez, lanpostuak erruz sortzeko aukera ikusi baino lehen. Hala ere, hazkunde horrek baliabide naturalen hazkundeak ageri dituen mugekin egingo luke topo.



Ondo ordaintutako lana gure artetik desagertzen ari den bezala, beste gauza batzuk ere aldatzen ari dira: XX. mendearen azken lau hamarraldietan ekonomiaren etengabeko hazkundeak eta politika sozialek ekarri zituzten ongizatea eta segurtasuna; lanpostuan irauteko kontzeptua; sindikatuek irabazitako garantiak; lan merkatuan sartzeko eta handik ateratzeko malgutasuna...

Lanaren kontzeptuak berak ere gorabehera handiak ditu zer den eta zertan datzan zehazterakoan. 1960. urtetik aurrerako hamarraldian, Europak bizi zuen ongizatean, lanak bere zentralitate soziala behin betiko galdua izatea ezaugarritzat zuen aisiaren gizartea sortuko zela ematen zuenean, laurogeita hamargarren urtetik aurrerako hamarraldian, berriz, lanpostuen berrikuntzarako eta sorkuntzarako krisiak onarpen soziala, autoafirmazioa eta bizi independentziarako gaitasuna lortzeko elementu bihurtu dute berriro iharduera produktiboa. Lana gorantz egiten ari den balioa da berriz ere, baina hori horrela bada, arrazoi instrumental hutsengatik besterik ez da oraindik ere, eta ez bere alienazio ezaugarriak galdu dituelako.

Teknologiaren eta informazioaren gizartean informazioa, jakitatea eta trebakuntza dira, hain zuzen ere, laneko erreminta. Lanbide prestakuntzaren jabe den langilea bere erremintarekin batera dabil, ezagutzarekin alegia. Eskuzko teknika-ren menderatzeak lanari buruzko erabakietan askatasuna ematen zuen garaietara garamatza berriro egoera horrek. Izan ere, mendebaleko enpleguak nazioarteko esparruan defendatzeari dagokionez, protekzionismoa gutxien erabiltzen duen politikak ere nahitaez hartu behar du bere baitan hezkuntza bideratzeko eta ezagutza etengabe eguneratzeko ahalegina.

Lana aipatzen denean, ondasun bat edo urri aurki daitekeen salgai bat aipatuko balitz bezala izango da aurrerantzean. Aberastasuna sortzeko tresna gisa hartu izan ordez, lana bera da aberastasuna. Ez da harritzekoa, beraz, gizarte ongizatearen sozializazioa lortu nahi bada, lanaren baitan igartzen den "aberrastasan" berri hau banatu behar izatea orain. Dagoen enpleguaren banaketak eztabaida sutua piztu du; izan ere, enpleguaren banaketa onuragarria ala kaltegarria ote da ekonomia berriro zuzpertzeko, mendebaleko herrialdeen ahalmen konpetitiboa ziurtatzeko, eta ondorioz, lanpostu berriak sortzeko gai izan ala ez izateko? Dagoen enplegua banatzea erabakitzea enpresa handi batean, Volkswagen-en adibidez, une eta toki jakin bateko neurria baino ez da, toki hartako enpleguak mantendu nahiz, soldata masarekin jolasteko eta soldata igoerak saihesteko hartzen den neurria. Nolanahi ere, zabalik dira oraindik beste erantzun global batzuk, enpleguaren banaketa egin edo ez egin edota horrelako neurririk hartuz gero neurri horrek izango lituzkeen ezaugarriak kontuan hartzen edo hartzen ez dituztenak: soldaten beherapena?, denbora zatitzeko lana sustatzea?, lana sexuaren arabera banatzea?...

Hala ere, eztabaidagai dugun lanaren gizarte hau bi arazori aurre egin beharrean aurkitzen da gaur egun, orain arteko historia guztian ez bezala seguru aski gizakiak lurraren gainean jarraitu ahal izatea zalantzan jartzen dutenak: dauzkagun baliabide naturalek jadanik duela bi gizaldi hasi genuen hazkunde ekonomikoaren ereduari eusteko gai izango ote diren batetik, eta, bestetik, Iparralde opa-roaren –krisian sartua baina– eta haren mendeko Hegoaldearen –nahiz eta, toki batzuetan, indar handiko hazkunde ekonomiaren protagonista izan gaur egun– arteko tentsioari amore emateak dakarren kontraesan gaindiezina, hurbilduz doazen gatazkagune ezberdinen sortzaile dena.

Azken arazo honek aukera ematen digu, Estatu Batuetako aditu batzuek erabiltzen duten kontzeptu baten aipamena eginez, orrialde hauei akabera emateko: “ustiapen esportatua” da kontzeptua. Izan ere, ekonomiaren mundializazioa eta informazioaren jariora direla medio, egokiera du gizakiak, historian lehen aldiz, bere bizimodua zenbat eta zeinen egoera desberdinetan egiten duen jabetzeko. XIX. mendeko “proletarioen internazionalismo” mitiko hura opera bufa batetik hartua dirudi kontuan hartzen badugu, munduko bi tokitan, nazioarteko sindikatu bereko bi bazkide eta enpresa multinazional bereko bi langilek batetik hamarrerako aldean duten soldatak irabazten dituztela, eta bata bere enplegu baldintzez gozatzen dagoen bitartean, besteak berriz, guztiz baldintza desberdinetan, baldintza horiek nozitzen dituela.

Hori ikusirik, mendebaleko langileak produkzio modu kapitalistan nozitu duen ustiapen ekonomikoa, bi menderen buruan, gaingitua izan beharrean esportatua izan da, eta harako “erreserbako behargin osteekin” antzina gertatua gaur egun ustiapen hori gehien nozitzen dutenekin ari da gertatzen, ustiapenaren aurkako historiaren monopolioa beretzat nahiko luketenen arerio gisa agertzen baitira horiek. Dударik gabe, aurreko horregatik, hemendik aurrera egin daitekeen eta egin beharko den lanaren gizarte historiak beste ikuspegi batetik begiratu beharko dio langileriaren ibilbideari. 1800. urteko Ingalaterrako proletarioa eta burgesa elkarrengandik banatzen zituen distantzia huskeria bat da Koloniako eta Senegalgo langileak aldentzen dituenaren ondoan. Are gehiago, lehenengo herrialdearen krisiak deusik ez du ikustekorik bigarrengoaren betiko lazeriarekin. Nolanahi dela ere, era horretako gogoetek ez dute ezkutatu behar Kolonian eta Senegalen produkzio modu bat, bera eta unibertsala dagoela jakitea. Orobat, azken lerro hauek ezin ezkuta dezakete horrelako gauzak esanak direla jadanik hamar edo hamabost urte lehenago.

## BIBLIOGRAFIA

- Abendroth, W., *Historia Social del movimiento obrero europeo*, Bartzelona, Laia, 1977.
- Agosti, Aldo, «Política y estructuras organizativas de los sindicatos en los años 20, por un análisis comparado», *Estudios de Historia Social*, 42-43, 1987, 7-36. orr.
- «La evolución de los sindicatos europeos», in Cabrera, Mercedes, *Europa en crisis 1919-1939*, Madril, Fundación Pablo Iglesias, 1991, 191-229. orr.
- Álvarez Junco, José, y Pérez Ledesma, Manuel, «Historia del movimiento obrero. ¿Una segunda ruptura?», *Revista de Occidente*, 12, 1982, 19-41. orr.
- Ambrosius, Gerold, y Hubbard, William H., *Historia social y económica de Europa en el siglo XX*, Madril, Alianza, 1992.
- Antón Mellón, Juan, «La defensa social: Liberalismo y contrarrevolución en la España de fines del siglo XIX», *Estudios de Historia Social*, 54-55, Madril 1991, 237-306. orr.
- Arenas, Carlos, «Estructura del empleo industrial en Sevilla en 1921», *Historia Contemporánea*, 5, 1991, 187-201. orr.
- Ashford, D. E., *La aparición de los Estados de Bienestar*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1989.
- Baldo Lacomba, M., *La Revolución Industrial*, Madril, Síntesis, 1993.
- Barrio, Ángeles, «Cultura del trabajo y organización obrera en Gijón en el cambio de siglo», *Historia Contemporánea*, 5, 1991, 27-51. orr.
- «El sindicalismo entre la Historia y las Ciencias Sociales», *Historia Contemporánea*, 10, 1993, 131-156. orr.

- Benito del Pozo, Carmen, *La clase obrera asturiana durante el franquismo*, Madril, Siglo XXI, 1993.
- «Ideología y Trabajo. Las relaciones laborales durante el franquismo», *Cuadernos Republicanos*, 13, 1993, 3 1-48. orr.
- Berg, Maxime, *La Era de las Manufacturas, 1700-1820. Una nueva historia de la Revolución Industrial británica*, Bartzelona, Crítica, 1987.
- Bergier, J. F., «La burguesía industrial y la aparición de la clase obrera, 1700-1914», in Cipolla, Carlo (arg.), *Historia Económica de Europa (3). La Revolución Industrial*, Bartzelona, Ariel, 1983, 410-463. orr.
- Bouvier, Pierre, *Le Travail*, Paris, PUF, 1991.
- Breully, John, «Una comparación del Movimiento Obrero Político en Gran Bretaña y Alemania entre 1850 y 1875», *Debats*, 17, 1986, 77-92. orr.
- Burdy, Jean-Paul, «La prosopografía, o la Historia Social en singular plural», *Sociología del Trabajo*, 11, 1990-1991, 141-167. orr.
- Cabrera, Mercedes, y Rey, Fernando del, «Entre la condena y el olvido, los empresarios y sus organizaciones en la historiografía española», *Sociología del Trabajo*, 3, Madril, 1988, 141-164. orr.
- Calhoun, Craig, «Industrialización y radicalismo social. Los movimientos obreros de Francia e Inglaterra y la crisis de mediados del siglo XIX», *Zona Abierta*, 36-37, 1985.
- Capel Martínez, Rosa María, *El trabajo y la educación de la mujer en España (1900-1930)*, Madril, Ministerio de Cultura, 1982.
- Castells, Luis, *Los trabajadores en el País Vasco*, Madril, Siglo XXI, 1993.
- Castillo, Juan José (bild.): *Las nuevas formas de organización del trabajo*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1988.
- Castillo, Santiago, *La Historia Social en España. Actualidad y perspectivas*, Madril, Siglo XXI, 1991.
- «Todos iguales ante la ley... del más fuerte. La legislación laboral y los socialistas españoles en el cambio de siglo (XIX-XX)», *Sociología del Trabajo*, 14, 1991-92, 149-176. orr.
- «Las sociedades de socorros mutuos en España. Del Antiguo Régimen al franquismo». («Colloque International sur l'histoire de la Mutualité»-an aurkeztutako txostena, makinaz idatzia, 1992.)
- (bild.), *Solidaridad desde abajo (Trabajadores y Socorros Mutuos en la España contemporánea)*, Madril, Centro de Estudios Históricos de la UGT, 1994.
- Cole, G. D. H., *Historia del pensamiento socialista*, Mexiko, FCE, 1974.
- Coriat, Benjamin, *El taller y el cronómetro*, Madril, Siglo XXI, 1989.

- Díez, Fernando, «El nivel de vida de la población trabajadora en la ciudad preindustrial: condiciones para una difícil subsistencia, Valencia, siglo XXI», *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989, 53-69. orr.
- Viles y Mecánicos. Trabajo y sociedad en la Valencia preindustrial*, Valentzia, Edicions Alfons el Magnanim, 1990.
- Dorel-Ferré, Gracia, «Les colonies industrials a Catalunya», *L'Avenc*, 138, 1990, 6-14. orr.
- Duarte, Ángel, «Mayordomos y contra maestros. Jerarquía fabril en la industria algodonera catalana, 1879-1890», *Historia Social*, 4, 1989, 3-20. orr.
- Dunlop, John, *Sistemas de relaciones industriales*, Bartzelona, Península, 1978.
- Dunlop, John, y Galenson, Walter, *El trabajo en el siglo XX*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1985.
- Esteva Fabregat, Claudio, *Antropología Industrial*, Bartzelona, Anthropos, 1984.
- Fernández de Pinedo, Emiliano, «Beneficios, salarios y nivel de vida obrero en una gran empresa siderúrgica vasca, Altos Hornos de Vizcaya (1902-1927). Una primera aproximación», *Revista de Historia Industrial*, 1, 1992, 125-153. orr.
- Felice, Franco de, «El Welfare State: Cuestiones a debatir y una hipótesis interpretativa», *Debats*, 11, 1985, 36-66. orr.
- Fioravanti, Eduardo, *El concepto de modo de producción*, Bartzelona, Península, 1983.
- Fohlen, Claude, y Bedarida, Francois, *Historia General del Trabajo III. La era de las revoluciones 1760-1914*, Bartzelona, Grijalbo, 1965.
- Fontana, Josep, «Nacimiento del proletariado industrial y primeras etapas del movimiento obrero», in *Cambio económico y actitudes políticas en la España del siglo XIX*, Bartzelona, Ariel, 1983.
- (arg.), *España bajo el franquismo*, Bartzelona, Crítica, 1986.
- «Del trabajador del campo al trabajador especializado. En torno a los Hammond», *Sociología del Trabajo*, 2, 1987-88.
- «La burguesía com a instrument d'anàlisi» (makinaz idatzia), Valentzia, UIMP, 1992.
- Fusi Aizpurúa, Juan Pablo, «Algunas publicaciones recientes sobre la Historia del movimiento obrero español», *Revista de Occidente*, 123, 1973, 358-368. orr.
- Política obrera en el País Vasco 1880-1923*, Madril, Turner, 1975.
- Gabriel, Pere, «La población obrera catalana, ¿una población industrial?», *Estudios de Historia Social*, 32-33, 1985, 191-259. orr.
- «Historiografía reciente sobre el anarquismo y el sindicalismo en España, 1870-1923», *Historia Soaial*, 1, 1988, 45-54. orr.

- «Sindicalismo y Huelga. Sindicalismo revolucionario francés e italiano. Su introducción en España», *Ayer*, 4, 1991, 15-45. orr.
- García Cotarelo, Ramón, «Origen y desarrollo del Estado del Bienestar», *Sistema*, 80-81, 1987, 5-21. orr.
- Garrido, Fernando, *Historia de las clases trabajadoras IV. El trabajador asociado*, Madril, Zero, 1973 (berrarg.).
- Garrido González, Luis, «La Minería y los problemas laborales. Nacimiento del movimiento obrero», in Artillo, *La Minería de Linares (1860-1923)*, Diputación Provincial de Jaén - Ayuntamiento de Linares, Jaen, 1987.
- Geary, Dick (bild.), *Movimientos obreros y socialistas en Europa, antes de 1914*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1992.
- Giddens, Anthony, *El capitalismo y la moderna teoría social*, Bartzelona, Labor, 1988 (3.9 ed.).
- Gil Novales, Alberto, «La conflictividad social bajo la Restauración (1875-1917)», *Trienio. Ilustración y liberalismo*, 7, 1986, 73-217. orr.
- González Enciso, Agustín, «Conflictos laborales en la protoindustria española», *Anales de Historia Contemporánea*, 5, 1986, 59-75. orr.
- González Muñiz, Miguel Angel, *Aproximación a la Historia Social del Trabajo*, Madril, Júcar, 1981.
- González Portillla, Manuel, y Garmendia, José María, *La Posguerra en el País Vasco. Política, acumulación, miseria*, Donostia, Kriselu, 1988.
- Guereña, Jean-Louis, «La recherche en Histoire ouvrière en Espagne. Approche bibliographique», *Le Mouvement Social*, 128, 1984, 1 13-125. orr.
- Haupt, George, *El historiador y el movimiento social*, Madril, Siglo XXI 1986.
- Hobsbawm, Eric, *Trabajadores. Estudios de historia de la clase obrera*, Bartzelona, Crítica, 1979.
- Las revoluciones burguesas*, Bartzelona, Labor-Guadarrama, 1981 (8. arg.).
- El mundo del trabajo. Estudios históricos sobre la formación y evolución de la clase obrera*, Bartzelona, Crítica, 1987.
- La era del capitalismo (1848-1875)*, Bartzelona, Labor, 1989.
- Hyman, R. y Streeck, W. (bild.), *Nuevas tecnologías y relaciones industriales*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1993.
- Ibarra, Pedro, *El movimiento obrero en Vizcaya*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987.
- Izard, Miguel, *Industrialización y obrerismo*, Bartzelona, Ariel, 1973.
- «Orígenes del movimiento obrero en España», *En Teoría* 8-9 1981-82 5-3 1... orr.
- Jaccard, Pierre, *Histoire sociale du travail*, París, Payot, 1960.
- Jones, Gareth Stedman, *Lenguajes de clase. Estudios sobre la historia de la clase obrera inglesa*, Madril, Siglo XXI, 1989.

- Juliá, Santos, «De revolución popular a revolución obrera», *Historia Social* 1, 1988, 29-43. orr.
- Historia social/sociología histórica*, Madril, Siglo 2a1, 1989.
- «Sindicatos y poder político en España», *Sistema*, 97, 1990, 41-62. orr.
- «Sociedad y política», in Tuñón de Lara, Manuel (zuz.), *Historia de España X\*\*. Transición y democracia (1973-1985)*, Bartzelona, Labor, 1991 27-186. orr.
- Kocka, Jurgen, «Estructura i cultura de la burguesía europea al segle XIX. Reflexions comparatives des d'un punt de mira alemany», Valencia, UIMP, 1992 (makinaz idatzia).
- «Los artesanos, los trabajadores y el Estado: hacia una historia social de los comienzos del movimiento obrero alemán», *Historia Social*, 12, 1992, 101-118. orr.
- Kriedte, P., Medick, H. y Schlumbohm, J., *Industrialización antes de la industrialización*, Bartzelona, Crítica, 1986.
- Kriegel, Annie, *Les Internationales ouvrières (1864-1943)*, París, PUF, 1975.
- «La Historia del movimiento obrero», in *La Historiografía de Occidente desde 1945. Actitudes, tendencias y problemas metodológicos*, Iruñea, EUNSA, 1985, 341-352. orr.
- Lasch, Christopher, «Ética del trabajo y cultura de "sólo lo justo"», *Debats*, 41, 1992, 26-29.
- Launay, M., *Le Syndicalisme en Europe*, Paris, Imprimerie Nationale, 1990.
- Le Goff, Jacques, *Tiempo, trabajo y cultura en el Occidente medieval*, Madril, Taurus, 1983.
- Lecuyer, Marie Claude, «Algunos aspectos de la sociabilidad en España hacia 1840», *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989.
- Lefranc, Georges, *La Huelga: Historia y presente*, Bartzelona, Laia, 1975.
- López García, Basilisa, «Discrepancias y enfrentamiento entre el estado franquista y las Asociaciones Obreras Católicas», *Anales de Historia Contemporánea*, 5, 1986, 177-187. orr.
- Lorenzo Espinosa, José M<sup>a</sup>, «Trabajo y represión laboral en la postguerra», *Revista Internacional de Sociología*, 4, 1989, 561-581. orr.
- Ludtke, Alf, «Le domaine réservé: Affirmation de l'autonomie ouvrière et politique chez les ouvriers d'usine en Allemagne a la fin du XIX<sup>e</sup> Siecle», *Le Mouvement Social*, 126, 1984, 29-52, orr.
- Macarro, José Manuel, «La disolución de la utopía en el movimiento anarcosindicalista español», *Historia Social*, 15, 1993, 139-160. orr.
- Mackenzie, Norman, *Breve Historia del socialismo*, Bartzelona, Labor, 1969.

- Maluquer de Motes, Jorge, «Los orígenes del movimiento obrero español 1834-1874», in *Historia de España XXXIV: La era isabelina y el Sexenio democrático (1834-1874)*, Madril, Espasa-Calpe, 1981, 771-815. orr.
- Manzanares, Domingo Antonio, *Temas de Historia Social del Trabajo*, Bartzelona, DM-PPU, 1992.
- Martín Valverde, A., y otros, *La legislación social en la historia de España. De la Revolución liberal a 1936*, Madril, Congreso de los Diputados, 1987.
- Martínez Gallego, Francesc-Andreu, «Disolución gremial y constitución societaria: Los términos del vínculo. Valencia, 1834-1868», in Castillo Santiago (bild.), *Solidaridad desde abajo (Trabajadores y Socorros Mutuos en la España contemporánea)*, Madril, Centro de Estudios Históricos de la UGT, 1994, 51-69. orr.
- Martínez, Raúl, «Quaranta anys de cultura politica dels treballadors», *Mon Laboral*, 1989, 80-87. orr.
- Marvaud, A., *La cuestión social en España*, Madril, Revista de Trabajo, 1975 (reed.).
- Maurice, Jacques, «Propuestas para una historia de la sociabilidad en la España contemporánea», *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989, 133-143. orr.
- McDonnell, Lawrence T., «Sois demasiado sentimentales: Problemas y sugerencias para una nueva historia del Trabajo», *Historia Social*, 10, 1991, 71-100. orr.
- Miguélez, F., y Prieto, C. (koord.), *Las Relaciones laborales en España*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1991.
- Millán, Jesús «La diversidad de la Respuesta Obrera en el siglo XIX», *Debats*, 17, 1986, 70-76. orr.
- Molinero, Carme eta Ysas, Pere, «Movimientos sociales y actitudes políticas en la crisis del franquismo», *Historia Contemporánea*, 8, 1992, 269-279. orr.
- Montgomery, David, *El control obrero en Estados Unidos*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1985.
- Mori, Giorgio, *La revolución industrial*, Bartzelona, Crítica, 1987.
- Muñoz de Bustillo, R. (bild.), *Crisis y futuro del Estado de bienestar*, Madril, Alianza, 1989.
- Nash, Mary, *Mujer, familia y trabajo en España 1875-1936*, Bartzelona, Anthropos, 1983.
- «En torno a las consecuencias sociales de la I Guerra Mundial», *Sociología del trabajo*, 13, 1991, 115-135. orr.
- (arg.), *Presencia y protagonismo. Aspectos de la historia de la mujer*, Bartzelona, Ediciones del Serbal, 1984.



- Nielfa, Gloria, «El mundo asociativo de los dependientes de comercio: Sociedades de carácter gremial en Madrid, 1887-1931», *Melanges de la Casa de Velázquez*, XXII, 1986, 373-399. orr.
- Offe, Claus, *Contradicciones en el Estado del Bienestar*, Madril, Alianza, 1990.  
—*La sociedad del trabajo, Problemas estructurales y perspectivas de futuro*, Madril, Alianza, 1992.
- Olabarri, Ignacio, «El Mundo del trabajo: Organizaciones profesionales y relaciones laborales», in *Historia de España y América. XVI-1 Revolución y Restauración 1868-1931*, Madril, Rialp, 1982, 559-652. orr.
- «Las relaciones de trabajo en la España Contemporánea: Historiografía y perspectivas de Investigación», *Anales de Historia Contemporánea*, 5, 1986, 27-47. orr.
- «Bibliografía selecta de historia social», *Aportes*, 1988, 54-89.
- ¿Lucha de clases o conflicto de intereses? Ensayo de historia de las relaciones laborales*, Pamplona, EUNSA, 1991. orr.
- Palacio Morena, J. I., *La institucionalización de la reforma social en España (1883-1924). La Comisión y el Instituto de Reformas Sociales*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1988.
- Paniagua, Javier, «Una gran pregunta y varias respuestas. El anarquismo español: desde la política a la historiografía», *Historia Social*, 12, 1992, 31-57. orr.
- Paramio, Ludolfo, «Por una interpretación revisionista de la historia del movimiento obrero», *En Teoría*, 8-9, 1981-82, 137-183. orr.
- Parias, P. H. (zuz.), *Historia General del Trabajo*, Bartzelona, Grijalbo, 1965.
- Pérez Ledesma, Manuel, «El proletariado revolucionario y las “revoluciones proletarias”», *Zona Abierta*, 36-37, 1985, 107-127. orr.
- El obrero consciente. Dirigentes, partidos y sindicatos en la II Internacional*, Madril, Alianza, 1988.
- Estabilidad y conflicto social. España, de los iberos al 14-D*, Madril, Nerea, 1990.
- Picó, Josep, «Teorías sobre el «Welfare State»», *Sistema*, 70, 1986, 41-61. orr.
- Piore, Michael J., eta Sabel, Charles F., *La segunda ruptura industrial*, Madril, Alianza, 1990.
- Piqueras, José Antonio, *El movimiento obrero*, Madril, Anaya, 1992.
- Polanyi, Karl, *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*, Madril, La Piqueta, 1989.
- Pollard, Sidney, «Inglaterra: el pionero no revolucionario», *Debats*, 17, 1986.  
—*La Conquista Pacífica. La industrialización de Europa 1760-1970*, Zaragoza, Universidad de Zaragoza, 1991.

- Puig i Valls, Angelina, «Nivell de vida, condicions laborals i mobilització anti-franquista a Sabadell, 1940-1970. Una aproximació des testimonis orals», *Arraona*, 8, 1991, 63-75. orr.
- Quellien, Jean, «Un milieu ouvrier réformiste: syndicalisme et réformisme à Cherbourg à la «Belle Epoque»», *Le Mouvement Social*, 127, 1984, 65-87. orr.
- Ralle, Michel, «La sociabilidad obrera en la sociedad de la Restauración (1875-1910)», *Estudios de Historia Social*, 50-51, 1989, 161-199. orr.
- «Las huelgas antes y después dd 1º de mayo. (Los conflictos españoles entre 1886-1894: La irrupción de la fiesta del trabajo)», *Estudios de Historia Social*, 54-55, 1991, 7-135. orr.
- «La función de la protección mutualista en la construcción de una identidad obrera (1870-1910)», in Castillo, Santiago (bild.), *Solidaridad desde abajo (Trabajadores y Socorros Mutuos en la España contemporánea)*, Madril, Centro de Estudios Históricos de la UGT, 1994, 423-436. orr.
- Rama, Carlos M., *Historia del movimiento obrero y social latinoamericano contemporáneo*, Bartzelona, Laia, 1976.
- Redondo, Gonzalo, *Historia de la Iglesia, III*, Madril, Ediciones Palabra, 1985.
- Rey Reguillo, Fernando del, «La polémica sobre el control obrero. Los orígenes en España», *Sociología del Trabajo*, 8, 1989/90, 135-165. orr.
- Proprietarios y patronos. La política de las organizaciones económicas en la España de la Restauración (1914-1923)*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1992.
- Ritter, G. A., «Los comienzos y el desarrollo del Estado Social en Alemania, Europa y los Estados Unidos hasta la II Guerra Mundial», *Studia Histórica, Historia Contemporánea, VIII*, Salamanca, 1990.
- Rodríguez Labandeira, J., *El trabajo rural en España (1876-1936)*, Bartzelona, Anthropos, 1991.
- Rubio Lara, M<sup>a</sup> Josefa, *La formación del Estado Social*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1991.
- Rudé, G., *La multitud en la historia. Los disturbios populares en Francia e Inglaterra, 1730-1848*, Madril, Siglo XXI, 1979.
- Rule, John, *Clase obrera e industrialización, Historia social de la revolución industrial británica, 1750-1850*, Bartzelona, Crítica, 1990.
- Sánchez Jirnénez, José, «Condiciones de vida y situación social de las clases bajas (1890-1910)», *Historia Contemporánea*, 3, 1990, 75-115. orr.
- Scott, Joan W., «Sobre el lenguaje, el género y la historia de la clase obrera», *Historia Social*, 4, 1989, 81-98. orr.
- Seco Serrano, Carlos, «Los orígenes del movimiento obrero español», *Anales de Historia Contemporánea*, 5, 1986, 11-26. orr.

- Seidman, Michael, «Resistencia proletaria al trabajo: París y Barcelona durante el Frente Popular», *Historia Social*, 3, 1989, 33-59. orr.
- Serna, Justo, «Burguesías: “Tontos racionales”, tipos ideales y precauciones epistemológicas», Valentzia, UIMP, 1992, makinaz idatzia.
- Serralonga, Joan, *La Lucha de clases*, Madril, Eudema, 1993.
- Serrano, Carlos, «Cultura popular/Cultura obrera en España alrededor de 1900», *Historia Social*, 4, 1989, 21-31. orr.
- Sewell, William H., «Los artesanos, los obreros de las fábricas y la formación de la clase obrera francesa, 1789-1848», *Historia Social*, 12, 1992, 119-140. orr.
- Sierra Álvarez, José, *El obrero soñado. Ensayo sobre el paternalismo industrial (Asturias, 1860-1917)*, Madril, Siglo XXI 1990.
- Smith, Adam, *La riqueza de las naciones*, Madril, Alianza, 1994.
- Sombart, W., *El burgués. Contribución a la historia espiritual del hombre económico moderno*, Madril, Alianza, 1986 (4. berrarg.)
- Soto Carmona, Álvaro, *El trabajo industrial en la España contemporánea (1874-1936)*, Bartzelona, Anthropos, 1989.
- Taylor, Arthur J. (bild. eta sarr.), *El nivel de vida en Gran Bretaña durante la Revolución industrial*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1985.
- Tcach Abad, César, eta Reyes, Carmen, *Clandestinidad y exilio: reorganización del sindicato socialista (1939-1953)*, Madril, Editorial Pablo Iglesias, 1986.
- Termes, J., *Anarquismo y sindicalismo en España. La Primera Internacional, 1864-1881*, Bartzelona, 1973.
- Thompson, E. P., *Tradición, revuelta y consciencia de clase*, Bartzelona, Crítica, 1984.
- *La formación de la clase obrera en Inglaterra*, Bartzelona, Crítica, 1989.
- Touraine, Alain: *Historia del trabajo IV*, Bartzelona, Grijalbo 1965.
- Tuñón de Lara, Manuel, *El movimiento obrero en la historia de España*, Madril, Taurus, 1972.
- Van der Linden, Marcel, eta Thorpe, Wayne, «Auge y decadencia del sindicalismo revolucionario», *Historia Social*, 12, 1992, 3-29. orr.
- Vilar, Pierre, *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Bartzelona, Crítica, 1980.
- Villa, Luis Enrique de la, «Nacimiento del derecho obrero en España», in *Actas del I Symposium de Historia de la Administración*, Madril, Instituto de Estudios Administrativos, 1970, 547-600. orr.
- Villacorta, Francisco, *Profesionales y burócratas. Estado y poder corporativo en la España del siglo XX (1890-1923)*, Madril, Siglo XXI, 1989.

- «Las sociedades de la revolución industrial», in *Gran Historia Universal*, Madril, Nájera-Club Internacional del Libro, 1990, IX. lib., 213-225. orr.
- Villar, Juan Bautista, «Carthagene et son district minier. Aux origines du mouvement ouvrier espagnol (1856-1870)», *Melanges de la Casa de Velázquez*, 1986, 345-372.
- Webb, Sidney eta Beatrice, *Historia del sindicalismo 1666-1920*, Madril, Ministerio de Trabajo, 1990.
- ZE*, *Nuevas tecnologías y sociedad (Memoria de las II Jornadas Internacionales de Debate libertario)*, Fundación Salvador Seguí, d.g. (baina Madril, 1990)

Betidanik egin du lan gizadiak. Gizakiaren bizimoduaren oinarritzko elementua izan da lana. Lanean oinarriturik antolatu dira komunitateak, eta hauen ezaugarria izan da lanbideak bereiztea. Lana dela bide izadiarekin "mintzatu" da gizakia, harekin harremanetan jarri da, hura eraldatu eta bere mendera jarri du. Lana dela bide taxutu dira gizonak eta emakumeak, etengabe berritu dute beren buruaz zuten iritzia eta harremanetan jarri dira elkarrekin.

Hori horrela izan da betidanik, baina XVIII. mendea arte gizadiak ez zuen aintzat hartu lana bere gizarte antolabidearen giltzarri zelako ideia. Dudarik gabe, horregatik, lana izan da harrezkero giza zientzien –hasi soziologiatik eta, ekonomiatik eta politikatik pasa ondoren, historiaraino– arretagunea erakarri duen gai kutuna.